

Juno Mac
Molly Smith

PUTA ZIKINAK

Sexu-langileen eskubideen
aldeko borroka

Itzulpena:
Amaia Astobiza Uriarte

Juno Mac eta Molly Smith

PUTA ZIKINAK

Sexu-langileen eskubideen aldeko borroka

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte

Juno Mac eta Molly Smith

PUTA ZIKINAK

Sexu-langileen eskubideen aldeko borroka

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte

Jatorrizko izenburua: *Revolting Prostitutes. The Fight for Sex Worker's Rights*

Egilea: Juno Mac eta Molly Smith

Jatorrizko eskubideak: © Molly Smith and Juno Mac 2018, 2020

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte

Barruko argazkia: Sally T. Buck, Creative Commons 2.0

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2022ko azaroa

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argialetxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko betiere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-73-0

Lege gordailua: NA 2446-2022

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
SARRERA	15
BAT	
Sexua	43
BI	
Lana	67
HIRU	
Mugak	87
LAU	
Arrasto viktoriarra: Britainia Handia	129
BOST	
Espetxe-nazioa: Estatu Batuak, Hego Afrika eta Kenya	167
SEI	
Jendearen etxea: Suedia, Norvegia, Irlanda eta Kanada	201
ZAZPI	
Zirkulu magikoa: Alemania, Herbehereak eta Nevada	249
ZORTZI	
Ez dago konponbide errazik: Aotearoa (Zeelanda Berria)	267
ONDORIOAK	291
ESKER ONAK	309

Columbia St

NO BAD
WHORES
& ONLY
BAD LAWS

FEMME
4
DECE
SUPP

FUCK
THE
NORDIC

EX
IS
BOU





STOP VIOLENCE AGAINST WOMEN

STOP VIOLENCE AGAINST WOMEN

PEASANTS' ASSOCIATION

STANDING TOGETHER FOR SEX WORK SOLIDARITY

Store

ARGITALETXEAREN OHARRA PUTAK, INDARKERIA ETA KAPITALISMOA

Elkarri agur esan diogu eta hitzordua jarri du
aranondoan loreak irekiko direnerako.
Bart gauean haren falta sentitu nuen.
Zutitu eta patiora atera nintzen zuhaitza begiratzeraz.

Wang Wei, XVII. mendeko poeta eta prostituta

Itzulpengintza eskoletan esaten da itzultzaileena eta prostitutena direla ogibiderik zaharrenak, betidanik existitzen direla. Itzultzaileekin ezin da ziur adierazi baina prostitutak askapen mugimendu guztietan egon izan dira. Historia liburuetan ezkutatu egiten da sexu-langileek borroka horietan izan zuten parte-hartzea, emakumeena, kultura zapalduetako pertsonena edota transena zokoratzen den bezala. Ez dago puta izan zen heroirik. Baina prostitutak daude emakumeen askapenaren borrokaren aurreneko kapituluetatik, langile mugimenduaren lehenengo antolakuntza eta barrikadetatik; Mau mau matxindan bezala kolonialismoaren kontrako borroketan, faxismoaren aurkako fronte guztietan eta lgtbi askapenean. Horrez gain, arteari eta kulturari lotutako munduan ere toki nabarmena izan dute putek. Elkarrekikotasun kontu soil batengatik besterik ez balitz ere eman beharko litzaieke agentzia, egin beharko litzaieke tokia, sexu-lanean ari direnei. Une historiko guztietan, ordea, kontrakoa gertatu da, puta izatea –ofizioz ala akusazio soilez– baliagarria izan da pertsonak egozteko feminismo-tik, langile mugimendutik, borroka antkolonialetik eta lgtbi mugimendutik.

Sexu-lana materialtasunetik

Prostituzioaren auziak toki nabarmena hartu du azken urteotan mugimendu sozialetan, hedabideetan eta legebiltzarretan. Hala, emakumeen askapenaren alde jarduten duten erakunde askotan eta mugimendu feministan, oro har, arrakalak ere sortu ditu. Eta argitaratu dira hamaika liburu gaiaren ingurukoak, sarritan lehenengo pertsonan, askotan prentsako kasuekin soilik eraikiak.

Juno Mac eta Molly Smith-en *Puta zikinak* oso bestelako liburu bat da. Azken urteotan feminismotik idatzi den beste liburu batekin alderatzekotan bell hooks-en *Feminismoa denon kontua* darekin egingo genuke. Zergatik? Bada, hartan bezala, honakoan ere, egileen posizio politikoa zein den adierazteaz gain, bikain adierazten duelako zer eztabaida garatu behar diren. Alegia, gaur egun sexu-lanaz hitz egiteko, hiru eremu kontenplatu behar dira: sexua, lana eta errepresioa (legeek, poliziek, epaileek, hedabideek eta atzerri politikak sortzen dutena). Horregatik, aurreneko bi ardatzak banaka aztertu ostean, Mac eta Smithek bost tradizio legal aztertzen dituzte liburuan. Nolakoa legeak halako errealitateak dauzkalako prostituzioak.

Liburu hau ez da zertan adostasunetik irakurri. Liburu hau, euskarara ekarri dugun beste edozein baino gehiago ziurrenik, eztabaidarako material bat da. Egongo dira hasieran planteatzen den karakterizazioarekin bat etorri ez arren, bidean ulertuko dutenak zer logikatik idatzia den –prostituzioan ari diren pertsonen gaineko indarkeria murriztu eta eteteko nahitik –.

Prostituzioa Euskal Herrian

Aitortu berri dugu liburu mordoa argitaratu dela azken urteotan prostituzioaren inguruan: saiakerak, testigantzak, erreportajeak eta abar plazaratu dira, bai, kazetaritzatik bai, teoria politikotik idatziak. Deigarria da, ordea, euskaraz ez dugula izan orain arte prostituzioari buruzko liburu bakar bat ere; bitartean, Nafarroa Garaian, 2.000-2.500 gizon artean doaz egunero putetara. 800 prostituta inguru daude Tuteratik Berara industrialdeetan, putetxeetan, pisuetan.

Liburugintzari begiratuta, sarri gertatu ohi zaigun bezala, gure artean dauden eta lantzen ez diren beste auzietako bat da prostituzioarena. Azken batean, gai arantzatsuak euskaraz ez

zabaltzea gatazkak ukatzeko beste modu bat da. Horregatik dakargu Mac eta Smithen saiakera hau, Amaia Astobizak garden itzulia. Prostituzioaz hitz egitea ez da auzi moral bat, errealitate zehatzetik irakurri behar da, Abiadura Handiko Trenaren kontra egonda ere azpiegitura erraldoi hori eraikitzen ari direnen bizitzak defendatu behar diren bezala.

Ezin dugu prostituzioaz jardun hitz egin gabe kapitalismoaz eta generoaz, poliziaz, migrazio legeez, mugez, higiezin jabetzaz, oinarri-oinarrian klase borrokarengatik sexu-lanean aritzen diren emakumeen eta transen zapalkuntzaz aritu gabe.

Has dadila eztabaida.

Iruñea
2022ko urria

SARRERA

Sexu-langileok toki guztietan gaude.¹ Zure auzokideak gara. Kanean gurutzatzen garenean, gure gorputzek elkar ukitzen dute. Gure haurrak eta zuenak eskola berera joaten dira. Supermerkatuko ilaran, zure atzean gaude zain, haurrentzako janaria eta Pinot Grigio ardo-botila organ hartuta. Sexua saltzen duten pertsonak daude zure lantokiko kafetegian, zure alderdi politikoan, zure ikastetxeko eskolaz kanpoko ekintzen batzordean, zure medikuaren itzarongelan, zure otoizlekuan. Sexu-langileak daude kartzelaturik migratzaileak atxikitzeko zentroetan, eta sexu-langileak daude protestan haien ateetan.

Leku guztietan bagaude ere, jende gehienak oso gutxi daki gure bizitzen errealtateaz. Sexu-langileok jakin-min handia eta eztabaida ugari pizten ditugu herri-kulturaren, kazetaritzaren eta politikagintzan. Langile gisa identifikatzen gaituztenean –kalean, kartelez seinalatutako putetxeetan, mundu digitaletan–,

1 *Sexu-lan* terminoa Carol Leigh sexu-langile eta aktibistak erabili zuen lehenengoz, 1978an. *Sexu-langile* terminoak beren sexu-lana saltzen edo harekin tratua egiten duten pertsonen egiten die erreferentzia. Trukean baliabide bat jasotzen dute; dirua, askotan, baina baita orobat drogak, alkohola edo aterpea. *Sexu-lan* terminoak, definizioz, askotariko sexu-lanak biltzen ditu: *strip-tease* saioak eta ikusizun erotikoak, pornografiaren alorreko lana eta bideokamera aurreko saioak, telefono bidezko sexu-elkarrizketak eta BDSM lana. Halere, liburu honetan batez ere tradizioz prostituziotzat jo izan diren jarduerak izendatzeko erabili dugu. Beste era bateko sexu-lana adierazi nahi dugunean, argi esango dugu. Sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduak ez ditu sexu-langiletzat jotzen negozio horretan diharduten arduradun edo nagusiak. Guk ere ikuspegi bera dugu, eta hori kontuan hartuta erabili dugu *sexu-langile* terminoa. *Sexu-langile* termino politikoa da; beraz, sexuaren negozioan dabilen orok ez du termino hori erabiltzen beren burua argi eta garbi identifikatzeko. Erabiltzen denean, normalean adierazten du hizlariaren ustez sexu-zerbitzuak saltzea lana dela edo izan daitekeela. Beraz, sexu-zerbitzuak saltzea lana denik uste ez dutenek uko egiten diote termino hau erabiltzeari.

gure presentziak deserosotasuna eragiten du. Langile gisa, gero eta ikusgarriagoak gara espazio politikoetan, eta hor ere gure presentziak deserosotasuna eragiten du. Askok nahi dute guk sexua saltzeari uztea, edo, besterik gabe, ziurtatu nahi dute ez digutela begiratu beharko. Baina, nabarmena denez, oso zaila da gu begi-bistatik kentzea, zigor-zuzenbidearen bidez behinik behin.

Prostituzioak adiera ugari ditu, eta sakoneko emozioak azaleratzen ditu. Batez ere, inoiz sexurik saldu ez dutenei gertatzen zaie hori, sexu-salmenta modu sinbolikoan ulertzen dutenei. Prostituzioaren *ideiak* imanak bezala erakartzen ditu lanari, maskulinitateari, klaseari eta gorputzei buruzko galderak; gaiztakeria arketipikoari eta zigorrari buruzkoak; nork «merenzi» duen zer; zer esan nahi duen komunitate batean bizitzeak; zer esan nahi duen norbait komunitate horren mugetatik at bidaltzeak. Prostituzioarekiko jarrerak lotura handia izan dute beti arrazarekin, mugekin, migrazioarekin eta nazio-identitatearekin, batzuetan ageriki, maiz ezkutuan. Sexu-lana ganbera korazatu bat da, non gizarteak bere beldur eta kezkarik larrienak gordetzen baititu.

Beharbada, prostituzioak eragiten dituen galderarik zailenek zerikusia dute gizarte patriarkal batean emakume izateak duen esanahiarekin. Kate Millet idazle feministak erretorika feminista ezaguna aipatzen du, alegia, «emakume guztiak prostitutak dira, ezkontza prostituzioa da».² Sexu-langileek aspalditik azaldu dute, anibalentziaz azaldu ere, zer-nola eragiten dioten elkarri bi prostituzio-mota hauek: metafora gisa ulertutako prostituzioak eta benetako *lantoki* gisa ulertutakoak. 1977an, sexu-langileek gidatutako PROS kolektiboak, *Programme for Reform of the Law on Soliciting* [Prostituzioari buruzko Legea Erreformatzeko Programa], idatzi zuen –Erresuma Batuko *Spare Rib* aldizkari feminista entzutetsuan– zera nahi zuela, emakumeen askapenerako mugimenduak «horri [prostituzioari] buruz osotasunean hausnartu eta eztabaidatzea, eta ez besterik gabe prostituzioa *erabiltzea*», eta azaldu zuen «emakumeen mugimenduak modu bereziki higuinarran erabili duela *prostituta*

2 Millet, K. (1976) *The Prostitution Papers: A Quartet for Female Voice*, New York: Ballantine Books.

hitza etxekoandreei buruz hitz egitean, emakumeen esplotazio-egoerari buruz duten iritzia laburbiltzeko».³ Nabarmendu zuten *prostituta* terminoaren erabilera metaforikoarekiko joera horrek ez ziola ekarpen praktikoa handirik egiten sexu-langileak kriminalizazioaren aurka egiten ari ziren ahaleginari.

Zentzu batzuetan, egoera ez da askorik aldatu. Gaur egun feministek prostituzioarekiko erakusten duten arbuioak ere ez du ezelango zerikusirik pragmatismoarekin. Energia politiko gehiago xahutzen da sexu-lana oztopatzen benetan beharrezkoa dena egiten baino, hots, sexu-langileei laguntza eskaintzen epaiketetatik libratzeko edo bizitza alternatibo bideragarri bat izateko, lan errespetagarri bezain nekezak baino zerbait gehiago eskainita. Ceyenne Doroshow sexu-langile transa bere komunitateko liderra da, eta honela dio: «Laztana, ez baduzu nahi sexu-langileek haien lana egitea, har itzazu zuk lanerako! Har itzazu lanerako, eman irtenbide bat!».⁴

Gu sexua saltzen duten pertsonen segurtasunak eta biziraupenak kezkatzen gaitu. Gure aurretik Doroshowek eta PROS kolektiboak bezala, guk ere alde praktikoa eta materiala dugu ardatz, ez alde sinboliko eta metaforikoa. Sexu-lana ikuspegi horretatik aztertzeak galdera jakin batzuk dakartza berekin. Zer baldintza dira egokienak sexu-lana utzi nahi duenak hala egin dezan? Zer baldintzek bultzatzen dute jendea sexua saltzera, edo zer baldintzek bihurtzen dute sexu-lana haien biziraupenerako aukera bakar? Zerk areagotzen du sexu-langileak enplegatzailearekin negoziatzeko duen ahalmena, eta zerk murrizten? Munduko toki guztietan, sexu-langileek beren burua babesteko estrategiak erabiltzen dituzte: aldameneko gelan lagun bat dutela lan egiten dute, edo kalean dihardutenean talde txikiak eratzen dituzte; ageriki apuntatzen dute bezeroen matrikula-zenbakia, edo nortasun-agiria eskatzen diete, anonimoak ez direla erakusteko. Badu sexu-langileak lankide bati laguntza eskatzea, bezero batek kondoia erabiltzeari uko egiten badio? Zer ondorio ditu poliziari deitzeak, edo kalean haien aurrean tal-

3 Green, V. (1977ko martxoa) «We're not criminals»: Prostitutes organize», *Spare Rib* 56, hemen aipatua: Kinnell, H. (2008) *Violence and Sex Work in Britain*, Oxford, UK: Routledge, 22.

4 Anonimoa («suzyhooker») (2017ko abenduaren 14a) «Black Trans Sex Worker Leaders Reflect On December 17th», *Tits and Sass*, titsandsass.com.

detxotan agertzeak? Zer ondorio du sexu-langilearentzat bezero bat edo bere arduraduna poliziaren beldur izateak? Nork du deportatua eta etxegabetua izateko arriskua, eta zergatik? Liburu honen egileak eta sexu-langileak garen aldetik, era horretako galderak dira gu kezkatzen gaituztenak, jendearen baldintza materialei buruzkoak.

Hau ez da memoria bat

Liburu hau –eta sexu-langileen ezkerreko mugimendu garaikidearen ikuspegia– ez da sexu-lanaz gozatzeari buruzkoa. Liburu honek ez du esango sexu-lanak inor «ahalduntzen» duenik. Gure helburua ez da sexu-askatasunaren inguruko argudiaketa bat osatzea, ezta ere sexu-industriak ustez langileei edo bezeroei autorrealizazio sexualerako bidea eskaintzeko duen gaitasunari buruzko argudioak plazaratzea. Sexu-langileok «gure istorioa» kontatzea espero bada ere, hau ez da memoria bat, eta ez ditugu gure aferak sexualak kontatuko. (Halere, sexu-langileen *\$pread* aldizkariaren sortzaileek lehen alea argitaratzean kazetariei esan zieten bezala, «ez dugu inor berotzeko asmorik, baina jendea edozerekin berotzen da, beraz, beharbada justizia sozialaren alde borrokatzen diren sexu-langileekin ere berotuko da nor edo nor»)⁵ Ez dugu sexua erosten duten gizonekin mugimendu bat sortzeko asmorik. Ez gara etorri bezero «ulerberen» irudia goratzera, ezta edozein bezerok sexurako eskubidea duela esatera ere. Ez gara etorri beste ezeren aurretik eztabaidatzera ea sexu-industria, edo are sexua bera, berez ona edo txarra den.⁶ Era berean –liburuan zehar argituko dugunez–, ez dugu akritikoki aztertzen *lanak* duen esanahia mundu mailako kapitalismo

5 Aimee, R., Kaiser, E. eta Ray, A. (2015) «A short history of *\$pread*», in *\$pread: The Best of the Magazine That Illuminated The Sex Industry and Started a Media Revolution*, New York: The Feminist Press, 20.

6 Kontuan hartuta lan guztien amaiera ikusi nahi dugula, batez ere prostituzioaren izaera feminizatu eta esplotatzailea, sexu-langile ekintzaile ugari «sexu-industriaren abolizionistak» dira. Prostituten Kolektibo Ingelesak esan izan duen bezala, «Funtsean, prostituzioari amaiera emateko antolatzen ari gara [...] Emakumeok gure laguntzarekin sortutako aberastasuna aldarrikatzeko gai garen egunean, bizirik irauteko edo bitzita-maila hobetzeko toki guztietako milioika lagun beren buru, gorputz, denbora eta trebetasunak saltzera behartu dituzten baldintza ekonomikoak, prostituzioak existitzeari utziko dio». Ikus «English Collective of Prostitutes», *Screaming Violet*, 1 2015eko maiatzaren 1a, wewantawomensmag.wordpress.com.

aseezinaren eta bizkor baino bizkorrago areagotzen ari den ingurumen-larrialdiaren testuinguruan.

Batzuetan, sexu-langileen eskubideak aldezen dituztenek esaten dute, beren babesa justifikatzeko, sexu-industria ez dela eremu sexista eta misogino bat; gure ustez, argudio hori ez da egokia. Sexu-industria sexista eta misoginoa da. Ez dugu esaten inork ez duela minik hartzen sexu-lanean, edo kalte horiek oso txikiak direla eta ez direla kontuan hartu behar. Alderantziz, sexu-lanean jendeak jasaten dituen kalteek –hala nola erasoek, esplotazioak, atxiloketek, kartzelatzeek, etxegabeteek eta deportazioak– osatzen dute liburu honen *muina*.

Feministak gara. Emakumeak –nola transgeneroak hala zisgeneroak– daude gure politiken erdigunean, eta, beraz, baita liburu honen erdigunean ere. Genero guztietako pertsonen saltzen dute sexua: gizon transgenero eta zisgeneroek, pertsona ez-bitarrek eta baita genero indigena edo ez-mendebaldetarra dutenek ere, hala nola *hijra*, *fa'afafine* eta bi-espírituak jendeak. Garrantzitsua da hori kontuan hartzea; izan ere, jendearen generoak erabat baldintzatzen du bai haien sexu-lanaren ibilbidea, bai sexu-salmentan izango dituzten bizipenak, bai gainerako bizitza ere. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar sexu-industriak *ba-duela* genero bat: sexua saltzen duten gehienak emakumeak dira, eta sexuaren truke ordaintzen duten gehien-gehienak, berriz, gizonak. Liburu honetan, askotan izendatzen ditugu sexu-langileak emakume gisa, eta bezeroak, berriz, gizon gisa. Badakigu beti-beti ez dela horrela, baina ez da pentsatu behar oharkabean egindako akatsa denik, edo kontuan hartu ez dugunik. Nahita egin dugu hautu hori, zeren eta, gure ustez, erabilera horrek sexu-merkataritzan generoak bizi duen errealitatea islatzen baitu, baita gure politika eta lehenetsun feministak ere.

Baliteke irakurleak prostituzioa hau edo bestea dela «egiaztatzen» duten estatistiken edo zenbakizko datuen zain egotea. Liburu askotan, era horretako argudioak erabiltzen dituzte sexu-industriaren deskriminalizazioaren alde edo kontra egiteko. Datuak erabilgarriak dira, jakina: are ezinbestekoak, hainbat testuingurutan. Esate batera, Osasunaren Mundu Erakundeak zenbakiak behar ditu erabakitzeke nola murriztu dezakeen GIBaren transmisioa sexu-langileen artean. Batzuetan, halere, estatistikei gehiegi begiratuz gero, nolabaiteko «autoritatearen

argumentu» bilakatzeko arriskua dago: norbaitek gauza bat dioen ikerketa-lan bat aipatzen du, beste batzuek beste zerbait dioen beste lan bat aipatzen dute, eta eztabaidaren «irabazlea» oroitzen errazenak diren zenbakiak eskaintzen dituen azterlana da, edo prestigio handieneko aldizkarian argitaratu dena. Ikerketa batzuek kalitate txarra izan dezakete, edo baliteke haien dibulgatzaileek ikerketen edukiak gaizki plazaratu izana, eta denbora asko galtzen da haien sinesgarritasunaren inguruan eztabaidatzen, logika soila eta enpatia erabili beharrean. Sarri askotan, ikusezinak garelako erabili behar izaten dira estatistikak prostituzioaren inguruko eztabaidetan, eta egoeraren azterketa egiteko legitimitaterik ez dugulako. Sexu-langileok agian arrotz eta misteriotsuak dirudigu, eta guk azaleratzen ditugun auziek, berriz, politikoeziak; baina zenbakiak lasaigarriak dira, itxuraz apolitikoak eta ulergarriak.

Bai, zenbakiak erabiltzen ditugu –gure idatzietan eta gure aktibismoan–, baina ez dira gure azterketa-metodoaren parterik garrantzitsuena. Zenbaki giltzarri gutxi batzuk erabiliz sexu-langileen eskubideen aldeko argudioak «egiaztatu» ordez, guk lortu nahi duguna da gure irakurleek enpatiaren bidez hausnartzea, enpatia erabiliz ulertzea zigor-zuzenbideko aldaketek nola eragiten dituzten aldaketak sexua saltzen duten pertsonen pizgarrietan eta portaeretan, baita bezero, polizia, enpresari eta etxejabeenetan ere. Ulertzen baduzu nola aldatzen diren portaera horiek eta zergatik, askoz hobeto ulertuko duzu nola lor daitekeen sexua saltzen duten pertsonen segurtasun handiagoa –edo txikiagoa– izatea zigor-zuzenbidean aldaketak eginez.

Bi minututan politizatu daiteke puta bat

Sexu-langileak lehen feministak dira. Askotan inoren apeten menpeko soiltzat jotzen badira ere, sexu-langileek gizarte-mugimenduak sortu eta osatu dituzte mundu zabalean. Erdi Aroko Europan, prostituzio-etxeetako langileek gremioak osatzen zituzten, eta batzuetan grebak edo kale-protestak egiten zituzten, zertarako eta aurre egiteko botereak ezarritako neurri gogorre, lantokien itxiereri edo lan-baldintza onartezinei.⁷

7 Otis, L.L. (1985) *Prostitution in Medieval Society: The History of an Urban Institution in Languedoc*, Chicago: University of Chicago Press, 61.

XV. mendean, Bavariako udal-batzordeek prostitutak epaitu zituzten, eta emakume haiek adierazi zuten beren jardura *lana* zela, ez bekatua.⁸ 1859an, Zorigaiztoko Bat Gehiago ezizeneko prostituta batek *The Times of London*era idatzi zuen, eta honako hau adierazi: «Nik zuhurtziaz jokutzen dut, eta, aldi berean, zuri eta zure polizia aurre egiten dizuet. Zer egiten duzue zuek hor, hitz arranditsu horiek ahotan hartuta moraltasunari buruz berbetan? Zer da moraltasuna?».⁹ 1917an, 200 prostitutak manifestazio bat egin zuten San Frantzisko-n, eta «Emakumeen Lehen Manifestazioa» deitu izan zaiona egin zuten, prostituzio-etxe gehiago ez ixteko eskatzeko. Manifestazioan parte hartu zuen hizlari batek hitz hauek esan zituen: «Emakume hauetako ia gehienak amak dira edo norbait dute beren ardurapean. Baldintza ekonomikoek bultzatu dituzte bizimodu honetara [...] Ez duzue onik egiten guri aurre eginez. Zergatik ez diezue baldintza horiei aurre egiten?».¹⁰

Elkar zaintzea lan politikoa egitea da. Mugimendu feministaren bigarren olatuan, aitzindari erradikal ugarrak haurrak kolektiboki hazi zituzten, eta, familia-unitate biologikoaren mugak gaindituta, elkar zaindu zuten. Are lehenago, sexu-lan-gileek antzeko ahalegina egin zuten, nahiz eta saio hori ez den askorik zabaldu eta ez den aipatzen historia feministaren ohiko kontakizunetan. XIX. mendean, adibidez, Britainia Handiko eta Irlandako prostitutek elkar laguntzeko komunitateak eratu zituzten, eta diru-sarrerak eta haurren zaintza partekatu. Garai hartako kazetari batek nabarmendu zuenez, «Hemen, arau nagusia da ondasunak partekatzea [...] Garai latzetan, familia bat beste bati laguntzeko prest dago, edo zenbaitek bati laguntzen diote [...] Bakoitzak lortzen duena poltsa komun batean jartzen da, eta diru horrekin hornitzen da habia».¹¹

Era berean, kolonia-garaiko Nairoibiko *watembezi* emakumeek (hots, kaleko emakumeek) elkarrekiko lotura ekonomikoak

8 Roper, L. (1985eko udaberria) «Discipline and Respectability: Prostitution and the Reformation in Augsburg», *History Workshop* 19, 3–28.

9 Agust.n, L. (2012) «Letter from the prostitute that didn't want saving, 1858», *The Naked Anthropologist*, lauraagustin.com.

10 Anderson, L. (2017ko urtarrilaren 25a) «100 Years Ago Today, Sex Workers Marched for Their Rights in San Francisco», *San Francisco Magazine*, modernluxury.com.

11 Luddy, M. (1992) «An outcast community: The "wrens" of the curragh», *Women's History Review* 1:3, 341–55.

eratu zituzten; batek bestearen isunak ordaintzen zituzten, edo batek beste baten oinordetzan uzten zituen bere ondasunak hiltzen zenean.¹² Arrotzentzat ia ikusezina bada ere, baliabideak –dirua, lantokia, baita bezeroak ere– partekatzeke ohitura horrek gaur egun ere badirau, eta aktibismo-molde nabarmena da sexu-langileen artean.

Langileek askotan kolektiboki jarduten dute etxegabetzeak saihesteko edo norbaiti berehalakoan etxebizitza bat eskaintzeko. Askotan, komunitatearen bidez partekatzen dituzten baliabide horiek eratzten dute sexu-langileek duten segurtasun-sare bakarra; adibidez, lanean lapurtzen dietenean edo eraso batek eragindako zauriak osatzeko tarte bat behar dutenean.

Elkar babestea ere ekintza kolektiboaren parte da. 2010ean, zortzi sexu-langile erail zituzten Kenyako Thika hirixkan, eta herrialde osoko beste hainbat sexu-langile haiei laguntzera hurbildu ziren. Phelister Abdalla Kenyako Sexu Langileen Aliantzako antolatzailea da, eta hau idatzi zuen: «Kenyako hainbat tokitako ehunka sexu-langile gerturatu ziren Thikara protesta egitera [...] Gure ahizpak erail zituzten, eta aski zen».¹³ Indarkeriaren amaiera eskatzeko manifestatzen ari zirela ere, poliziaren jazarpena eta kolpeak jasan behar izan zituzten.

Sexu-langileen ausardia eta erresilientzia oso garrantzitsuak izan dira askapenaren aldeko hainbat borrokatu. 1950eko hamarkadan, Kenya kolonia britainiarraren menpekotasunetik askatu zuen Mau Mau matxinadan parte hartu zuten.¹⁴ 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, San Frantziskoko Compton Kafetegiko eta New Yorkeko Stonewall Inn-eko istiluetan parte hartu zuten, zeinaren bidez LGBTQ askapen-mugimendua abiatu baitzen Estatu Batuetan.¹⁵ Gizarte-aldaketa bizkorreko garaietan, langile-klaseko sexu-langileak askotan egoten dira ekintzaren erdigunean. Margo St. James sexu-langile eta aktibistak esan

12 Mgbako, C.A. (2016) *To Live Freely in This World: Sex Worker Activism in Africa*, New York: NYU Press, 92.

13 White, L. (1990) *The Comforts of Home: Prostitution in Colonial Nairobi*, Chicago: University of Chicago Press, 206.

14 Mgbako, C.A., *To Live Freely*, 14.

15 Schlaffer, N. (2016ko urriaren 23a) «The Unsung Heroines of Stonewall: Marsha P. Johnson and Sylvia Rivera», *Femmes Fatales*, sites.psu.edu/womeninhistory; Yaeger, L. (19 August 2016) «Before Stonewall: Remembering the Compton's Cafeteria Riot», *Vogue*, vogue.com.

zuen bezala, «bi minutu baino ez dira behar emagaldu bat politizatzeke».¹⁶

Margo St. James San Frantziskoko bere komunitateko «desbideratu sexual» zorrozki kontrolatuen defendatzaile sutsua zen. «Bada garaia putak antolatzeke», esan zuen elkarriketa batean. «Homosexualak antolatu egin ziren, eta orain polizia beldur da haiek jazartzen jarraitzeke».¹⁷ 1970eko hamarkadan, sexu-langileek ez zuten ia batere tribuna publikorik; St. Jamesek gayen askapenaren aldeko borroka antolatu zuen Harvey Milk-ekin batera, eta bere burua «putatzeke» aurkeztu Rolling Stone aldizkarian, emakumeen sexualitatea estatuaren «motxin-kontrolatik» (*pussy patrol*) askatzeari buruz pentsatzen zuena argi eta garbi azaldu zuenean. COYOTE (*Call Off Your Old Tired Ethics* [Utzi alde batera zuen etika zahar maiztua]) sortu zuen, zeinak lortu baitzuen Kaliforniako sexu-langileek berrogeialdia egin behar ez izatea eta ezinbestean medikatu behar ez izatea, eta berak antolatutako «Hookers Ball» edo emagalduen dantzaldietan 12.000 gonbidatu elkartu zituen, haien artean pertsona entzutetsuak eta politikariak.¹⁸ Aurrerago baieztatuko zenez, eraginkorra izan zen prostituzioa plazeraren eta *queer* pertsonen aldeko politikekin lotzea –1970eko hamarkadako kontrakulturaren testuinguruan–, sexu-langileen eskubideak arretagunean kokatzeko.

1974an, Etiopiako sexu-langileek Etiopiako Sindikatuen Konfederazio sortu berriarekin bat egin zuten, eta gobernu erorarazten lagundu zuen lanuztean parte hartu zuten.¹⁹ Europari dagokionez, 1975. urtea jotzen da mugimendu modernoaren abiapuntutzat; urte hartan, Frantziako sexu-langileek elizak hartu zituzten, kriminalizazioaren, pobreziaren eta polizia-indarkeriaren aurka protesta egiteko. Gertaera hark adoretuta, Londreseko sexu-langileak ere antolatu ziren; 1980an, Prostituten Kolektibo Ingelesak King's Cross-eko elizak okupatu zituen.²⁰

16 Booth, M.L. (1976ko otsailaren 18a) «New Tricks in the Labor Zone», *Harvard Crimson*, thecrimson.com.

17 Chateaufort, M. (2014) *Sex Workers Unite: A History of the Movement from Stonewall to SlutWalk*, Boston: Beacon Press, 47–82.

18 *Ibid.*

19 Prunier, G. (2015) «The Ethiopian Revolution and the Derg Regime» in Prunier, G. eta Ficquet, E. (ed.) *Understanding Contemporary Ethiopia: Monarchy, Revolution and the Legacy of Meles Zenawi*, Londres: C. Hurst & Co, 209–32.

20 James, S. (2012) «Hookers in the House of the Lord» in *Sex, Race and Class, the Perspective of Winning: A Selection of Writings 1952–2011*, Pontypool, Wales: The

Berrikiago, sexu-langileek parte-hartze zabala izan zuten Turkian, Istanbul-eko Gezi Parkearen inguruan gentrifikazioaren aurka egin ziren protestetan.²¹

Erresuma Batuan, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, sexu-langileen eskubideen aldeko mugimendua erabat lotu zitzaion «soldatak etxeko lanentzat» mugimenduari. Feminista marxistek emakumeek etxean eta zeregin erreproduktiboetan egiten zuten lan ordaingabea mahaigaineratu zuten, eta gizartea goitik behera berrantolatzeke eskatu, emakumeen lanari balioa emateko. Garaitsu hartan, 1977an, Wages Due Lesbians [Lesbianei Soldatak Zor] talde feministak etxeko lanak, sexu-lana eta heterosexualitate-lana lotu zituen, drogaren eta kaleko bestelako kontu batzuen kontrako neurri zorrotzak salatzeke egindako adierazpenean: «Han edo hemen emakumeoi zor dizkiguten soldata batzuk irabaztea lortzen dugun aldiro, guztiok indartzen gara, eta erakusten dugu ezin direla gutxietsi emakumeok egindako zerbitzuak».²²

1980ko hamarkadan, sexu-langileen eskubideen aldeko mugimendua gero eta gehiago zabaldu zen nazioartean. Lehen eta Bigarren Emagalduen Kongresuak egin ziren Amsterdam eta Brusela-n, eta sexu-langileak buru zituzten talde berriak sortu ziren Australia, Thailandia, Brasil, Hego Afrika eta Uruguain, besteak beste.

1997an, Durbar Mahila Samanwaya Committee (DMSC) izeneko batzordeak Sexu Langileen Konferentzia Nazional historikoa antolatu zuen Indian, eta 4.000 sexu-langilek parte hartu zuten. 2001ean beste jardunaldi bat egin zuten Kalkutan, eta 25.000 lagunek beren eskaerak jakinarazi zituzten, honelako aldarrikapenekin: «Ogia nahi dugu. Arrosak ere nahi ditugu».²³

Bolivian, 2000ko hamarkadaren erdialdean, herrialde osoko sexu-langileek polizia-indarkeriaren eta beren lantokiak ixtearen aurkako ekintza kolektibo garrantzitsu batzuetan parte

Merlin Press, 110–29.

21 Krajewski, J. (2014ko martxoaren 14a) «Loud and Proud», *Slate*, slate.com.

22 Martin, L.R. (2012) «“All the Work We Do As Women”: Feminist Manifestos on Prostitution and the State, 1977» in *LIES: A Journal of Materialist Feminism* 1, 217–34.

23 «Ogia eta arrosak» eslogana Massachusetts-eko ehungintza-sektoreko emakume langileek 1912an egindako greba batean sortu zen; soldata hobeak ez ezik, errespetua eta lan-baldintza duinak eskatzen zituzten. Ikus R.J.S. Ross, «Bread and Roses: Women Workers and the Struggle for Dignity and Respect», *Working USA* 16 (2013): 59–68.

hartu zuten. «Lan egiteko eskubidearen eta gure familien bizirau-
penaren alde borrokatzen ari gara», esan zuen Gaueko Langileen
El Alto Elkarteko buru Lily Cortez-ek, protesta gisa beren aholak
josi zituzten prostitutez inguratuta. «Berehala kasu egiten ez ba-
digute, bihar geure burua bizirik lurperatuko dugu».²⁴

Batzuek greba egin zuten, eta uko egin zioten sexu-
transmisiozko gaixotasunen proba baitezpadakoak egiteari,
«jazarpenik jasan gabe lan egiteko aukera izan arte».²⁵ Beste
batzuek trafikoa moztu zuten, edo gose-greba egin zuten.²⁶ «Bo-
liviako pertsona ez-maitatuak gara», esan zuen Yuly Perez-ek,
Prostituzio Egoeran dauden Emakumeen Emantzipaziorako Era-
kunde Nazionala izeneko sexu-langileen sindikatuko kideak.
«Erregulartasunez erabiltzen gaituen gizarteak gorrotatu egiten
gaitu, eta gu babesteko obligazioa duten erakundeek ez digute
kasurik egiten... Zain eta muin borrokatuko gara dagozkigun es-
kubideen alde».²⁷

«Ekaitza lehertu zen prostituten eta mugimenduaren artean»

Prostituten feminismo goiztiarra gorabehera, haien eta
mugimendu feminista orokorraren arteko harremana oso tira-
biratsua izan da beti. XIX. mendearen erdialdean, erdiko klaseko
emakumeak lanbideen eremu publikoan agertzen hasi ahala, rol
berri bat asmatu zen, zeinak erdiko klaseko feminitatearen balio
ideal eta ezaugarriak lan ordainduarekin ezkontzen baitzituen.
Hein batean, proiektu feminista gisa uler daiteke, emakume ho-
rien ustezko nagusitasun moralak justifikatu egiten baitzuen
gizartean rol publikoagoa hartzea, hau da, etxetik kanpo lan egi-
tea, ondasunen jabe izateko legezko eskubidea, botoa eta abar.
Baina zaintza-rol profesionalizatuak sortzeak –esate batera, lan
filantropiko eta soziala– ez zituen genero-rolak iraultzen, ezpada
erreproduzitzen. Emakume haiek berretsi egiten zuten klase-hie-
rarkian langile-klaseko jendearen gainetik zuten posizioa, batez
ere emakume langileen eta haurren gainetikoa, haiek izendatu

24 Reuters (2007ko urriaren 25a) «Prostitutes sew lips together in protest», *Reuters*, reuters.com.

25 Friedman-Rudovsky, J. (2007ko urriaren 24a) «Prostitutes Strike in Bolivia», *Time*, time.com.

26 Gall, G. (2016) *Sex Worker Unionization Global Developments Challenges and Possibilities*, Londres: Palgrave Macmillan.

27 Friedman-Rudovsky, «Prostitutes Strike in Bolivia».

baitzituzten «zaintzaren» molde maternalista eta koertzitiboen hartzaile.²⁸

Laura Agustin antropologoak «erreskate-industria» deritzo horrek eragin zuen ondorioari, alegia, sari sozialetan oinarritutako askotariko sistemak, zeinak lotuta baitzeuden prostitutak «erreformatzearekin», haurrak babestearekin eta animaliak erreskatatzearekin.²⁹ (Rol filantropiko mota berri horrek, inplizituki, zaku berean sartzen zituen haurrak, animaliak eta prostitutak, eta horrek erakusten du, nolabait, garai hartan zertzat hartzen zituzten sexua saltzen zuten emakumeak). Erreskate-industriaren bidez, erdiko klaseko emakumeek leku bat aldarrika zezaketen eremu publikoan herritar eta agente politiko gisa –langile-klaseko ahizpen bizkar, zeinen bizitzak gero eta kontrolatuago baitzeuden–.³⁰ 1877an, Haurrekiko Kru-deltasuna Prebenitzeko Elkarte Nazionala (HKPEN) eztabaida batean harrapatua suertatu zen, goi-klaseko familia bat haurren aurkako krudeltasunagatik auzipetu zuelako, lehen aldiz; ordurako, «jada hogeita hemezortzi kasu auzipetu zituen jende pobre eta eskolagabearen artean».³¹ Aldi batez beren interesak bat zetozenean ere –adibidez, 1860ko hamarkadako gaixotasun kutsakorren legeen aurkako protesta komunetan–, sufragistek eta beste feminista batzuek ez zuten lortu sexu-langileak beren parekotzat jotzea. (Oraindik ere, prostituzioaren aurkako aktibismo feminista batzuek animaliak eta sexu-langileak parekatzen dituzte, eta, batzuetan, prostitutak itsu-txakurrekin, maskotekin eta Pokemon-ekin alderatzen dituzte).³²

Feministek sexu-langileen gertutasunarekin sentitzen zuten deserosotasunak goia jo zuen 1980ko eta 1990eko hamar-

28 Millett, *Prostitution Papers*; Agustín, L.M. (2007) *Sex at the Margins: Migration, Labour Markets and the Rescue Industry*, Londres: Zed Books (see especially chapter 4).

29 Millett, *Prostitution Papers*.

30 Gillis, J. (1981) *Youth and History: Tradition and Change in European Age Relations, 1770–Present*, Cambridge, MA: Academic Press, 166–7; Iriye, A. eta Saunie, P. (ed.) (2009) *The Palgrave Dictionary of Transnational History: From the Mid-19th Century to the Present Day*, Basingstoke, Erresuma Batua: Palgrave Macmillan, 45.

31 UCL Bloomsbury Project (2011) «Society for the Prevention of Cruelty to Children – History», ucl.ac.uk/bloomsbury-project/institutions/nsppc.htm.

32 Vegan Feminist Network (2015eko martxoaren 13a) «A Feminist Critique of “Service” Dogs», veganfeministnetwork.com; Vegan Feminist Network (2015eko otsailaren 1a) «The Reality of Sex Trafficking in the U.S. and Women-Positive Alternatives to LUSH Cosmetics», veganfeministnetwork.com; Williams, J. (2016ko abenduaren 2a) «Why is Pokemon Go like prostitution?» *Nordic Model Now!*, nordicmodelnow.org.

kadetako «sexu-borrokak» zirelakoekin. Garai hartan, feminista erradikalek «sexuaren aldeko» feministei aurre egin zieten, pornografiari eta prostituzioari zegokienez.³³ Feminista erradikalen ikuspegiaren arabera, sexu-lanak emakumeen aurkako indarkeria patriarkala erreproduzitzen du (eta horren produktua da). Analisi hori sexu-portaera heterosexual guztietara zabaldu zitekeen, baita sexu publikora eta perbertsiora ere (azken horri BDSM deitu ohi zaio, hau da, «*bondage*, dominazioa, sumisioa eta masokismoa»).

Garai hartan, pornoazentsuratzea eta «jendea kontzientziaztea» zen garrantzitsuena, ez prostituzioari zigor-zuzenbidearen bidez zuzenean aurre egitea; eta, halere, mugimendu feministan ohiko bihurtu zen prostituzioaren aurkako jarrera sutsua izatea. Janice Raymond idazleak zioen «prostituzioa bortxaketa ordaindua» dela, eta Kathleen Barry-k, berriz, sexua erosi eta saltzeak «giza bizitza suntsitzen» duela.³⁴

Horri erantzunez, pornoaren eta prostituzioaren aldeko mugimendua sortu zen, zeinak aldarrikatzen baitzuen sexu-askapena sexu-adierazpen ez-normatiboen bidez erdietsiko zela, hala nola BDSM praktiken bitartez eta gay- eta lesbiana-identitateak «queer» bilakatzearen bidez. «Sexuaren aldeko» feministen edo feminista «erradikal sexual» ugariren ustez, pornoak, atsegingarria eta hezigarria izateaz gain, emakumeen sexu-adierazpenaren gaineko kontrol patriarkala amaitzea ekar zezakeen.³⁵ Are gehiago, sexu-industria ezkontzaren instituzioari burla egiten ari zitzaion, heteronormatibitate monogamo kontserbadorearen hipokrisia azpimarratuz. Sexu-askapenaren alde borrokatu ziren batzuk sexu-langileak ziren –adibidez, Amber Hollibaugh, LGBTQ komunitatearen aldeko eta hiesaren aurkako ekintzailea–, baina erradikal sexual ugarik sexu-langileekin zerikusirik ez zuen ikuspuntu batetik jaurtitzen zituzten beren argudioak. Askotan, pornoa defendatzeak esan nahi zuen pornoa ikustea defendatzea, ez pornoaren antzezpena babestea.

33 Phipps, A. (2017) «Sex Wars Revisited: A Rhetorical Economy of Sex Industry Opposition», *Journal of International Women's Studies* 18:4, 306–20.

34 Raymond, J.G. (1995eko abenduaren 11) «Perspective on human rights: Prostitution is rape that's paid for», *Los Angeles Times*; Barry, K.L. (1995) *The Prostitution of Sexuality*, New York: NYU Press, 70.

35 Ikus Willis, E. (1979/1992) «Lust horizons: Is the women's movement pro-sex?» in *No More Nice Girls: Countercultural Essays*, Minneapolis: University of Minnesota Press, 3–14.

Eradikal sexualak zirela eta, feminista erradikalek zioten sexualitate maskulinoaren nagusitasunari men egiten dion «osaba Tom»³⁶ ziruditela. Era berean, erradikal sexuak puritanismo sexuala babestearekin tematutako santujaletzat³⁷ seinalatzen zituzten feminista erradikalak. Arreta sexu-lanaren «lanean» jarri beharrean, bai sexuaren aldeko feministek bai prostituzioaren aurkakoek *sinbolo gisa* ulertzen zuten sexua. Bi taldeetako emakumeek zalantza egiten zuten zer eragin ote zeukan sexu-industriaren existentziak haiek emakume gisa zuten posizioan; hau da, bi taldeentzat galdera horiek ziren zalantza nagusiak, eta alde batera uzten zituzten sexu-langileen komunitateetan jardunez haien bizitzetan egin zitezkeen hobekuntza materialak. Sexuaren eremuan erroturik, eta prostituzioa emakumeentzat «ona» ala «txarra» den erabaki ezinik –eta bata ala bestea soilik izan daitekeela tematuta–, feministentzat erraza zen Prostitutak soilik berentzat –eta ez beste inorentzat– izan zezakeen esanahiaz gogoetatzea. Beren esperientzia propioek zentzu bat izan zezaten, sexu-langileen esperientziak ere pro-piotzat aldarrikatzen zituzten.

Prostituzioaren aurkako aktibista Dorchen Leidholdt-ek bulkada feminista horri buruz hitz egin zuen: «Desindibidualizatu eta dehumanizatutako izaki honek emakume generikoa ordezkatzeko funtzioa du [...] Gu guztiok ordezkatzeko gaitu, eta gu borrokatzen hasiak garen abusua jasaten du».³⁸ Testuinguru horretan, Andrea Dworkin prostituta ohiaren obrak eragin handia izan zuen mugimenduan, eta beste hizkera bat txertatu zuen sexu-lanaren aurkako kritikan. Prostitutak, esan zuen,

36 «Osaba Tom» terminoak Harriet Beecher Stowe idazlearen 1852ko *Osaba Tomen etxola* eleberrian du jatorria, eta era honetako pertsonak deskribatzeko erabiltzen da: esaneakoak, otzanak, ordena nagusi zapaltzaile bati emozionalki lotuak edo «beren burua salduak». Nobela argitaratu zenean, zenbaitek aurrerakoitzat jo zuten; halere, «osaba Tom» terminoak Beltzen kontrako karrikatura bat irudikatzen du, eta, gaur egun, Beltzen kontratokatzen jotzen da. Ikus Alison Phipps, «Sex Wars Revisited: A Rhetorical Economy of Sex Industry Opposition», *Journal of International Women's Studies* 18:4 (2017), 306–20.

37 Ferguson, A. (1984) «Sex War: The Debate between Radical and Libertarian Feminists», *Signs* 10:1, 106–12; Chancer, L.S. (2000) «Pornography to Sadomasochism: Reconciling Feminist Differences», *Annals of the American Academy of Political and Social Science* 571, 77–88.

38 Leidholdt, D.(1993) «Prostitution: A violation of women's human rights», *Cardozo Women's Law Journal* 1:1, 133–47.

[...] emakume zikina izatearen errealitate literala bizi du. Ez dago metaforarik. Zikinkeriaz estalitako emakumea da, eta horrek esan nahi du inoiz haren gainean egon den gizon orok bere zati bat utzi duela han... Emakume hau –eta ongi gogoratu esango dudana, erreala baita– baginako lerdetzat jotzen da, eta halakotzat tratatzen.³⁹

Bere idazkera polemikoak –eta sexuaren salerosketan zuen esperientziak– sexu-langileei eta haien gorputzei buruzko eztabaida «feministetan» antzeko hizkuntza grafiko eta misoginoaren erabilera legitimatzen eta normalizatzen lagundu zuen. Barryk, zeina Dworkinen garaikidea baitzen, prostitutak panpina puzgarriekin alderatu zituen, «sartzeko eta eiakulatzeke zuloekin hornituak»; ostera, Leidholdtek beste hau idatzi zuen: «Arrotzek listuontzi gisa erabiltzen dute bere gorputza [...] Zer beste lanpostu dago horren feminizatua, ezen norberaren bu-larrak, bagina eta ondestea baitira lanerako tresnak?».⁴⁰ Cecilie Høigård eta Liv Finstad unibertsitate-irakasleek hau idatzi zuten sexua saltzen duten emakumeei buruz: «Muinean, emagaldu merke soiltzat jotzen dute beren burua».⁴¹

Sexu-lanean diharduten feministak aspalditik izan dira krudelki baztertuak, ez bakarrik akademiaren hizkuntza deshumanizatzailaren ondorioz, baizik eta baita haiek espazio feministetara ez gonbidatzeko nahi esplizitu bat izan delako. Kate Milletek prostituzioari buruzko biltzar feminista bat du go-goan, 1971koa. Emakume langile atsekabetuek ere biltzarrean parte hartzeko eskaera egin zuten:

Zuhurtziarik gabeko presaren nahigabeko maisulana balitz bezala, egun hartako egitarauaren izenburua panfletoetan idatzia zetorren, denok ikus genezan: «Prostituzioaren amaierarantz». Adituen zerrendan denetarik zegoen, prostitutak izan ezik... Egundokoa sortu zen prostituten eta mugimenduaren artean. Izan ere, itxura guztien kontra, prostitutak ere joan ziren biltzarrera... Askok zuten esateko emakume heterosexualek presuntzioei buruz, zeinek uste baitzuten beren egoerari buruz hitz egin, erabaki eta are eztabaidatu ere egin zezaketela, ez gureari buruz.»⁴²

39 Dworkin, A. (1993) «Prostitution and Male Supremacy», *Michigan Journal of Gender and Law* 1:1, 1–12.

40 Leidholdt, D., «Prostitution: a violation of women's human rights».

41 Høigård, C. eta Finstad, L. (1992) *Backstreets: Prostitution, Money, and Love*, Cambridge: Polity Press, 114–15.

42 Millett, *Prostitution Papers*.

Feminismo erradikalak etsaitasunez hartzen zituen sexu-langileak; erradikal sexualak, berriz, abegitsuak eta lagunkoiak ziren haiekin. Harreman hori lagungarria izan zen mugimenduaren hazkundera itxuratzeko. 1974an, COYOTE mugimenduak Lehen Emagalduen Biltzar Nazionala antolatu zuen. Panfletoaren kolore laranja biziak keinu egiten zion prostitutak mugimendu feministatik baztertu izanari; irudian, esku batek bulba bat ukitzen zuen, eta honela zioen: «Gure biltzarra desberdina da: mundu guztia etortzea nahi dugu».⁴³

Hurrengo hamarkadetan, hainbat defendatzailek, hala nola Amber Hollibaugh eta Annie Sprinkle-k, baita Kathleen Hanna eta Amber Rose-k ere, sexualitatea sexu-langileen gaiekin lotu izan dute. Sexu-langile ugari GIB/hiesaren eta LGBTQ komunitatearen mugimenduetan lan egin dute, eta ondoko ekimen hauetan parte hartu dute: riot grrrl, SlutWalk, onespeneri buruzko kontzientziazioa, sexu-heziketa eta polimaitasuna.

Halere, 2. atalean sakonago aztertuko dugun bezala, sexu-positibotasuna kaltegarria izan daiteke sexu-industriaren benetako baldintzei buruzko elkarrizketa bati ekiteko. Langile-klaseko sexu-langileak eta sexu-langile beltzek luzaz kritikatu dituzte politika horien arraza- eta klase-privilegioak: ez dira gauza bera lan-eskubideak eta laneko segurtasuna, batetik, eta plazera, bestetik; eta, ziurrenik, lanean sexuaz gozaten dutenak beren lan-baldintzen gaineko ahalik eta kontrol handiena dutenak dira.⁴⁴ Interneten garaian, prostituzioari buruzko elkarrizketa azkar zabaldu da, eta konplexuago bihurtu; arreta sexu-positibotasunean jarri da, eta, sexu-langileen ustez, horren arrazoia da komunikabideek prostituten irudi estigmatizatzaileak erakusten dituztela.⁴⁵

Azken urteotan, aldaketa nabarmena gertatu da sexu-langileen mugimenduan; «emagaldu zoriotsuaren» mito babesleetatik, lanean ardaztutako azterketa marxista-feminista bateranzko bidea egin du.⁴⁶ Bizirik iraun duten sexu-langileek

43 Chateauvert, *Sex Workers Unite*.

44 Lockett, G., Lawson, M., Irie, J., Gold, G., B, Hima., Aarens, B. (1997) «Showing Up Fully; Women of Colour Discuss Sex Work» in Nagle, J. (ed.) *Whores and Other Feminists*, New York: Routledge, 209.

45 Mann, S. (2014) «More Than Survival Strategies: Sex Workers» Unhappy Stories», Athabasca University, Alberta (masterreko tesia).

46 Ray, A. (2013ko martxoaren 31) «Why the Sex Positive Movement is Bad for Sex

(aurrerantzean, «bizirauleak» ere deituko diegu) mugimenduan duten parte-hartzea areagotu dute, eta indarkeriarekin eta kriminalizazioarekin izandako bizipenak kontatuz ekin diote aktibismoari.

Prostituzioaren aurkako ekintzaileek ere feminismora jotzen dute maiz, indarkeriari aurre eginez bizi izan dituzten gertakizunek bultzatuta. Askotan, oso gertu sentitzen dituzte prostituzioari biziraun ondoren kriminalizazioaren alde dauden emakumeak, «irtendako emakumeak» ere baderitzenak. Indarkeriazko kontakizun latzen bidez –eta sexua erosten duten gizonak zigortzearen aldeko jarrera irmoarekin–, «irtendako emakumeak» emakume zaurituaren ikur nagusitzat jotzen dira, eta bezeroen kriminalizazioa, berriz, justizia feministaren ikurtzat.

Prostituzioaren «jabetzaren» inguruan feminista ugari duten sentimendu horrek eztabaida pizten du: nor du sexu-langile gisa edo gure izenean hitz egiteko eskubidea? Prostituzioaren aurkako feministek esan ohi dute sexu-langile aktibistak ordainpeko konplizeak direla, nagusi esplotatzaileen estalgarri ez-legitimoak; mespretxuz, «lobby proxeneta» deitzen diete.⁴⁷ 2009an, sexu-langileek protesta-ekintza bat egin zuten Frantziako senatuaren aurrean, eta politikari batek «prostitutatuz mozorrotutako proxeneta» izendatu zituen.⁴⁸ 2016an, prostituzioaren aurkako Ruhama erakunde irlandarrak barne-mezu elektronikoko batzuk bidali zizkion gura barik kazetaritza-ikasle bati. Haietan, zuzendari nagusiak iradokitzen zuen ezen kazetari gazteak artikulu kritiko bat idatziz gero Ruhamak «pentsamendu proxenetatzat» jo ahal izango zuela. Ruhamak, bete-betan harra-patuta, barkamena eskatu behar izan zuen.⁴⁹

Amnesty International erakundeak iragarri zuenean sexu-langileen politika babesteko asmoa zuela, prostituzioaren

Workers» Rights», Audacia Ray bloga, audaciaray.tumblr.com.

47 Mullin, F. (2015eko otsailaren 11) «Sorry, UK Sex Work Protesters, There's No Such Thing as a "Pimp Lobby"», *Vice*, vice.com.

48 Europako Sexu-langileen Eskubideak Babesteko Nazioarteko Batzordea (2016ko martxoa) «Feminism Needs Sex Workers, Sex Workers Need Feminism: Towards a Sex-Worker Inclusive Women's Rights Movement», Intersection briefing paper #2, sexworkereurope.org.

49 Flynn, J. (2016eko apirilaren 22a) «The Church's Lingering Shadows on Sex Work in Ireland», *University Times*, universitytimes.ie.

aurkako feministek kanpaina handi bat egin zuten, eta sare sozialak #NoAmnesty4Pimps [#AmnistiariEzProxenentzat] hashtagarekin bete zituzten.⁵⁰ Amnistiaren logotipo ezaguna Photoshop programarekin aldatu zuten, eta kandelaren ordez bi esloganen gainean eiakulatzen ari zen zakil bat jarri zuten: «Babestu gizonen orgasmoa» eta «Babestu gizonen duten eskubidea klase prostituitu bat izateko».⁵¹

Sexu-langileen eskubideek gizonen interesekin bat egin dute irudimen feministan, eta, horren eraginez, emakume ez-prostitutek erraz dute gugandik aldentzea. Prostituzioaren aurkako ekintzaile Fin Mackay-k idatzi bezala, «Alde bat aukeratu behar dugu behingoz, zeren “sexu-industria” milioiz okituari ezin hobeto doakio, ez du behar gure laguntzarik, eta, zalantzarik gabe, ez du behar gure babesik».⁵²

Gaur egun, prostituzioaren aurkako mugimenduaren helburu nagusia da bezeroei zigor gogorragoak jartzea, horren bidez sexu-lana desagerrarazteko. Mugimendu hori, neurri handi batean, jada sexurik saltzen ez duten emakumeek eta sekula sexurik saldu ez dutenek osatzen dute, eta, halere, beste pertsona batzuek orain sexua saltzeko dituzten baliabideak desagerrarazteko kanpainak egiten dituzte. Haietako oso gutxiri eragingo diete materialki prostituzioaren alorreko politikek.

Biziraule, sexu-positibista, erradikal, liberal, marxista eta punitibistek prostituzioaren aurreran hartzen dituzten jarrerak beti bezain zatikatuak daude. Bai prostituzioaren aurkako feministak bai sexu-langileak beren ikuspegieta tematzen dira, beren aurkakoekiko enkontru traumatizatzaileen kontrako babes gisa, biak sinisturik bestea etsaia dela. Eztabaida biziak izaten dituzte, zeinen ardatzak izaten baitira «ezinbestekotasuna» eta «aukera», sexura bideratutako emakumeen salerosketa eta pobreziaren eta patriarkatuaren intersekzioak. Jendaurrean

50 Amnesty International (2015eko abuztuaren 11) «Global movement votes to adopt policy to protect human rights of sex workers», [amnesty.org](https://www.amnesty.org).

51 Adibide batzuk: Alabama Whitman (@lunarfish1524) Twitter, 6:07 a.m., 2015eko urriak 23; Liberation Language (2014ko urtarrilaren 30a) «Amnesty International for Traffickers of Women», *Liberation Language*, liberationlanguage.wordpress.com; Mix, J. (2015eko abuztuaren 19a) «On Prostitution, Turn», Medium (@JonahMix), medium.com.

52 Mackay, F. (2013ko ekainaren 24a) «Arguing against the industry of prostitution: Beyond the abolitionist versus sex worker binary», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

hitz egitera ausartzen diren sexu-langile urriek beren bizipenen kontakizun mugatuak egiteko presioak jasaten dituzte. Eta, gure istorioak edozelan partekatzen ditugula ere, gure ideologia ahultzeko eta elkarriketa konplexuagoak saihesteko aitzakia gisa «emagaldu zoriontsura» jotzen duten haiek gure mugimendua erasotzen jarraitzen dute. Azken finean –edozein emakumek dakien bezala–, ahalegin handia egin behar da zure ahotsa entzunarazteko baldin eta zure aurkariak «urdangatzat» seinalatu ahal bazaituzte.

Poliziak, mugak eta feminista punitibistak

Askotan aipatzen da polizia-zaintza dela –mugaldeko-zaintza barne– prostituziorako «irtenbidea». Baita ezkerrekoen artean ere. Nolanahi ere, azpimarragarria da zer eduki gutxi aurkituko duzun poliziari eta mugei *buruz* eztabaida horietan. Omisio horien ondorioz, badirudi posible dela sexu-lana arautzen duten legeez berba egitea eztabaidatu gabe *nola* ezartzen diren arau horiek eta *nor* ezartzen dituen. Baina legeak ez dira «mezu» hutsak; legeek zehazten dute zer egin dezaketen poliziek munduan.

Irudi luke polizia-zaintzaz eta mugez arduratzen diren erakundeak berezkoak edo saihestezinak direla, baina asmakizun berriak dira. Haien forma modernoak XIX. mendekoak dira, eta haien historiari begiratzeak oraina hobeto ulertzen laguntzen du.

Ameriketako Estatu Batuen hegoaldean, lehen polizia-erakunde zentralizatu eta espezializatuak esklaboen patruilak izan ziren, eta haien egiteko nagusia zen ihes egiten zuten esklaboak atzeman eta zigortzea. Eskualde hartako historialariek argudiatzen dute «Estatu Batuetako polizia-erakunde modernoak aitzindaritzat» jo behar direla.⁵³

XIX. mendearen hasieran, Estatu Batuen iparraldean eta Erresuma Batuan polizia-indar profesionalak ezarri ziren, lan- eta bizi-baldintza txarren aurka antolatzen ari ziren langile-klaseko herritar geldigaitzei aurre egiteko. David Whitehouse historialariak aaltzen duen gisan, estatuak baliabideren bat

53 Turner, K.B., Giacomassi, D. eta Vandiver, M. (2006) «Ignoring the Past: Coverage of Slavery and Slave Patrols in Criminal Justice Texts», *Journal of Criminal Justice Education* 17:1, 181–95.

behar zuen gero eta ugariagoak ziren jendetzak, protestak eta grebak kontrolatzeko, betiere «armada bidali gabe»; izan ere, langile-klaseko martirrak sortzeko eta biztanleak are gehiago erradikalizatzeko arriskua zegoen.⁵⁴ Halandaze, polizia eratu zen *indarkeria ez-hilkorra* ezartzeko oro har eta, hala, kapitalismoaren eta estatuaren interesak babesteko. Gaur egun ere, egoera ez da oso desberdina; poliziak «McDonald's konpainiako presidentearen baimena» argudiatzen du soldata hobeak lortzeko xedez protestan ari diren jatetxe-langileak atxilotzeko.⁵⁵

Gaur egungo immigrazio-kontrolak ere XIX. mendearen ondorio dira neurri handi batean. Oinarrian zera dute, arrazagutxiagotasunari buruzko ideiak, zeinak europar zuriek zabaldu baitzituzten, esklabotza eta kolonialismoa justifikatzeko. 1880 eta 1890eko hamarkadetan, Britainia Handira iritsi ziren errefuxiatu juduei antisemitismo-agerraldi batek egin zien ongiatorri; garai hartan, juduen aurkako panfletoek zioten «esklabo zurien trafikoa [egiten zutela] leku guztietan [...] juduek».⁵⁶ Izu arrazista haren ondorioz, 1905ean Atzerritarren Legea onartu zen, zeinetan Britainia Handiko immigrazioaren aurkako lehen neurriak jaso baitziren.⁵⁷ AEBn, hauek izan ziren, besteak beste, immigrazioaren alorreko lehen murrizketa federalak: 1875eko Page-ren Legea, 1882ko Txinatarrak Kanporatzeko Legea eta 1888ko Scott-en Legea. Lege haiek txinatarrak zituzten jomuga, batez ere sexu-langileak, eta baliabide ugari erabili zituzten emazteak eta prostitutak bereizteko.⁵⁸

Arazismoarekin batera, sexu komertzialarekiko kezka ere badago txertatuta immigrazio-kontroletako gertakizunetan. Izan ere, kontrol horiek espazio legegileak dira, non arrazak eta generoak bazterketa-kategoria arrazistak ekoizten baitituzte biek bietara: gizon beltzak, trafikatzaille; emakume beltzak, babesgabe, seduktore, kutsakor; bi-biak nazioaren gorputz po-

54 Whitehouse, D. (2014ko abenduaren 24a) «Origins of the police», libcom.org.

55 Rushe, D. (2017ko martxoaren 1a) «Police say they were "authorized by McDonald's" to arrest protesters, suit claims», *Guardian*, theguardian.com.

56 Hayter, T. (2004) *Open Borders: The Case Against Immigration Controls*, Londres: Pluto Press, 25.

57 *Ibid.*, 36–43.

58 Luibh.id, E. (2002) *Entry Denied: Controlling Sexuality at the Border*, Minneapolis: University of Minnesota Press, 41.

litikoaren mehatxari.⁵⁹ Historia horien bidez ohartzen gara polizia-indarkeria eta mugaldeko bortxa ez direla ezohikoak, ez direla «sagar ustel» gutxi batzuen lana; erakunde horiek berezkoa dute indarkeria.

Beraz, mugimendu feministak eszeptiko agertu behar luke polizia edo immigrazio-kontrolatan oinarritzen diren edo haiek are gehiago indartzean dituzten genero-justiziaren ikuspegiak. Feminista beltzek, hala nola Angela Davis-ek, feministek poliziarekiko duten menpekotasuna kritikatu dute luzaroan, eta adierazi dute poliziekin harremanik txikiena duten pertsonentzat haiek direla babeslerik onberenak. Sexu-langileentzat eta beste talde marjinatu eta kriminalizatu batzuentzat, ostera, polizia ez da babesaren ikur, baizik eta zigorraren eta kontrolaren adierazpen erreala.

Poliziaren boterea gogoz onartzen duen feminismoari *feminismo punitibista* [carceral feminism] deritzo. Elizabeth Bernstein soziologoa izan zen esamolde hori erabiltzen lehenetakoa, eta «ordena publikoaren agenda» lehenesten duen ikuspegi feminista adierazteko baliatzen du; «ongizate-estatutik espetxe-estaturako» aldaketa, «helburu feministak ezartzeko aparatu gisa ulertuta».⁶⁰ Feminismo punitibista batez ere polizia-zaintzan eta kriminalizazioan oinarritzen da emakumeei justizia eskaintzeko.

Feminismo punitibistak arrakasta izan du, nahiz eta polizia den –eta zigor-arloko justiziaren sistema, oro har– emakumeen aurkako indarkeriaren arduradun nagusia. AEBn, poliziek ezohiko probabilitatea dute beren bikotekideak edo seme-alabak bortxaz edo indarkeriaz tratatzeko.⁶¹ Lanean, ezin konta ahal eraso, bortxaketa eta jazarpenen egileak dira.⁶² Estatu Batuetan, sexu-erasoa da polizia-indarkeria salatuenetan bigarrena (indarkeriaren gehiegizko erabileraren atzetik), eta lanean ari diren

59 *Ibid.*

60 Bernstein, E. (2007) «The Sexual Politics of the “New Abolitionism”», *Differences* 18:3, 128–51. Ikus baita Bernstein, E. (2010) «Militarized Humanitarianism Meets Carceral Feminism: The Politics of Sex, Rights, and Freedom in Contemporary Antitrafficking Campaigns», *Signs* 36:1, 45–71.

61 Bianco, M. (2014ko abenduaren 19a) «One Group Has a Higher Domestic Violence Rate Than Everyone Else – And It's Not the NFL», *Mic*, mic.com.

62 Laville, S. (2015eko ekainaren 14a) «Woman strip-searched and left naked wins damages from Met police», *Guardian*, theguardian.com.

poliziek bikoiztu eta gehiago egiten dituzte AEBko biztanleria orokorraren sexu-erasoen portzentajeak.⁶³ Eta horiek estatistiketara iristen diren erasoak baino ez dira; asko ez dira sekula ausartuko erasotzaile bat lankideen aurrean salatzerara. Bitartean, polizia-lanaren izaerak indarkeria erabiltzea dakar berekin: bai jendea atxilotzean, bai espetxeratzeetan, zaintza-lanetan eta deportazioetan laguntzen dutenean. 2017an, iskanbila handia sortu zen Erresuma Batuan, azaleratu zenean polizia metropolitarrak emakume bat atxilotu zuela immigrazio-karguekin, nahiz eta bortxaketa baten biktima gisa gerturatu zen haiengana.⁶⁴ Edoze-lan ere, ohikoa da poliziak sexu-langile migratzaileei atxilotzeko edo deportatzeko mehatxuak egitea, baita langile horiek indarkeriaren biktima gisa hurreratzen zaizkienean ere.⁶⁵

Feminismo punitibista maiz azaltzen da sexu-salerosketa-ri buruzko debateetan. Horietan parte hartzen duten feministek esaten dute «polizia-aparatua indartu behar dugula»;⁶⁶ kriminalizazioa sexu-salerosketa desagerrarazteko «bide bakarra» dela;⁶⁷ eta, nolabait ere, kriminalizazioa pixka bat «onbera» izan daitekeela.⁶⁸ Are gehiago, Catherine MacKinnon prostituzioaren aurkako feministak prostitutentzako «kartzelaldi labur» bati buruz idatzi du –eta proposamen horrek harrera anibalentea izan du–, argudiatuz espetxea «proxenetengandik eta kaletik» atsedean hartzeko aukera bat izan daitekeela. Gogaide dituen feministak aipatzen ditu, zeinek argudiatzen baitute «kartzela tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako egoitzen antzekoena dela prostituzioan diharduten emakume askorentzat» eta, «beste babeslekurik ezean, espetxeak aterpe seguru bat eskaintzen diela aldi baterako».⁶⁹

63 Packman, D. (2011ko apirilaren 5a) «2010 NPMSRP Police Misconduct Statistical Report», National Police Misconduct Reporting Project, policemisconduct.net.

64 Bloomer, N. (2017ko azaroaren 28a) «Woman reports rape to police – and is arrested on immigration charges», Politics.co.uk.

65 Corvid, M. (2016) «London's Romanian Sex Workers Are Worried That Brexit Would Screw Them», *Vice*, vice.com.

66 Eigendorf, J. eta Neller, M. (2013) «Nur eine Welt ohne Prostitution ist human» [Prostituziorik gabeko mundu bat bakarrik da gizatiarra], *Welt*, welt.de.

67 Bindel, J. (2016ko uztailaren 13a) «Decriminalising the sex trade will not protect its workers from abuse», *Guardian*, theguardian.com.

68 Bindel, J. (2017) *The Pimping of Prostitution: Abolishing the Sex Work Myth*, Londres: Palgrave Macmillan.

69 MacKinnon, C.A. (2011) «Trafficking, Prostitution, and Inequality», *Harvard Civil Rights-Civil Liberties Law Review* 46, 271–309.

Sexu-langileak ez datoz bat atxilotetaren eta kartzelatzearen ikuspegi nahita goxatu horrekin. Norvegiako sexu-langile batek hala ziotsen ikertzaile batzuei: «Bezero bat gaiztoa bada, zure kabuz konpondu behar duzu azkeneraino. Hilko zarela uste baduzu soilik deitzen diozu poliziarri. Poliziarri deitzen badiozu, dena galtzeko arriskua duzu».⁷⁰ Kirgizistan, Ukraina, Siberia, Lituania, Mazedonia eta Bulgariako sexu-langileentzat ere, polizia beste edozein talde baino arriskutsuagoa da beren segurtasunarentzat, Sexu-langileen Eskubideen aldeko Sareak (SWAN, *Sex Workers' Rights Advocacy Network*) egindako ikerketa baten arabera.⁷¹ 2017an, New Yorken, Yang Song izeneko emakume bat isilpeko operazio batean harrapatu zuten, lantoki zuen masaje-aretoan. Bi hilabete lehenago, prostituzioa egotzita atxilotu zuten; eta, berriki, polizia zela zioen gizon baten sexu-erasoa jasana zen. (Argitu gabe dago polizia ote zen).⁷² Polizia bere bila itzuli zen, berriz ere prostituzioagatik atxilotzeko, eta emakumea laugarren pisuko leiho batetik erori zen, edo salto egin zuen, edo bultzatu zuten. Yang Song hil egin zen.⁷³

Hitz egiteari eta entzuna izateari buruz

Nor dira prostitutak? Badirudi haiei buruzko ideiak elkarren kontrako estereotipoen artean aldaroka dabiltzala, eta beharbada ez da harritzekoa, kontuan hartuta gehiago egiten dela haiei buruz hitz egin haiekin baino. Nola jotzen diren migratzaile asko aprobetxategi alfer eta, aldi berean, «jende zintzoaren» lanpostuen ebasletzat, halaxe ikusten dira sexu-langileak biktima eta, aldi berean, konplizetat, dontzeila babesgabe sexualki asegaien gisara.

Gure gizartea saiatzen denean bi aukera guztiz kontraesankor horiek bateratzen, sexu-langileei eskatzen zaie «komunitatea ordezkatzeko» duen bozeramaile bat izendatzeko.

70 Amnesty International (2016ko maiatzaren 26a) «The Human Cost of "Crushing" the Market: Criminalization of Sex Work in Norway», txostena, EUR/36/4024/2016, amnesty.org.

71 Sex Workers' Rights Advocacy Network (SWAN) (2009ko azaroa) «Arrest the Violence: Human rights abuses against sex workers in central and eastern Europe and central Asia», Open Society Foundations, opensocietyfoundations.org.

72 Whitford, E., Gira Grant, M., eta Xiaoqing, R. (15 December 2017) «Family, Former Attorney of Queens Woman Who Fell to Her Death in Vice Sting Say She Was Sexually Assaulted, Pressured to Become an Informant», *The Appeal*, theappeal.org.

73 *Ibid.*

Hori ezinezkoa da, ezinezkoa den bezala emakume bakar baten uneoro emakume guztien «ordezkari»-lanak egitea mahai gainean jartzen diren «emakumeen kontuak» defendatzeko. Sexu-langile batek ez du zertan zerikusirik izan beste batekin ez identitateari, ez zirkunstantziei, ez osasunari, ez ohiturei dagokienez. Ama bakar bat aste barruko lan batekin Eskoziako masaje-areto batean; Europara bidaiatzeko gogoz dabilen tabernari gazte kanbodiarra; Lurmutur Hirian kolektibo politiko bat sortu duen sexu-langile trans beltzen taldea; dokumenturik gabeko migratzaile nigeriarra, Stockholm-eko kaleetan prostituzioan diharduena. Munduaren iparretik hegoaldera, hainbat hamarkada hartzen dituen adin-espektrora batean barrena, sexu-langileak guztiz askotarikoak dira arraza, erlijio, etnia, klase, genero, sexualitate eta ezgaitasunari dagokienez. Nolabaiteko ordezkari bat izateko, liburu honek milaka autore izan behar lituzke.

Sexu-langile aktibista ugari zera gertatzen zaie, espazio feministetan ez dutela onartzen haien lekukotasunik, argudiatuz ekintzaileak izanik ez dutela inor ordezkatzeko eta ikuspegi ezohiko, pribilegiatu eta berezi batetik hitz egiten dutela.⁷⁴ Behin eta berriro agertzen dira sexu-langileen «ordezkagarritasunari» buruzko kontuak: prostituzioaren aurkako aktibistek «ahotsik gabeak» entzun nahi dituztela aldarrikatzen dute, baina, era berean, entzuna izateko *aukera* duen emakume oro entzuna izaterik behar ez duen emakumetzat jotzen dute definizioz. Jakina, prostituzioaren aurkako ekintzaileek ez diete logika hori aplikatzen beren ahotsei.

Zalantzarik gabe, liburu honen egileak ezin dira aurkeztu sexua saltzen duten pertsona guztien ordezkari gisa. Gu biok zisgeneroak eta zuriak gara, munduaren iparrean jaio eta haziak, eta lantoki dugun herrialdean gure sexu-lana gutxiago zigortzen da; klase ertaineko hezkuntza jaso dugu, eta, beraz, horrek berekin dakarren boterea eta kapitala eskura ditzakegu. Ez da

74 Beste era batera esanda, «inoren ordezkari ez izatea» edo «salbuespena izatea» kategoriak edonoren neurritan egokitu eta molda daitezke: irizpide bakarra da norberaren baldintzak errespetatuz entzuna izateko nahia izatea. Alison Phipps-ek idatzia duen bezala, «gaur egungo sexu-langileentzat, hitz egiteko gai izatea da baztertuak izateko baldintza bakarra». Ikus Alison Phipps, «“You’re not representative”: Identity politics in sex industry debates», genders, bodies, politics, 2015eko abuztuaren 15a, genderate.wordpress.com.

halabeharraren fruitua batez ere gure moduko pertsonen eskura egotea telebistan berba egiteko, prentsan artikulua publikatzeko eta aktibista-lanpostu soldatapekoetan hautagai izateko aukera. Beste edozein mugimendu erradikaletan bezala, aktibista hautatu gutxi batzuek gehiegizko aitortza jasotzen dute maiz, nahiz eta jendaurrean agertu ezin duten sexu-langile aktibista marjinatuagoek egiten duten lan bera egin.

Liburu honek berak –zeina ingelesez sortua baitago eta Erresuma Batuan arduatua baita, hau da, gure bizitoki eta lantoki den herrialdean– erakusten du gizarteak eztabaida-molde batzuk legitimatzen dituela, beste batzuk bazterrean uzten dituen bitartean. Batzuetan, oharkabean pasatzen dira komunitate marjinatu eta oinarrikoek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta haiek eraikitzen duten komunitatea. Iragaitzazko erresistentzia-molde horiek erabat gogobetegarriak edo bizitza-salbatzaileak izan daitezke, eta haien oroitzapenak balio handiko altxorrek dira mugimendu batentzat. Bestalde, liburuak, blogak eta dokumentu politikoak historiara erraz igarotzen diren defentsa-moldeak dira. Liburu batek leku handia eskaintzen digu sexu-lanaren alorreko politikaren alderdi batzuetan mingarriak kritikotasunez aztertzeko; oster, manifestazioko megafonoan bi minutuko txandak egiten dituzten sexu-langileek ez dute halako leku eta ñabarduretarako aukerarik. Liburu hau gure ikuspuntutik sortu dugu, eta gure ikuspuntua gure pribilegioek moldatzen dute. Halere, gure testuan sexu-langileen ahots desberdin ugari biltzen saiatu gara: garaileak, zuhurrak, kritikoak, saminduak. Diskurtso politikoaren molde horiek guztiak dira baliozkoak.

Batzuetan, sexu-langileek garesti ordaintzen dituzte diskurtso politikoak. 2004an, Sandra Cabrera ekintzaile sindikal argentinarra tiroz hil zuten bere etxean, mendekuz, poliziaren ustelkeria eta sexu-langileen aurkako polizia-indarkeria salatzegatik.⁷⁵ Haren hilketa ofizialki argitu gabe dago oraindik. Kabita Roy, Indiako sexu-langileen sindikatu bateko aktibista, sindikatuaren bulegoan erail zuten, Kalkutan, 2016an.⁷⁶ 2018ko

75 Hardy, K. (2010) «“If you shut up, they kill you”: Sex Worker Resistance in Argentina» in Hardy, K., Kingston, S. eta Sanders, T. (ed.) *New Sociologies of Sex Work*, Londres: Routledge, 167–80.

76 Ray, S. (2016ko azaroaren 2a) «Sex-workers’ rights activist’s death shrouded in mystery», *Times of India*, timesofindia.indiatimes.com.

urtarrilean, hiru sexu-langile ekintzaile ezagun hil zituzten Brasilen.⁷⁷ 2011n, Perun, gaizkile-taldeen sexu-langile migratzaileen sindikatu bateko presidentea hil zuten. Angela Villón Bustamante sexu-langilea eraildako sindikalista horren kidea da, eta adierazpen hauek egin zituen: «Mafiaren interes ekonomikoetan ez da sartzen sexu-langileak antolatzea».⁷⁸

Halaber, sexu-langile guztiek ez dute prezio bera ordaintzen beren diskurtso politikoen truk. Migratzaileen estatus prekarioa, etxegabetzeekiko eta polizia-indarkeriarekiko beldurra eta seme-alaben zaintza galtzeko arriskua dela eta, langile migratzaile eta indigenek, etxebizitza prekarioetan bizi direnek eta gurasoek (bereziki amek) arrisku handiagoa hartzen dute antolatzen direnean edo beren iritzia jendaurrean agertzen dutenean, baldin eta alderatzen baditugu baldintza hobegoetan bizi diren beste sexu-langile batzuekin, alegia, iraupen luzeko alokairu seguruak lortu dituztenak, pasaporte edo hiritartasuna dutenak edo seme-alabarik ez dutenak. Sexu-langile zisgeneroek transgeneroek baino arrisku txikiagoa dute; sexu-langile zuriak beltzak baino seguruago daude.

Hala eta guztiz ere, nolabaiteko boterea dugun sexu-langileontzat ere gogaikarria da behin eta berriro erakutsi behar izatea geure kabuz hitz egiteko gai garela. Alde askori dagokienez, «prostituzioaren debatea» askoz gehiago moldatzen dute ikusezinak diren zenbait eragilek –hala nola komunikabideetako langileek, zeinek artikuluen izenburuak idatzi eta artikuluekin batera argitaratuko den argazkia aukeratzen baitute, edo udal-gobernuetako funtzionarioek, zeinek hirigintza-planak egiten baitituzte– sexua saltzen dutenek baino. Sexu-langilerik pribilegiatuenean ere arrisku handia hartzen dute jendaurrean agertzean; horregatik, onlineko anonimotasuna ezinbestekoa da askotariko diskurtsoak zabaltzeko. Halere, anonimotasun hori «sexu-industriaren lobbykide» gaiztotzat jo eta gure izena zikintzeko erabiltzen da askotan. Berehala desegiten dituzte sexu-langileei publikoarekin, beren artean eta bezeroekin ano-

77 Revista Forum (2018) «Denúncia: Prostitutas que defendem o reconhecimento da profissão são assassinadas em Belém» [Salaketa: Lanbidea aintzatestearen aldeko prostitutak hil dituzte Belem-en], *Revista Forum*, revistaforum.com.br.

78 Havell, C., Lee, V. eta Stevenson, L. (2013ko urtarrilaren 5a) «The Honey Bringer: Stories from Sex Worker Freedom Festival», Sex Worker Open University, video, Vimeo (erabiltzailea: documentary x), vimeo.com/113934399.

nimoki konektatzeko aukera ematen dieten webguneak. Liburu hau inprentara joan zenean, AEBko presidente Donald Trumpek sexu-langileak online komunikatu ahal izatea eragozteko lege bat onartu zuen, eta horrek zorigaitzoko ondorioak izan zituen, ez bakarrik pribatutasunerako eta lan politikorako, baita sexu-langileen segurtasun eta biziraupenerako ere.⁷⁹

Liburu hau idaztean, ondotoxo dakigu nondik ari garen idazten; baina, era berean, pozgarria da oso jakitea *prostitutek idatzitako* prostituzioari buruzko liburu bat izango duzula eskuetan. Zoritxarrez, ez da batere ohikoa. Sexu-langileak gara sexu-lanean adituak, ez kazetariak, ez politikariak, ez polizia. Kriminalizazioarekin, bortxaketekin, erasoekin, bikotekide intimoen jazarpenarekin, abortuarekin, buruko gaitzekin, drogen erabilerarekin eta indarkeria epistemikoarekin izan ditugun bi-zipenak dakartzagu gurekin, hala gure lan militantero nola gure idatzietara.⁸⁰ Sexu-langileak antolatzeke espazioetan –elkar laguntzeko espazioetan, askapen kolektiborako lanean ari diren espazioetan– sakon murgiltzearen ondorioz garatu dugun eza-gutza eskaintzen dugu. Liburu hau elkarrekin idazten ari diren bi lagun garen aldetik, gure mugimenduaren eskakizunak eza-gutarazten saiatzen gara.

Kenya Thika hirixkako erailketa-oldearen egilea 2010ean atxilotu zuten. Gizon hark krimena aitortu zuen, eta

79 Fight Online Sex Trafficking Act (FOSTA) [Onlineko Sexu-trafikoari aurre egiteko Legea] eta Stop Enabling Sex Traffickers Act (SESTA) [Sexu-trafikatzaileen Jarduna eragozteko Legea] Ordezkarien Ganberak eta Senatuak onartu zituzten, hurrenez hurren, 2018ko apirilaren 11n, eta sexu-trafikoari lotutako edukia eskaintzen dituzten edo «jakinaren gainean egonik sexu-trafikoa lagundu, babestu edo errazten duten» webguneak zigortzen dituzte. Legeen testuak aski zabalak dira, eta erreferentzia egiten diote ez bakarrik sexu-industriako publizitateari, baita komunitateak antolatzeke balio duten eta haiek babesten dituzten espazioei ere. Liburu hau idazteko garaian, bertan behera utzita zeuden Backpage.com webgunea eta sexu-langileei bezero bideragarriak eta arrikutsuak identifikatzeko aukera ematen zieten beste zenbait publizitate-plataforma nagusi. Informazio gehiago, hemen: survivorsagainstsesta.org/documentation.

80 Spivak-ek, Foucault-i jarraituz, «indarkeria epistemiko» terminoa erabiltzen du azaltzeko nola jende zapalduerri erreprimitu egiten zaizkien haiek mundua ulertzeko eta deskribatzeko dituzten moldeak eta nola jende horiek zapaltzailearen kontzeptuak eta hizkuntza erabiltzen behartzen diren. Subjektu kolonizatuei buruz ari zen, zehazki, baina gauza bera esan daiteke sexu-langileei eta, oro har, emakumei buruz. Ikus G.C. Spivak, «Can the Subaltern Speak?» in Nelson, C. eta Grossberg, L. (ed.), *Marxism and the Interpretation of Culture*, Chicago: University of Illinois Press, 1988, 271–313. Ikus baita M. Fricker, «Epistemic Justice as a Condition of Political Freedom?» *Synthese* 190:7 (2013), 1317–32.

aldarrikatu zuen hiltzen jarraituko zukeela ehun prostitutara iritsi arte: «17 hiltzea lortu nuen, eta beste 83 falta zitzaizkidan».⁸¹ Aisha Thikako sexu-langilea da, eta lagunekin protestan atera zen hiltzailea harrapatu aurreko garai izugarrietan. Bere hitzetan, «Geure burua sexu-langiletzat dugula jakinarazi nahi genuen, gure familiek ogi horretatik jaten baitute». Zaurgarritasun ikaragarri horren aurrean ere, lehen aldiz sexu-langile gisa agertu ziren jendaurrean argi eta garbi, elastiko gorri biziakin eta ozen kantatuz.⁸² Protestan parte hartu zuen sexu-langile batek adierazi zuenez, «Komunitateak jakin behar du izan bagarela. Eta ez dago atzera bueltarik».⁸³

81 Nation Team (2010eko ekainaren 9a) «I still have 83 more women to kill», Daily *Nation*, nation.co.ke.

82 Haron, M. (2012ko irailaren 20a) «Sex Workers Protest Raw Footage in Thika», video, YouTube (erabiltzailea: Musa Haron), youtube.com/watch?v=gNImWNzPDHY.

83 Mgbako, *To Live Freely*, 195.

BAT

SEXUA

Sexuak kezkatu egiten gaitu. Guretzat, emakumeontzat, sexua berdin izan daiteke trauma baterako abagunea –edo konpromiso deserrosoa– zein gozamenerako edo intimitaterako abagunea. Sexu-lanari buruzko elkarrizketa feministak, askotan, «sexuarekiko jarrera positiboa» dutenen (sexu-positiboak) eta «sexuarekiko jarrera negatiboa» dutenen (sexu-negatiboak) arteko eztabaidatzat jotzen dira. Atal honetan, horren arrazoiak aztertuko ditugu. Ez dugu alor horretan dugun iritzia emateko asmorik. Aitzitik, baieztatzen dugu emakume guztiak «sexuarekiko jarrera anbibalentea» izateko eskubidea dutela. Hori argitu ondoren, orobat esan behar dugu sexu-langileekiko gorrotoa sexuari buruzko ideia misogino zahar-zaharretan errotzen dela. Prostituzioari buruzko orotariko kontuak ulertzeko –zigor-zuzenbidea barne–, lehenik eta behin ezinbestekoa da biguina eragindako erreakzio irrazional horiek ulertzea.

Sexua txarra da?

Sexu-lanaren alderdi *sexualak* kezkatzen du jendea. Kezka horiek gorputzaren degradazioari buruzko ideien bidez adierazten dira, eta sexu-langileek degradazio horren bektore gisa eragin dezaketen mehatxuari buruzko ideien bitartez. Prostituta gaixotasun-hedatzaile gisa ikusten da, usteltzearekin eta heriotzarekin lotuta. Berdin egotzen zaigu ustelkeria gizartetik erauztea (XIX. mendeko mediku frantses batek «semena drainatzea» aipatzen zuen)⁸⁴ zein kutsadura-, gaixotasun- eta

84 Corbin, A. (1990) *Women for Hire: Prostitution and Sexuality in France After 1850*, itz.

heriotza-iturri izatea geurezko eskubidez.⁸⁵ Gaztelaniazko *puta* hitza ingelesezko *putrid* hitzarekin lotuta dago.⁸⁶ Beste kezka bat ere badago, alegia, sexu-harremanak izateak (edo sexu-harreman desegokiak izateak: gehiegi, pertsona desegokiarekin edo arrazoï desegokiengatik) nolabaiteko *galera* bat dakarrela. Askotan, sexuari buruzko ideia kontraesankorrak eta mehatxu edo galera erraïetako horiek sexu-langilearen irudikapen kulturala blaitzen dute, eta, hala, Melissa Gira Grant-ek «prostitutarene imajinario» deritzon irudia sortzen da.⁸⁷

Batzuetan, begien bistakoa da ideia horien arteko lotura. Gizarte viktoriarrean, «birjinitatea galtzeak» arrisku bikoitza zekarren, alegia, hondamena jasatea eta sifiliaren ondoriozko heriotza latza pairatzea. Erreka jotako emakumea suntsipen-eragile bilakatzen da, bidean aurrera egin ahala gaitza zabaltzen duena. Batzuetan, galera hori emakume horrek beste batzuegan eragiten duen gainbehera espirituala izaten da; 1870ean, adibidez, William Acton kazetariak idatzi zuen prostitutak «pasio gaiztoen ordezkari direla, eta, desira asetzeaz gain, hura piztu eta bestelakoan agian ezkutuan geratuko ziren pentsamendu eta gurari lizunak eragiten dituztela».⁸⁸ James Gillway artistak 1779an pintatutako *The Whore's Last Shift* [Emagalduearen azken lanaldia] mihisean, emakume biluzi eta eurrez makillatu baten irudi tragikoa ikusten da; gela zikin-zikin batean dago, ilea burugainean bilduta, eta, garbiontzi hautsi bat aurrean duela, eskuz garbitzen ari da bere soineko zuri lohi eta baldarki sinbolikoa.

Prostitutarene iruditeriarekiko jarrerak gorputzaren zati zehatz bati buruzko paradoxa ezagunago baten bidez ere koka daitezke testuinguruan. Itsusia, nasaitua, kirasduna, zikina, ziurrenik zornatua, desiragarria, misterioitsua, limurtzailea...

A. Sheridan, Cambridge, MA: Harvard University Press, 53.

85 Corbin, A. (1986) «Commercial Sexuality in Nineteenth-Century France: A System of Images and Regulations», *Representations* 14, 209–19.

86 Hizkuntza erromantze gehienetan gaztelaniazko *puta* hitzaren aldaeraren bat erabiltzen da –adibidez, *putain* (frantsesez) eta *puttana* (italieraz)– «prostituta» adierazteko, latinezko *putida* hitzari oihartzun eginez (zeinak esan nahi baitu «ustela edo kiratsua», eta zeinetatik baitator, adibidez, ingelesezko *putrid*); hala, Europar tradizio luzea duen ohitura batekin bat egiten du, sexu-langileak estoldekin edo hustubideekin lotzen dituen. D. Hopkins, «Latin and Late Latin "Putā": "Concubine, Sexual Sleeping Partner" and Old French Pute», *Romance Notes* 45:1 (2004), 3–10.

87 Gira Grant, M. (2014) *Playing the Whore*, Londres: Verso Books.

88 Acton, W. (1870/1972) *Prostitution, Considered in Its Moral, Social and Sanitary Aspects*, Oxford: Routledge, 166.

Patriarkatuak baginekiko erakusten duen anbigualentzia oso errotua dago, eta zerikusi handia du sexu-lanari buruzko jarrerekin. Alde batetik, baginaren xarma mehatxu bat da: zakilak beste gizon baten arrastoak aurki ditzake, edo hagin arrailgarri gupidagabeak. Aldi berean, funtsean otzana den gorputz-atal gisa ere ikusten da, zeinetara «indarrez sartu» behar baita, gorputz horrek heldutasun sexuala erdietsi dezan. Bagina funtsean arriskutsutzat edo deitoragarritzat jotzen duen ikuspegi horrek beste indargarri bat ere bada, hein batean; izan ere, feministen artean oso errotuta dago sarketa bidezko sexu-harremanak menpetasun-adierazle direla.⁸⁹

XIX. mendean, Gaixotasun Kutsakorren Legearen bidez, poliziak ustezko prostituta orori espekulu batez eta bortxaz azterketa pelbikoa egiteko boterea eskuratu zuen. Zabalgailu hori oraindik ere erabiltzen da; kontaktu ginekologikoa nazkagarritzat jotzen zuen mediku batek asmatu zuen, zeinak esklabo bihurtutako emakume beltzak erosten baitzituen haiekin saiakuntzak egiteko.⁹⁰ 1893an, Londresen, Cesare Lombroso-k «klase arriskutsuetako» emakumeen gorputzak aztertu zituen, batez ere prostitutenak eta langile-klaseko beste emakume batzuenak, baita emakume beltzenak ere; bada, emakume haiek guztiak «primitibotzat» deskribatu zituen. Adierazi zuen prostitutei gehiago hazten zitzaizela pubiseko ilea, hipertrofia zutela klitorian eta distentsio iraunkorra alu-ezpainetan eta baginan; zin-zinez uste zuen haien naturaz kanpoko ekintzak eta haien naturaz kanpoko gorputzak txanpon beraren aurkia eta ifrentzua zirela.⁹¹ Berarentzat, emakume haiek irudikatzen zuten beherapen sozial eta moralaren erraz ikus zitezkeen haien gorputz fisikoetan.

1880ko eleberri batean, sexu-langile bat «haragi ustelez betetako pala» gisa deskribatzen da, eta gehiago ere esaten da: «Bazirudien [sexu-langileak] bide-bazterrean hartitzen ziren hilotzek isurituak gasak –zeinekin herri oso bat pozoitu baitzuen– bildu zituela eta pozoia hura aurpegira igo eta usteldu egin

89 Kraus, I. (2017ko abenduaren 3a) «Can the vagina be a work tool?», Scientists For A World Without Prostitution, trauma-and-prostitution.eu.

90 Eveleth, R. (2014ko azaroaren 17a) «Why No One Can Design a Better Speculum», *The Atlantic*, theatlantic.com.

91 Lombroso, C. eta Ferrero, G. (1893/2004) *Criminal Woman, the Prostitute, and the Normal Woman*, Durham, NC: Duke University Press.

ziola».⁹² Prostitutaren gorputza hor kanpoan dabil, errugabeei kalte egiteko: «Kutsadura eta ugera zabalitzen ditu auzo guztietan», non «lausengatu egiten baititu [...] neurririk hartu gabe [...] eta gazteen erdiak pozoitzen».⁹³

Bigarren Mundu Gerran, prostituta gaixotasun-eramailea etsaiaren arma biologiko sekretutzat irudikatzen zen. Afixetan, prostituta *femme fatale* arketipiko gisa ageri zen –zigarreta ezpain gorrien artean, jantzi estua soinean, irribarre bihurria–, eta irudiaren azpiko esloganek emakume haiez eta beste «harreman iragankor» batzuek ohartarazten zuten: iruzurtiak ziren, arma kargatuak, «gramoladun kantinetako frankotiratzailak», indar aliatuen etsaiak, Ardatzeko agenteak, Hitler-en lagunak.⁹⁴

Gorputz sexualizatuaren duplizitateari buruzko kontu horiek *queerren* eta genero bitarrarekin bat ez datozen pertsonen kasuan ere aipatzen dira. Askotan, emakume transei beren estatus «biologikoari» buruz itauntzen diete, eta galde hori genitaletan ardaztutako obsesioaren erakusgarri izaten da beti. Emakume trans bat jazarpen publikoaren objektua da eten-gabe; pertsona transentzat «hartzen» badute, gizonak bezain mehatxagarritzat ere jotzen dute, eta leporatzen diote sexu-indarkeriaz baliatzeko joaten dela komun publikoetara. Ostera, zisgenerotzat hartzen badute, arriskutsutzat ere jotzen dute, edozein engaina dezakeelakoan jakinaren gainean egon barik berarekin sexu-harremanak izateko.⁹⁵

Gizon homosexuali ere mesfidantza beraz begiratu izan zaie historikoki. Leo Bersani teoriarari *queerrak* dioenez, prostitutek luzaz irudikatutako beldur berak eragiten dituzte homosexualak: azken finean, gizon zintzoak immoral «bihurtu»

92 Zola, E. (1880) *Nana*, Paris: Charpentier.

93 Acton, *Prostitution, Considered*.

94 Schneider, M. (2015eko otsailaren 26a) «There's No Medicine for Regret: Incredibly Misogynist Venereal Disease Posters from WWII», *Dangerous Minds*, dangerousminds.net.

95 Gai hauek eragiten duten herra are biziagoa da sexua saltzen duena emakume transa denean. Jennifer Laude sexu-langilea AEBko marine batek hil zuen Filipinetan; kasu hartan, defentsak «pertsona transekiko izua» argudiatu zuen, eta, ondorioz, hogeita zazpi urte gutxiagoko zigorra jarri zioten. Epaimahaiak ulertu zuen krimenaren egilea «bortxatua» sentitu zela Laudek zakila zuela ikusi zuenean, eta haren iruzurraren «biktima» izan zela. Ikus M. Talusan, «Jennifer Laude's death would've caused an outcry – if she wasn't transgender» [«Jennifer Laudereren heriotzak protesta ozenak eragingo lituzke, transgeneroa ez balitz»], *Guardian*, 2015eko uztailaren 28a, theguardian.com.

edo honda ditzaketen pertsonak dira horiek ere. GIB birusaren krisiak indarberritu egin zituen beldur homofobo horiek. Epidemia horren garaian, GIB birusaren ikertzaile batek hau idatzi zuen: «Jende honek hogeï-hogeïta hamar aldiz praktikatzen du sexua gauero [...] Gizonak uzkitik uzkira dabilta, eta gau bakar batean eltxoen gisa joka dezakete, beren zakiletako zelula infektatuak leku batetik bestera eramanez».⁹⁶ Gaur egun ere badirau gizon homosexualak asmo txarrekoak eta axolagabeak diren usteak. 2017an, «propaganda sodomita eta homosexualaren» aurkako gorroto-talde kristau bat Nazio Batuetara gonbidatu zuten; berriki, idazle feminista batek «hiesaren hedatzailetzat» jo du GIB positiboa den gizonezko sexu-langile bat.⁹⁷

Norbait prostituzioarekin lotzeak haren galera morala dakar. 1910ean, Edwin Sim AEBko fiskalak honako hau idatzi zuen: «Esklavo zuria immoralitatetik bereizten duena zera da [...] salerosketaren biktima diren emakumeak beren gogoaren kontra behartzen dituzte bizitza immoral bat izatera».⁹⁸ Uste horrek –alegia, sexu-langilea izateak «bizitza immoral» izatea dakarrela– gaur egun ere badirau. Mark Lagon prostituzioaren aurkako AEBko Estatu Departamentuko burua izan zen George W. Bush-en garaian (eta pertsonen trafikoaren aurkako AEBko erakunderik handiena gidatu zuen); 2009an, honako hau idatzi zuen: sexua saltzen duten emakumeek «bizitza higuigarri eta immoralak» dituzte, eta, beraz, ez dira «erruduntzat» jo behar, «agian ez baitute beste aukerarik».⁹⁹

2000ko hamarkadan, «Belle de Jour» ezizeneko ordainpeko neska-lagun eta blogari anonimo batek idatzitako *Diary of a London Call Girl* [Londreseko puta baten egunerokoa] blogak erabateko arrakasta izan zuen, eta haren ondotik liburu bat eta telebista-saio bat ere etorri ziren. 2009an, egile anonimo haren atzean Brooke Magnanti zientzialaria zegoela zabaldu zen, eta kazetariak, Lombrosok lehenago egin bezala, Magnantiren

96 Bersani, L. (1987ko negua) «Is the Rectum a Grave?», *October*, 43, 197–222.

97 Berg, S. (2015eko irailaren 1a) «Dead Rentboys tell no tales», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

98 Doezema, J. (2010) *Sex Slaves and Discourse Masters: The Construction of Trafficking*, New York: Zed Books, 18.

99 Feminist Whore (2009ko abenduaren 14a) «Anti-Sex-Trafficking Dude Calls Prostitutes “Nasty, Immoral” – Prostitute Not Shocked», *Feminist Whore*, feministwhore.wordpress.com.

gorputzean islatua ikusi nahi izan zuten haren galera morala: «[Magnantiren] Aurpegia aztertzen dut, zeren bila ari naizen jakin gabe [...] bizitarik gabeko begiak, agian [...] edo zer edo zer iluna eta latza haren ahoaren inguruan».¹⁰⁰ Uste da sexualanak –zeina sexu-mota okertzat jotzen baita– zeuretik zerbait hartzen duela... zeure begietako bizitza. Alegiazko galera horren aurrean, Magnanti emakume arriskutsu eta zailduzkat ageri da kazetariaren begietara.

Ustezko sexu-gehiegikeria horrek, eta horrek dakarren galerak, «beste» gisa definitzen ditu prostitutak. Emakume «ona», berriz, bere zurtasunaren, bere klasearen eta bere apaltasun sexual «egokiaren» bidez –berdin birjintasunezkoa zein amatasunezkoa– deskribatzen da. XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, emakumeen sufragismoaren aldeko kanpainak egin ziren, eta kanpaina haiek lotura bat ezarri zuten bi alderdi hauen artean: emakumeen gorputza eta ohorea, batetik, eta nazioaren ohorea eta gorputz-politika, bestetik. Kanpaina haiek estuki lotuta zeuden prostituzioari aurre egiteko ahaleginek; hala, sufragista britainiarrak prostituzioaren aurkako borrokan engaiatu ziren India kolonizatuko emakumeen «ize-nean», argudiatuz emakume britainiarren boto-eskubideak «nazio-estatu inperiala purifikatuko» zuela.¹⁰¹

Sexuak jendea (bereziki emakumeak) aldatu eta behe-titu egiten duen ustea prostituzioari buruzko pentsamendu feminista garaikidean ere ageri da. Dominique Roe-Sepowitz-ek sexu-langile atxilotuak bideratzeko programa bat zuzentzen du Arizonan; berak dioenez, «behin prostituitu bazara, ezin duzu pentsatu inoiz prostituitu ez zarenik [...] horrenbeste gorputz-atal izatea zure gorputz-ataletan, horrenbeste gorputz-jariakin zuegandik gertu, eta gauza bitxi eta lazgarri horiek egitea [...] horrek guztiak nahasmena eragiten du harremanei buruzko norberaren usteetan, baita intimitatean ere».¹⁰² Programa horretan parte hartzen duten sexu-langileek, sexua saltzeari uzteaz gain,

100 Knight, I. (2009ko azaroaren 15a) «I'm Belle de Jour», *The Times*, thetimes.co.uk.

101 Burton, A. (1994) *Burdens of History: British Feminists, Indian Women, and Imperial Culture*, Chapel Hill: University of North Carolina Press, 129.

102 Banyard, K. (2010) *The Equality Illusion: The Truth about Women and Men Today*, Londres: Faber and Faber, 146.

beren aukerako bikotekidearekin sexua izateari ere utzi behar diote.¹⁰³

XVIII. eta XIX. mendeetan, baita XX.ean ere, ohikoa zen are zigor gogorragoekin erantzutea. Mundu osoan zehar, mojen erlijio-ordeneak «emakume desohoratuentzako» –prostitutak, ama ezkongabeak eta beste emakume batzuk, zeinen sexualitateak deserosotasuna eragiten baitzuen beren komunitateetan– babes-etxeak eta garbitegiak zuzentzen zituzten.¹⁰⁴ «Magdalenaren garbitegi» haietan, bizi-baldintzak primitiboak ziren kasurik hoberenean, eta basatiak gehienetan; baita XX. mendean ere, emakumeak bizi osorako sartzen zituzten haietan, epaiketarik gabe kartzelatuak krimen moral bat egiteagatik, alegia, ezkontzaz kanpo sexu-harremanak izateagatik. Emakume ugari eta beren haurrak mojen utzikeriak eta haiek ezarritako gehiegizko lanak hil zituen, eta izenik gabeko hilobietan ehortzi zituzten. Irlandako Tuam herrian, adibidez, 796 haur lurperatu zituzten isilean 1925 eta 1961 bitartean.¹⁰⁵ Herrialde horretan, oraintsu itxi zuten Magdalenaren azken garbitegia, 1996an.

Magdalenaren garbitegiak zuzendu zituzten moja irlandarrak ez ziren desagertu.¹⁰⁶ Prostituzioaren aurkako erakunde bat sortu zuten, Ruhama, zeinak indar handia baitu Irlandan sexu-lana kriminalizatzeke mugimenduaren barruan; orain, gainera, hizkuntza feminista erabiltzen du bere lana zabaltzeko.¹⁰⁷ Bestalde, Artzain Onaren Ahizpek eta Karitatearen Andre Mariaren Ahizpek dirua irabazten jarraitzen dute Magdalenaren garbitegietarako erabili zituzten ondasun higiezin bidez, eta, aldi berean, abusuak dokumentatu edo kontatzeko bizirauleak egiten ari diren ahalegina oztopatzen dute, eta uko egiten diote haiei konpentsazio bat eskaintzeko planetan parte hartzeari.¹⁰⁸

103 Davis, O. (2016ko azaroaren 10a) «Don't Be A Hero», *The New Inquiry*, thenewinquiry.com.

104 Finnegan, F. (2004) *Do Penance or Perish: Magdalen Asylums in Ireland*, Oxford: Oxford University Press.

105 Ryan, C. (2011ko maiatzaren 25a) «Irish Church's Forgotten Victims Take Case to U.N.», *New York Times*, nytimes.com.

106 McGarry, P. (2011ko ekainaren 25a) «Laundry orders run sex workers» aid group», *The Irish Times*, irishtimes.com.

107 Good Shepherd Sisters Ireland (2013ko urriaren 3a) «Pre-Budget 2014 Submission Focus on Prostitution and Human Trafficking», Good Shepherd Sisters, goodshphersisters.com, 2.

108 Ryan, C. (2011ko uztailaren 5a) «Penance for a Sorry Past», *Irish Examiner*, irishexaminer.com; O'Sullivan, N. (2013ko abuztuaren 2a) «Magdalene compensation snub is "rejection of Laundry women"», *Irish Post*, irishpost.com.

Lerro zuzena dago erlijio-ordena horien eta 2016an Irlandan ezarritako prostituzio-politika ustez feministaren artean (ikus 7. atala).¹⁰⁹

Ageriki aurrerakoiak diren espazioetan, behin eta berriro errepikatzen dira prostituten gorputzek sexu-transmisioaren bidez suntsipena zabaltzen dutela baieztatzen duten tropeak; esate batera, prostituzioaren aurkako erakunde «feminista» bategen Bigarren Mundu Gerraren garaiko osasun publikoaren afixak berrerabiltzen dituenean, edo prostituzioaren aurkako ekin-tzaile ezagun batek esaten dienean sexu-langileen eskubideen alde lanean dihardutenei hobe luketela «GIBez kutsatutako putzuetan usteldu».¹¹⁰ Sexu-langileentzat, elkarrizketa horiek mespretxu misoginoz beterik daude; umiliazio politikoaren erritualak dira, gure gorputzek ezinbestean jasan behar dituztenak. Geure burua defendatzen dugunean, gure erresistentziak prostituzioaren aurkako feministak asaldatzen ditu, zeinek gure seta erabiltzen baitute erakusteko maite dugula sexu-industria eta gizonei sexua saltzea, gizartea galbideratzeko ateratzen gara-rela kalera eta beste emakumeak gorroto ditugula.

Begira, adibidez, zer esaten dion *Mumsnet*eko (Erresuma Batuan, haurren hazibideari buruzko fororik ezagunena) iruzkingile batek komunitate hartako beste kide bati:

Zuek, putek, gizonak mimatzen dituzue, emakumeak ahultzen, gure senarrak lapurtzen dizkiguzue, gaixotasunak zabaltzen dituzue, gizartea eta morala etengabe mehatxatzen dituzue. Nola hartuko dira kontuan emakumeak beren adimenaren arabera, baldin eta urdangek beren gorputzak saltzen badituzte dirua lortzeko? [...] Zuek egiten duzuen nardagarria da, nola uzten diezuen gizonei aurpegiaren hazia isurtzen [...] Doilorrak eta gaiztoak zarete.¹¹¹

109 Ruhama (d.g., 2018ko ekainaren. 26an kontsultatua) «Turn Off the Red Light», campaign leaflet, ruhama.ie/advocacy-awareness-campaigns-and-media/campaigns/turn-off-the-red-light.

110 Scottish Coalition Against Commercial Sexual Exploitation (2011ko irailaren 9a) «*There's no medicine for regret*» [Ez dago damuaren aurkako botikarik] dioen posterra erakutsi zuten Facebook-en (taldea: Scottish Coalition Against Commercial Sexual Exploitation), 2011ko irailaren 9a; Ellen Grogan, FeministWhore (@FemWho kontuan aipatua), Twitter, 5:23 a.m., 2015eko azaroaren 26a: «Ez ditugu saltzaileak kriminalizatu nahi, baina persona horiek "proxenetak" dira, eta "GIBez kutsatutako putzuetan usteldu behar lukete"» #FEMINISM YAY.

111 ElisabethAlice-ren iruzkina (2010eko azaroaren 11) «How do you feel about prostitution?», Mumsnet.com/Talk/relationships/1080476-How-do-you-feel-about-prostitution.

Cecilie Høigård eta Liv Finstad norvegiar akademikoek idatzia dute sexu-langileen bagina «gizon-saldo anonimoek eiakulatzeko zakarrontzi bat» dela.¹¹² Beste behin ikusi genuen honako hau galdetzen ziotela sexu-langile bati onlineko eztabaida feminista batean:

Zer egoeratan daude zure ondestea eta ondestearen eta baginaren arteko pareta fibrosoa? Prolapsoarekin lotutako arazoren bat duzu? Inkontinentzia? Kontrolik eza? Apur bat zaharragoa zarenean, gauzak erortzen/kanporatzen hasten direla ohartuko zara beharbada. Orgasmora iristeko gai zara? Amesgaiztoak dituzu?¹¹³

Galdera eta iruzkin horiek ahizpatasunetik urruti daude. Sexu-langileoi ez digu bihotza arintzen ez gogoia berotzen jakiteak gu komun, ogi, haragi, txakur edo robotekin alderatzea proiektu baten parte dela, zeina ustez gure duintasuna baino garrantzitsuagoa baita.¹¹⁴ Emakume feministek «gauza»tzat jotzen gaituzte, zeinei «erabilera bakarreko sarketa-lizentzia» eros baitakieke.¹¹⁵ Bozkarioz aipatzen dituzte guk ustez semenean aurkitu dugun bizipoza eta gure «zuloak», eta esaten digute «zupaketan eta txortan» jarraitzeko eta politika feministei buruzko eztabaidak «errealitatea ulertzen dakigunon esku» uzteko.¹¹⁶

112 Høigård, C. eta Finstad, L. (1992) *Backstreets: Prostitution, Money, and Love*, Cambridge, EB: Polity Press.

113 Mary Smith-en iruzkina M. Murphy-ri erantzunez (2013ko irailak 4) «Femen sortu zen, eta gizon batek kontrolatzen du. Ez da inor txo ere harritu», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

114 Moore, J. (2013ko abenduaren 22a) «NWC2013: write-up & some opinions», *Uncharted Worlds*, uncharted-worlds.org; Anonymous, @desiredxthings kontuan aipatua, Twitter, 2015eko abuztuak 12: «@EavesCharity Gizaki izatera ere iristen ez den produktu sexual bihurtzen gaituzte, prostituta bat erostea ogia erostea bezalakoa da»; Caitlin Roper (@caitlin_rop), Twitter, 1:04 p.m., 2015eko abuztuak 12: «McDonalds-en lan egitearen eta prostituzioaren arteko desberdintasuna da prostituzioan zeu zarena haragia #sexworkWA»; Object! (@ObjectUK) Twitter, 1:00 p.m., 2018ko maiatzak 18: «Harritzen zaitu jakiteak txakur batek emakume batek baino eskubide gehiago dituela pornografiaren alorrean? Emakume bati egin diezazkiozun gauza batzuk txakur bati eginez gero, kartzelan amaituko zenuke»; ikus baita Sexu Roboten aurkako kanpaina: campaignagainstsexrobots.org.

115 Ditung, S. (2014ko abenduak 1) «Why we shouldn't rebrand prostitution a "sex work"», *New Statesman*, newstatesman.com

116 Glosswitch (@glosswitch) Twitter, 4:46 p.m., 2014ko urriak 14: «@CCriadoPerez@sarahditum Semenean aurkitzen duzue bizipoza»; Lewis, H. (@helenlewis) Twitter, 2014ko maiatzak 5: «@MFrancoisCerrah Iruditu zitzaidan ez zela titularrik egokiena! Ziurrenik, TV Times-ek "Zuloak salgai" titularra debekatuko zuen»; Devlin, S. (@JerikoGenie) Twitter, 2015eko abuztuak 9: «@LoriAdorable poppet. Errealitatea ulertzen dakigunok arduratuko gara kontu horietaz, ez eguna zupaketan eta txortan

Sexu-langileak sexuarekin lotzen dira, eta sexuarekin lotuta ego-
teak esan nahi du bazter uzteko modukoa zarela.

Jo Doazema-k idatzia duen bezala, prostituzioaren aurka-
ko feminismoan...

[...] nabaria da pornografiaren [...] oihartzuna. Ez da soilik prostitutak
gabeziaren bat duela [...] bera da gabezia. Feministen nahirik behinena
da sexu-langileek beren zuloak ixtea –ahoa ixtea, hankak gurutzatzea–,
ez dezaten xurgatu eta inguruan barreiatu haien ustez kaltegarria den
substantzia eta hitzik.¹¹⁷

Batzuetan, feministen isekak burutsuagoak izaten dira, eta
ez digute «zulo» deitzen. Aipatutako erantzun horiek bat datoz
hein handi batean gizarte viktoriarrak erabili zituen moduekin
prostitutak feminitate-molde eta sexu-grinari eusteko molde
«egokietan» diziplinatzeko. Gaur egungo artikuluetan, femeno-
tzat jotzen diren praktika «hutsalekin» lotzen dira sexu-langileak,
hala nola moda, erosketak eta *selfie*ak, edo barre egiten diete se-
xu-langileek «ahalduntzeari» buruz izaten dituzten eztabaidei.¹¹⁸
Artikulu batean, kazetari batek sexu-salerosketaren aurkako
argudio feministak azaltzen ditu, eta esaten du «gona motz-mo-
tzekin» eta «emagalduek bezala janzten» diren emakume gazteek
ez dutela *merezi* serio hartuak izatea.¹¹⁹ Emakume bat haren itxu-
ragatik baztertua misoginia hutsa da, eta feminitate-mota zehatz
bat gorpuzten duten emakumeak ergelak, hutsalak edo nolabait
gutxiago direla adierazten duen ideia du oinarri. Fribolitate fe-
meninoetan arreta jartzeak XX. mendearen aurreko prostituten
irudikapenean du oinarri, hau da, emakume perbertitua eta behe-
ratua bere neurrigabeko feminitatean, luxuzko ondasunen jabea
eta sexuarekin itsutua. Ikuspegi horretatik, feminista ez-prosti-
tutentzat erraza da sexu-langileak ezagutza politikorik ez duten
emakume gisa irudikatzea.¹²⁰ (Izan ere, litekeena da liburu honi

igarotzen duzenok #ICM2015 @hrw».

117 Doezema, J. (2010) *Sex Slaves and Discourse Masters: The Construction of Trafficking*,
New York: Zed Books, 137–8.

118 Megarry, J. (2015eko apirilak 20) «#TitiburuaAskatu edo #GizonenDesiraAskatu? Sare
sozialak benetan onak izan dira feminismoarentzat?» *Feminist Current*, feministcurrent.
com; Freeman, H. (2016ko apirilak 19) «Erosketetatik selfie biluzietara: nola galdu
duen «ahalduntzeak» lehenagoko esanahia», *Guardian*, theguardian.com

119 Turner, J. (2017ko urriaren 28a) «Emakume milenialak azkarregiak dira gizonak
lotsarazteko», *The Times*, thetimes.co.uk

120 Cameron, D. (2014) «Minding our language», troubleandstrife.org

buruzko berri labur bat idatzi behar duen norbaitek esatea gure ustez sexu-industriari *ahaldundu* egiten duela –eta bultzatzen gaituela, ziurrenik, oinetakoak erostera–).

Eztabaida horietan, sexua honela aurkezten da: bere izatez saltzeko bereziegia den zerbait gisa; zerbait intimoa, harreman esanguratsuetarako erreserbatua. Ikuspegi horren arabera, inplizituki ulertzen da sexua substantzia hegazkor bat dela emakumeentzat eta lotura emozional baten bidez kontrolatu edo legitimatu behar dela. Esate batera, feminista gazte batek gaitzesenez dio «konpromisorik gabeko sexua» modan dagoela eta, horregatik, sexu-lana gero eta onargarriagoa dela beste feminista gazte batzuentzat; eta eransten du: «Gaur egun, ez dago modan –agian mindulinen kontu da ia– pentsatzea sexua dela zerbait [...] zure emozioei lotuta dagoena, ezinbestean intimoa».¹²¹ Nolanahi ere, jende askorentzat sexua jolasa, informala edo nolabait «garrantzirik gabea» izan daiteke. Sexuak duen esanahia eta helburua asko aldatzen da bakoitzaren testuinguruaren edo norberaren bizitzako momentuaren arabera. Sexua *berez* eta *beti* berezia izan behar horrek emakumeen kontra egiten du, «informalegiak» diren sexu-harremanak dauzkatenean zerbait galdu izana egozten baitzaie, neurritz kanpo.¹²² Ez halabeharrez, sexua saltzen duten gizonak ez dute horrelako arretarik eragiten; dirudienek, gizonak sexu-harreman informal edo hutsalak edo diru-trukekoak izan ditzakete, haien «berezko izaera» halako arriskuan jarri gabe.¹²³

121 Fletcher, S., Bodenner, C-ri erantzunez egindako iruzkina. (2016ko otsailaren 26a) «The Divide Over Prostitution on the Feminist Left», *The Atlantic*, theatlantic.com.

122 Jay Levy-k Stockholm-eko Prostituzio Saileko kideen aipua biltzen ditu, zeinek iradokitzen baitute trauma ezinbestekoa dela sexu-langile bilakatzeko: «Bortxatzen zaituzte, eta zerbait suntsitzen da zure barrenean, eta sexua saltzen hasteko prest zaude». Ikus Jay Levy, *Criminalising the Purchase of Sex: Lessons from Sweden*, Oxford, UK: Routledge, 2015, 70.

123 Nahiz eta gizonetako sexu-langileei ez zaizkien aplikatzen sexu-estandar misoginoak, indarkeria homofoboak –bezeroen eta estatuko agenteen aldetik jasotzen dutenak– eragin handia du haiengan. Gizonei sexua saltzen dieten gizonak estigmatizatu eta kriminalizatu egiten dira mundu osoan, eta, halere, prostituzioaren aurkako mugimenduek nekez hartzen dituzten kontuan haien bizipenak. John Mathenge sexu aktibistak kenyararak abandonu-sentimendu hori aipatzen du: «Gizonetako sexu-langileak isilik hiltzen ari ginen, ezer ez bagina bezala. Hilero lurperatzen genuen jendea. Aste batean, lau gizonetako sexu-langile lurperatu genituen. Ni baino gazteagoak ziren zenbait lagun lurperatu genituen, hamapiku eta hogeita gutxi urtekoak, eta neure buruari galdetzen nion, ni ere hilko ote naiz? [...] Isiltasunak akabatu egiten gintuen [...] Ezinbestekoa da komunitateak gizonetako sexu-langileak ikustea.» C.A. Mgbako,

Erresuma Batuan, oraindik ere mojegana eramaten dituzte «putetxeetatik erreskatatutako» emakumeak.¹²⁴ Emakumerik desohoratuenak emakumerik garbienengana bidaltzen dituzte «duintasuna berreskuratuzera». XXI. mendean, sexu-salerosketatik «baztertutako» emakumeei tradizioz «femeninoak» izan diren lanbideak irakasten zaizkie nagusiki, batez ere jantzigintza, baina baita gozogintza, kandelagintza eta bitxigintza ere.¹²⁵ Proiektu horietan egiten dituzten bitxietan ohikoak dira garbitasunarekin zerikusia duten diseinuak.¹²⁶

Sexua ona da?

Testuinguru horretan, non sexuak galera, mehatxua eta gorputzaren degradazioa irudikatzen baitu, ez da harrizkoa sexu-langile batzuek –eta gure alde lan egiten dutenek– sexuaren balioa azpimarratuz erantzun izana. Sexu-lana, onartzen dute, sexua da, baina sexua, egiaz, gauza on bat da. Sexu-lana sexua dela onartzean, tradizionaliki «txartzat» edo «umiliagarritzat» jo izan diren beste sexu-mota batzuen zaku berean sartzen dute sexu komertziala; esate batera, sexu *queerra* edo bikote-harremanetatik kanpora ere sexua praktikatzen duten emakumeen sexua. Beraz, defendatzaile horiek indarra kentzen diete gorputzaren edo moralaren beherapena «sexu-mota okerrekin» lotzen duten narratibei, eta nabarmentzen dute plazer sexuala ondasun pertsonal eta sozial bat dela. Haien ustez, sexu-lana ausarta eta gogobetegarria da, bizipen zoragarria.

Jarrera horiek ezagun ditugu beste testuinguru batzuetatik. Adibidez, Jeannie Ludlow abortatzeko eskubidearen aldeko militanteak dio erabakitzekeo eskubidearen aldeko argumentuen

To Live Freely in This World: Sex Worker Activism in Africa, New York: NYU.

124 Kington, T. (2014ko apirilaren 14a) «Nuns help rescue trafficked prostitutes in new police operation», *The Telegraph*, telegraph.co.uk.

125 Moore, A.E. (2015eko apirilaren 1a) «From brothel to sweatshop? Questions on labour trafficking in Cambodia», *Open Democracy*, opendemocracy.net; Greig, A. (d.g., 2018ko ekainaren 26an kontsultatua) «What Can I Do?», *Moral Revolution*, moralrevolution.com; ikus *Escape to Peace*: escapetopeace.org; ikus *The Butterfly Project*: butterflyprojectjewelry.org; Boffa, S. (2017) «7 Jewelry Brands Giving Hope To Survivors Of Human Trafficking», *The Good Trade*, thegoodtrade.com; Simply Liv & Co. (2016ko abenduaren 19a) «17 Brands That Fight Human Trafficking», simplylivandco.com.

126 Negoziotako batek honela aurkezten du bere burua: «EMPOWERMENT & High End Jewelry Company», Purity & Majesty, puritymajesty.com.

artean «abortuari buruzko narratiben hierarkia» bat dagoela, eta «esan ezin ditugun gauzen» kategoria bat:¹²⁷

Politikoki eta sozialki eraikitako arrakala bat dago gure kliniketan bizi dugunaren eta bizipen horiei buruz jendaurrean esaten dugunaren artean. Ohartu nintzenez abortuari buruz hitz egiten nuenean arrakala hori ageri zela, konturatu nintzen hein batean behar politikoaren ondorioz eraikia izan zela. Ez nuen arrakala hori itxi nahi; izan ere, beldur nintzen ez ote nion «beste alderdiari bazka emango», akademiako kide batek tonu salatzailean adierazi bezala.¹²⁸

«Jarrera defentsibo» horrek «hipermerezitzat» jotzen diren abortu-istorioak nabarmentzea dakar; esate batera, haurdunaldia bortxaketa baten ondorioa denean. Eta, erabakitzeko eskubidearen kontrako istorio ilun eta damuz jositakoei erantzunez, abortua «nire bizitzako egunik zoriontsuena» gisa irudikatzen duten kontakizun feministak ditugu.¹²⁹ Era berean, erraz aurkitzen dira «sexua maite dut; benetan maite dut» dioten sexu-langileak.¹³⁰ Ildo horretatik gehiegi urruntzen diren sexu-langileak beldur dira ez ote dituzten beren istorioek «sexulanaren aurkakoak oilartuko».¹³¹

«Sexu-positibotasunaren» aldekoek une gozoa bizi izan zuten 2000ko hamarkadaren hasieran, partez George W. Bushen administrazioaren garaian sortu zen blog-mugimenduagatik. Haren zuzendaritzapean, AEBko gobernua politika irrigarriki txarrak hedatzen ari zen zenbait alorretan: kontrazepzioa, sexu-heziketa, LGTBQ kolektiboko gazteak eta sexu-osasuna. Horri erantzunez, blogari liberal eta feministek sexuari eta sexu-osasunari buruzko eduki ez-epaitzaileak sortzeari ekin zioten buru-belarri, baita plazerari, masturbazioari, sexu *queerari* eta ezkontzaz kanpoko sexuari buruzkoak ere. Blogak egiteko teknologiaren eskuragarritasuna eta erakargarritasuna handitu ahala, errazagoa zen sexuari eta plazerari buruz argiago hitz egitea.

127 Ludlow, J. (2008) «The Things We Cannot Say: Witnessing the Traumatization of Abortion in the United States», *WSQ: Women's Studies Quarterly* 36:1 eta 2, 28–41.

128 Strinkovsky, M. (2015) «Like 95 % of women, I don't regret my abortion – it was the happiest day of my life», *New Statesman*, newstatesman.com.

129 *Ibid.*, p. 30.

130 Sless, E. (2012ko azaroaren 23a) «Sex worker & mother: "Yes, I AM empowered by my job"», *Mama Mia*, mamamia.com.au.

131 «jemima101», Mann, S.-ri erantzunez egindako iruzkinean (2013ko maiatzaren 10a) «Unhappy Hooking, or Why I'm Giving Up On Being Positive», *Autocannibal*, autocannibalism.wordpress.com.

Ondorioz, sexu-lanean ziharduten idazle ugarik blogintzari ekin zioten, zeinak sexuaren eta plazeraren aldeko joera baitzuen –beharbada modu sinpleegian–.

Sexu-positibotasunaren diskurtsoak guk «Profesional Erotiko» deritzogun figura sortzen lagundu zuen. Erraz identifika daiteke, sexu-langileen mugimenduko figurarik ikusgarri eta entzungarriena baita. Profesional Erotikoak bokaziozko «dei» bati erantzunez lan egiten omen du, zeinak baitirudi ez duela ezelan-go zerikusirik bere lanaren truke ordain bat jasotzearekin.

Hertsadura ekonomikoari garrantzia kendu eta plazera eta desira azpimarratuz, Profesional Erotikoak lortu nahi duena da sexu komertziala gizartearentzat onargarriagoa den sexu-bizitzara gerturatzea; hau da, emakumeak ordainik ez jasotzea. Adibidez, ordainpeko neska-lagun batek zera esan zuen elkarriketa batean:

Prostituta batek edozer egingo du dirua lortzearen. Nik ez [...] Dirua ahazten saiatzen naiz [...] Maitasunarekin du zerikusia [...] Ez dut [dirua] gogoan izaten amaierara arte. Ez dut eskatzen aurretik ordaintzeko, nik laguntzen ditudan tipoak beti jende ona direlako [...] Eta sexua ere biziki maite dut. Ez nuke lanbide honetan jardungo sexua gustukoa ez banu. Beraz, gustukoa dudan zerbait eginez dirua irabazteko modua aurkitu dut.¹³²

Askotan, Profesional Erotikoa «dominatrix» edo «neska-lagun» bat izaten da; horrelako sexu-lanetan, sarketari garrantzi gutxi ematen zaio, eta, azkenean, ez da izaten batere ohikoa.

Sexu-langile askorentzat, oso erraza da narratibaren bidez sexu ordainduaren eta olgetarako sexuaren arteko lerroa lausotzea, narratiba hori maiz ageri baita bezeroei zuzendutako marketinean. Bezeroentzat, oso erakargarria da pentsatzea benetan direla langilearen sexu-desira eutsiezinenaren objektu, hala ez dela jakinda ere. Etxekoandre aspertu lizuna, benetako neska-lagunaren fantasia («Maitasunarekin du zerikusia [...] Sexua ere biziki maite dut») eta dominatrix boteretsu zoragarria sozialki onargarriak diren fantasiako pertsonaiak dira, eta bezeroak erakarri eta txunditzeko diseinatuta daude.

132 Roper, M. (2017) «Advertisement "I prefer to orgasm and get paid": Brazilian lawyer dumped career at bar to become a PROSTITUTE (and now she makes more money)», *Daily Mail*, dailymail.co.uk

Sexu-positibotasunaren ideologia horrek pentsarazten du langileak eta bezeroak helburu bera dutela. Izan ere, esaten digutenez, biek bilatzen dute esperientzia erotiko bat, intimitatea, sexu basatia. Langileen premien gaia (segurtasuna, dirua, negoziatzeko ahalmena) mahai gainean jarriz gero, hautsi egingo litzateke langilearen eta bezeroaren arteko ustezko batasun erotikoaren irudipena, eta ez litzateke sinesgarria izango emakumea gizona adina engaiatua dagoenik harreman horretan.

Erretorika horretan, erraza da arreta bezeroaren beharretara eta haren gozamenera bideratzea. 1997an, Carol Queen-ek sexu-positibotasunean eta sexu-langileen eskubideetan eragin handia izan zuen saiakera-lan bat argitaratu zuen. Liburu horretan, sexu-lana «eskuzabaltasun sexualeko biritza» gisa definitzen du Queenek, eta azpialat batek izenburu hau du: «Zergatik behar dituzte bezeroek sexuarekiko ikuspegi positiboa duten prostitutak». Guretzat, zaila da izenburu hori irakurtzea eta ez pentsatzea: «Bost axola guri!».¹³³

Ikuspegi horrek goia jotzen du 2011ko *Scarlet Road* dokumentalean, zeinetan erakusten baita zer harreman duen Rachel Wotton sexu-langileak bi bezero elbarrirekin. Rachelen ikuspuntutik, sexu-langileen eta sexu-erosleen arteko desberdintasuna oso txikia da, eta, izan ere, bere bezeroen eskubide sexualak nabarmentzen ditu. Filmaren trailerrean, Rachelek dio «nire lanak beti plazera dakar berekin, eta hori gustukoa dut», eta gehitzen du: «Uste dut sexu-adierazpenerako eskubidea dugula». Nolanahi ere, elipsi bat egiten du, eta ez du esaten *bezeroaren* adierazpen sexualari buruz ari dela, ez langilearenari buruz.¹³⁴

Elipsi horrek kalte egiten digu. Langilearen interesak eta bezeroarenak ez datoz bat. Funtsean, langileak nahi duena da ordain bat jasotzea, horregatik dago hor, eta inperatibo hori eta bezeroak olgeta-sexurako duen interesa *materialki desberdinak* dira.¹³⁵ Hori kontuan hartzen ez badugu, ez ditugu erabaki egokiak hartuko *langileek* lantokian dituzten behar materialak aztertzen ditugunean.

133 Queen, C. (1997) «Sex Radical Politics, Sex-Positive Feminist Thought, and Whore Stigma» in Nagle, J. (ed.) *Whores and Other Feminists*, New York: Routledge, 125–35.

134 *Ibid.*

135 Nolanahi ere, aurrerago ikusiko dugunez, kriminalizazioak –langilearena, bezeroarena edo biena– eragiten du beren interesak bat etortzea neurri batean, biei interesatzen zaielako poliziak ez harrapatzea, transakzioarekin aurrera egin ahal izateko.

Sexu-langileak garen aldetik, ulertzen dugu plazera, askatasuna edo boterea neurritz gain azpimarratzeko nahia. Horrelakoak entzutea askoz atseginagoa da izaki kaltetuak, animaliak edo haragi-zatiak garela entzutea baino.

Halere, interes-gatazka nabaria dago fantasiazko pertsonaia baten eta lantokian bizi duen giza eskubideen urraketa konpontzeko esku-hartze politikoa eskatzen duen aktibista baten artean. Ez da batere erraza pertsonaia bakar bat erabiltzea bai zure bezeroei erakusteko zure lan-baldintzak maite dituzula bai baldintza horiek zer desegokiak diren azpimarratzeko.

Sexu-langileek beren burua «goi-mailakotzat» edo «esklu-sibotzat» iragartzen dutenean, kazetariak askotan hitzez hitz hartzen dituzte, eta haien lekukotasunak gutxiensten dituzte, ez dituztelako erakusgarritzat jotzen edo pribilegiatutzat hartzen dituztelako.¹³⁶ Gizartearentzat, «Madame», «Domina» eta gisako izendapen ohorezkoek adierazten dute sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduaren politikek eta lanean antzezten ditugun rol sexuak bat egiten dutela.¹³⁷ Azken finean, iradokitzen du politika horiek sexu gisa kontsumi daitezkeela. Lori Adorable sexu-langileak idatzia du: «Ziegatik kanpora ere rol bera antzezten jarraitzen badugu, gure oinarritzko lan-eskubi-deetatik eta gure lanetik urrunduta jarraituko dugu».¹³⁸

Politika horiek «esan ezin ditugun gauzen» beste kategoria bat sortzen dute: sexu-lana gorroto duten sexu-langileen ikuspegiak. Profesional Erotikoarentzat, sexu-langile zoritzarrekoaren irudia «beste» onartezina bilakatzen da, zeinari ezinbestean gaitzetsi behar baitzaio gizartearen onarpena lortzeko egiten ari den borroka. Sexua trauma-iturri gisa ikusteak arbuio instintibo bat eragiten du, eta, testuinguru horretan, prostituzioaren aurkako politikak «puritanotzat» jo eta gaitzetsi egiten dira.¹³⁹ Traumari

136 Phipps, A. (2015eko abuztuaren 31) «You're not representative»: Identity politics in sex industry debates», *genders, bodies, politics*, genderate.wordpress.com

137 Adibide ezagun bat Terri-Jean Bedford-ena da, Bedford vs Kanada kasuko akusatzaile nagusia; dominatrix gisa lan egiten zuen, eta larruzko arropekin eta BDSM osagarriekin agertu zen auzitegian, eta txistek egin zituen, esanez «gobernua zigortzeko» kontrata zezaketela. H. Loney, «Who is Terri-Jean Bedford, the dominatrix fighting Canada's prostitution laws», *Global News*, 2013ko abenduaren 20a, globalnews.ca

138 Adorable, L. (2016ko martxoaren 30a) «The Peculiar Political Economics of Pro-Domming», *Tits and Sass*, titsandsass.com

139 Adibidez, Laurie Penny kazetariak honela dio: «[...] behar baino gehiago haserretzea desohore moral burgesaren korridore hotzetan». L. Penny, «The most harmful effects

buruz ziharduten sexu-langileei erantzunez, aktibista batek hau idatzi zuen:

Ni ez naiz biktima bat. Nire bezeroek ez naute biktima bihurtzen. Inork behartu gabe bazabiltza lan honetan, beharbada beste zer baitetan ibili behar zenuke. Gizonenganako duzun erresumin sakon hori baduzu, nola izango da sexu-lana osasuntsua? [...] Ez zenuke sexu-lanean jardun behar!! Sexu-lana osasuntsua izango bada, ahaldunduta egon behar duzu.¹⁴⁰

Beste sexu-langile batek ankerkeriaz erantzuten dio sexu-langile ohi bati, zeinak esaten baitu sexu-lanean diharduten pertsona asko bortxatu egiten dituztela. Honela dio: «Ondo pentsatu, laztana. Ni ez naute inoiz [...] Zeure burua maite baduzu eta uste baduzu beste batzuen maitasuna merezi duzula, sexu-langilea izatea erabakitzen baduzu ondo joango zaizu. Osterantzean, ziurrenik arazoak izango dituzu».¹⁴¹ Biktimak erruduntzat jotzen dituen beste edozein politika bezala, hau ere kaltegarria da, eta orobat da saiakera oker bat dena «kontrolpean» duzula sentitze-ko –eta sexu-indarkeriaren aukera burutik haizatzeko–.

Lehenago aipatu dugun sexu-positibotasunari buruzko saiakeran, Carol Queenek esplizituki baztertzen ditu atsegirik hartzen ez dutenak: «Ez daukat sexu-positiboak ez diren puten bizipenak jasotzeko asmorik, zeinek kultura sexista sexu-negatibo batek berengan ezarritako espektatiba negatiboen arabera jokatzeko baitute».¹⁴² Badirudi Queenek sexu-langileei egozten diela lanarekiko sentitzen duten atsekabea, ez dutelako aski «buru-argitasun». Prekarioki edo pobrezian bizi den sexu-langile bat, zeina kriminalizatua izateko edo polizia-indarkeria jasateko arriskuan baitago, edo zeina nagusi batek esplotatzen baitu, edo zeinak ez baitu negoziatzeko ahalmenik, ez da bereziki «sexu-positiboa» izango bere lanean. Faktore horiek egiturazkoak dira, ez langilearen buru-argitasunaren araberrakoak.

Aktibista batzuk hainbeste engaiatzen dira sexualki ahaldundutako prostituten aldeko lanean, ezen ez baitute behar adina kontuan hartzen edo ukatu egiten baitute sexu-industria

of prostitution are caused by its criminality», *New Statesman*, 2012ko abenduaren 13a, newstatesman.com.

140 Anon (suzyhooker) (2014ko otsailaren 19a) «I Don't Care About Clients», *Tits and Sass*, titsandsass.com

141 Hooker Hideout (2018ko maiatzaren 23an kontsultatua), hookerhideout.tumblr.com.

142 Queen, *Sex Radical Politics*.

abusuzko leku bat izan daitekeenik. Horrek eraso pertsonalak ekar ditzake, eta hona adibide bat: Ipar Ameriketako sexu-langile eta blogari batek delako «bizirauleen» «tragedia pornografikoari» buruz idatzi du, «duela hainbat urte edo hamarkadatarako lekukotasunekin, hala komeni denez; hau da, testigantza horiek aski aspaldikoak dira, eta aztarna judizialak erabat desagerraraziak izango dira honezkerok, emakume haiek isuritako gezurrezko malkoekin betetako pertzekin».¹⁴³

Bortxaketak ukatzea onartezina da, eta feminismoaren guztiz kontrakoa. Sexu komertzialaren testuinguruan esplotatuak eta kaltetuak izaten ari direnak sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduen kezka nagusia izan behar lukete; aldiz, era horretako politikek mugimendutik baztertzera bultzatzen dituzte. Sexu-lana utzia duen Rachel Moran bizirauleak era horretako erasoek berari eragin dioten kalteari buruz hitz egin du, eta honela dio: «Nire egia ez dira egokiak haientzat; beraz, nire egia isilarazi egin behar dira».¹⁴⁴

Sexuarekiko ikuspegi positiboa duen sexu-lanaren aldeko politikak egokiak dira horiek defendatzen dituzten Profesional Erotikoentzat eta kriminalizazioa sustatzen duten feminista punitibistentzat. Talde horiek *interes komun bat* dute: ez dituzte aintzat hartu nahi sexu-langileen lantokietako baldintza materialak. Profesional Erotikoentzat, gai horiek mahai gainean jartzeak propagandaren bidez zabalduetako ilusioa zapuzten du, edo kalte egiten dio haiek sortu duten identitate autobabesleari. Feminista punitibistei oso ondo datorkie sexuaren «esanahiari» buruz eztabaidatzea, horrek ezkutuan uzten baititu sexu-langileek beren jardunean boterea eta baliabideak eskuratzeko garaian dituzten

143 M. McNeill, «The Head of a Pin», *The Honest Courtesan*, 2017ko martxoaren 6a, maggie-mcneill.wordpress.com. Ikus baita: M. McNeill (@maggie-mcneill), Twitter, 6:12 p.m., 2016ko martxoak 30: «Delako "Trafikoaren biktima" estimatua: Zure istorioa askoz sinesgarriagoa izango litzateke baldin eta 1) zenbait hamarkada itxaron ez bazenu hori kontatzeko, hau da, ustezko froga guztiak jada aspalditik desagertuta egon arte; 2) polizia-txostenen bat bazenu, zure ustezko "trafikatzaileen" izenekin, helbideekin, EDOZER, egia esan; 3) noizbait ikerketa errealik egon izan balitz aipatzen dituzun krimen larri horien inguruan, zeinak bizitza errealean aztertu egiten baitira, edozein dela ere gertatu zirenetik igarotako DENBORA; 4) zure istorioa ez balitz "sexu-trafikoko" beste istorio batzuen BERTIN-BERTINA xehetasun garrantzitsu guztiei dagokienez, nahiz eta bizitza errealean antzeko krimenak askotan oso desberdinak izaten diren haien artean. <https://maggie-mcneill.files.wordpress.com/2012/04/mind-witness-testimony.pdf> ... Maitasunez, Maggie».

144 Murphy, M. (2015) «The Sex Industry's Attack on Feminists», *Truthdig*, truthdig.com.

arazo praktiko eta zehatzak, zeinek, ondo aztertuz gero, agerian uzten baitute, ezinbestean, kriminalizazioak ezin duela hobetu sexu-langileen bizitza.

Batzuetan, bi ikuspegi horien arteko eztabaida oposizio bitar sinplifikatu gisa irudikatzen da: alde batetik, «emagaldu zoriontsuak» daude, zeinek sexu-lana gustukoa baitute eta, beraz, deskriminalizazioaren alde baitaude; bestetik, «irtendako emakumeak» daude, zeinek mina pairatu baitute sexu-industrian eta, beraz, kriminalizazioaren alde baitaude. Esate batera, Grace Dyas antzerkigile feminista prostituzioaren aurkakoa da, eta honela irudikatzen du eztabaida:

Sexu-industria utzi dutenek esaten dute: «Niri egindako kaltea ulertu behar duzu, eta egunero-egunero emakumeei egiten zaiena». Beste aldeak dio: «Ulertu behar duzu gustukoa dudala» [...] Sexu-lanean diharduten emakume ugari ez dute hor egon nahi [...] Baina beste batzuek esaten dute: «Gu ere hemen gaude, eta gustukoa dugu».¹⁴⁵

Baieztapen horretan, Dyak ez ditu kontuan hartzen prostituta batzuk, hau da, mina jasan izan duten arren edo sexu-lanean behartuta aritu izan diren arren ez dutenak uste sexu komertziala kriminalizatzeak berei justiziarik ekarriko dienik. Ez da saiatzeko desadostasun hori azaltzeko arrazoi zehatz bat bilatzen; aitzitik, prostituta horiek ere sexu-lanarekin «gozatzen» dutenen zakuan sartzen ditu.

Era berean, prostituzioaren aurkako mugimenduko kide den Julie Bindel-ek honela deskribatu zuen «Deskriminalizazioaren aldeko bizirauleak» taldea: «Prostituzioaren aldeko lobbya da, eta abolizioaren aldeko mugimenduaren hizkuntzaz jabetu da, beraren kausaren alde jarduteko». Horri erantzunez, taldearen ordezkariak hau azaldu zuen: «Taldea honetako kideok sexua saldu izan dugu edo saltzen dugu, eta indarkeriari edo trauma bati aurre egin diogu; sexua saltzen dutenei segurtasuna eskaintzeari dagokionez, ez dugu pentsatzen zuek bezala. Hori ez da prostituzioaren alde egitea, ezta ezertaz jabetzea ere». Bindelek honela erantzun zion: «Zure hitzek adierazten dute sexu-salerosketaren bizirauletzat duzula zeure burua, eta argi dago hori

145 Sweeney, T. (2015) «A play about sex work: "I want people to come out of the theatre angry"», *Irish Times*, irishtimes.com.

ez dela egia [...] Nahita ari zara jendea nahasten».¹⁴⁶ Dirudienez, superbibiente «legitimoa» izateko ezinbestekoa da sexu-industriari buruzko ideia batzuekin bat egitea. Sexu komertzialaren deskriminalizazioaren aldekoak biziraule «ez-legitimotzat» jotzen dira.

Prostituzioaren aurkako feministentzat, deskriminalizazioaren aldeko bizirauleek existitu ezin duen –edo existitu behar ez lukeen– kategoría bat osatzen dute. Sexu-lanari izugarri, bortitz edo esplotatzaile iritzi arren *horretan jarraitzen dutenak* politikoki umezurtz uzten dira; sexu-langileen aldeko mugimenduak sexuaren aldeko politiketatik at uzten ditu, eta feminista punitibistentzat, berriz, ikusezinak dira (edo ez dituzte aintzat hartzen, estrategia bati jarraituz); punitibistentzat, prostituzioa utzi dutenak edo laster utziko dutenak dira biktima legitimo bakarrak. Sarah Mann prostituta eta idazle kanadarrak dioen bezala, «Zorigaiztoko emagalduek ez aurrera ez atzera daude, bi zelai horietan ordezkariak politikoa bilatu nahian: bai haien bizipenak aintzat hartzen ez dituztenen zelaian, bai haien esku-bideak kontuan hartzen ez dituztenenean».¹⁴⁷

Sexua sexualitate gozagarriko bide gisa saltzearen ideia ez dator inola ere bat prostituta gehienek bizipenekin; hala ere, guk ez dugu esaten erabat baztertu behar denik arreta koitoan jartzen duen ikuspegia. (Hurrengo atalaren amaieran, argiago geratuko da sexu-lana sexu gisa ulertzearen eta sexu-lana lan gisa ulertzearen arteko desberdintasuna) Pluma Sumaq sexu-langileak hau idatzi zuen:

Prostituzioa ulertzeko, funtsezkoa da haren izaera sexualari begiratzea. Nola ez, ba? [...] Harreman intimoek, sexuak eta sexualitateak, gure beldurrik sakonenak ez ezik, gure zauririk sakonetako batzuk ere aktibatzen dituzte [...] Batzuetan, prostituzioak argitara ateratzeko emozionalki mingarriega den errealitate bat erakusten digu; izan ere, kanporatzen saiatu ahala, ohartzen gara gure errealitatea ere badela. Sexua eta harreman intimoak gure borroka pertsonalak ere badira.¹⁴⁸

146 Bindel, J (@bindelj) Twitter, 6:06 a.m., 2016ko abenduak 12.

147 Mann, S. (2014) «More Than Survival Strategies: Sex Workers» *Unhappy Stories*, Athabasca University, Alberta (masterreko tesia).

148 Sumaq, P. (2015) «A Disgrace Reserved for Prostitutes: Complicity & the Beloved Community», *LIES: A journal of materialist feminism* 2, 11–24.

Sexu-langileen mugimenduarekin bat egin arren sexu-posibotasunarekiko kritiko izateak ez luke adierazi behar sexua halabeharrezko kontutzat hartzen denik. Posible da jendeak sexu-salerosketan izan dituen bizipenak aztertzea eta, aldi berean, bizipen horien izaera askotarikoa –ona zein txarra– errespeta- tzea, lan-eskubideei buruzko elkarriketa zapaldu gabe.

Sexu-lana sexu soiltzat hartuz gero, edozein sexu-bor- tizkeriatatik bizirik atera den edonork sexu-langileen traumak (benetakoak edo irudimenezkoak) bereak balira bezala defen- datzeko aukera du. Alemaniako prostituzio-etxeetako lanari buruzko artikulu batean, Sarah Ditum kazetariak baieztatzen du Josie izeneko sexu-langile batek trauma bat bizi duela egu- nero, argudiatuz krema sorgortzailea eramaten duela lanera bezeroek bibragailua zakartasunez erabiltzen dutenatarako. Horren aurrean, honela dio Ditumek: «Prostituzioa emakumeen deshumanizazioan tematzen den instituzioa da; gure arimak birrintzen tematzen da, gu errazago izorratzeko, gu errazago erabiltzeko, gu errazago hiltzeko».¹⁴⁹ «Gu» eta «gure» erabili ditu, eta horrek iradokitzen du sexu-langile baten bizipenak –kasu ho- netan, Josierenak– emakume guztion bizipenak direla. (Jakina, ezin dugu kontrakoa baieztatu: «emakumeen askapena» ez da beti prostitutekin partekatzen).¹⁵⁰ Hain gogotsu dago bere senti- penak bibragailuaren istorioarekin lotzeko, ahaztu egin baitzaio langileari galdetzea bere lantokia kriminalizatua ikusi nahi lu- keen ala ez.

Gloria Steinem idazle feministak ere jokabide horren adibide bat ematen du: «Gure espirituak [...] hautsi egiten dira pixka bat geure burua kateatuta ikusten dugun aldiro edo gure alu-ezpainak erabat agerian geratzen direnean gizon konkista- tzailearen begiradaren aurrean, edo kolpatzen gaituztenean edo belaunikatzera behartzen gaituztenean».¹⁵¹ Paragrafo horren hiz- kuntza bi ikuspegiren artean kulunkatzen da: Steinem behatzaile gisa («gure espirituak hautsi egiten dira pixka bat [...] ikusten dugun aldiro» eta Steinem ekintzaren egile gisa («geure burua

149 Ditum, S. (2015eko otsailaren 5a) «If you think decriminalisation will make prostitution safe, look at Germany's mega brothels», *Guardian*, theguardian.com.

150 Ikus Sporenda, F. (2016ko apirilaren 19a) «Interview: Meghan Murphy on the liberal backlash against feminism», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

151 Steinem, G (1995) «Erotica and Pornography: A Clear and Present Differencec in Dwyer, S (ed.) *The Problem of Pornography*, Belmont, CA: Wadsworth.

kateatuta edo gure alu-ezpainak erabat agerian»). Sexu-langilea sinbolo bihurtzeak aukera ematen die prostituzioaren aurkako militanteei beren burua eta beren kezka eta sexu-langileenak trukagarritzat jotzeko eta kezka horiek adierazgarritzat hartzeko, lan-eskubideei buruzko galdera zehatzagoak egin beharrean. Melissa Gira Grantek dioen bezala:

Pornoan, emakume baten irudia «emakume guztien» ordezkari gisa uler daiteke; aldiz, pornoan lan egiten duen benetako emakumea guztiz beste bat balitz bezala ikusten da. Beraz, (zenbait feministak) proiektu politiko zabal batean kokatzen dute «film pornoetan azaltzen diren emakumeen irudietan oinarrituta emakumeen alde egitea»; aldiz, film porno horietan lan egiten duten emakumeen lan-eskubideak bazterrekoztat jotzen dira.¹⁵²

Sexu-langile batek esperientzia txartzat jo dezake lan-eskubideen urraketa, sexu-abusua edo, besterik gabe, lanean izandako egun kaskar bat. Halere, haien lekukotasunak ez dira feminista ez-prostitutek interpretatu beharreko sinbolo hutsak, batez ere ez haien diru-sarreraren kriminalizazioaren parte gisa. Egun lanean ari diren langileak dira sexu-industriako gaur egungo lan-baldintzetan adituak. Sexu-langileentzat frustragarria da oso sexu-lana alde batera utzia dutenen edo ez-prostituten ikuspegia erdigunean jartzea eta gure ahotsak hautazko gehigarri gisa tratatzea.

Prostituten eta ez-prostituten arteko desberdintasuna eta gaur egungo sexu-langileen eta iraganekoen artekoa funtsezkoa da, ez *identitateengatik*, baizik eta sexua saldu eta komertzializatzen dutenen *baldintza materialengatik*. Hemen eta orain, pertsona gutxi batzuk bakarrik ari dira *benetan diru-trukeko sexu-harremanak* izaten, eta besteak ez. Berdin dio zer interesek bultzatzen dituen debatean parte hartzera; ezin da justifikatu ez-prostitutek eta sexu-lana alde batera utzia duten bizirauleek oraindik sexua saltzen ari direnen izenean hitz egitea.

Egiarik gogorrena da sexua saltzen duten pertsonak kaltea jasango dutela gaur gauean, bihar eta aurrez ikus daitekeen etorkizunean. Nolanahi ere, pertsona askorentzat hori da bizirik irauteko bide bakarra. Emagalduta Zorionsuen eta Irtendako Emakumeen politikek ez dute lekurik sexu-langile zorigaitzokoentzat,

152 Gira Grant, M. (2014) *Playing the Whore*, Londres: Verso Books.

zeinen egia ez-komenigarriek hankaz gora jartzen baitute prostituzioa sexu-orientazio bat dela sinetsi nahi dutenen lasaitasuna. Aitzitik, behartuta dago –normalean behar ekonomikoengatik– irteera ohoragarria alde batera utzi eta biziraupena hautatzera, eta gogorarazten digu kapitalismoa ezin dela xirmi-xarmaz desagerrarazi irtenbide liberalen edo punitiboen bidez. Pertsona horrentzat, sexu-lana sexua izan *daiteke*, baina *lana* ere bada, beste aukerarik eskaintzen ez duen mundu batean. Lana zer den ulertzea, baina, ez da dirudien bezain erraza.

BI

LANA

Nire lagun zuri batzuei entzuna diet botereagatik ari direla prostituzioan. Tira, emakume beltzen kasuan, diruagatik da.

Gloria Lockett¹⁵³

Prostituzioa ez da produktiboa. Sexu-salerosketaren «produktu» bakarra gizonaren orgasmoa da. Hori ez da produktiboa, hori ez da «lana»

Sharon Hodgson, parlamentuko kide laborista¹⁵⁴

Kapitalak sinetsarazi behar izan zigun [etxeko lanak egitea] jarduera naturala, saihestezina eta are atsegingarria dela, guk ordainik gabeko gure lana onar genezan. Era berean, etxeko lanek ordainik ez izatea, horixe izan da «etxeko zereginak lantzat jotzen ez dituen» uste orokorra are gehiago indartzeko armarik boteretsuena. Hala, emakumeok horren aurka borrokatzea eragotzi zuten, eta soilik sukaldearen eta logelaren arteko eremu pribatuko eztabaida geratu zitzaigun, zeina gizarte osoak irrigarritzat jotzen baitu, eta, hala, are gehiago beheratzen da borrokaren protagonista. Atso marmartizat hartzen gaituzte, ez langile borrokalarizat.

Silvia Federici, *Wages for Housework*

Lana ona da?

Gizarte gisa, obesiboki baloratzen dugu lana, eta gure bizitzari esanahia, estatusa eta identitatea ematen dion funtsezko tokizat hartzen dugu. Era berean, baina, deus balio ez duten lanei aurre egiten diegu, gero eta soldata txikiagoekin, eta susmatuz, zuzen susmatu ere, gutako askok egun osoan di-

153 Brooks, S. (2007) «An Interview with Gloria Lockett» in Oakley, A. (ed.) *Working Sex: Sex Workers Write About a Changing Industry*, Berkeley, Kalifornia: Seal Press.

154 Waugh, P. (2016ko martxoaren 7a) «Jeremy Corbyn Tells His Critics To "Stop Sniping" As He Warns Parliamentary Labour Party Against Disunity», *Huffington Post*, huffingtonpost.com.

ru-truke egiten dugunak ez diela baliozko ekarpenik egiten ez gure bizitzei, ez gure komunitateei. Aitzitik, gutako gehienok katean gorago daudenentzako mozkinak sortzen ditugu, ez besterik. Testuinguru nahasi eta nahasgarri horretan, *maite duzun hori egitea* anbizio erabatekoa da, aurrera egiten laguntzen dizun fantasia; dena kontrolpean duzula sinestarazten dizu, eta bulego-orduetan boterearekin amets egiteko aukera ematen dizu. Azken batean, egiaz, zure klasearen adierazgarri da. Aldizkarietan emakumeak elkarriketatatu eta goizean goizeko ohiturei buruz galdetzen dietenean, denek esaten dute goiz altxatzen direla, ez bulego hau edo beste garbitu behar dutelako, baizik eta haren ardura haiengan dagoelako; eta, hala, irakaspen moral bat ematen digute, haien zoriontasuna haien produktibitatearekin lotuz, haien bizitza onaren osagarriekin: luxuzko gimnasioa, laguntzaile pertsonal irribarretsua, arkitektura-estudioa, lore jaso berriak. Guri zerbait erakusteko daude hor: *lana ona da*.

Bai Profesional Erotikoak bai prostituzioaren aurkako aktibistak uste dute *lana ona dela*. Profesional Erotikoa, azken atalean ikusi dugun bezala, profesionaltasuna eta arrakasta ekonomikoa islatzen saiatzen da, eta bere gaitasun berezituak, trebetasunak eta talentua nabarmentzen ditu. Bere narratiban, arrakastarekin lotzen diren estatus-sinboloak sartzen ditu: diru-sarrerak handiak, aisialdirako denbora, hezkuntza-maila ona, etxebizitza baten jabetza eta abar. Bere burua luxuzko ondasunen eta erosketa arranditsuen testuinguruan kokatzea ere publizitate-estrategia bat da; bezero aberatsei adierazten die haien mailan dagoela, eta legitimoa dela diru-kopuru polit bat gastatzea sexu-molde (edo «harreman»-molde) espezializatuetan.

Sexu-positibotasunarekin batera, bezero elbarrituaren ideia ere funtsezkoa da Profesional Erotikoak besarkatzen duen lan-politikarentzat. Bezero elbarrituak beste ezein gizonnek baino hobeto irudikatzen du gizon *merexidunaren* figura. Haren beharrak –uler bedi intimitatea eta harreman berezia, ez haragizko irrika– profesional eta legitimo bilakatzen du sexu-langilea; izan ere, sexu-langilea fisioterapeuta baten argi leun eta edergarriaren pean ikusarazten digu, edo elbarrituen esku-bideen aldeko militante gisa; eta, horrela begiratuta, legitimatu egiten da sexu-langilearen *lana*. Profesional Erotikoak benetako plazera eskuratzen du bere jardunean, baina ez hori bakarrik;

izan ere, balio soziala duen esparru batean lan egiten du. Nork ukatuko lioke gizon horri –desexualizatua, ez-mehatxaria eta mereziduna– irrikatzen duen intimitatea eta harreman berezia? Edonola ere, pertsona elbarriak ikusteko modu etorkor eta kapazitista da hori. Ikuspegi desegokia da, halaber, sexu-langileen lan-eskubideentzat; langileen segurtasun-eskubidean jarri beharko litzateke arreta, ez lanaren ustezko balio sozialean.

Fantasia eta omisio horien guztien bidez, Profesional Erotikoak pertsona bakoitzak merezi duenari buruzko jendearen iritzi nagusien alde egiten du. Berak ere uste du *izen handiko* lanak errespetua eta saria merezi dituela; lortu nahi duen bakarra da guk kolektiboki *esanahi zabalagoa* ematea izen handiko lanari, bera ere zaku horretan sartzeko, bere diru-sarrera handiarekin, BDSM jardunerako izan duen bokaziozko deiarekin eta bezero elbarritu merezidunari buruz duen ikuspegi terapeutikoarekin. Adierazpen politikoak egiten dituenean, Profesional Erotikoak aldarrikatu ohi du sexu-industria lanbide txundigarria dela, beste edozein lan baino askoz ere txundigarriagoa. Hala, argudio-ildo ulertezin bilakatzen ditu sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduaren helburu eta aldarrikapenak: zer arazo konpondu nahi dugu, egoera jada ezin hobea bada?

Nolabait, prostituzioaren aurkako feministak bat datoz inplizituki Profesional Erotikoarekin. Haiek ere uste dute sexu-lana *lana* ote den argitzeko eztabaidan leheni keta behin sexu-lana lan *ona* ote den argitu behar dela. Ezadostasun txiki bat baino ez dute: sexu komertziala inoiz «lan onaren» kategorian sartu ahal izango ote den. Beraz, haien iritzian, lanak gogo-betegarria izan behar du oro har langilearentzat; ezin du inor esplotatu, eta atsegingarria izan behar du. Ustezko arau hori betetzen ez bada, zerbait *lana* ez den seinale da. Behin eta berriro entzuten dugu lelo bera: «Ez da lana, esplotazioa da».¹⁵⁵ Suediako legegile feminista batek haxe esan zion kazetari bati: «Ez esan sexu-lana, izugarriegia da lana izateko».¹⁵⁶ Izugarrikeria eta lana antitetikotzat jotzen dira: prostituzioa izugarria bada, ezin du lana izan.

155 Banyard, K. (2016) «It's not work, it's exploitation: Why we should never legalise prostitution», *Stylist*, stylist.co.uk; Stout, J. (2015eko abenduaren 17a) «Decriminalisation of sex work backed by sex workers», *CommonSpace*, commonsplace.cot.

156 Costa-Kostritsky, V. (2014ko urtarrilaren 20a) «On Malmskillnadsgatan», *London Review of Books*, lrb.co.uk.

Prostituzioaren aurkako feministek, baita legegileek ere, maiz galdetzen digute sexu-langileoi ea sexu-harremanak edukiko genituzkeen gure bezeroekin baldin eta trukean ordainik jasoko ez bagenu. Beraz, behin eta berriro azpimarratzen da lana erabat betegarria dela eta doan ere egingo genukeela.¹⁵⁷ Izan ere, ikuspegi hori prostituzioaren aurkako mugimenduan txertatuta dago nolabait, erakunde horretan ohikoak baitira ordainik gabeko lanpostuak. Equality Now [Berdintasuna Orain] prostituzioaren aurkako erakunde nagusietako bat da, izugarri aberatsa, eta lan-eskatzailerei jakinarazten diete eskaintzen dituzten zortzi-hamar asteko praktikaldiak ordainik gabeak direla (eta gehitzen dute: «Ez dugu egiten etxebizitza bilatzeko gestiorik»)¹⁵⁸. Era horretako lanpostuak ohikoak dira: Ruhamak borondatezko lanpostu ugari iragartzen ditu, erraz ordaindu litezkeenak. 2017an, Erresuma Batuko esklabotzaren aurkako karitatezko erakunde bat ezagun egin zen estatuko prentsan, praktikaldi ordaingabeak iragarri zitu- tuelako.¹⁵⁹ 2013an, Irlandan, Turn Off the Red Light [Itzali Argi Gorria] erakundeak (prostituzioaren aurkako GKE-en partzuer- goa da) bekadun batentzako lanpostu bat iragarri zuen, zeinaren ordaina ez baitzen ailegatuko gutxieneko soldatarara. Ordainik gabeko eta ordain txikiko beka horien ondorioz, emakumeen sektorean karrera bat egiteko gaitasunik handiena duten ema- kumeak –kanpainak egiten eta prostituzioari buruzko agenda politikoak ezartzen– zera dira, New Yorken eta Londresen egun osoko lan ordaingabea egiteko ahalmena dutenak. Testuinguru horretan, ez da harrizkoa prostituzioaren aurkako mugimen- duak oro har lanaren eta diruaren arteko harremanaren ikuspegi nolabait abstraktua izatea.

Lana nagusiki positiboa izan daiteke lan-baldintzak ezartzeko orduan negoziazio-gaitasun handia duten haientzat;

157 Given, P. (2014), Laura Lee-ri zuzendutako iruzkina; Dechert, B. (2014), Naomi Sayers-i zuzendutako iruzkina openparliament.ca; Marina S. (@marstrina) Twitter, 5:29 a.m., 2016ko otsailak 18: «@sarahditum Nik beti gauza bera esaten dut: haien hautua bada, zertarako da dirua?»; Claire OT (@claireOT) Twitter, 2:27 p.m., 2015eko martxoak 31: «@MrsWomannion Uste duzu sexu-langile/prostitutaren batek doan egingo lukeela, ordainduko ez baliote? @Elisablerb».

158 Ikus Internships, hemen: equalitynow.org.

159 Ikus Volunteering, hemen: ruhamia.ie; Cockroft, S. eta Spillet, R. (2017ko urtarrilaren 19a) «Oh the irony! Fight Against Slavery group advertises for "volunteer unpaid" staff to work a minimum of eight hours a week for FREE and "join the battle against worldwide poverty"», *Daily Mail*, dailymail.co.uk.

adibidez, goi-mailako profila duten kazetarientzat. Nolanahi ere, ez da hala emakume langile gehienentzat edo langileentzat oro har (ezta kazetari askorentzat ere).¹⁶⁰ Langile gehienek baldintza bidegabereren bat pairatzen dute beren lantokietan, eta, eskuarki, ez lukete lana doan egingo. Lana latz samarra izaten da askotan, batez ere gutxi ordaintzen denean eta prestigiorik ez duenean. Horrek ez du esan nahi egoera hori ona denik, edo normalizat jo eta onartu behar genukeenik; baina, era berean, alferrik da pentsatzea lana oro har zoragarria dela eta, beraz, alde batera utzi behar ditugula irizpide horrekin bat egiten ez duten bizipenak dituzten langileen eskakizunak.

Emakumeek egiten dituzten beste lan batzuekin gertatzen den bezala, «lan femeninoaren» devaluazio sexistak ezabatu egiten du sexu-langileek egin behar duten ahaleginaren alderdi emozionala eta atzera-aurrera guztia, eta uneoro sarketarako gertu egotera mugatzen du gure lana. Eta hori da, hain zuzen, prostituzioa «ez-lantzat» jotzeko ideia nagusia: zuloak baino ez gara, eta eskaintzen dugun bakarra da gure onarpena erostea. Erresuma Batuko feminista batek hau idatzi zuen: «Gizonak premisa batekin ordaintzen dio sexuaren truke emakumeari: ordaindutako denboran berak nahi duena egin dezake haren gorputzarekin».¹⁶¹ Beharbada erraza da adierazpen horren aurrean buruarekin baietz egitea oharkabea, baina, ondo aztertuz gero, ohartuko gara horrelako iruzkinek zera erakusten dutela: ustez gaitzesten ari diren hori betiketuz ari direla. Masajista batek, zeinak –sexu-langileak bezala– denbora eta zerbitzuak saltzen baititu, ez produktu fisikoak, ez du premisa horrekin lan egiten, hau da, «[bezeroak] edozer egin dezakeelakoan haren gorputzarekin diru-truke erositako denboran»; eta, noski, nabarmenki ikaragarria izango litzateke masajista bati buruz baieztapen hori egitea. Ostera, posible da sexu-langileei buruz hori esatea, eta

160 Sexu-jazarpena eta arrazismoa ohikoak dira oraindik hedabideetan, eta ezagun da katearen goiko muturreko kazetariak kazetari gazteago eta baztertuagoen ideiak eta ospea lapurtzen dituztela, batez ere emakumeenak, beltzenak, langile-klasekoenak eta pertsona desgaituenak. Kazetaritza-lanpostuen prestigioa kazetari hasi-berrien aurka erabil daiteke, zeini esaten baitiete –esplizituki edo implizituki– lan hau edo bestea egiten ez badute edo arazo horren aurrean isiltzen ez badira badirela beste ehun egingo dutenak.

161 Guest Blogger (2014ko irailaren 24a) «FIL 2014 responds to SWOU», *The F-Word*, thefword.org.uk.

horrek erakusten du zer errotua dagoen uste hori, alegia, sexua saltzen duten emakumeek bezeroen esku uzten dituztela gorputzaren muga guztiak: hala uste dute –eta uste hori elkarrekin sendotzen dute– bai gure erasotzaileek bai beren burua gure defendatzailetzat dutenek ere.

Baieztapen horiek, misoginoak izateaz gain, absurdoak dira. Har ditzagun, adibidez, sexu-industriaren ohiko akronimoak –esate batera, OWO («oral without» [oral a gabe], hau da, kondoirik gabeko zupada)–, zeinak langileen iragarkietan eta bezeroen iruzkinetan agertzen baitira. Terminologia horrek adierazten du bi aldeek onartzen dutela sexu-langileek mugak dituztela eta langileek espero dutela bezeroek muga horiek errespetatuko dituztela. Azken batean, dirua eskuz aldatu ondoren mugek beren esanahia galtzen badute, zergatik adierazten dute iragarkiek –hain zuzen ere, sexu-industriaren esparruan xehetasun horiek jakinarazteko sortutako jargoian— Mia-k sexu oral a kondoiarekin saltzen duela eta Jade-k, berriz, «oral a gabe» eskaintzen duela? Miak eta Jadek kondoiaren erabilerari buruz egiten dituzten zehaztapenek ez lukete garrantzirik izango baldin eta haien onarpena aurrez «erosita» balego.

Masajista bat inori sexu oral a ematera behartzea sexu-eraso bat izango litzatekeen modu berean –masaje-zerbitzua saltzen duenean ez dizulako ematen bere gorputzarekiko «eskubidea»–, sexu-langilea (adibidez) kondoirik gabe sexu-harremanak izatera behartzea bortxaketa da, hain zuzen ere sexu-langileak ez diolako saldu bezeroari bere gorputza «hark nahi duen bezala, erositako denboran» erabiltzeko eskubidea. Alde horretatik, sexu-langilea aktore batekin pareka daiteke, zeinak ederto baitaki ez dela gauza bera maitasun-eszena bat antzeztea eta kamerak grabatzen ari ez direnean norbaitek berari bularrak igurztea edo filmaren ekoizlea bere atzetik ibiltzea, karabanara joan eta «masaje» bat eman diezaion. Weinstein osteko garai honetan, baldin eta sexu-langileen segurtasuna serio hartuko badugu, haiei ere zinema-izarrei ematen diegun sinesgarritasun bera eskaini behar diegu, eta pentsatu behar dugu badakitela bereizten lanaren parte den sexu-ukitu baten eta –lantokian gertatu arren– sexu-eraso baten artean.

Eraso horiek bortxaketa gisa ulertu ahal izateko, ezin dugu pentsatu sexu-lana onarpen baten erosketa denik, non sexu-

langileok gure mugak eta gorputzaren eskubideak eskaintzen baititugu diruaren truke. 2017an, Erresuma Batuko Amnesty Internationalen Urteko Batzar Nagusian, adierazpen hauek egin zituen Nikita-k: «Bortxatu nautela esaten dudanean nire hitzak sinesteko, bortxatu ez nautela esaten dudanean ere sinetsi behar dituzu».¹⁶²

Gure kulturean, pertsona batek beste norbaiti sarketa sexual bat egiten badio, menperatze-ekintza bat da intrintsekoki; aldiz, pertsona bati norbaitek sarketa sexual bat egiten badio, haren menpeko bilakatzen da. Horren arabera, sexu-langileekiko tratu txarrak normalizatzen hasiak dira. Gu saltzaileok sarkeitaren bidez beharrezkoak bagaituzte, horren ondoren datorren umiliazio guztia –idaztea zakarrontziak garelara, haragi-zuloak, espermaren edukiontzia edo panpina puzgarriak– gauza jakintzat jotzen da, ez dugu pentsatzen diskurtso misoginoa aktiboki errepikatzen eta iraunarazten ari garenik; eta hori guztia feminismoaren izenean.

Lantokiko baldintzei buruz zintzotasunez berba egiten dutenean, sexu-langileak beldur dira ez ote dieten arma bat eskaintzen aurkari politikoei; lanari buruzko keak, paradoxikoki, sexu-langileak «benetako langiletzat» ez hartzeko eta, beraz, albo batera uzteko «justifikazioa» bilakatzen dira.¹⁶³ Erresuma Batuko feminista ezagun batek honela zioen txantxetan: «Burruratu zaizu inoiz zakil-olde bat zure aurpegiaren kontra edukitzea izan daitekeela zure lanbidea? [...] Zenbat eta gehiagotan egin, txikiagoa izango da dirua irabazteko ahalmena, baina, diotenez, fetitxeak askotarikoak izan daitezke!».¹⁶⁴ Txantxa honetan datza: sexu-langileen uste «okerraren» arabera, haiek egiten dutena lana da, nahiz eta lan hori sexista eta adinkeriazkoa izan daitekeen. Jakina, baldin eta lanean diskriminazio sexista eta adinkeriazkoa jasateak inor langile-kategoriatik egotziko balu, emakume zahar

162 Mullin, F. (2017ko apirilaren 11) «In Full Sight: "The pimp lobby" at the Amnesty AGM», Verso, versobooks.com.

163 Babcock, W., Ha-Redeye-k aipatua, O. (2011ko abuztuaren 10a) «In Memorandum: Wendy Babcock (1979–2011)», *Law is Cool*, lawiscool.com.

164 Criado-Perez, C. (@ccriadoperez) Twitter, 2:39 p.m., 2016ko irailaren 17a «@hey Lee, bururatu zaizu inoiz zakil-olde bat zure aurpegiaren kontra edukitzea izan daitekeela zure lanbidea? Abantaila handiak ditu; adibidez, arrisku handiagoa ondoko honetarako...»; Criado-Perez, C. (@ccriadoperez) Twitter, 2:44 p.m., 2016ko irailak 17, «Tira... zenbat eta gehiagotan egin, txikiagoa izango da dirua irabazteko ahalmena, baina, diotenez, fetitxeak askotarikoak izan daitezke!».

gehienak egotziak izango lirateke: adinean aurrera egin ahala, handitu egiten da generoaren araberako soldata-arrakala.¹⁶⁵ Baldin eta «benetako» langile bakarra bada lanean zapalkuntzarik edo esplotaziorik jasaten ez duena, alferrikakoa da langileen eskubideen aldeko ahalegin oro.

Langile batzuk aski zorionekoak dira, eta soldata ona, lan esanguratsua eta autonomia dute, baina gutako gehienok esplotazioaren sorbatz zorrotza sentitzen dugu nola edo hala. Beharbada zure nagusiak zure eskupekoaren zati bat hartzen du, edo zure bikotekidearen urtegunean lan egitera behartzen zaitu, edo zure aitonaren hileta-egunean. Beharbada gero eta gehiago axola zaizu zure ordutegian ordainik gabeko hamabost minutu gehiago azaltzea egunero, edo gero eta gehiago kezkatzen zaitu joan-etorrietan egiten duzun denborak –zeina ez baitizute ordaintzen eta, gainera, oso garestia baita–; lanera joateko ordaintzen ari zara, eta zure enpresa horren abantailak xurgatzen ari da. Neurri handi batean, soldatapeko lana esplotazioa da. Ekonomia kapitalista batean, nagusiek honela sortzen dituzte mozkinak: zure lanarekin egindako produktuarekin irabaziko dutena baino gutxiago ordaintzen dizute zuk egindako lanaren truke. Ez da arrazoizkoa pentsatzea edozein lan-mota –sexu-lana barne– ona denik oro har.

Lana txarra da?

Sexu-langileon talde txiki bat euriari aurre egin eta Eskoziako Legebiltzarraren eraikinerako gerturatu ginen, hango gobernuko ministro batekin hitz egiteko. Eskatu ziguten labur azaltzeko zergatik sartu ginen prostituzioan. Mahaiaren inguruan eserita geunden emakumeok banan-banan hitz egin genuen. Hainbat ume dituen ama bakar batek azaldu zuen familiari jaten emateko hasi zela sexu-lanean; beste batek azaldu zuen paperik gabeko migratzailea zela eta eskura zituen lan gutxietako bat sexu-lana zela; hirugarrenak azaldu zuen transgeneroa zela eta armairutik irten eta trantsizioari ekin zionean lan formala galdu zuela. Gizon batek beste lantoki batzuetan bizi izandako homofobiari buruz hitz egin zuen.

165 Harman, H. et al. (2013ko iraila) «The Commission on Older Women», txosten partziala, *Labour*, hemen eskuragarri: policyforum.labour.org.uk.

Ez zirudien ministroari zirrara handirik eragin genionik. Aipatu zuen dirua lortzeko hasi ginela guztiok sexua saltzen, eta bere tonuak adierazten zuen ez bakarrik ez zigula guztiz sinesten; orobat erakusten zuen guztiz mertzenarioa iruditzen zitzaiola diru-iturri gisa sexua saltzea. Gure istorioak drogak kontsumitzen dituzten sexu-langileenekin alderatu zituen: *haiek* ez zebiltzan prostituzioan arrazoi ekonomikoengatik, ezta?

Jakina, drogak kontsumitzen dituzten sexu-langileak arrazoi ekonomikoengatik dabilta sexu-lanean, bai behar dutena erosteko dirua lortzeko (etxebizitza, drogak), bai gauza horiek sexuaren truke eskuratzeko. Ministroaren galderaren ondoren, denok batera hitz egin nahi izan genuen, eta zalaparta handia sortu zen; azkenean, ez genuen izan kontu garrantzitsu horri buruz patxadaz eztabaidatzeko aukerarik.

Jendeak dirua lortzeko saltzen du sexua. Gertaera sinple hori, askotan, ez da kontuan hartzen, edo ahaztu egiten da, edo bazterrean uzten. Horren arrazoia hau izan daiteke: hainbeste estigmatizatzen dira sexu-langileak, ezen haien arrazoiak patologizatu egiten baitira; onartezina bilakatzen da inork halako gauza bitxi eta izugarri bat egin dezakeenik beste guztien eguneroko bizitza gobernatzen duten arrazoi arrunt eta ulergarri berengatik.¹⁶⁶ (Are gehiago drogak kontsumitzen dituzten sexu-langileak badira) Batzuetan, diruaren garrantzia are gehiago ezkututzen da, nahita, arrazoi politikoengatik. Sexu-lanak diru-sarrera duinak sortzeko beharrari erantzuten dio, baina eskuineko politikari batek egitate horri garrantzia kentzen badio eta, alderantziz, azpimarratzen badu zer neurritan gidatzen duen sexu-lana «sare klandestino kriminalak», iskin egin diezaieke prostituzioaren, pobreziaren eta gobernuaren politiken arteko loturei buruzko galdera deserosoei, eta «krimenaren kontrako borroka irmoaren» testuinguru populistan koka ditzaie prostituzioaren aurkako neurriak. Esate batera, proxenetak, trafikatzaileak eta gaizkile-taldeak zigortzeari dagokionez, Texas-ek Estatu Batuetako legedirik zorrotzenetakoa du, baina

166 Louis Fiaux XIX. mendeko sendagile frantsesak hau zioen bere azterketetan parte hartu zuten prostitutei buruz: «Haur baten psikologia ageri dute, gazte hezigabearen arretarik eza, oraindik animaltasunez gainezka den historiaurreko garun baten hustasuna». C. Bernheimer, *Figures of Ill Repute: Representing Prostitution in Nineteenth-century France*, Cambridge, MA: Harvard University Press, 1989, 211–12.

estatu hartako gobernua ez du sekula lortu emakumeen salerosketako biktimei zuzendutako zerbitzuak diruz laguntzeko funtsik, ezta ere, noski, haurrei zuzendutako ongizate-sisteman hutsuneei eta pobrezari sakonki aurre egiteko programak sustatzeko dirurik.¹⁶⁷

Sexu-langileak patologizatzea eta pentsatzea ez direla gai erabaki «onak» hartzeko, eta ez ohartzea batez ere familiaren premiek eta bizitzaren ohiko beharrek motibatuta egiten dutela aurrera, horrek guztiak zorigaitzoko ondorioak izan ditzake. 2013an, Suediako familia-auzitegi batek erabaki zuen Jasmine izeneko ama gazte batek ez zekiela zer zen berarentzat onena; epaimahaiari iruditu zitzaion Jasminek egiten zuen sexu-lana ez zela lan malgu bat, diru-sarrera duin bat eta seme-alabak egun osoz zaintzeko aukera ematen ziona, baizik eta «bere buruari kalte egiteko» modu bat.¹⁶⁸ Epaileak erabaki zuen Jasminek bere buruari kalte egiten ziola eta, beraz, ez zela gai bere seme-alabak zaintzeko, eta ez zuen kontuan hartu Jasminek bere bikotekide-ohiari buruz esandakoa, alegia, pertsona biolentoa zela. Haurren zaintza bikotekide-ohiari eman zion. Jasmine bikotekide-ohiarengana joan zen haurrak ikusteko; hark sastakada jo zion, eta hil egin zuen.

Jasminek sexu-lana egiteko zituen arazoi arrunt eta materialak kontuan ez hartzea giltzarria izan zen estatuak bere beharrei erantzuteko hartutako erabaki desegoki eta, azken buruan, hilgarriarentzat. Uste izateak sexu-langileek ez dituztela hartzen –eta ez dakitela hartzen– erabaki egokiak ez gaitu eramaten utopia feminista batera, baizik eta «erreforma»-molde hertsatzaile eta punitiboetara.

Prostituzioaren aurkako feministek eginahalean jarduten dute orobat prostituzioaren dimentsio praktiko eta ekonomikoen garrantzia txikiagotzeko. Adibidez, Catherine MacKinnon-ek hau idatzi zuen: «Eroslerik ez balego, saltzailerik ere ez legoke, hau da, trafikatzailerik».¹⁶⁹ MacKinnonek «trafikatzaileekin»

167 Smith, M., Satija, N. eta Walters, E. (2017ko otsailaren 23a) «How Texas» crusade against sex trafficking has left victims behind», *Reveal*, revealnews.org.

168 Gee, O. (2013ko uztailaren 23a) «Selling sex doesn't make you an unfit parent», *The Local*, thelocal.se; Simon, C. (2013ko uztaila) «The Bloody State Gave Him The Power: A Swedish Sex Worker's Murder», *Tits and Sass*, titsandsass.com.

169 Kumar, S. (2017ko abenduaren 1a) «Playboy made sexual abuse ordinary», *Open Magazine*, openthemagazine.com.

nahasten ditu «sexua saltzen duten pertsonak»; ondorioz, ez da kontuan hartzen sexua saltzen dutenek beharbada premia ekonomiko batengatik egiten dutela –eta behar hori ez da konponduko prostituzioa zigor-legearen bidez desagerrarazten saiatuta–. Azken batean, une batez ahaztuko bagenu jendea diru-beharragatik irtetzen dela kalera lanera, ez gintuzke kezkatu behar pentsatzeak zerekin ordeztuko duten galtzen duten diru-sarrera, edo zer ondorio izango dituen haien segurtasunari dagokionez galdutako diru-sarrera horiek etsi-etsian berreskuratzen saiatzen direnean.¹⁷⁰

Elkarriketatik dirua ezabatzen baduzu, sexu-langileek bitxiak edo hautsiak dirudite. Akademiko batek idatzia duen bezala, «Prostitutek biografia pertsonal bereizgarriak dituzten usteak historia luze eta zoritxarrekoa du: “prostitutaren psikopatologiari” buruzko mito maskulinoek oraindik ere badiraute», eta, XXI. mendean, mito horiek estaldura feminista dute.¹⁷¹ Sexu-langileak –esan edo iradokitzen da– ez daki zer kome ni zaion, eta, aitzitik, umetako trauma batek gidatuta jokatzeko du. Kat Banyard prostituzioaren aurkako militanteak, adibidez, argudiatzen du «zentzuzkoa» dela pentsatzea sexu-langile batzuek sexu-indarkeria jasan zutela umetan; izan ere, «umetan sexu-abusua jasan duten pertsonetan ohikoa da mugak errespetatzeko zailtasunak izatea».¹⁷² Sexu-lanaren bizirauleek uko egin diote beren bizitzak patologizatzeko ahalegin horri. Lori Adorablek hau idatzi du: «Ez da nolabaiteko “kalte” iraunkor batengatik edo trauma errepikatzeak konpultsioagatik. Kontua da [umetako sexu-abusuen] bizirauleek askotan ez dutela izaten familiaren babesik».¹⁷³ Beste era batera esanda, etxetik eta abusuzko familia batetik ihes egin dutenek hara itzuli behar ez izateko premia gorria dute, eta beharbada sexua salduko dute itzulera hori ekiditeko. Behar material bat da, ez patologia bat.

170 Sexu-langileen Eskubideen aldeko Sarea (2015eko maiatza) «Failures of Justice: State and Non-State Violence Against Sex Workers and the Search for Safety and Redress», erreportajea hemen eskura daiteke: nswp.org, 45.

171 Scambler, G. et al. (1990) «Women prostitutes in the AIDS era», *Sociology of Health & Illness*, 12:3, 260–73.

172 Banyard, K. (2010) *The Equality Illusion: The Truth about Women and Men Today*, Londres: Faber and Faber, 146.

173 SCOT-PEP (d.g., 2018ko ekainaren 27an kontsultatua) «Assumptions used to discredit sex workers», *Scot-Pep*, erreportajea hemen eskura daiteke: scot-pep.org.uk.

«Emakumeentzat, behar ekonomikoa da prostituzioan jarduteko arrazoi nagusia», Erresuma Batuko Barne Ministerioko ikerlarien arabera.¹⁷⁴ Julia Laite akademikoak honela dio: «XIX. mendearen amaierako azterketa batzuek erakutsi zuten Britainia Handian sexua saltzen zuten emakumeen erdiak etxeko zerbitzariak izanek zirela; hainbeste gorrotatu izan zuten lanbide hura, ezen lanpostuak beren borondatez utzi baitzituzten».¹⁷⁵ Laitek 1920ko hamarkadako sexu-langile baten aipua jasotzen du, zeinak honako hau galdetzen baitio bera atxilo hartu zuen polizia: «Zer emango didazu lanbide hau uzten badut? Garbitegiko lana, astean 2 libratan? Nik 20 libra atera ditzaket, erraz bai erraz».¹⁷⁶ 1980ko hamarkadan, Nickie Roberts sexu-langileak ere ikuspuntu horren oihartzuna jaso zuen:

Soldata kaskar baten truke fabrika ziztrinetan lan egitea, hori da nire bizitzan egin dudana lanik beheragarri eta esplotatzaileena [...] Uste dut beste hitz bat erabili behar litzatekeela langile-klaseak egiten duen lan-mota adierazteko, erdi-mailako klasekoek –karrerak dituzten horiek– egiten duten lanetik bereizteko. Bururatzen zaidan bakarra «lan astuna» da. Ustela eta alferrekoa da, eta ez da ezta bizitza erdia ere. Immorala da. Eta, halere, esaten nuen bezala, espero da langile-klaseko emakumeek beren buruari guztia ukatzea [...] Zergatik jasan behar dut erdiko klaseko feminista bat, galdetzen didana zergatik ez dudana «beste zerbait egiten –are komunak harraskatu?–» strip-teasean jardun baino? Zertan da askatzailea beste batzuen kaka garbitzea?¹⁷⁷

Behar ekonomikoaren betaurrekoak jantziz gero, jendeak sexu-lanari ekiteko arrazoiak beste modu batean ikusten dira; ez dira gaitzesgarriak edo gorrotagarriak, baizik eta maiz deus ere balio ez duen mundu batean bizirauteko estrategia arrazionalak. Beste ikertzaile-talde batek dioen bezala, emakumeek «gizonek baino aukera handiagoa dute langabezia egoteko, azpienpleguak edukitzeko edo ordain eskasa jasotzeko»; oztopo horien aurrean, «aukerarik erakargarriena prostituzioa izan daiteke».¹⁷⁸

174 Hester, M. eta Westmarland, N. (2004ko uztaila) «Tackling Street Prostitution: Towards an holistic approach», *Home Office Research, Development and Statistics Directorate*, hemen eskura daiteke: dro.dur.ac.uk.

175 Laite, J. (2014ko apirilaren 30a) «(Sexual) Labour Day», *Notches*, notchesblog.com.

176 *Ibid.*

177 Roberts, N. (1986) *The Front Line: Women in the Sex Industry Speak*, Londres: Grafton Books, 232–3.

178 Scambler, G. et al., «Women prostitutes in the AIDS era».

Dudu Dlamini sexu-langile hegoafrikarrak honela dio:

Izana naiz jada Lurmutur Hirian jendearen etxe madarikatuak garbitzen. Garbiketa-lan asko egin ditut etxe ugaritan. Goizean goiz jaiki eta leihoak zabaltzen nituen, garbitu, kozinatu, umeentzako olo-ahia egin, umeak eskolara eraman eta haien arropak lisatu, zer eta lotarako toki baten truke, janari-plater baten truke, ezta zigarreta xume bat ere horren ostean. Beraz, kito.¹⁷⁹

Erresuma Batuko pisu batean sexua saltzen duen emakume migratzaile batek honela dio: «Lan hau hobea da; dirua ondo eta erraz irabazten da. Garbitzaile-lana benetan gogorra zen, eta ez zen diru askorik irabazten. Oraindik ere garbitzailea naizela esaten dut, gezurra esan behar baitut, baina ez dut garbitzailea izan nahi».¹⁸⁰

Arraza eta desgaitasuna giltzarriak dira sexu-lanaren demografian. Pluma Sumaq-ek hau idatzia du, jende beltz askoren iritzia jasota: «Prostituzioa ez da erreka jotzen duzunean egiten duzuna. Prostituzioa da ez itotzeko egiten duzuna. Igeri egitea da; ez, oster, hondoratzea. Aurre egitea da; ez, oster, desagertzea».¹⁸¹ Ama maori anonimo batek honela dio:

Nire gorputza ez da gai astean 40 orduz lan egiteko, eta ez dit uzten ere ondo ordaindutako zerbaitetarako neure burua prestatzen. Lan-desgaitasuna dut, eta nire gizarteak ez ditu kontuan hartzen nire moduko pertsonak, nire alabaren modukoak [hark ere desgaitasuna du] [...] Sexu-langilea izanda, nire gaitasunaren arabera lan egin dezaket: ondo sentitzen banaiz, lan egiten dut; ondo sentitzen ez banaiz, ez dut lanik egiten. Eta alaba zaintzeko denbora pila bat dut.¹⁸²

Beste talde marjinatu batzuekin gertatzen den bezala, LGTBQ kolektiboko pertsonak ere gainordezkatuta daude sexulanean.¹⁸³ Diskriminazioak, bazterketak eta abusuak –etxeoak

179 Mgbako, C.A. (2016) *To Live Freely in This World: Sex Worker Activism in Africa*, New York: NYU Press, 38.

180 Mai, N. (2009) «Migrant Workers in the UK Sex Industry: First Findings», London Metropolitan University, hemen eskura daiteke: archive.londonmet.ac.uk.

181 Sumaq, P. (2015) «A Disgrace Reserved for Prostitutes: Complicity & the Beloved Community», *LIES: A journal of materialist feminism*, 2, 11–24, 13–14, hemen eskura daiteke: liesjournal.net.

182 «A Mother» (2017ko irailaren 4a) «Sex work is how I support my family», *The Spinoff*, thespinoff.co.nz.

183 «Transgeneroen komunitateko kide izanik sexu-lanean diharduten pertsonen proportzioa sexu-langile diren emakume zisgeneroen proportzioa baino handiagoa da. Horrek adierazten du transgeneroak gizartean baztertuta daudela maiz. Erabat sustraituta eta aurreiritziz josita dauden jarrerak eragotzi egiten diete LGBTI pertsonen

eta komunitate zabalagoetakoak– haien prekaritatea eta zaur-garritasuna areagotzen dute gizarte homofobo eta transfobo honetan, eta prostituzioa da pobreziari iskin egiteko geratzen zaien bideetako bat. Emakume transen kasuan, bereziki, enplegu formalak haien eskueratik kanpo egoten dira maiz. Eskola-uztearen ratio handiek, familia-babesaren faltak eta osasun-zerbitzu egokia eskuratzeko ezintasunak (horien artean, generoa berresteko tratamenduak ordaintzeko baliabideak) babesgabe uzten ditu pobreziaren, gaixotasunaren eta etxebetasunaren aurrean. Londresen, etxerik gabeko gazteen laurdena LGBTQ kolektibokoak dira, eta horietatik % 70 beren familiek bota dituzte etxetik.¹⁸⁴

Zuzenbide penalaren bidez, oso zaila da inork sexu-zerbitzuak saltzeari utz diezaion eragozte. Kriminalizazioak arriskutsuagoa bihur dezake, baina estatuak ezer gutxi egin dezake pertsona batek sexu-zerbitzuak saldu edo erosteko duen gaitasuna murrizteko. Hala, prostituzioa biziraupen-estrategia iraunkorra da ezer ez duten haientzat, ez prestakuntzarik, ez titulurik, ez trebetasunik. Ez dago ia aurrebaldintzarik kalera irteten eta bezero baten zain egoteko.¹⁸⁵ Biziraupenerako sexu-lana arriskutsua izan daiteke, hotza eta beldurgarria, baina hor dago eskura dituzten gainerako aukerak (gosea, etxerik eza, abstinentzia-sindromea) okerragoak direnentzat. Haien azken heldulekua da: premiadun ia edozeinek eskura duen «segurtasun-sarea». Horra hor sexu-lanaren erresilientzia menderakaitzaren jatorria.

hezkuntza-sisteman parte hartzea, eta horrek eragina du bizimodua ateratzeko eta etxebizitza bat lortzeko aukeretan. Pertsona horiek, halaber, gizarte-laguntzako zerbitzuak eta justizia eskuratzeko aukera gutxiago izan ohi dute, estigmaren eta diskriminazio instituzionalizatuaren ondorioz». Amnesty International, «Amnesty International policy on state obligations to respect, protect and fulfil the human rights of sex workers», POL 30/4062/2016, 2016ko maiatzaren 26a, amnesty.org, 5–6.

184 Gorton, T. (2015eko otsailaren 27a) «A quarter of the UK's homeless youth are LGBT», *Dazed*, dazeddigital.com.

185 Sexu-langile ugarik beste alde on batzuk ikusten dizkiete kalean lan egiteko aukerari. Esate batera, komunitatearen edo adiskidetasunaren sentipena eta erabateko malgutasuna. Kaleko sexu-lanean hastea ezein sexu-lanetan hastea baino errazagoa da. Adibidez, zure droga-kontsumoaren, osasun mentalaren edo zaintza-arduren ondorioz zaila bazaizu errutina bati jarraitzea edo aurrez zehaztutako txandak egitea, kaleko sexu-lanak oztupo horiei aurre egiteko aukera ematen dizu. Ez duzu lan egiteko tokiaren truke ordaindu behar, eta ez duzu tresna espezializaturik behar (adibidez, BDSMrako kita edo klubean lan egiteko arropa bereziak). Horrenbestez, jendeak askotan kaleko sexu-lanean jardutea erabakitzen du baliabidez urri dabiltzanean, zoritxarrei aurre egiteko –esaterako, etxebizitzarik gabe geratzeari–.

Prostituzioaren aurkako militante batzuentzat, sexu-industriari buruzko kezka kapitalismoaren kritika zabalago batean kokatzen dira. «Zergatik defendatzen du ezkerrek merkatu librea baldin eta soilik baldin salgaia emakumeen gorputza bada?», galdetu zuen Julie Bindel-ek.¹⁸⁶ Galdera horren egileek gaizki ulertzen dute edo desitxuratu egiten dute argudiaketa. Ezkerrek lan-eskubideak babesten ditu, enplegatzaileen eta langileen arteko botere-oreka berdintzeko xedearekin. Gizarte kapitalista batean, zerbait kriminalizatzen baduzu, kapitalismoak merkatu horretan presente egoten jarraitzen du. Gizarte kapitalista batean, eskatzen badigute sexu komertzialaren kriminalizazioa edo deskriminalizazioa aldezteko, ez digute eskaintzen «merkatu librearen» gidaritzarik gabeko prozesu bat. Begira Ameriketako Estatu Batuei, non drogen kontsumoa, salmenta eta banaketa kriminalizatuta baitago ia erabat. Baldin eta, Julie Bindelen azterketari jarraituz, ezin bada merkatu kapitalistarik egon, droga kriminalizatuta dagoelako, jarduera horiek irizpide komunista edo sozialista baten arabera gertatzen ari dira? AEBko droga-merkatua opari-ekonomian oinarritzen da, agian?

Egia esan, AEBko droga-merkatuak ondo baino hobeto erakusten duen gisan, kapitalismoa inoizko indartsuena da hein handi batean merkatu kriminalizatueta. Izan ere, merkatu kriminalizatueta ez dago araudirik, ez dago langile-eskubiderik. Sexu komertziala kriminalizatuz gero, ez dago langile-eskubiderik; aldiz, sexu komertziala deskriminalizatuz gero, sexua saltzen dutenek lan-zuzenbidera jo dezakete. Ezkerrek uste du langileek eskubideak eduki behar dituztela; horregatik aldeztu du sexu-lanaren deskriminalizazioa.

Prostituzioan pertsona marjinatu askok dihardu, eta hori jardun horren arrotasun harrapariaren frogatzat jotzen da, baina, egiaz, gure artean nagusi den gizartearen akats normalizatu eta sistemikoak islatzen ditu. Islatze hori hain da zorrotza, jendea deseroso sentiarazten baitu; baina, ulertu beharrean deserotasunaren iturria egoera hori eragin duten desberdintasun ekonomikoetan datzala, arazoa «besterendu» eta jatorria prostituzioan kokatzen dute. Antzeko dinamika ikusten dira

186 Bindel, J. (2017ko abuztuaren 26a) «If women's rights are human rights, why do such organisations push for the decriminalisation of prostitution?», *Independent*, independent.co.uk.

etxegabetasunari emandako erantzun punitiboetan, hala nola jendeari isuna jartzea eskean aritzeagatik edo kalean lo egiteagatik eta «etxegabeen aurkako babes punta-zorrotzak» ipintzea etxe-atarietan, aldi baterako babesleku gisa erabil ez ditzaten. Oxford hiriko zinegotzi batek argiegi azaldu zituen benetako arrazoiak: «Kalean lo egiten duten horietakoren batengana joan eta esango nioke: “Lotsaizun hutsa zara”. Ez dut uste horrek ezer konponduko lukeenik, baina errespetu handiagoa erakutsi behar lukete».¹⁸⁷ Ez da zaila antzekotasunak aurkitzea kaleko sexu-lanari buruz esaten direnekiko; izan ere, prostituzioaren aurkako legearen aldeko askok azpimarratzen dute kaleko sexu-lanaren ikusgarritasuna murriztea lege horien arrakasta neurtzeko funtsezko tresna bat dela (eta ez, adibidez, sexu-langileen segurtasun-mailaren igoera edo pobrezia-mailaren jaitsiera). Etxegabetasunaren eta kaleko sexu-lanaren ikusgarritasunak haserrearazi egiten du jendea kalean lo egiten ari direnekin eta kalean sexu-zerbitzuak saltzen ari direnekin.

Prostituzioa lana dela diogunean ez dugu esaten lan ona denik edo kritikatu behar ez genukeenik. Pobrezia edo ordain txikiagoko lan bat baino hobea izatea irizpide-maila izugarri txikia da, batez ere askapenerako ezein mugimendutako kidea dela aldarrikatzen duen ororentzat. Sexua saltzen duten edo harekin tratuak egiten dituzten pertsonak munduan botere-maila txikiena dutenen artean daude, maiz lanik okerrenak egitera behartutakoen artean. Baina horregatik, hain justu, prostituzioaren aurkako militanteek ondo kontuan hartu behar lukete sexu-lanaren bidez pertsonak beharrezko dituzten *baliabideak lortzen dituztela*. Aitzitik, errealitate hori alde batera uzten da arinkeriaz; lan txar bat galtzea, esaten digute, ez da hainbesteko.¹⁸⁸ Lana galduta, dioskue, aldaketa soziala lortzen dugu. Honela zioen Meghan Murphy prostituzioaren aurkako feminista: «Beraz, ez genuke saiatu behar petrolio-industria gerarazten, jendeak lana galduko baitu, ezta? Hori ez da oso aurrerakoia [...] jarduera kaltegarrien alde egitea jendeak lana galdu ez dezan».¹⁸⁹

187 Pye, K. (2017ko otsailaren 24a) «Councillor John Tanner apologises for calling Oxford homeless “a disgrace”», *Cherwell*, cherwell.org.

188 Dr Langtry (@DrLangtry_girl) Twitter, 6:37p.m., 2014ko azaroak 18: «Ez. Lan esplotatzaileari uko egitea ez da sakrifizioa».

189 Murphy, M. (@MeghanEMurphy) Twitter, 3:41 a.m., 2018ko otsailak 2: «Beraz, ez genuke saiatu behar petrolio-industria gerarazten, jendeak lana galduko baitu, ezta?»

Argudiaketa horiek egiten dituztenek uste dute «gizarte-aldaketa» zerbait kentzetik etorriko dela. (Jakina, lan horietako asko ezin dira zuzenean alderatu sexu-lanarekin: petrolio-industriako langileak, bankariak eta energia nuklearraren alorreko zientzialariak ez daude gizarte-pilaren azpialdean). Baina, bizirauteko baliabideak kenduz gero, gutxi samar dutenek beldur izateko eskubidea dute. 1980ko hamarkadan, Britainia Handiko meatzariak ez zuten jo grebara meatzaritza munduko lanik zoragarriena delako; besterik gabe, arazoiz uste zuten ezen, meatzari-lana kenduz gero, Thatcher-en gobernuak pobrezia gorriaren menpe utziko zituela beren komunitateak. Era berean, sexu-langile gutxi egongo lirakeke sexu-industria abolitzearen aurka, baldin eta ziurtatuko baliete *sexua saldu beharrik gabe* ere eskura izango lituzketela premiazko dituzten baliabideak.

Horren ordean, baina, politikari laborista batek sexu-langileen soldata bere ustez «txikia» aipatzen du argudiatzeko ez lukeela arazorik eragingo hura are gehiago murrizteak.¹⁹⁰ Hain zuzen ere, jendearen diru-sarrerak txikiak direnean da erabat lazarria haiek murriztea; lanak txarrak direnean, langileek inoiz baino beharrezkoago dituzte langile-eskubideak.

Kanpotik begiratuta, jendeak askotan uste du sexu-zerbitzuak saltzea lan izugarria dela, eta sexu-langile ugari ere ados egongo lirakeke. Nolanahi ere, sexu-langile horientzat arazoa

Hori ez da suuuper aurrerakoia (edo inteligentea, egia esan), jarduera kaltegarrien alde egitea jendeak lana galdu ez dezan [...] Kapitalistak eta politikari liberalak ditugu hori egiteko».

190 2012an, Rhoda Grant politika laborista sexu-erosketa kriminalizatzen saiatu zen Eskozian, eta sexu-langileen kritikei aurre egin behar izan zien, diru-sarrerak galtzearen eta horren ondoriozko pobrezia beldur zirelako. Erantzun gisa, Grantek ikerketa bat aipatu zuen, non ageri baitzen sexu-langile batek hogeita hamazazpi libra irabazten zituela batez beste bezero batekin egoten zen aldiro; datu horrek, politikariaren ustez, «bertan behera uzten du mitoa», sexu-lana irabazi handiak ematen dituen lanbide gisa irudikatzen duena. Argi dagoenez, esan nahi zuena zen kopuru hori hain zela «txikia» non sexu-langileen diru-sarrerak txikitzeak ez baitzuen arazo handirik ekarriko. Baina hogeita hamazazpi libra bezeroko –hogei minutu eta ordu bat bitarteko lana– ez da kopuru hain txikia bestelakoan soldata minimoa irabaziko zuketuen emakumeentzat, zeina garai hartan 6,19 libra/ordu-koa baitzen (ikerketak marjinazio-maila handia jasaten zuten eta Ingalaterrako toki erabat baztertu batean bizi ziren emakumeak zituen ardatz; beraz, ziurrenik soldata hori ere ez zuketuen irabaziko). Grant andrea –67.000 libra irabazten ditu urtean– eta berak ez bairik gabe ezjakintasunak eraginda diruari, pobrezia eta lanari buruz duen ikuspegia honen adibide hona dira, alde askotatik: feminista punitiboek ekonomiari eta sexu-industriari buruz duten ikuspegiarena. Ikus R. Grant, «Proposed Criminalisation of the Purchase of Sex (Scotland) Bill (2): Summary of Consultation Responses», Scottish Parliament, 2013, www.parliament.scot.

ez litzateke izango *sexua*, baizik eta *lana*. Langileek greba egiten dutenean, soldatar uko egiteko gaitasunean oinarritzen dira, eta greba bertan behera uzteko tentazioa areagotu egiten da dirua amaitzen doan neurrian. Negoziazio orotan, negoziazio-mahaitik alde egiteko gaitasunik handiena duen aldeak izaten du botererik handiena. Sexu-lanean, asimetria bat dago beharrei dagokienez: prostituzioaren aurkako feministek atseginez nabarmentzen dutenez, ezein gizonek ez du behar sexua erostea; azken finean dibertimenduzko jarduera bat da. Sexu-langileek, berriz, izan *badute* beharra. Dudu Dlamini dioen bezala, «Diru-kontu bat da, ez besterik [...] Zer jango dut nire seme-alabekin batera? Nire umeak gose dira orain. Diru azkarra behar dut [...] Pentsatzen nuen: “Joan egingo naiz. Biziraungo dut. Eta diruarekin itzuliko naiz. Nire haurrak zainduko ditut”». ¹⁹¹ Funtsezko ikuspuntu batetik, bezeroak ez dira eskaera, baizik eta *eskaintza*; sexu-langileontzat, bezeroek baliabidez hornitzen dituzte gure bizitzak.

Bezeroak ikusi ditugu Interneteko foroak erabiltzen, zer-eta beren auzoko ordainpeko neska-lagunei boikota egiteko xedez antolatzeko eta, hala, haien zerbitzuen prezioak jaistera behartzeko. Bezeroek, noski, erraz egin diezaiokete uko sexu komertzialaren luxuari; eta, ondorioz, haien buru denak badaki ordainpeko laguntzaile horiek erraz etsiko dutela, berak eta bere lagunak luze eutsi baitiezaiokete sexu-langilerik gabe. Sexua saltzen duen pertsonak erosleak baino askoz gehiago *behar* du transakzioa gauzatzea, eta behar horrek zaurgarri bilakatzen du. Era berean, kalean jarduten duen sexu-langilea etsi egiten da polizia-operazio baten ondoren negozioak behera egiten duenean, eta, etsipenaren ondorioz, galdu egiten du eskakizun bidegabeei uko egiteko gaitasunaren zati bat. Tratu bat onartzeak esan nahi du amore eman behar dutela bezeroek poliziari dioten beldurra-*ren* aurrean; bezeroak gauerdiz eta argiztatu gabeko parke batean egin nahi badu tratua, ezkutuan ibiltzeko, eskakizun horiek egin ditzake, edo ordaindu gabe alde egin. Jendeari erakargarri zaio Ipar Europako herrialdeetako lege-moldea, sexu-eroslea soilik kriminalizatzen duena, ez prostituta; baina sexu-langileen negozioa murriztea helburu duen edozein kanpaina edo politikak

191 Mgbako, *To Live Freely*, 37.

defizita irenstera behartuko ditu sexu-langileak, dela beren diru-zorroren bidez, dela beren lan-baldintzen bitartez. Munduko Industria Langileak sindikatuko kide den sexu-langile batek dioen bezala,

Ohartu naiz ezen nire lana erraz, seguru eta atsegin bihurtzeko dudan gaitasunak lotura zuzena duela une horretan egiten ari naizen horrekin bizirauteko dudan ahalmenarekin [...] Seguruago egon ninteke baldin eta baztertu egingo banitu hasieratik nireganako errespetu falta erakusten duten bezeroak, baina badakit zehazki non jarri behar dudan jasan behar dudanaren marra gorria. Zenbait astez ordaindu ez badidate, ohi baino arriskutsuagoak diren bezeroak onartu behar ditut.¹⁹²

Sexu-langileok horretaz berba egiten dugunean, askotan gaizki ulertzen digute, pentsatzen baitute adierazi nahi dugula gizonak nolabaiteko «eskubidea» dutela sexuaren truke ordaintzeko. Egia esan, Soldatak Etxekoandreentzat mugimenduak 1970eko hamarkadan adierazi bezala, zure baldintzak ezarritz zerbait egiteari uko egin ahal izateko funtsezko lehen urratsa da zerbait hori *lana* dela onartzea. Silvia Federici teoriarari marxista eta feministak honako hau idatzi zuen 1975ean: «Etxeko lanentzat soldatak eskatzeak ez du esan nahi trukean ordain bat jasoz gero lan horiek egiten jarraituko dugunik. Hain zuzen ere, kontrakoa esan nahi du. Etxeko lanak egitearen truke dirua nahi dugula esatea lan horri uko egin ahal izateko lehen urratsa da; izan ere, soldata aldarrikatzeak gure lana ikusarazten du, eta hori da baldintzarik ezinbestekoena haren aurkako borrokari ekiteko».¹⁹³ Lanari lan deitzea estrategia feminista giltzarria izan da, Soldatak Etxekoandreentzat mugimenduaz harago. Hor dauka Arlie Hochschild soziologoaren «lan emozional» terminoa, Susan Maushart kazetariaren «emazte-lan» terminoa eta Sophie Lewis-en subrogazioari eta «haurdunaldiko lanari» buruzko teorizazioa; bestelakoan ikusezinak diren edo «naturalizat» jotzen diren lan-egitura feminizatuak izendatzea funtsezkoa da haste-ko pentsatzen nola egin aurre lan horri edo nola berregituratu kolektiboki.

192 New Syndicalist (2015eko uztailaren 4a) «What does a union mean to you?», hemen eskura daiteke: newsyndicalist.org.

193 Federici, S. (2010eko irailaren 15a) «Wages Against Housework», *Caring Labor: An Archive*, caringlabor.wordpress.com.

Lan bat txarra izateak ez du esan nahi «benetako lana» ez denik. Sexu-langileok diogu: *sexua lana da*. Horrekin adierazi nahi duguna da eskubideak behar ditugula. Ez dugu adierazten gure lana ona edo dibertigarria denik, ezta kalterik eragiten ez duenik ere, edo gizartean funtsezko garrantzia duenik. Halaber, guk egiten duguna langile-eskubideen esparruan kokatzeak ez du esan nahi lana bera defendatzen dugunik. Ez du esan nahi kapitalismoa edo sexu-industria handiago eta errentagarriago bat babesten dugunik. «Jendeak uste dut gure erakundearen helburua dela prostituzioa Bolivian zabaltzea», dio ONAEM erakundeko ekintzaile Yuly Perez-ek. «Egia esan, kontrakoa nahi dugu. Gure mundu idealean ez dago emakumeak negozio honetara behartzen dituen etsipen ekonomikorik».¹⁹⁴

Sexu-langileoi ez dagokigu prostituzioaren izaeragatik barkamena eskatzea. Sexu-langileok ez genuke sexu-industria defendatu behar argudiatzeko zigorrik jaso gabe bizimodua ateratzeko gaitasuna izan behar dugula. Laneko segurtasuna merezi izateko, jendeak ez luke erakutsi behar bere lanak berezko balioa duela gizartearentzat. Gizarte hobeago bateranzko bidea –non jende gehiagoren lanak izango baitu *berez* balio handiagoa, non baliabideak beharraren arabera banatuko baitira– ezin da jorratu kriminalizazioaren bidez. Era berean, baztertutako pertsonen behar materialak eta haien biziraupen-estrategiak ezin dira hutsaltzat hartu. Sexu-langileok eskatzen duguna da lanaren aurka borrokatzeko –are hura gorrotatzeko– zilegitasuna izatea eta, halere, langiletzat hartuak izatea. Ez da beharrezkoa zure lana gustukoa izatea hartan lanean jarraitu nahi izateko.

194 Friedman-Rudovsky, J. (2007ko urriaren 24a) «Prostitutes Strike in Bolivia», *Time*, content.time.com.

HIRU

MUGAK

Sexu-langileen eskubideen defendatzaileek maiz argudiatzen dute ez dela gauza bera sexu-lanean jardutea eta pertsonen salerosketan aritzea. Hori, nolabait, banalero erretoriko gisa uler daiteke: «Ez dugu honi buruz hitz egiteko beharrik. Kategoria desberdineko bi gauza dira». Guk ez diogu helduko argudiaketa horri. Izan ere, errealitatea konplexuagoa da, orobat garrantzitsuagoa.

Pertsona aurrerakoiak trafikoarekin kezkatuta daude; arrazoiz, gainera. Pertsonen trafikoak mundu mailan botere, diru eta segurtasunaren alorrean dauden desberdintasunak ikusarazten dizkigu. Legitimoa da sexu-langileen eskubideak defendatzea eta, era berean, sexu-industriaren esparruan trafikoak hartzen duen tokiarekin arduratuta egotea.

Askotan, sexu-trafikoak pertsonen trafikoaren errepikapen gisa ikusten da, eta, ondorioz, iruditzen zaigu bi terminoek gauza bera esan nahi dutela. Gizarteak oso barneratua du bi kontzeptu horien arteko lotura, eta, horregatik, beharbada norbaitek espero du atal honetan sexu komertzialari buruz hitz egitea, ez mugei buruz. Halere, bi ideia horiek nola uztartzen diren ikusita, arazo handi bat dago: sexu-industriaren esparruan, pertsonen trafikoak agiririk gabeko migrazioaren prozesu askoz luzeagoaren sintometako bat besterik ez da.¹⁹⁵ Horrenbestez, migrazioari

195 *Agiririk gabeko migrazio* terminoak hau esan nahi du: herrialde batetik bestera joateko beharrezkoak diren agiririk gabe muga igarotzea. *Migrazio irregular* esamoldea ere erabiltzen dugu; adierazten du migratzaileak legezko bideetatik migratu duela baina gero, denborarekin, agiririk gabeko migratzaile bihurtu dela edo bere agiriek neurri batean balioa galdu dutela –adibidez, bisak baimendutako denbora gainditu duelako edo migratzaileak bere enplegatzailearen lanari uko egin diolako–.

buruz hitz egiten ez bada, ezinezkoa da sexu komertziala ondo ulertzea. Pertsona esplotatuak –lan egiten dutenak sexu-industrian, autoen garbiketean, hoteletan edo Lincolnshire-ko aza-soro izoztuetaan– arazo sistemikoen biktima dira, zeinek neurri handi batean estatuan –eta ez gizabanakoetan– baitute jatorria.

Nolanahi ere, askotan ez da ongi zehazten *trafiko* terminoaren definizioa, eta, hitz hori bera erabilia ere, gauza desberdinak esan nahi izaten dira. Sexu komertzialari bakarrik begiratzuz gero, batzuek prostituzio guztia adierazi nahi izaten dute, edo, bestela, sexu-industriak barne hartzen duen migrazio guztia. Beste batzuentzat, berriz, trafikoak sexu-industriaren barruko migrazioa esan nahi du, ados, baina ez edozein motatakoa; soilik hirugarren pertsona bat edo gehiago ere inplikatzeko duena, baita hirugarren horrek irabazi ekonomikorik espero ez badu ere (adibidez, lagun edo senide bat). Adieraz dezake muga paperik gabe zeharkatzeko prozesuan zorren bat egiten duen edonor, edo zor hori egin eta sexu-lanaren bidez kitatu duena. Adieraz dezake sexua saltzeaz gain manager batentzat gestiolanak egin dituen edonor, edo sexu-abusuen gertaleku diren sexu-industriako lantoki guztiak, edozein dela ere langileen migrazio-estatusa. Adieraz dezake bahiketa edo bortxaketa.

Solasgaiak zehaztea oso lagungarria da elkarrizketaren haria jarraitzeko, baita solaskideak mahai gainean jarritako arazoeekin edo irtenbideekin bat ez datozenean ere. Trafikoa askotan gai «apolitikotzat» jotzen da, eta suposatzen da guztiok bat etor gaitetzkeela gai horretan. Bidget Anderson eta Rutvica Andrijasevic akademikoak migrazio-gaietan adituak dira; haiek idatzi bezala, trafikoaren gaia ikuspuntu kritiko batetik aztertzea da «ia-ia esatea bezala esklabotasuna babesten duzula edo amatasanaren eta sagar-pastelaren aurka zaudela. Suposatzen da trafikoren gaiak elkartu egin behar gaituela».¹⁹⁶ Baina ñabar-durak aipatzen hasten garenean, benetako arrakala politikoak azaleraetzen dira. Denok ez gatoz bat.

Gobernuek, GKE-ek eta korporazioek «trafikoaren aurkakoak» direla iragarriaz kaleratzen diren politikak finantzatzen dituzte. Erresuma Batuko legearen arabera, *trafikatzek* esan

196 Anderson, B. eta Andrijasevic, R. (2008) «Sex, slaves and citizens: the politics of anti-trafficking», *Soundings* 40, 135–45, hemen eskura daiteke: oro.open.ac.uk.

nahi du beste pertsona baten etorrera antolatzea edo erraztea, zer-eta hura esplotatzeko, nola-eta indarra, iruzurra edo hertsapena erabiliz edo trukean «ordain bat emanez edo hartuz» (esate batera, dirua).¹⁹⁷ *Esplotazioa*, berriz, honela definitzen da: «Esklabotasuna, morrontza, lan behartu edo nahitaezkoa», organoen erauzketa edo ohiko prostituzio-delituak. Horrek esan nahi du, adibidez, prostituzio-etxe bat eramatea kriminalizatuta dagoen herrialdeetan trafiko-delitua dela norbaitek prostituzio-etxe batean lan egin dezan haren bidaia antolatzea. AEBko legearen arabera, *sexu-trafiko*a honela definitzen da: «Pertsona bat errekrutatzea, ostatatzea, garraiatzea, elikatzea edo eskuratzea sexu-harreman komertzialak izan ditzan», eta, ondo irakurriz gero, ohartzen gara ez diela ezinbestean erreferentzia egiten guk «sexu-trafiko» terminoarekin lotzen ditugun kalteei.¹⁹⁸ «Ostatatzea», azken finean, izan daiteke lagun duzun sexu-langile bati zure etxean bizitzen uztea denbora batez. Erakunde batzuk behartuta daude legez trafikoaren aurka lan egitera; adibidez, trafikoaren inguruko auditoriak egin behar dituzte beren hornidura-kateetan. Beste batzuek, berriz, legeak ezarritakoa baino gehiago ere egiten dute; adibidez, Body Shop eta AllSaints txikizkariak kontzientziazio-kanpainak egiten dituzte, eta haien mozkinen zati bat trafikoaren aurkako zereginetara bideratzen dute. Gobernuak legediaren bidez saiatzeko dira trafikoari aurre egiten (esate batera, Erresuma Batuko 2015eko Esklabotasun Modernoari buruzko Legea), baita merkataritza-hitzarmenen eta diplomaziaren bidez ere.¹⁹⁹

Oro har, trafikoaren aurka lan egiten duten GKE gehienak giza eskubideen aldeko ikuspegi batetik iristen dira zeregin horretara, edo ikuspegi feminista punitibotik, edo kristautasunaren

197 Crown Prosecution Service (2018, 2018ko ekainaren 27an kontsultatua) «Human Trafficking, Smuggling and Slavery», hemen eskura daiteke: cps.gov.uk.

198 Government Publishing Office (2000ko urtarrilaren 24a) «Victims of Trafficking and Violence Protection Act of 2000», txostena, hemen eskura daiteke: gpo.gov.

199 Esate batera, AEBko Estatu Departamentuak «pertsonen trafikoa» izeneko txostena argitaratzen du urtero, non mundu osoko herrialdeen zerrenda bat agertzen baita, AEBren ustez trafikoa kudeatzeko duten gaitasunaren arabera ordenatuta. Hainbat urtez zerrendaren behealdean egoteak merkataritza-isunak ekar ditzake. AEBk atsekabe orokorra adierazi nahi duenean herrialderen batekiko –adibidez, Kuba eta Iran–, zerrendaren beheko postuetan kokatzen du, nahiz eta herrialde horien trafiko-kudeaketari buruzko daturik ez izan. Ikus Alliance To End Slavery & Trafficking, «Rankings Undermine Credibility of TIP Report: Malaysia, Burma and Qatar Upgrades Unjustified», prentsa-oharra, 2017ko ekainaren 28a, enslaveryandtrafficking.org.

ikuspegitik. Batzuek ikuspegi bi edo gehiago ere badituzte, baina, oro har, hiru joera horiek dira erakunde horien ikusmoldeak kategorizatzeke erabilgarrienak. Normalean, giza eskubideen aldeko ikuspegi oinarritzen diren GKE-ek ikusgarritasun gutxi samarreko lana egiten dute, eta toki gutxi izaten dute hedabideetako titularretan; adibidez, baliteke lan egitea Kongoko Errepublika Demokratikoko kobalto-meatzaritzaren inguruko gaitetan, edo Thaiandiako kostaldeko arrantzaren kontuetan, edo Estatu Batuetan etxeko lanetan ari diren langile migratzaileekin.²⁰⁰ Ikuspegi kristaua edo ikuspegi feminista punitiboa duten GKE-ek, berriz, prostituziora bideratzen den trafikoan jarrri ohi dute arreta. Gehienetan, haien lanak bat egiten du sexu komertziala zigor-zuzenbidearen bitartez abolitzeko xedearekin, «sexu-trafikoari amaiera emateko» azken helburuarekin.

Erakunde horietan, enplegatu gutxi dira aberatsak; gehienek batez besteko soldatak irabazten dituzte. Trafikoaren aurkako oinarriko militante batzuek, hala nola sexu-langile aktibistek, berenak eta bi egin behar izaten dituzte bizimodua ateratzeko. Nolanahi ere, banakako aktibistek igartzen ez badute ere, diru asko eta asko bideratzen da trafikoaren aurkako ikuspegiaren bitartez egiten den prostituzioaren aurkako lanera. 2012an, Estatu Batuetan *bakarrik*, prostituzioaren eta trafikoaren aurkako 36 erakunde handiren aurrekontu kolektiboa (alde batera utzi ziren hainbat eta hainbat erakunde txikiren aurrekontuak) 1,2 mila milioi dolarrekoa izan zen, eta AEBko gobernu federalak beste 1,2-1,5 mila milioi dolarreko aurrekontua izaten du urtero trafikoaren aurkako lanerako.²⁰¹ Diru horren zatirik handiena kanpainetan erabiltzen da, ez bizirauleei laguntzen; 2014an, Estatu Batuetan mila ohe baino ez zeuden prestatuta trafikoaren biktimentzat.²⁰² (Aitzitik, 2013an, sexu-langileen es-

200 Amnesty International (2016ko urtarrilaren 19a) «Exposed: Child labour behind smart phone and electric car batteries», amnesty.org; Environmental Justice Foundation «Combating Seafood Slavery: Tackling human rights abuses and slavery at sea», hemene eskura daiteke: ejfoundation.org, 2018ko ekainaren 27an kontsultatua; National Domestic Workers Alliance, domesticworkers.org.

201 Moore, A.E. (2015eko apirilaren 8a) «The American Rescue Industry: Toward an Anti-Trafficking Paramilitary», *Truthout*, truth-out.org; Moore, A.E. (2015eko urtarrilaren 27a) «Special Report: Money and Lies in Anti-Human Trafficking NGOs», *Truthout*.

202 Moore, A.E. (2017ko urtarrilaren 11) «Rich in funds but short on facts: the high cost of human trafficking awareness campaigns», *openDemocracy*, opendemocracy.net.

kubideen aldeko mugimenduak 10 milioi dolarreko aurrekontua izan zuen *mundu osoa* kontuan hartuta).²⁰³

Munstrokeria eta inozentzia

Feminista punitiboek diotenez, bezeroak eta managerrak kriminalizatuz prostituzioa abolitzeko gai izango bagina, emakumeen trafikoa desagertu egingo litzateke; izan ere, ez litzateke existituko trafikoaren azken xedea izango litzatekeen sexu-merkataritzarik. Suediako lehen ministroordeak idatzia duen legez, «guretzat agerikoa da lotura argia dagoela prostituzioaren eta trafikoaren artean [...] Prostituziorik gabe, ez litzateke emakumeen trafikorik existituko».²⁰⁴ Ikuspegi horrek, bestalde, beste edozein lan-mota baino ikaragarriagozat jotzen du prostituzioa («estatus txikiko» lana, esplotatzailea eta gutxi ordaindutakoa barne), eta, beraz, iruditzen zaio prostituzioa zigor-zuzenbidearen bidez abolitzen saiatzea helburu baliagarria dela bere horretan. Ikuspegi hori dutenez, sexu-langileen eskubideak defendatzea trafikoa defendatzea ere bada.

Solas horietan, pertsonen trafikoa ongiaren eta gaizkiaren arteko gudu bilakatzen da, munstrokeriaren eta xalotasunaren artekoa. Esklabotasuna irudikatzen, gogorkeria, kateak, sokak eta eskuburdinak erakusten dituzten irudiak erabiltzen dira, baita molde bereko adjektiboak ere, hala nola *gaizto*, *maltzur*, *zital* eta *doilor*.²⁰⁵ «Gaizki» hori sexu komertzialaren anormaltasunak sustatzen du, orobat «gaizkiaren egile» (nabarmen arrazializatu eta) ezohikoek: gizabanako gaiztoa, proxeneta, trafikatzalea. Polizia-agente batek honela laburtzen du ikuspegi hori: «Proxeneta guztiak, trafikatzale guztiak kartzelaturiko ditugu [...] eta horrela konponduko dugu arazoa».²⁰⁶ Trafikoaren aurkako kanpaina

203 Mama Cash/Red Umbrella Fund (2014) «Funding for sex workers» rights: Opportunities for foundations to fund more and better», txostena, hemen eskura daiteke: mamacash.org.

204 Melencio Herrera, A.A. (2004) «Opening and Welcome Remarks», *Philja Judicial Journal* 6:1, 1–4, philja.judiciary.gov.ph.

205 Nolot, B. (2011) «Nefarious: Merchant of Souls», hemen eskura daiteke: nefariousdocumentary.com; Bois, P. (2017ko abenduaren 20a) «How This Catholic Church Helps Sex Trafficking Victims», *The Daily Wire*, dailywire.com; Farrell, L. (2015eko urtarrilaren 28a) «Supercomputers expose the telltale signs of human traffickers», *Science Node*, sciencenode.org; Papadimitrakopoulos, G. (2015eko abenduaren 4a) «Happy trafficking: How criminals profit from an iniquitous trade», *University of Cambridge*, cam.ac.uk.

206 Smith, M., Satija, N. eta Walters, E. «How Texas» crusade ...».

ugaritan, gizon Beltz batek gatibu duen neska zuri bat ageri da: gizona neskaren ahoa ixten duen esku iluna izan ohi da, edo neskaren atzealdean kokatuta dagoen irudi mehatxari lausoa.²⁰⁷

«Proxenetak-mozorroek» 1970eko hamarkadako maskulinitate Beltzaren ikuspegi arrazista eta karikaturazkoa eskaintzen dute; Estatu Batuetako polizia-indarrek «proxeneta gorila» bezalako terminoak erabiltzen dituzte lotsagabeki, eta pertsonen trafikoa rap musikarekin lotzen.²⁰⁸ Gai honi dagokionez, batzuetan badirudi beldurrezko pelikula baten aurrean gaudela: turistek «sexu-trafikoaren ibilbidea egiteko autobusak» hartzen dituzte, berriki sexu-indarkeriazko gertaerak izan omen diren tokietara joan eta ikarak hartzeko («agian noizbait zeuen buruari galdetu diozue non gertatzen diren horrelako krimenak»),²⁰⁹ edo «herritarrak kontzientziatzeko» ogitarteko bat eros dezakete, emakume biluzi bat ageri duena, gorputza harakinak zatikatua izateko bezala markatua.²¹⁰ Gizarteak sexytzat jo ohi dituen emakume biluziak irudikatzen dira, zelofanetan bilduak edo plastikotan paketatuta, «haragia» direla adierazten duten etiketekin.²¹¹

Eta, alderantziz, biktimak «neskatotasun» azpimarratua-rekin aurkezten dira askotan. Emakume gazteak nerabezaro aurreko itxurarekin agerrarazten dira, txirikorda edo xingolekin, peluxezko hartzatxoa eskuetan. Iruditeria horrek kezka garrantzitsu bat azaleratzen du, bai XIX. mendeko trafikoaren aurkako militanteek bai gaur egunekoek komunean dutena: inozentzia. Halaber, polizia-operazioei edo GKE-ei jarritako izenek ere ideia hori nabarmentzen dute: Inozentzia Galdua, Inozentzia Salba

207 Change.org Petition (2015) «Pass legislation that would save lives and prevent human trafficking», *Change.org*; Sardina, C. (2017ko urtarrilaren 13a) «Marketing mass hysteria: anti-trafficking awareness campaigns go rogue», *openDemocracy*, opendemocracy.net; «Guest Post» (2015, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «Sex Trafficking», *The Hope Line*, thehopeline.com.

208 Koyama, E. (2012ko uztailaren 16a) «Gangs and sex trafficking: How the movement against "modern day slavery" targets descendants of slavery as its primary perpetrators», *Eminism*, eminism.org; Koyama, E. (2016ko irailaren 1a), honi erantzunez: Kiernan, J.S. «Should Prostitution Be Legal?», *Wallethub*, wallethub.com.

209 Children at Risk (2017ko martxoaren 23a) «Human Trafficking Bus Tour», *Children at Risk*, childrenatrisk.org.

210 The Drum (2017) «The task force on human trafficking and prostitution: Meet the meat by M&S Saatchi Tel Aviv», *The Drum*, thedrum.com.

211 Shane, C. (2011ko uztailaren 27a) «Top 10 Anti-Sex Trafficking Campaigns», *Tits and Sass*, titsandsass.com.

Dezagun, Askatasuna Inozentziarentzat, Inozentzia Babesteko Erronka, Inozentzia Arriskuan, Inozentzia Berreskura Dezagun, Inozentzia Salgai.²¹²

Emakumeen «inozentziarekiko» kezka horrek zer pentsatua eman behar lieke feministei, eta ez bakarrik emakume gazteekiko interes lizun bat erakusten duelako. Aitzitik, LGBTQ jendea, Beltz jendea eta borondatezko prostitutak inozentziaren kategoriatik kanpo uzten dira, eta, beraz, zailagoa da kolektibo horietako kideei eragindako kalteak halakotzat identifikatzea. Esate batera, errazagoa da gizon Beltz bat atxilotzea hari laguntza eskaintzea baino; hala, AEBko kongresuak ez zituen kontuan hartu ihesari emandako gazteei eta gazte etxegabeei (zeinen errealitateak kateak eta sokak baino aski konplexuagoak baitira) zuzendutako baliabideak 2015ean Trafikoaren Biktimei Justizia Eskaintzeari buruzko Legea berriz indarrean sartu zuenean.²¹³ Askotan, trafikoaren aurkako legeek kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duten pertsonen kategoriatik kanpo uzten dituzte borondatezko prostitutak, inozentzia nahitaezko baldintza bat balitz bezala trafikoaren biktima «legitimoa» izateko –eta, bestalde, borondatezko prostituta batek denik eta kalterik handiena jasanda ere baldintza hori bete ezin izango balu bezala–.²¹⁴

Asko nabarmentzen dira bahiketak, eta, ondorioz, baita erreskate heroikoak ere. *Taken* (2008) akziozko film arrakastatsuan, Albaniako sexu-trafikatzaile batzuek heroia (Liam Neeson-ek jokatu) alaba bahitzen dute Parisen, han oporretan dagoela. Film hori trafikoaren aurkako kanpaina erreala ugariren adibide ona da; trafikoa testuingururik gabeko gaizkia bezala aurkezten du, edozeini edonon gerta lekiokkeen ausazko bahiketa bat. Hollywood-en eta politikaren arteko lotura azpimarratu nahian edo, «heroi» hitza (ingelesez, *hero*) literalki jasota dago AEBko zuzenbidean: HERO Legeak (*Human Exploitation Rescue*

212 *Saving Innocence*, savinginnocence.org; *Innocents at Risk*, innocentsatrisk.org; *Freedom 4 Innocence*, freedom4innocence.org; «Protected Innocence Challenge», *Shared Hope International*, sharedhope.org; *Restore Innocence*, restoreinnocence.org; Harpster, M.T. (2014ko martxoaren 26a) «Innocence for Sale: Domestic Minor Sex Trafficking», *FBI*, fbi.gov.

213 Suchland, J. (2015eko azaroaren 23a) «The Missing “P” in U.S. Anti-Trafficking Law», *The Feminist Wire*, thefeministwire.com.

214 Doezma, J. (1998) «Forced to Choose: Beyond the Voluntary v. Forced Prostitution Dichotomy», *Global Sex Workers: Rights, Resistance, and Redefinition*, New York: Routledge, 45.

Operations Act [Gizakiak Esplotaziotik Erreskatatzeko Operazioei buruzko Legea] Immigarazioa eta Aduanak erakundearen (*Immigration and Customs Enforcement (ICE)*) finantzazioa jasotzen du, AEBko armadako beteranoak trafikoaren aurkako borrokan trebatzeko. (*Taken* filmean, Neesonek badaki nola erreskatatu alaba, garai batean CIAko agentea izan zelako). Freedom Challenge trafikoaren aurkako GKE bat da, eta hau dio webgunean:

Ohera sartu eta gorputza zure burusirik gustukoenarekin bildu duzu [...] Bakarrik zaude, lo seko eta amets gozoetan. Bat-batean, alboko gelatik datorren karraska batek esnatu zaitu. Zu [...] oin-puntetan zoaz zoru hotzean barrena, eta atea erdi-ireki duzu. Poltsa bat jarri dizute buruan. Eraman egin zaituzte.²¹⁵

Beste erakunde bateko emakumezko bozeramaile batek kazetariari esan zenez, kaletik goazela giza trafikatzailiek ausaz «gu hartu» eta haiekin eramateko «aukera oso handia da», eta jendeari ohartarazi zion hobe zela taldeka ibiltzea, bahiketak saihesteko.²¹⁶ Bestalde, ama bat oso urduri ageri zen bideo batean, uste baitzuen sexu-trafikatzaile batzuek bere haurrak bahitu zituztela IKEAn; irudi haiek 100.000 alditan baino gehiagotan partekatu ziren sare sozialetan.²¹⁷ (horrek guztiak XIX. mendean pertsona zurien esklabotza zela-eta zabaldu zen beldurra gogorarazten digu; 1899an, Neurritasun Kristauaren Emakumeen Elkarteko misiolari batek honela zioen: «Esklaboak salerosten dira herrialde honetan, eta oraingo honetan ez dira Beltzak, baizik eta neska txiki zuriak, hamahiru, hamalau, hamasei eta hamazazpi urtekoak; besoetatik kentzen dizkigute, eta gure Sabbath eskoletatik eta gure jaunartze-mahaietatik».)²¹⁸ Bideo txukun askoak daude, sare sozialen bidez partekagarriak, non ikusten baita nola ezezagun batzuek neska gazteak kaletik hartu eta furgonetetan eramaten dituzten.²¹⁹

215 Freedom Challenge, «Just the Facts», hemen eskura dauteke: thefreedomchallenge.com, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

216 Helmer, K. (2017ko uztailaren 11) «Hopkinsville on high alert for sex trafficking around next month's solar eclipse», WDRB, wdrb.com.

217 Earl, J. (2017ko martxoaren 30a) «Mom's warning about "human trafficking" at IKEA goes viral; what you need to know», *CBS News*, cbsnews.com.

218 Pilely, J.R. (2014) *Policing Sexuality: The Mann Act and the Making of the FBI*, Cambridge, MA: Harvard University Press.

219 Exodus Cry (10 January 2018) «Is Prostitution a Choice?», bideoa, YouTube (erabiltzailea: Exodus Cry), youtube.com/watch?v=YFUa31WO_h0.

Taken filmaren argumentuak behin eta berriz azpimarratzen du trafikatzailen herritartasuna. Filmak izan zuen arrakastaren aurrean, Neesonek prentsa-ohar bat kaleratu behar izan zuen, AEBko gurasoei azaltzeko beren seme-alabak lasai asko joan zitezkeela Parisera eskola-bidaian, trafikatzaille albaniarren eskuetan erortzeko arriskurik gabe.²²⁰ «Atzerritarra», dio Maria Luddy historialariak, «zuri esklabista sinbolizatzen duen nazioarteko figura izan da beti».²²¹

Mugaren papera

Kalean, jendea ez dute masiboki bahitzen. Erresuma Batuko esklabotzaren aurkako batzorde batek egindako txosten baten arabera, bahiketak oso ezohikoak dira, batez ere ez lukeelako zentzu handirik izango muga igarotzeko zerbitzua doan «emateak», jendea hogeita hamar mila libera ere ordaintzeko prest baitago muga hori bera zeharkatzeko.²²² Esplotazio-egoeran amaitzen duten gehientsuenek *migratu egin nahi zuten*, eta beldurgarriki esplotatzailea den sistema batean harrapatuta geratu dira, agiririk gabe migratzen duen jendeak apenas duelako eskubiderik. Halere, esplotazio-egoeran amaitzen dutenek *migratu egin nahi zutela* onartzeak ez du esan nahi ezeren erruduntzat jotzen ditugunik. Esan nahi duena da haien esplotazio-egoera konpontzeko zera egin behar dela, legalki eta eskubideekin migratzeko aukera eman. Gainerako guztia, onenean ere, denbora-pasa hutsa da (katea sexyak!, gaizkile zitalak!), eta, txarrean, arazoa aktiboki okertu besterik ez du egiten, legalki eta eskubideekin migratzea zailtzen –eta ez errazten– duten legeak ezartzea sustatzen duelako.

Beharbada pentsatzen ari zara pertsonen kontrabandoaz ari garela, ez pertsonen trafikoaz, eta bi gauza horiek desberdinak direla. *Pertsonen kontrabandoa* zera da, norbaitek kontrabandista bati ordaintzea, muga bat zeharkatzen lagundu diezaian; Erre-

220 Hooton, C. (2015eko urtarrilaren 7a) «Liam Neeson is here to remind frightened American parents that Taken isn't real», *Independent*, independent.co.uk.

221 Luddy, M. (2007) *Prostitution and Irish Society, 1800–1940*, Cambridge: Cambridge University Press, 166.

222 Erresuma Batuko Esklabotzaren Aurkako Komisario Independentea (2017, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «Combating modern slavery experienced by Vietnamese nationals en route to, and within, the UK», *Anti Slavery Commissioner*, txostena hemen eskura daiteke: antislaverycommissioner.co.uk.

suma Batuko legearen arabera, *pertsonen trafikoa* zera da, norbait garraiatzea, bortxazko lana egitera behartzeko edo indarra, iruzurra edo hertsapenaren bidez hura esplotatzeko. Tentagarria da pentsatzea gauza desberdinak direla, baina ez dago marra argi bat bien artean: sistema beraren bi aldaera dira.

Azter dezagun hobeto. Ohikoa da jendeak zor ikaragarri handiak egitea kontrabandista batek muga zeharkatzen lagundu diezaion. Oraingoz, dena ondo: hori kontrabandoa da, argi eta garbi. Baina behin bidaia hasita, migratu nahi duen pertsona ohartzen da zorra hazi egin dela, edo helmugara iristean zorra kitatzeko egin beharreko lana ez dela hasieran adostutakoa. Bat-batean, egoerak esku artetik ihes egin dio erabat, eta, ohartzerako, lanaren bidez zorra kitatzen saiatzen ari da, inoiz lan horretatik alde egiteko adina irabaziko duen itxaropen gutxiarekin. Kontrabandoa trafiko bihurtzen da. *Trafikoaren* diskurtsoak ez die ia ezertan laguntzen egoera horretan dauden pertsoneri, bahituztat eta kateatuztat jotzen baitituzte, ez *migratzen saiatutako pertsonatzat*. Haiek «erreskatatzen» saiatzen dira, migrazio-bide irregularrak blokeatuz eta agiririk gabeko jendea jatorrizko herrialdeetara itzularaziz; eta hori da, askotan, trafikoan harrapatutako pertsonen *gutxien* nahi dutena. Haien lantoki esplotatzailea gorroto badezakete ere, haientzat aukerarik egokiena izango litzateke helburuko herrialdean geratzea, beste lan batean edo lan-baldintza hobeeekin; aukera onargarri bat izango litzateke herrialdean geratzea, lan-baldintza ziztrin berekin; eta guztietan aukerarik okerrera litzateke jatorrizko herrialdera bidaltzea, oraindik zorra ordaindu gabe dutela.

Trafikoa eta bahiketa kontzeptualki antzekotzat hartuta, trafikoaren aurkako aktibistek, GKE-ek eta gobernuek alde batera utz ditzakete migrazio seguruari dagozkion beste kontu zabalago batzuk. Baldin eta trafikaturako pertsona *bere borondatearen kontra* eramaten badute mugaren bestaldera, ez dugu kezkatu beharrik ilegaltasuna gorabehera migrazio hori egiten saiatuko diren pertsonen, edo ez dugu pentsatu behar pertsonen segurtasuna areagotzeko legezko migrazio-bideak eskaini behar zaizkienik. *Pertsonen kontrabandoa* hain zaugarriak ez diren migratzaileei dagokie nagusiki: kontrabandistari aurrez ordaintzeko dirua dutenak edo helburuko herrialdean familia edo komunitate ongi finkatu bat dutenak. *Pertsonen kontrabandoa*,

berriz, migratzaile zaugarrienei dagokie: bidaiatu ahal izateko kontrabandistarekin zor bat egin behar dutenak eta helburuko herrialdean harreman-sarerik ez dutenak. Nolanahi ere, biek *bidaiatu nahi dute*, eta hori da, hain zuzen, trafikoaren aurkako elkarrizketetan ezkututzen dutena, neurri handi batean, bahike-
tei eta katei buruz berbetan hasten direnean.

Gure ustez, ezein gizabanako ez da «ilegala». Jendeak bidaiatzeko eta mugak zeharkatzeko eskubidea izan behar luke, eta norberak nahi duen tokian bizi eta lan egiteko. Liburuaren sarreran adierazi bezala, mugan kontrolak jartzearen kontua asmakizun berri samarra da; kontrol horiek XIX. mendearen amaieran sortu ziren, arraza-menderakuntza eta -bazterketaren logika kolonialaren parte gisa. (ICE, immigrazioa kontrolatzeko polizia estatubatuar bortitza, duela gutxi sortu zen gaur eguneko molde horretan, 2003an. Horren aurreko bertsioa ere ez da aspaldikoa; 1930eko hamarkadakoa da, eta Immigrazio eta Naturalizazio Zerbitzuak izeneko agentzia bat zen). XXI. mendeko immigrazio masiboak gizakiak eragindako katastrofeen ondorio dira –klima-aldaketa, pobrezia, gerra–, eta jatorri dituzten desparekotasun agerikoak errepikatzen dituzte. Munduaren iparraldeko herrialdeek gainerakoek baino askoz erantzukizun handiagoa dute klimaren aldaketan, eta, halere, neurritz gainixten dizkiete ateak kaos klimatikoaren ondorioetatik ihesi doazenei; hala, etsiak jotako familiek elurpean ere kanpin-dendetan lo egin dezatela uzten dute, Europa Gotorlekuaren ertzean. Harsha Walia migratzaileen eskubideen aldeko ekintzaileak dioen bezala, «historia gizartearen arteko hibridotasunak eta gizakien mugimendu-nahiak markatuta badago ere, gaur eguneko migrazioaren zatirik handienaren errealitateak agerian uzten ditu harreman desparekoak aberatsen eta pobreen artean, Iparraren eta Hegoaren artean, zurtasunaren eta haren besteenen artean».²²³

Sistema bat non edonork izango bailuke legalki eta segurtasunez migratzeko, bizitzeko eta lan egiteko aukera ez litzateke izango abiapuntu izugarriki erradikala; besterik gabe, serio hartuko luke gaur eguneko errealitatea, hau da, kontuan hartuko luke jendea *jada* migratzen eta lanean ari dela eta, gizarte bat

223 Walia, H. (2013) *Undoing Border Imperialism*, Chico, CA: AK Press, 40.

osaten dugun aldetik, haien segurtasuna eta eskubideak lehenetsi behar ditugula. Kazetari eta legegile batzuek argudiatzen dute migrazioak soldatak jaitsarazten dituela. Nolanahi ere, gaur eguneko sistemak, non agiririk gabeko pertsonak ezin baitituzte beren lan-eskubideak baliarazi eta, ondorioz, oso ahulak baitira lantokiko esplotazioaren aurrean, soldatak jaitsarazten ditu, eta bermatzen du badela ordain txikiagoa jasotzeko prest dagoen langile-talde bat, edo nagusiek inpunitate osoz esplotatu dezaketena. Soldata txikiei eta lantokiko esplotazioari langileen antolakuntzaren eta lan-zuzenbidearen bidez egiten zaie aurre, ez migrazioa mugatzen saiatuz; azken neurri horrek lan-eskubiderik gabeko langile agiririk gabeak sortzen ditu.

Halere, giza bititza baloratzeko premisatik abiatu beharrean, munduaren iparraldeko herrialdeek immigrazio-lege gogorrak onartzen dituzte, munduaren hegoaldeko herrialdeetako pertsonen migrazioa zailtzeko. Jendeak migratu nahi ez izateko, edo migratzeko beharra ez izateko, alferrik da migrazioa legez kanpoko bihurtzea; horrekin lortzen duzun bakarra da migrazioa arriskutsuagoa eta zailagoa izatea eta migratzaileak esplotazioarekiko zaurgarriago bihurtzea. Zigorrek ezartzen dituzten legeek pertsona gutxi batzuek bidaia hori egitea eragotz dezakete, baina ziurtatzen dute *bidaia egiten duten* guztiek ahalik eta baldintzarik txarrenetan egingo dutela. Eta are gehiago okertzen dira gauzak milaka milioi dolar xahutzen direnean poliziak mugak aktiboki zain ditzan, jendeak migratzeko izan ditzakeen arrazoiei begiratu gabe; arrazoi horien artean nabarmenena herrialdeen arteko desparekotasun izugarria da, zeina, zati handi batean, arpilatze kolonialaren –baita garaikidearena ere– eta indarkeria inperialistaren ondarea baita.

Hau praktikan nola garatzen den aztertuz gero, beharbada sistema-multzo horren krudeltasun absurdoa erakustea lortuko dugu. Ostera ere, sexu komertziala alde batera utziko dugu oraingoz, funtsezko arretagunetik aldentzen baikaitu: *mugek zaurgarri bihurtzen dute jendea*, eta, hain justu ere, zapaltzaileak zaurgarritasun horretaz baliatzen dira.

Frantziako herritar batek pasaporte frantsesa eros dezake ehun euro baino gutxiagoan. Turkian badago, Frantziako pasaportearekin Greziara –hau da, Europar Batasunera– eramango duen ferryrako txartela eros dezake hoge euro baino gutxiagoan. Per-

tsona horrek legearen barruan bidaia dezake; hau da, merkeago, seguruago eta pertsonen kontrabandista baten laguntzarik gabe. Aitzitik, Turkian dagoen batek Somaliako bidaia-agiriak baditu eta Europar Batasuneko lagunengana joan nahi badu, ez dauzka turisten ferrya hartzeko beharrezkoak diren dokumentuak. Pertsona horrek, ziurrenik, pertsonen kontrabandista bati ordaindu beharko dio. Kontrabandista arrisku handi samarra hartzen ari denez –pertsonen kontrabandoa krimen larria da!– eta migratu nahi duen pertsonak bidaiatzeko behar gorria duenez, prezioa oso handia da. Agiririk gabeko pertsonari milaka euro kobratu ahal dizkiote turisten ferryak egingo duen bidaia bera egiteko, eta, gainera, seguru ez den eta jendez gainezka dagoen txalupa batean joan beharko du.²²⁴

Dinamika hori AEBren eta Mexikoren arteko mugan ikus daiteke. 1994an, Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Ituna (NAFTA) sinatu zuten. Bi milioi nekazari mexikar beren lurretatik egotzi eta pobreziara bultzatu zituzten, eta Mexiko barruan elikagaien prezioek gora egin zuten. Ondorioz, biztanleen laurdenari ezinezkoa zaio goseari aurre egiteko adina janari eskuratzea.²²⁵ Garai berean, muga gero eta gehiago sendotu eta militarizatu zuten, eta agiririk gabeko jendearentzat gero eta zailagoa zen hura zeharkatzea. (1992an, AEBko mugako polizia 3.555 agente zituen hegoaldeko mugan; 2009rako, 20.000 baino gehiago ziren).²²⁶ Nolanahi ere, jendeak saiatsen jarraitzen du, ageriko arrazoi batengatik: goseari eta pobreziari ihes egiteko eta etxekoei dirua bidaltzeko, haien pobrezia arintzeko.

Gatazka bat dago jendeak migratzeko duen beharraren eta mugako gotorlekuak sendotzearen artean, eta erraza da gatazka horren ondorioak auresatea. Nassim Majidi eta Saagarika Dadu-Brown migrazioan adituek diote muga zeharkatzeko neurriak indartzeak «migratzaileen eta kontrabandisten arteko harreman berriak» sortzen dituela eta, gainera, «mugak itxi edo neurriak gogortzen direnean kontrabandistek prezioak igotze-

224 Murdock, H. (2015eko zaroaren 24a) «From Syria to Europe: The Price They Pay», *VOA News*, voanews.com.

225 Carlsen, L. (2013ko azaroaren 24a) «Under Nafta, Mexico Suffered, and the United States Felt Its Pain», *New York Times*, nytimes.com.

226 Haddal, C.C. (2010) «Border Security: The Role of the U.S. Border Patrol», Washington, D.C.: Congressional Research Service.

ko aprobeztatzen» dutela.²²⁷ 1990eko hamarkadaren hasieratik, mugako poliziak 6.000 laguneko gorpuk jaso ditu mugaren alde estatubatuarrean, eta uste dute kopuru horren bikoitza ere egon daitekeela basamortuko leku zehaztu gabeetan.²²⁸ Isabel Garcia AEBko migratzaileen eskubideen aldeko tokiko erakunde bateko presidentekidea da, eta honela dio: «Ez genuen inoiz pentsatuko gerra-eremu batean bezala hondakinak identifikatzeko zereginen laguntzen jardungo genuenik, eta, halere, hementxe gaude».²²⁹ AEBko Segurtasun Nazionalerako Sailak adierazitakoaren arabera, mugako segurtasun-neurriak zorroztu ahala migratzaileei nabarmen handitu zitzaizen kontrabandista bat kontratatzeak kostua eta, halere, kontrabandisten zerbitzuak erabili zituzten migratzaileen proportzioa ere handitu egin zen, % 45etik % 95era.²³⁰ Muga legalki zeharkatzeko ezintasunak migratzaile potentzialak pertsona-kontrabandisten besoetara bultzatzen dituen ere, handitu egiten dira kontrabandista horiek ezar ditzaketan tarifak. Samuel Martinez etnologoak dioen bezala, «Duela hamarkada batetik baino gehiagotik dakigu harresi garaia goak eta luzeagoak eraikiz, mugako poliziaren zainketa areagotuz eta immigraziorako oztopo burokratikoak indartuz gauza bakarra lortzen dugula: immigranteak kontrabandisten atzaparretara bultzatzea».²³¹ Gauza bera gertatzen da mundu osoko mugetan. Nepal-en, adibidez, hogeita hamar urtez azpiko emakumeek debekatuta zuten emigratzea, haien esplotazioari aurre egiteko neurri gisa; bada, Nazioarteko Lan Erakundea ohartu zen neurri hark alderantzizkoa eragin zuela, alegia, «lizentziarik gabeko migrazio-agenteak indartu» zituela eta, ondorioz, agente horiek emakumeak esplotazio-egoeretan harrapatzeak zuten ahalmena ere handitu zela.²³²

227 Majidi, N. eta Dadu-Brown, S. (2017ko apirilaren 10a) «Human smugglers roundtable: On border restrictions and movement», *openDemocracy*, opendemocracy.net.

228 Jones, R. (2016ko urriaren 4a) «Death in the sands: the horror of the US-Mexico border», *The Guardian*, theguardian.com.

229 Moreno, C.J. (2012ko abuztuaren 17a) «Border Crossing Deaths More Common As Illegal Immigration Declines», *Huffington Post*, huffingtonpost.co.uk.

230 Roberts, B. et al. (2010, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «An Analysis of Migrant Smuggling Costs Along the Southwest Border», AEBko Segurtasun Nazionalerako Saila, txostena hemen eskura daiteke: dhs.gov.

231 Martinez, S. (2014ko urriaren 30a) «Human trafficking: A parasite of prohibitionism?», *openDemocracy*, opendemocracy.net.

232 Nazioarteko Lan Erakundea (2015, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «No Easy Exit: Migration Bans Affecting Women from Nepal», txostena hemen eskura daiteke:

Eragin-truke hori ezaguna zaigu beste testuinguru batzuetatik. Abortua kriminalizatzen denean, abortatu nahi duten emakumeek abortu-egile klandestinoengana jotzen dute –horietako batzuek altruismoagatik egiten dituzte abortuak; beste askok, ordea, eskrupulurik batere ez dutelako–.²³³ Jakina, abortatzeko eskubidearen aldeko mugimenduak gaitzetsi egiten ditu abortu kriminalizatuak segurtasun-bermerik gabe edo arduragabeki egin eta tarifa esplotatzaileak kobratzen dituzten haiek; halere, gure ustez, agente gaizto horiek ez dira ezerezetik agertutako gaizkile ankerrak.²³⁴ Aitzitik, *abortuaren kriminalizazioa izan da abortu-egile eskrupulurik gabeen merkatua sortu duena*. Eta agente horiek jokoan kanpo uzteko bidea ez da izan haien kontrako neurri zorrotzak hartzea; irtenbide politiko bat izan da, noski, hori lortu duena: abortu-zerbitzu seguru, legezko eta doakoak ezartzea. Ingalaterran, Kanadan eta antzeko tokietan bizi direnek, doako abortu-zerbitzuak erabil ditzaketenek, ez diote inori ordaintzen prozedura klandestino arriskutsu bat egiteko. Zergatik egingo lukete hori? Era berean, mugak legalki zeharkatu ditzaketenek ez diote inori ordaintzen kontrabandoz sartzen laguntzeko. Legez kontrako abortuak egiten dituen jendea bezala, kontrabandistak ez dira gaizkile ezin esplikatuzkoak; aitzitik, *agiririk gabeko migrazioaren kriminalizazioa izan da pertsonen kontrabandoaren merkatua sortu duena*.

Agiririk gabeko migrazioa abiatzen duten askok onartzen dute helburuko herrialdean egingo duten lanaren bidez kitatzea kontrabandistarekin egingo duten zorra. Zentzuzkoa da hori: pobreziatik edo gerratik ihes egiteko migrazioa jotzen dutenek ezin izaten dute diru-kopuru handi bat bildu aldez aurretik

ilog.org.

233 Human Rights Watch (2013, 2018ko ekainaren 28an kontuslatua) «Rape Victims as Criminals: Illegal Abortion after Rape in Ecuador», txostena hemen eskura daiteke: hrw.org.

234 Esate batera, Irin Carmon-ek esan izan du, sinesgarritasunez esan ere, Kermit Gosnell doktoarearen Pennsylvaniako klinika ezaguna –zeina gutxienez ere emakume baten heriotzaren eragilea izan baitzen– abortuaren aurkako legeen ondorioz sortu zela, lege horiek estatuko ospe handiko hainbat klinika ixtea eragin zutelako. Itxiera handi haren ondorioz, emakume ugari –batez ere diru-sarrera txikikoek– ez zeukaten legeak ezarritako muga gestazionala gainditu aurretik abortua egiteko klinikarik gertu eta ekonomikoki eskueran, eta, horregatik, Gosnellenean amaitzen zuten, zeinak eskudiru-truke abortu arriskutsuak egiten baitzizkien, txintik galdetu gabe eta legeak ezarritako epeetatik kanpora. Ikus I. Carmon, «There is no Gosnell coverup», *Salon*, 2013ko apirilaren 12a, salon.com.

ordaintzeko. Berrero ere, gaizkiak aurrera egiteko baldintzak sortzen ditu kriminalizazioak. Kontrabandista batek, definituz, legez kanpo dihardu, eta migratzailea ere legea urratzen ari da, muga zeharkatuta; beraz, migratzaileari ezinezkoa zaio legezko errekurso bat jartzea kontrabandistak aurrez hitzartutakoa betetzen ez duenean edo adostutako baldintzak aldatzen dituzenean. Askotan, bidaiaren erdian gertatzen da, edo helburuko herrialdera iritsi eta berehala; prozesuaren puntu horretan, migratzaileak ez du atzera egiteko aukera handirik, eta baldintza berri horiek onartu behar ditu, bidegabeetan bidegabeenak izanda ere.

Kasurik onenean ere, hau da, agiririk gabeko pertsonak muga zeharkatzeko erabilitako kontrabando-sareetatik erabat independentea den lan bat aurkitzen duenean ere, immigrazio-estatus legal bat ez edukitzeak esan nahi du esplotatua izateko aukera handia duela, edo enplegatzaileen aldetik beste abusu-molde batzuk jasateko arrisku handia duela. Apenas dute lan-zuzenbidera jotzeko aukerarik; izan ere, lantokiko abusua dela-eta justiziaren bidetik jo edo kalte-ordaina eskatu nahi badute, estatu-agintaritzaren aurrean agertu behar dute, eta horrek haien deportazioa ekarriko luke ezinbestean. Agiririk gabeko Migratzaileen aldeko Nazioarteko Lankidetzarako Plataforma (*Platform for International Cooperation on Undocumented Migrants*, PICUM) European agiririk gabe dauden pertsonen eskubideak babesten dituen GKE bat da, eta honela dio:

Agiririk gabeko migratzaileek ezkutuko ekonomiaren sektorean bakarrik lan egin dezakete, eta, beraz, lan-kontraturik gabe jarduten dute askotan. Hori dela eta, oso zaila da haientzat epaitegira joan eta lan-harreman bat frogatzea. Kontratu bat sinatzen dutenean ere, baliogabetzat jo ohi da, langilearen estatus irregularra dela eta, eta, beraz, ezin be-tearazizkotzat [...] Gainera, agiririk gabeko langile batek indarkeria edo lan-esplotazio kriminala salatzen badu poliziaren aurrean, babesarekin eta justiziarekin baino gehiago, atxilotetarekin eta deportazioarekin egin du topo.²³⁵

Lan-esplotazioa Erdigunean (*Focus on Labour Exploitation, FLEX*) erakundea European dauden migratzaileen esplotazioari

235 PICUM (2014, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «On the European Commission Communication on an EU Strategic Framework on Health and Safety at Work 2014–2020», txostena hemen eskura daiteke: ilo.org.

aurre egitea helburu duen GKE bat da. Horren arabera, «agiririk gabeko langileak immigrazio-agintaritzaren beldur dira, eta hori oztopo handi bat da salaketa jartzeko [...] Eskrupulurik gabeko enplegatzaileek poliziaren edo immigrazio-agintaritzaren aurrean salatuko dituzten mehatxua egin ohi diete agiririk gabeko langileei, eta, hala, abusuzko egoerak pairatzen jarraitzea behartzen dituzte».²³⁶ FLEX erakundeak kasu zehatz bat aipatzen du, soldatarik jaso gabe arropa-garbitegi batean lan egitera behartu zituzten agiririk gabeko bi gizonena. Enplegatzaileak esaten zuen langileen soldata haien bizileku-baimena ordaintzera bideratzen zuela; halere, «enplegatzaileak ez zuen sekula egin langileentzat bizileku-baimena eskuratzeko gestiorik, haien agindu bezala, eta, aitzitik, kexatuz gero poliziaren aurrean salatuko zituen mehatxua egiten zien [...] Bi gizonak oso beldurtuta zeuden, eta ez zieten beren egoeraren berri eman nahi lan-ikus-katzaileei».²³⁷ Emakume Latinoamerikarren Eskubideen aldeko Zerbitzuko Carolina Gottardo-k dioenaren arabera, «emakumeek agiririk ez badute eta enplegatzaileak horren jakitun badira, emakumeak harrapakin erraza dira lan-esplotazioaren molde oso larrien aurrean».²³⁸ Horretaz berba egiteak ez du esan nahi sexu-trafikitik desbideratzen garenik; egiten duguna da agiririk gabeko pertsonen esplotazioa sortzen duten eta estatuak sustatzen dituen sistema zabalagoak ulertzen saiatu.

Azter dezagun dinamika horren beste adibide bat: kasu honetan, enplegatzaileak langile migratzailearen bisa kontrolatzen du. Abdul Azad-ek zor bat egin zuen Erresuma Batura etortzeko, jatetxe batean ongi ordaindutako lan bat izango zuelakoan. Iritsi zenean, jakinarazi zioten soldatarik jaso gabe lan egingo zuela, ugerrez inguratuta eta landa-eremu urruneko hotel bakartu batean. Ez zen etorri Erresuma Batura ilegalki, baina bere bisa enplegatzailearen esku zegoen, eta Azed beldur zen, poliziaren-

236 France, B. (2016, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «Labour Compliance to Exploitation and the Abuse In-Between», *Focus on Labour Exploitation (FLEX)* eta *Labour Exploitation Advisory Group (LEAG)*, txostena hemen eskura daiteke: labourexploitation.org.

237 Focus on Labour Exploitation (FLEX), Fairwork eta ADPARE (2016, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «Pro-act: Improving the Identification and Support of Victims of Trafficking for Labour Exploitation in the EU», *LEAG*, txostena hemen eskura daiteke: labourexploitation.org.

238 France, B., «Labour Compliance to Exploitation and the Abuse In-Between».

gana joz gero ez ote zituzten bera eta hotelean harrapatutako gainerako gizonak deportatuko, artean zorrak kitatu gabe. Kon-
tatzen duenez, enplegatzaileak «gure bisaren kopiak erakusten
zizkigun ordenagailuan, eta esaten zuten: “Hau zure izena da.
Edozein unetan, bertan behera utz dezaket baimena. Ahalmen
hori dut”». ²³⁹ Abdulek bazituen beldur izateko arrazoiak: poliziak
haren berri izan zuenean, enplegatzailea kartzelara joan zen,
baina Abdul deportatu egin zuten. ²⁴⁰

Bai AEBk bai Erresuma Batuek enplegatzaile zehatz bate-
kin lotu ohi dituzte etxeko langileen bisak. Horrenbestez, AEBra
sartzen diren etxeko langile migratzaileen ehuneko 80 ohar-
tu dira iruzur egin dietela beren kontratuei dagokienez, eta ehu-
neko 78k enplegatzaileen mehatxuak jaso izan dituzte, kexatuz
gero deportatu egingo dituztela esanez. ²⁴¹ Erresuma Batuan,
«bisa baldintzatu» horiek 2012an sartu ziren indarrean –Theresa
May lehen ministroaren eskutik, artean barne-ministroa zela–,
hau da, ez oso aspaldi, eta, beraz, argi eta garbi ikus daiteke
haien eragina. Erresuma Batura 2012aren ondoren etorri ziren
etxeko langile migratzaileek –hau da, «bisa baldintzatu» dute-
nek– aukera bikoitza dute abusu fisikoak pairatzeko, baldin eta
alderatzen baditugu enplegatzailea aldatzeko eskubidea ematen
dien bisarekin –hau da, malguagoarekin– iritsi zirenekin. ²⁴² Era
berean, aukera handiagoa dute dagokiena baino soldata txikia-
goa jasotzeko, erasoak pairatzeko, gehiegizko lana egin behar
izateko, lurrian lo egitera behartuak izateko eta enplegatzaile-
leek haien pasaporteak konfiskatzeko. ²⁴³ Zigorrean oinarritutako
immigrazio-legeak kalteak eragiten ditu.

Halere, trafikoari buruzko diskurtso nagusi gehienek gi-
zabanako gaiztoen kontutzat jotzen dute migratzaileen eta

239 Kelly, N. eta McNamara, M. (2016ko maiatzaren 28a) «A slave in Scotland: “I fell into a trap – and I couldn’t get out”», *Guardian*, theguardian.com.

240 Wood, R. (2017ko martxoaren 13a) «“He was the master and we were his servants”:
The men kept as “slaves” in a remote Scottish hotel», *CNN*, cnn.com.

241 Hafiz, S. eta Paarlberg, M. (2017, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «The Human
Trafficking Of Domestic Workers In The United States: Findings from the Beyond
Survival Campaign», *National Domestic Workers Alliance*, txostena hemen eskura
daiteke: domesticworkers.org.

242 Kalayaan, (2014ko uztailaren 4a) «Producing Slaves: The tied Overseas Domestic
Worker visa», hemen eskura faitteke: kalayaan.org.uk.

243 Giza Eskubideen Behatokia (*Human Rights Watch*) (2014) «Hidden Away Abuses
Against Migrant Domestic Workers in the UK», *HRW*, hrw.org.

sexua saltzen duten pertsonen abusua; estatuaren ekintzetatik eta erabaki politikoetatik *kanpoko* eta *aparteko* kontuak omen dira. Batzuetan, diskurtso horrek balio du ez bakarrik estatuaren papera ezkutatzeke, baizik eta hura absolbitzeko. Adibidez, feminista batek ondoko hau idatzi zuen sare soziale-tan, sexu-merkataritzari buruz ari zela: «Kriminalizazioak ez ditu emakumeak bortxatzen eta jipoitzen. Hori gizonek egiten dute».²⁴⁴ Hori irakurrita, ondoriozta dezakegu alferrekoa dela legea aldatzea, gizonek bihurtzen baitituzte emakumeak zaurgarri, ez beste ezerk. Hori hala izan daiteke immigrazio-legearekin, poli-ziarekin edo deportatuak izatearen etengabeko mehatxuarekin zerikusirik ez duten emakumeentzat, baina bisa baldintzatuen ondorioek erakusten dute testuinguru legalak –migrazio-legeak barne– zeresan handia duela zaurgarritasunaren eta kaltearen sorreran.

Lantokiko baldintza txarrei aurre egin nahi dieten agiri-rik gabeko langile migratzaileen kasuan, deportazioa ez da jaso dezaketen zigor bakarra; aurkitzen badituzte, kriminalizazioa-ri aurre egin behar diete. Erresuma Batuan, «langile ilegaltzat» kondenatutako pertsona batek zigor hauek jaso ditzake: berrogeita hamaika astera arteko kartzela, diru-zigor mugagabea eta irabaziak konfiskatzea, «delituaren ondoriozko irabaziak» dire-lakoan.²⁴⁵ Hala, agiririk gabeko pertsonak beldur justifikatu are handiagoa sentitzen dute estatu-agintaritzaren aurrean, eta are ahalmen gutxiago dute laneko abusuak salatzeke. Beraz, lege horiek haien zaurgarritasuna areagotzen dute, eta lan-inguru-ne esplotatzaileetara *bultzatzen dituzte zuzenean*; gisa horretan, erabat zaurgarriak diren eta abusuak jasateko prest dauden langileen eskaintza bat sortzen da. Mugako segurtasuna bizi-tza zibilaren alor gehiagotan sartzen ari da. Orain, espero da etxejabeek maizterren immigrazio-estatusa egiaztatzea haiei etxebizitza bat alokatu aurretik; bestalde, proposatu izan da agiririk gabekoen banku-kontuak izoztea edo ixtea, eta Ingala-terran dokumentazioa berrikusi behar da bai osasun-zerbitzuak bai hezkuntzakoak jasotzeko, «etsaitasunezko giroan» oinarri-tutako politika esplizitu baten parte gisa (halere, migratzaileen

244 Marstrina, S. (@marstrina) Twitter, 1:48 p.m., 2016ko irailak 18.

245 UK Government (2016, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «Immigration Act 2016», hemen eskura daiteke: legislation.gov.uk.

eskubideen aldeko erakundeek bie egin diete aurre, baita auzitegian ere). Erresuma Batuan, askoz baliabide gehiago jartzen dira migrazioa kontrolatzeko langileen esplotazioa prebenitzeko baino. Bridget Anderson ikertzaileak dioen bezala, «2009an, [Gutxieneko Soldata Nazionalaren] bulegoak 93 funtzionario zituen betekizun guztiez arduratzeko, eta Langileburuen Lizentziak Kudeatzeko Agintaritzak [zeinak langile zaurgarri eta esplotatuak babesteko lan egiten baitu] 25 ikuskatzaile zituen [...] Erresuma Batuko Mugako Auzietarako Agentziaren ustez, 7.500 langile behar dira Tokiko Immigrazioaz arduratzen diren taldeetan».²⁴⁶

Testuinguru horretan gertatzen da, askotan, sexu-merkataritzea. Agiririk gabeko pertsonak edo erabat baliozkoak ez diren agiriak dituztenek estatuak bultzatutako azpiegitura zigortzaile batean korapilatuta amaitzen dute, eta deportagarri, baztergarri eta prekario bihurtzen dira. *Egiten duten lana egiten dutela ere* -jatetxeetan, eraikuntzan, marihuana-soroetan, manikura- eta pedikura-aretoetan, prostituzio-etxeetan-, atxilotuak, kartzelatuak edo deportatuak izateko arriskua dute. Lana edozein dela ere, ezin izango dituzte aldarrikatu beren lan-eskubideak. Etxebizitza bat alokatzea edo osasun-zerbitzuak eskuratzea ere zaila izan daiteke. Horren guztiaren ondorioz, agiririk gabeko pertsonak beren laguntzaileen menpekoago bihurtzen dira; adibidez, diru-truke muga zeharkatzen lagundu zietenak, edo enplegatzailerik eskrupulurik gabeak. Beraz, ez da harrizkoa agiririk gabeko migratzaileek konfiantzazko pertsonatzat hartu zituzten haiek izatea sexu-lanera bultzatzen dituztenak edo haietako batzuk horretan lanean hasia lan-baldintzak esplotatzaileak eta bidegabeak izanda ere.

Erresuma Batuan lan egiten duen emakume thailandiar baten bizipenak konplexutasun horien adibide dira. Herrialdean sartzeko egin zuen zor handiaz hitz egiten du, eta jatetxe-lanean aurkitu zituen lan-baldintza eskasez eta soldata txikiak; baina orobat azaltzen du sexu-lanean soldata handiagoa irabazten duela, eta jada ez duela zorrik ordaindu behar:

Ingalaterrara etorri nintzen lanera, Thailandian ez dagoelako dirurik... Hona etortzeko, kontratu bat sinatu nuen batzuekin, eta 22.000

246 Bridget Anderson, Bridget (2010) «Migration, immigration controls and the fashioning of precarious workers», *Work, Employment and Society* 24:2, 300-17.

libera itzuli behar nizkien [...] Lan eta bizi, pisu [putetxe] berean egiten nuen, hogeita lau ordu egunean, beste hiru neska thailandiarrekin batera. Diru guztia emakume hari [kontrabandistari] ematen genion, 200 libera izan ezik, zeinak gure familiei bidaltzen baikenizkien, baina ez gintuen zaintzen [...] Jateko, arrautza bakar bat ematen zigun egunero, eta harrikoa egiteko xaboia jartzen zuen xanpuaren potoan. Zortzi hilabetean zorra kitatu nuen, eta gero libre nintzen. Orain, hemen [putetxe batean] eta jatetxe batean lan egiten dut. Jatetxea hobea da, ospe ona duelako. Hemen, ostera, diru polita egiten duzu, baina ospe txarra. Orain ondo nago, baina beldurrez bizi naiz, immigraziokoak etorri eta Thailandiara itzulazaziko ote nauten.²⁴⁷

Emakume brasildar batek ikertzaile berari azaltzen dio legezko immigrazio-estatusa izanez gero beste zerbaitetan jardungo zuela, ez sexu-lanean: «Espainian nengoen lanean, baina nirekin lan egiten zuen neska batek hona etorri behar zuen, eta harekin etortzea erabaki nuen [...] Bera ere brasildarra zen. Esana zidan Erresuma Batua hobea zela lanerako, eta nik dirua behar nuen [...] Legala banintz, beste lan bat bilatuko nuke».²⁴⁸ Aurretik Espainian lan egindako beste emakume migratzaile batek dio sexu-lana kriminalizatzeak ere ez diela estatuarekiko segurtasunik ekarriko agiririk gabeko langileei: «Espainian seguruago sentitzen nintzen. Uste dut irtenbide bakarra dela legezkatzea [...] putetxeetan lan egitea, baina orduan hori ere ez litzateke nahikoa izango, ezin izango bainuke hor lan egin, ez dudalako agiririk».²⁴⁹

Behin eta berriro azaltzen dira immigrazio-legeak ezartzen dituen mugak. Emakume batek honela diotse ikertzaileei: «Thailandiarrentzat hain da gaitza Erresuma Baturako bisa bat lortzea... zergatik? Hona etorri nahi baduzu lanera, beste sistema eta pertsona horiek erabili behar dituzu, eta oso arriskutsua da».²⁵⁰ Beste batek dio: «Oso txarra da. Neskek atzerrira joan eta bizitza hobea izan nahi dute, baina jende horrek dirua egiten du haien bizkar, eta, bestetik, hori da hona etortzeko bide bakarra! [...] Barne Ministerioak bisa gehiago eman behar lituzke. Zaila

247 Mai, N. (2009, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «Migrant Workers in the UK Sex Industry», *London Metropolitan University Institute for the Study of European Transformations*, txostena hemen eskura daiteke: scot-pep.org.uk.

248 *Ibid.*, 20.

249 *Ibid.*, 38.

250 *Ibid.*, 40.

da hemen aurrera egitea ilegal bazara!».²⁵¹ Ikerketa hura Nick Mai-k zuzendu zuen, eta hau idatzi zuen:

Korrelazio zuzena dago bi faktore hauen artean: batetik, agiriak lortzeko eta mantentzeko zailtasun-maila; bestetik, elkarrizketatuek esplotazioarekiko duten zaugarritasuna, sexu-lanean edo beste industria batzuetan lan egiten dutela ere [...] Erresuma Batuko sexu-industrian, *immigrazio-estatusa da langile migratzaileen esplotazioarekiko zaugarritasuna arriskuan jartzen duen faktorerik garrantzitsuena* [letra etzana gurea da].²⁵²

Nolanahi ere, pertsonen trafikoari buruz berba egiteko moduak sistemarekin zerikusirik izango ez balu bezala ageriarazteko aukera ematen du. 2018an, adibidez, berri-agentziek zabaldu zuten polizia alemanak talde antolatatu bat «suntsitu» zuela, emakume thailandiarrek Alemaniako prostituzio-etxee-tara eramaten zituena.²⁵³ Horri erantzunez, Erresuma Batuko prostituzioaren aurkako feminista batek adierazpen hauek egin zituen: «Hori da prostituzioa legalizatzeak duen arazoa. Eskaerak borondatezko eskaintza gainditzen du, eta, beraz, trafikoa sortzen da».²⁵⁴ Thaiandiako komunikabideek esan zuten emakume haiek migratzen saiatu zirela eta bazekitela helburura iritsita-koan sexua saldu beharko zutela. Alemanian kontrabandoz sartzeko ordaindu zuten, eta engainatu egin zituzten, soldatari eta lan-baldintzei zegokienez.²⁵⁵ Sarekadaren ondoren, Alemaniako agintariek agiririk gabeko jende esplotatu hura auzipetzeko aukera aztertu zuten, *dagokion bisarik gabe lan egiteagatik*.²⁵⁶

Arazoa prostituzioaren existentzian kokatzen bada –Erresuma Batuko feminista horrek itxura batean bere iruzkinean egin bezala–, ikusezin bilakatzen dira pertsona horiek kaltearekiko zaugarri bihurtzen dituzten faktore materialak. Europako muga-erregimena dela eta, dirutza bat ordaindu behar diete esplotatzaileei muga kontrabandoz zeharkatzeko, eta, mugaren bestaldera iritsita, ez dute lan-eskubideak erabiltzeko modurik, estatuak auzipetu egingo bailituzke haien berri jakinez gero. Bi

251 *Ibid.*, 42.

252 *Ibid.*, 22.

253 BBC (2018ko apirilaren 18a) «German mass raids target forced prostitution gang», bbc.co.uk.

254 Ditung, S. (@sarahditum) Twitter, 2:11 p.m., 2018ko apirilak 18.

255 Patatayoh, S. (2018ko apirilaren 19a) «Thai sex workers in Germany may be charged with not having work permit», *Nation*, nationmultimedia.com.

256 *Ibid.*

faktore horiek elkartzen direnean, enplegatzaileek lazki esplota ditzakete migratzaileak. Horrekin ez dugu esan nahi haiei gertatutakoari garrantzia kendu nahi dioguniki; aitzitik, azpimarratu nahi dugu ez dela batere egokia haien egoeran «trafikoaren kontrako» erantzun punitibo bat ematea. Izan ere, horrela jokatu zergo, ezkutuan geratzen da neurri handi batean zer kalte eragiten duen mugak, eta, gainera, hutsaltzat jotzen da migratzaileek deportazioari aurre egin beharra eta auzitegietan amaitzeko arriskua izatea. Sexu komertzialaren faktorea zela eta, kasu hark Erresuma Batuko hedabideetako komentaristen arreta piztu zuen; nolana ere, trafikoaren aurkako sarekada bat zen –eta, beraz, erabat «gauza ona»–, eta, horrenbestez, ez zen piztu migratzaileei sarekadaren ondoren gertatu zitzaiena jakiteko interesik. Haien auzipetze potentziala –eta nahitaezko deportazioa– axolarik gabeko txikikeriak bihurtu ziren. Nadita Sharmak honela idatzi zuen:

Trafikoaren aurkako politikak kalte handia egiten diete pertsona migratzaileei, batez ere zaugarrienei. Gure arretagunea nazio-estatuaren praktikatetik desbideratu [...] eta «trafikatzaileen» aurkako polizia-«jardun gogorragoa» babestera bultzatzen gaituzte. Hala, trafikoaren aurkako neurriak *ideologikoak* dira: immigrazioaren ugaritasunari eta mugakontrolen gehiegikeriari garrantzia kentzen diote, eta bi kontu horiek politikaren mugetatik kanpo kokatzen dituzte [letra etzana gurea da].²⁵⁷

Trafikoaren aurkako ideologiak ez du kokatzen esplotazioa migratzaileak zorpetzera bultzatu eta lan-babesik bermatzen ez duen ezkutuko ekonomian lan egitera behartzen dituzten estatu-sistemen barruan; aitzitik, gaiztoaren paperean kokatzen du. Houston-en, Texas, trafikoaren aurkako erakunde batek «esklabotza modernoaren museoa» atondu zuen. Ipar Amerikako esklabotza-garaiko girgiluak jarri zituzten takoidun zapata baten ondoan. Zapataren titulua «Gaur egungo girgiluak» zen, eta txarteltxoan hau irakur zitekeen:

Zapata hau Las Palmas esaten dioten [...] kantina batean aurkitu zuten, poliziak sarekada bat egin ondoren. Emakumeak era horretako arropak janztera behartzen dituzte, bezeroak erakartzeko. Jantzi-mota

257 Sharma, N. (2015eko martxoaren 30a) «Anti-trafficking: whitewash for anti-immigration programmes», *openDemocracy*, opendemocracy.net.

horrek negoziaren jabetza gisa markatzen ditu emakumeak, eta arropa horiek girgila modernotzat jotzen dira.²⁵⁸

Museoan ikusgai dagoen zapata hori takoidun zapata arrunt bat da, hiri bateko kale nagusiko edozein dendatan eros dezakezunaren modukoa. Hori «girgila modernotzat jotzea» demaseko fantasia absurdo bat da. Benetako girgila batekin konparatzean, garrantzia kentzen zaio garai bateko ondasun-esklabotzaren historiari, zeina, arraza-justiziaren aldeko ekintzaile Robyn Maynard-ek dioen bezala, «oraindik ere bizi-bizirik dirauen izugarrikeria bat baita [...] Ameriketara azal beltza duen edozeinentzat».²⁵⁹ Fantasia horrek erreala den beste zerbait ere ezkutatzen du, alegia, *emakume batek zapata horiek kendu behar izan zituen poliziarengandik ihes egiteko*.

Txartelean adierazita dagoenez, zapata horiek kantina batean egindako *polizia-sarekada baten* ondoren aurkitu zituzten. Trafikoaren aurkako ekintzaileek nahiago dute zapata arrunt batean «girgilak» ikusi, benetako arazoa kriminalizazioa eta polizia direla onartu baino; horrekin, lortzen duten bakarra da estatuaren azpiegituz kezkatu beharrean girgilak daramatzen fikziozko munstro batez arduratzea.

Erruduntasun zuria eta «esklabo-merkataritza berria»

Trafikoak eragiten duen larritasunak lotura estua izan du beti nazionalismo zuriarekin. Nolabait ere, emakume zurien gorputzek –zeinek prostituzioaren mehatxua jasaten baitute– nazioaren gorputz-politika ordezkatzeko dute, zeinak immigrazioaren mehatxua pairatzen baitu. Hori argi ikus daiteke XIX. mendean «esklabotza zuriak» eragin zuen kezkarekin; Britainia Handia eta Estatu Batuak izu handi batek hartu zituen, eta militanteek uste izan zuten gizon Beltz eta juduak prostituzio behartura erakartzen ari zirela emakume zuri gazteak. Izu horren atzean hiru faktore nagusi zeuden: hiriak azkar hazten ari ziren; emakumeak hirietara migratzen ari ziren, etxetik kanpo lan egiteko; beldur zioten emakumeen independentzia ekonomikoari. Hori guztia zuri supremazistek «arrazo-nahasketari»

258 Goldman, B. (2015eko otsailaren 2a), «Photo Essay: Houston's Sex Trade in Nine Objects», *Houstonia Magazine*, houstoniamag.com.

259 Maynard, R. (2015eko irailaren 19a) «Black Sex Workers» Lives Matter: Appropriation of Black Suffering», *Truthout*, truthout.org.

zioten beldurrarekin korapilatu zen, eta, hala, izu-ikara arrazista piztu zen.

Jo Doezema akademikoak idatzia duenez, esklabo zuriaren irudiak, bere «inozentzia hondatuarekin», «landa-eremu estatubatuarreko inozentziaren galera erreal eta imaginatua» irudikatzen zuen.²⁶⁰ 1909ko testu batean, Jane Addams gizarte-langile eta ekintzaileak honela zioen: «Orain arte, gure zibilizazioan inoiz ez da gertatu horrenbeste neska bat-batean etxeko babesetik aske egotea, inoren zaintzarik gabe hiriko kaleetan ibili ahal izatea eta teilape arrotzetan lan egin ahal izatea».²⁶¹ Historialariek diote kazetariak esklabotza zuriari buruz idatzitako erreportaje zirrargarriak «denbora-pasa ia pornografikoa eskaintzen ziela irakurleei».²⁶² Zuri inozenteak xarmatu eta hondamendira bul-tzatzen zituzten gizon azal-ilunei buruzko kontakizunez jositako giro argiro arrazista hartan, AEBko trafikoaren aurkako lehen lege modernotzat jo daitekeena onartu zen: 1905eko Mann Legea. Legeak prostituzio behartuaren aurka egiten zuen argi eta garbi, eta emakume zuriekin maitasun-harremanak zituzten gizon Beltzak kriminalizatzen zituen.²⁶³ Erresuma Batuan, esklabotza zuriaren legedia 1885 eta 1912 bitartean onartu zen, eta «emakumeen migrazioa kontrolatzeko eta murrizteko neurriak jasotzen zituen».²⁶⁴

Beraz, trafikoaren aurkako legeen jatorria ezagututa, ez da harrizkoa gaur egungo politikak ere nagusiki migrazioaren aurkakoak edo prostituzioaren kontrakoak izatea. Ez bata ez besteak ez die laguntzen agiririk gabeko pertsoneri, eta biek sexu-langile migratzaileak kaltetzen dituzte, zeinak bi aldeetatik baitaude jopuntuan eta neurritz gain kriminalizatuak eta deportatuak. Abhijit Dasgupta Asiako ActionAid erakundeko kidea da, eta honela dio:

260 Doezema, J. (2010) *Sex Slaves and Discourse Masters: The Construction of Trafficking*, New York: Zed Books, 49.

261 Abbott, K. (2007) *Sin in the Second City: Madams, Ministers, Playboys, and the Battle for America's Soul*, New York: Random House, 48.

262 Luddy, M. (2007) *Prostitution and Irish Society, 1800–1940*, Cambridge: Cambridge University Press, 163.

263 Doezema, *Sex Slaves*, 89; Weiner, E. (2008) «The Long, Colorful History of the Mann Act», *NPR*, npr.org.

264 Lammasniemi, L. (2017, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «Anti-White Slavery Legislation and its Legacies in England», txostena hemen eskura daiteke: antitraffickingreview.org.

Trafikoaren aurkako neurriak erabiltzen ziren nazioarte mailan jendearen migrazioa eragozteko, batez ere pobrezia eta globalizazioaren ondorioz beste herrialde batera aldatu nahi duten emakumeena. Gobernuak diote milaka milioi dolarreko sexu-industria milioika emakume trafikatzeko ari dela, baina UNHCR (Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Mandataria) erakundeak eta beste batzuek adierazi izan dute migrazio-kontrolak zorrotz direnez gero agente bati ordaintzea dela jendeak migratzeko duen aukera bakarra.²⁶⁵

Migrazioari buruzko izu-ikara arrazista ez da inoiz egon politikaren lehen geruzatik urruti kolonialismoan jardun duten eta oraindik ere horri etekina ateratzen dioten herrialdeetan; nolahi ere, azken hogeita bost urteetan gora egin du kezka horrek. Askotan, militanteek nahita azpimarratzen dute arrazismo hori; adibidez, «*hordes at the border*» [hordak mugaldeen] esloganaren irudikapenek toki handia hartu zuten 2016an, Britainia Handia Europar Batasunetik aterako zuen «Brexit» erreferenduma egin zenean.²⁶⁶ 2017an, hauteskunde-estratega kontserbadore batek hau txiokatu zuen: «2005ean, kontserbadoreen kanpaina parte hartu nuen; lan handia egin genuen migrazioaren kontrako sentimendua indartzeko. Eta, [garai hartan Alderdi Laboristako buru Gordon] Brown-ek geroztik, inork ez zituen zalantzan jarri immigrantei buruzko gezurrak, zera, lanak kentzen dizkigutela eta laguntzak eskuratzeko etortzen direla hona».²⁶⁷ Urte berean, ondoko hau idatzi zuen Sarah Champion-ek, zeina garai hartan Alderdi Laboristako Emakumeak eta Berdintasuna arloko estatu-idazkaria baitzen, artean aski ezezaguna: «Britainia Handiak arazo bat du emakume zuriak bortxatzen eta esplotatzen ari diren gizon pakistandar britainiarrekin. Esan badut, esan dut. Horrek arrazista bihurtzen nau, ala esan nahi du prest nagoela arazo izugarri hau dagokion bezala izendatzeko?».²⁶⁸ Berez, posible da etengabe hazten ari diren kezka xenofobo eta arrazista horien arrastoa ikustea ez bakarrik jendeak esandakoetan, ti-

265 Dasgupta, A. (2016ko apirilaren 20a) «Trafficking Briefing», *English Collective of Prostitutes*, prostitutescollective.net.

266 Pringle, B. (2016ko ekainaren 20a) «Breaking Point», *Political Advertising UK*, politicaladvertising.co.uk.

267 Walshe, G. (@garvanwalshe) Twitter, 7:01p.m., 2017ko otsailak 26: «I was in 2005 Tory campaign – we worked assiduously to ramp up anti immigrant feeling. And from Brown on nobody challenged lies that immigrants took jobs, were here on benefits etc».

268 Champion, S. (2017ko abuztuaren 10a) «British Pakistani men ARE raping and exploiting white girls ... and it's time we faced up to it», *The Sun*, thesun.co.uk.

tular sentsazionalistetan eta hauteskunde-estrategietan, baizik eta baita hormigoian eta alanbre arantzadunetan ere. Reece Jones geografoak idatzia duenez, «1990ean, hamabost herrialdetan soilik zeuden horma garaiak edo hesiak mugaldeen. 2016aren hasieran, ia hirurogeita hamarretan».²⁶⁹

Ozeano Atlantikoan zeharreko esklabo-merkataritzaren eta ondasun-esklabotzaren historiak itzal luzea du gaur egungo trafikoari buruzko elkarrizketetan; askotan baieztatzen da –sotilki, edo ez hainbeste– trafiko modernoa ondasun-esklabotza baino okerragoa dela. Politikariek eta poliziek elkarri esaten diote «gaur egun humanitatearen historiaren ezein unetan baino esklabo gehiago» daudela; Erresuma Batuko gobernuko ministro ohi batek behin eta berriro esaten du «esklabo-merkataritzaz berri baten aurrean gaudela, zeinaren biktimak, afrikarrak baino gehiago, Europa Ekialdeko neska izutu eta torturatuak baitira».²⁷⁰ 2015ean, Matteo Renzi zen Italiako lehen ministroa, eta berak esaten zuen «pertsonek trafikatzailak XXI. mendeko esklabo-merkatariak» direla.²⁷¹ Vatikanoko esan zuen «esklabotza modernoa», bereziki prostituzioa, «okerragoa dela beste horien esklabotza baino [...] Afrikatik hartu zituztenena baino».²⁷² Polizia britainiarreko kargudun batek honela zioen: «XVIII eta XIX. mendeetako kotoi- eta azukre-plantazioak [...] ez ziren izango biktima batzuk [gaur egun] bizitzen ari direna baino okerragoak».²⁷³

2012an, trafikoaren aurkako «dokumental» bat zabaldu zen, mundu osoko politikari eta legegileei zuzendua, eta, besteak beste, toki hauetan ikusi zuten: Washingtonen, Londresen, Edinburgon eta New Yorkeko NBEn bulegoetan. Dokumental hartan esaten zenaren arabera, «1809an, esklabo baten kostua hogeita ha-

269 Jones, R. (2016) *Violent Borders: Refugees and the Right to Move*, London: Verso Books.

270 Action of Churches Together in Scotland (2017) «“More Slaves Today than at any Time in Human History” Exchanging Scottish and International Perspectives on Human Trafficking», *Eventbrite*, eventbrite.com; MacShane, D. (2006ko urtarrilaren 2a) «Prosecute “massage parlour” rapists», *The Telegraph*, telegraph.co.uk.

271 Renzi, M. (2015eko apirilaren 22a) «Matteo Renzi: Helping the Migrants Is Everyone's Duty», *New York Times*, nytimes.com.

272 CBC News (2006ko azaroaren 14a) «Modern human trafficking worse than slave trade: Vatican», *CBC*, cbc.ca.

273 Townsend, M. (14 May 2011) «Trafficking victims lured to the UK: Locked up and raped at £30 a time», *Guardian*, theguardian.com.

mar mila dolarrekoa zen. 2009an, esklabo baten kostua laurogeita hamar dolarrekoa da».²⁷⁴ Etsigarria da pertsona zuriak artifizio erretoriko gisa ondasun-esklabotzaren historiaz jabetzea, eta ez bakarrik *esklabotza* terminoak estatuak sortu, ezarri eta babestutako legezko instituzio zehatz bat izendatzen duelako, zeinak ez baitu inolako zerikusirik gaur egun pertsonen trafikoaz ulertzen dugunarekin. Izan ere, AEBko ondasun-esklabotzaren oinordeko zuzena ez da prostituzioa, baizik eta kartzela-sistema. Esklabotza ez zen abolitu; esplizituki atxiki zen AEBko Konstituzioan, delituen zigor gisa, Eskubideen Adierazpenaren Hamahirugarren Zuzenketan, non ondorengo hau esaten baita: «Estatu Batuetan, edo haren jurisdikzioaren menpe dagoen beste edozein tokitan, ez da izango ez esklabotzarik ez borondatez kontrako mirabetzarik, *salbu eta alderdia legeak agindu bezala kondenatzea ekarri duten delituen zigor gisa*» ([etra etzana gurea da]).²⁷⁵

Hamahirugarren Zuzenketa hori ez da Konstituzioan geratu den aztarna huts bat. 2016an, Langile Kartzelatuen Batzorde Antolatzaileak adierazpen bat kaleratu zuen, espetxeratuei kartzelako lan-sistemaren barruan ematen zaien tratua gaitzesteko:

Ikuskatzaileek gure mugimendu guztiak zaintzen dituzte, eta, guri esleitutako zereginak haiek nahi bezala egiten ez baditugu, zigortu egiten gaituzte. Zartailuaren orde z piperbeltz-espraia erabili arren, beste oinaze ugarik bere horretan diraute: bakartzea, gorputz-jarrerak mugatzea, biluzgorritzea eta gure gorputzak miatzea, animaliak bagina bezala.²⁷⁶

Gizonezko Beltz gehiago daude gaur egun AEBko kartzela-sisteman 1850ean esklaboak baino.²⁷⁷ Proposamen mingots eta ironikoa da «esklabotzari amaiera emateko» xedez polizia-jarduna eta kartzelatzea areagotu nahi izatea.

Britainia Handiko eta Ipar Amerikako herritar zuriek ezin hobeto lortu dute esklabo-merkataritzaren ondarearen inguruko

274 Nolot, «Nefarious: Merchant of Souls».

275 Ikus Greene, J. eta Mason McAward, J. (d.g., 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «The Thirteenth Amendment», *Constitution Center*, txostena hemen kontsulta daiteke: constitutioncenter.org.

276 Prisoner Support (2016ko apirilaren 1a) «Announcement of Nationally Coordinated Prisoner Work stoppage for Sept 9, 2016», *Support Prison Resistance*, supportprisonresistance.noblogs.org.

277 Lu, T. (2011ko martxoaren 30a) «Michelle Alexander: More Black Men in Prison Than Were Enslaved in 1850», *Color Lines*, colorlines.com.

egiazko hausnarketa bati iskin egitea. Nick Draper historialariak idatzia duen bezala, «abolizioaren alde egiten dugu [...] Norbaiti esaten badiozu “kontakatu Britainia Handiari eta esklabotzari buruzkoak”, jende gehienak Wilberforce eta abolizioa aipatuko ditu instintiboki. Ez dira aipatu ere egiten horren aurretik esklabotzak bizi izan zituen 200 urteak; besterik gabe, ez dugu horretan pentsatu nahi».²⁷⁸ Erretorikaren bidez trafiko modernoa ondasun-esklabotzarekin uztartu, eta migrazio irregularra xede duten zigor-politikak itxuraz konplikaziorik gabeak diren arazoizko suminduren atzean ezkutatzea lortu dute gobernuak eta aktibistek.

Koloreko gizonak auzitara eramatea edo zerbait okerragoa merezi duten «esklabista moderno» bilakatu dira. Haiek garraiatzen duten «giza zamari» –zeina borondatearen kontra eramana izango balitz bezala irudikatzen baita– gauza bakarra opa diogu, «itzulera humanitarioa» izan dezala; aldi berean, migratzaileak mugaldea inbaditzen ari direlako gezurrak gero eta ospe handiagoa bereganatzen du, gaizkileen doilorkeriak eragiten duen izu kolektiboaren bidez. Bitartean, polizia-operazioak direla eta deportazioak direla, Europako gobernuak esklaboen aurkako mugimenduen historia berregiten eta berridazten ari balira bezala jokatzeko dute, eta beren burua biktima eta heroi izendatzen. Jakina, Europako gobernuak egiten dituzten ekintza horiek kalteak eragiten dituzte. Adibidez, kontrabandoko txalupak konfiskatu edo suntsitzeko politikak ez du inor «erreskatatu»; lortu duen bakarra da kontrabandistek balio gutxiago duten –eta egoera okerragoan dauden– ontzietan bidaltzea migratzaileak, eta horrek heriotza askoz gehiago eragin ditu.²⁷⁹ Politika horri zenbait urtez eutsi diote, nahiz eta oso agerikoa den heriotzak eragiten ari dela.²⁸⁰ Nolanahi ere, XXI. mendeko «esklabisten» aurrean zuriak ez dute ezer hausnartu beharrik. Alderantziz, Renzik geroago idatzi zuen Europako nazioek «erruduntasun-sentimendutik askatu behar» dutela eta baztertu egin behar dutela etorkinak abegikortasunez hartzera bultzatzen dituen

278 Doward, J. (2016ko irailaren 25a) «From Jane Austen to Beatrice and Eugenie ... the long reach of UK slave-owning families», *Guardian*, theguardian.com.

279 Kingsley, P. (2015eko urtarrilaren 7a) «Trading in souls: Inside the world of the people smugglers», *Guardian*, theguardian.com.

280 Travis, A. (2017ko uztailaren 11) «EU-UK naval mission on people-smuggling led to more deaths, report says», *Guardian*, theguardian.com.

ezein «betebehar moral».²⁸¹ Hau idazterakoan, Italiako gobernuak migratzaileen krisiari emandako «irtenbidea» da diru bat ordaintzea migratzaileak kartzelatzeko, Libiako atxilotze-zentro arriskutsu eta gaixotasunez josietan abandonatzeko.²⁸² Robin Maynardek honela jaso zuen liburu batean:

Esklabotzaren terminologia berenganatuz, eta, are gehiago, beren buruari eskuarki «abolizionista» deituta, sexu-lanaren aurkako ekintzailak [...] kriminalizazioa bultzatuz [...] askotan esklabotzaren ondareak gehien kaltetu dituen haiek ahultzen ditu. Ameriketako pertsona Beltzak literalki gure bizitzan alde borrokatzen ari diren honetan, ezinbestekoa da lehenbailehen aztertzea beren burua «esklabotzaren aurkako» misio baten legezko oinordekotzat hartuta prostituzioa abolitu nahi duten –eta, aldi berean, komunitate Beltzen aurka egindako basakeriak kontuan hartu ez eta zeharka errazten dituzten– horien mugimendu nagusiki zuri eta kontserbadore orenen ekintza eta helburuak.²⁸³

Behetik begiratuta, zer itxura du jendea «esklabotza modernotik» salbatzeko borroka? 2017an, North Yorkshire-ko polizia kazetariei esan zieten «sexu-esklaboak» erreskatatzeko borrokan ari zirela, eta herritarrei eskatu zieten polizia-etxera deitu eta arrastoen berri emateko. Gaineratu zuten: «Sexu-esklaboak [...] hori egiteko [sexua saltzeko] prestatuta daude, ez dute uste ezer txarra egiten ari direnik [...] Egin behar dugun bakarra da [...] haiei erakutsi pertsonen trafikoaren biktima direla».²⁸⁴ Aski agerikoa dirudi «hori egiteko prestatuta» dauden eta haien ustez «ezer txarra egiten ari» ez diren emakumeek ez diotela etekin handirik aterako trafikoaren biktima direla «erakutsi» nahi dien ekimen bati –Ingalaterran eta Galesen, berrogeita bost eguneko «atsedenaldia» (askotan ez zaio jaramonik egiten), eta, ondoren, deportazio «humanitarioa»–.²⁸⁵

281 Balmer, C. (2017ko uztailaren 7a) «Italy's Renzi urges end to "do gooder" mentality on migrant influx», *Reuters*, reuters.com.

282 Charlemagne (2018) «How Italy's interior minister tackles illegal migration», *The Economist*, economist.com; Médecins Sans Frontières (2017ko irailaren 19a) «Libya: Arbitrary detention of refugees, asylum-seekers and migrants must stop», *MSF*, msf.org.uk.

283 Maynard, R. (2017) *Policing Black Lives: State Violence in Canada from Slavery to the Present*, Fernwood Publishing.

284 The Yorkshire Post (2017ko ekainaren 8a) «Could you spot a pop-up brothel?», *Yorkshire Post*, yorkshirepost.co.uk

285 «Baieztatutako biktimek 14 eta 45 egun bitarteko epea dute "aurrera egiteko" laguntza jasotzeko, hala nola aldi baterako ostalua, psikoterapia, aholkularitza espezializatua eta abokatuak». Erresuma Batuko Barne Ministerioa eta Sarah Newton parlamentukidea,

2012an, Alaskan lege bat onartu zuten, funtsean prostituzioa «sexu-trafiko» gisa birdefinitzen zuena. Legearen lehen bi urteetan lege horren harira akusatutako bi pertsona bakarrak «prostituzioaren aurkako sarekada arruntetan harrapatutako» sexu-langileak ziren. Haietako bat «bere burua sexu-trafikorako erabiltzeaz akusatu zuten, estatuak argudiatu baitzuen beraren prostituzioa “abiatur edo bultzatu” zuela». Beste kasuan, berriz, «emakume bati sexu-trafikoko hainbat delitu leporatu zizkionten [...] beste sexu-langile batzuekin espazioa partekatzeagatik berarentzat eta beste sexu-langile batentzat duo bat [trio bat] hitzartu zuenean polizia-agente batekin», zeinak bere burua bezerotzat aurkeztu baitzuen. Bost urteren ondoren, Alaskako estatuak ez zuen inor akusatu edo kondenatu trafikoarekin lotutako kasu batean inor hertsatu, engainatu edo behartu izanaz; legea soil-soilik erabili zen sexu-langileen, haien senideen eta haien etxejabeen aurka.²⁸⁶

2016an, Irlandako poliziak Errumaniako lau sexu-langile atxilotu zituen. Poliziak esan zuen emakume haiek trafikoaren biktima izan zirela, baina, halere, auzitara eraman zituzten, prostituzio-etxe bat eramateagatik; «delitu» hori egiteko, nahikoa da etxebizitza bat partekatzea, eta sexu-langileek askotan egiten dute hori, segurtasun-kontuengatik. Epaitegian, emakumeek adierazi zuten Errumaniako familiari dirua bidaltzeko saltzen zutela sexua. Poliziak honako iruzkin hau egin zuen: «*Lau neskatila dira, eta eragozpenik jarri gabe onartu dute sexu-zerbitzuak ematen zizkietela gizon askori*» [letra etzana gurea da].²⁸⁷ Hogeita bat eta hogeita hamar urte bitartekoak ziren. Poliziak erantsi zuen: «700 €-ko alokairua ordaintzen zioten etxejabe diru-gose bati, 350 €-ko errenta izan behar zuen etxebizitza baten truke. Beraz, jende ugari erabiltzen zituen, eta jende ugari abusatzen

«Modern slavery victims to receive longer period of support», 2017ko urriaren 26a, www.gov.uk. Erresuma Batuko Migrant Legal Project erakundeko abokatu Mark Shepherd-en iruzkina: «Adingabeko delitugileen zentroetan haur asko ikusten ditut [...] Vietnam-era deportatzen dituztenak, eta, trafikoaren biktima izan badira ere, inork ez du ezer egiten.» M. McClenaghan, «UK condemned for deporting survivors of trafficking back to Vietnam», *Guardian*, 2016ko abenduaren 20a, theguardian.com

286 Burns, T. (d.g., 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «People in Alaska's Sex Trade: Their Lived Experiences And Policy Recommendations», *Sex Trafficking in Alaska*, txostena hemen eskura daiteke: sextraffickingalaska.com.

287 Healy, A. (2016ko urriaren 31) «Four women plead guilty to operating Galway brothel», *The Irish Times*, irishtimes.com.

zuen haietaz». Poliziak 5.000 € konfiskatu zizkien, eta auzitegiak 200 €-ko isuna ezarri zion bakoitzari.²⁸⁸ Zaila da ulertzea zer modutan laguntzen duen diru hori guztia hartzeak pisu garestiegi batek eragindako kaltea konpontzen, eta erraza, berriz, imajinatzea emakume haiek nahiago izango zuketela haien pisu itxuraz garestiegi lan egiten jarraitzea eta ez inork atxilotzea, akusatzea eta haien dirua hartzea, «trafikoaren aurkako» ekimen gisa.

Trafikoaren aurkako poliziagintza mugako poliziagintzaren antzekoa da. Kanadan, 2015ean, pertsonen trafikoaren aurkako sarekada bat egin zuten masaje-areto batean, eta, haren ondorioz, hamaika emakume deportatu zituzten.²⁸⁹ Mi izeneko sexu-langile migratzaile batek bi hilabete egin zitue Kanadako atxilotze-zentro batean. «Telefonoa kendu zidaten, eta ez zidaten utzi lagunekin eta familiarekin harremanetan jartzen. Ez zidaten utzi alde egiten, eta esaten zuten babestu egin behar nindutela. Uste zuten nire lagunak eta bezeroak txarrak eta arriskutsuak zi-rela niretzat. Ez zieten utzi nire lagunei nire fidantza ordaintzen eta ni kate hauetatik libratzen». Mi deportatu ondoren, Kanadako immigrazio-arloko funtzionarioek uko egin zioten hari kendutako 10.000 dolarrak itzultzeari; kopuru horretan, besteak beste, Kanadara aldatu zenean berarekin eramandako aurrezkiak ere bazeuden.²⁹⁰

Fanny beste migratzaile bat da, zortzi egunez atxilotuta eduki zutena. Honela mintzo da bere atxiloketaren inguruan: «Argi zegoen [poliziak] gure moduko langile ez-zuriak bakarrik bilatzen zituela. Hotel berean beste batzuk ere ari ziren lanean, emakume zuriak, eta poliziak ez ziren haietaz arduratu, ez zieten ezer esan».

2016ko urrian, Londreseko poliziak hainbat sarekada egin zituen Soho-ko eta Chinatown-eko zenbait masaje-aretotan, eta hamazazpi emakume atxilotu zituen, immigrazioarekin lotutako delituez akusatuta.²⁹¹ Erresuma Batuen iparraldeko Bolton

288 *Ibid.*

289 CBC News (2015eko maiatzaren 8a) «Massage parlour, body rub investigation leads to 11 deportations», *CBC*, cbc.ca.

290 Lam, E., «Behind the Rescue», txostena, Butterfly (emakume asiari eta migratzaileei laguntzeko sarea), hemen eskura daiteke: nswp.org/sites/nswp.org/files/behind_the_rescue_june_2_butterfly.pdf.

291 Mullan, F. (2016ko urriaren 27a) «Are the Soho Brothel Raids Really About Saving Sex Workers?», *Vice*, vice.com.

herrian, «pertsonek trafikoarekin eta esklabotza modernoarekin lotutako polizia-operazio» batean bi emakume errumaniar aurkitu zituzten, zeinek beren burua sexu-langiletzat aurkeztu baitzuten. Hango kazetari batek idatzi zuenez, «immigrazioko funtzionarioek paper batzuk eman zizkieten bi emakumeei, zeinetan azaltzen baitzen nola lor zezaketen legezko lan bat [...] 30 eguneko epean, eta esan zieten hala egin ezean atxilotuak edo deportatuak izateko arriskua zutela». Bitartean, poliziek etxegabearekin hitz egin zuten, eta emakumeak etxetik kanporatzea behartu zuten.²⁹² Ipar Irlandan, bi asilo-eskatzaille -biak etxegabeak, bat hamazazpi urtekoa- auzitara eraman zituzten pertsonen trafikoarekin lotutako delituak egotzita, beren burua Ipar Irlandan sartu zutelako kontrabandoz, agiri faltsuak erabiliz.²⁹³

Michael Dottridge Esklabotzaren aurkako Internazionala erakundeko zuzendari ohia da. Idatzia duenez, askotan entzun izan ditu gobernu britainiarreko ministroak esaten poliziak suntsitu egin behar litzukeela Frantziaren eta Britainia Handiaren arteko mugan kokatuta dagoen Calais hiriko errefuxiatu-esparruko oinarritzko aterpeak, zeinak pertsona migratzaileen bizileku baitira, «trafikoari amaiera emateko».²⁹⁴ Eskoziako poliziak prentsa-ohar bat kaleratu zuen, esanez muga zeharkatzea eragotzi zietela ehun pertsonari baino gehiagori, trafikoaren aurkako lanetan ari zirela; emakume errumaniar baten adibidea jarri zuten, zeinak «aurretik prostituta gisa lan egin baitzuen Glasgoven». BBCren arabera, «Ez zuten onartu Glasgoven 2017ko maiatzean, ezta Liverpool-en ere 2017ko uztailean, eta berriki Belfasteko portuan aurkitu dute, Eskoziara heltzeko ahaleginean. Errumaniara eraman dute».²⁹⁵ Erreportaje berean, beste emakume errumaniar bat ere azaltzen da, zeinari mugaren bestaldera igarotzea eragotzi baitzioten, poliziak bazekielako sexu-langilea zela. Hain zuzen ere, gertaera ikaragarri traumatiko baten ondo-

292 Proctor, I. (2016ko urriaren 21a) «Brothel shut down and prostitutes spoken to during human trafficking crackdown», *Bolton News*, boltonnews.co.uk.

293 The Irish News (2016ko abuztuaren 3a) «Jail for asylum seekers arrested in suspected trafficking racket», *The Irish News*, irishnews.com.

294 Dottridge, M. (2016ko irailaren 26a) «How did we get the Modern Slavery Act?», *openDemocracy*, opendemocracy.net.

295 BBC (2017ko abuztuaren 24a) «Suspected trafficking victims turned back at Glasgow Airport», *BBC*, bbc.co.uk.

rioz zekien poliziak emakume hura sexu-langilea zela. Eskozian lan egiten zuenean, bezero batek Falkirk-eko pisu batean bahitu zituen bera eta beste langile bat, eskuan aizto bat zuela; biak bor txatu zituen, eta beste emakumea, Luciana, hil egin zuen. Datu horiek eskura izanda ere, immigrazioko poliziak emakumea mugan atxiki eta deportatu egin zuen, harroxko erakutsiz, gainera, bere trafikoaren aurkako azpiegitura humanitarioa.²⁹⁶ Horrelako adibide asko eta asko daude, liburu batean kabitzen direnak baino askoz gehiago.

Mundu osoko mugetan, sexu-langileak gaizto eta biktima gisa tratatzen dituzte aldi berean. Ameriketako Estatu Batuetan, Barne Segurutasuneko bulegoak ofizialki debekatu zuen azken hamar urteetan sexua saldu duen edonor bere lurretan sartzea, espioiekin, naziekin eta terroristekin egiten duen bezala.²⁹⁷ Estatu Batuetan sartzeko muga inorena ez den lurra da, eta Sartzeko Gune batean atxikitako pertsonak apenas dute eskubiderik. Legearen arabera, polizia-agenteez ez dute behar ez baime-rik ez arazoizko susmorik haiei pasahitzak eskatu eta gailu elektronikoak miatzeko, hala nola telefonoak eta ordenagailu eramangarriak; are gehiago, gailu horietan aurkitutako datuak klona ditzakete.

Poliziek zenbait orduz edo egunez galdekatu eta atxiki ditzakete arrazoi bat edo beste dela medio AEBn sartzan saiatzen diren sexu-langileak, berriz haien jatorrizko herrialdera bidali aurretik. Trump-en agintaldia hasi zenetik, nabarmen handitu da praktika horrek eragindako pertsonen kopurua. Gure komunitateko kide askok –gertuko lagunek barne– azaldu digute zer-nolako trauma eragiten duen aduanan geratu eta hamabi eta berrogeita zortzi ordu bitarteko kalbarioa pairatu beharrak, janaririk, atsedenerik eta medikaziorik gabe. Askotan bilurrak jarri zizkieten eskuetan, edo girgiluekin aulkietara lotu, baita aireportuetako eremu publikoetan ere, non immigrazioko poliziek umiliatu egiten baitzituzten, behin eta berriz arakatuz eta gorputz-miaketa oldarkorrek eginez, eta nahita kentzen zizkieten produktu higienikoak. Debekatuta dago mugako agenteak grabatu edo filmatzea, eta haietako askok legez kontrako taktikak

²⁹⁶ *Ibid.*

²⁹⁷ AEBko Herritartasun eta Immigrazio Zerbitzuak (2013) «Immigration and Nationality Act», xostena hemen eskura daiteke: uscis.gov.

erabiltzen dituzte sexu-langileek agiri bat sina dezaten, haien erruduntasuna onartuz; aitortza horrek galarazi egiten die sexu-langileei hamar urteko epean Ameriketako Estatu Batuetan sartzea.²⁹⁸

Trafikoaren aurkako Gerraren garai honetan, hipokrisia lotsagarria da. Mugako polizia sexu-langileez trufatzen dira, galdeketetan ordainpeko neska-lagunen webguneetako pantaila-irudiak eta gorputz biluzien argazkiak erakutsiz. Bitartean, AEBko Aduanak eta Mugako Babesa erakundeak sexu-trafikoaren krimen «ankerra» gaitzesten du bere webgunean, eta lanpostuak iragartzen ditu, harrokeriaz aldarrikatuz bere «misioren garrantzia eta ezinbestekotasuna», zeina baita nazioa pertsona-trafikatzaileetatik eta antzeko mehatxuetatik babestea.²⁹⁹ AEBko legegileek ere antzeko gauza poetikoak esaten dituzte sexu-trafikoaren zorigaitzaren inguruan, eta eransten dute benetan ikaragarria dela prostituitutako pertsonen giza eskubideak urratzea; halere, ez dute ezer egiten bidaiatzeko debekua bertan behera gerarazteko, eta ondorioz, adibidez, gaur eguneko sexu-langileek eta sexu-langile ohiek ezin izan zuten joan 2012ko HIESari buruzko Nazioarteko Konferentziara, Washington DCra, giza eskubideen aldeko lan baliagarria egitera. Halaber, ez dute ezer egiten sexu-langileek AEBko mugan jasan behar dituzten bizipen izugarri eta traumatikoak aldatzeko. Aitzitik, *Fight Online Sex Trafficking Act* (FOSTA) eta *Stop Enabling Sex Traffickers Act* (SESTA) legeak onartu dituzte, biak elkartuta FOSTA-SESTA gisa ere ezagunak, onlineko sexu-trafikoaren debekatzeko eta sexu-trafikatzaileen aurka egiteko; diotenez, lege horiek segurtasuna ekarriko dute, baina, egiaz, sarraskia eragingo dute Interneteko espazioetan, non sexu-langileek bortxatzaileengandik babesteko leku bat baitute edo diru-iturri bat teilapean lo egiteko.

298 *Maggie's* Torontoko sexu-langileen talde bat da; dokumentu bat prestatu dute, «Sexu-langileentzako gomendioak muga seguruago igarotzeko», non xeheki azaltzen baitira sexu-langileek jarraitu beharreko gomendioak AEBra bidaiatzen dutenean. Haien webguneko «Langileentzako baliabideak» atalean eskura daiteke, hemen: maggiestoronto.ca.

299 Department of Homeland Security (DHS) (2017) «Fact Sheet: Executive Order: Border Security and Immigration Enforcement Improvements», txostena hemen eskura daiteke: dhs.gov; DHS eta Aduanak eta Mugako Babesa (2012) «Job Advert: Paralegal Specialist Position-JFK Airport», hemen eskura daiteke: nyceda.org.

Ankerkeria hori ez da halabeharraren ondorioa. NBEren Pertsonen Trafikoa Prebenitu, Ezabatu eta Zigortzeko Protokoloa ez da giza eskubideei buruzko dokumentu bat, Krimen Antolatu Transnazionalaren aurkako Hitzarmenaren ondorengoa da.³⁰⁰ Horrenbestez, *kriminalizazioaz* arduratzen da, ez pertsona marjinatuek jasaten dituzten kalteak erremediatzeaz (edo murrizteaz). Dottridgek dioen bezala, estatu guztiek ezinbestean bete beharreko neurriak polizia-erakundeekin zerikusia dutenak dira. Babes-neurriak, ostera, ahulak eta hautazkoak dira.³⁰¹ Horiei dagokienez, protokoloak gauza bakarra egiten du: iradokitzen du estatuek *aztertu* egin behar luketela ea neurririk hartu behar duten pertsonen trafikoaren biktimak beren lurraldean gera daitezen, aldi baterako edo modu iraunkorrean, hala dagokionean.³⁰² Biktimak «aberriratzearekin» askoz irmoagoa da –«arrazoi edo justifikaziorik gabeko atzerapenik gabe»–, eta irmoagoa oraindik mugako kontrola gogortzearekin; azken horri dagokionez, eta protokoloaren arabera, estatu sinatzaileek «gogortu egin behar dituzte [...] delako mugako kontrolak, pertsonen trafikoaren prebenitu eta detektatzeko beharrezkoa den gisan».³⁰³

Horri buruzko ezer ez zaie oharkabean pasatu eskuin-muturrekoei; egunkari sentsazionalistek eta supremazista zuriek pertsonen trafikoari buruz hitz egitean erabili ohi den hizkuntza bera baliatu dute beren kanpainetan, «itsasontziak iraultzeko». Kanadako zuri nazionalista batek Italiara bidaiatu zuen 2017an, Frantziako eskuin-muturreko talde batekin elkartu eta «ekintza zuzen» bat egiteko; migratzaileak iritsi ahala, «pertsonen trafikoari BIDERIK EZ» zioen pankarta bat astintzen zuen.³⁰⁴ Katie

300 Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 55/25 Ebazpena (2000) «Pertsonen –bereziki emakumeen eta haurren– trafikoa prebenitu, ezabatu eta zigortzeko Protokoloa, Nazio Batuen Krimen Antolatu Transnazionalaren aurkako Hitzarmena osatzen duena», *Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa*, txostena hemen eskura daiteke: ohchr.org.

301 Dottridge, M. (2007) «Introduction» in *Global Alliance Against Traffic in Women (GAATW) «Collateral Damage: The Impact of Anti-Trafficking Measures on Human Rights around the World»*, txostena hemen eskura daiteke: gaatw.org, 1–27.

302 Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 55/25 Ebazpena, «Pertsonen –bereziki emakumeen eta haurren– trafikoa prebenitu, ezabatu eta zigortzeko Protokoloa, Nazio Batuen Krimen Antolatu Transnazionalaren aurkako Hitzarmena osatzen duena».

303 Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 55/25 Ebazpena, «Pertsonen –bereziki emakumeen eta haurren– trafikoa prebenitu, ezabatu eta zigortzeko Protokoloa, Nazio Batuen Krimen Antolatu Transnazionalaren aurkako Hitzarmena osatzen duena».

304 Murdoch, S. (2017ko maiatzaren 15a) «Anti-Immigrant Far Right Takes to the Seas», *Hope Not Hate*, hopenothate.org.

Hopkins zutabegile britainiarrak gazte-erakunde ageriki faxista bat goretsi zuen, «pertsonek trafikoan diharduten GKE-en kon-tuan argi egiteagatik».³⁰⁵ Berbaera baldarrez diharduten arren, pertsonen trafikoari buruzko eskuin-muturreko ikuspegi horiek antzekotasun handiak dituzte askoz hedatuago dauden eta are feministak diren gai berari buruzko beste ikuspuntu batzuekin. Frontex Europako mugen agentzia da, eta hango zuzendariak ere adierazi du GKE-ek Mediterraneoan egiten dituzten erreska-te-lanek mesede egiten dietela trafikatzaleei.³⁰⁶ (Europa osoko laguntzaile humanitarioek gero eta aukera handiagoa dute trafikoaren aurkako legeen arabera auzipetuak izateko, jendeari migratzen laguntzeagatik).³⁰⁷ Prostituzioaren aurkako feminista ekintzaileek eskuin-muturreko erreportajeak partekatzen dituzte, ustez errefuxiatuek Europan egindako sexu-indarkeriazko kasuei buruzkoak; ekintzaile horietako batek adierazi zuenez, Europako herrialdeek «emakumeak eta haurrak hartu behar litzukete, baina gizon erdeinagarriak haien etxeetan utzi».³⁰⁸ Alice Schwarzer alemaniarra prostituzioaren aurkako feminista eza-guna da; «proxeneta eta trafikatzaleen» irudi arrazializatuak aipatzen ditu askotan, eta gizon migratzaileak sexu-indarkeria-rekin lotzen ditu.³⁰⁹ (Schwarzerrek ezelango gogoetarik egin gabe errepikatzen du polizia-agente batek berari esandakoa, hots, «Kolonian, bortxaketan ehuneko 70-80 bitartean turkiarrek [egiten dituzte]»)³¹⁰ Sexu-langileok deportazioaren aurka antolatzen garenean, –politika nabarmenki aurrerakoiak aldarrikatzen dituzten horiek– esaten digute «deportatuak izan behar luketela baldin eta herrialdean egoteko eskubiderik ez [badute]. Emaku-

305 Hopkins, K. (@KTHopkins) Twitter, 2017ko uztailak 17: «Good to meet Team C-Star @DefendEuropelD in Sicily. Young people, 8 nations, crowd-funded, shining a light on NGO people traffickers in Med».

306 Wintour, P. (2017ko otsailaren 27a) «NGO rescues off Libya encourage traffickers, says EU borders chief», *Guardian*, theguardian.com.

307 Townsend, M. (2017ko azaroaren 11) «Trafficking laws target refugee aid workers in EU», *Guardian*, theguardian.com.

308 White, P. (@unbreakablepenn) Twitter, 12:24 a.m., 2016ko martxoak 9: «@Lavender_Blume Take in refugee women & kids – leave the nasty men home».

309 Eigendorf, J. eta Neller, M. (4 2013ko azaroaren 4a) «Nur eine Welt ohne Prostitution ist human», *Welt*, welt.de.

310 oschardt, U. (2016ko urtarrilaren 15a) «Kalaschnikows, Sprenggürtel und jetzt die sexuelle Gewalt», *Welt*, welt.de.

me horiek trafikoaren bidez ekarri dituzte herrialde honetara. Horren alde zaudete?».³¹¹

Eskuin-muturreko politikariak beti prest daude trafikoaren aurkako agendak abiatzeko. AEBko presidente Donald Trumpek «epidemiatzat» jo izan du pertsonen *trafiko*,³¹² eta Theresa May bere irudiaren eta ondarearen erdigunean jartzen ari da 2015eko Esklabotza Mordernoaren Legea (bera estatu-idazkaria zela onartu zen).³¹³ *Trafiko* hitzaren erabilera akritikoak kontraesan horiek «zentzuz janzteko» lan ideologikoa egiten ari da; ezkutatu egiten du nola migratzaileen aurkako politikek guk *pertsonen trafiko* deritzogun kalte hori *eragiten* duten, eta aukera ematen dieten migrazioaren aurkako politikariei trafikoaren aurkako heroi gisa agertzeko, baita migratzaileen aurkako politikak abiatzen dituztenean ere.

Norantz goaz?

Ez da harritzekoa feminista punitibistek eta sexu-langile feministek hainbeste zailtasun izatea baita gai horri buruz hitz egiteko ere. Ez gatoz bat ez *konponbidean* ez *arazoan*: feminista punitibistentzat, arazoa sexu komertziala da, zeinak trafikoa sortzen baitu; guretzat, arazoa herrialdeen arteko mugak dira, zeinek bidaiatzeko eta lan egiteko eskubide gutxi edo bate-re ez duten pertsonak sortzen baitituzte. Batzuek eta besteok proposatzen ditugun konponbideek ere ez dute zerikusirik. Feminista punitibistek zigor-zuzenbidearen bidez egin nahi diote aurre sexu komertzialari, poliziari botere handiagoa emanez. Sexu-langileontzat, berriz, ezinbestekoa da, besteak beste, migrazioaren aurkako polizia eta muga-erregimen militarizatuak desegitea, agiririk gabeko jendea itzaletera bultzatzen dutelako eta segurtasuna edo justizia eskuratzeko bidea ixten dietelako; beste hitz batzuek esanda, poliziari boterea *kendu* eta migratzaile eta langileei eman.

311 Green, L.H. (@LinHelenGreen) Twitter, 7:06 a.m., 2017ko uztailak 3: «@paul masonnews Should be deported if no right to be in the country. Such women are being trafficked into country. Do you support that?».

312 Associated Press (2017ko otsailaren 23a) «Trump vows to fight "epidemic" of human trafficking», *Associated Press*, apnews.com.

313 May, T. (2016ko uztailaren 30a) «My Government will lead the way in defeating modern slavery», *The Telegraph*, telegraph.com.

Nolanahi ere, sexu-langileen eskubideen aldeko mugimendua ere kritikatu nahi dugu, adeitasunez. Sexu-langileen eskubideen aldeko jende askoren ustez, sexu-lana eta pertsonen trafikoa fenomeno erabat desberdinak dira, eta ez lirateke inondik inora ere nahastu behar. Erraza da horren arrazoia ulertzea; munduaren ezker-eskuinean, prostituzioaren erabateko kriminalizazioa eskatzen –edo onartzen– da, «pertsonen trafikoari aurre egiteko» bide bat delakoan: sexu-langileen lankideen, bikotekideen, etxejabeen eta arduradunen atxiloketak «justifikatuta» daude, delitu-egileak direlakoan; sexu-langileen atxiloketak «justifikatuta» daude, erreskatatu egiten dituztelakoan. Gure mugimendua direnak eta ez direnak egiten ari da jendeari eta hedabideei ikusarazteko atxiloketa horiek ez direla legitimoak; pertsonen trafikoaren esparrua problematizatu beharrean (milaka hitz behar izan ditugu hori egiteko!), akatsa kategorian datzala adierazten dute. Esaten dute: «sexu-lana ez da trafikoa»; eta, hala, zera adierazten dute: «polizia-operazio horiek ez dira legitimoak». Aukera dugunean, argiago adierazi behar dugu *muga* dela arazoa. Bestela, lortuko duguna da esplotazio- eta abusu-egoeran lan egiten ari direnei balioa kentzea; esatea, nolabait, «gai horiek ez dagozkigu guri; mugimendu hau ez da pertsona horietaz arduratzen». Horrek «sexu-langileen» eskubideen esparrutik kanpora kokatzen ditu. Inplizituki bada ere, «sarekada eta erreskatea» bezalako metodo punitiboak onartzen ditu, baldin eta itua «zuzena» bada.

«Sexu-lana ez da trafikoa» leloak trafikoaren aurkako ekintzaile punitiboen akatsa islatzen du. Izan ere, trafikoa gaitz esplikaezin gisa aurkezten du, erabat bereizia migrazio-baldintzen funtsezko testuingurutik eta immigrazio-legeek migratzaileen lan-eskubideetan eta segurtasunean duten ondorioetatik. Sexu-lana eta pertsonen trafikoa erabat desberdinak direla baieztatzen badugu, esaten ari gara agiriak dituzten eta esplotazio-egoeran ez dauden sexu-langileak *bakarrik* babesten ditugula, eta ez dugu ezer esaten migrazioaren eta sexu-industriaren arteko intersekzioan esplotazio-egoeran dauden haietaz. «Sexu-lana ez da trafikoa» esloganak iradokitzen du gaur egungo trafikoaren aurkako politika-eredua zuzena dela eta gutxi batzuetan baino ez duela huts egiten. Baina, jakina, trafikoaren aurkako politika punitiboak ez du huts egiten: mundu mailako

kartzelaren konplexu industrialak bezala, zeinaren parte baita, sistema horrek dagokion eran funtzionatzen du. Sexu-langile Migratzaileen Proiektukoek dioten bezala, «berariaz sortutako sistema eraginkor bat da».³¹⁴ Immigrazioa eta mugak kontrolatzea ezinbestekoa da munduaren hegoaldean langileak eta baliabideak esplotatzen jarraitzeko eta munduaren iparraldean, berriz, agiririk ez duten edo erabat baliozkoak ez diren agiriak dituzten langileen biltegia beteta mantentzeko; bitartean, mugaren zaintzak eta migratzaileen kartzelatzeak dirutza handiak mugitzen ditu korporazioen eta gobernuen artean.

Funtsean, sexu-lana eta pertsonen trafikoa desberdinak direla aldarrikatzea «trafikoari» buruz berba egiteari uko egiteko modu bat da, elkarrizketa horiek askotan guri eraso egiteko erabiltzen baitira, antolatzen garenean; jendeak bide errazetik jotzen du gaia bukatutzat emateko. Baina sexu-langileak poztu egin behar ginatke era horretako eztabaidak sortzen direnean. Aukera ematen dute azaltzeko nola mugako kontrol polizialak zaugarriago bihurtzen dituen migratzen saiatzen diren pertsonak esplotazioaren eta indarkeriaren aurrean, eta analisi hori sexu-langileen eskubideen aldeko aktibismoaren erdigunean kokatu behar litzateke.

Estatuen arteko mugak eta haien inguruan eraikitako hertsapen-arkitektura hain naturalizat jo daitezke gaur egun, ezen zaila baita haiek gabeko mundu bat irudikatzea. Agiririk gabe migratzen duten pertsonak, azken finean, «legea urratzen» ari dira, eta horrek esan nahi du legitimoa dela estatuak haien aurkako zigor-neurriak hartzea –hala nola kartzelatzea eta deportazioa–. Besteak beste, horregatik eskaini dugu mugako kontrolen testuinguru historikoa sarreran: muga azken urteetako historiari begiratuta, ohartzen gara ez direla berezkoak edo saihestezinak. Liburu honen helburuen artean ez dago migratu nahi duten pertsona guztien giza eskubideak eta segurtasuna ardatz dituen migrazio-politika xehe azaltzea. Halere, argi geratu behar luke migrazioa mugatzeko saiakerak kalte izugarriak eragiten ari direla: esplotazio- eta abusu-egoerak lantokietan, eta heriotzak itsasoan eta basamortuetan. Munduan aberastasun

314 The Migrant Sex Workers Project, (d.g., 2018ko ekainaren 28an kontsultatua) «Report on Migrant Sex Workers Justice and the Trouble with “Anti-Trafficking”: Research, Activism, Art», txostena hemen eskura daiteke: migrantsexworkers.com.

gehien duten pertsona gutxi batzuren ondasuna, behar bezala birbanatuz gero, aski litzateke segurtasunez eta duintasunez bizi daitezen bidaiatzea behar duten pertsona guztiak –eta behar ez duten guztiak-. Bitartean, guztiok immigrazioaren aurkako polizia-kontrolaren aurka borrokatu behar ginateke, zeinak familiak eta komunitateak bereizi eta jendea atxilotze-zentroetan giltzartzen baitu zenbait urtez.

Prostituta migratzailea defendatzea migratzaile guztiak defendatzea da: migratzaile estigmatizatuaren arketipoa da. Muga-
gak geure burua haiengandik babesteko *asmatu* ziren. Ez dago migratzailearekiko elkartasunik prostitutenganako elkartasunik gabe, eta ez dago prostitutenganako elkartasunik migratzaileen-
ganako elkartasunik gabe. Bi borroka horiek elkarri lotuta daude, eta ezin dira bereizi.

LAU

ARRASTO VIKTORIARRA: BRITAINIA HANDIA

Kriminalizazio partziala: Lege-eredua, sexu-industriaren alderdi batzuk –askotan ikusgarrienak, hala nola kaleko sexu-lana– kriminalizatzen dituena. Ingalaterran, Eskozian eta Galesen, legezkoa da sexua erosi eta saltzea, baina ia gainerako guztia legez kontrakoa da: adibidez, sexu-zerbitzuak eskaintzea eta bitlatzea, etxe edo lokal batean lagunekin lan egitea eta sexu-lana antolatzea.³¹⁵

2006ko Gabonak baino lehenagoko asteetan, Britainia Handiko Ipswich herri txikiko sexu-langileak bizia galtzeko beldur ziren. Aurreko astean bi sexu-langileren gorpuak aurkitu zituzten, eta hiltzailea aske zebilen oraindik. Kale isiletan, tokiko hedabide bateko langile batzuk emakume gazte batengana hurreratu ziren; Paula Clennell zen, ohiko lekuan eta bezeroen zain zegoen gutxietako bat. Galdetu zioten zer dela eta ari zen bere bizia arriskuan jartzen hiltzaile bat aske zebilen bitartean, eta honela erantzun zuen: «Lan egin behar dut. Dirua behar dut».³¹⁶

Paulak hogeitun urte inguru zituen, eta hiru haurren amazena. Denbora bat zeraman sexua saltzen. Haurrak kendu zituzten, eta depresioak jo zuen. Heroinarekiko eta kokainarekiko

315 Ipar Irlandan, sexua erostea legez kanpokoa da 2015. urteaz geroztik; 6. atalean («Jendearen etxea»), zabalago hitz egingo dugu horretaz. Sexu-lanari buruzko legea egiteko Suediako eredua erabili duten beste herrialde batzuetan gertatu izan denaren antzera, zehaztasunez esan dezakegu legea ezarri aurretik Ipar Irlandan ere «kriminalizazio partzialeko» sistemari jarraitzen ziotela. Praktikan, atal honetan azalduko dugunaren oso antzekoa da, gehigarri batekin: bezeroei ezarritako zigorrak.

316 Kevan, P. (2006ko abenduaren 12a) «“Dead” prostitute’s TV interview: I have to work, I need the money», *Metro*, metro.co.uk.

zuen menpekotasuna zuen, eta, 2006ko neguan, egunean 100 libera inguru behar zituen horri aurre egiteko.³¹⁷ Paularentzat, eta antzeko egoeran dauden beste askorentzat, sexua saltzea zen diru-kopuru hori lortzeko bide bakarra.³¹⁸ Lagun batek ordainpeko neska-lagunaren lana egitera animatu zuen, seguruagoa izango zelakoan –baita legezkoa ere, Britainia Handiko legearen arabera–, baina horrek antolakuntza-maila handia eta plangintza ekonomikoa eskatzen du, eta, bere egoeran, ez zen batere errealista. Kaleko lana legez kontrakoa zen, baina edozein unetan sexua saltzeko eta dirua berehala etxera eramateko aukera ematen zion. Ez zuen ez bikotekiderik ez managerrik, eta, beraz, ez zuen dirua inorekin partekatu behar.

Albistegietan agertu eta egun batzuetara, Paula desageratu egin zen. Gabonetarako, bere gorpua aurkitu zuten, beste lau emakumeren gorpuekin batera. Geroago, Steve Wright, herriko gizon bat, jo zuten bost erailketen egiletzat.³¹⁹

Bederatzi urte geroago, Daria Pionko-ren aurpegi irribarrertsua azaldu zen albisteetan. Dariak hogeita bat urte eskas zituen, eta Poloniatik Britainia Handira aldatua zen hamar hila-bete lehenago. Dariaren amak, Lidya-k, esan zuen bihotz oneko neska alaia zela eta beti hurkoari laguntzeko prest egoten zela.³²⁰ 2015eko Gabonak baino egun batzuk lehenago, Lewis Pierre izeneko gizon gazte batek heriotzaraino ostikatu zuen Daria, Leeds hiriko Holbeck barrutian, laurogei libera lapurtzeko. Dariaren gorpua bere pisukide eta lagun Karolinak aurkitu zuen, hura ere kaleko sexu-langilea.

Daria Holbeckeko «eremu kudeatuan» aritu izan zen lanean. Toki horretan, kalean jarduten duten sexu-langileak eta haien bezeroak atxilotuak izateko beldurrik gabe elkar daitezke;

317 Hil zen egunaren bezperan, 5-7 dosi heroina eta kokaina erosi zituen 15 liberan bakoitza, beraz, 75-105 bitartean ordaindu zituen. Bere bikotekide ohiak dioenez, batzuetan milaka libera behar izaten zituen astean drogak erosteko. Iklus Frith, M. (2006) «Victim 4: Paula Clennell: «It was the only way to fund her addiction» *Independent*, independent.co.uk. Parsons E, (2008) «Ipswich murders: Miss F tells of cocaine habit» *Daily Gazette*, gazette-news.co.uk.

318 Alleyne, R. (2006ko abenduaren 14a) «She was intelligent, pretty. But the drugs gave her a death wish», *The Telegraph*, telegraph.co.uk.

319 BBC (2008ko otsailaren 21a) «Wright guilty of Suffolk murders», *BBC News*, news.bbc.co.uk.

320 BBC (2016ko uztailaren 5a) «Daria Pionko death: Lewis Pierre jailed for murder», *BBC*, bbc.co.uk.

Britainia Handian, beste inon ez dago horrelako akordiorik. (Britainia Handiko toki gehienetan, bezeroen zain leku publikoetan egoten diren sexu-langileek auzipetuak izateko arriskua dute, «sexu-zerbitzuak eskaintzeaz» edo «prostituzioan jarduteko asmoz espaloian atzera-aurrera ibiltzeaz» akusatuta. Bezeroak ere auzipetu ditzakete, «sexu-zerbitzuak bilatzeaz» akusatuta).

Dariak Pierrekin batera alde egin zuen eremu kudeatutik, hala egin behar baitzuten: sexu-langileak atxilotuak izateko beldurrik gabe elkar daitezke bezeroekin Holbeckeko eremu horretan, baina debekatuta dago han sexu-harremanak izatea; eremu kudeatutik alde egin, eta kalezulo ilun bat edo basogune txiki bat aurkitu behar dute ezinbestean, egin beharrekoak isilpean egiteko. Hori egitean, sexu-langileak atxilotuak izateko arriskua dute. Eta, noski, erasoak izateko arriskua ere badute toki ezkutuan horietan. Zaintza-kamera batek bitan hartu zituen Lewis Pierren irudiak: lehenik, eremu kudeatutik oinez alde eginen, Dariarekin batera; gero, bera bakarrik, altzairuzko puntadun zapatetan odola zuela.³²¹

Istorio izugarri horien aurrean, erraz pentsa dezakegu soilik gizonezkoen basakeriarekin lotutako kontu bat dela, edo prostitutak erabili eta bazterrean uzteko erraztasunarekin.³²² Guri ere ezagun egiten zaizkigu gai horiek, eta ezagun egingo zaizkie, ziur aski, arrotz batekin autoan edo hoteleko gela batean sartu izan diren sexu-langile guztiei. Baldin eta gizonezkoen indarkeria jotzen badugu kontzeptu-esparru *bakar* gisa, eta hortik abiatuta ulertzen baditugu erailketa horiek, emakume ez-prostitutak –zeinak gizonezkoen indarkeriaren bizirauleak izan baitaitezke– enpatiarene eta diskurtsoaren bidez «barneratu» daitezke prostitutaren bizipenean. Enpatia horri ondo deritzogu, baina badu arrisku bat: zokoratu egiten ditu Paularen eta Dariaren bizitzen berariazotasunak eta prostituta guztien bizitzenak eta bizipenenak, eta, hala, «emakume oro» deritzon figuraren menpe jartzen ditu. Beth Richie-k dioen bezala, «emakume oro» biktima/biziraulearen kontzeptua 1970eko hamarkadan sortu zen, mugimendu feminista hasiberriaren keinu erreto-

321 Perraudin, F. (2016ko uztailaren 4a) «Man found guilty of murdering sex worker in Leeds», *Guardian*, theguardian.com.

322 Ditum, S. (2016ko urtarrilaren 13an) «The death of Daria Pionko shows there is no "safe" way to manage prostitution», *New Statesman*, newstatesman.com.

riko eta estrategiko gisa, gizonezkoen indarkeriaren epidemia arretagunean jartzeko.³²³ Baina, denborarekin, «besterik ezeko emakumearen» (hau da, besterik aipatu ezean adierazi nahi den emakume-motaren) gertuko zerbait bihurtu da, eta «besterik ezeko emakume» hori ez da, noski, droga-kontsumitzailea edo sexu-langilea. Ezta *estatu*-indarkeriaren biziraulea ere. Dariaren eta Paularen bizitzak errealtate zehatz batzuek itxuratu zituzten; besteak beste, kriminalizazioaren mehatxu etengabeak. Emakume gazte horiek arrazionalki jokatzeko ari ziren, hartzen zuten bidea hartzen zutela ere haiei kalte egiteko diseinatutako sistema batean.

Hedabideek ez dute aztertzen nola jartzen duen estatuak kolokan Daria eta Paularen antzeko emakumeen segurtasuna; aitzitik, haien auzokide atsekabetuen mundu-ikuskeraren berri eman ohi dute.³²⁴ Teknikoki, sexua saltzea ez da delitua Britainia Handian, baina horrek ez du esan nahi poliziak, auzokideek edo kazetariak gertukotzat hartzen dituztenik sexu-langileak edo haien erailketen aurrean atsekabetzen direnik. Sexu-langileekiko pertzepzio ulerkorrek erraz bazterten dira, sentipen krudelagoei leku egiteko. Wiltshire-ko poliziako Mike Veale arduradunak onartzen duenez, prostituta bat krimen baten berri emanez datorrenean, beste biktima batzuei baino sinesgarritasun gutxiago ematen dio. «Sei urteko neska bat etortzen bazaizu esanez baginan edo uzkian trauma bat duela, sinestu egiten diozu. Prostituta mozkor bat etortzen bazaizu zor gaizto bati buruzko kontuak esaten, beste modu batean epaitu behar duzu».³²⁵

Era horretako epaiak ez dira gutxi. Ipswicheko hilketak gertatu eta urte batzuetara, kazetari batek hau idatzi zuen:

323 Richie, B.E. (2012) *Arrested Justice: Black Women, Violence, and America's Prison Nation*, New York: NYU Press, 3. atala.

324 Ipswicheko biktima baten auzokideak gogoan du hilketak gertatu aurreko garaian berak sentitzen zuen estutasuna; biktima gisa aurkeztutako emakumeen irudi onbera bat ikusi zuen BBCren dokumental batean, eta, dioenez, «irudi hori ez dator bat nire oroitzapenekin. Gogoan dut aldizka pertsona etsi, larderiatsu eta askotan erasokorrek hurreraten zitzaizkidala nire etxerako bidean, ezetzik onartzen ez zutenak. Gogoan dut zer estutasun sentitzen nuen eskaintzen zidatenean "xurgaldi on bat, hoguei liberan" [...] Gogoan dut bost neska ikusi nituela "negozio bila" berrogeita hamar metro inguruko tarte batean». M. Brain eta G. Lawrence, «"Five Daughters" – messages for Neighbourhood Watch on street prostitution and drugs», *Propertibazar*, 2010, propertibazar.com.

325 Seaward, T. (2018ko urtarrilaren 16a) «Wiltshire Police's Mike Veale criticised over «drunken prostitute» comments», *Swindon Advertiser*, swindon.advertiser.co.uk.

«Ipswichen hildako neskek ez zuten –hizkera politikoki zuzen dontsu horretan esaten zaionez– “sexu-industrian” lan egiten; jonkiak ziren [...] Ordain dezakegu Ipswicheko nesken errehabilitazioa, eta beste leku guztietakoena? Zergak ordaintzen dituen herritar gisa, zera erantzungo nuke: “Tira, ba... galdera ona!”».³²⁶ Dirudienez, Ipswicheko hilketek, eta horren ondoren azaleratu ziren galderek, ankerkeria erretorikoaren alderdi bereziki bortitz bat plazaratu zuten, zeinak iradokitzen baitzuen lotura estua dagoela sexu-langileekiko gorrotoaren eta utzikeria sozialarekiko erruduntasun kolektiboaren artean. Beste kazetari batek adierazi zuen Ipswicheko bost emakumeak «kaleko puta drogazale eta nazkagarriak» zirela, eta berak gehiegizko irizten zion dolua apaltzen saiatu zen, honako hau idatziz: «Ez dira gure erantzukizuna ez haien existentzia zoritxarreko eta zikinak, ez eta haien hilketak ere. Ez da gizartearen errua [...] Norbaitek itoarazita hiltzea haien laneko arrisku bat da».³²⁷

Beraz, nor –edo zer– da erruduna? Zergatik Paulak eta bere lagunak ezin izan zuten hartu pisu bat bezeroekin txandaka erabiltzeko eta, hala, inoren autora igo eta herrigunetik alden du behar ez izateko? Zergatik ordaintzen zituen egunean 500 libera opiazeoetan, baldin eta osasun-zerbitzu publikoak ere gauza bera eman ahal bazion, segurtasun-berme guztiakin eta prezio horren zati baten truke? Zergatik zebilen ez aurrera ez atzera, bere trauma kaleko heroinaren bidez gainditu nahian, eta ez laguntza-zerbitzu jasangarriagoen bidez? Paulak bere seme-alaben ama maitekorra izan nahi zuen, baina, horretarako laguntza jaso beharrean, depresioaren menpe eta erabateko pobrezian utzi zuten. Dariaren kasuan ere, galdera mingarri berak azalera-tzen dira. Hura hil baino hilabete batzuk lehenago, Holbeckeko eremu kudeatua ebaluatu zuten, eta ohartu ziren «sexu-langileentzako unerik arriskutsuena eremu kudeatutik *kanpora* egiten zuten denbora zela».³²⁸ Dariaren eta Paularen moduko emakumeek hain gutxi behar dute –nolabaiteko segurtasuna eta funtsezko baliabideak, ez besterik–, ezen erraza baita irudika-

326 Woods, V. (2008ko otsailaren 23a) «Ipswich victims drug addicts, not “sex workers”», *The Telegraph*, telegraph.co.uk.

327 Littlejohn, R. (2006ko abenduaren 18a) «Spare us the “People’s Prostitute” routine», *Daily Mail*, dailymail.co.uk.

328 Sanders, T. eta Sehmbi, V. (2015) «Evaluation of the Leeds Street Sex Working Managed Area», University of Leeds, txostena hemen eskuratu daiteke: nswp.org.

tzea nola erantzun diezaiekeen gizarteak behar horiei. Eta, hala ere, *horrenbeste* behar zuten, non haien segurtasunari seriotasunez heltzen dion gizarte bat imajinatu ahal izateko ezinbestekoa baita sakonki eraldatutako gizarte bat irudikatzea.

Behe-mailako klasea, goi-mailako klasea

Britainia Handian beste gauza askorekin gertatzen den bezala –besteak beste, immigrazioa eta droga-kontsumoa–, klaseak rol garrantzitsua jokatzen du sexu-lanaren agerpenean eta estratifikazioan. Prostituzioari buruzko legea klase-egitura arkaikoen emaitza da, eta, era berean, klase-sistema horren mikrokosmos bat eratzen du sexu-industriaren mugen barruan, non balioek –ohoreak, jokamolde egokiak, duintasunak, diskrezioak– beste itxura bat hartzen duten, sexu komertzialaren mundura egokitzeke.³²⁹ Legea saiatzten da zehazten zer den eta zer ez den errespetagarria sexu-merkataritzaren espektro zabalean –esate batera, auto aparkatu baten kontra kondoirik gabe zurrupadak egitea, edo adinez nagusiagoa den bezero finko bat edukitzea, zeinak sexu-langilearen unibertsitate-matrikula ordaintzen baitu, sexu-zerbitzuen truke–, eta, aldi berean, badirudi nolabaiteko salbuespentzat jotzen dituela diskretuak eta ikusezinak diren jardunak.

Teknikoki, Britainia Handian sexua saldu eta legearekin arazorik ez izateko modu bakarra da bakarrik eta etxe barruan lan egitea (eta, migratzaileen kasuan, dagozkion agiriekin). Gutxi gorabehera baldintza horiek betetzen dituzten langileei «elitekoa», «goi-klasekoa» eta antzeko etiketak jartzen zaizkie maiz, eta termino horiek adierazten dute zer posizio duen sexu-langileak sexu-lanaren barruan egiten den klasearen araberrako geruzapenean; nolana ere, esamolde horiek batez ere iragarrietarako hitz gakoak dira, eta askotan ez dute ikustekorik izaten langilearen benetako klase sozioekonomikoarekin.³³⁰

329 Agustín, L.M. (2007) *Sex at the Margins: Migration, Labour Markets and the Rescue Industry*, Londres: Zed Books, 4. atala.

330 «Hori da jendeak uste duena, [sexu-langile Beltzak garenez] ez dugula balio bera. Uste dut hori lotuta dagoela [...] beste uste horiekin, Beltz jendea "ghettoa" dela eta horrelakoak. Horregatik, neure burua iragartzeko –eta beste batzuek ere gauza bera egiten dute–, hezkuntza-maila handia dudala azpimarratzen dut, hitz egiten ditudan hizkuntzak aipatzen ditut, eta ia-ia nire belztasunari uko egiten diot... horrek esan nahi baitzuen ez nintzela nire lankideak bezain "goi-klasekoa"». Amber Ashton, A. Tierney-k

Toki agerikoagoetan, hala nola kaleetan edo argi gorri ikusgarriko aretoetan, sexu-langileak gehiagotan jotzen dira «behe-mailako klasekotzat», immoraltzat edo, besterik gabe, gogaikarritzat. Bestalde, toki horietako sexu-langileak gehiago biktimizatu eta esplotatzen direla iruditzen zaigu, eta horrek arrazoi on bat ematen die agintariei poliziak are neurri zorrotza-goak ezartzeko. Kalean sexu-zerbitzuak eskaintzea edo bilatzea, sexu-langileak antolatzea edo taldean lan egitea –are bikoteka–... hori guztia legez kanpoko da, baita norbaiti sexu-lanerako bidea «erraztea» edo jendea sexu-lanera «akuilatzea» ere. Lege horiek urratzen dituzten sexu-langileak gizarte britainiarraren ehunaren mantxa lotsagarritzat jotzen dira; zama izugarri eta biziki ikusgarri bat dira begiratzen dieten guztientzat. Adibide esanguratsu bat jarriko dugu: Holbeckeko eremu kudeatua itxi nahi duen auzokide-talde baten izena Save Our Eyes [Salba ditzagun gure begiak] da, eta askoz gehiago arduratzen dira toki publikoetan arropa gutxiarekin agertzen diren emakumeak larrutzeaz emakume horiek jasan ditzaketan erasoz baino.³³¹

Bizilagun sutuek ez badute lortzen poliziak sexu-langileen aurkako operazioak egitea komunitatea «garbitzeko», batzuetan auzo-zaintzaileen indarkeriara jotzen dute. 1990eko hamarkadaren erdialdean, Birmingham hiriko Balsall Heath barrutiko bizilagunak kaleko sexu-lanaren aurka antolatu ziren, eta sexu-langileak jazarri eta fisikoki mehatxatu zituzten, beisboleko bateak eta txakurrak erabiliz, besteak beste; leihoak hautsi zituzten; eta berei aurre egin zien sexu-langile bat komunitatearen bilera batetik alde egitera behartu zuten.³³² Auzo-zaintzaileek petardoak piztu zituzten, eta sexu-langile baten postontzian sartu, eta haren etxe barrura tiro egin zuten aire konprimatuko eskopeta batekin.³³³

Kalean jarduten duten sexu-langileek beren bizkarrean jasaten dute jendearen haserrea; eta, halere, Britainia Handian sexu-lan gehiena etxe barruan egiten da, langilearen edo beze-

aipatua, «What Happens When Sex Workers Put Women of Color First», *Vice*, 2018ko urtarrilaren 12a, vice.com.

331 Yorkshire Evening Post (2017ko abuztuaren 22a) «Sex in the city: Leeds residents on life near "legal" red light zone», *Yorkshire Evening Post*, yorkshireeveningpost.co.uk.

332 Kinnell, H. (2008) *Violence and sex work in Britain*, Cullompton: Willan Publishing.

333 Cohen, N. (2000ko apirilaren 3a) «When self-help is not enough», *New Statesman*, newstatesman.com.

roaren pisuan, edo aldi baterako alokatutako apartamentu eta hoteletan. Baina ia ezinezkoa da legearen mugen arabera jokatzeari; izan ere, legea oso zabala da, eta, sexu-eginkizun zehatzetik harago, ia-ia prostituzioak berekin dakarren guztia hartzen du. Norbait «akuilatzeari» ez du esan nahi indarra erabiltzea; izan daiteke, besterik gabe, norbaiti zure babesa adieraztea edo aholku ematea hura sexu-lanean hasi aurretik.³³⁴ 2013an, polizia Londreseko Soho auzoko pisuak ixten saiatu zen; orduko hartan, hauxe ere jo zuten «akuilutzat»: pisuan lan egiteko eskaera egin duen bati telefonoz deitzea, lanean hasteko aukeraz berba egiteko.³³⁵ Sexu-langile batek bigarren batengana jo eta elkarrekin trio batean parte hartzeko gestioak egitea ere «akuilatzeari» izan daiteke. Etxe bat «burdela» izateko, nahikoa da prostituta batek baino gehiagok hor lan egitea, nahiz eta ordu desberdinetan jardun eta sekula gurutzatu ez.³³⁶ Arau horiekiko eta haien ondorioekiko (batez ere, etxegabetzea eta haurren zaintza galtzea) beldur etengabeak eragin diziplinario prebentiboa du sexu-industriaren eremu zabalean sexua saltzen duten pertsona ororen gain. Arriskua onartu eta arauari men egin behar diete, edo, ezinezkoa bazaie legea betetzea, guztiz detektaezinak izan behar dute beren jardunetan.

Horrelako lege konplexu eta zaharkituekin, nahasmena ohikoa da sexu-langileen artean. Agintariek kontrol polizialerako erabiltzen dituzten mekanismo ilunen ondorioz, askok pentsatzen dute –ezagutza zehatzik ez eta–, besterik gabe, egiten ari direna legez kanpokoa dela, nolabait. Kriminal gisa tratatuko dituzten susmo horrek nabarmen eragiten dio haien giza eskubideekiko eta lan-eskubideekiko duten pertzepzioari. Ia ezinezko bihurtzen du lantokian eskubide horiek erabiltzea, eta horrek gutxiagotu egiten du bezero, enplegatzaile, polizia eta erasotzaile biolentoen abusuei aurre egiteko duten gaitasuna. Niki Adams ekintzaileak gaizkile-talde biolento batzuek Londreseko bur-

334 2003ko Delitu Sexualean Legea 2003, s. 52(1), hemen eskuratu daiteke: legislation.gov.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua; English Collective of Prostitutes «Prostitution: What you need to know», hemen eskuratu daiteke: prostitutescollective.net, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua; Sexual Offences Act 2003, azalpen-oharra 52. atalean, hemen eskuratu daiteke: legislation.gov.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

335 Honen lekuko izan ginen epaitegian.

336 Crown Prosecution Service, «Prostitution and Exploitation of Prostitution», hemen eskuratu daiteke: cps.gov.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

deletan indarkeriaz egindako lapurretei buruz hitz egin zuen, eta hau zioen: «[...] gertaeretan, emakumeak eraso dituzte, eta erasotzaileek haiei esan diete, latsa-izpirik gabe, badakitela ez direla ausartuko poliziarengana joaten».³³⁷

Konfiantza eta segurtasuna arriskuan jartzeaz gain, egoera horrek isiltasunez jositako kultura bat sortzen du. Sexu-langile gutxi batzuk baino ez daude prestatuta urrats bat aurrera egin eta espazio politikoetan hitz egiteko, ikusgarritasunaren ondorioak ikaragarriak izan daitezkeelako. Egiten duten gutxiak –liburu honen bi autoreak, kasu– baztertu egiten dira, uste baita pribilegiatuak direla, ez dutela inor ordezkatzeko edo «goi-klaseko» salbuespenak direla, baina sexu-lanaren barruko egitura horiek gutxitan aztertzen dira behar bezala maila materialean.³³⁸ Sexu-lanaren politikari dagokionez, oro har zuzena da esatea batez ere metropoliko hirietan bizi diren sexu-langileei ematen zaiela plataforma orokor garrantzitsuetan azaldu eta jendaurrean hitz egiteko aukera, eta sexu-langile horiek dira, hain zuzen ere, tarifarik garestienak kobratzen dituztenak, baliabide gehiago dauzkatenak eta kriminalizazioa gutxien pairatzen dutenak; halere, akats nabarmena litzateke azterketa hori bere horretan uztea. *Zergatik* entzuten dituzu pertsona horien ahotsak bakarrik? Zer egiturek isilarazten dituzte gainerako ahotsak?³³⁹ Sexu-langile gehienek isiltasuna, prekaritatea eta zaugarritasuna sortzen duten mekanismoak ez dira berezkoak edo gizartearentzat funtsezkoak, klase-sistema berezkoa ez den gisa berean. Sexu-langile feministok irriño mingots batekin jarraitzen ditugu diskurtsoaren «kontrolari» buruzko eztabaida feministak: sexu-langileentzat, kontrola ez da metafora huts bat.

Sexu-langile drogazaleen aurkako gerra

2005ean Steve Wrightek Ipswichen hildako bost emakumeak –Paula, Anneli, Gemma, Tania eta Annette– droga-kontsumitzaileak ziren eta harekiko menpekotasuna zuten.³⁴⁰

337 Bowcott, O. (2012ko urtarrilaren 16a) «Call for change in law to protect prostitutes from violent crime», *The Guardian*, theguardian.com.

338 Smith, M. (2012ko ekainaren 13a) «Educating Rhoda», *A Glasgow Sex Worker*, glasgowsexworker.wordpress.com.

339 Mullin, F. (2017) «In Full Sight: «The pimp lobby» at the Amnesty AGM».

340 Addley, E. (2008ko otsailaren 21a) «Steve Wright's victims», *The Guardian*, theguardian.com.

Xehetasun hori behin eta berriro atera zuten hedabideetan hurrengo hamarkadan, eta merezi du aipatzea, baina ez horrek aukera ematen digulako errua «jonkiei» egozteko edo haien heriotzak arduragabekeriaren edo autosuntsiketarako joera baten emaitza saihestezin eta aldaezintzat jotzeko. Drogek, eta legeak nola itxuratzen dituen haiek kontsumitzen dituzten pertsonen bizitzak, berebiziko garrantzia dute aztertzeko zergatik ziharduten kalean lanean emakume horiek eta zergatik eraso zieziaiekeen erraz Wrightek. Drogen aurkako gerra amaitzeak zerikusi handia du sexu-langileen eskubideekin.

Britainia Handian, sexu-langile kriminalizatuen gehiengo esanguratsu batek (batez ere, kalean lan egiten dutenek) droga-menpekotasunarekin lotutako bizipenak izan ditu.³⁴¹ Bi egoera horien arteko loturarik esanguratsuena dirua da. Drogak garestiak izan daitezke: askorentzat, sexua saltzea da beharrezko dituen drogak eskuratzeko modu bakarra, eta egin beharreko lanaren zenbatekoa drogekiko menpekotasun-mailaren araberrakoa izaten da.³⁴²

Drogak kontsumitzen dituzten sexu-langileek bai drogen bai prostituzioaren bidezko kriminalizazioa jasan dezakete, eta politika eta ondorio horiek antzera azaleratzen dira. Drogak kriminalizatzeak poliziaren arreta erakartzeko eta aurrekari penal batekin amaitzeko arriskua areagotzen du, eta, gainera, drogak legez kontrako eta, beraz, arriskutsu bihurtzen ditu. Sexu-zerbitzuak eskaintzea debekatzen duten legeekin gertatzen den bezala, espazio publikoetan droga kontsumitzen ari diren pertsonak atxilotzeko edo sakabanatzeko agintzen duten legeek jokabide klandestinoagoak bultzatzen dituzte, eta horrek droga-kontsumo arriskutsuagoa ekar dezake; bereziki, injekzio-metodo azkarragoak eta arriskutsuagoak.³⁴³ Tokiko buruak atxilotuz gero

341 Bristoleko kaleko sexu-langileen artean egindako galdeketa baten arabera, % 96k drogekiko edo alkoholarekiko menpekotasuna zuela adierazi zuen, eta horietako % 60k adierazi zuen injekzio bidez kontsumitzen zituela drogak. Droga ilegal kontsumituenak heroína eta cracka ziren. Ikus N. Jeal eta C. Salisbury, «A health needs assessment of street-based prostitutes: cross-sectional survey», *Journal of Public Health* 26:2 (2004), 147–51.

342 Jeal eta Salisbury (*op.cit.*); Smith, F.M. eta Marshall L.A. (2007) «Barriers to effective drug addiction treatment for women involved in street-level prostitution: A qualitative investigation», *Criminal Behaviour and Mental Health*, 17(3): 163–170.

343 Drogak kontsumitzen dituzten pertsonak sarritan kriminalizatzen direnez, poliziak drogak kontsumitzeko trepetak –hala nola xiringak eta orratzak– erabil ditzake droga-

(askotan, haiek ere izaten dira droga-kontsumitzaileak), jendeak iturri ezezagunetara jotzen du drogak erostera, eta, beraz, zaila-
goa da informazio egokia izatea trukerako baldintzak ezartzeko. Itxura txarreko bezero bati zerbitzua emateko arriskua hartzea, diru faltan zaudelako, loterian jokatzeta da; eta loteria da, baita ere, gaizki etiketatuta edo beste substantzia batzuekin nahastuta egon daitekeen substantzia debekatu bat kontsumitzea, edo eragin ezezaguneko substantzia bat. Bi egoeretan, gabeziak –diruarenak edo droga seguruagoenak– arriskua hartzera bultzatzen du jendea, eta zenbat eta handiagoa izan gabezia, hainbat eta handiagoa izango da arriskua hartzeko prestasuna. Abstinentzia-sindromea –edo pobrezia– saihesteko nahiak ikaragarri aldatzen du jendearen jokabidea.

Drogak kontsumitzen dituzten pertsoneri ere –sexu-langileei bezala– poliziak segurtasun-neurriak suntsitzen dizkiete.³⁴⁴ Drogaren eraginpean dauden bitartean elkar zaintzen duten pertsona-taldeek atxilotuak izateko arriskua dute, baita norberaren tresna garbi eta esterilizatuak daramatzatenek ere. Bai sexu-langileek bai droga-kontsumitzaileek diskriminazioa pairatzen dute hedabideetan, auzitegietan, osasun-arretan, gizarte-zerbitzuetan eta enplegu formaletan; diskriminazio bikoitza, gainera, bi kategoriatan daudenentzat.³⁴⁵ Droga kontsumitzen duten sexu-langileek indarkeria jasateko arrisku handia dute, bi arrazorengatik atxilotuak izateko beldurra dutelako; hala erakusten du Bonnie Barratt-en kasu zorigaiztokoak, zeina Londresen hil baitzuten, 2007an. Bonniek eta bere lankideek se-

kontsumoaren froga gisa, eta, era berean, trepetak horiek konfiskatu edo/eta suntsi ditzake. Horrek drogen kontsumo seguruagoa eta higienikoagoa galarazten du, eta injekzio esterilaren trepetak ez eramatera bultzatzen ditu droga-kontsumitzaileak. Horrek handitu egiten du azkar injektatzeko eta orratza partekatzeko aukera, eta horrek, aldi berean, gaindosi-arriskua handitzen du eta odol-transmisioko infekzioak (GIBa eta hepatitis) prebenitzeko ahalgintza oztopatzen ditu. Droga-kontsumitzaileen Nazioarteko Sarea, «Consensus Statement on Drug Use Under Prohibition – Human Rights, Health, and the Law», 2015, 18.

344 Edinburgoko poliziak droga injektatzeko trepetak konfiskatu zituen 1980ko hamarkadako sarakadetan; hala, droga-kontsumitzaileen komunitateek orratz-kopuru txikiagoa izaten zuten, eta jendeak orratzak partekatu behar izaten zuten, bestela beharbada horrela jokatuko ez bazuten ere. Halandaze, HIESaren krisiak indar handiz erasan zion hiriko droga-kontsumitzaileen populazioari, eta Edinburgori «HIESaren Europako hiriburua» deitu zioten. Ehunka pertsona hil ziren. Ikus L. Hunt, «Aids taking heavy toll of city's drug users: Edinburgh feels impact of HIV», *Independent*, 1994ko abuztuaren 5a, independent.co.uk.

345 INPUD (*op.cit.*), 19–21.

xua saldu eta drogak kontsumitzen zituzten. Bonnie hil aurretik, ohartu ziren bezero jakin bat gero eta zakarragoa eta biolentagoa bilakatzen ari zela; halere, ez ziren gai izan hura salatzeke edo laguntza eskatzeko. Arrazoi on bat zeukaten horretarako: hil aurretik, Bonnie hogeita hamar alditan baino gehiagotan atxilotu zuten.³⁴⁶

Politikariek ahaztuak dituzte gizarteko bi talde horiek; baita aurrerakoieneke ere, zeinak gutxitan egoten baitira dena emateko prest drogari eta sexu-lanari buruzko legeak aldatzeko eta, hala, drogak kontsumitzen dituzten edo sexua saltzen duten haien alde egiteko. Hedabideetako eta sare sozialetako iritzi-emaeleek drogen eta sexu-lanaren gaiei heltzen dietenean, errazagoa da proxeneta eta trafikatzaille doilorren irudietara jotzea (are hobeto: bota errua sexu zitalari eta heroina gaiztoari!), ezen ez prostituzioaren eta droga-kontsumoaren egiturazko testuinguruari begiratzea. Testuinguru horiek aztertuz gero, azaldu behar litzateke zer dela-eta huts egiten dieten gobernuek –ez gizabanako gaizkileek– gizartean ahulenetakoak diren bi talde horiei. Lehenago esan bezala, drogak kontsumitzen dituen jende askok drogak ordaintzeko saltzen ditu sexu-zerbitzuak. Bestalde, sexu-langile askok ezinbestekoa dute droga kontsumitzea lanak eragiten duen trauma gainditzeko, eta lan hori, askotan, kriminalizazioak berak larriagotzen du. Sexu-lanaren eta droga-kontsumoaren arteko noranzko bikoitzeko lotura hori aztertuz gero, ohartuko gara drogak kontsumitzen eta sexua saltzen duten pertsonak funtsean beren inguruneari erantzuten dioten pertsona arrazional eta logikoak direla.

Ikuspegi hori erronka bat da askorentzat. (Hizkuntzak berak ere ikuspegi horretatik aldentzen gaitu. Pertsona arrazionalak «drogak ez erabiltzeari» keinu egiten dioten hitzekin deskribatzen dira askotan: *neurritsua*, *buru-argia*). Baina *behar-beharrezkoa* da drogak kontsumitzen dituzten sexu-langileak zorigaiztoko egoera batean bizirauteko ahalegin betean ari diren pertsona gisa ikustea. Hala, jendeak ez ditu ikusiko akastun edo galtzaille gisa, baizik eta gizarteak bidean jarri dizkien oztopoak gainditzen saiatzen ari diren pertsonak bezala. Lagungarria da

346 Dugan. E (2014ko urtarrilaren 31) «Jack the Ripper copycat murders spark call for sex worker protection», *The Independent*, independent.co.uk.

orobat haien segurtasuna handituko luketen hobekuntza txikiak identifikatzea, hala nola droga injektatzeko toki seguruak, orratz garbiak, argi gorriko eremu seguruak, etxebizitza eskuragarriak eta pobrezia-amaiera.³⁴⁷ Neurri drastikoagoak ere har daitezke: opiazeoak errezetatuz gero, jendeak ez lituzke horrenbeste ordu igaroko kalean drogak erosi ahal izateko; aitzitik, osasun-arretarekin eta beste zerbitzu batzuekin harremanetan egongo lirateke, eta, hala, drogak segurtasunez kontsumitzeko ezagutza eta baliabideak eskuratuko lituzkete.³⁴⁸

Batzuentzat, kalteak murrizteko bide horiek -jendeari heroina eta orratzak ematea eta gauza horiek erabiltzeko tokiak eskaintzea- harrigarriak izan daitezke, baina ba ote zerbait harrigarriagorik alferreko heriotzak baino? Britainia Handian, sexu-langileak eta droga-kontsumitzaileak hiltzen ari dira astero, alferrekoa izaten ari den drogen aurkako gerra batean. 2018. urtearen hasieran, Eskoziako Dundee hiri txikian hamabi pertsona hil ziren hilabete bakarrean, kontsumitzen ari ziren drogak ez zirelako seguruak.³⁴⁹ Britainia Handian, drogei buruzko gaur eguneko politika «gizarte-garbiketatzat» har daiteke.

Drogari buruzko debatea eta sexu-lanari buruzkoa injustizia berak blaitzen ditu. Droga-kontsumo guztiak izugarritzat jotzen badira, kalteak eragiten dituzten drogen eta jasangarriagoak direnen arteko desberdintasunak parekatu egiten dira, ia ikusezin bihurtu, edo, are, alderantzikatu. Britainia Handiko legea zorrotzagoa da parkean kalamua erretzen dutenekin kola esnifatzan dutenekin baino, nahiz eta bigarrena askoz arriskutsuagoa den. Bi taldeentzat, hobe litzateke kalamua legalki erosi ahal izatea. *Spice* izeneko droga kanabinnoide sintetiko bat da, kalamu naturala baino askoz adiktiboagoa eta askoz arriskutsuagoa; kalamuak ez bezala, *spice*ak kalte larriak eragin ditzake

347 Guk dakigunaren arabera, munduko ezein lekutan ez da gertatu droga injektatzeko toki gainbegiratuetan inor gaindosiagatik hiltzea; datu hori hainbat hamarkadari dagokio, laurogeita hamar instalaziori baino gehiagori eta milioika opio-injektziori. P. Gregoire, «Why Does Australia Still Have Only One Supervised Injecting Room?» *Vice*, 2016ko urtarrilaren 26a, vice.com.

348 Lopez, G. (2017ko ekainaren 12a) «The case for prescription heroin», *Vox, vox.com*; Strang, J. et al. (2015) «Heroin on trial: Systematic review and meta-analysis of randomised trials of diamorphine-prescribing as treatment for refractory heroin addiction», *The British Journal of Psychiatry*, 207(1): 5–14.

349 Evening Telegraph (2018ko otsailaren 20a) «Dundee's drug epidemic laid bare to nation on Channel 4 News», eveningtelegraph.co.uk.

gorputzean, baita heriotza ere. Kalamua legez kanpokoa denez, *spicea* asko hedatu da. Droga sintetiko horren sortzaileek legearen aldi bateko hutsunea aprobetxatu zuten; izan ere, konposatu berrien asmatzaileak legea baino azkarrago mugitzen dira. Drogak kriminalizatzeko estrategia antzuak substantzia gero eta arriskutsuagoekin esperimentatzera bultzatzen du jendea (bai erosleak, bai saltzaileak), legearen aurretxotik joateko.

Drogak kontsumitzen dituzten sexu-langile prekarioak iraindu eta zigortu egiten dira, eta erdi- eta goi-mailako klaseetakoek, berriz, kokaina, estasia, kalamua, ketamina eta LSD kontsumitzen dute maiztasunez.³⁵⁰ Bereziki etsigarria da ohartzea erdiko klaseko droga-kontsumitzaileek ez dutela marjinatuago dauden haiekiko elkartasunik erakusten, kontuan hartuta drogaren debekuak droga-kontsumitzaile guztiei eragiten diela (neurri batean edo bestean), haien klasea edozein dela ere.³⁵¹ Beharbada noizbait iruzur egin dizute «belar»-poltsa batekin, batez ere belar txarrak baino ez zituena, edo zitzada bat sentitu duzu sabelean zure lagunak pilula bat ahoratu duenean –biok espero duzue estasia izatea!–. Beharbada zure kidea ondoezik egon da kokainaz hautseztatutako gau baten ondoren, hartutako droga substantzia merkeagoren batekin nahastuta zegoelako. Han eta hemen, munduko toki guztietan, kriminalizazioak eragotzi egiten du droga-kontsumitzaileek segurtasunez jokatzeko.

Esaten da belarra, pilulak eta kokaina ez direla heroina, cracka eta metanfetamina «bezain txarrak», baina *drogak kontsumitzen dituzten pertsonen* jartzen zaizkie «on» eta «txar» etiketak, ez drogei. Droga-debekuaren historiak erakutsi digu substantzia baten alde egiten duten «pertsona problematikoek» bihurtzen dutela substantzia «problematiko», ez alderantziz.³⁵² Erraza da droga bat deabrutzea, batez ere deabrututako pertsonekin lotzen denean, eta nahiz eta Britainia Handiko pertsona Beltzek zuriek baino askoz proportzio txikiagoan kontsumitzen dituzten dro-

350 Mann, J. (2014ko urriaren 5a) «British drugs survey 2014: Drug use is rising in the UK – but we're not addicted», *The Guardian*, theguardian.co.uk.

351 Eastwood, N., Shiner, M. eta Bear, D. (2013) «The Numbers in Black And White: Ethnic Disparities In The Policing And Prosecution Of Drug Offences In England And Wales», *Release*, hemen eskuratu daiteke: release.org.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

352 Block, J. F. (2013ko martxoaren 1a) «Racism's Hidden History in the War on Drugs», *Huffington Post*, huffingtonpost.com.

gak, askoz proportzio handiagoan miatzen dituzte poliziek, eta, drogak dauzkatela aurkitzen badute, auzitegietan ere zorrotzago zigortzen dituzte,³⁵³

Droga kontsumitzen duen herritar «normatiboaren» eta prostitutaren arteko desberdintasun nabarmenenak baten eta bestearen egoerarekin eta beharrekin du zerikusia: droga «gogor-rrak» olgeta-drogak baino askoz eraginkorragoak dira bizitza zail bati aurre egiteko, eta, askotan, errezetarekin erosi beharreko medikamentuak baino errazago eskura daitezke. Bestalde, desberdinak dira batek eta besteak jasaten duten kontrol polizial eta soziala. Nor da xedea? Nor kriminaliza daiteke? Nork merezi du, gure ustez, bizitza on bat? Nori uzten zaio loratzen eta aurrera egiten?

Kaleko lana

2000ko hamarkadaren hasieran, Britainia Handian gogortu egin zuten kaleko sexu-lanaren kriminalizazioa. Lehenengo Laborismo Berriak eta gero gobernu kontserbadoreek arazoari heltzeko metodo punitiboak sortu eta mantendu zituzten; denetan ezagunena Portaera Antisozialaren Agindua [*Anti-Social Behaviour Order (ASBO)*] izan zen, baita haren ondorengoak ere.³⁵⁴ (2014an, koalizio-gobernuak ezeztatu egin zuen ASBO agindua, baina antzeko beste agindu batzuk onartu zituen, «portae-
ra antisozialari» aurre egiteko; horien artean, hauek: Krimena Prebenitzeari buruzko Manamendua [*Crime Prevention Injunction (CPI)*], Portaera Kriminalari buruzko Agindua [*Criminal Behaviour Order (CBO)*], Komunitatea Babesteko Jakinarazpena [*Community Protection Notice (CPN)*], sakabanatze-aginduak eta «hogeita hamabosgarren atala». Irakurlea akronimoekin ez nahasteko, arau guztiak «ASBO» siglaren aterkipean sartu ditugu, oraindik ere horrela erabili ohi baita).

ASBO orokorra eta lausoa da, *berariaz*: bere barnean hartzen ditu zarata, legez kontrako isurpenak, jendaurreko droga-kontsumoa, grafitiak, jazarpena... eta kaleko sexu-lana. ASBO

353 Eastwood, N., Shiner, M. eta Bear, D. (2013) op. cit; Halperin, A. (2018ko urtarrilaren 29a) «Marijuana: Is it time to stop using a word with racist roots?», *The Guardian*, theguardian.com.

354 Release (2017) «Sex Workers and the Law», hemen eskuratu daiteke: release.org.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

agindu bat onartzen denean, legez kontrako bihurtzen du halako agindurik gabe portaera ez-kriminala izango litzatekeena. Adibidez, norbaitek eremu zehatz batean egoteko debekua jaso dezake ASBO agindu baten bidez; toki horretara itzuli eta ASBO agindua urratzen badu, kartzelara joan daiteke, bost urtera arteko zigorra jasota, nahiz eta sexu-zerbitzuak eskaintzeagatik kartzelatzea 1982an ezeztatu zuten Ingalaterran eta Galesen.³⁵⁵ Emakumeen ongintzarako erakunde batek elkarrizketa sakonak egin zizkien kalean lan egiten zuten edo kalean lan eginak ziren hamabost emakumeri, eta ohartu zen haietako zortzik kartzela-zigorra jaso zituztela –aste batzuetatik sei hilabetera bitartekoak–, isunak ez ordaintzeagatik edo ASBO aginduak urratzeagatik.³⁵⁶ Ingalaterrako Prostituten Kolektiboko Cari Mitchell-el esan bezala, «Hain zuzen ere, ASBO aginduen ondorioz berriz gerta daiteke kartzelan amaitzea berez kartzela-zigorrik ez dakarren delitu batengatik».³⁵⁷

Azken urteetan, egoerak txarrera egin du: 2009ko Polizia-gintzari eta Krimenari buruzko Legearekin, orain errazagoa da kalean jarduten duten sexu-langileak auzipetzea, delitu berri bat sortu baita: «Etengabe atzera-aurrera ibiltzea, prostituzioa helburu».³⁵⁸ (Opari ederra egin zigun Britainia Handiko lehen barne-ministro emakumezkoak, zeinak feministatzat baitauka bere burua)³⁵⁹ 2013an, berriz, koalizio-gobernuak nahitaezko errehabilitazio-aldi bat ezarri zuen kartzela-zigor laburrak bete berri zituztenentzat. Nia izeneko erakundeak emakumeen ongintza-aren alorrean dihardu, eta honela dio:

355 Halere, 1982. urtearen ondoren ere, kalean jarduten zuten sexu-langileak kartzelara bidaltzen zituzten sexu-zerbitzuak eskaintzeagatik jartzen zizkieten isunak ordaintzen ez bazituzten. 1980ko hamarkadaren amaieran, ikertzaile batzuek 213 kaleko sexu-langile elkarrizketatu zituzten Birminghamen; % 90 auzipetuak izan ziren edo poliziaren ohartarazpena jaso zuten azken hamabi hilabeteetan sexu-zerbitzuak eskaintzeagatik, eta % 45 hogeai aldiz baino gehiagotan auzipetu zituzten. Ikus Kinnell, H. (2008) «*Violence and sex work in Britain*», Cullompton: Willan Publishing. 96.

356 NIA (2017) «"I'm no criminal": Examining the impact of prostitution-specific criminal records on women seeking to exit prostitution», NIA, txostena hemen eskuratu daiteke: niaendingviolence.org.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

357 Smith, L. (2005ko maiatzaren 25a) «Asbos "are bringing back jail for prostitutes"», *The Guardian*, theguardian.com.

358 2009ko Legea, 16. atala. Txostena hemen eskuratu daiteke: legislation.gov.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

359 Fawcett Society (2006ko azaroaren 22a) «Theresa May in her Fawcett "This is what a feminist looks like" t-shirt», *Flickr*, flickr.com.

Gainbegiratze-aldiak [hau da, nahitaezko errehabilitazioak] balio zezakeen emakumeak haiei zuzendutako zerbitzuetara bideratzeko, nahiz eta eztabaidagarria den zerbitzu horien artean prostituziotik irteteko zerbitzu espezializatuak ere eskaini behar ote diren. Halere, bada hori baino kezkarriagoa den beste arrisku bat: neurri horiekin, gainbegiratze-aldian dagoen emakume batek baldintza batzuk urratzen baditu, edo berriz erortzen bada, are gehiago korapila daiteke justizia penalaren sistemaren.³⁶⁰

Bestela esanda, emakumezko sexu-langile batek kartzela-zigorra jaso dezake berari ezarritako ASBO aginduaren baldintzak urratzeagatik, eta gero, askatu ondoren, *berriz ere kartzela-zigorra jaso*, «askatu ondorengo gainbegiratzearen» baldintzak urratzeagatik. Ongi etorri XXI. mendera!

ASBO aginduak onartzen hasi zirenetik aurrera, erdi-mai-lako klaseak beste jarrera bat hartu zuen jende txiroarenganako sentitzen zuen gaitzespenari zegokionez. Agindu berri horiek langile-klasea zigortu eta jazartzeko bide berri bat ireki zuten, eta, horretaz gain, denbora-pasa nazional bihurtu zuten «jonkiei, putei eta behe-klaseko emakumeei» iseka egitea.³⁶¹ Akronimoa jendaurreko laidoaren sinonimo bihurtu da («Sexua diru-truke eskaintzen duen Asbo emakumeak kartzela saihestu du»),³⁶² eta ASBO aginduen mekanismo bidegabea oharkabea igarotzen da ikuskizun sentsazionalistaren argitan. Britainia Handiko he-dabide ugarik emakume baten argazkiak argitaratu zituzten; emakume horrek bezeroa haren etxean ikustatu zuen, eta, hori egitean, ASBO agindua urratu zuen, eta kartzelara bidali zuten. Sei hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zioten, eta isun bat ordaindu behar izan zuen, «biktimarekiko zerbitzu» gisa, nahiz eta ez zegoen biktimarik; gizonak berak eman zizkion etxeko giltzak, eta, gainera, emakumearen alde hitz egin zuen epaitegian.³⁶³

Jendeari eremu zehatz batzuk galarazita, ASBO aginduek *esplizitatu* egiten dute prostituzioari buruzko lege britainiarraren

360 NIA, «I'm no criminal», *op.cit.*

361 «...Gaur egungo Britainia Handiko zartailu handiak: emakume samindu, mozkor eta hormonatuz osatutako talde oldarkorrak; kiroltik egin ez eta karrera profesional gisa haurdun geratzea erabakitzen duten amatxoak; sabel bete eroriko puta zurbilak, begien itxi-irekian kuleroak lurrera eroriko zaizkienak.» Delingpole, J. Hemen aipatua: Jones, O. (2011) «*Chavs: The Demonization of the Working Class*», Londres: Verso, 128.

362 Fishwick, B. (2015eko ekainaren 26a) «Sex-for- cash Asbo woman dodges prison», *The Portsmouth News*, portsmouth.co.uk.

363 Sandhu, N. (2017ko urtarrilaren 20a) «Prostitute jailed after breaching ASBO 10 times in three weeks to visit 90-year-old «sugar daddy», *Mirror Online*, mirror.co.uk.

beste alderdi batzuetan *inplizituki* adierazte dena: sakabanaketa eta ikusezintasuna. Agindu horiek exijitzen dute kalean jarduten duten sexu-langileak beren komunitateetatik erauztea; gehientsuenak langile-klaseko emakumeak dira, pobrezia eta drogei buruzko lege itogarriari ahal bezala aurre egiten dietenak. Emakume horiek bizitoki dituzten komunitate horietan lan egiten dute, eta horietan egiten dituzte beren egunerokoak: erosketak egin, trafikatzailerekin elkartu, haurrak hazi eta familiako medikutara joan.³⁶⁴ Saihestezina da sakabanatze-aginduak urratzea, jendea ezin delako beren komunitateetatik desagertu ASBO aginduek hala eskatzen dietelako. Eskakizun ezinezko horretan, sumatzen dugu prostituzioaren aurkako legeak heriotzak dakarren «diziplina» ezarri nahi lukeela sexua modu ikusgarrienean saltzen duten pertsonengan. Ez da halabeharrezkoa bai poliziak bai sexu-langileen gizonetako hiltzaileek kezka *bera* izatea «kaleak garbitzeari» dagokionez. (Ezaguna denez, Peter Sutcliffe «Yorkshireko tripa-ateratzaileak» honela esan zion bere anaiari: «Kaleak garbitu besterik ez nuen egiten, motel. Kaleak garbitu, besterik ez».)³⁶⁵ Sexu-langileen aurkako polizia-operazioei kaleak «garbitzea» esan ohi zaie,³⁶⁶ eta bada gehiago: 2016an, AEBko prostituzioaren aurkako ekintza bati Garbiketara Operazio deitu zioten.³⁶⁷ Kontu praktikoetara etorrira, noski, emakumeak behar-tzen ditu toki berri, bakartu eta ezezagunetan lan egitera. Hona iritsita, poliziaren eta sexu-langileak hiltzen dituzten gizonen kezka bat datoz punturik suntsitzaile eta hilgarrienean, alegia,

364 Genero guztietako jendeak saltzen du sexua, edo trukerako erabili. Halere, kaleko lana batez ere emakumeek egiten dute. Hala da, batez ere, *poliziak sexu-lan gisa ulertzen duen* kaleko lanaren kasuan; gizon cis edo transek ere saltzen dute sexua kalean, baina normalean oportunistoz jokatzeko dute tabernetan eta haien inguruan edo ligatzeko aplikazioetan, eta zailagoa da polizia horretaz jabetzea ohiko ibilbidean atzera-aurrera dabilen sexu-langileaz baino. Bi faktore hartu behar dira kontuan: alde batetik, kaleko lana emakumeek egiten dute gehien-gehienetan; bestetik, kontrol polizialak batez ere emakumeak –eta justizia penalaren sistemak emakumetzat jotzen duen oro– ditu xede. Beraz, atal honetan, «emakumeak» eta «kalean jarduten duten sexu-langileak»/«kaleko sexu-langileak» terminoak trukagarriak dira gehien-gehienetan.

365 Sexton, D. (1984ko abuztuaren 4a) «Another Yorkshire» *Spectator*, *The Spectator*, archive.spectator.co.uk.

366 BBC (2013ko uztailaren 11) «Luton prostitution: Police out to clean up Hightown», *BBC News*, bbc.co.uk.

367 Rodriguez, M. (2016ko otsailaren 18a) «Police Make Big Busts In Effort To Clean Miami Streets», *CBS Miami*, miami.cbslocal.com.

berandu, bakarrik eta etxetik urrun lanean ari den emakumearen irudian.

Kent-eko Medway barrutian, sexu-langileen eskubideen aldeko ekintzaile Ruth Jacobs-ek poliziak martxan jarritako Irteera Segurua [Safe Exit] proiektuko atxilotze-kopuruak lortu zituen. Ohartuenez, proiektu hark ez zuen inondik ere bermatzen emakumeen segurtasuna edo irteera; aitzitik, Irteera Segurua proiektuak ASBO agindu eta atxiloteta pila bat ekarri zituen berekin: 67 emakumeri bost urteko kartzela-zigorra ezarri zieten prostituzioarekin lotutako delituengatik, eta epaiketa horien erdiak bi urte eskasean egin ziren, 2010 eta 2011 bitartean.³⁶⁸ Oстера, gertuko beste barruti batzuetan –Thanet, Gravesham, Shepway, Sevenoaks, Royal Tunbridge Wells eta Tonbridge eta Malling–, bost urte haietan emakume bakar bati ere ez zioten jarri ASBO agindurik, eta ez zuten inor akusatu sexu-zerbitzuak eskaintzeaz. Ruthek esan zigunez, «nirekin hitz egin zuten informatzaileek [...] esan zuten emakume haiek desagertu egiten zirela eta batzuk hil egin zirela esku-hartze haren ondorioz. Proiektuaren arrakastaren adibide gisa erabiltzen zuten emakumea [kasu praktikoa] hil egin zen. Asaldagarria da».³⁶⁹

Gero eta murriztaileagoak diren lege horiek izugarri labirintikoak ere badira, eta sexu-langileak zigorraren bidez kontrolatu ahal izateko modu askotarikoak, orokorrak eta gainjarriak eskaintzen dizkio estatuari: ASBO aginduez eta sexu-zerbitzuak eskaintzeagatik edo atzera-aurrera ibiltzeagatik jartzen dituzten isunez gain, kalean jarduten duten langileak jendaurreko sexu-harremanak edukitzearren ere auzipetu ditzakete; gainera, «prostituzioarekin lotutako ohartarazpena» edo «21. edo 35. atalarekin» lotutako zigorra jaso dezakete, immigrazioko poliziak atxilotu ditzake edo babes ofizialeko etxea lortzeko aukera gal dezakete.³⁷⁰ Poliziaren ohiko ohartarazpenak ez bezala, poliziak

368 Jacobs, R. (2014ko otsailaren 21a) «Kent Police «Safe Exit» Scheme Claiming to Help Women in Prostitution Instead Caused Them Harm», *Huffington Post*, huffingtonpost.co.uk.

369 Ruthekin izandako posta-truke pribatua.

370 Poliziek nahierara bana ditzakete bi agindu horiek, agindu judizialik eskatu gabe. 2009ko Poliziagintzari eta Krimenari buruzko Legeko 21. atalaren (eta 2. adierazpen osagarriaren) arabera, goi-mailako polizia batek lokal bat itxi dezake, baldin eta uste badu toki horretan prostituzioarekin lotutako delituak egiten direla; normalean, agindu judizial bat behar izaten da lokala berriz zabaltzeko; ikus 2014ko Portaera Antisozialari, Poliziagintzari eta Krimenari buruzko Legea, hemen: legislation.gov.uk, 2018ko

nahierara bana ditzake prostituzioarekin lotutakoak, eta prosti-
tutek ez dute helegitea aurkezteko eskubiderik. ASBO aginduak
bezala, prostituzioagatikohartarazpenak ere zure aurrekarie-
tan agertuko dira, baldin eta lan-eskatzaileei buruzko informazio
zabalagoa galdegiten duen lanpostu batera aurkezten bazara.

Kriminalizazioaren sasiak arantza ugari ditu. Zigorrak,
ASBO aginduak eta prostituzioarekin lotutako ohartarazpenak
zama astuna dira sexu-langileentzat beste lan bat bilatu nahi
dutenean; gainera, isunen ondorioz gero eta zor handiagoak metatzen
dituzte, eta horrek sexua saltzen jarraitzera bultzatzen
ditu. Isun horiek karga ekonomiko izugarria dira, eta ehunka
liberara ere irits daitezke. ASBO aginduak urratzeak, kartzela-zi-
gorrek eta isunen pilaketak ondorio latzak ditu emakumeentzat:
seme-alaben zaintza galtzen dute, kartzelatik irtetean etxe-
rik gabe aurkitzen dira eta galdu egiten dituzte kartzelan sartu
aurretiko lanak; horrek guztiak kaleko sexu-lanera itzultzera
bultzatzen ditu, eta, polizia saihesten saiatzen direnez, proba-
bleagoa da indarkeria-egoerekin topo egitea.

Horrenbestez, kalean jarduten duen emakume baten ka-
suan, zigorrak arrisku fisiko eta legalak dakartzan sorgin-gurpil
bat abiaraz dezake. Eta, halere, baita Holbecken ere, bere ere-
mu kudeatuarekin –zeinari buruz amorrutik betetako titularrak
idatzi baitira, *sexu-industria legalizatuaren* kontura–, sexu-lan-
gileen kontrako zigorrak mantentzen dituzte. Monika izeneko
sexu-langilea Yarl-eko Zentroan atxiki zuten Holbecken atze-
man ondoren, eta honela azaldu zion kazetari bati: «Kartzelan
nagoela iruditzen zait [...] Ateak giltzaz itxita daude. Ez nekien
ez neukala lan egiteko eskubiderik [...] Orain ez dakit zer ari den
gertatzen. Erotu egingo naiz».³⁷¹

Redbridge-n, Ingalaterraren ekialdean, herritarrek pre-
sio egin zioten poliziari, kalean jarduten zuten sexu-langileen
aurka «zerbait egin» zezan; herritarrei kasu egin, eta poliziak
indartu egin zituen bai atxiloketak, bai ohartarazpenak. Age-
riko prostituzioa jaitsi egin zen itxura batean, eta herritarrek

ekainaren 28an kontsultatua. 35. atalaren arabera, edozein polizia uniformedunek agindu diezaiokete pertsona bati 48 orduz eremu zehatz batean ez egoteko; 2009ko Eskoziako Etxebizitazari buruzko Legea: immoralitateari buruzko klausula, hemen eskuratu daiteke: legislation.gov.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

371 Mullin, F. (2016ko azaroaren 3a) «Immigration Officers Are Targeting Sex Workers in the UK's Only "Legal Red Light District"», *Vice*, vice.com.

–sexu-langileak ez zirenak, behinik behin– pozik agertu ziren. Bitartean, Mariana Popa izeneko emakume gazte bat herrialdera iritsi berria zen hiru aste lehenago; bere diru-sarrera bakarra zerbitzari-lanetik ateratzen zuen soldata txiki-txiki bat zen, zeina eskudirutan ordaintzen baitzioten, eta dirua behar zuen bereztzat eta bere familia gaztearentzat. Ilford-era joan zen kalean lan egitera, etxetik minutu gutxi batzuetara oinez. 2013ko urriaren 29an, arratsalde beranduan, gizon bat hurbildu, eta sastakada bat jo zion bularrean. Mariana herriko oilasko-denda batera joan zen arrastaka, ezinean laguntza eske, baina ordurako jada bularraldeko zauria oso larria zen. Hil egin zen.

Monica Abdala-k hedapen-zerbitzu bat darama inguru horretan. Honela esan zion kazetariari: «Polizia-operazioek ez dute ezertan laguntzen [...] Emakumeak sakabanatu egiten dira; gogorrago lan egiten dute. Kamerarik gabeko kalezuloetan sartu behar izaten dute». ³⁷² Inguruko emakumeak poliziarengandik ihesi ikusi zituzten, literalki, edo autoen atzean makurtzen edo zapatak kendu eta espaloian uzten, azkarrago ihes egiteko. ³⁷³ Kriminalizazioak bultzatuta, Marianak lan egiteko modua aldatu behar izan zuen, eta horrek zaurgarriago bihurtu zuen bere hiltzailearen aurrean. Hil zuten gau hartan, poliziak hiru aldiz hartu zion kargu Marianari, eta ohartarazpen bat ere eman zion. ³⁷⁴ Ezinbestekoa zuen lan egitea, egun batzuk lehenago sexu-zerbitzuak eskaintzeagatik jarri zioten isuna ordaintzeko. (Egun haietan inguru berean lanean aritu zen emakume batek 1.350 £-ko isuna zeukan pilatuta). ³⁷⁵ Argi dago zergatik ari zen lanean ohi baino beranduago eta ohi baino bakartuago: nahitaez saihestu behar zuen polizia, isuna ordaintzeko behar zuen dirua irabazteko eta beste isun garesti bati itzuri egiteko.

Chris Armitt poliziaburuaren ondokoa da egun, eta garai hartan prostituzioaren arduraduna zen Ingalaterran eta Galesen. Marianaren hilketaren ondoren, honela mintzo zen: «Polizia-operazio eta -kontrol zorrotz eta agerikoak egin eta egun batzuetara, ugaritu egiten dira sexu-langileen aurkako in-

³⁷² *Ibid.*

³⁷³ *Ibid.*

³⁷⁴ Mann, S. (2014ko ekainaren 27a) «Mariana Popa murder: Timeline of a sex worker's killing», *Ilford Recorder*, ilfordrecorder.co.uk.

³⁷⁵ Taylor, D. & Townsend, M. (2014ko urtarrilaren 19a) «Mariana Popa was killed working as a prostitute. Are the police to blame?», *The Guardian*, theguardian.com.

darkeriazko gertakariak». ³⁷⁶ Nolanahi ere, Redbridgeko Polizia Metropolitarra ez dator bat ikuspegi pragmatiko horrekin, edo berdin zaio. Mariana hil zen barrutian, kaleko sexu-langileak oldarka kriminalizatzen jarraitzen dute; hango polizia da Londresen prostituzioarekin lotutako ohartarazpen gehien banatzen dituen, eta, gainera harro baino harroago zabaltzen dute beren lana sare sozialetan. ³⁷⁷ Kalteak agerikoak dira. «Indarra erabiliz ez dugu lortuko arazo horri irtenbide bat ematea», dio Armittek. «Besterik gabe, ez du funtzionatuko». ³⁷⁸

Poliziak sexu-langileen aurka erakusten duen etsaitasunak eta beste bizilagun batzuek sexu-langileen kontra erakusten dutenak elkar elikatzen dute: Mariana hil eta aste gutxi batzuetara, Redbridgeko batzuek beste sexu-langile bati eraso zioten; jipoi ederra eman zioten, eta ospitalera eraman behar izan zuten. Ez zuten inor akusatu. ³⁷⁹

Etxe barruko lana

Britania Handian legezkoa da etxe barruan eta bakarrik sexua saltzea. Rivka Holden-ek berrogeita hamabost urte ditu, eta Colindale-n lan egiten du; Rivkak nahiago du bezeroekin hitzordua aurrez zehaztea, berak aukeratutako toki batean. Lenuta Haidemac ordainpeko neska-laguna Skegness-ekoa zen, eta bi seme-alaba zituen; ezin zuen etxean lan egin, han haurrak ere bazeudelako. Beraz, bera joaten zen bezeroengana, haien etxetara edo hoteletako logeletara. Bi sexu-langileak gizonak hil zituzten odol hotzean, erailketa izugarri basatietan, eta hiltzaileei kartzela-zigorra luzeak jarri zizkieten. Lenutaren hitzailea Jack tripa-ateratzailearen mireslea zen, eta «Jack» izena zirriboratu zuen Lenutaren gorputz-enborrean hura sastakatu eta bere eskuez ito ondoren. ³⁸⁰ Rivkaren hiltzaileak ere antzera jokatzen zuen: emakumea jipoitu, sastakatu eta bere eskuez ito zuen.

376 *Ibid.*

377 Redbridge MPS (@MPSRedbridge) Twitter, 4:43 a.m., 2016ko apirilak 17: «#LofordSNT and #RedbridgeCommunityPoliceTeam issued 11 prostitute cautions on Ilford Lane tonight #Yousaidwedid».

378 Knowles, R. (2014ko urtarrilaren 21a) «Sex worker stabbed to death after launch of Operation Clearlight in Ilford», *East London and West Essex Guardian*, guardian-series.co.uk.

379 *Ibid.*

380 Vonow, B. (2017ko urtarrilaren 24a) «Jack the Ripper-obsessed killer stabbed mum-of-two to death and scrawled «JACK» over her naked body», *The Sun*, thesun.co.uk

Geroago lagun bati telefonoz aitortu zionez, «pertsona bat hil dut [...] pertsona bat ez, puta bat».³⁸¹

Horrelako hiltzaileentzat, sexu-langilea biktima aproposa da. Sexu komertzialari buruzko legeekin, errazegia da ia ziurtzat jotzea zure biktimak bakarrik egongo direla. Injustizia gehiegizkoa da; Rivkak eta Lenutak heriotza ikaragarri sadikoak jasan zituzten, baina ez hori bakarrik: gertaerek beste bide bat hartuko zuketean, baldin eta beste lagun batekin lan-eremu bat partekatzeko aukera izan balute.

Sexu-langile askorentzat, askoz ere hobea da binaka edo talde txikitik lan egitea, ezen ez haiek zauritzeko edo hiltzeko ahalmena duen ezezagun batekin bakarrik egotea. Eta, hain justu ere, prostituzioaren aurkako ekintzaileek binaka eta legea betez lan egin nahi izate hori erabiltzen dute prostituzioaren berezko izaera arriskutsu eta aberrantea erakusteko, nahiz eta beste lanbide batzuetan argi eta garbi adierazten den bakarrik lan egitea arriskutsua izan daitekeela.³⁸² 1986an, Suzy Lamplugh higiezinaren agentearen ustezko hilketa gertatu zen. Horren ondoren, higiezinaren agenteei aholkatu zieten ahal zuten heinean binaka lan egiteko edo «adixkideren» bati beren joan-etorrien berri emateko.³⁸³ Erizainen Errege Elkargoak ere antzeko aholkuak ematen dizkie osasungintzako langileei, baita Britainia Handiko Gizarte Langileen Elkarrekin ere.³⁸⁴ Unison izeneko sindikatua Britainia Handiko langileen elkarerik handienetako bat da; nabarmentzen du bakarrik lan egiteak indarkeria jasateko arriskuan jartzeko dituela langile ugari, eta binaka lan egitea aholkatzen du.³⁸⁵ Arrazoi berarengatik, talde txikiek erabaki de-

381 Clej, M. (2014ko urriaren 16a) «Israeli woman's murderer is jailed for 25 years», Jewish News, jewishnews.timesofisrael.com.

382 Bennett, C. (2016ko otsailaren 21a) «Criminalise the sex buyers, not the prostitutes», *The Guardian*, theguardian.com.

383 Arla Propertymark (2016ko irailaren 23a) «30 years since Suzy Lamplugh disappeared, what's changed?», *Arla*, arla.co.uk; «Personal Safety», Suzy Lamplugh Trust available suzylamplugh.org, June 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

384 Erizainen Errege Elkargoa (2016ko urriaren 4a) «Personal safety when working alone: Guidance for members working in health and social care», *Royal College of Nursing*, rcn.org.uk; Britainia Handiko Gizarte Langileen Elkarrekin (2009) «Keeping Safe in the Workplace – A Guide for Social Work Practitioners» *UNISONScotland*, hemen eskuratu daiteke: basw.co.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

385 Unison (2009) «Working Alone: A health and safety guide on lone working for safety representatives», txostena hemen eskuratu daiteke: unison.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

zakete etxebizitza berean saltzea sexua.³⁸⁶ Sarri, akordio horrek dakar txandaka lan egin behar izatea logela berean, bezeroarekin ez dagoen pertsonak aldameneko gela batean itxaroten duen bitartean, isilik eta ezkutuan. Claire Finch sexu-langileak dioen bezala, «nire kezkarik handiena segurtasuna zen. Ez da segurua zeure kasa lan egitea. Bi izanda, babestuta zaude, lagunduta».³⁸⁷

Nolanahi ere den, Finch ohartu bezala, lan-eremuak partekatzea legez kontrakoa da Britainia Handian, bi sexu-langile edo gehiago elkartzuz gero «prostituzio-etxe» bat osatzen baitute. Zigor horrek ez du kontuan hartzen langileek ordu berean –are egun berean– eskaintzen ote dizkieten zerbitzuak bezeroei, ezta pertsona batek besteak baino botere handiagoa duen. Beste hitzez, sexu-langileen managerrak zigortu baditzake ere, pisua partekatzen duten bi sexu-langile ere zigortu ditzake. Finchek eta bere lagunek, guztiak ere berrogei urte inguruko emakumeak, argi eta garbi utzi zuten haien arteko hitzarmenaren funtsa zera zela, botere-maila bera izatea eta elkarren segurtasuna bermatzea. Halere, *hogei polizia* oldarka sartu ziren Finchen etxean; pisua goitik behera miatu, eta dirua, ordenagailu eramangarria eta telefonoa konfiskatu zizkioten.

Ohikoa da hori. 2015ean, Jean Urquhart politikari eskoziarrak zenbait froga aurkeztu zituen Eskoziako Parlamentuaren aurrean, eta erakutsi zuen etengabe erabiltzen zela burdelak eramateari buruzko legea espazio bat partekatzen duten sexu-langileak auzipetu eta atxilotzeko. Urquhartek honela idatzi zuen:

386 Noizean behin, bada norbait esaten duena sexu-langileei lantokia partekatzeko aholkua ematea «errua biktimari egozte» dela, esan nahi omen duelako bakarrik lan egitea *aukeratu* ondoren erasoren bat jasan duten sexu-langileek nolabait ez zutela hartu neurri nahikorik. Argudio hori sinesgarriagoa litzateke baldin eta adierazpen horiek egin dituztenak saiaturko balira legea aldatzen emakume *guztiak* behartzeko beren kasa lan egitera; izan ere, hausnarketa horren arabera, etkez etxeko bisita batean lankide bat eramaten duen gizarte-langile batek biktima gisa seinalatzen ditu arrazoiak arrazoi berdin jokatzeko ez duten lankideak. Erabat egokia da pentsatzea, guk bezala, inork ez lukeela bere portaera aldatu behar indarkeria saihesteko *eta* pentsatzea orobat oso kaltegarria dela estatuak funtsezko segurtasun-neurriak kriminalizatzea. Beharbada norbaitek pentsatuko du izugarria dela emakumeek sarri gau beranduan binaka edo taldeka egin nahi izatea etxerako bidea, baina ilundu ostein etxerako bidea lagun batekin egitea kriminalizatu nahian ez badabilta behintzat, zama bitxi samarra jartzen ari dira sexu-langileen bizkarrean, zeinen helburu bakarra baita segurtasun-neurri berak erabiltzea, atxilotuak izateko arriskurik gabe.

387 Doward, J. (2010eko apirilaren 25a) «Police boost funds from assets taken in raids on prostitutes», *Guardian*, theguardian.com.

Oraindik ere burdelak eramateari buruzko legea erabiltzen dute beren segurtasuna eta ongizatea babesteko elkarrekin lan egiten duten emakume-talde txikiak atxilotu eta auzipetzeko. Aberdeen-en, emakumeak atxilotu, auzipetu eta kondenatu zituzten, burdelak eramateari buruzko legean oinarrituta, data hauetan: 2013ko azaroan, 2013ko abenduan, 2014ko martxoan, 2014ko apirilean, 2014ko maiatzean, 2014ko urrian, 2015eko otsailean eta 2015eko maiatzean. 2013ko maiatzean, emakume batzuk elkarrekin lan egiteagatik auzipetu zituzten Paisley-n, eta 2013ko azaroan, berriz, sarekada bat egin zuten Glasgoweko «burdeletan», eta bost emakume atxilotu eta auzipetu zituzten. *Dakigunaren arabera, emakume haiek egin zuten bakarra da pisuak elkarrekin alokatu segurtasunez lan egin ahal izateko, denak sexu-langile gisa ari baitziren lanean, ez nagusi edo manager gisa [letra etzana gurea da].*³⁸⁸

Tokiko poliziaren esku dago etxebizitza partekatu horiek bilatzeko egingo duten *ahalegina* zehaztea. Urquharten ikerketak argi utzi zuen Aberdeenen eta haren inguruan bereziki oldarkorrek zirela. Urte batzuez, sexu-langileek informazioa partekatzeko erabiltzen dituzten onlineko foroetan behin eta berrito aipatzen zen Aberdeeni buruzko kezka, eta aholkatzen zuten Aberdeenen lan eginez gero *zeure kasa ibili behar zenuela*.³⁸⁹ Bestela, atxilotu egiten zintuzten. Aholku garrantzitsua da: burdel bat eramateagatik auzipetua izateak zure bizitza honda dezake, are gehiago migratzailea edo ama bazara. Segur aski, Jessica McGraa-k ere aintzat hartu zuen aholku hori: 2016ko otsailean, bere kasa lanean ari zen Aberdeenen, eta, halako mesfidantza eragiten zion hiriko poliziaren kontrol zorrotzak, non bezero baten portaerak ikaratu zuenean lagun bati deitu baitzion, ez poliziarri. (Ama, sexu-langilea eta emakume Beltza zen; beraz, arrazoi ugari zuen pentsatzeko poliziak ez zuela ongi hartuko). Bezeroak bortxatu egin zuen, eta hil.³⁹⁰

2013an, Renata K. eta Anna W. sexua saltzen ari ziren Leedsen. Manager esplotatzaile batentzat lan egiten zuten, eta

388 Urquhart, J. (2015) «Prostitution Law Reform (Scotland) Bill: A proposal for a Bill to decriminalise activities associated with the buying and selling of sexual services and to strengthen the laws against coercion in the sex industry», *Scottish Parliament*, hemen eskuratu daiteke: parliament.scot, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

389 Sexu-langileen pribatutasuna babesteko, ez dugu jarriko Interneteko foro horren esteka.

390 Patterson, S. (2017ko urtarrilaren 5a) «Murder Trial Claim: Aberdeen hooker Jessica McGraa phoned lover to tell him a man she was with refused to leave on the day she was killed», *The Scottish Sun*, thescottishsun.co.uk.

handik irten nahi zuten.³⁹¹ Beraz, beste lagun batekin batera, managerra utzi eta Bardford-eko pisu batean jarri ziren, non bezeroak hartu eta fakturak hiruren artean ordaindu baitzitza-keten. Lan-espazio hura justua eta atsegina zen. Halere, polizia-kiak sarekada bat egin zuen haien pisuan; aurkitutako 672 liberak konfiskatu zituzten, eta emakumeak atxilotu. Annaren eta Renataren epaiketan (hirugarren emakumeak Poloniara ihes egin zuen epaiketa hasi aurretik), epaileak eta *baita fiskalak ere* onartu zuten pisua «kooperatiba informal» gisa eramaten ari zirela.³⁹² Halere, Renata eta Anna burdel bat eramateagatik kondenatu zituzten.

2017ko abuztuan, Errumaniako hiru sexu-langile atxilotu zituzten, West Midlands-en lokal bat partekatzeagatik. 2017ko uztailean, Swindon-eko polizia-kiak sarekada bat egin zuen pisu batean, eta hiru emakume errumaniar aurkitu zituen.³⁹³ Poliziak ondoren gertatu zena kontatu zuen sare sozialetan, harroki:

Hiru emakumeak sexu-lana iragartzen aritu ziren Internet bidez *adultworks* [sic] izeneko webgune batean [...] Haiekin hitz egin genuen, eta ez zen azaleratu trafikoarekin edo hertsapenarekin lotutako delituri-rik. Zintzo hitz egin zuten beren sexu-lanari buruz, eta baieztatu zuten *adultworks* [sic] webgune-ko profilak berenak zirela, bere sortu zituztela eta haien truke ordaintzen ari zirela [...] emakumeek adierazi zuten beren ekimenez egiten zutela sexu-lana, [horren bidez] Errumanian baino diru gehiago irabaz zezaketelako.³⁹⁴

Tokiko egunkarietan adierazi zutenenez, «hiru emakumeak burdelekin zerikusia zuten delituengatik atxilotu» zituzten, eta deportatu ere egin zituzten.³⁹⁵ Swindoneko poliziaren arabera, atxiloketa haiek «oso emaitza onak» eman zituzten; izan ere, «emakumeak orain seguru eta bezeroengandik urrun daude, eta jada ez daude kalean barik beste leku batzuetan egiten den se-

391 Loweth, J. (2013ko azaroaren 21a) «Police were greeted at Bradford brothel by half-naked woman», *Telegraph & Argus*, thetelegraphandargus.co.uk.

392 *Ibid.*

393 Guttridge, R. (2017ko abuztuaren 23a) «Suspected Smethwick brothel shut down by police», *Express & Star*, expressandstar.com.

394 Swindon North-eko polizia (30 June 2017ko ekainaren 30a) Facebook: zalantzarik gabe, «Adultwork» idatzi nahi izan dute, ez «adultworks»; Britainia Handian, Internet bidez sexu-lana iragartzeko plataforma nagusietako bat da.

395 Haworth, T. (2017ko ekainaren 30a) «Romanian sex workers to be deported following immigration offences», *Swindon Advertiser*, swindonadvertiser.co.uk.

xu-lanak dakartzan arriskuen menpe».³⁹⁶ Zaila da honako zera hauek baino «segurtasun» gutxiago eskaintzen duten egoerak imajinatzea: atxilotua izatea, zure dirua lapurtzea, migratzaileak atxilotzeko zentro batera eramatea, zure lagunei edo bikotekideari agur esan ezin izatea.

2017an, Polizia Metropolitanarrak ohar bat utzi zuen ustezko burdel batean (toki horretan arma bidezko lapurreta bat egin zuten, horregatik zeukaten begiz jota). Oharrak honela zioen: «Orain helbide honetan dagoen edozein emakume etorkizunean ere helbide honetan aurkitzen badugu, oso litekeena da atxilotua izatea».³⁹⁷ Jakina, ohar horrek ez ditu bereizten langileak eta managerrak. Poliziek eta fiskalek ere badakite –eta jendaurrean onartzen dute, epaitegietan eta sare sozialetan– sarekada horien helburua ez dela managerrak aurkitu eta atxilotzea, are gutxiago mafiako nagusiak: sexu-langileak dituzte helburu, eta haiek atxilotzen dituzte.

Burdel bat eramatearen definizioa hain da zabala, ezen erraza baita sexu-langileak kriminalizatzea: «emakume batek baino gehiagok ordainpeko edo doako sexu-harremanak eskaintzen dituen» edozein toki izan daiteke burdel bat, edo «praktika homosexual lizunetarako prestatutako» edozein leku.³⁹⁸ Bestela esanda, Britainia Handiko legearen arabera burdeltzat jo daiteke bi pertsonaren artean partekatutako pisu bat, zeinetan bi pisukideek *helburu komertzialik gabeko* sexu informala praktikatzen baitute aldizka. Errealitatean, noski, legea ez da erabiltzen sexu informala kriminalizatzeko, sexu-klubetan noizean behin egiten diren sarekadak alde batera utzita.³⁹⁹ Zoritxarrez, askoz errazago imajinatu dezakegu sexu informala praktikatzen duten pertsonak lege honetatik ateratzeko eskatzen duen kanpaina feminista bat –persona horiek ere barne hartzearen sinbolismoa desego-

396 Swindon North-eko polizia, *op.cit.*

397 Bowcott, O. (2017ko abuztuaren 3a) «Police accused of threatening sex workers rather than pursuing brothel thieves», *The Guardian*, theguardian.com.

398 Crown Prosecution Service «Prostitution and Exploitation of Prostitution», txostena hemen eskuratu daiteke: cps.gov.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

399 2013tik aurrera, Edinburgoko poliziak sarekadak egin zituen «sauna» ugaritan, eta haiek itxi. Kategoria horretan sartzen dira, besteak beste, burdel komertzialak eta gizonek sexu informal ez-komertzialerako erabiltzen dituzten tokiak. Ikus A. Fogg, «Why are Edinburgh's seamier saunas under attack?» *Guardian*, 24 2013ko urria, theguardian.com.

kia delakoan-, ezen ez sexu-langileak babesten dituen antzeko kanpaina bat.

Azken finean, poliziak sexu-langileak ditu xede, ez gau bateko sexu-harremanak dituzten pertsonak, zeren, baita etxe barruan jarduten dutenean ere, sexu-langileak etxe barruko sexu-harreman heterosexualak izaten dituzten beste pertsona batzuk baino bazter-nahasleagotzat jotzen dira. Begira bestela zer erreakzio izan zuen etxejabe batek Airbnb-n jarri zuen apartamentu txiki fotogenikoa sexu-langile batek erabili zuela jakin zuenean. Balizko egoera horiek «traumatikotzat» jotzen dira, nahiz eta Airbnb-ko etxejabeek onartua izan behar luketen jendeak sexu-harremanak izango dituela haien jabetzako pisuan. Sexu komertziala, beraz, nabarmen desberdina da, aztoragarria.

Arrazoi arruntago bat ere badago poliziak arreta sexu ordainduan jartzeko: eskudirua eta baliozko beste ondasun batzuk konfiskatzeko aukera. 2002ko Krimenaren bidez Irabazitako Ondasunei buruzko Legearen arabera, Britainia Handiko poliziak beraren ustez jarduera kriminalaren bidez eskuratutako ondasunak konfiskatzeko ahalmena du.⁴⁰⁰ Krimenik frogatu ez bada ere, susmagarriari dagokio auzitegian frogatzea ondasun horiek legearekin bat etorritik eskuratu dituela; eta ia ezinezkoa da hori egitea, sexu-lanaren negozioa eskudirutan oinarritzen delako.⁴⁰¹ Poliziak eta Koroaren Fiskaltza Zerbitzuak [Crown Prosecution Service, CPS] erdi bana egin dezakete konfiskatutako edozein ondasun, eta hori pizgarri handi bat da poliziarentzat, bere esku dituen ahalmenak ezker-eskuin erabiltzeko.⁴⁰²

National Ugly Mugs ongintza-erakundeak sexu-langileen segurtasunaren alde lan egiten du, eta Alex Feis-Bryce erakunde horretako zuzendari nagusi ohia da. Bere ustez, poliziarentzat askoz ere tentagarriagoa da armarik ez duten (eta eskudirutan lan egiten duten) emakumeei oldartzea talde kriminal profesio-

400 Agian irakurle estatubatuarrak ohartuko dira lege hori AEBko «ondasun zibilak konfiskatzeko» legeen antzekoa dela; bigarren horiek ere sexu-langileei diru-kopuru handiak konfiskatzeko erabiltzen dira. Ikus E. Nolan Brown, «Sex Work and Civil Asset Forfeiture Increasingly Go Hand in Hand», *Reason*, 2015eko abuztuaren 28a, reason.com.

401 Mullin, F. (2016ko apirilaren 6a) «Sex Workers Reveal What Cops Took from Them During Police Raids», *Broadly*, broadly.vice.com.

402 Doward, J., «Police boost funds from assets taken in raids on prostitutes».

nalen atzetik joatea baino, nahiz eta horiek izan ziren, hasiera batean, legearen xedea.⁴⁰³

Ondorioz, ohikoa da poliziak dirua ostea burdeletako sarekadetan, eta ez soilik laurogei libera noizbehinka han edo hemen. 2016ko urrian, poliziak zenbait sarekada egin zituen Londreseko Soho eta Chinatown auzoetako masaje-aretoetan; hamazazpi emakume atxilotze-zentroetara eraman zituzten, eta hogeita hamabost mila libera ere hartu zituzten.⁴⁰⁴ Emakumeen armairu giltzatuetatik ere hartu zuten dirua.⁴⁰⁵ Janice sexu-langileari hamahiru mila libera kendu zizkieten burdeletan egin zuten sarekada batean, eta ez zizkieten sekula itzuli, ezta errugabea zela ebatzi ondoren ere: «Nire etxea kentzen ere saiatu ziren. Bizitza osoan gogor lan egin ondoren, batere gabe utzi ninduten. Jada ez naiz gaztea, eta ez dakit nola moldatuko naizen. Bizitza hankaz gora jarri didate».⁴⁰⁶ Hala, prostituzioaren aurkako poliziagintza legezko lapurreta bihurtzen da.

Burdelak eramateari buruzko legeak kalte egiten die ez bakarrik harrapatzen dituztenei –hau da, atxilotu edo auzipetzen dituztenei–, baita harrapatuak izateko *beldur* diren sexu-langile orori ere. *Beldurtuta* gaudenean, gure portaera aldatu egiten da. Eta beldurra aukera ematen dio poliziari kriminalizazioa mehatxu gisa erabiltzeko. Lagun dugun sexu-langile batek krimen bortitz bat salatu zuen poliziaren aurrean, eta honela erantzun zioten berari zegokion komisaldegian: «Ohartzen zara etxetik kanporatua izateko arriskua duzula niri kontatzen ari zaren hori kontatzen jarraitzen baduzu?».⁴⁰⁷ Gure ezaguna den beste emakume gazte bat poliziarengana hurbildu zen, gizon bat jazarka zebilkiola salatzeke, eta *bera* ikertu zuten, emakumea, burdel bat eramaten zuela egotzita, astean behin etxean «duoak» egiten zituela iragartzen zuelako.

403 The Economist (2017ko urtarrilaren 19a) «Police in Britain want to keep more of the loot they confiscate», *Economist*, economist.com.

404 Mullin, F., «Sex Workers Reveal What Cops Took from Them During Police Raids».

405 Greater London Authority (2016) «Written Answers to Questions Not Answered at Mayor's Question Time on 16 November 2016», txostena hemen eskuratu daiteke: london.gov.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

406 Mullin, F., «Sex Workers Reveal What Cops Took from Them During Police Raids».

407 Hodgson, N. (2012ko urtarrilaren 15a) «Why prostitutes are living in a "climate of fear"», *New Statesman*, newstatesman.com.

Kriminalizazioak sexu-langileen gaineko boterea ematen dio poliziarri, eta, era berean, harrapakari sexuarek abantaila gisa erabil ditzaketen egoerak eragiten ditu. Guri biori ere telefonoz deitu izan digute bezeroak direla esanez eta galdetuz: «Bakarrik lan egiten duzu, maitea?». Eta, une horretan, bi arazori egin behar diezu aurre, zelan edo halan. Niri lapurtzea edo erasotzea pentsatzen ari bada, deitzailea gogogabetu behar nuke, lagun batekin lan egiten dudala esanez. Baina beharbada poliziakide bat da, eta begira ari da ea burdelak eramatearekin lotutako atxilotetaren bat egin dezakeen; kasu horretan, bakarrik lan egiten dudala esan behar nioke, nire bila etor ez dadin. Zer egin?

Gure lagunen artean behin eta berriro ikusten dugunez, pisu batean elkarrekin lan egiten duten bi pertsonak ez dute inolako babesik gehiegizko alokairua kobratzen dien –edo esplizituki xantaia egiten dien– etxejabearen aurrean, baldin eta behin eta berriro esaten badie poliziarri deitu eta salatu egingo dituela. Era berean, bi langile horiek ezin dute ezer egin bezero batek erabakitzen badu erruduntasun hori abantaila gisa erabil dezakeela haiei eraso egiteko edo justizia saihesteko. Duela urte batzuk, Londreseko bi sexu-langile (Lily eta Jane deituko diegu) elkarrekin lanean ari ziren pisu batean, segurtasun-neurri gisa; izan ere, haietako bat artega zebilen, berriki indarkeriazko gertaera bat bizi izan zuelako. Lily eta Jane lanean ari ziren bitartean, Lilyren bezero bat oldarkor jarri zen. Jane Lilyren logelara joan zen, hari laguntzeko. Bezeroa, kikildu beharrean, are gehiago adoretu zen, eta esan zien: «Zuek ezin nauzue ni poliziaren aurrean salatu, bi neska baitzaudete hemen! Hau putetxe bat da! Nik salatuko zaituztet zuek poliziaren aurrean!». Burdelak eramateari buruzko legeek era horretako gizonak boteretzen dituzte.

Lantoki kolektibo batean, sexu-langile guztiek dute kriminalizatuak izateko arriskua. Baina (burdel, masaje-areto, pisu edo sauna batean edo ordainpeko neska-lagunen agentzia batean) agente edo manager batekin lan egiten duen sexu-langileari ez zaio deliturik egotzen; izan ere, fardel hori haien lana bideratzen duen nagusiari edo antolatzaileari pasatzen zaio. Horregatik, eta lan egin bitartean beste pertsona bat aldamenen izateak dakarren segurtasunagatik, burdel eta prostituzio-aretoetako lana erakargarria da sexu-langile askorentzat. Halandaze, legeak bi antolaketa-molde horiek ez bereizteak *managerren besoetara*

bultzatzen ditu sexu-langileak. Halaber, sexu-langileen irabaziei mozkin handiagoa ateratzeko aukera ematen die managerrei; izan ere, managerrek poltsikoratzen duten diruaren zati bat horri dagokio, kriminalizazioaren mehatxua beren gain hartzeari.

Nork bere kasa lan egitea gaitza izan daiteke. Zaintzaileak, gurasoak edo ikasleak diren sexu-langileentzat, arrazoizko aukera bat izan daiteke diru-sarreraren zati bat sexu-komertzialaren parte logistikoaz arduratzen den nagusi bati ematea: telefona edo e-mailak erantzutea, webgunea eramatea, iragarkiak jartzea, erreserbako dirua gordetzea, lokalaren alokairua antolatzea, materiala prestatzea eta lantokiaren garbiketaz arduratzea. Haien denbora libre guztia eta espazio pertsonal oro autoenpleguari dedikatu beharrean, astean txanda bat edo bi egin ditzakete, eta lana atzean utzi atetik irten orduko.

Sexu-langileek ez dute legea urratzen nagusi batentzat lanean dihardutenean, baina haien lantokiak legez kanpokoak izaten jarraitzen du. Zure lantokia kriminalizatzen badute, ahaztu lan-arloko auzitegiak, giza baliabideetako atalak, kontratu legalak, osasuneko eta segurtasuneko ikuskatzaileak; beraz, lan-baldintza txarrak badituzu, oso baliabide mugatuak izango dituzu horri aurre egiteko. Enplegatzaileak kaleratzeko mehatxua egin diezazuke, baldin eta bezero bati zerbitzu zehatz bat eman nahi ez badiozu. Beste batean beharbada ez dizkizu kondoiak emango, edo hitzez erasoko zaitu; soldata nahierara murriztuko dizu; txanda luzeagoak egitera behartuko zaitu; edo sexualki jazarriko zaizu. Edo, besterik gabe, axolagabea izan daiteke sexu-langileari ezinbestean eskaini beharreko oinarriko segurtasunari dagokionez: ez dio zure deiari erantzungo larrialdi batean zaudenean, edo ez da zure logelara joango hala egiteko eskatzen diozunean. Horren aurrean, bi aukera dituzu: ezer ez egitea edo poliziaren aurrean salatzea.

Dirua behar duzunez, dilema baten aurrean zaude. Poliziarri deitzen badiozu, sarekada batekin erantzungo du; zure lantoki osoa itxiko du, lana galduko duzue zuk eta hango langile guztiek, eta deportatuak izateko arriskuan egongo zarete. Sarekada batek beste arrisku batzuk ere baditu, hala nola dirua, ondasunak edo drogak konfiskatzea. Manager eta agentzia-jabe ugariak sexu-indarkeriarekin zerikusia duten gertaerak poliziaren aurrean ez salatzeak aholkatzen dute irmoki, eta argi eta garbi adieraz-

ten diete beren langileei bortxatzaile bati buruz alerta jotzeak lanik gabe utz ditzakeela guztiak. Ia sexu-langile guztiek dirua behar dutelako dihardute lanbide horretan. Eskura dituzten aukerak badira a) diru-sarrerak bermatzea eta b) nagusi gaizto edo bortxatzaileak salatzea, sexu-langileak aukera erreal bakarra du: lan-baldintza txarrak onartzea. Eta bai, sexu-langileek beren erasotzaileak babesten dituzte, etxeko indarkeriaren bizirauleek beren bikotekideak babestu behar dituzten gisa berean polizia azaltzen denean, ekonomikoki haien menpeko direlako. Oinarriko talde feministek adierazi izan duten bezala, bizirauleentzat batzuetan okerragoa da poliziak gogor erantzutea ezer ez egitea baino.

Hala, «proxenetismoari» buruzko legeek mugatu egiten dute biktimek manager bidegabean aurrean erantzuteko duten gaitasuna. Eta, halere, sexuaren salmenta (eta are erosketa) despenalizatzea onartuko lukeen jendeak ere askotan zigorrak eskatzen ditu bitartekoentzat. Langilearen eta bezeroaren arteko trukean bitarteko bat egon beharrenden ideia intuitiboki okerra iruditzen zaio jendeari, oinarri-oinarriko esplotazioa.

Jendeak susmo horrekin aurrera egiteko modu bakarra da sexu-langileen eguneroko errealitate arrunta ezkutatzea. E-mailak erantzuten edo hitzorduak jartzen laguntzen duen senar, emazte edo bikotekidea, eskupekoen truke burdeleko telefonoari erantzuten dion harreragilea edo gaixo edo bajaran dagoenean pisua lagun bati alokatzen dion sexu-langilea... horiek guztiak proxenetismoari buruzko legearen atzaparretan eror daitezke. Beraz, zerbait gertatuko balitz –adibidez, zure lantokia armadun gizonek lapurtzen badute–, zalantza egingo duzu poliziari deitu ala ez, beste batzuk arriskuan jartzeko beldurrez.

Christy Norman-ek Bournemouth-eko burdel batean lan egiten zuen; hirurogeita hamar urte zituen, eta lokala garbitzen zuen, astean bitan. Bezero bat zorabiatu egin zen, eta Normanek lagundu egin zion, anbulantziari deituz eta bihotz-biriketako bizkortzea eginez. Anbulantziakoekin batera, polizia ere azaldu zen; Norman atxilo eramane zuten, eta burdel bat eramateaz akusatatu.⁴⁰⁸ Berak asmo onez jokatu bazuen ere, erruduntzat jo zuten.

408 BBC (2017ko uztailearen 26a) «Lifesaving bid woman guilty of Bournemouth brothel charge», *BBC News*, bbc.co.uk.

Jakina, Dorset-eko sexu-langileek eta burdeletako beharginek ez diete berriro agintariei deituko larrialdi bat gertatzen denean.

Sexu-langile ugari (batzuetan, baita liburu honen egileek ere) besteren konturako lana bilatzen dute apropos, beren kasa lan egiten jarri beharrean, lehenago azaldutako arrazoiengatik. Pertsona horiek ez dute nahi beren nagusiekin duten harremana zigortzea; nahi dutena da botere handiagoa izatea harreman horren *barruan*. Izan ere, langileek, oro har, *beren lana mantendu* nahi izaten dute, baldintzak hobetuta. Sindikatuen oinarriko eskaera da hori. Era berean, mugimendu feminista ez litzateke poztu behar emakume batek lana galtzen badu lantokiko sexu-jazarpena salatu ondoren; galera hori kalte gisa ikusi behar litzateke, ez garaipen gisa. Baina, gure lantokiak kriminalizatuta daudenez gero, sexu-langileok *gure lana galtzen du* gure aurkako erasoak salatzen baditugu.

Managerrak eta antzeko pertsonak zigortzea emozionalki asegarria izan badaiteke ere, horrek ez du esan nahi ekintza horrek ondorio onak izango dituenik. Egiaz, erasotzaile gehienek ez dute atzera egiten kriminalizazioaren beldurrez. Drogen aurkako gerra huts egindakoari buruz ari dela, Neil Woods polizia sekretuak dio droga-trafikatzaileak harrapatzeko ahalegin arrakastatsuek indarkeria gehiago besterik ez zutela ekartzen:

Urtez urte, polizia gero eta hobea zen droga-trafikatzaileen taldeak harrapatzen, eta gangsterrek poliziari aurre egiteko duten modu eraginkorrena da are gehiago beldurtzea eta ikaratzea informatzaileak. Jendeak zuri buruz berba egiteari uzteko modurik eraginkorrena da inguruan izua zabaltzea. Beste hitz batzuetan esanda, talde kriminal antolatutak gero eta krudelago jokatzen ari ziren; hori zen ni egiten ari nintzenaren ondorio zuzena [...] Arma-lasterketa klasikoa da.⁴⁰⁹

Lagun artean antolatutako operazio kriminal aski lasaiak azkar desagertzen ari dira, eta, horien ordean, mertzenarioagoak izateko prestatuta dauden organizazioak agertzen ari dira; poliziaren informatzaileak hiltzeaz gainera, nahi gabe bada ere poliziari haien arrastoren bat ematen dion edonor hiltzen dute.

Gauza bera gertatzen ari da sexu-industrian. Escort-Ireland iragarki-plataforma oso ezaguna da, ordainpeko neska-lagunak

409 Aitkenhead, D. (2016ko abuztuaren 26a) «"I've done really bad things": The undercover cop who abandoned the war on drugs», *Guardian*, theguardian.com.

praktika esplotatzaileak egitera behartzen dituztelako eta ustez zibererasoak egin dituztelako etsai potentzialen aurka. Plata-forma hori ia monopolio bihurtu zen poliziak sarekada bat egin zuenean egunkarietan ordainpeko neska-lagunak iragartzen zituen sistemaren aurka.⁴¹⁰ Prostituzioa desagerrarazteko ahale-ginean –eta, hori lortu ordez, sexu-langileek beharrezko dituzten sistemak suntsituz–, debekuak krudelkeria eragiten du.

Beste aldera begiratzea

Hori guztia gorabehera, Britainia Handian sexu-lana kriminalizatzearen aurka –ASBO aginduak, isunak, kartzela, burdeletako sarekadak– lanean ari diren sexu-langileei erakutsitako elkartasuna deserosoa izan da, kasurik onenean. Adibidez, sare sozialetako iruzkingile feminista bat sexu-lanari buruzko politikaren inguruko eztabaida batean sartu zen, eta honako hau esan zuen: «Zigorrik gabeko sexu-lana, hori *da* Erresuma Batuko status quoa. Horrek kalte egiten badie [sexu-langileei], zer gertatuko da are gehiago hedatzen bada?».⁴¹¹ (Orain arte, sexu-langileek behin eta berriro argudiatu behar izan dute kriminalizazioa txarra dela; beraz, aldaketa ideologiko berri eta tamalgarria da azaldu behar izatea kriminalizazioa existitzen dela). Poliziaburuen Kontseilu Nazionalak jarraibide berriak argitaratu zituen, non proposatzen baitzuen bertan behera utzi behar zirela burdeletako sarekadak eta kaleko sexu-langileen aurkako polizia-operazioak; bada, prostituzioaren aurkako feministak, beste batzuekin batera, neurri horien aurka agertu ziren.⁴¹²

Feminista-mota horrek arazoak izan ohi ditu eztabaidaren terminologiarekin. Eskuarki, badirudi nahastu egiten dituela oso desberdinak diren lege-ereduak: Suediako ereduari «deskriminalizazio» deitzen diote, eta «deskriminalizazio» eta «legalizazio» terminoak sinonimotzat hartzen dituzte. Erresuma Batuko Amnesty Internationalaren Urteko Batzar Nagusiko eztabaida tirabiratsu batean, adierazi zuten Ameriketako Esta-

410 Bindel, J. (2017) *The Pimping of Prostitution: Abolishing the Sex Work Myth*, Londres: Palgrave, chapter 8.

411 Marina S (@marstrina) Twitter, 4:54 p.m., 2015eko ekainaren 7a: «@SoranaBanana decriminalised SW *is* the status quo in the UK. If that harms SWs, then how will extending it be better? #lylsc15».

412 Hirsch, A. (2016ko otsailaren 8a) «Police Could Stop Raids On Suspected Brothels», *Sky News*, news.sky.com.

tu Batuak –non erabateko kriminalizazioa baitago– «Suediako ereduaren» adibide bat direla (ikus 6. atala).⁴¹³ Nahiz gabeko edo nahitako akatsa izan, politika horiek kale gorrian uzten dituzte emakume kriminalizatuak. Mugimendu feminista ezin da borrokatu aktibistek izendatu ezin duten horren kontra.

Izan ere, prostituzioaren aurkako feminista ugarik aktiboki babesten dute kriminalizazio-molderen bat. 2014an, mugimendu feminista nagusiaren zati handi batek parlamentari-talde batek egindako txosten bat babestu zuen, non sexua saltzen duten emakumeen aurkako ASBO aginduen erabilera etengabea gomendatzen baitzen; halaber, Rhoda Grant Eskoziako politikari laboristak proposatutako lege bat ere aholkatzen zen, zeinen helburua baitzen sexu-zerbitzuen eskaintza kriminalizatzen jarraitzea.⁴¹⁴ Trish Godman politikari eskoziarrak sexuaren erosketa eta *salmenta* kriminalizatzeko proposamena egin zuen, eta txalotu egiten dute biltzar feministetan.⁴¹⁵ Prostituzioaren aurkako feministak kriminalizazioarekin itsututa daude, eta, lege-proposamen batek neurri hori barne hartzen duenean, ezbairik gabe babesten dute –dirudienez, sexu-langileentzat proposatzen dituen «xehetasunei» begiratu gabe–.

Britainia Handian burdelak eramateari buruzko legeen ondorio diren sexu-langileen atxiloketak «zehir-kalteak» izan daitezke feminista batzuentzat, zeinak, –isileko– moduren batean, benetan deitoratzen baitituzte gertaera horiek, nahiz eta uste duten «ezinbestekoak direla, guztion onerako». Sexu-lan-

413 Aleem, Z. (2015eko martxoaren 23a) «16 Years Since Decriminalizing Prostitution. Here's What's Happening in Sweden», *Mic*, mic.com; Ditum, S. (2015eko otsailaren 5a) «If you think decriminalisation will make prostitution safe, look at Germany's mega brothels», *New Statesman*, newstatesman.com. Nahaste sistematiko horretaz in Mullin, F. (2015eko urriaren 19a) «The difference between decriminalisation and legalisation of sex work», *New Statesman*, newstatesman.com; Liburuaren egileek ikusia, Amnesty UK AGM, Nottingham, 2017ko apirila.

414 All-Party Parliamentary Group on Prostitution and the Global Sex Trade: Shifting the Burden (2014), txostena hemen eskuratu daiteke: appgprostitution.files.wordpress.com, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua; Ingala Smith, K. (2015) «Standing up for All Women: Statement in response to London Young Labour Summer Conference Motion 8», *Karen Ingala Smith*, kareningalasmith.com; Zero Tolerance (2012) «Take action now – Consultation on prostitution laws closing soon», txostena hemen eskuratu daiteke: zerotolerance.org.uk, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

415 Godman, T. (2010) «Criminalisation of the Purchase and Sale of Sex (Scotland) Bill», Eskoziako Parlamentua, txostena hemen eskuratu daiteke: parliament.scot, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua; Kettles, L. (2016ko irailaren 9a) «Women are not for sale – women campaign against prostitution», *Third Force News*, thirdforcenews.org.uk.

gileen aurkako haserrera sentitzen duten beste batzuentzat, ostera, nahiz eta haiekiko elkartasuna erakusten duten, agian atxiloketa horiek estatuaren zigor-ekintzak ikusteko gogoaz piztu dezakete. (Emakume horietako batek aldi gogoangarri batean sexu-langile bati esan zion bezala, «benetan, ni honaino iritsi naiz: zurearen bezalako bizi batzuk sakrifikatu behar badira hamaika urteko neskato baten bizia salbatzeko... ni ados nago»⁴¹⁶ Erresuma Batuko prostituzioaren aurkako erakunde batek «legez kontrako burdel bat aurkitzeko aholkuak» eskaintzen ditu;⁴¹⁷ badirudi ez zaizkiela batere axola aholku horiek eragin ditzaketan atxiloketak, auzipetzeak, diru-lapurretak eta emakume sexu-langileen deportazioak. Glasgoven, joera feminista duen «laguntza-zerbitzu» batek dio atxiloketak *lagungarriak* izan daitezkeela prostituzioan jarduten duten emakumeentzat. Zerbitzuaren zuzendariak honako hau esan zien kazetariari: «Ez dugu itxaroten [prostitutek] esaten dutenera arte irten nahi dutela, eta gure eskuetan dagoen informazio guztia ematen diogu poliziarri [...] Gure esku dagoen guztia egiten dugu haiei laguntzeko. Akusazio [kriminal] bat ere izan daiteke, zeinik laguntza eskainiko dien sistema batera bideratuko baititu».⁴¹⁸

2016an, poliziak sarekada bat egin zuen Leedseko burdeletan, eta polizia batek kazetariari esan zien operazioaren helburua izan zela «zaugarriak babestea [...] Beti ez dira ohartzen berezaz baliatzen ari direnik, eta gure lanaren parte da haiei horretaz ohartaraztea». Sexu-langileek poliziei esan zieten langile mi-gratzaileak zirela, pasaporteak eta etxeko giltzak zeuzkatela eta sartu-irtenean ibiltzeko askatasuna zutela; halere, etxetik kanpora bidali zituzten, eta deportazio-aginduak eman zizkieten.⁴¹⁹ Sarekada horien bidegabekeria agerikoa bada ere, sexu-langileek bakarrik protestatu zuten; korrante nagusiko feministak eta trafikoaren aurkako mugimendua hormak baino isilago geratu

416 «bounce»-k adierazia on Murphy, M. (2013ko irailaren 4a) «Femen was founded and is controlled by a man. Exactly zero people are surprised», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

417 Nordic Model Now! (2017ko apirilaren 6a) «How to Spot an Illegal Brothel», *Nordic Model Now!*, nordicmodelnow.org.

418 Topping, A. (2013ko uztailaren 5a) «Tough or tolerant? Scotland turns up heat on prostitution debate», *Guardian*, theguardian.com.

419 Proctor, I., «Brothel shut down and prostitutes spoken to during human trafficking crackdown».

ziren. Erresuma Batuko Sexu Langileen Defentsa eta Erresistentzia Mugimendua [*Sex Worker Advocacy and Resistance Movement (SWARM)*] izeneko kolektiboko ekintzaile batek esan zigun bezala, «Sarekada horiek biolentoak eta oldarkorrak dira. Ohi bezala, prostituzioaren aurkako feministen babesak ez da inondik ageri sexu-langile migratzaileak atxilotu, etxegabetu edo deportatzen dituztenean».⁴²⁰

Swindoneko atxiloketen ondoren, sexu-langileak antolatu egin ziren, emakume errumaniarren deportazioak gerarazteko.⁴²¹ Prostituzioaren aurkako feminista gehienek ez zuten txintik atera, baina batek iradoki zuen beharbada emakume errumaniarrak proxenetak zirela azken finean.⁴²² Ideia hori argiro absurdoa da: lantoki batean hiru manager egon daitezkeela eta langilerik ez, eta manager horiek hogeitau urte inguruko emakume migratzaileak direla, Internet bidez beren sexu-zerbitzuak iragartzen dituztenak. Alison Phipps genero-ikasketen alorreko akademikoa da, eta, bere ustez, baieztapen absurdo horrek erakusten du «noraino iristen den jendea gaitzesten dituen pertsonen elkartasunik erakutsi behar ez izateko».⁴²³

Gutxieneko sentsibilitate feminista bat duen orok esaten du ez duela nahi sexua saltzen duten pertsonak atxilotzerik. Nolanahi ere, agerikoa da sexu-langileak atxilotzen ari direla, burdelak eramateari buruzko legeen ondorioz; eta, halere, prostituzioaren aurkako feminista gehienentzat egitate hori ezin da aipatu ere egin, haiek bultzatzen duten lege-ereduak mantendu eta are gogortu egiten dituelako lege horiek (ikus 6. atala). Egia horren funtsezko deserosotasunak erakusten du prostituzioaren aurkako feministak ez direla arduratzen emakume sexu-langileen ongizateaz, baizik eta beste zerbaitetaz, eta deserosotasun horrek ez ikusi ez jakin nahi ez izatearen kultura etsigarri bat

420 Mezu-truke pribatua.

421 SWARM (2017ko uztailaren 2a) «Call To Action: Release The Women! No Arrests, No Deportations!», *Sex Worker Advocacy and Resistance Movement*, swarmcollective.org; Seaward, T. (2017ko uztailaren 6a) «Campaigners hit out after immigration brothel raids», *Swindon Advertiser*, swindonadvertiser.co.uk.

422 Marina S (@marstrina) Twitter, 2:31 p.m., 2017ko uztailaren 3a: «From the local press report it's ambiguous whether these women were working in the brothels or operating them ... The lovely catch-all «sex worker», of course, allows the pimps to hide amongst the prostituted people».

423 Txio hori ezabatu egin zuten gerora; halere, Alisonen baieztatu egin die liburu honen egileei hori esan zuela txio batean.

sortzen du ezkerreko feministen artean. Sexu-langileak gero eta etsipen handiagoz saiatzen dira feminista horiei kriminalizazioaren inpaktua ikusarazten, baina haiek belarriak ixten dituzte.

Eskoizian, Ingalaterran eta Galesen, sexu-langileen egoera txarra da, eta okerragoa bilakatzen ari da. Drogaren aurkako lege gogorrak, pobrezia gero eta handiagoa eta migratzaileak xede dituzten politika are zorrotzagoak... guztiek elkar hartuta, sexukomertziala xede duen eta geruza anitzeko forma konplexuak hartzen dituen kriminalizazioa osatzen dute. Feminista punitiboek elkartasun urria eskaintzen diete emakume sexu-langileei. Hurrengo orrietan, munduko beste lekuetako sexu-langileen egoera ezagutuko dugu, aztertzeke nola eragiten dien zigor-zuzenbideak (edo horren gabeziak) beste testuinguru batzuetan sexua saltzen duten pertsoneri.

BOST

ESPETXE-NAZIOA: ESTATU BATUAK, HEGO AFRIKA ETA KENYA

Erabateko kriminalizazioa: Lege-eredua, sexu-langean parte hartzen duten guztiak (sexu-langilea, bezeroa eta bitartekoak –hala nola managerrak, gidariak eta etxejabeak–) kriminalizatzen dituena. Ugandan, Errusian, Iranen, Pakistanen eta Txinan ere erabiltzen dute eredu hau.

Prostitutak hautatu nituen biktimatzat [...] erraza baitzen haiek harapatzea, inor konturatu gabe. Banekien ez zutela berehalakoan emango haien desagerpenaren berri, eta beharbada ez zutela inoiz egingo. Prostitutak hautatu nituen, uste bainuen nahi beste hil ahal izango nituela inork ni harapatu gabe.

Gary Ridgway, Green River-eko Hiltzailea⁴²⁴

Guda-zelai ideologikoa

Beharbada uste duzu jende guztiak pentsatzen duela erabateko kriminalizazioa –zeinetan prostituta, bezeroa eta trukearekin lotutako pertsona oro atxilotu baitezakete– sistema izugarria, baldarra eta bidegabea dela. Nabarmena behar luke izan sexua saltzeko ekintza biziraupenerako estrategia ez-indarkeriazkoa dela; eta, halere, sexu-langilea kriminalen kategorian sartzen badute, poliziarekin duen harremana gatazkatsua bihur-

424 Ridgway AEBren historiako serieko hiltzailerik ezagunena da; 1980 eta 1990eko hamarkadetan, 48 neska eta emakume hil zituen gutxienez (eta ziurrenik askoz gehiago), Seattle-n. Eraso zituen emakume gehienak, baina ez denak, sexu-langileak ziren; asaldagarria da ohartzea nola ikusten zituen bere eraiketak prostituten kontrako polizia-lanaren jarraipen gisa. 2001ean atxilotu zuten, eta hau esan zion poliziarri: «Uste nuen zuei mesede bat egiten ari nintzela, prostitutak erailda [...] Zuek ezin dituzue kontrolatu, baina nik bai». Ikus S.J.A. Talvi «The Truth About the Green River Killer», *Alternet*, 2003ko azaroaren 11, alternet.org.

tzen da kolpean; sexua saltzea askoz arriskutsuago bihurtzen da; kartzela-zigorrik laburrenak ere bizitzak suntsitzen ditu; eta aurrekari penalak dituzten haiek, paradoxikoki, epe luzeko prostituzioaren gurpilean harrapatuta amaitzen dute, lan formaleko ezein enplegatzailek ez dituelako kontratatu nahi. Bi urteko epean, New Yorkeko Sarah Marchando zazpi bider atxilotu zuten prostituzioarekin lotutako delituengatik. «Ezin nuen esan: “Aizu, utzidazu lan bat aurkitzen”, nire bizitza ez delako egonkorra. Nire bizitzak ezin du egonkorra izan beste aldera begiratzen du-dan aldiro berriro kartzelan nagoela ohartzten banaiz».⁴²⁵

Itxura batean, badirudi «prostituzioari buruzko eztabaida» progresisten artean gertatzen dela; aitzitik, prostituten kriminalizazioaren erroetan nazka eta gorrotoa daude, misoginiarekin, arrazismoarekin eta *queer* ikusgarriekiko edo gorputz gaixoekiko beldurrarekin batera korapilatuta. Horiek guztiek bat egiten dutenean, iruditzen zaigu emakume prostituta zigorraren bidez baztertu beharreko mehatxu bat dela. Politika erreakzionario hori erabateko kriminalizazioaren aldeko lan ideologikorik handiena egiten ari da. Edonola ere, noizean behin norbait sistema horren azalari kolore aurrerakoi apur bat ematen saiatzen da. Tokiko egunkari batek honela dio: «Prince George Konderriko krimenaren aurkako brigadako Coleman sarjentuak dio bere helburua dela atxilotzen dituen emakumeei laguntzea, ez haiei kalte egitea».⁴²⁶ Arizonako polizia-agente batek aipatzen du garai berri batean gaudela, non «biktiman oinarritutako» polizia-kontrol adeitsua bultzatzen baita, baina beste hau ere gehitzen du: «Oraindik ere atxilotetak egin behar izaten dira biktimak proxeneta oldarkorregandik babesteko, eta, atxilotuak izan ondoren, emakumezko biktima batzuek beren bizitzaren errepasoa egiten dute».⁴²⁷

Prostituzioaren aurkako idazle ugari ia ukitu ere ez dute egiten erabateko kriminalizazioaren gaia, eta argi dago kasua itxiztat ematen dutela. Julie Bindel aktibista feministak liburu bat idatzi berri du: *The Pimping of Prostitution: Abolishing the Sex*

425 Gira Grant, M. (2016ko azaroaren 22a) «The NYPD Arrests Women for Who They Are and Where They Go – Now They’re Fighting Back», *Village Voice*, villagevoice.com.

426 Bell, B. (2013ko apirilaren 26a) «Prostitution led by growth of area gambling, police say», *WJLA*, wjla.com.

427 Walsh, J. (2017ko otsailaren 12a) «Sex-trafficking victims fight their way out of “the life” to help others», *East Valley Tribune*, eastvalleytribune.com.

Work Myth [Prostituzioaren proxenetismoa: sexu-lanaren mitoa abolitzea]. Liburu horren hasieran, «legezko bi ereduak» xehatzen ditu (bata, «eskandinaviar eredu»; bestea, legalizazioa edo deskriminalizazioa).⁴²⁸ Ez du aipatu ere egiten Sarah Marchando eta beste emakume batzuk atxilotzen dituen erregimen legala. Beraz, iradokitzen du benetako gudua beste nonbait dagoela, edo beharbada, *aipatzekorik ez dagoela*.

Nolanahi ere, erabateko kriminalizazioak hor jarraitzen du, eta hori da munduan nagusi den eredu. Errusian, Estatu Batuetan (Nevadako konderri batzuetan izan ezik), Txinan eta Kenyan, baita beste herrialde batzuetan ere, prostituzioa erabat kriminalizatuta dago. Beste kriminalizazio-molde «arri-nagoetatik» jariatzen diren kalte guztiek hemen dute jatorria; eta ezinbestekoa da kalte horiek aipatzea. Marchandoren ustez –baita AEBn urtero atxilotu, auzipetu, kartzelatu, deportatu edo isuntzen dituzten hamarka mila sexu-langileen (eta sexu-langiletzat jotzen direnen) ustez ere–, lehenbailehen ekin behar zaio eztabaida horri. «Inork ezer esaten ez badu, inork ez dio gaiari helduko», dio Marchandok.⁴²⁹

Alisha Walker eta GiGi Thomas emakumeak sexu-langileak dira. Nork bere kasa, beren biziak defendatu behar izan dituzte (eta, Walkerren kasuan, baita lagun batena ere) gizonezko eraso-tzaile biolento baten aurrean.⁴³⁰ Biek ala biek zigor latza jaso dute, etsiak eta izuak jota beren burua babesteko –bizirik irauteko– egindako ekintzengatik. AEBn, «babestu zure ondasunak» delako legeen itzalean, pertsona batzuek indar hilgarria erabiltzeko eskubidea dute baldin eta beren segurtasuna arriskuan dagoela iruditzen bazaie; emakume horiekin, berriz, izugarri bidegabea den beste irizpide bat erabiltzen da.⁴³¹ Ez halaberharrez, biak dau-

428 Bindel-entzat, hauek dira bi eredu horiek: «Legalizazioa/deskriminalizazioa» eta «eredu eskandinaviarra»; gure ustez, berriz, hiru eredu dira, guztiak ere guk liburu honetan (atal hau barne) jasotako bost eredu artekoak.

429 Gira Grant, M., «The NYPD Arrests Women for Who They Are and Where They Go – Now They're Fighting Back».

430 C.S. Becerril, «Why Is This Sex Worker In Jail For Surviving?» Fader, 2017ko otsailaren 16a, thefader.com. Gigi Thomas, «I am a survivor of violence», BPPP, 2017ko urtarrilaren 31, bestpracticespolicy.org.

431 Orain dela gutxiko kasu batean, Marissa Alexander-i epe luzeko kartzela-zigorra jarri zioten; oharpen-tiro bat egin zuen bere bikotekide oldarkorra zegoen alderantz, baina ez zen inor zauritu. Alexander emakume Beltza da, eta Floridan bizi da – George Zimmerman estatu horretan errugabetu zuten armarik gabeko Trayvon Martin gaztetxoaren eraiketatik, «babestu zure ondasunak» legean oinarrituta–. S.R. Brown,

de baztertuak, arrazagatik eta generoagatik: Alisha cis emakume Beltza da, eta GiGi, emakume trans Beltza. Prostituzioaren kriminalizazioak segurtasunerako eskubidea lapurtu zien, eta AEBko «justizia penaleko» sistemak –zeina ez baita eraiki GiGiri, Alishari eta haien antzeko emakumeei justizia bermatzeko– emakume Beltzekin eta emakume transekin duen jokabideak autodefentsarako eskubidea eta askatasunerako eskubidea lapurtu zien.⁴³²

Faxismoaren susperraldi gero eta nabarmenagoaren aurrean, progresista batzuentzat erraza da «pertsona onaren» jarrera hartzea; izan ere, egin behar duten bakarra da eskuin-muturreko politikarien ateraldi izugarri eta zakarren ezkerrean jarri. Egiturazko arazoak pertsonalizatu egiten dira; adibidez, Donald Trump eta antzeko pertsonaiengan. Baina Alisha eta GiGiren antzeko emakumeen segurtasuna bermatzeko, ezinbestekoa da «justizia penala» burutik burura eraldatzea. Zeregin hori ezin da utzi progresisten eskuetan; arazoa gaizki diagnostikatu, eta estatu punitiboa gogortu dezakete. (Esate batera, jendeak protesta ozena egin zuen pertsona Beltzak poliziaren eskuetan hil zirenean, eta Obamaren gobernuak milioika dolar bideratu zituen polizia-departamentuetara)⁴³³ Estatuaren kontrol punitiboak ehizarako zepo batek bezain azkar harrapatzen ditu GiGi eta Alisharen antzeko emakumeak. Kontrol horien formak eta segurtasun gabeziaren moldeak izendatuz soilik lortuko dugu tranpa horiek askatzen hastea.

Espetxe-nazioa

Feminismo hegemonikoak gehiegitan kokatzen ditu «polizia-indarkeria» eta «emakumeen aurkako gizonen indarkeria» kontzeptu-kategoria desberdinetan, baldin eta, noski, polizia-indarkeria mugimendu feministak jorratu beharreko gaitzat jotzera iristen bada.⁴³⁴ Hori hala da, bereziki, polizia-kontrolaren parte gisa «normalizatuta» dagoen indarkeriaren kasuan:

«Black woman's failed "Stand Your Ground" claim raises allegations of racial double standard», *New York Daily News*, 2013ko uztailaren 15a, nydailynews.com.

432 Support Ho(s)e (2017) «No Bad Whores: Year One», available support hosechi.tumblr.com, 28 June 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

433 NBC News (2014ko abenduaren 1a) «Obama Requests \$263 Million for Police Body Cameras, Training», *NBC News*, nbcnews.com.

434 Richie, B.E. (2012) *Arrested Justice: Black Women, Violence, and America's Prison Nation*, New York: NYU Press.

atxiloketak, jakina, baina baita lege-uraketak ere, hala nola intimitateari eragiten dioten gorputz-miaketak eta jazarpena-adibidez, kaleko miaketa inprobisatuak.⁴³⁵ Ondorioz, polizia-indarkeria feminismo hegemonikoa indarkeriaren aurka egiten ari den lanetik kanpo geratzen da. Alabaina, baldin eta polizia-indarkeria ulertzen badugu ez bakarrik estatu-indarkeria gisa, baizik eta baita (askotan) *gizonek emakumeen aurka egiten duten indarkeria* gisa, prostituzioaren kriminalizazioa beste era batean kokatzen da arretagunean: emakumeen aurkako gizonen indarkeriaren eragile nagusi gisa.

Kriminalizazioaren azpiegiturak goitik behera blaitzen du gure kontzientzia politikoa. Auzoan zaintza-lanetan dabilen polizia, Monopoly jokoaren taulan azaltzen den kartzela, poliziari buruzko telesaioa (non beti prostituta bat erailtzen baitute, hutsik egin gabe), gaizkileen eta polizien arteko auto-lasterketen irudiak albistegietan. Halakoa da irudien bonbardaketa, non azkenean irudiak ohikoak bihurtzen baitira, eta alde batera geratzen dira kontrol-molde horien legitimitateari edo xedeari buruzko galderak. Angela Davisek dioen bezala, kartzela «gure ingurune bisualaren ezaugarririk garrantzitsuetako bat da», eta, hala ere,

[...] ideologikoki, gune abstraktu baten gisan funtzionatzen du, non pertsona ez-desiragarriak jaurtitzen baitira, eta, hala, ez diogu geure buruari galdetu behar zein diren alde handiz preso gehienen jatorri diren komunitateei eragiten dieten benetako arazoak. Horixe da kartzelak egiten duen lan ideologikoa: gure gizartearen arazoekin –batez ere arrazakeriaren eta, gero eta gehiago, kapitalismo globalaren ondorio direnekin– zintzo engaiatzeko erantzukizunetik libratzen gaitu.⁴³⁶

Beth Richie teorialariaren arabera, *espetxe-nazioa* «nozio orokor bat da, legearen adarra jendea kontrolatzeko erabiltzeari buruzkoa, batez ere behartsuenak eta komunitate behartsuenetakoak».⁴³⁷ Berak sortutako termino horrek barne hartzen du ez soilik kartzela eta presondegien azpiegitura fisikoa, baina baita «zainketa, polizia-kontrola, atxiloketak,

435 SCOT-PEP (2013) «I felt so bad, so violated.» op. cit; Andrews, K. (2015eko abuztuaren 7a) «Stop and search is a disgrace across the UK – not just in our cities», *Guardian*, theguardian.com.

436 Davis, A.Y. (2003) *Are Prisons Obsolete?* New York: Seven Stories Press, 16–18.

437 Schenwar, M. (2014ko azaroaren 11) «Prisons Are Destroying Communities and Making All of Us Less Safe», *The Nation*, thenation.com.

baldintzapeko askatasuna, haurren zaintzari buruzko murrizketa gogorak [...] eta jendea bakartzeko eta desagerrarazteko beste estrategia batzuk».⁴³⁸

Beharbada, espetxe-nazioak magia-saioen oinarri bera du: «Ezer ez hemendik, ezer ez handik». Espetxeak jendea desagerrarazten du, eta kriminalizazioak inoiz baino ikusgarriago bihurtzen ditu pertsona horiek berak. Proxenetaren irudi guztiz arrazializatu eta Beltzen kontrakoa «esklabotzaren» erantzule gisa agertzen da; aldiz, espetxe-sisteman, zeina baita Ameriketako ondasun-esklabotzaren ondare material handienetakoa, gero eta preso Beltz gehiago pilatzen dira.

Polizia-departamentuen gero eta militarizazio handiagoaren bidez lotura zuzena sortzen da gaur egungo inperio estatubatuarraren mugez haraindiko gerra atzerritarren eta sakon-sakonki kartzelan oinarritua den etxe barruko gobernantzaren artean.⁴³⁹ *The New Yorker* astekariak jasotzen duenez, 1990eko hamarkadatik hona «tokiko gobernuek hogeita hamalau mila milioi dolar inguru jaso dituzte dirulaguntzetan Segurtasun Nazionalaren Departamentuaren eskutik beren ekipamendu militarra erosteko [...] Guztira, [Estatu Batuetako polizia-departamentuek] hogeita hemeretzi mila milioi dolar [gastatu dituzte ekipamendu militarrean], Alemaniak defentsarako izan duen aurrekontuaren guztizkoa baino gehiago».⁴⁴⁰ Joera bera ikus daiteke orobat kontrol polizialaren hango eta hemengo historian ere: XX. mendearen hasierako Estatu Batuetako taktika polizialak AEBko armada Filipinetan erabiltzen ari zen aginte kolonial basatian oinarritzen ziren; era berean, Erresuma Batuko kontrol poliziala armada britainiarrak herri kolonizatuak menderatzeko garatu zituen taktiketan oinarritu zen.⁴⁴¹

438 *Ibid.*

439 American Civil Liberties Union (ACLU) [Askatasun Zibilen aldeko Estatu Batuetako Batasuna] (2014) «War Comes Home: The Excessive Militarization of American Policing», hemen eskura daiteke: aclu.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

440 Filkins, D. (2016ko maiatzaren 13a) «“Do Not Resist” and the Crisis of Police Militarization», *New Yorker*, newyorker.com.

441 McCoy, A.W. (2009) *Policing America's Empire: The United States, the Philippines, and the Rise of the Surveillance State*, Madison, WI: University of Wisconsin Press; Bell, E. (2013) «Normalising the exceptional: British colonial policing cultures come home», *Mémoire(s), identité(s), marginalité(s) dans le monde occidental contemporain* 10, hemen eskura daiteke: journals.openedition.org.

Komunitateek sentitzen dute polizia okupazio-armada bat dela; *poliziak berak ere sentitzen du okupazio-armada bat dela*, eta sentipen horrek eragiten duen etsaitasunarekin erantzuten dio bidean gurutzatzen zaion jendeari.⁴⁴² Estatu Batuetan Beltzen bizitzen alde egiten ari diren borrokak eman duen argazkirik indartsuenetako batek sentipen horren alderdi bisuala erakusten digu: Baton Rouge-n (Louisina) ateratako argazki ikoniko batean Ieshia Evans emakume Beltz gaztea ikusten dugu, udako jantzi bat soinean duela goitik beherako babes-arropekin beraganantz datozen polizia lasai aurre egiten. Bitartean, elkar gainjartzen duten konplexu industrial militar eta kartzelakoek ehunka mila milioi dolar hartzen dituzte Estatu Batuetako altxor publikotik, Ieshiaren kontra egin zuen polizia armadura «babesle» futurista batekin janzteko; era berean, murrizketak egiten dituzte gizar-te-segurantzian, osasungintzan eta hezkuntzan, eta desinbertsio katastrofikoak Beltz jendeen komunitateetan.

Sexu-lanaren krimena

Prostituzioan oinarritutako atxilotetak arrazistak dira. Beti izan dira arrazistak. 1866an, San Frantziskoko polizak 137 emakume atxilotu zituen, «ia denak txinatarrak»; poliziak harrokeriaz adierazi zuen «hirurehun emakume txinatar kanporatu» zituztela.⁴⁴³ 1970eko hamarkadan, Eskubide Zibilen Estatu Batuetako Batasuna ohartu zen emakume Beltzek zuriek baino zazpi aldiz aukera gehiago zituztela prostituzioarekin lotutako delituengatik atxilotuak izateko.⁴⁴⁴ Desberdintasun hori ez da iraganeko erlikia bat: 2012 eta 2015 bitartean, New Yorken «prostituzioa xede atzera-aurrera ibiltzeaz» akusatutako pertsonen % 85 Beltzak edo latinoak izan ziren, eta bi talde horiek hiriko populazioaren % 54 baino ez dute osatzen.⁴⁴⁵ Prostituzioaren aurkako kontrol poliziala areagotzeak zera esan nahi du, kolo-

442 Economist (2014ko martxoaren 20a) «Cops or soldiers?», *Economist*, economist.com

443 Ritchie, A.J. (2017) *Invisible No More: Police Violence Against Black Women and Women of Color*, Boston, MA: Beacon Press, 146.

444 *Ibid.*, 149.

445 Testuinguru honetan, «atzera-aurrera ibiltzeak» esan nahi duen bakarra da toki publiko batean zutik edo oinez ibiltzea; hori eginez pertsona batek zer «lortu» nahi duen, hori normalean poliziaren iritzia araberakoa izaten da. A.J. Ritchie, *Invisible No More: Police Violence Against Black Women and Women of Color*, Boston, MA: Beacon Press, 2017, 150.

reko emakume gehiago atxilotzea. 2012 eta 2016 bitartean, New Yorkeko Polizia Departamentuak (NYPD) masaje-aretoen kontrol poliziala areagotu zuen. Melissa Gira Grant kazetariak dioenez, denbora-bitarte horretan New Yorken «lizentziarik gabeko masajeak emateaz» edo prostituzioaz akusatutako emakume asiarren atxiloketak % 2.700 handitu ziren.⁴⁴⁶ Kaleko atxiloketak egiten dituzten poliziek emakume Beltz eta latinoetan jartzen dute arreta –beharbada sexua saltzen ere ari ez direnak–, «jeans estuak» edo elastiko motzak eramate hutsagatik. NYPDak ez ditu atxilotzen emakume zuriak hiriaren eremu jendetsuetan jeansak eramateagatik.⁴⁴⁷

Arraza-desberdintasunek akusazioetan ere badute eragina, nori leporatzen zaion zer. Andrea Ritchie-k idatzia duen bezala, emakume Beltzek zuriek baino askoz aukera handiagoak dituzte «prostituzio-delitu larriagoekin lotutako akusazioak» jasotzeko.⁴⁴⁸ AEBn, pertsonen trafikoarekin lotutako delituekin kartzelaturako pertsonen proportzio aski handi bat hogei urte inguruko emakume Beltzak dira, zeinak sexua saltzen ari baitziren atxilotu zituzten unean.⁴⁴⁹ Emakume horiek sexu-trafikatzaile gisa auzipetzen dituzte, zer-eta sexua saltzen ari den beste norbaitekin lantokia partekatzeagatik, zeinak agidanez hamazazpi urte baititu, ez hemezortzi. Kate Mogulescu abokatuak galdetzen duen bezala, «hori al da pertsonen trafikoari buruzko gure zigor-lege federalaren helburua? Sexu-industrian diharduten 20-24 urte bitarteko koloreko emakumeak auzipetzea?». ⁴⁵⁰ Ritchiek Gloria Lockett-en kasuari buruzkoak aletzen ditu. Lockett emakume Beltza da, eta gerora sexu-langileen eskubideen aldeko COYOTE erakundea sortu zuen beste batzuekin batera. Behinola, «proxenetismoarekin lotutako delituengatik» atxilotu zuten beste emakume baten dirua gordetzeagatik, hark hala eskatuta. Arrazismoaren ondorioz, Locketti «proxenetis-

446 Gira Grant, M. (2017ko uztailaren 18a) «ICE is Using Prostitution Diversion Courts to Stalk Immigrants», *Village Voice*, villagevoice.com.

447 Gira Grant, G. (2016ko azaroaren 22a) «Interactive Map: See Where the NYPD Arrests Women Who Are Black, Latina, Trans, and/or Wearing Jeans», *Village Voice*, villagevoice.com.

448 Ritchie, A., *Invisible No More*, 146.

449 Law, V. (2017ko urriaren 8a) «How \$40 Can Land You in Prison for Seven Years and on the Sex Offender Registry for Life», *Truthout*, truthout.org.

450 *Ibid.*

moarekin lotutako delituak leporatu zizkieten; garai hartan, poliziak prostituzioarekin lotutako arau-hauste arin bat bakarrik egotzen zien emakume zuriei».⁴⁵¹

Prostituzioa guztiz kriminalizatzen duen lege-eredu baten ikuspegitik, bada disuasioa oinarri duen ideologia bat, zeinak sexu-langile bat sexua saltzeagatik zigortu behar litzatekeen ideia indartzen baitu; kolpe motz eta zorrotz bat, «gizalegezko balioekin» bat egin dezaten. (New Yorkeko politikari batek esan bezala, «batzuetan, jendea behartu egin behar duzu bere buruari lagun diezaion [...] beharbada akuilu bat behar dute, norbaitek esatea “Aizu, nahiko da, hau egiteari utzi behar diozu”»)⁴⁵² Baina, errealitate materialari dagokionez, kriminalizazioa ez da laguntza eskaintzen dizun esku soil bat, edo bizkarrean zaplatatxo bat ematen dizuna, bizkortu zaitezten. Askotan, «baldintzapeko askatasuna urratzeak» (adibidez, sexua saltzen jarraitzea, lehenago ere arrazoi berarengatik atxilotu bazaituzte) eta antzeko delitu batzuek prostituzio-delituak baino zigor latzagoak eragiten dituzte, hala nola kartzela-egunak, isunen orde. Kartzelatzeak esan nahi du emakumeak seme-alaben zaintza galduko duela seguru asko eta kaleratzen denean ez duela izango etxe edo aterperik,⁴⁵³ eginahalak egin beharko dituela enplegu «legitimo» bat bilatzeko eta gizarte-segurantzak eskaintzen dituen zerbitzu batzuetatik kanpo gera daitekeela; adibidez, babes ofizialeko etxe bat eskuratzetik at.⁴⁵⁴ Halandaze, pertsona bat «prostituta» izendatzen duen estatus penala tranpa bat da.

451 Sexua saltzen duten pertsonak nabarmenki proxenetentzat sortutako legediaren arabera auzipetzen dituzte maiz; hala, sexu-langileak antolatzearen aurka daudenean esan dezakete sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduan haien nagusiak daudela ezkutuan. Beste hitz batzuek esanda, sexu-langileok azalarazi nahi dugun injustizia hori bera gu alde batera uzteko «justifikazio» bilakatzen da. Ritchie, *Invisible No More*, 150.

452 Gruber, A., Cohen, A.J. & Mogulescu, K. (2016) «Penal Welfare and the New Human Trafficking Intervention Courts», *Florida Law Review* 68:5, 1333–402.

453 Askotan, kartzelan zeuden bitartean errenta ez ordaintzeagatik, ez besterik. Jurisdikzio batzuetan, haurren zaintzaileek lehentasuna izaten dute babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko; beraz, haurren zaintza galtzeak etxegabetzea ere ekar dezake berekin.

454 O'Hara, M.E. (2015eko abuztuaren 14a) «Sex workers want to talk to you about parenting», *The Daily Dot*, dailydot.com; Curtis, M.A., Garlington, S. & Schottenfeld, L.S. (2013) «Alcohol, Drug, and Criminal History Restrictions in Public Housing», *Cityscape*, 15:3, 37–52, hemen eskura daiteke: huduser.gov, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

Kriminalizazioa, askotan, «atxiloketen eta epaiketen ate birakari bat» da.⁴⁵⁵ Estatuak eragindako zaurgarritasuna zoritxar iraunkor «justifikatuaren» itxura duen zerbait bilakatzen da. Kanpotik begiratuta, badirudi droga-menpekotasuna duten sexu-langileak, zeinak etxerik gabe geratzearen eta seme-alabak galdu izanaren minari aurre egiten saiatzen ari baitira, beren oldez abiatzen direla bide zirimolatsu horretan barrena; hala, errazagoa da haiek gaiztotzat jotzea eta zigorrak «merezi» dituztela pentsatzea. Prostituzioaren aurka polizia hartzen dituen neurriek betiereko lotsaizuna ere banatzen dute han eta hemen modu zuzenagoan; esate batera, atxilotutako prostituten polizia-argazkiak eta izen osoak sare sozialetan zabalduta. Duela gutxiko kasu batean, Floridako polizia-departamentuak ezkutuko polizia bati sexu-zerbitzuen truke bazkaritarako menu bat eskatzen ari zen sexu-langile bati buruzko informazioa zabaldu zuen. Haren benetako izena eta argazkiak komunikabide askotan agertu ziren, kontu hura josteta balitz bezala, ez pertsona zaugarri baten abusu latza.⁴⁵⁶

2011. urtea baino lehenago, sexu-zerbitzuak eskainiz egindako «naturaren kontrako krimenak» [*Crimes Against Nature by Solicitation (CANS)*]⁴⁵⁷ zigortzen dituen lege mendetsu baten bidez, Louisianako sexu-langile batzuen izenak sexu-erasotzaileen zerrenda batean gehitu zituzten epe desberdinetarako (15 urte eta bizitza osoa bitartean).⁴⁵⁸ Zerrenda hartan zeuden emakume gehienak Beltzak edo langile transak ziren. Horrelako zerrenda batean sartzeak heriotza soziala dakar alde askotatik: etxebizitza bat eskuratzeko aukeratik kanpo geratzen zara, halaber gizarte-segurantzatik, lan gehienetatik eta zure komunitatetik kanpo. Etxeko indarkeria jasan duten pertsonen zuzendutako aterpeak erabiltzea ere galarazi diezazukete. Askotan ez dizute uzten

455 Fernandez, F.L. (2016) «Hands Up: A Systematized Review Of Policing Sex Workers In The U.S.», *Public Health Theses*, 1085, hemen eskura daiteke: elischolar.library.yale.edu, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

456 Kasu honi buruz aurkitu ditugun artikuluko guztietan emakumearen izena ageri da; etikoki, beraz, ezin dugu jaso aipurik.

457 Ikus Morrell (SB 381), 882. Legea, Louisianako lege-kodearena: «The unnatural carnal copulation by a human being with another of the same sex or opposite sex or with an animal ... (and) the solicitation by a human being of another with the intent to engage in any unnatural carnal copulation for compensation».

458 McTighe, L. & Haywood, D. (2017) «There Is NO Justice in Louisiana»: Crimes against Nature and the Spirit of Black Feminist Resistance», *Souls* 19:3, 261–85.

bizitzen edo egoten beste begiralerik ez duten umeekin, ezta zureekin ere. Zure gidabaimenean –zeina erakutsi behar baituzu trafikoko kontroletan, edo alkohola erosteko, edo zure herriko bankuan dirua sartzeko– «sexu-erasotzailea» irakur daiteke letra laranja handitan. Ustez, zerrendan dauden pertsonak sexu-indarkeriazko ekintza larriren bat egin dute, eta, beraz, bizilagunek zorrotz zaindu ohi dituzte. Katrina hurakanaren ondorengo garaian, aldameneko Florida estatuan hurakanaren biktimentzat prestatutako aterpe publikoetatik kanpo utzi zituzten zerrenda horretan ageri ziren sexu-erasotzaileak, eta, aldiz, kartzelara bideratu zituzten.⁴⁵⁹ Lege federalaren arabera trafikatzailerak gisa auzipetutakoak –baita haien burua soilik «trafikatu» dutenak ere; adibidez, atal honetan lehenago aipatu ditugun emakume Beltzak, sexua saltzen zutenak– oraindik agertzen dira sexu-erasotzaileen zerrendetan.⁴⁶⁰

Prostituten aurkako polizia-neurriek beste oztopo larri batzuk ere eragiten dizkiete sexu-langileei. Esate batera, haien kondoiekin jolasten dira, eta, hala, haien osasuna arriskuan jartzen dute (nahi gabeko haurduntzak, GIB birusa).⁴⁶¹ New Yorkeko polizia batzuek sexu-langile baten kondoiak zabaldu eta «estoldatik behera botatzen zituzten, behin eta berriro, hamar aldiz hilabetean». AEBko beste sexu-langile batek honela dio: «Kondo asko hartzen banituen, atxilotu egiten ninduten. Gutxi batzuk edo bakarra hartuz gero, amaitu egiten zitzaizkidan, eta ezin nuen neure burua babestu. Zenbat aldiz izango ote nituen babesik gabeko sexu-harremanak kondoiak eramateak beldurra ematen zidalako? Sarritan».⁴⁶²

Andrea Ritchiek idatzia duenez, New Yorken, 2000ko hamarkadaren hasieran, praktika hura hain zegoen hedatua, non

459 Prison Legal News (2005eko irailaren 15a) «Florida Bans Sex Offenders from Hurricane Shelters», *Prison Legal News*, prisonlegalnews.org.

460 Law, V., «How \$40 Can Land You in Prison for Seven Years and on the Sex Offender Registry for Life».

461 Open Society Foundations (2012) «Criminalizing Condoms: How Policing Practices Put Sex Workers and HIV Services at Risk in Kenya, Namibia, Russia, South Africa, the United States, and Zimbabwe», erreportajea hemen eskura daiteke: opensocietyfoundations.gov, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua; Open Society Foundations (2012ko uztailaren 13a) «Condoms as Evidence», bideoa, YouTube (erabiltzaile-izena: Open Society Foundations), youtube.com/watch?v=b0M6keZNIUM.

462 Human Rights Watch (2012) «Sex Workers at Risk: Condoms as Evidence of Prostitution in Four US Cities», erreportajea hemen eskura daiteke: hrw.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

askok uste baitzuten «hiru kondoiaren araua» zegoela, hau da, hiru kondoiarekin edo gehiagorekin harrapatuz gero prostituzioaz akusatzen ahal zintuztela... Egiaz, ez dago horrelako zenbaki magikorik. Neure begiz ikusitako atestatu batzuetan, kondoi bakarra zerrendatzen zuten froga gisa prostituzioarekin lotutako delituak egiten saiatzeagatiko salaketetan.⁴⁶³

Beste gertaera honek ere Gloria Locketti gertatutakoaren oihartzuna dakar. Emakume transgenero latino batek legegileei esan zien bera eta bere lagun bat kalean atxilotu zituztela eta «bere lagunari prostituzioa xede atzera-aurrera ibiltzea [lege-hauste arina] leporatu ziotela eta bera, berriz, adiskideari laguntzeaz [delitu astuna] akusatu zutela, kondoiak zeramatzalako».⁴⁶⁴

Teknologiak eta sexu komertzialak topo egin dutenez, prostituzioaren aurkako polizia-kontrola ere gero eta presenteko dago Interneten. 2010eko hamarkadan, Estatu Batuetan agerikoa izan da sexu-langileen iragarkiak erakusten dituzten onlineko plataformak higitzeko ahalegina. Craigslist, BackPage, RentBoy, Eros eta beste webgune batzuek iragarkien atalak itxi dituzte auzipetuak izateko mehatxuen ondorioz edo atxilotu egin dituztelako.⁴⁶⁵ RentBoy webgunea, adibidez, une batetik bestera erori zen 2015eko udan, poliziak sarekada bat egin zueanean haien bulegoetan; zuzendari nagusiak auzipetu zituzten.⁴⁶⁶

Publizitate-plataforma horiek galtzeak kalera bultzatzen ditu sexu-langileak. Eta kalean ikusgarriagoak direnez, errazagoa da poliziak atxilotzea edo manager baten menpe egon behar izatea. 2014ko udan, San Frantziskoko MyRedBook webgunea itxi zuten, zeinak iragarkiak eta mezuak argitaratzen baitzituen; hiriko sexu-langileek doako iragarkiak jartzeko eta bezeroak online aztertu eta hautatzeko aukera galdu zuten, baina ez hori bakarrik: baliabide komunitario pila bat galdu zituzten; besteak beste, kalteak murrizten laguntzen zien informazioa, hala nola

463 Ritchie, *Invisible No More*, 151.

464 *Ibid.*, 153.

465 Chiu, J. (2010eko azaroaren 8a) «Craigslist, Sex Work, and The End of “Innocence?”: Why Our Efforts to Address Sex Work Are Misguided», *Rewire News*, rewire.news; Levin, S. (2017ko urtarrilaren 10a) «Backpage's halt of adult classifieds will endanger sex workers, advocates warn», *Guardian*, theguardian.com; Simon, C. (2017ko azaroaren 10a) «The Eros Raid Means None of Us Are Safe», *Tits and Sass*, titsandsass.com.

466 CBS News (2017ko abuztuaren 2a) «Ex-CEO of male escort service website sentenced to prison», *CBS News*, cbsnews.com.

«hitzordu gaiztoen» zerranda, zeina bezero oldarkorren berri zabaltzeko erabiltzen baitzuten.⁴⁶⁷

Liburu hau idazten ari ginen bitartean, sexu-langileen iragarkiak argitaratzen dituzten webguneen hornitzaileak errazago auzipetu ahal izateko aukera ematen duten lege berriak onartu zituzten Ameriketako Estatu Batuetan. SESTA-FOSTA lege-multzooak (ikus sarrerako 79. oin-oharra) publizitate-plataformen kopuru handi bat zentsuratu zituen aldi berean 2018ko udaberrian, eta, hala, AEBko eta beste leku batzuetako sexu-langileak *are* egoera prekarioagoan utzi zituzten, erreka jota eta etsita ia egun batetik bestera, haien diru-iturria desagertu egin zelako. SESTA-FOSTA lege-multzooak *botere gehiago* eman zien bezeroei eta manager potentzialei, sexu-langileak itsumustuan atera baitziren kalera, edozein eratako lanaren bila. Bezero batek hau idatzi zuen: «Zinez uste dut honek zaleei [ohiko bezeroei] egingo diela mesede [...] prezioak jaitsi egingo dira, hornitzaileak [sexu-langileak] ez direlako gai izango bezero berriak erakartzeko eta eskura duten edozer hartu beharko dutelako. Zerbitzu bereziak [adibidez, kondoirik gabeko sexu-harremanak] ohikoagoak izango dira [...] Adeitsuagoak izan beharko dute, eta jada ez dute izango bezeroei ezetz esateko aukerarik».⁴⁶⁸

Estatu Batuen luze-zabalean, sexu-langileek adierazi zuten SESTA-FOSTA lege-multzoa onartu eta berehala testu-mezuen, deien eta bestelako gonbidapenen uholde bat jaso zutela; jende pila batek arduratu nahi zuen haien lanaz, kale gorrian geratutako langileak akordio potentzialki esplotatzaileetara erakarriz. Sexu-langile batek honela zioen: «Nola edo hala, mezuetan beti aipatzen dituzte onartu berri diren lege horiek. “Orain nire beharra duzu”. Benetan nazkagarria da; izan ere, legea onartu zutenek horrexen kontra borrokatzen ari zirela uste zuten, eta orain nire bizitzan sartu dute».⁴⁶⁹

Beste sexu-langile batek hau idatzi zuen: «Polizia Backpacke-n sartu ondoren, nire auzoko langile batzuek, berriki kaleko lana eta etxegabetasuna atzean utzia zutenek, etxe barruko se-

467 NSWP (2014ko ekainaren 27a) «Sex Worker Website Seized in Anti-Trafficking Sweep; No Trafficking Charges Entered», *NSWP*, nswp.org.

468 Smith, M. (@pastachips) Twitter, 12:46 p.m., 2018ko martxoak 24.

469 Du, S. (2018ko maiatzaren 16a) «How Congress» attempt to rescue sex workers threatens their safety instead», *City Pages*, citypages.com.

xu-lanaren mailarik beherenera iritsita, berriz ere toki berera itzuli behar izan zuten. St. James Ospitaletik esan zuten Mission barrutiko kaleetan jarduten zuten sexu-langileak laukoiztu egin zirela. Interneten, sexu-langileen komunitatea kalera itzultzen ari ziren langileen berri izaten hasi zen, zeinek ez baitzieten erantzuten ondo zeudela segurtatzeko egiten zitzaizkien deiei. Datu zehatz bat ematearren, apirilaren 14an hamahiru langile zeuden desagertuta, eta bi hilik zeudela egiaztatu zen».⁴⁷⁰

Paradoxikoa dirudi lege horiek, esplotazioaren aurka borrokatzeko helburu nabarmena dutenek, *esplotazioa erraztu* eta areagotzea. Azken finean, baina, ez da hain paradoxikoa: sexu-langileek bezeroekin harremanetan jartzeko duten gaitasuna murrizteak urritasuna areagotzen du beti, eta langileak zaurgarriago bihurtzen ditu. SESTA-FOSTA lege-multzook ekarri zuen berritasuna izan zen mundu gero eta konektatuago honetan AEBko kriminalizazioaren eragina mundu osoko sexu-langileen-gana iritsi zela. Erresuma Batuko sexu-langileek ere arropaladan aldatu behar izan zituzten iragarkiak beste webgune eta zerbitzari batzuetara, eta, aldaketa hori egin bitartean, lana galdu zuten. Beraz, legeak are prekarietate handiagoa ekarri zien langile horiei. Gure komunitateak dirua eta energia bildu behar izan zituen horren ondorioz ezinean zebiltzanei laguntzeko.

Kriminalizazioak dakar langileek alde batera utzi behar dituztela beren segurtasun-estrategia batzuk edo guztiak, polizia saihesteko itxaropenean. Aldi berean, jende oldarkorrari adierazten dio sexu-langileak itu «legitimoak» direla, nolabait, gizartearen bazterretan. Hego Afrikako sexu-langile baten hitzetan, garai batean

[...] oso ondo zegoen sexu-lanean jardutea, polizia-agentek ez zirelako gutaz arduratzen. Ez dakit zerk eraginda baina, gure kontuetan sartzen hasi ziren. Beraz, toki ilun eta baztertuagoetara joan behar izan genuen polizia saihesteko, gutaz abusatzen ari baitziren, eta orduan hasi ginen gure bezeroen harrapakina izaten.⁴⁷¹

Poliziakide izate hutsak jazartzeko, abusatzeko, estortsioa egiteko eta bortxatzeko bidea zabaltzen du. Chicagoko emakume

470 Simon, C. (2018ko apirilaren 25ean) «On Backpage», *Tits and Sass*, titsandsass.com

471 Mgbako, C.A. (2016) *To Live Freely in This World: Sex Worker Activism in Africa*, New York: NYU Press, 47.

gazte batek berari gertatutakoa kontatzen du: «Polizia-agente bat hurbildu zitzaidan, eta esan zidan berarekin sexu-harremanak izanez gero ez ninduela atxilotuko. Beraz, halaxe egin nuen. Bukatu genuenean, halere, eskuburdinak jarri zizkidan, eta salatu egin ninduen».⁴⁷² Beste batek honela dio: «Bezero berri batekin elkartzera nindoan, baina polizia-agente batek prestatutako tranpa bat zen. Eraso egin ninduen, eskuburdinak jarri zizkidan eta gero bortxatu egin ninduen. Polizia-etxerako bidean apur bat txukundu ninduen, eta lau hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zidaten prostituzioagatik».⁴⁷³

Legez kontrako botere-abusu horiez gain, estatuak formaliki babesten du poliziek sexu-harremanak izatea prostitutekin. AEBren luze-zabalean, polizia-agenteek sexu-harremanak izan ohi dituzte «prostituzioarekin lotutako ezkutuko operazioetan», eta, jakina, eiakulatu ondoren atxilotzen dituzte langileak.⁴⁷⁴ Alaskan, lege-proposamen bat aurkeztu zuten, ezkutuko poliziei debekatzeko sexu-langileekin sexu-harremanak izatea; Anchorage-ko polizia-departamentuak aurre egin zion proposamenari, argudiatuz sexu-harremanik izan ezean zailagoa dela prostituzio-jarduna frogatzea.⁴⁷⁵ Onartuko al luke sexu-langileren batek sexu-harremanak izatea, ondoren atxilotu egingo dutela jakinda?

Prostituzioaren aurkako lege bat aurrerakoa izan daiteke?

Henrico konderrian, Virginia, emakumeen espetxea gainezka dago. 200 ohe tolesgarri eskatu behar izan dituzte. Emakumeek korridoreetako behegainean lo egiten dute, eta espazio komunetan eta bete-bete egindako ziegetako ohatzeen artean. Prostituzioaren eta pertsonen trafikoaren aurkako neurriak asko

472 Angel Torres, C. & Paz, N. (2012) «Bad Encounter Line Report», Emakume Gazteak Ahalduentzeko Proiektua, txostena hemen eskura dauteke: ywpchicago.files.wordpress.com, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

473 *Ibid.*

474 Delako polizia-agenteak honela erantzun zuten: «Galdetzen badidazu ea orgasmo bat izan nuen, bai. Lana zen, jauna [...] Ez nuen plazerik sentitu hori egitean. Ordaindu egiten zidaten hori egiteko». Beste hitz batzuek esanda, sexu-langileak kriminalizatu nahi zituen, eta, halere, argudiatu zuten beretzat legezkoa dela lanaren barruan sexu-harremanak izatea. Ikus: «Cop: Sex With Hooker Wasn't Fun, It Was Work», *Fox News*, 2008ko abuztuaren 22a, foxnews.com.

475 Boots, M.T. (2017ko maiatzaren 7a) «Bills to ban police sexual contact with prostitutes they investigate met with opposition», *Anchorage Daily News*, adn.com.

oldartu dira, horregatik daude orain kartzelak jendez mukuru. «Emakume gehiago daude, eta kartzela-zigor luzeagoekin».⁴⁷⁶

Esan dugun bezala, prostituzioaren aurkako polizia-neurri askok kolore aurrerakoia dute azalean. Batzuetan esaten da atxilotetak «ezinbestekoak» direla beste helburu batzuk lortzeko: esate batera, legegile batek kazetari bati esan zion ezinbestekoa dela prostitutak atxilotzea, zeren poliziak ez balu edukiko atxiloteten eta auzipetzearen «abantaila», ezin izango lukete jendea behartu poliziaren ustez trafikataileak diren horien kontrako lekukotza ematera.⁴⁷⁷ Lauren Hersh Equality Now erakunde feministaren New Yorkeko zuzendaria da; bere ustez, sexu-saltzaileen atxiloteta «dilema etikoz eta giza eskubideen balizko urraketez josita egon daiteke», eta, halere, erabilgarria da hainbat modutan. Adibidez, dio, «fiskalentzat errazagoa izan daiteke konfiantzazko harreman bat eraikitzea atxilotuta dagoen biktimarekin».⁴⁷⁸

Estatuak pertsonen trafikoaren aurka egiten duen operazio oro atxiloteta batekin hasten da. AEBko hedabideek, oro har, «erreskate» deitzen diete atxiloteta horiei, eta, hala, sexu-merkataritzan diharduten pertsonen atxiloteta zerbait aurrerakoitzat agerrarazten dute, eta, gainera, aktiboki humanitariotzat.⁴⁷⁹ Testuinguru horretan, inor gutxi jar diezaioke eragozpenik pertsonen trafikoaren aurkako borrokari.

Harrapatzen dituztenentzat, ordea, atxiloteta horiek zeharo traumatikoak dira. Celia zazpi aldiz atxilotu dute, eta honela mintzo zitzaizen ikerlariei:

Sarekada horiek desatseginak eta beldurgarriak dira. Poliziek [...] atea apurtzen dute, eta pistola eskuan sartzen dira! Hasieran, izugarria eta artegarria da. [Poliziak] edozer egiteko gai dira, ez dakizu zer egingo duten [...] Benetan izugarria da; batzuetan, oso haserre badaude, ez dizute janz-

476 O'Connor, M. (2017ko urriaren 8a) «Henrico jail strikes deal with Chesterfield after female inmate population more than doubles», *Richmond Times-Dispatch*, richmond.com.

477 Metcalf, A. (2017ko ekainaren 11) «Human Trafficking Cases Rise in Montgomery County», *Bethesda Magazine*, bethesdamagazine.com.

478 Hersh, L. (2013) «Sex Trafficking Investigations and Prosecutions» in Goodman, J.L. & Leidholdt, D.A. (ed.) «Lawyer's Manual On Human Trafficking: Pursuing Justice For Victims». New York Estatuako Auzitegi Gorena, txostena hemen eskura daiteke: nycourts.gov, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

479 Biedka, C. (2018ko urtarrilaren 4a) «Eight arrested in Frazer prostitution, human trafficking investigation», *Trib Live*, triblive.com.

ten uzten. Laneko arropekin eramaten zaituzte [...] Beldur hori ez duzu inoiz gorputzetik egozten. Ez da desagertzen. Hori sentiarazten dizute.⁴⁸⁰

Lily bost aldiz atxilotu dute, eta honela dio: «Pistolak eta uniformeak zeuzkaten, eta asko beldurtu ninduten, Ez ziguten ezer esan. Atxiloketan kriminalak bagina legez tratatu gintuzten, eta oso beldurgarria izan zen».⁴⁸¹

Aya Gruber, Amy Cohen eta Kate Mogulescu-k idatzia dutenez, AEBko justizia penaleko sistemak norabide-aldaketa bat egin du berriki, autoreek *ongizate penaleko sistema* izendatu dutenerantz.⁴⁸² Hau da, autoreek diotenez, «gero eta gehiagotan erabiltzen dituzte auzitegi penalak gizarte-zerbitzu eta -laguntzak emateko»; «“kartzelatze masibo” terminoa guztiontzat ezaguna den garai honetan, eta krimenaren aurkako neurri gogorren eta leiho hautsien ideologiaren uste ona gero eta eskasagoak direnean, ongizate penalaren bidez zuzenbide penalarik gogor eusten dioten erakundeek lanean jarrai dezakete, konfiantza publikoaren krisia gero eta handiagoa bada ere».⁴⁸³ Horren adibide dira Safe Harbours [babesleku segurua] legeak, zeinek aukera ematen baitute sexua saltzen duten adin txikiko gazteak nahitaezko zerbitzuen sistema batera bideratzeko; horretarako, gazteok atxilotu, eta justizia penaleko sistemaren zehar gidatzen dituzte. Ikerlariak ohartu dira ohiko atxiloketa horiek «ezegonkortasuna sortzen dutela eta betikotu egiten dutela gazteek beren biziraupenerako sexu-lanetan jarduteko duten beharra», eta, hala, sistemak konpondu nahi dituen kalteak ez dira txikitzen, handitu egiten dira.⁴⁸⁴

New Yorken pertsonen trafikoaz arduratzen diren epaitegiek ongizate penalaren beste adibide bat osatzen dute. Haien aldekoek argudiatzen dute zerbitzuak ematera iristeko apurkako aldaketa bat direla, prostituzioagatik atxilotutako pertsonak trafikoaren biktima gisa tratatu behar direlako. Nolanahi ere

480 Ditmore, M. (2009) «The Use of Raids to Fight Trafficking in Persons», Sex Workers Project, txostena hemen eskura daiteke: sexworkersproject.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

481 *Ibid.*

482 Gruber, A. et al. «Penal Welfare and the New Human Trafficking Intervention Courts».

483 *Ibid.*

484 Dank, M. et al. (2015) «Locked In: Interactions with the Criminal Justice and Child Welfare Systems for LGBTQ Youth, YMSM, and YWSW Who Engage in Survival Sex», *Urban Institute*, txostena hemen eskura daiteke: urban.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

den, emakume bat atxilotzea dakarte berekin. (Aterki Gorriaren Proiektuak jakinarazi zuen akusatuen % 98 baino gehiago emakume cis eta transak direla).⁴⁸⁵ Gero prostituzioagatik auzipetzen dituzte, baina zigorra zerbitzuak egitea izan daiteke, ez kartzela-zigorra. Jendaurrean sexu-zerbitzuak eskaintzeagatik delituen % 94 emakume Beltzei egotzen zaizkie, baita Brooklyneko trafiko-epaitegietara bideratzen diren prostituzio-delituen % 70 ere.⁴⁸⁶ Immigrazioko poliziak pertsonen trafikoaren epaitegi horietara joaten dira deportatuak izateko baldintzak betetzen dituzten pertsonen bila, eta, halakoetan, zalaparta handia sortzen da; halere, AEB osoan ohikoa da prostituzioagatik zigor batek «immigrantea berehala deportagarri bihurtzea». Hala bada, askoz zailagoa da prostituzioagatik atxiloteten justifikazio «humanitarioa» defendatzea.⁴⁸⁷

Emakume akusatuak drogekin lotutako karguak baditu aurrekarietan, hainbat aste igaro ditzake espetxean «ebaluazioaren» zain, eta gero «hainbat hilabete igaro beharko ditu drogazaletasuna tratatzeko programa batean, zeina kartzelaren oso antzekoa baita».⁴⁸⁸ «Kasu konplexuak» dituztenei prebentziozko espetxeratzea agindu diezaiekete; askok ezin dute ordaindu kartzelatik ateratzeko fidantza, eta, beraz, New Yorkeko Riker Island kartzela ezagunean sartzen dituzte, epaiketa-eguna iritsi arte. Auzitegien egitekoa da epaia ematea, kontrolatzea eta zigorra ezartzea, eta, beraz, halabeharrez gertatzen da kontraesana sortzea auzitegien eta akusatuaren ageriko «biktima»-estatusaren artean. Fiskal batek uko egin zion emakume gazte bati zerbitzuak eskaintzeari, eta honela azaldu zuen:

[...] horrenbeste aldiz atxilotu dute prostituzioagatik, eta horrenbeste estatutan. Agi dago biktima bat dela [...] Baina, halere, hainbeste bider atxilot dute, ezen [...] Esan dut ordena publikoaren nahasmendua onartuko dudala; jada kartzelan egindako denbora kontuan har dezatela, eta

485 Aterki Gorriaren Proiektua NYC (RedUP NYC) (2014) «Criminal, Victim, or Worker? The Effects of New York's Human Trafficking Intervention Courts on Adults Charged with Prostitution-Related Offences», hemen eskura daiteke: redumbrellaproject.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

486 *Ibid.*

487 Gira Grant, M., «ICE is Using Prostitution Diversion Courts to Stalk Immigrants».

488 Crabapple, M. (2015eko urtarrilaren 7a) «Special Prostitution Courts and the Myth of «Rescuing» Sex Workers», *Vice*, vice.com.

Kaliforniara itzuliko ahal izango du... eta hobe du [atxiloketa hau] azkena izatea, ez dut nahi-eta jendea Queens-era etortzerik [pentsatuz]: «A, Queensen ondo portatzen dira zurekin».⁴⁸⁹

Akusatuak kaleratuak edo kartzelatuak izan daitezke «haien hobe beharrez». Fiskal bat «pozik» zegoen, emakume bat kartzelara bidali zuelako, eta honela azaldu zuen: «Ez dut nahi F. andrea bere mutil-lagun ohiarengana itzultzea, eta berdin dit hura zer den berarentzat. Nire ustez, mutil-laguna F. andrea esplotatzen ari da, eta hori ez da egoera on bat, Epaille. Berriz [kartzelara] eramateko eskatzen dut».⁴⁹⁰

Zerbitzuak lortzen dituzten emakumeentzat ere, auzitegiaren bidez eskura daitezkeen zerbitzuak ez dira nahitaez akusatuak behar dituenak. Askotan, epe motzera begira zalan-tzazko balioa duten jarduerak esleitzen zaizkie, hala nola yoga, arte-terapia edo terapia psikologikoa, eta, horietan parte hartzen ez badute, berriz atxilotuak izateko arriskua dute.⁴⁹¹ Jenna Torres ama da, eta adin txikikoa zela atxilotu zuten, New Yorken, prostituzio-delituak egotzita. Honela dio:

Auzitegiek eskainitako tratamendu-programa ez zetorren bat nire beharrekin. Ez nuen behar sexu-lanagatik tratatzea. Hori ez da gaixotasun bat [...] Denbora hura beste zeregin batzuetarako behar nuen. Saiok eragotzi egin zidaten niretzat eta nire seme-alabentzat ingurune hobeago bat sortzea, sexu-lanera jo behar ez izateko [...] Nire egoerarekin bat ez zetozen aukerak eskaini zizkidaten, eta iradoki zidaten sexu-lana egiteari utziz gero nire bizitza magiaz bezala hobetuko litzatekeela. Sexu-lanean jarduteari uzten badiot, ez dut dirurik irabaziko.⁴⁹²

Auzitegiak agindutako terapiaren ondorioz, Torresek uni-bertsitatea utzi behar izan zuen, ez zeukalako bietara joateko denborarik. New Yorkeko RedUp proiektua gidatzen duen sexu-langileak dioen bezala, «Kriminalizazio-ziklo horren ondorioz, zailagoa izan daiteke sexu-merkataritzatik ateratzea, baldin eta hala egin nahi badute, batez ere ezarritako zerbitzuak osorik egi-ten ez dituztenentzat».⁴⁹³

489 Gruber, A., et al. «Penal Welfare and the New Human Trafficking Intervention Courts».

490 *Ibid.*, 1376.

491 RedUP NYC, «Criminal, Victim, or Worker?», 8.

492 Torres, J. (2015eko irailaren 22a) «How New York City's Treatment of Sex Workers Continues to Harm Us», *Rewire News*, rewire.news.

493 RedUP NYC, «Criminal, Victim, or Worker?», 25.

Ez dago erabateko kriminalizazioaren bertsio progresistarik. Abusuak –hala nola polizia-neurri arrazistak, ustelkeria eta sexu-erasoak– sexu-langileen zaurgarritasunari lotuta daude oinarri-oinarrian, zeinek, kriminalizat jotzen dituztenean, baliabide urriak baitituzte justizia edo babesa eskuratzeko. Sexu-langileak kriminalizatuta dauden nazio guztietan, biktimen ahultasunari etekina ateratzen dioten poliziaiei buruzko istorioak azaleratzen dira; jipoitu eta bortxatu egiten dituzte eta xantaia egiten diete, halako moldez non sexu-langileek beldur handiagoa baitiete poliziaiei bezeroei, managerrei eta publikoari baino. «Poliziaak dira gure arazorik handiena, beste inor baino handiagoa», dio Lagos-eko (Nigeria) sexu-langile batek; «uniformea janzen dutenean, gurariak ematen diena egin dezaketela uste dute». ⁴⁹⁴

Kriminalizazioak gizatasuna kentzen die sexu-lanean diharduten pertsoneri, halako moldez non herritarrek askotan ez baitituzte ikusten –edo ez dituzte aintzat hartzen– haien kontrako tratu txarrak. Mikhail Popkov errusiarra polizia-agentea zen, eta hemezortzi urtean laurogeita bi emakume hil zituen, kaleak prostitutez «garbitzeko» berak abiatutako gurutzadan; bada, zigorrik ez jasotzea lortu zuen. ⁴⁹⁵ (Batzuetan, bere burua eskaintzen zuen sexu-langileak leku batera edo bestera eramateko, eta hala lortzen zituen biktimak; birritan, berak egindako erailketak ikertzeko zeregina esleitu zioten). ⁴⁹⁶ Chi Adanna Mgbako-k Ugandako polizia-agente bati buruzkoak idatzi ditu, zeinak «kirol grotesko bihurtu baitu lanean jarduten duten sexu-langileei izugarrizko kalteak eragitea [...] biluztu egiten ditu, eta herrian zehar ibiltzera behartu». ⁴⁹⁷ Baina nahiz eta eraso publiko eta ikusgarri horiek egin zituen, biktimek salatu zutenean gauza bakarra egin zuten polizia-arduradunek; alegia, beste unitate batera eraman zuten, non, sexu-langileek diotenez, indarrez sartu baita emakume haurdunen eta bular-emaileen etxeetan eta «ileetatik tiratuz eta arrastaka eraman ditu polizia-etxera». Mgbakok beste

494 Mgbako, C.A., *To Live Freely in This World*, 55.

495 Lusher, A. (2017ko martxoaren 28a) «Werewolf murderer tells police: "I may be one of Russia's worst serial killers, but I was a good husband"», *Independent*, independent.co.uk.

496 Daily Express (2017ko urtarrilaren 11) «Russia's worst serial killer claimed 81 FEMALE VICTIMS as he hates women drinking alone», *Express*, express.co.uk.

497 Mgbako, C.A., *To Live Freely in This World*, 55.

gertakizun bat ere kontatzen du: polizia batzuek sexu-langileen talde bati eraso zioten jende-multzoo handi baten aurrean, zeinek poliziak adoretu baitzituzten oihu biziz emakumeak atxilotu eta handik eramateko: «Eraman, eramán, gure zakarra da».⁴⁹⁸

Hego Afrikan, *apartheid*ak utzitako ondare instituzional basatia erabateko kriminalizazioarekin nahasten da, eta horrek eraso bereziki bortitzak eragiten ditu.⁴⁹⁹ Esate batera, Johannesburg-eko poliziak piperbeltz-espraia bota ohi die sexu-langileei genitaletan.⁵⁰⁰ Batez ere, gizonezko sexu-langileei eta emakume transei oldartzen zaizkie. Behinola, Lurmutur Hiriko polizia batzuek gizonezko sexu-langile gazte bat atxilotu zuten, eta ziegako gainerako gizonak hura sexualki erasotzera adoretu zituzten.⁵⁰¹ Beste behin, Lurmutur Hiriko epaitegi batek erabaki zuen polizia nahierara ari zela sexu-langileak atxilotzen, haiek akusatzeko asmorik gabe, soilik haietaz abusatzeko edo haiek jazartzeko poliziaren furgonetan edo ziegetan.⁵⁰²

Eraso horien egileak, baita izugarri eta sadikoenak ere, ez dira anomalia bitxiak. Prostitutak baliogabetzat eta kriminal baztergarritzat jotzen dituen edozein lege-sistematan behin eta berriro agertzen den sintoma bat da. 2015ean, Oklahoma-ko epaimahai batek Daniel Holtzclaw polizia zigortu zuen, hemezortzi bortxaketa egin zituelakoan.⁵⁰³ Bere biktimak diru-sarrerara txikiko emakume Beltzak ziren, zeinek aurrekari kriminalak baitzituzten edo portaera kriminaletan parte hartzen baitzuten;

498 *Ibid.*

499 Berriki Hego Afrikan mila sexu-langilerekin baino gehiagorekin egindako ikerketa batean, gehienek (% 54) adierazi zuten aurreko urtean nolabaiteko indarkeria fisikoa jasan zutela, hala nola jipoiak, bortxaketak eta sexu-indarkeriaren beste aldaera batzuk. Horiek artetik, % 55ek diote erasotzaileen artean polizia zegoela. NACOSA & Sex Worker Education and Advocacy Taskforce (SWEAT), «Beginning to build the picture: South Africa National survey of sex worker knowledge, experiences and behaviour», txostena, 2013ko urtarrilaren 15a, hemen eskura daiteke: hivsharespace.net or sweat.org.za.

500 Arnott, J. & Crago, A. (2009) «Rights Not Rescue: A Report on Female, Male, and Trans Sex Workers» Human Rights in Botswana, Namibia, and South Africa», *Open Society Institute*, txostena hemen eskura daiteke: opensocietyfoundations.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

501 *Ibid.*

502 SAFLII (2009ko apirilaren 20a) «The Sex Worker Education and Advocacy Taskforce v Minister of Safety and Security and Others (3378/07) [2009] ZAWCHC 64; 2009 (6) SA 513 (WCC)», txostena hemen eskura daiteke: saflii.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

503 Crockett, E. & Garcia, M. (2016ko urtarrilaren 21a) «Ex-cop Daniel Holtzclaw was just sentenced to 263 years in prison for raping black women», *Vox*, vox.com.

batez ere, droga-kontsumoa eta sexu-lana. Holtzclaw emakume horiek erasotzera ausartzen zen, bazekielako bi aldean arteko botere-desberdintasun ikaragarria zela eta ia ezinezkoa zela inork berari kargu hartzea. Azkenean, Jannie Ligons eraso zuelako harrapatu ahal izan zuten, aurrekari kriminalik gabeko emakume bat, erasotzailea salatzekeo beldur ez zen emakume bat, zeinaren salaketa serio hartu baitzuten. Justizia-sistemak erakutsitako gutxieneko errespetu hori zen beste emakumeengandik bereizten zuen bakarra. Holtzclawek berak argi eta garbi aipatu zuen logika hori; zigorra jaso ondoren, kexa hau agertu zuen elkarrizketa batean: Ligons «ez da erugabea, jendeak uste duen bezala. 1980ko hamarkadan, atxilotu egin zuten [...] baina ezin izan dugu gertaera hori aurkeztu epaimahaiaren aurrean. Ez da emakume bat, badakizu, parkeko amak bezalakoa, edo gizartearen aurrean sinesgarria dena».⁵⁰⁴

Argi eta garbi, Holtzclaw –prostituten erasotzaile eta hiltzaile guztiak bezala– bat dator berak polizia gisa aplikatu beharreko legeek egiaztatzen duten ideia honekin: gorputz kriminala zaurgarria da. Emakume kriminalizatuak harrapakin erraza dira.

Gorputz asaldatuak

Cyntoia Brown-en kasua albistegietako titularretan azaldu zen denboraldi labur batez 2017an, Rihanna eta Kim Kardashian West ospetsuek eta beste batzuek jakinarazi zutenean zer gaizki tratatu zuen justizia penalaren sistemak.⁵⁰⁵ Hamasei urterekin, Cyntoia abusuzko harreman bat izan zuen sexua saltzera behartu zuen gizon batekin. Cyntoia hitzordua jarri zuen bezero batekin, eta, haren etxera joan zenean, bezeroak mehatxatu egin zuen eta eraso egin zion. Cyntoia tiro egin zion bere bururen defentsan. Epaimahaiak ez zuen onartu Cyntoia bere bizitza babesten ari zen emakume gazte traumatizatu bat zela; hiltzailetzat jo zuten, eta mende Erdiko espetxe-zigorra ezarri. Rihannak eta Kim Kardashianek bere kasuaren berri zabaldu zutenerako, Cyntoia hogeita bederatzi urte zituen; beraz, ordurako kartzelan eginak zituen bere bizitzako hamabost urte inguru.

504 Diaz, J. et al. (2016) «How the Daniel Holtzclaw Jury Decided to Send the Ex-Oklahoma City Police Officer to Prison for 263 Years», *ABC News*, abcnews.go.com.

505 Guardian Staff (2017ko azaroaren 27a) «Cyntoia Brown: Celebrities call for release of sex-trafficking victim», *Guardian*, theguardian.com.

Cyntoiaren kasua ez da ohikoa. «Delitua» egin zuen garaian oso gaztea zen, eta, beraz, errazagoa zen herritarrentzat berataz erruki izatea. Mariame Kaba kartzelak abolitzearen aldeko militantea da, eta Brit Schulte, sexu-langileen eskubideen aldekoa; bi militanteek nabarmendu zuten Cyntoiari buruzko albiste ugarietan hamasei urte zitueneko irudiak erakusten zirela. Hona hemen Kaba eta Schulteren hitzak:

Ezin ote zaio errukirik izan biktima den 29 urteko emakume Beltz heldu bati? Erantzuna ezezkoa bada, zergatik? Askotan, trauma eta erresilientzia ez dira kontuan hartzen, hedabideek eta publikoak biktima perfektua soilik babesteko irrikaz daudelako. Biktima perfektuak otzanak dira, ez oldarorrak; ez dute droga-kontsumoaren aurrekaririk, eta aldeztu aurretik ez dute harremanik izan justizia penalaren sistemarekin; eta «errugabeak» eta errespetagarriak dira.⁵⁰⁶

Behin eta berriro ikusten dugunez, Kabak eta Schultek zirriborratu duten «biktima perfektu» hori izateko baldintzek emakume Beltzak baztertu ohi dituzte segurtasun-saretik, baina ez hori bakarrik; gainera, *kriminal* hitzaren definizioan kokatzen dituzte bete-betean. Cyntoiaren kasuak arreta piztu zuen nazioartean denbora labur batez, eta, halere, liburu hau idazterakoan bederen, uko egin zioten bere apelazioari.⁵⁰⁷ Sexu-langileen eskubideen aldeko militanteek eta *Survived and Punished* [Bizirauleak eta Zigortuak] mugimendu zabalagoak – zeinak indarkeriaren bizirauleak espetxetik askatzea baitu xede (Kabaren ekarpena ezinbestekoa izan da mugimendu hori sortzeko)– beren gain hartu dituzte atal honen hasieran aurkeztu ditugun bi kasuak, Alisharena eta GiGirena. Baina, noski, kasu horiek izozmendiaren punta baino ez dira. Estatu Batuetan ohikoa da bizirauteko ahaleaginean dabilen jendea kriminalizatzea; batzuentzat, poliziarengana jotzeak atxiloketa dakar berekin, beste batzuentzat segurtasuna dakarren bezala. Atlantako Solutions Not Punishment [Konponbideak Ez Zigorak] koalizioa ohartu zenez, «[poliziarekin] topo egiten dugun aldiro, pertsona transok aurretik genuena baino segurtasun txikiagoa dugu [...]

506 Kaba, M. & Schulte, B. (2017ko abenduaren 6a) «Not A Cardboard Cut Out: Cyntoia Brown and the Framing of a Victim», *The Appeal*, theappeal.org.

507 Jacobs, L. (2018ko otsailaren 19a) «Tennessee Court Provides Explanation For Cyntoia Brown's Imprisonment», *Vibe*, vibe.com.

Hala gertatzen da baita guk geuk deitzen diogunean poliziari ere, arriskuan gaudelako edo delitu baten berri emateko». ⁵⁰⁸ Atlanta-ko koloreko emakume transen % 38k esan zuten laguntza eske poliziari deitu izan diotenetan atxilotuta amaitu dutela. ⁵⁰⁹

Ezkerrekoek amorrut jarraitu zuten Hillary Clinton-en 2016ko presidentetzarako lasterketa zorigaiztokoa, neurri batean aktiboki sustatu zuelako Indarkeriazko Krimenak Kontrolatzeari eta Legea Betearazteari buruzko Legea (Krimenari buruzko Legea esan ohi zaio, eta bere senarraren sinadurarekin onartu zen). ⁵¹⁰ Ezaguna da 1994an legea justifikatu zuela, esanez «super-harrapariak [...] ez kontzientziarik, ez enpatiarik; ezta-baidatu dezakegu nola amaitu duten horrela, baina lehenik eta behin infernura bidali behar ditugu». ⁵¹¹ 2010eko hamarkadan, Black Lives Matters mugimenduak eta beste organizazio batzuek poliziaren eskuetan gertatzen ziren heriotzei buruzko kezka piztu zuten herritarren artean, eta erakutsi zuten gehiegizko polizia-kontrolak eta espetxeratzeko masiboak komunitate Beltzei eragiten zuela kopuru ikaragarri handietan eta Beltzen bizitzen devaluazio sistemikoa betikotzen zutela. Krimenari buruzko Legeak ehun mila polizia gehiago bidali zituen kaleetara, hogei mila milioi dolar inguru bideratu zituen espetxeetara, «ehun-baten-kontra» zigor-proporzio arrazista mantendu zuen crackak eta kokaina-hautsak osatutako binomioarentzat eta «hiru kolpeen legea» eta nahitaezko gutxieneko kondenarako baldintzak mantendu zituen, zeinak ehunka mila lagun, gehienak Beltzak eta estatubatuar pobreak, kartzelatu baitzituen drogekin zerikusia zuten delituengatik epe luzeko zigorrak betetzeko. ⁵¹²

Legearen helburuetako bat zen «nahitaezko atxilotetaren» politikaren bidez poliziak serioago hartzea etxeko indarkeria. Halere, baldin eta poliziek ez bazekiten nor zen erasotzailea (edo bi aldeak begin hartzen bazituzten), askotan biak atxilotzen zi-

508 Solutions Not Punishment Collaborative (SNaP Co) (2016) «The Most Dangerous Thing Out Here Is The Police», *SNaP Co.*, dev.rjactioncenter.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

509 *Ibid.*

510 Lussenhop, J. (2016ko apirilaren 18a) «Clinton crime bill: Why is it so controversial?», *BBC News*, bbc.com.

511 Gearan, A. & Phillip, A. (2016ko otsailaren 25a) «Clinton regrets 1996 remark on «super-predators» after encounter with activist», *Washington Post*.

512 Frank, T. (2016ko apirilaren 15a) «Bill Clinton's crime bill destroyed lives, and there's no point denying it», *Guardian*, theguardian.com.

tuzten, egilea eta biktima. Horrenbestez, emakumeen atxilotetek gora egin zuten: Los Angelesen, etxeko indarkeriaren berri emanez egindako deien ondorioz atxilotutako emakumeen kopurua bikoiztu egin zen 1995ean; Maryland-en, emakume atxilotuen kopurua hirukoiztu egin zen 1992 eta 1996 bitartean; Sacramenton, % 91 igo zen.⁵¹³ Horren funtsezko arrazoi bat da seme-alabak zituzten emakumeak kriminalizatu egiten zituztela, esanez ez zirela gai ez beren burua ez haurrak babesteko haietaz abusatzen ari zen gizonarengandik.⁵¹⁴ Susan Miller ikertzaileak dioen bezala, «Emakume jipoituak biktima gisa babesteko helburua duen atxiloteta-politika erabiltzen ari dira [...] haien kontra egiteko. Emakume jipoituak emakume delitugile bilakatu dira».⁵¹⁵ Emakume Beltz eta latinoak neurrigabeki atxilotu zituzten.

Los Angeleseko emakume trans Beltz batek polizia deitu zion bere bikotekidearen indarkeriaren berri emateko, eta polizia bera atxilotu zuen, emakumea, prostituzioarekin lotutako aspaldiko delitu batengatik.⁵¹⁶ Polizia batek sexualki eraso zion Tiawanda Moore-ri, Chicagoko emakume Beltz gazte bat, laguntza eske deitu zuenean bere bikotekidearen indarkeriaren karietara.⁵¹⁷ Eraso zela-eta salaketa jartzen saiatu zenean, ez zioten onartu, iraganean *stripperra* izana zelako.⁵¹⁸ Moorek polizia-agenteen elkarrizketa bat grabatu zuen berari buruz hitz egiten ari ziren bitartean, ematen ari zitzaizkion tratu eskasaren frogak edukitzeko. Poliziek atxilotu egin zuten, eta «ezkutuan entzuteaz» akusatu; ondorioz, hamabost urteko kartzela-zigorra jaso zezakeen. (Zorionez, azkenean absolbitu egin zuten).⁵¹⁹ Politika horiek eragin bikoitza izan dezakete sexu-langileengan: sexu-merkataritzan diharduten emakume Beltzek behin eta berriro jasaten dituzte «atxiloteta bikoitzak» (etxeko indarkeriako

513 Ritchie, *Invisible No More*, 196.

514 Henderson, T. (2015eko ekainaren 4a) «Black Domestic Violence Survivors Are Criminalized From All Directions», *Truthout*, truthout.org.

515 *Ibid.*

516 *Ibid.*, 191.

517 Prison Culture (2011ko abuztuaren 24a) «The Trial(s) of Tiawanda Moore», *Prison Culture*, usprisonculture.com.

518 Rubin, S. (2011eko ekainaren 17a) «To Serve and Protect – And Sexually Assault?» *Ms. magazine Blog*, msmagazine.com.

519 Chicago Taskforce on Violence Against Girls & Young Women (2011ko abuztuaren 24a) «Now that Tiawanda Moore is free, what lessons can we learn?», *chitaskforce.wordpress.com*.

kasu batean nahasita dauden bi aldeen atxiloketa), baldin eta poliziari deitzen badiote etxeko indarkeriako kasu baten berri emateko.⁵²⁰

1994an Krimenari buruzko Legea onartu zenean, feminista batzuek garaipen bat izango balitz bezala ospatu zuten, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko xedea zuen neurri garrantzitsu bat barne hartzen zuelako: Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Legea [*Violence Against Women Act (VAWA)*].⁵²¹ 2015ean, *Feminist Current* webgunean Penny White idazlearen saiakera-lan bat argitaratu zuten, «Esker oneko ohar bat feminista “punitibo”/“sexu-negatiboentzat”». Saiakera hori mugimendu feminista hegemonikoak VAWA legea eta polizia goretsiz egindako adierazpenen adibidetzat jo daiteke, esaten baitu 1970eko eta 1980ko hamarkadetako feministak «heroiak» zirela eta «Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Legea egiteko bidea urratu zutela [...] zeinak 1,6 mila milioi dolar eman baitzizkien polizia-kidegoei sexu-indarkeria eta etxeko indarkeria ikertzeko [...] [Horrek] nik inoiz amestu nezakeena baino neurri handiagoan bihurtu du gure kultura emakumeentzako espazio handi, segurua eta askeago bat».⁵²²

Horrelako erretoriketik poliziaren eta estatu-indarkeriaren biktimak ahazten dituzten, eta, gainera, autobusaren gurpiletara bultzatzen dituzte. Amanda Marcotte iritzi-emaile liberalak zalaparta handia eragin zuen honako izenburu hau zuen artikulua idatzi zuenean: «Fiskalek bortxaketa baten ustezko biktima atxilotu dute, bere kasua argitzen lagundu diezaien. Ondo jokatu dute». Marcottek artikuluan zioenez, «ulergarria» zen «fiskalek beren esku dagoen guztia egitea [egilea] kondenatzeko», baita haren biktima espetxeratzea ere; eta gehitu zuen: «Erabaki behar dugu zer den guretzat garrantzitsuagoa: gizon erasotzaileak kartzelatzea ala haien biktimek nahierara erabaki ahal izatea poliziarekin kooperatu nahi duten».⁵²³ Feminismo punitiboak

520 *Feminist Newswire* (2014ko irailaren 12a) «Violence Against Women Act Turns 20», Feminist Majority Foundation, feminist.org.

521 *Legal Momentum* «History of the Violence Against Women Act», legalmomentum.org.

522 White, P. (2015eko urriaren 5a) «A thank you note to “carceral”/“sex-negative” feminists», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

523 Marcotte, A. (2014ko otsailaren 25a) «Prosecutors Arrest Alleged Rape Victim to Make Her Cooperate in Their Case. They Made the Right Call», *Slate*, slate.com.

gaizkileak zigortzea lehenesten du beste guztiaren gainetik, bai- ta biktimak babestearen gainetik ere.

1994ko Krimenari buruzko Legearen bi ikuspuntu kon- trajarri horiek indarkeriaren aurkako mugimendu feministaren barruko gatazka handiago baten parte dira; gainera, polizia ema- kumeen aurkako indarkeriaren irtenbide gisa ikusteak eragiten dituen arazo batzuk argitzen ditu. Ordena publikoa ardatz duen ikuspegi horrek dakartzan arazoak identifikatzeak ezinbestean bultzatzen gaitu emakumeen aurkako indarkeria estatu-indar- keraren testuinguru zabalago batean kokatzera, hor sartzen direlarik atxilotetak, deportazioak, etxegabetzeak, haurren zain- tzaren galera, etxegabetasunaren aurkako ordenantzak, drogen aurkako gerra, gentrifikazioa eta poliziagintzaren eta justizia pe- naleko sistemaren arrazismoa. Deskriminalizazioaren aurkako borroka adar bat baino ez da. Poliziak sexu-merkataritzan dihar- duen jendea eraso, atxilotu, auzipetu eta deportatzeko duen ahalmena desagerrarazteko gudu seguratasunaren aldeko bo- rroka zabalago baten parte da, eta borroka horrek barne hartzen du biziraule kartzelatuak askatzea, dirutan ordaindu beharreko fidantzak bertan behera uztea eta jendearen seguratasuna area- gotuko duten gauzetan inbertitzea, ez polizian eta espetxeetan.

Antolaketa

Horren kriminalizatua dagoen testuinguru batean, an- tolatzeak eta jendaurrean hitz egiteak arrisku handia dakar berekin. Monica Jones-en esperientzia horren adibide argia da. Monica gizarte-laneko ikaslea da, sexu-langileen eskubideen defendatzailea eta emakume trans Beltza; 2013an atxilotu zu- ten, Arizonan. Atxilotetaren bezperan, tokiko poliziaren jardun punitiboaren aurka hitz egin zuen sexu-langileen aldeko kon- tzentrazio batean, eta atxilotetaren egunean, berriz, publikoki gaztigatu zien sexu-langileei poliziak laster sarekada bat egingo zuela. «Ageriko prostituzioagatik» zigortu zuten; lege orokor eta anbigua, herritarrok egunerokoan egiten ditugun jarduera uga- ri barne hartzen dituen, hala nola kaletik ibiltzea. Militanteek askotan «trans izanik kaletik ibiltzeko jarduna» kriminalizatzea deitzen diote, eta sexu-langile batzuek AEBko beste toki ba- tzuetan egindako ikerketa batek erakutsi du lege horiek batez

ere emakume Beltzen aurka erabiltzen direla.⁵²⁴ Monikaren aktibismoak, arrazak eta generoak elkarri eragiten diote, eta, hala, poliziaren aurrean ikusgarri baino ikusgarriago bihurtzen dute. Poliziaren xede bihurtu zen, zeren, kazetari bati esan zionez, «oso argi hitz egin nuen [protestan ari ziren sexu-langileen atxiloteta] haiei buruz [...] Poliziak ederki ezagutzen ninduen».⁵²⁵

Sexu-langileen aktibismoak maiz erakartzen du poliziaren arreta. New Jersey-n, 2016an, sexu-langile bat atxilotu zuten, aktibisten arteko bilera batetik alde egin zuenean. Polizia sexu-langileen antolaketa autonomoa erabiltzen ari zen haiek zelatatu eta kriminalizatzeko. Langilearen kide batek gertaera horri buruz idatzi zuen tokiko hedabide batean, eta, artikulua argitaratu zen egunean, egilea bera atxilotu zuten.

Ugandan, ia bi dozena sexu-langile basatiki erail zituzten, eta berrogeita lau sexu-langile aktibista hotel batean elkartu ziren, urgentziazko bilera bat egiteko.⁵²⁶ Bilerak bi puntu nagusi zituen: hiltzailea aske zegoen bitartean kontuan hartu beharreko segurtasun-aholkuak partekatzea eta eraildako emakume baten hiletarako dirua biltzea. Han bildu ziren emakume oro atxilotu zituzten, berrogeita lauak, eta ordena publikoaren aurkako karguak egotzi zizkieten; bi astez kartzelan eduki zituzten, eta isun handiak jarri zizkieten.⁵²⁷ Horrelako gertaeren berri ez da ia inon zabaltzen. Giza Eskubideak Defendatzeko Emakumeen Elkarteen Sarea [*Women's Organization Network for Human Rights Advocacy (WONETHA)*] Ugandako sexu-langileez osatutako talde bat da; gertaera bortitzaren hurrengo hilabeteetan, sare horretako aktibista bat erailketekin lotutako ekintza gehiago planifikatzen ari zenean ausarki, eta honela esan zuen: «Emakumeen beste erakunde bakar batek ere ez dio jaramonik egin honi».⁵²⁸

524 Grant, J.M. et al. (2011) «Injustice at Every Turn: A Report of the National Transgender Discrimination Survey», *Washington: National Center for Transgender Equality and National Gay and Lesbian Task Force*, txostena hemen eskura daiteke: endtransdiscrimination.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua; Brydum, S. (2014) «Arizona Activist Found Guilty of "Walking While Trans"», *Advocate*, advocate.com.

525 Crabapple, M. (2014) «Project ROSE Is Arresting Sex Workers in Arizona to Save Their Souls», *Vice*, vice.com.

526 NSWP (2017ko urriaren 9a) «Ugandan Sex Workers Arrested at Crisis Meeting Over Murders of Sex Workers», *NSWP*, nswp.org.

527 Kuchu Times (2017ko abuztuaren 10a) «Sex Workers On The Rampant Murders Of Women», *Kuchu Times*, kuchutimes.com.

528 NSWP, «Ugandan Sex Workers Arrested at Crisis Meeting Over Murders of Sex Workers».

Gaur egungo testuinguruan, nahasian dabilta estatua-
ren zaintza eta ahanztura feminista. Eta, halere, prostituzioa
gogorki kriminalizatuta dagoen herrialdeetan, sexu-langileen
mugimenduak antolaketa indartsu bat du oinarrian. 2012ko
bideo bihotz-altxagarri batean ikusten da nola dozenaka sexu-
langilek AEBko kongresuan HIESaren mundu mailako epidemiari
buruz egiten ari diren saio berezi bat eteten duten, HIESa Arintze-
ko Presidentearen Larrialdietako Planaren [*President's Emergency
Plan for AIDS Relief (PEPFAR)*] akatsak ikusarazteko. PEPFAR plana
munduko ezein gobernuak GIB/HIESa diruz laguntzeko onartuta-
ko diru-iturri nagusia da, baina, diru hori hartzeko, erakundeek
argi eta garbi adierazi behar dute sexu-lanaren kontra daudela
(«prostituzioaren aurkako zina»)⁵²⁹. Aterki gorriak ireki, eta ager-
tokia hartu zuten, ozen oihukatuz «Zinarik ez! PEPFAR aldatu!». Sharmus Outlaw izeneko ekintzaile batek kongresuan bilduta
zeuden ordezkariak hitz egin zien agertokitik: «Transgeneroa
izan aurretik, sexu-langilea izan aurretik, beste ezeren aurretik,
gizakia naiz».⁵³⁰

Zoritzarrez, Sharmus Outlaw 2017an hil zen, AEBko osa-
sun-sisteman izandako akats-andana baten ondorioz; akats
horiek zerikusia zuten ez soilik Outlawren pobreziarekin, bai-
ta emakume trans Beltza izatearekin ere. Ezinbestean egin
beharreko biopsia bat zenbait hilabetez atzeratu zen, bere osa-
sun-asegurua «nahastuta» omen zegoelako bere dokumentuetan
ageri zen genero-izendapenari zegokionez. Bizkorregi joan bazen
ere, Outlawek gauza asko lortu zituen LGTBQ komunitatearen,
GIBarekin bizi den jendearen eta sexu-langileen aldeko mili-
tantzian. Penelope Saunder Outlawnen lagun handia zen, eta
honela mintzo da hari buruz: «Elkar ikusten genuen aldiro gauza
bera esaten zidan: “Neskek lanak behar dituzte. Lanak behar di-
tuzte!”. Sharmusek beti defendatu izan zituen gizarteak baztertu
edo estigmatizatutako pertsonak». Outlawek beste ekintzaile
asko inspiratu eta babestu zituen, eta eskura izan zituen aukera

529 Ditmore, M.H. & Allman, D. (2013) «An analysis of the implementation of PEPFAR's anti-prostitution pledge and its implications for successful HIV prevention among organizations working with sex workers», *Journal of the International AIDS Society* 16:1.

530 The Red Umbrella Diaries (26 July 2012ko uztailaren 26a) «Sex Worker Activists Disrupt Special Session on US Congress and HIV», bideoa, YouTube (erabiltzaile-izena: The Red Umbrella Diaries), youtube.com/watch?feature=player_embedded&v=110E941QntY.

guztiak baliatu zituen giza eskubideen eta kalteak murriztearen alde lan egiteko, bai politikariei mintzo zitzaizenean bai Ipar Karolinara bidaiatzen zuenean familia ikustatzera; bidaia haietan, kondoiak eta GIBari eta LGTBQ komunitatearen eskubideei buruzko informazioa eramaten zituen, laguntza edo aholkua behar zuten norbaitekin topo egiten bazuen ere. Nekaezina izan zen horretan, nahiz eta bera ere behin eta berriro atxilotzen zuten, pobrezian bizi zen eta ez zuten sekula eduki etxe seguru bat berearena.⁵³¹

Afrikako sexu-langileen aktibismoa ere aurrera egiten ari da, zoritxarrak zoritxar. Chi Adanna Mgbakok dioen bezala: «Afrikako sexu-langileak ez daude beren sufrimenduaren garratzasuna irensteko prest, eta sexu-langileen eskubideen aldeko mugimendu bat abiatu dute, baso-sute bat balitz bezala kontinente osoan zabaltzen ari dena».⁵³² Afrikako hogeita zazpi naziotan, genero guztietako sexu-langileak ordezkatzen dituzten laurogei erakunde daude, horietako hogeita hamasei baino gehiago Kenyan.⁵³³ GIB, HIES edo STGekin bizi diren Gizon Gazteentzako Osasun Aukerak [*Health Options for Young Men on HIV, AIDS and STIs* (HOYMAS)], adibidez, gizonezko sexu-langileek bultzatutako Kenyako erakunde bat da. GIB/HIES-zerbitzuak eskuratu ahal izateko lan egiten du, eta gizon gay eta bisexualen eta sexu-merkataritzan diharduten gizonen arteko eztabaidataldeak bideratzen ditu. Erakundeko liderretako batek demanda bat aurkeztu du, homosexualen aurkako legea bertan behera gera dadin.⁵³⁴ Lurmutur Hirian, Hego Afrika, sexu-langileen Sistaz Hood kolektiboak komunitate-espazio seguruak sortzen ditu kalean lanean ari diren emakume transentzat, eta polizia-indarkeria transfoboari aurre egiten dio. Haien ahaleginari esker, emakume transak atxilotuak emakumezko poliziaiek miazten dituzte, eta ziegetan ez dituzte nahasten cis gizonekin.⁵³⁵

531 Anderson-Minshall, J. eta Mendus, E. R. (2016) «Discrimination is literally killing trans women: Outlaw was just the latest», *Plus*, hivplusmag.com.

532 Mgbako, C.A., *To Live Freely in This World*, 5.

533 African Sex Workers Alliance (ASWA) «Members», hemen eskura daiteke: aswaalliance.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

534 Warner, G. (2016ko abuztuaren 30a) «When The U.S. Backs Gay And Lesbian Rights In Africa, Is There A Backlash?», *NPR*, npr.org.

535 Ao, B. (2016ko maiatzaren 21a) «Battling a double dose of discrimination», *IOL*, iol.co.za.

Sexu-langileen organizazioen ezaugarri nagusiak irmotasuna, sormena eta lotsagabekeria-puntu bat izaten dira askotan. 2012an, Kenyan, 300 sexu-langile aktibistek erratzak eta lanbasak eskuan hartu eta ospitale bat garbitu zuten, HIESaren aurkako Munduko Eguna ospatzeko. Ekintza horrekin adierazi nahi izan zuten sexu-langileak ez direla «arazoa», baizik eta konponbidearen parte, eta osasun-arloko langileei lagundu nahi dietela lana hobeto egiten. John Mathenge Mukaburu ekintzaile kenyarra ere ekintza haren antolamendu-lanetan aritu zen, eta honela azaltzen du: «Komunitatea eta osasun-langileak sentsibilizatu nahi genituen, zeinek askotan estigmatizatu egiten baikaituzte; erakutsi nahi genien guk haien beharra dugun era berean haiek ere gure beharra dutela».⁵³⁶ Errusian, sexu-langileek osatutako Silver Rose taldeak Maiatzaren 1eko manifestazioarekin bat egin zuen baimenik gabe, «moral ustelaren, aurreiritzi sozialen, kapitalismoaren eta desperekotasunaren» aurka protesta egiteko.⁵³⁷ Irina Maslova sexu-langileak talde bat sortzeko erabakiaren nondik norakoak azaldu zituen: «Garai hartan, ezein erakundek ezin zigen eskaini lege-aholkurik. Gutako zortzi elkartu, eta estatusistema hau azken beltzera eramatea erabaki genuen».⁵³⁸

Sexu-langileen antolamenduak, eraginkorra izango bada, ezinbestekoa da arazo bakar batetik harago doan elkartasuna. Sexu-langilerik kriminalizatu eta baztertuenean sexu-lanaren kriminalizazioaz aparte beste arazo batzuk ere badituzte. Kenyan, sexu-langileak Bunge la Mwananchi-ko (Herriaren Parlamentua) kide dira; pobreziaren aurkako gizarte-mugimendu bat da, eta horko kide dira soldata txikiko langileak, kaleko sal-tzaileak, etxegabeak, autobus-gidariak, okupak eta poliziaren jazarpena pairatzen duten beste komunitate batzuk, kalean sustrai sendoak dituztenak.⁵³⁹ Katy Simon sexu-langilea AEBko Massachusetts estatukoa da, eta antolaketa-lan handia eginga da hainbat arlotan; besteak beste, eskaletasunaren kriminalizazioari aurre egiteko eta orratz-truke legala eskatzeko. Simonek

536 Mgbako, C.A., *To Live Freely in This World*, 144.

537 Ekaterina (2017ko maiatzaren 26a) «Silver Rose has joined the 1st of May march», Sex Workers» Rights Advocacy Network (SWAN), swannet.org.

538 Ekaterina (2016ko maiatzaren 1a) «Silver Rose: A long way to success», SWAN, swannet.org.

539 Okoth, J. (2012ko otsailaren 2a) «Kenya: Bunge la Mwananchi movement and its challenges», *Pambazuka News*, ambazuka.org.

hiriaren erdigunean zaintza-kamerak jartzearen aurkako konzentrazio batean hitz egin zuen:

Kalteen murrizketaren ekintzailea naizen aldetik, esan behar dut [neurri honek] eragina izango duela Northampton-eko legez kontrako substantzien kontsumitzaile pobreegan. Pertsona horiek petxero gisa erabiltzen dituzte maiz, pobre guztien aurkako ekintzak justifikatzeko [...]. [Neurri horrek] eragotzi egingo du pertsona horiek berriz komunitatean integratzea, nahiz eta irtenbideak argiak diren: borondatezko tratamenduak toki gehiagotara hedatzea eta kalteak gutxitzeko baliabideak jartzea.⁵⁴⁰

Aktibista ugari sexu-langileen oinarrizko beharrei erantzuteaz arduratzen dira buru-belarri. 2001. urteaz geroztik, Bonnie-k arreta nekaezina eskaini die Marylandeko, Ipar Virginiako eta Washington hiriko kaleetan jarduten duten sexu-langileei. Bonnie eta Washingtoneko beste ekintzaile batzuk, batez ere Sharmus Outlaw, giltzarriak izan ziren hiri hartako «prostituziorik gabeko eremuari» buruzko ordenantza indargabetzeko. Berak betetzen duen rolari buruz hitz egin du sexu-langileen komunitatearen *Tits and Sass* webgunean:

Duela gutxira arte, etxebizitza bat eskaintzen nien. Hori egiteari utzi behar izan nion, eta orain aterpetxeetarako erreferentziak eta garraioa eskaintzen dizkiet, edo iragaitzazko etxe bat edo bizitzeko toki eskuragarri bat, eskatzen didatena. Gaur-gaurkoz metadona banatzen duten kliniketan, BDSM klubetan, sexu-langile immigranteen etxeetan, droga-probak egiteko kliniketan... jarduten dut. Inoiz ez dut uzten barruan egon nahi duen pertsona bat kanpoan. Zer gertatuko litzateke pertsona hori ikusten dudana azken aldia balitz? Zer etxerik ez izateagatik atxilotuko balute? Zortzi urte behar izan genituen Washington hiriko prostituziorik gabeko eremua bertan behera utz zezaten, zeinetan fitxatu egiten baitzintuzten kalean egon edo ibiltzeagatik edo autora bidean joateagatik. Zenbat jende hil eta kartzelatu zuten garai hartan?⁵⁴¹

New Yorkeko Lysistrata (Elkar Zaintzeko Kolektiboa eta Funtsa) BackPage webguneak sexu-lanari buruzko iragarriak argitaratzeko zuen atala itxi ondoren sortu zen. Baliabide hori desagertu ondoren, sexu-langile ugari –batez ere pobre-

540 Simon, C. (2018ko azaroaren 13a) «Columnist Katy Simon: Spend money on treatment, not cameras», *Daily Hampshire Gazette*, gazettenet.com.

541 Robin D. (2016ko otsailaren 29a) «Activist Spotlight: Bonnie On Violence And Endurance», *Tits and Sass*, titsandsass.com.

ziaren marratik hurbilen zeudenak- barruko lana aurkitzeko modurik gabe geratu ziren. Lysistrataren bidez, sexu-langileek funtsak partekatzen zituzten, garai latzetan elkar zaintzeko.⁵⁴² Sarit Frishman sexu-langile desgaituak dioen bezala, «Gutako gehienok ez dugu segurtasun-sarerik. Ez dugu sindikaturik, ez pentsio-funtsik, ez antzekorik».⁵⁴³

Sexu-lanaren aldeko aktibismoa horizontala are deigarriagoa da, haien aurrekontu eskasa kontuan hartuta. Zaila da finantzazioa lortzea. Baina jazarpenak sormenari eragin diezaioke, eta prostituzioa erabat kriminalizatua dagoen herrialdeetako aktibisten komunitate asko beren grina eta elkartasunagatik dira ezagun. Daisy izeneko sexu-langileak Ugandako aktibisten arteko berotasuna azaltzen du: «Gaur norbait atxilotuko dute, poliziaren ziega batean edukiko dute aste batez, baina irteeraregunean, are etxera iritsi aurretik, [sexu-langileen eskubideen alde] hitz egiten dute. Uste dut harro egoteko modukoa dela». Silver Rose elkarteko Maslovak honela dio: «Ez dut etsiko Errusian sexu-lana deskriminalizatzen dutenera arte, nahiz eta sutan erreko nauten, sorgina banintz bezala».⁵⁴⁴ Espiritu erronkari hori ohikoa da mundu zabalean sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduan; zerbait aldatzen ari dela sentitzen dute.

Deon Haywood oinarriko ekintzaileak Women With a Vision (WWAV) elkartearekin lan egiten du. 2008 eta 2013 bitartean, NO Justice [Justiziarik EZ] kanpainaren buru izan ziren; eskatzen zuten CANSak eta sexuarekin lotutako delitugileen erregistro-zigorrek aldatzeko. Lege bat onartu zuten, esaten zue-na aurrerantzean ez zutela sexu-langilerik gehituko zerrenda hartan, eta orduan auzi-eske kolektibo bat egin zuten, eta lortu zuten 800 lagun izenak zerrenda hartatik ezabatzea. WWAV elkartearen bezero bat zerrenda hartan egona zen 1980tik, eta honela zioen: «Nire ASKATASUNA dasta dezaket!».⁵⁴⁵ Haywoodek ere baten egiten zuen garaipen-sentimendu harekin:

542 Lysistrata Mutual Care Collective & Fund «Emergency Fund», *Lysistrata*, lysistratamccf.org.

543 Frishman, S. (2017ko irailaren 7a) «The End of The Life: Leaving Sex Work Because Of Progressive Illness», *Tits and Sass*, titsandsass.com.

544 NSWP (2016) «Silver Rose (Russia)», *NSWP*, nswp.org.

545 Laura McTighe & Deon Haywood (2018ko urtarrilaren 16a) «"There Is NO Justice in Louisiana": Crimes against Nature and the Spirit of Black Feminist Resistance», *Souls* 19:3, 261–285.

«Erronka egiten diet esaten dutenei Hegoaldean ezin dela ezer aldatu –zioen–, aldaketa gertatu da eta. Eta ez dezala inork esan jende xumeak ezin duela ezer aldatu, aldatu dugu eta».⁵⁴⁶

Guztiok ere sexua saltzen duten pertsonak gorroto dituen kultura batek blaitzen gaitu, eta hala erakusten dut erabateko kriminalizazioaren iraunkortasun eta gailentasunak. AEBn, korronte nagusiko mugimendu feministak kriminalizazio *handiagoaren* alde egiten du, indarrean dauden zigor-legeak indargabetu beharrean.⁵⁴⁷ Halere, argi geratu behar da kriminalizazioak ez duela sexu komertziala saihesten; ez ditu kontuan hartzen jendeak sexua saltzeko dituen benetako arrazoiak, hau da, egunerokoan behar dituzten baliabideak eskuratzea.

546 Carmon, I. (2013ko irailaren 5a) «I am not a sex offender», Women with a Vision, wwav.no.org.

547 AEBko prostituzioaren aurkako erakunde garrantzitsu batek «istorio arrakastatsuen» zerrendan sartu dituen neurri gehientsuenek are gehiago kriminalizatzen dituzte bezeroak, eta emakumeak sexua saltzetik «erreskatatzen» dituzte; ikus Demand Abolition «Category: Success Stories», hemen eskura daiteke: demandabolition.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

SEI

JENDEAREN ETXEA: SUEDIA, NORVEGIA, IRLANDA ETA KANADA

Suediar eredu: lege-eredua, sexua erostea kriminalizatu, bitartekoak (hala nola managerrak, gidariak eta etxejabeak) zigortu eta sexua saltzen dutenak argiro deskriminalizatzen dituen. Beste sinonimo batzuk: eredu nordikoa, sexu-eroslearen legea, sexu-zerbitzuak erosteari buruzko legea, kriminalizazio asimetricoa, «eskaeraren amaiera», *sexköpslagen*. Toki hauetan ere badago indarrean: Ipar Irlanda, Frantzia, Islandia.

1999an, Suediako parlamentuak *sexköpslagen* legea –edo sexu-zerbitzuak erosteko debekua– onartu zuenean, ekintzaile feministak pozarren agertu ziren. Azkenean, pentsatu zuten, prostituzioari buruzko lege feminista bat lortu zuten, zeinaren helburua baita prostituzioa murriztea, kriminalizazioaren mehatxua eroslearen bizkar gainetik kenduz eta krimena dagokion tokian kokatuz, hau da, truke horretan benetan boterea duenaren bizkarrean: putazalea eta proxeneta. Suedia eredu izango litzateke munduarentzat. Argudiatu zuten, bezeroaren eskaera eta managerraren irabaziak kriminalizatuz lortuko zuten, nolabait, sexu-industria txikitzea eta sexu-langileak hain zaugarri bilakatzen dituen botere-desberdintasun ikaragarria orekatzea. Catherine MacKinnon unibertitate-irakasle feministak ideia hori azaltzen du hurrengo hitzetan: «Gizonak sexurako erosi nahi du emakumea, eta [suediar] lege honek dioena da emakumea ez dagoela ez salgai ez alokagai. Emakumearen kri-

minaltasuna ezabatzeak bere estatusa goratzen du; gizona kriminalizatzeak, berriz, bere pribilegioa beheratzen du».⁵⁴⁸

Bitartean, dio teoriak, emakumeari laguntza ematen zaio bere egoera mingarritik ateratzeko, eta arreta eskaeran jartzeak eragin diziplinatzailea izango du gizona erabateko eskubide-duna den kultura patriarkal batean: gizonak berriz heziko dira. Horrek esan nahi du ezen, denborarekin, emakume gutxiago esplotatuko direla prostituzioan eta lege hori indarrean duten herrialdeak ez direla izango hain erakargarriak pertsonen trafikatzailerentzat.

Prostituzioa oso lur aberatsa da sinbolismoetan. Toki horretan elkartzen dira gure gizarteak botereari, emetasunari eta nazioari buruz dituen kezak. Emakume feministentzat, prostitutaren figurak askotan patriarkatuaren barruan emakume orori eragiten zaien trauma irudikatzen du; emakumeen minaren sinbolo nagusia da, emakumeek pairatzen duten indarkeriarena.⁵⁴⁹ Halandaze, bezeroa gizon biolento guztien sinbolo bihurtzen da: emakumeen aurkako indarkeria gordinaren abatarra da, indarkeriaren erabilzaille arketipikoa.

Guk erotik ulertzen dugu ikuspuntu hori. Gure bizitzak ere genero-indarkeriak itxuratu ditu, eta ulertzen dugu trauma horren sinbolo den gizona zigortzeko bulkada politikoa. Jakina, ezagunegia zaigu bezeroekin lan egiteak dakarren indarkeria-arrisku espezifikoa. Eta, noski, eredu nordikoaren alde egiten dutenek arrazoia dute esaten dutenean prostituzioa truke erabat desparekoa dela eta patriarkatuaren eragin zuzena duela, baita supremazismo zuriarena, pobreziarena eta kolonialismoarena ere. Intuitiboki, zuzena dirudi zentzu askotan botere-desberdintasun ikaragarri horien pertsonifikazio bizia diren gizonak kriminalizatzea.

Nahaste horretan Eskandinavia ere gehitzen badugu, koktel are feministagoa lortuko dugu. Zenbait hamarkadaz, Eskandinaviako herrialdeak nazio feminista *nagusitatzat* jo izan dira. Suediako gobernuak «munduko lehen gobernu feministatzat»

548 MacKinnon, C.A. (2011) «Trafficking, Prostitution, and Inequality», *Harvard Civil Rights – Civil Liberties Law Review*, 46, 271–309, 301.

549 Dworkin, A. (1993) «Prostitution and Male Supremacy», *Michigan Journal of Gender and Law* 1:1, hemen eskuratu daiteke: repository.law.umich.edu, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

du bere burua; sare sozialetan, lege baten onarpena sinatzeko zain dagoen emakume-ilara erakusten duten argazkiak biral bihurtzen dira.⁵⁵⁰ Zentzu batzuetan, arrazoizkoa da nork bere burua horrela aurkeztea: Suedia, Norvegia, Islandia eta Danimarka emakumeen eskubideak neurtzen dituzten zerrenden lehen postuetan azaldu ohi dira; atzerrian, ezkerreko politikariek, hala nola Bernie Sanders eta Jeremy Corbyn, haien proposamenak babesten dituzte, eta iritzi-emaileek ere goretsi egiten dituzte, eta demokrazia sozial eskuzabalago eta holistikoago baten ideiaren su-zuziaren eramaitzat hartzen dituzte.⁵⁵¹ Askotan, munduan zeharreko feministek utopia gisa ikusten dute Eskandinavia, eta bereziki Suedia; patriarkatua neurri handi batean garaitua izan den toki gisa.⁵⁵²

Jakina, ez dago utopiarik. Suediako estatu feminista esku-zabalak koloreko jendea, migratzaileak, pertsona transgeneroak eta droga-kontsumitzaileak kontrolatzeko joera du, «suediar-tasunetik» kanpo daudelakoan.⁵⁵³ Baina arazo horiek gertutik jarraitzen ez dituztenentzat, eta uste dutenentzat Suedia «ondo ari dela» haurren zaintzaren alorrean edo soldata-arrakalarenean, arrazoizkoa dirudi Eskandinaviako prostituzioari buruzko legea ere feminismoa lortzen ari den arrakastaren pertzepzio zabalagoekin lotzea eta pentsatzea sexu-lanari dagokionez ere ondo jokatzeko ari dela.⁵⁵⁴

Beste hitz batzuetan, «eredu nordikoaren» aldeko asko argiro aurrerakoiak diren kontuek bultzatzen dituzte hautu hori egitera: genero-indarkeriari buruzko beldur sakonki errotua; sexu-merkataritzan eta gizartean oro har dagoen arrazismoare-

550 Crouch, D. (2017ko otsailaren 17a) «Is Sweden's feminist agenda working?», *BBC News*, bbc.co.uk; Agencies (4 February 2017) «Is the Swedish deputy PM trolling Trump with this all-female photo?», *Guardian*, theguardian.com.

551 Jones, A. (2016ko urtarrilaren 28a) «After I Lived in Norway, America Felt Backward. Here's Why», *The Nation*, thenation.com; Gjers., J.F. (2017ko ekainaren 9a) «Jeremy Corbyn – a mainstream [Scandinavian] social democrat», *OpenDemocracy*, opendemocracy.net.

552 Adibidez, Bindel, J., *The Pimping of Prostitution*.

553 Levy, J. (2017) *The War on People who Use Drugs: The Harms of Sweden's Aim for a Drug-Free Society*, Londres: Routledge; The Local Sweden (2013ko abuztuaren 22a) «Structural racism "still a problem" in Sweden», *The Local*, thelocal.se; Momodou, J. (2012ko apirilaren 18a) «Sweden: the country where racism is just a joke», *Guardian*, theguardian.com.

554 Egiaz, Suedian soldataka-arrakala nabarmena dago. OECD (2012) , «Closing the Gender Gap: Act Now».

kiko amorrua; eredu nordikoari jarraitzen dioten gizarteak oro har Estatu Batuak edo antzeko beste herrialde batzuk baino toki hobeak, atseginagoak eta feministagoak diren sentipen gehienetan zuzena. Badakigu askok asmo onez eusten dietela uste horiei. Baina prostituzioari buruzko legeak ideologikoki zabalak izaten dira beti, eta lege zehatz honek toki politiko nahikoa du bai adar aurrerakoientzat bai adar atzerakoientzat ere; bi adar horiek elkarrekin jarduten dute batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, elkarren kontra.

Gainera, desberdintasun garrantzitsuak daude bi eredu hauen artean: alde batetik, eztabaida politikoetan aurkezten den «eredu nordiko» *ideala*; bestetik, sexua erostea debekatu duten munduan zeharreko askotariko tokietan ezarri diren bertsio desberdinak. Ideologiari eta legegintzari buruzko nahasketa hori alde batera uzteko biderik errazena hauxe da, noski: legeari sexu-langile baten begiekin begiratzea.

Nola funtzionatzen du?

1: «Eskaera»

Eredu nordiko idealaren aurreproiektuan, giltzarriak diren lau lehentasun daude: eroslea, saltzailea, «irteera-zerbitzuak» eta bitartekoak (hau da, trafikatzailleak edo proxenetak). Esan daiteke eredu nordikoaren lehentasunik behinena –paperean jasota dagoenaren arabera– sexuaren truke ordaintzen duen gizona jazartzea dela. Beste hitzetan esanda, «eskaerari amaiera ematea». Asmo hori da –alegia, arreta bezeroengan jartzea– lege-eredu hau beste kriminalizazio-molde batzuetatik bereizten duena, baita sexua erostea kriminalizatzen duten ereduetatik ere, hala nola Kenyakotik eta Hego Afrikakotik. Beste leku guztietan, bezeroaren kriminalizazioa sexu-langilearen jazarpenak dakarren bigarren mailako ondorio ideologiko bat besterik ez da. Baita Estatu Batuetan ere, non polizia ahalegin bateratu samarra egiten baitu bezeroak atxilotzeko (adibidez, «bezeroak atzemateko sarekadak» egiten dituzte ezkutuko polizia-emakumeekin), prostituzioagatiko atxiloketa guztien ehuneko hamar soilik dagozkie bezeroei.⁵⁵⁵ Prostituzioari buruzko ikuspegi nor-

555 Neuman, C.E. (2010) *Sexual Crime: A Reference Handbook*, Santa Barbara, CA: ABC-

dikoaren arabera, bezeroak atxilotzea da helburu nagusia; plater nagusia da, ez hornigaia. (Praktikan, eredu nordikoaren xedeak ez daude hain zehaztuta, atal honetan ikusiko dugunez).

Hasieran esan dugun bezala, kezkatu egiten gaituzte sexua saltzen duten pertsonak, baita sexu-lanaren inguruko lege eta politikek haiei eragiten dieten moduek ere, eta jakin nahi dugu nola murriztu daitekeen sexu-langileek jasaten duten kaltea. Beraz, azter dezagun zer gertatzen zaien sexua saltzen duten pertsonen beren bezeroak kriminalizatzen dituztenean. Demagun kalean lan egiten duen emakume bat: beharbada pentsatu du ordu pare batean hiru edo lau bezero izango dituela eta goizaldeko ordu bata baino lehen etxera itzuliko dela, beharrezkoa duen dirua irabazita. Baina orain bezeroak kriminalizatuta daude, eta, beraz, gaua astiroago doa; nahiz eta oraintsu arte bizpahiru bezero izaten zituen gauerdia baino lehen, gaur, beharbada, ez zaio bat bera ere azaldu. Orain, demagun goizaldeko ordu batean norbait hurbiltzen zaiola, itxuraz kokaz gainezka eta jarrera oldarkorrez datorren gizon bat; edo, lankideek ohartarazita jakin duenez, saihestu beharreko kotxe batean datorrela. Oraindik ere dirua irabazi behar du jatekoa erosteko. Orain arte ez du bezerorik izan, eta horrek botere gutxiago ematen dio bestelakoan alde batera utziko zukeen gizon bati ezezkoa esateko.

Bezeroa, berriz, ikusiko ote duten beldur izan daiteke, eta, beraz, emakume sexu-langileak ezkututzen lagundu beharko dio ezinbestean; beharbada, kalean tratua azkar egin, eta parke ilun batera joango dira. Agian bezeroak ohiko tarifaren erdia eskainiko dio, eta uko egingo dio kondoa jartzeari. Emakumeak jada eskuratua balu gaur behar zuen diruaren zatirik handiena, bere baldintzak ezartzen saia liteke behin eta berriro, edo bezeroa baztertu. Baina kaleak hutsik daude, eta badirudi bi aukera baino ez dituela: bezeroari baietz esatea edo etxera esku hutsik joatea, gaueko hotzean hainbat ordu igaro ostean. Agian, bezeroen eskasari aurre egin nahian, ohi baino askoz beranduago arte geratuko da lanean, eta oinez joan beharko du etxera, goizeko bostetan, kale elurto eta bakartietan barrena.

Baina hori ez da sexua erostearen debekuak sexu-langilearengan duen eragin bakarra. Izan ere, *nor* ari da oraindik

sexuaren truke ordaintzen? Demagun bestelakoan sexuaren truke ordaindu nahi izango zukeen gizon bat, ondoren etxera bikotekidearengana eta lanera joango litzatekeena; orain erabaki dezake berak ere galtzeko asko duela. Sexuaren truke ordaintzeagatik atxilotzeak desohorea ekar diezaioke lanean, eta ezkontzaren amaiera, berriz, etxean; beraz, badirudi hobe dela etxean geratzea. Baina badira hori baino askoz gutxiago galtzeko duten gizonak. Gizon batek agian ez du sekula izan sexuaren truke ordaintzeko asmorik, baina sexu-langile bati erasotzea edo lapurtzea pentsatzen ari zen; hala eginez gero, aurretik ere baziren legeak urratuko lituzke, beraz, zer dela eta arduratu behar du sexua erosteagatik zigortzen badute? Beharbada sexuaren truke ordaintzeagatik atxilotzeak ez dio desohorerik ekarriko lanean; lehenago ere behin baino gehiagotan zigortu dute bere emazte ohiaren aurkako indarkeriagatik, eta bere nagusiari ez zaio bate-re axola izan. Atzera egiten duten bezeroak bezero «atseginak» dira neurri handi-handi batean, edo, gutxienik ere, zerbait dute galtzeko. Aldiz, aukera handia dago sexua erosten jarraitzen duten bezeroak oldarkorrak, mozkorrak edo biolentoak izateko: galtzeko gutxiago dutenak. (Rhoda Grant eredu nordikoaren aldeko politikaria dinamika hori azaltzera iritsi zen, Eskozian ezartzearen aldeko kanpaina egiten ari zenean: «Sexu-erosketa kriminalizatzeak ez ditu geraraziko gaur egun ere legea urratzen dutenak –hau da, erasotzaile biolentoak–, baina beste asko bai».⁵⁵⁶ Jakina, sexu-lanari ohi bezala begiratzen badiogu, pentsatuz beti eta ezinbestean biolentoa dela, ezkutatu egiten dugu bezero adeitsuen eta erasotzaileen arteko desberdintasuna.

Munduko toki guztietan, lege-eredua edozein dela ere, kalean jarduten duten sexu-langileek segurtasun-estrategia eza-gunak erabiltzen dituzte.⁵⁵⁷ Esate batera, beste lagun pare batekin batera lan egiten dute, denbora-tarte bat hartzen dute bezeroa aztertzeko haren autoan sartu aurretik, edo lagunei eskatzen diete bezeroaren autoaren matrikula-zenbakia idazteko, hari jakinarazteko badakitela emakumea norekin dagoen. Nola eragi-

556 Grant, R. (2013) «Proposed Criminalisation of the Purchase of Sex (Scotland) Bill (2): Summary of Consultation Responses», Eskoziako Parlamentua, 187 a., txostena hemen eskura dauteke: parliament.scot, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

557 Erresuma Batuko kaleko sexu-langileek erabiltzen dituzten estrategia hemen azaltzen dira: Sanders, T. (2001) «Female street sex workers, sexual violence, and protection strategies», *Journal of Sexual Aggression*, 7:1, 5–18.

ten die bezeroen kriminalizazioak segurtasun-estrategia horiei? Lagun-talde batekin batera lan egiten baduzu, poliziak errazago ikusiko zaitu, eta ezin duzu arrisku hori hartu, dirua egiteko asmoz atera bazara, bederen. Nabarmenegia bada sexu-langilea zarela, nahiz eta zu zeu ez kezkatu zure balizko atxilotetaz, bezeroek ez dute zuregana hurbildu nahi izango, *hai*ek atxilotuko dituzten beldurrez. Berriz ere, bezeroaren dirua lortzeko, *berak* balizko atxiloteta baten aurrean hartu beharreko segurtasun-neurrietara makurtu beharko duzu, eta, beraz, bakarrik lan egin beharko duzu, ez talde batean.

Autora sartu aurretik bezeroarekin berba egiteari dago-kionez, poliziarentzat hori da bezeroa identifikatzeko unerik egokiena; hortaz, bezeroak prozesu hori azkartu nahiko du. Halandaze, ez duzue zerbitzuei, prezioei eta kondoiaren erabilerari buruz hitz egingo oraindik kalean zaudetela; autoan sartu eta beste nonbaiterantz abiatu ondoren egingo duzue. Bezero hori ezinbestekoa duzu beharrezkoa duzun dirua eskuratzeko; hortaz, baietz esango diozu. Baina horrek esan nahi du autora igo aurretik ez duzula prezioei eta kondoiei buruzko akordio batera iristeko modurik, are gutxiago haren jokabidea aztertzeke edo jakiteke atzeko jesarlekuan beste lagunena bat duen ezkatatuta.

Eragin horiek elkarren artean konbinatzen dira. Sexu-langilea pobregoa da, eta, beraz, presio handiagoa sentitzen du bestelakoan bazterrean utziko zuen bezero bat onartzeko; berandu eta bakarrik lan egiten du; bezerorik atseginenak etortzeari utzi diote, eta oldarkorrenak eta iragarrezinenak bakarrik jarraitzen dute etortzen; eta denbora gutxiago du bezeroak aztertzeke.

Silvia emakume migratzailea da, eta Norvegiar lan egiten du, kalean. Kazetari bati hauxe esan zion: «Lehen ez ginen urrun joaten bezeroekin: alboko parke batera joaten ginen. Baina orain bezeroek leku bakarturen batera joan nahi izaten dute, beldur direlako [...] Hori ez da nire gustukoa. Zerbait txarra gertatzeko arrisku handiago dago».⁵⁵⁸ Annabel-ek Suedian lan egiten du, berak ere kalean, eta honela dio: «Legea indarrean dagoen arren, bezeroak lortzen dituzu. Baina askoz luzaragoan egon behar

558 Fouche, G. (2014ko apirilaren 27a) «View from the streets: New Nordic sex laws are making prostitutes feel less safe», *Independent*, independent.co.uk.

duzu zain». ⁵⁵⁹ Vancouver-en ere bezeroak kriminalizatzen saiatu ziren, eta ikertzaileek sexu-langileei galdetu zieten horrek zer eragin izango lituzkeen. Violet-ek hango kaleetan ziharduen lanean, eta hau erantzun zien:

[Polizia] Bezeroen atzetik dabil, haiek gure aldamenetik urruntzen, eta nik denbora gehiago igaro behar dut kalean [...] Halako jazarpenik pairatuko ez bagenu, hobeto begiratuko genuke non sartzen garen, norekin goazen, ulertzen? Zeren halako hotzarekin eta halako jazarpenarekin, edozein autotan sartzen naiz, baita normalean sartuko ez nintzatekeenetan ere. ⁵⁶⁰

Suediako eta Norvegiako gobernuen txostenek ere sexu-langileen hitzak baieztatzen dituzte. Adibidez, Suediako Osasun eta Ongizatearen Batzorde Nazionala ohartu zenez, «bezeroen beldurraren ondorioz [...] orain are zailagoa da topaleku seguruak erabiltzea [...] orain topalekuak urrunago daude, eta dira, adibidez basoguneak, eskailera-begiak eta bulego-eraikinak, horietan bezeroek ez dutelako inork harapatzeko arriskurik». ⁵⁶¹ Norvegiako Justizia eta Segurtasun Publikoko Ministerioaren txosten batean, berriz, ondorengo hau jaso zuten:

Suediako kaleko prostitutak garai gogorragoa bizitzen ari dira. Gehiagotan egokitzen zaizkie bezero arriskutsuak, eta [balekoak diren] bezeroak atxiloteten beldur dira [...] [Langileek] denbora gutxiago dute bezeroa aztertzeko; izan ere, tratua oso azkar egiten da, bezeroaren beldurra dela eta. ⁵⁶²

Ohi den gisan, baldintza okerrago hauek egoera prekarioenean daudenak kolpatzen dituzte gehien. Hori gertatzen zaie, bereziki, kalean jarduten duten sexu-langile etxegabeei. Justizia Ministerioren ikerketak erakutsi zuenez, «orain lehen baino

559 Levy, J. (2015) *Criminalising the Purchase of Sex: Lessons from Sweden*, Oxford: Routledge, 121.

560 Krüsi A, et al. (2014) «Criminalisation of clients: Reproducing vulnerabilities for violence and poor health among street-based sex workers in Canada – a qualitative study» *BMJ Open*, 4: e005191, hemen eskuratu daiteke: bmjopen.bmj.com, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

561 Socialstyrelsen (2008) «Prostitution in Sweden 2007», 48, hemen eskuratu daiteke: socialstyrelsen.se, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

562 Norvegiako Justizia eta Segurtasun Publikoko Ministerioa (2004) «Purchasing Sexual Services in Sweden and the Netherlands: Legal Regulation and Experiences», 19, hemen eskuratu daiteke: regjeringen.no, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

eraso gehiago izaten dira, emakumeek ezin dietelako ezetz esan zalantzazko bezeroei», eta honela laburbildu zuten lege horien eragina: «Kalean lan egitera behartuta daudenentzat, bizitza askoz gogorragoa bilakatu da [...] Sexu-erosketari buruzko legearen ondorioz, orain gogorragoa eta arriskutsuagoa da prostituta gisa lan egitea».⁵⁶³

Malmö-ko gizarte-langile batek azaltzen duenez, dinamika horiek aparteko indarrez agertzen dira substantzieko menpekotasuna duten sexu-langileen kasuan, eta honako hau dio:

Bezero gutxiago [dabiltza] kaleetan, eta emakumeek oraindik behar dute dirua heroina lortzeko; beraz, bezeroek diru gutxiago eskain dezakete gehiagoren truke [...] kondoirik gabe, adibidez [...] Eta benetan behar badute dirua, eta gau oso badaramate bezeroen zain, eta txutea behar badute [...] orduan, beharbada, baietz esango dute.⁵⁶⁴

Barruan lan egiten duten langileen kasuan, poliziarientzat bezeroak aurkitzeko modurik nabarmen eta errazena da emakumea zelatatzea. Azken batean, gizon horiek poliziarren ustez sexu-langilea den norbaiten pisura joaten direnean soilik identifikatu daitezke bezero gisa; egunerokoan, bezeroek ez dute «putazalea» hitza bekokian idatzita.

Kalean jarduten duen kideari gertatzen zaion bezala, barruan jarduten duen sexu-langilearen kasuan ere askoz handiagoa da langileak sexua saltzeko duen beharra bezeroak sexua erosteko duen «beharra» baino. Gizona olgetan ari da; emakumea, alokairua ordaintzen. Beraz, emakumeak lan egiteko modua aldatu behar du ezinbestean, bezeroak edukitzen jarraitzeko. Normalean, nahiago izango du bezeroak beraren etxean hartzea, bere lurraldean; lagun bat ere izan dezake berarekin, aldameneko gelan ezkutatuta, bera zaintzen. Bezeroarentzat, ostera, sexu-langilearen etxera joatea da atxiloketari begirako aukerarik okerrena. Beraz, langileak joan behar du bezeroarengana, haren etxera edo hark hotelen batean hartutako gela batera. Hor leku ezezagunean egongo da.

Norvegiako gobernuaren txosten baten arabera, legearen ondorioz, «jada kalean jarduten ez dutenek indarkeria-arrisku

563 *Ibid.*, 13, 19–20.

564 Levy, *Criminalising the Purchase of Sex*, 121.

handiagoa dute [...] etxeko bisita batean, prostitutak ez daki zerekin egingo duen topo».⁵⁶⁵ Jada ezin du bere lagun bat eduki aldameneko gelan telefonoarekin edo dena delakoarekin denbora ematen eta adi, zerbait gertatuz gero laguntzeko prest; toki ezezagun batera joan behar du, non beharbada bezeroak bere lagun mozkorrak baitauzka bainugelari ezkatututa, emakumeak sarrerako atea itxiko zain.

Nola konpontzen dira barruko langileak beren segurtasuna bermatzeko?⁵⁶⁶ Asko bezeroa aztertzen saiatzen dira, haien benetako izena galdetuz, edo ez dituzte hartzen telefono-zenbaki ezkutueta deiak. Hala, hitzordua zehazteko egindako deian bezeroa erasokor jartzen bada, langileak mehatxu egin diezaioke, bere izena edo telefono-zenbakia poliziara eramango duela esanez. Baina bezeroak jada aurrekari kriminalak baditu, beldurtu egin daiteke, eta pentsa dezake poliziak langilearen telefonoa edo apartamentua ikertuko duela eta bera identifikatzeko gai izango dela. Horregatik, ez dio oinarrizko informaziorik ematen langileari, ezta bere benetako izena ere, eta zenbaki ezkutu batetik deitzen dio. Eraso edo lapurreta bat egin nahi duen gizon batek badaki hitzordua adostu dezakeela sexu-langile batekin eta ia aurkiezina izan; izan ere, bezeroak kriminalizatu izanak bere burua identifikatu behar ez izateko *abantaila* ematen dio.⁵⁶⁷ Irlandan, sexu-langileen segurtasuna bermatzen duen Ugly Mugs erakundeak dio 2017an sexu-erosketari buruzko debekua indarren jarri eta hurrengo bost hilabeteetan sexu-langileek bezero biolento eta oldarkorrei buruzko 1.635 kexa jarri zituztela, 2016an denbora-tarte berean baino % 61 gehiago.⁵⁶⁸ «Jendeak [...] ez du berari buruzko xehetasunik eman nahi», adierazi zuen (jada hila den eta zinez hutsune handia utzi duen) Laura Lee sexu-langile eta aktibistak Ipar Irlandan legea indarrean sartu zenean. «Bat-batean, denak “John” bihurtu ziren».⁵⁶⁹

565 Norvegiako Justizia eta Segurtasun Publikoko Ministerioa, «Purchasing Sexual Services in Sweden and the Netherlands: Legal Regulation and Experiences», 13.

566 Sanders, T. (2005) *Sex Work: A Risky Business*, Cullompton: Willan Publishing, chapter 4.

567 Levy, *Criminalising the Purchase of Sex*, 189.

568 Gallagher, C. (2017ko irailaren 4a) «Dramatic rise» in attacks on sex workers since law change», *The Irish Times*, irishtimes.com.

569 Gentleman, A. (2016ko otsailaren 5a) «Sex worker and activist Laura Lee: «It's now far more difficult to stay safe», *Guardian*, theguardian.com.

Lehenago bezala, eragin horiek guztiak konbinatu egiten dira. Bezero batzuk urrundu egingo dira, eta horrek esan nahi du sexu-langileak ezin izango diela ezetzik esan geratzen direnei, ezta nazkagarri- eta oldarkor-itxurakoei ere, ezta tarifa jaisten edo mugak hausten saiatzen direnei ere. Hori erraz ulertu behar litzateke: bezeroa langai duen edonork –ez bakarrik sexu-langileek– daki espero baino bezero gutxiago edukiz gero posizio *ahulagoan* dagoela idealetik asko urruntzen diren bezeroei ezetz esateko. Beharbada desatseginak dira, edo zure lan-gaitasunetik kanpo dauden gauzak eskatzen dizkizute, edo ez dizute behar bezala ordaintzen. Baina, sosik gabe bazaude, presio handiagoa izango duzu haiek onartzeko.

Galtzen ari den diru-sarrerara berdintzen saiatzeko, sexu-langile batek zerbitzu berriak eskaini ditzake; agian, kondoirik gabeko sexua. Norvegiako gobernuak legeari buruz egindako azterketa batean azaldu zenez, «orain prezioak debekua ezarri aurretik baino txikiagoak dira. [Sexu-langileek] Gehiago bidaiatu behar dute eta iragarki gehiago jarri behar dituzte, eta, nolabait, prezioak txikiagoak dira; horrek erakusten du gaur egun lehia gogorragoa dela eta eskaera txikiagoa. Orain, prostituzioan diharduten gizon eta emakumeek gogorrago lan egin behar dute [lehen adinako] diru-sarrerara bermatzeko».⁵⁷⁰ Gera gaitetzen une batez, eta hausnar dezagun zer esan nahi duen esaldi honek sexua saltzen duen jendearentzat: «lehia gogorragoa da [...] orain, prostituzioan diharduten gizon eta emakumeek gogorrago lan egin behar dute».

Eredu nordikoaren aldekoak zuzen dabilta: bezeroek botere-desoreka handi bat dute haien alde; baina ez dute kontuan hartzen bezeroen kriminalizazioak are gehiago okertzen duela botere-desoreka hori. Harrigarria izan daiteke hori entzutea; izan ere, Wendy Lyon giza eskubideen aldeko abokatuak dioen bezala, «intuitiboki, badirudi trukean parte hartzen duten alderdietako bat bakarrik kriminalizatzeak besteari mesede egin behar diola».⁵⁷¹ Nolanahi ere, horrek alde batera uzten du egitate

570 Rasmussen, I. et al. (2014) «Evaluation of Norwegian legislation criminalising the buying of sexual services (English summary)», Norvegiako Gobernuak, txostena hemen eskuratu daiteke: rm.coe.int, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

571 Lyon, W. (2014) «Client Criminalisation and Sex Workers' Right to Health», *Hibernian Law Journal*, 13, 58–97, 69.

garrantzitsu bat –zeina behin eta berriro errepikatuko baitugul–, alegia, askoz *handiagoa dela langileak sexua saltzeko duen beharra bezeroak sexua erosteko duen «beharra» baino*. «Beharren asimetria» hori funtsezkoa da eredu nordikoaren benetako eragina ulertzeko. Eta zenbat eta prekarioagoa izan langilea, hainbat eta handiagoa izango da lege-ereduak harengan duen eragina. Imaginatu zer-nolako etsipenez bilatuko duen langileak bezero bat alokairua ordaintzeko berandu badabil edo opiazeo baten abstinentzia-sindromea jasateko zorian badago. Bere gain hartuko du bezeroak atxiloketatik libre sentitzeko behar duen edozein baldintzaren zama, eta horrek esan nahi du prest egon behar duela alde batera uzteko bestela erabiliko zukeen segurtasun-estrategia oro. Azken finean, bezeroa segurua dago *zenbat eta anonimoagoa izan eta haien topaketa zenbat eta klandestinoagoa izan*. Wendy Lyonsek dioenez, «beharren desoreka» hori dela eta, «saltzaileak ezin du abantailarik atera eroslearen kriminal estatutetik. Erabat ulergarria da, are auresangarria, etsipen-egoeran dagoen sexu-langile batek *bezeroaren baldintzak* onartuko dituela negoziazioan, baldin eta alternatiba bakarra bada bezeroa erabat galtzea».⁵⁷² Langileak gehiago behar du bezeroa bezeroak sexua erostea behar duena baino, ezta? Norvegiako gobernuak ere onartzen du sexu-langileentzat orain «erosleen merkatua» dela.⁵⁷³

Hori guztia berezkoa du «eskaerari amaiera ematea» aldeztu duen ikuspuntuak, zeina neurri handi batean ekonomia sinplean oinarritzen baita. Ideia da: eskaera gutxitzeak «merkatua zuzenduko» du; izan ere, jende gutxiagok ordaindu nahiko duenez sexuaren truke, jende gutxiagok salduko du. Baina itxura batean batere ertzik ez duen istorio horrek ez du kontuan hartzen produktu edo zerbitzu baten eskaera jaisten duzunean zera gertatzen dela lehen-lehenik, salmenta-prezioek behera egiten dutela eta saltzaileak etsi-etsian lehiatzen direla gero eta txikiagoa den merkatuaren zati bat mantentzeko. Bestela esanda, *legea espero bezala funtzionatzen ari da* sexua saltzen duten pertsonak are pobregago eta are prekarioago bihurtzen dituenean. Ann Martin Suediako trafikoaren aurkako unitateko burua da,

572 *Ibid.*, 70.

573 Rasmussen, et al., «Evaluation of Norwegian legislation criminalising the buying of sexual services (laburpena ingelesez)».

eta baieztapen hori onartzen du: «Jakina, uste dut legeak ondorio negatiboak dituela prostituzioan diharduten emakumeentzat, baina hori ere lortu nahi dugu lege honekin. Ez litzateke iraganean bezain erraza izan behar kalera irten eta sexua saltzea».⁵⁷⁴ Ezinezkoa da «eskaerari amaiera ematea» sexua saltzen duten pertsonak pobreago bihurtu gabe, eta jendea pobreago bihurtzeak *murriztu egiten du* haiek bezeroekin negoziatzeko duten *boterea*. Eredu nordikoaren aldekoak *zuzen* dabilta: jende gehienak aukera gutxi edo batere aukerarik ez duelako jotzen du sexu-lanera. Aukera-gabezia hori dela eta, eskaera murriztea oso kaltegarria da. Jendeak aukera gutxi edo batere aukerarik ez duenean, ezin du sexu-industriatik erraz «irten» baldintzak gogortzen diren bakoitzean.

Batzuetan, sexu-industriarekiko kritikoak diren pertsonak gai dira arrazoi horretaz ohartzeko beste testuinguru batzuetan. Kat Banyard Erresuma Batuko prostituzioaren aurkako feminista ezagunak dioenez, *strip-tease*-klubetako managerrek dantzarien boterea txikitzeke duten bideetako bat da bermatzea kluba beti dantzariz beteta dagoela, «hala, haien artean beti lehian arituko dira, bezeroak lortzeko».⁵⁷⁵ Baina, harrigarriki, Banyard ez da ohartzen gauza bera gertatzen dela sexuaren truke ordaintzeko prest dauden bezeroen kopurua txikitzen baduzu. Ohi denez, horrek langile prekarioenei egiten die kalterik handiena. Norbaitek 25.000 libera irabazten baditu urtean eta bere diru-sarrerara jaitsi egiten bada, ez du izango dirua aurrezteko modurik, edo pisu merkeago batera aldatu beharko da, baina ziurrenik aurrera egiteko adina aurrezki izango du. Baina norbaitek, adibidez, 7.000 libera irabazten baditu urtean, diru-sarrerara txikitzeak krisia eragin diezaioke. Beharbada etxerik gabe geratuko da, edo, etxerik gabe ez geratzeko, bikotekide ohi oldarkorraren albora itzuliko da berriro. Gizarte-zerbitzuetara jo –laster hitz egingo dugu gehiagorretaz– eta prostituzioa uzteko laguntza eskatzen badu ere, prozesu horrek hainbat hilabete iraun dezake. Hilabete horietan, are gogorrago borrokatu beharko da orain «erosleen merkatua» den sexu-industrian bizirauteko.

574 Costa-Kostritsky, V. (20 January 2014) «On Malmkillnadsgatan», *LRB Blog*, lrb.co.uk.

575 Banyard, K. (2010) *The Equality Illusion: The Truth about Women and Men Today*, Londres: Faber and Faber, 136.

Pobreziaren lerrora hurbiltzeak, askotan, proxeneta, bazkide, agente edo manager baten laguntza eskatzera behartzen ditu sexua saltzen duten pertsonak. Sarrera gutxi edo batere sarrierarik ez baduzu, hobe da etorkizuneko lanetik etor daitekeen dirua beste norbaitekin erdibanatzea, ezen ez batere dirurik ez edukitzea. Gure komunitateetan ere ikusi izan dugu hori: negozioa makal dabilenean, hala nola udako oportretan edo Gabon ostean, gosearen beldur diren sexu-langileak prest egoten dira lankideen bitartez lortutako lanen irabaziak haiekin partekatze-ko. Norbaiten pobrezia erlatiboaren eta bere lankideen gaitasun edo harremanen artean gertatzen den dinamika sinple horrek erakusten du hirugarren batek etekina atera dezakeela negozioa urria denean.

Horrekin ez dugu esan nahi gure ustez sexuaren truke ordaintzen duten gizonak edo beste inoren prostituzioaz baliatzen direnak onak direnik, edo sexua erosteko «eskubidea» dutenik, «babestu» beharrekoa, gainera (hori leporatzen diete askotan eredu nordikoaren aldekoek sexu-langileei).⁵⁷⁶ Esan nahi dugun bakarra honako hau da: prostituzioa murriztu nahi baduzu, jada sakonki baztertuta dauden pertsonak are prekarioago bihurtuko ez dituen bide bat aurkitu behar duzu. «Eskaerari amaiera ematearen» aldekoek tolestasunez jokatzen dute: alde batetik, esaten dute emakumeen pobrezia dela sexu-industriaren sustatzaile nagusia; baina gero, berek «irtenbide» gisa proposatzen dituzten politikak duten eraginari buruz hausnartu behar dutenean, pobrezia hori gauza hutsal gisa tratatzen dute. Women's Support Project [Emakumeei Laguntzeko Proiektua] prostituzioaren aurkako erakunde bat da, eta eredu nordikoaren aldeko hitz hauek dituzte idatziak: «Baldin eta gizonak ez balute sexua erosi nahi, prostituzioak ez luke baliorik izango biziraupenerako jarrera gisa».⁵⁷⁷ Biziraupen-jarrera bat «lana ez den zerbait» bihurtzen duen politika bat onartzen baduzu, baliteke politika hori *bizirauteko* erabiltzen saiatzen ari diren pertsona batzuek aurrerantzean ez bizirautea. Nordic Model Now [Eredu Nordikoa Orain] Erresuma Batuko erakunde bat

576 Ikus Amnesty International (2016) «Q&A: Policy to Protect the Human Rights of Sex Workers», hemen eskuratu daiteke: [amnesty.org](https://www.amnesty.org), 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

577 The Women's Support Project (2018), available [womenssupportproject.co.uk](https://www.womenssupportproject.co.uk), 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

da, eta fikziozko sexu-langile baten aipu hau erabiltzen du (poliziakide batek asmatua da, zeinaren lana baita sexu-eroslearen aurkako legea betearaztea): «Eredu nordikoa txarra da negozio-rako, baina ona nire segurtasunerako».⁵⁷⁸ Ezinezkoa da ideia hori irenstea, baldin eta ohartzen bazara, lehenago ikusi dugun bezala, pertsona marjinatuen artean ezinezkoa dela «negozioa» eta «segurtasuna» bereiztea: *zenbat eta pobreako, hainbat eta segurtasun txikiago*.

Mugimendu feministak ere jada ulertzen du hori. Argi dago, adibidez, Erresuma Batuan batez ere emakumeek jasan duten austeritatearen eraginek are arriskutsuago bihurtu dutela emakumeentzat abusuzko harremanetatik alde egitea. Women's Aid [Emakumeei Zuzendutako Laguntza] federazioko langile batek honela azaldu zion kazetari bati:

Une honetan, gure zerbitzuak erabiltzen dituzten emakumeen arazorik handienak austeritatea, ongizate-estatuaren erreforma eta etxebizitzaren krisia dira [...] haurrak berarekin hartu eta ostatu batera joateko erabakia hartu behar duten emakumeek pentsa dezakete etxean bizi duten egoera izugarria bada ere han behintzat haurrentzako janaria prestatzeko aukera dutela.⁵⁷⁹

Baliabideak eskuratzeko zailtasun handiagoa duten emakumeak ahulagoak dira gizon biolentoen aurrean. Hori ez da gertatzen sexu-industrian bakarrik. Nagusiki jende baztertuak egiten duen edozein lan-motari buruz ere gauza bera esan genezake; egia unibertsala da lan hori desagerrarazteak ez diola ezertan lagunduko bizirauten saiatzeko erabiltzen ari denari. Jendeak beharrezko dituen baliabideak bermatzeko jotzen du sexu-industriara, eta lan horretan jardutea zailtzen duen edozein politikak haien segurtasuna murrizten du, bai sexu-industriaren barruan bai beste edozein arlotan dituzten harremanetan.

2: Irteera-zerbitzuak

Beraz, zein da hurrengo urratsa? Eredu nordikoak ez du inolako laguntzarik aurreikusten?

578 Nordic Model Now (2017), diapositiba-aurkezpena, hemen eskuratu daiteke: nordicmodelnow.files.wordpress.com, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

579 Brown, A. (2018ko ekainaren 22a) « "I never looked back" Women's Aid worker opens up about own domestic abuse horror to highlight why organisation is still vital », *Daily Record*, dailyrecord.co.uk.

Ekimen hauek, «irteera-egitasm» deritzenek, feminista punitiboek irudikatutako eredu nordiko idealaren bigarren printzipioa osatzen dute. Baita Melissa Farley akademikoak ere, zeina bezeroen kriminalizazioaren defendatzaile irmoa baita, onartzen du legeak on baino kalte handiagoa egingo duela horrelako egitasmorik eskaintzen ez bada: «Bezeroak atxilotzeak, prostituzioaren ordez beste ezer eskaini gabe –hala nola etxebizitza, lanbide-heziketa eta prostituzioak eragindako kalteentzako tratamendua (adibidez, osasun mental eta fisikoaren arreta)–, zaildu egin dezake prostituzioan diharduten emakumeen bizitza».⁵⁸⁰ Itxura batean, hauxe lortu nahi da: sexua saltzen duen jendea ohartuko da diru-sarrerak txikitu zaizkiola eta prostituzioa jada ez dela estrategia ekonomiko bideragarri bat; beraz, alternatibak eskaintzen dizkien programa batera jo beharko dute. Irteera-zerbitzu horiek sexua erosteko debekuaren parte integrala dira. Nordic Model Now erakundearen ustez, «ezinbestekoa da ondo diruztatutako laguntza eta irteera-zerbitzuak eskaintzea [...] eta eredu nordikoa da ikuspegi hori lehenesten duen legeria bakarra, emakumeei laguntzen baitie beren bizitza berreraikitzen».⁵⁸¹

Egitasmo horiek era askotakoak izan daitezke. Bistakoena, noski, zuzenean laguntza ekonomikoa eskaintzea da; esate batera, prestazio ekonomikoak eskuratzen edo beste lan bat lortzen laguntzea. Edo norbaiten immigrazio-estatusa erregularizatzen laguntzea, ekonomia formaleko lan bat lortu ahal izateko. Edo farmaziarako errezetak ematea, edo terapia eskaintzea, edo beste edozein osasun-zerbitzu. Edo haurtzaintza-zerbitzua erabili ahal izatea, hezkuntza, etxebizitza... Azken finean, pertsona hori sexu-industrian sartzera bultzatu zuten faktoreak kontuan hartu edo arintzen dituen edozer.

Izena bera, «irteera-zerbitzu», problematikoa da; desohorean jartzen du arreta, eta iradokitzen du kontua ez dela pertsona hori *nora* joaten saiatzen ari den, baizik eta *nondik* datarren. Beste testuinguru batzuetan, horrelako egitasmoei «lan berri bat lortzeko» egitasmu edo «garapen profesionalerako»

580 Farley, M. (2017) «Book Review: *Shadow's Law, The True Story of a Swedish Detective Inspector Fighting Prostitution* by Simon H.ggstr.m», *Dignity: A Journal on Sexual Exploitation and Violence* 2:2, 5. artik.

581 Nordic Model Now!, diapositiva-aurkezpena.

egitasmu deitzen zaie. Prostituten kasuan, argi dago atzean utzi beharreko horretan jartzen dela arreta.

Laguntza-egitasmu eraginkor eta moralistak onak dira; era guztietako jendeak behar du laguntza apur bat prestazio ekonomikoak eskatzeko, burokraziari aurre egiteko, haurren zaintza bideratzeko eta gaitasun berriak eskuratzeko. Zoritxarrez, sexu-langileak prostituziotik atera nahi dituzten proiektuak eraginik gabeak eta moralistak izaten dira askotan.⁵⁸² Are okerrago, horietako batzuek sexu-langileak kriminalizatzen dituzte; adibidez, Kenten «irteera segururako» programak (4. atalean hitz egin dugu horri buruz). Berez, *irteera-egitasmu* terminoak badu zama bat sexu-langileentzat. Baina sexu-langileen alde lan egitea ez da soilik sexu-lana seguruagoa izatea lortzea; lan hori atzean uzteko heziak kentzea ere bada. Beraz, balio-iritzirik agertu gabe sexu-langileei aukera *gehiago* edo aukera *hobeak* ematea helburua duen edozein ekintza aldi berean izango da «irteera-egitasmu» bat eta sexu-langileen eskubideen aldeko lorpen bat, eta sexulanaren alorreko militanteak era horretako proiektuetan lanean ari dira jada munduko bazter guztietan.⁵⁸³

Estatu mailan, halere, era horretako ekimenek dirua behar dute; asko, gainera: Silvia, Annabel, Violeta eta beste pertsona batzuen bizitzetan prostituzioak diru-sarrera ekonomiko nagusia izateari uzten hasteko adina, baldin eta hori bada emakume horiek nahi dutena. Sexua saltzen duten pertsonak behar konplexuak izaten dituzte maiz, eta ezinezkoa da lau txanponekin laguntza holistikoa ematea. Horretan, sexu-langileak eta prostituzioaren aurkako progresistak bat etor daitezke; izan ere, era horretako militanteek askotan azpimarratzen dute prostituzioa uztea denbora eta babesa eskatzen dituen prozesu konplexu bat dela, baita hala egin nahi duenaren kasuan ere.⁵⁸⁴

582 Heiberg, T. (2011) «Exploring Prostituted Women's Experiences of South African Exit Intervention: An Interpretative Phenomenological Analysis», *Lurmutur Hiriko Unibertsitatea (Tesia)*, hemen eskuratu daiteke: knowledgeco-op.uct.ac.za, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

583 Adibidez, sexu-langileek gidatutako Zimbabwe-ko Pow-Wow erakundeak «diru-sarrerak osatzeko» proiektu bat du martxan; sexu-langileei laguntzen die sexu-lanaz gainerako diru-iturriak aurkitzen. NSWP, «Pow Wow», 2018, [nswp.org/ featured/pow-wow](http://nswp.org/featured/pow-wow). Londreseko X:talk proiektuak ingeleseko hizkuntza-gaitasunak eskuratzeko laguntzen die sexu-langile migratzaileei; hala, baldintza hobeak negoziatu ditzakete lanean, eta, nahi izanez gero, beste lan bat aurki dezakete. Informazio gehiago: xtalkproject.net.

584 Glass, A., «Fact: Women often struggle to leave prostitution»; *Nordic Model Now!*,

Zentzu batean, Silvia, Annabel eta Violeta prostitutak ez izatea nahi baduzu, *bada* irtenbide erraz bat. Baldin eta Silviak 200 libera irabazten baditu astean bi gauez kaleko sexu-lanean jardunda, eman iezazkiozu astean behar dituen 200 libera horiek. (Azpimarratu behar da hori ezin dela berdindu Silviari beste lan bat aurkitzearekin, astean 200 libera emango dizkiona. Ez da gauza bera bi gauez sexu-lanean jardunda 200 libera irabaztea eta gutxieneko soldata ordaintzen duten txandakako lan batean 200 libera irabaztea, are gutxiago zure haurrak zaindu ditzaten ordaindu behar baduzu edo desgaitasunen bat baduzu. Silviak bere arrazoiak izan ditzake gutxieneko soldata ordaintzen duten lan bat hartu ahal edo nahi ez izateko, edo bere behar espezi-fikoak ulertzen ez dituen batek eskaintzen dion beste edozein lan. Laguntza-mota bat emateak esan nahi badu laguntza horren hartzaileak lehenbailehen lortu behar duela *lan* bat, «laguntza» hori zigor bihurtzen da, Britainia Handiko gizarte-segurantzaren sare higatua ezagutzen duen edozeinek baieztatu dezakeen bezala). Jendeak baliabideak eskuratzeko saltzen duetia; bermatzen badiezu behar dituzten baliabideak izango dituztela, beren denborarekin beste zerbait gitea aukeratuko dute.

Eredu nordikoaren irteera-zerbitzuen izen ona ez dator bat haiek aztertuz gero ateratzen diren ondorioekin. Suediako gobernuak 2005ean egindako azterketa batean ondorioztatu zuten, «kriminalizazioa prostituzioa murrizteko prozesuaren osagarri bat besterik ezin da izan, eta ezin ditu, inola ere, gizarte-ekimenak ordeztu. Asmoa hori bada ere, *gizarte-zerbitzuetara ez da bideratu aparteko aurrekonturik* [...] poliziak, berriz, aparteko dirua jaso zuen behin eta berriro helburu horretarako» [letra etzana gurea da].⁵⁸⁵ Ezkerreko politikari batek horren inguruko kezka agertu zuen Suediako parlamentuan; izan ere, «Stockholm-en Prostituzio Zentroak daude, eta prostituzioari ari diren edo aritu izan diren pertsonak tratatzen dituzte [...] [zentro horietan] baliabide urriak daude».⁵⁸⁶

diapositiva-aurkezpena.

585 Suediako Parlamentua (2005) «Makt att forma samhället och sitt eget liv-jämställhetspolitiken mot nya mål [Gizartea eta bizitza bera moldatzeko boterea – Helburu berrietarako berdintasun-politikak]», hemen eskuratu daiteke: riksdagen.se, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

586 Sköld Jansson, C. et al. (2004) «Nationellt resurscentrum för prostituerade [National Resource Center for Prostitutes], Motion 2004/05:S3068», Suediako Parlamentua,

Zaila da sinestea estatu nordikoen begietara sexu-langi-leak laguntza behar duten biktimak direnik; izan ere, posible da bortxatzaile batek zigorra murriztea, «bere biktimak prostitutak zirela» argudiatuta.⁵⁸⁷ Bestalde, badirudi inork ez diola jakinarazi Suediako polizia prostitutei laguntza eskaini behar dietela. Jonas Trolle superintendente eta ikertzaile suediarrek adierazpen gomutagarri hauek egin zizkion kazetari bati: «Zaila izan behar luke gure gizartean prostituta izatea; beraz, kartzelan sartzen ez baditugu ere, bizitza zailtzen diegu».⁵⁸⁸

Emakume suediarren Gobernu Kanpoko Erakundearen sektoreko aholkulari politiko batek ikertzaile bati esan zion bezala, «[prostituzioari buruzko legeak] benetan izango balu emakume horiei laguntzeko xedea, orduan programa zabal bat ere izango genuke, haientzako programa sozial bat, eta hori ez zen sekula martxan jarri».⁵⁸⁹ Prostituzioaren alorreko gobernu-aholkulari garrantzitsu batek ere antzeko irakurketa egin zuen:

Maila politikoko diskurtsoa beti da garrantzitsuagoa [legeak barne hartzen duen] kategoria horretako pertsonen alde [haien bizitza errealean] zerbait egitea baino [...] Gobernuak jakin behar zuen ez dutela ezer egin, ezta ezertxo ere, sexua saltzen duten pertsonen zuzendutako gizar-te-zerbitzuak hobetzeko, eta ez dietela ezta txanpon txiki bakar bat ere eman udalei. Noski, garestia izango zen [...] ez da hain garestia, noski, legea esportatu eta sustatzea konferentzien eta [proiektatutako] dokumentalen bidez.⁵⁹⁰

Sexu-langileen komunitateek murrizketa horiez harago ikusten dute. Stop the Arrests (STA) [Atxiloketa Gehiagorik Ez] Kanadako aktibisten kolektibo bat da; haien ustez, sexu-langi-leak «“bizitzan egindako aukera okerrak” atzean uzten laguntzen dieten programetan parte hartzera behartzen dituzte auzitegien bidez [...] gizabanakoaren aldaketan jartzen dute arreta, ez gi-

hemen eskuratu daiteke: riksdagen.se, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

587 VG Nyheter [VG News] (2017) «Mann fikk lavere straff fordi voldtektsofrene var prostituerte [Gizon batek zigor txikiagoa jaso zuen, bortxaketaren biktimak prostitutak zirelako]», available vg.no, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

588 Ashton, C. (2010eko irailaren 30a) «Could Sweden's prostitution laws work in the UK?» *BBC News*, bbc.com.

589 Levy, *Criminalising the Purchase of Sex*, 189.

590 *Ibid.*

zarte osoaren aldaketan. Dirua da behar duguna, hitzak haizeak eramaten ditu». ⁵⁹¹

Eskaizten diren zerbitzuak sexu-langileen aurkako arranguraz josita daude, eta kondoiak edo kalteak murrizteko beste material batzuk banatzea sexu-lanaren sustapentzat jotzen da. «Beharbada neska gazte batzuek [...] [segurtasun-baliabide] hau Interneten aurkituko dute, eta pentsatuko dute “A, beharbada benetan segurua da, eskuliburu hau daukat eta”», dio Suediako Trafikoaren eta Prostituzioaren aurkako Koordinatzaile Nazionalak, eta eranstean du, isekari: «Horrenbeste diru irabazten badute, beharbada kondoiak beren poltsikotik ordaindu ditzakete». ⁵⁹² Stockholmeko Prostituzio Unitateko gizarte-langile batek honela dio: «Uste dut denbora gehiago beharko dugula zure arazoarekin [hau da, prostituzioarekin] zerbait egiteko, baldin eta denboratarte horretan laguntza jasotzen baduzu». ⁵⁹³

Lisa Suedian lan egiten duen sexu-langile bat da, eta salatu zuen Stockholmeko Prostituzio Unitateak ez ziola laguntzarik eskaini prostituzioa utzi zuenera arte:

[Gizarte-langileak] Esan zidan lagundu egungo zidala eta [gaixotasun-prestazioa baimentzeko ohar bat] idatziko zuela [...] eta esan zidan, «prostituzioa uzten baduzu hiru hilabetez, eta ez baduzu ezer egiten hiru hilabetez, ohar hori idatziko dut» [...] Haserretu egin nintzen, zeren eta sexu-lanean jarduten ez badut, nola irabaziko dut dirua? Lehenengo dirua behar dut, eta, hori edukitzen badut, orduan bai, prostituzioan lan egiteari utzi ahal izango diot. ⁵⁹⁴

Irlandan, txosten batzuetan azaldu zen emakumezko asilo-eskatzailak sexua saltzen ari zirela; horrek Frances Fitzgerald justizia-ministroaren arreta piztu zuen, eta eredu nordikoaren legeria ezagutarazteko kanpainan erabili zuen. Honela zioen Fitzgeralddek: «Iruditu zitzaidan, eta orain ere hala iruditzen zait, era horretako txostenak izugarriak direla. Zalantzarik gabe, ez dut nahi Irlandan emakume bakar batek ere senti dezan prostituzioa dela familia zaintzeko duen bide bakarra». ⁵⁹⁵ Irlandan

591 Sex Professionals of Canada (2013) «STOP the Arrests!!! SSM – One year and still fighting with love and RAGE», SPOC, hemen eskuratu daiteke: spoc.ca, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

592 Levy, *Criminalising the Purchase of Sex*, 144, 148, 190–1.

593 *Ibid.*, 150.

594 *Ibid.*, 166.

595 Minihan, M. (2014ko irailaren 2a) «Minister «shocked» by reports of direct provision

asilo bila dabiltzan pertsonak –prozesu horrek, askotan, hainbat urte irauten du– «oinarrizko dirulaguntza» bat jasotzen dute estatuaren eskutik. Prostituzioari buruzko txostenak azalarazi zirenean, laguntza hori hemeretzi eurokoa zen astean. Irlandan bezeroak kriminalizatzeko lege-zirriborroa argitaratu zenean, Wendy Lyon-eko honako hau idatzi zuen:

Ez da atzera egin gizarte-ongizatearen murrizketetan eta haurrengatiko prestazioetan, eta murrizketa horiek, zalantzarik gabe, emakume gehiago bultzatu dituzte prostituziora; ez dira igo asilo-sisteman dauden emakumeei astean ematen zaizkien 19 euroak, ez dago aurrekontu gehigarririk hezkuntzarako, ez prestakuntzarako, ez beste aukera batzuetarako bidea zabal lezaketen desintoxikazio-programetarako.⁵⁹⁶

Hau idazten ari garelarik, igo egin da asilo-eskatzailleek Irlandako estatutik jasotzen duten prestazioa; une honetan, 21,60 eurokoa da astean.⁵⁹⁷ Pobreziak jendea prostituziora bultzatzen duenean, eredu nordikoaren erantzuna ez da pobrezia hori arintzea, baizik eta pertsona horien biziraupen-estrategiak mugatzen saiatzea.

Zerbitzu horiek diruz ondo hornituak baleude eta moral-keriarik agertuko ez balute ere, krudela da sexu-industria are latzagoa bihurtzea sexu-langileak zerbitzu horietara bultzatzeko. Oro har, sexu-langile marjinatuenean denbora gehiago behar izaten dute zerbitzuetara jo eta lana aldatzeko, nahiz eta hori izan haien nahia. Drogazalea bazara edo osasun mental eskasa baduzu, eta, beraz, hitzorduak errespetatzeko arazoak badituzu, zerbitzua eskuratzeko ere ezinean ibiliko zara. Agiririk ez baduzu eta zerbitzuetara jotzeko beldur bazara, deportatuko zaituztela-koan, edo ama bazara eta uste baduzu gizarte-langileen aurrean prostituta gisa agertzeagatik haurren zaintza galtzeko arriskua izango duzula, orduan –nahiz eta kezka horiek funsgabeak izanahal beste eutsiko diozu zerbitzuetara jotzeko arriskua hartu aurretik. Egoera horien konplexutasuna dela eta, hainbat hila-bete –edo denbora gehiago– igaro daitezke prostituziotik irteteko aukera izan arte. Eta, bitartean, nahita gogortutako sexu-indus-

prostitution», *The Irish Times*, irishtimes.com.

596 Lyon, W. (2014ko abenduaren 6a) «On Frances Fitzgerald's bill to criminalise clients», *Feminist Ire*, feministire.com.

597 Irish Reception and Integration Agency «Direct Provision», txostena hemen eskuratu daiteke: ria.gov.ie, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

trian lan egiten jarraituko duzu. Baina hori guztia hipotetikoa da; izan ere, ezta Suediako irteera-zerbitzuek ere –eta hori da eredu nordikoaren epizentroa– ez diete behar bezala erantzuten sexu-lana utzi nahi dutenen beharrei.

3: Saltzailea

Eredu nordikoan, hirugarren printzipio nagusia prostituta deskriminalizatzea omen da. Eredu honen aldekoek behin eta berriro azpimarratzen dute hori. Banyardek azaltzen duenez, eredu nordikoak sexua erostea eta hirugarrenek etekina ateratzea kriminalizatzen du, baina erabat deskriminalizatzen du sexua saltzea.⁵⁹⁸ Britainia Handiko parlamentari Thangam Debbonaire-k dioenez, «Eredu nordikoaren aldekoak beti argi mintzatu izan dira. Eskaintzaren erabateko deskriminalizazioa, eskaeraren kriminalizazioa».⁵⁹⁹

Beste behin ere, asmoa, orokorrean, ona izan daiteke. Praktikan, halere, estilo nordikoko legeak dituzten herrialde guztietan eutsi egin zaio neurri handi batean sexu-langileen kriminalizazioari. Sexua eskaintzearen aurkako udal-legeak daude, pisua partekatzen duten sexu-langileak kriminalizatzen dira, sexu-langileak etxetik kanpora bidaltzen dira eta prostituzioaren eta immigrazioaren legeak elkarrekin eta zorrotz erabiltzen dira, sexu-langileak deportatzeko.

Frantzian, eredu nordikoaren bultzatzaileek haren arrakasta ospatu zuten ezarri eta urtebetera, eta nabarmendu zuten milaka bezero atxilotu zituztela, eta «zero pertsona prostituta».⁶⁰⁰ Halere, Wendy Lyonek desberdin samarra den beste istorio batekin egin zuen topo. Baliogabetu den lege bakarra sexua eskaintzearen aurkako lege nazionala da. *Udaletan*, oraindik ere, badira hainbat «dekretu prostituzioaren aurkakoak», kalean jarduten duten sexu-langileen atxiloketa etengabea eragiten dutenak.⁶⁰¹ Beraz, ez dirudi «persona prostituentzat» «zero atxiloketa» izan direnik.

598 Banyard, K. (2017ko abuztuaren 22a) «Legalise prostitution? We are being asked to accept industrialised sexual exploitation», *Guardian*, theguardian.com.

599 Debbonaire, T. (@ThangamMP) Twitter, 10:20 a.m., 2016ko irailak 27.

600 Cox, S. (2017ko apirilaren 13a) «What's Current: 937 Johns, zero prostituted women arrested in France since adoption of Nordic model», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

601 Lyon, W. (2017ko apirilaren 17a) «Sex work in France, one year on», *Feminist Ire*,

Irlandan eredu nordikoa ezarri zutenean, ministroek atzera bota zuten xedapen bat, zeinak aukera ematen baitziren sexu-langileei bezeroa atxilotzeko unean eskuetan zuten dirua gordetzeko. Aitzitik, bezero bat atxilotzen dutenean, poliziaek emakumeen diru guztia hartzen dute, «krimenaren bidez eskuratutako irabaziak» direlakoan.⁶⁰² Hori, zer esanik ez, sexu-langileei ezarritako *de factoko* isun bat da. Norvegian, kalean jarduten zuten sexu-langileei isunak jartzen zizkieten baita ustez «deskriminalizatuak» izan eta zenbait urtetara ere. Poliziak sexu-langilearen bizilekuaren berri badu, ohikoa izaten da handik kanpora egoztea, eta, Norvegiako legearen arabera, isuna jar diezazukete poliziakide batek etxeko helbidea eskatu eta ematen ez badiozu. Langileak helbidearen berri ematen badie, etxetik kanpora botatzen dute (oro har, egun berean); ematen ez badie, isuna jartzen diote.⁶⁰³

Poliziaren jarduteko era horrek emakume Beltzei eragiten die gehienbat. Tina nigeriarra da, eta sexu-lanean dihardu Norvegian. Berak dioenez, «Beltza bazara, emakume Beltza atzeman eta gizon zuri aske uzten dute».⁶⁰⁴ Esther Beltza da, eta bera ere sexu-langilea da Norvegian; bere ustez, aldaketa nabarmena gertatu da:

2008tik 2009ra, poliziak galdetzen zizun zer moduz zeunden. 2011tik aurrera, neurri zorrotzak hartu dituzte. Orain etortzen dira eta [mahaia kolpatzen du] bam, bam, bam! Errumaniarrekin edo bulgariarrekin baino askoz okerrago jokatzeko dute nigeriarrokin. Iaz [2014] izan zen okerrera. Iazko irailaz geroztik, gerra izan da; ez dute aurpegi Beltzik ikusi nahi.⁶⁰⁵

Eunice kaleko langile nigeriarra da. Amnesty erakundeari esan zionez, «bezeroek badakite poliziak erantzun egingo duela baldin eta neska zuriei zerbait gertatzen bazaie. Eta badakite poliziaek ez dutela ezer egingo emakume Beltz bati laguntzeko».⁶⁰⁶

feministire.com.

602 Coyne, E. (2017ko otsailaren 3a) «Bill makes sex workers "poorer and unsafe"», *The Times*, thetimes.co.uk.

603 Amnesty International (2016) «The Human Cost Of "Crushing" The Market: Criminalization Of Sex Work In Norway», s. 3.13, *Amnesty USA*, hemen eskuratu daiteke: amnestyusa.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

604 *Ibid.*

605 *Ibid.*

606 *Ibid.*

«Zalantza-izpirik gabe, Norvegiar gertatzen ari denak inpaktu latza du sexu-langile baztertuengan», dio Amnesty Internationaleko Catherine Murphy-k. «Poliziak gehien jazartzen dituen pertsonak arrisku gehiago dute indarkeria jasateko, etxerik gabe geratzeko edo deportatuak izateko. Emakume horiek dira inpaktua gehien pairatzen dutenak».⁶⁰⁷

Eredu nordikoa ez da talde marjinetuen gaineko gehiegizko kontrol polizialaren eragile bakarra, noski. Mundu osoan, polizia-indarrek populazio zehatz batzuk aukeratzen dituzte jartzeko, xantaia egiteko, lapurtzeko edo erasotzeko. Baina hori guztia egiteko duten boterea poliziek berek betearazten dituzten *legeen bidez* lortzen da, eta lege horiek haien zereginari ematen dioten legitimitatearen bidez. Prostituzioaren aurkako legeek indartu egiten dute poliziak prostituten biziraupena aztoratzeko xedez haien bizitzetan sartzeko duen autoritatea.

Sydney Kanadako sexu-langile indigena bat da. Bere kasuak argi erakusten du poliziek pentsamolde oportunistak dutela eta eskura duten aukera oro baliatzen dutela kaleko sexu-langileei jazartzeko. Honela dio: «Zigarreta bat nuen eskuan, eta erabat erretzen ari zen, eta esaten zidaten «zer egingo duzu, lurrrera bota? Hori egiten baduzu, inguruko mutxikin guztiak jaso beharko dituzu»».⁶⁰⁸ Jenn Clamen Montreal-eko sexu-langileen eskubideen aldeko Stella taldeko kidea da. Bere ustez, «polizia-lana «salbatzaile» gisa aurkezten denean –eta hori da, hain zuzen, eredu nordikoak sexu-langileekin egin nahi duena–, tresna bat gehiago ematen diogu poliziari komunitate horien aurka jotzeko».⁶⁰⁹

Barruko langileen kriminalizazioa

Eredu nordikoa indarrean dagoen jurisdikzio gehientzuetan, kriminalizatu egiten dituzte pisua partekatzen duten sexu-langileak. Oslon, Norvegia, emakume sexu-langile bat burdel bat eramateaz salatu zuten, pisua bi lagunekin partekatzegatik, nahiz eta epaimahaiak onartu zuen arrazoi nagusia

607 Gira Grant, M. (2016ko maiatzaren 26a) «Amnesty International Calls for an End to the «Nordic Model» of Criminalizing Sex Workers», *The Nation*, thenation.com.

608 Benoit, C., et al. «Lack of Confidence in Police Creates a “Blue Ceiling” for Sex Workers» Safety». *Kanadako Politika Publikoa* 42:4, 456–68.

609 Posta-truke pribatutik.

segurtasuna zela.⁶¹⁰ Suediako poliziak etxeak zelatatzen ditu sexu-langileen bikoteak «harrapatzeko».⁶¹¹ Ipar Irlandan, eredu nordikoa ezarri zutenean, lehen-lehenik bezero bat eta hiru emakume sexu-langile atxilotu zituzten. Emakumeak burdel bat eramateagatik atzitu zituzten; itxura batean, bezeroa harrapatzeko egin zuten sarekada, eta, hara, hiru emakumeek pisua partekatzen zutela ohartu ziren.⁶¹²

Irlandako Errepublikan, 2017ko martxoan jarri zuten indarrean eredu nordikoa. 2017ko uztailean, bi emakume migraztaileri prostituzioarekin lotutako delituak egotzi zizkieten Kerry konderriko Tralee herrixkan. Florinak pisua errentan hartua zuen, eta etxea prostituziorako erabiltzen uztea egotzi zioten, nahiz eta epaimahaiak onartu zuen akordio hark ez ziola etekin «material edo ekonomikorik» ematen. Mihaiela laguna burdela eramateari buruzko legearen arabera akusatu zuten, «prostituziorako helbide bera erabiltzeagatik»; kondenatu egin zuten, eta isuna jarri zioten.⁶¹³ Eredu nordikoa aldeztu dutenek pentsa dezakete Florinak, maizter nagusiak, ondo merezia zuela burdela eramateagatik akusatzea, nahiz eta legea benetan zorrotz aplikatu behar den emakume migratzaile bat pisu bat partekatzeagatik auzipetzeko, are gehiago kontuan hartuta ez zuela etekin ekonomikorik jasotzen. Baina zaila da ulertzea zertan oinarrituta defenda dezakeen eredu nordikoaren aldeze batek Mihaiela auzipetu egin behar zutela.

Eredu nordikoaren aldeko pertsona ezagun batzuek gutxietsi egiten dute sexu-langileek elkarrekin lan egin nahi izateko eduki dezaketen gogoia. Adibidez, Carter Center erakundeko giza eskubideen alorreko aholkulari nagusi batek esan zuen «segurtasunagatik elkarrekin lan egitea [...] burdel bat eramateko edo proxenetismorako kode bat» baino ez dela, eta erantsi zuen: «Proxenetek sexu-langile deitzen diote beren buruari, beraz, dena bat dator».⁶¹⁴

610 Amnesty International, *The Human Cost*.

611 Butcher, M. (2012ko abuztuaren 4a) «Police Bust Prostitutes Using Airbnb Apartment in Stockholm», *Tech Crunch*, techcrunch.com.

612 McNamee, M.S. (2015eko azaroaren 5a) «First man arrested under new prostitution laws in the North», thejournal.ie.

613 Radio Kerry News (2017ko uztailearen 3a) «Two Romanian women admit involvement in Tralee brothel», radiokerry.ie.

614 Ryan, K. (@KarinDianeRyan) Twitter, 2:27 p.m., 2016ko irailak 29: «@Davidontour1

Egiaz, ohikoa da sexu-langileek pisua partekatzea. Baldin eta noizbait pisukide bat izan baduzu zure gastuak txikitzeko –edo laguntasuna atsegin duzulako–, ulertu behar zenuke zergatik nahi izaten duten sexu-langileek lanerako pisuak partekatzea. (Gizatasuna kentzen digute adierazten dutenean, nolabait, sexu-langileok hain garela bitxiak non argudio normal eta humano horiek ez baitagozkigu guri). Agerikoa da segurtasun-neurri bat ere badela, beste langile-mota askok ere erabiltzen dutena. Eredu nordikoaren aldeko batzuek ere onartzen dute pisuak partekatu izan dituztela sexua saltzen zuten garaian. Rachel Moran militante ezaguna da, eta honako hau idatzi zuen bere oroitzapenei buruzko liburuan: «Hitzordu bat jartzeko eskatzen bazidaten [...] kide nuen emakumeren baten burdeleko logela bat erabiltzen nuen. Zenbateko bat ordaintzen nien gela erabiltzeagatik, eta ohikoa zen horrela jokatzea. *Nik neuk ere dirua irabazi nuen horrela, neure pisua eduki nuenean*» [letra etzana gurea da].⁶¹⁵

Moran eredu nordikoaren aldeko mundu osoko militanterik ekinena izan da urte askoan: politikariek hitz egin izan du, eta behin hitzaldi bat eman zuen Nazio Batuen Erakundean; beste militante batzuek ere Moranen istorioa erabiltzen dute eredu nordikoaren beharra justifikatzeko adibide nagusitzat. Halako testuinguru estu eta kontraesanez josian, arraroa begitantzen da Moranen bat-bateko adierazpen hori, esanez ez bakarrik pisua partekatu zuela beste langile batzuekin, baizik eta «dirua irabazi» ere egin zuela horrela. Gaur eguneko sexu-langileren batek hori esango balu, bai Moranek bai bere laguntzarekin onartutako legeak proxenetatzat joko lukete. Guk ez dugu inoren izena belztu nahi. Moranen lan egiteko modua zilegizkoa eta ohikoa iruditzen zaigu; azken finean, «aukera-kostu» bat dago: zure gela erabiltzen uzten diozu beste langile bati bezero bat hartzeko, nahiz eta zeuk ere gela hori bera erabil zenezakeen lanerako. Sexu-industriari buruzko eztabaida gainberotuetatik kanpora, ez litzateke asaldagarria edo aipagarria izango zure espazioa erabiltzen ari den lagun bati fakturak ordaintzeko ekarpen ekonomiko txiki bat eskatzea. Mina ematen duena hipokrisia da, noski: Moranek

@ThangamMP "working together for safety" is code for running brothel/pimping. Pimps call themselves SWs so that's convenient».

615 Moran, R. (2015eko irailaren 19a) «My lessons in prostitution: How I learned the myth of the high-class hooker», *Salon*, salon.com.

urteak eman zituen Irlandan lege baten aldeko kanpaina egiten, eta lege horrek orain Moranek berak iraganean egindakoa zigortzen du; are gehiago, berak baino «adeitsuago» jokatzan duten emakumeak ere zigortu izan ditu, hala nola ekarpen ekonomikorik onartu ez dutenak eta ezeren truke lagunei beren espazioa erabiltzen utzi dietenak. (Eredu nordikoarekin, Irlandan bikoiztu egin zen «burdela eramateari» dagokion zigorra: lehen, sei hilabeteko espetxe-zigorra; orain, urtebetekoa). Hipokrisia horri buruz galdetu ziotenean, Moranek ez zuen argitu burdela eramateagatik zigor bat lagungarria izango ote zitzaion berari iraganeko garai hartan.⁶¹⁶ Jakina, Moran ez da galdera horri erantzun behar dion bakarra: beharbada eredu nordikoaren alde dauden guztiek argitu behar lukete ea beren ustez Moran burdel bat eramateagatik zigortzeak eragin positiboa izango ote zukeen berarengan edo gizartean oro har; eta, erantzuna ezezkoa bada, galdetu behar litzaieke zergatik atsegin duten presioa egitea beste sexu-langile asko auzipetzen dituzten legeak onar daitezen, zer eta Moranek berak egiten zuen gauza bera egiteagatik, ez besterik.

Adibideak ugariak dira. Sexua «binaka» saltzeak ere –hau da, hirukoteak iragartzeak–, burdelak eramateari buruzko legeen esku utz ditzake sexu-langileak: David eta Celia senar-emazteak sexu-langileak dira; 2018ko maiatzean, burdel bat eramateaz akusatu zituzten Irlandan, era horretan elkarrekin lan egiteagatik. Biek ozta-ozta saihestu zuten kartzela, eta bakoitzari 600 €-ko isuna jarri zieten.⁶¹⁷ Eta 73 urteko Terezinha ere bada-go, zeina 2017ko uztailean burdel bat eramateagatik auzipetu baitzuten Irlandan. Epaimahaiak onartu zuen ez zela izan inolako hertsadurarik. Terezinha, besterik gabe, pisu bat alokatzen ari zen –zeinetan berak ere sexua sal baitzezakeen–, eta beste emakume sexu-langile batekin partekatzen zuen. Auzian zehar, Terezinha oso artega egon zen, eta epaitegiko interprete baten bidez hitz egin behar izan zuen. Etsipenak jota ari zen sexua saltzen, semearen faktura medikoak ordaindu ahal izateko. Lau egun zeramatzen Irlandan, bezero bakarra izan zuen, eta 80 euro irabazi zituen. Epaimahaiak 80 euroak hartu zituen isun gisa, eta

616 Moran, R. (@RachelRMoran) Twitter, 10:34 a.m., 2018ko apirilak 9; SWARM (@SexWorkHive) Twitter, 11:19 a.m., 2018ko apirilak 8.

617 Deegan, G. (2018ko maiatzaren 9a) «Husband and wife hooker team selling sex from Irish home avoid jail», *Irish Mirror*, irishmirror.ie.

epaileak «agindu zuen diru hori [...] sexu-merkataritzan diharduten emakumeei laguntzen dien erakunderen bati emateko».⁶¹⁸

Etxegabetzeak

Poliziak eredu nordikoan oinarritutako legearen arabera lan egiten duenean, iruditzen zaio sexu komertziala oztopatzeari dela bere horretan, eta, askotan, «zure onerako ari naiz krudela izaten» erako estrategiak erabiltzen dituzte sexu-langileen aurka. Suedian, etxeak sexu-langileei alokatzen dizkieten etxejabeak atxilotu egin ditzakete, prostituzioa «sustatzeaz» akusatuta, eta horrek ageriko ondorioak ditu sexu-langileen prekaritate jada areagotuan eta etxerik gabe geratzeko arriskuan. Legeak etxetik kanpora bultzatzen ditu maizter sexu-langileak: «[Etxejabeak] Ez badu zentzuz egin beharrekoa egiten errentamendua bukatutzat emateko, ulertuko da negozioa sustatzen ari dela» [letra etzana gurea da].⁶¹⁹

Are gehiago, Norvegiako poliziak operazio berezi bat zeukan sexu-langileak etxetik kanporatzeko. Etxejabeari esaten zioten maizter jakin bat sexu-langilea zela uste zutela, eta bi aukera eskaintzen zizkieten: maizterra etxetik kanporatzea edo bera, etxejabea, auzipetzea. Maizterrak etxetik kanpora bidaltzen zituzten. Estrategia polizial horren xedeari buruzko zalantzak uxatu nahian edo, honela izendatu zuten: «Etxegabe Operazioa».⁶²⁰

Etxetik kanpora bidaltzeak eragiten duen gastu ekonomikoa sexuaren truke ordaintzen harrapatzen dituzten bezeroei jartzen dizkieten isunak baino handiagoa izaten da maiz. Etxetik kanpora bidalitako sexu-langileak alokairuaren hasieran berme gisa jarritako dirua ere galtzen du; eta dagokion hilabeteko errenta jada ordaindua badu, hori ere galtzen du. Enpatia apur bat duen edonor ohartu behar litzateke egun batetik bestera etxerik gabe beratzek eta diru-kopuru handi bat galtzek ez diola inori laguntzen prostituziotik irtetean. Neurri horiek ez datoz bat eredu nordikoan oinarritutako legeriari buruz esaten denarekin,

618 Nugent, R. (2017ko abuztuaren 7a) «Sex worker (73) was trying to pay for son's kidney transplant operation», *Independent.IE*, independent.ie.

619 Suediako Zigor Kodea (1962: 700, 2017an berrikusia: 1136), ch. 6, s. 12, hemen eskuratu daiteke: riksdagen.se, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

620 Amnesty International, *The Human Cost*.

alegia, prostitutat indarkeriaren biktima gisa tratatzen dituela. Nori bururatu dakioke indarkeria jasan duten emakumeak etxetik kanpora bidali behar direla?

Mercy emakume Beltza da, eta sexu-lanean dihardu Norvegian. 2013 eta 2014 bitartean, hiru aldiz egotzi zuten etxetik modu horretan.⁶²¹ Behin, erosketak egiten ari zela «bota zuten etxetik»: etxejabeak sarraila aldatu zuen. Erregutu egin behar izan zion bere gauzak hartzen uzteko. Amnesty erakundeari kontatzen zionez, «Astebetez itxaron behar izan nuen, arroparik gabe, dirurik gabe, ezer gabe».⁶²² Mary ere sexu-langilea da, eta honela dio: «Batzuetan, minutu batzuk ematen zizkiguten irteteko [...] Ordainduta geneukan dirua galtzen genuen».⁶²³ Eunice-ren hitzetan, «Inoiz bost minutu eman izan dizkirate pisutik irteteko. Ez duzu dena biltzeko denborarik. [Alde egin behar izan nuen eta] tren-estazioan lo egin».⁶²⁴ Estherrek honela dio: «Poliziak hogeit hamar minutu eman zizkigun etxetik irteteko. Une horretan zopa prestatzen ari ginen, eta lapikoa gurekin eraman behar izan genuen kalera».⁶²⁵ 2014an, bederatzi sexu-langile Beltzek Osloko poliziaren aurrean salatu zuten aihotz bat zeraman eta bere burua poliziakidetzat aurkeztu zuen gizon batek bortxatu eta eraso egin zituela. Salaketa egin eta egun batzuetara, poliziak etxejabeak jakinarazi zion maizterrak sexu-langileak zirela, eta etxejabeak kanpora bidali zituen.⁶²⁶ Amnesty erakundeak modu horretan etxetik kanpora bidalitako dozenaka emakumerekin hitz egin zuen, eta ohartu zen bati izan ezik beste guztiei egun bat –edo *gutxiago*– eman zietela etxea uzteko. Guzti-guztiak Beltzak ziren.⁶²⁷ Etxegabe Operazioa jada ez da operazio espezifikoa; ez polizia ohartu zelako izugarria zela, baizik eta –batez ere– emakume Beltz sexu-langileak etxetik kanpora botatzeko lana Osloko poliziaren «ohiko» lana bihurtu delako.⁶²⁸

621 *Ibid.*

622 *Ibid.*

623 *Ibid.*

624 *Ibid.*

625 *Ibid.*, 3.9. atala.

626 *Ibid.*, 3.10. atala.

627 *Ibid.*

628 *Ibid.*, 3.4. atala.

Deportazioak

Deportazioak biolentoak dira berez; edonola ere, sexu-langileak eredu nordikoa ezarri duten herrialdeetatik egozteko egiten diren deportazioak bereziki basatiak dira. Kanadan, sexu-langileen Butterfly taldeak dio immigrazioko poliziek askotan mugagabeki atxilotzen dituztela emakume migratzaileak. Batzuek asteak edo are hilabeteak igarotzen dituzte deportatuak izan aurretik, eta denbora-tarte horretan «tratu anker eta umiliagarria jasaten dute, salaketa faltsuak egiten dizkiete eta froga faltsuak erabiltzen dira haiek atxilotuta edukitzeko».⁶²⁹ Cookie izeneko sexu-langile batek honela zioen: «Lehenengo gaua izugarri hotza izan zen; barruko elastikoa besterik ez neukan, eta taula baten gainean lo egin behar izan nuen. Neure artean pentsatu nuen: “Ez daukat arroparik, ez daukat janaririk. Zer egin dut txarto?”. Aste osoan, ez zidaten utzi dutxa bat hartzen edo arropak aldatzen». Butterflyren arabera, beste sexu-langile migratzaile bat lagun batenean egon zen, etxeko indarkeriatik ihesi, eta orduan bezero batek eraso zion, lagunak eta berak partekatzen zuten pisuan. Polizia iritsi zenean, laguna atxilotu zuten, bera trafikatu zuelakoan, eta bera ere atxilotu zuten, ilegalki lan egin zuelakoan. Bi emakumeak deportatu zituzten.⁶³⁰

Europako Iparraldeko herrialdeetako poliziak sexu-langileen indarkeria-salaketak erabili ohi ditu haiek deportatzeko. Emakume batek indarkeriazko eraso bat salatu zuen poliziaren aurrean; erasoaren ondorioz, zauri larri bat zuen buruan. Poliziak sexu-langile gisa identifikatu zuen, eta hain azkar deportatu zuten Oslotik, ezen bidaia oso zaila izan baitzen, zauriagatik.⁶³¹

2014an, Oslon lan egiten zuten hiru sexu-langile nigeriarri etxean eta pistola baten mehatxupean lapurtu eta eraso zieten. Emakumeak larrialdiko babesleku batera joan ziren indarrak biltzera; egun batzuren buruan etxera itzuli zien, eta, hara, poliziak atxilotu eta deportatu egin zituzten.⁶³² Legezko bisak zeuzkaten, iraungi gabeak. *Krimen biolento baten biktima* gisa hurbildu zaizkizun pertsonak deportatzea legea betearazteko modu izugarriki erasokorra da, eta ez litzateke normaltzat edo legitimotzat jo

629 Lam, E., «Behind the Rescue».

630 *Ibid.*

631 Amnesty International, *The Human Cost*.

632 *Ibid.*

behar. 2017an, ezagun egin zen Londreseko emakume baten kasua: bortxatu zutela salatu zuen, eta immigrazioko poliziaren-gana eramango zutela esanez mehatxatu zuten; herrialde guztia horren aurka altxatu zen –zorionez–.⁶³³ Eta, halere, prostituzioari buruzko lege nordikoa, zeinetan horrelako kasuak ohikoak baitira, desiragarritzat eta feministatzat jotzen da.

Gure ustez, inork ez du merezi deportatua izatea. Baina, hara non, poliziak bere arauak urratzen ditu, herrialdean egoteko eskubidea duten sexu-langileak deportatuz. Suediako agintariak ohituraz deportatzen dituzte Europar Batasunako beste herrialde batzuetako emakume migratzaileak, argudiatuz sexu-lanak «arriskuan jartzen duela ordena publikoa eta segurtasuna» edo sexu-lana «bizimodua ateratzeko modu lizuna» dela.⁶³⁴

Ez halabeharrez, Eskandinaviatik deportatutako emakume asko emakume Beltzak dira. Eredu nordikoa sexu-langile Beltzen migrazioak –batez ere Norvegia xede zuenak– eragindako kezka arrazistari erantzuteko sortu zen; izan ere, emakume horiek emakume Beltzei egotzi ohi zaien topiko faltsu eta estigmatizatzailearen bidez irudikatzen zituzten, alegia, uste zuten emakume Beltzak sexualki erasokorrak direla.⁶³⁵ Pro Sentret Osloko sexu-langileen erakunde komunitario bat da; horren ustez, legea idatzi zenean,

[...] «kaleak immoral bihurtu zirela»-eta, horretaz asko hitz egin zuten. Eztabaidaren erdigunean, emakume nigeriar ikusgarriak ziren nagusi [...] Politikari batzuek esaten zuten berentzat izugarria zela horrelako emakume bat berengana hurbiltzea. Emakume haiek garbitu beharreko zaborra izango balira bezala tratatzen zituzten. Hedabideetan, «kaleetan immoralitatea sortzen» duten «emagaldu Beltzei» buruz hitz egiten zuten. Hori zen arretagune nagusia.⁶³⁶

Sexu-langileak kriminalizatzea pisuak partekatzeagatik, isunak eta deportazioak erabiltzea sexu-langileen aurka, depor-

633 Siddique, H. & Rawlinson, K. (2017ko azaroaren 28an) «Rape victim arrested on immigration charges after going to police», *Guardian*, theguardian.com.

634 Suediako Polizia Nazionalaren Batzordea (2011) «Trafficking in human beings for sexual and other purposes», 13–14, txostena hemen eskuratu daiteke: feminismandhumanrights.files.wordpress.com, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

635 Jahnsen, S.O. (2007) «Women who cross borders – Black magic? A Critical Discourse Analysis of the Norwegian newspaper coverage of Nigerian women in prostitution in Norway», *University of Bergen* (masterreko tesia), hemen eskuratu daiteke: citeseerx.ist.psu.edu, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

636 Amnesty International, *The Human Cost*.

tazioaren erabilera izugarri erasokorra... hori guztia kontuan hartuta, ezin da esan eredu nordikoak saltzaileak «erabat deskriminalizatzen» dituenik. Sexu-langileak zigor-zuzenbidearen edo neurri zibilen bidez jazarri, auzipetu, atxilotu edo kaltetze-ko tresna ugariak mantendu, gehitu edo indartzen ditu. Poliziari sexu komertziala oztopatzeko agindua ematen badiozu, poliziak saltzaileen aurka erabiliko ditu tresna horiek, legeak hala bultzatuta; eta hala egiten dute, ondo egin ere, batez ere saltzailea Beltza denean.

Ondorioz, noski, saltzaileak arrazoi on bat du poliziaren-gandik ezkutatzeko, eta, hala, polizia nordikoek barregarriak ez baina beldurgarriak diren iruzkin amaigabeak egiten dituzte, esanez, adibidez, oraindik ere erraza baino errazagoa dela sexu-langileak aurkitzea («proxenetak emakume prostitutuak aurki baditzake, poliziak ere bai»).⁶³⁷ Argi indartsu baten azpian jartzen du aktibista ugariri entzun ohi diegun galdera erretorikoa: «Nola da posible Suedian prostituta bat arriskuan egotea», galdetzen digute bai poliziek bai politikari eta ekintzaileek, «egin behar duen bakarra bada telefonoz deitu, baita proxenetak gogor hartu duela esateko bada ere, eta poliziak atxilotu egingo du, egitate hori bera krimen bat delako?». ⁶³⁸ Galdera hori erretorikoa omen da, aktibista horiek ez baitira inoiz saiatu sexu-langileen erantzunak entzuten.

Erantzuna, noski, hauxe da: eredu nordikoaren menpe lan egiten duen sexu-langileak baditu oraindik beldurra izateko motiboak. Migratzailea bada –baita bisa edukita ere–, atxilotu eta deportazio-zentrora eraman dezakete, *gaur bertan*. Beste batzuekin partekatzen duen pisuaren alokairuko paperetan bere izena agertzen bada, auzipetu egin dezakete. Poliziari deituko zenioke, baldin eta hori eginez gero etxerik gabe geratuko bazina gaur bertan, edo auzipetu egingo bazintuzte? Dorothy migratzailea da; Kanadan bizi da, eta sexu-lanean dihardu. Dorothyk azaltzen du nola aldarazten zuen beldur horrek bere portaera: «[Lapurrek] Dirua egiteko makinak bagina legez tratatzen gintuzten. Aste ba-

637 Europako Emakumeen Lobbya (2014) «18 myths on prostitution», txostena hemen eskura dauteke: womenlobby.org, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua; APT Ireland (2014) «Prostitution And Sex Trafficking: Abuse Of Power, Abuse Of Vulnerability», hemen eskuratu daiteke: education.dublindiocese.ie, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

638 Bindel, *Pimping of Prostitution*.

tean lau aldiz ostu ziguten [...] Ezin genion deitu poliziari, arazo handiagoa izango genuke eta. Poliziari azaldu nion hau guztia [azkenean atzitu eta atxilotu nindutenean], baina bost axola haiei».⁶³⁹

Sexua saltzen dugunok arrazoi larri eta urgenteak daukagu poliziarengandik ezkutatzeko; gainera, ahulak gara gizon biolentoen aurrean. Gizon horiek badakite kalte egin diezaguketela, edo ostu, edo sexualki eraso; poliziari deitzen badiogu, pistola baten mehatxupean lapurtzeaz *gainera* etxerik gabe utziko gaituzte; beraz, ez diogu poliziari deituko. Horrelako sistema baten pean dauden sexu-langileak harrapakin erraza dira.

4. Proxenetak eta trafikatzaleak

Eskaerari buruz hitz egin dugunean esan bezala, hirugarrenentzat, hala nola managerrentzat, onuragarria da sexu-langileen bizi-baldintzak gogortzea. Esate batera, sexu-langileek oztopo legalak dituztenean etxe bat alokatzeko –hala izaten da eredu nordikoarekin–, zentzuzkoa da beste pertsona bat bilatzea etxejabearekiko harremanean bitartekari-lanetan jardun dezan. Kasu horretan, sexu-langilearen eta bitartekariaren arteko botere-harremana oso desorekatua da: bitartekariak hirurehun libera eskatzen badizkio hilean lan hori egiteagatik, sexu-langileak ez du beste aukerarik hari eta *etxejabeari* ordaintzea baino, eta, ez badu hala egiten, edo ezin badu, bitartekariak erraz lor dezake emakumea etxetik kanpora bidaltzea. Norvegiako gobernuaren arabera, Suedian prostitutek «proxenetekiko duten menpekotasuna handitu egin da ziurrenik. [Sexu-langileek] Norbaiten laguntza behar dute garraioa eta etxe berriak kudeatzeko eta beren lana aurkitzen zailagoa izateko».⁶⁴⁰

Esplotazioaren eta sexu-trafikoaren biktimak kezka nagusia dira feminista askorentzat, baita sexu-langile aktibistentzat ere. Abusuzko harremanak dauzkaten emakume batzuen kasuan, bikotekideak behartzen ditu prostituzioan jardutera. Beste batzuen kasuan, bestelako lan bat agindu zieten pertsonak behartzen dituzte prostituziora, eta haiei ordaintzen diete se-

639 Lam, E., «Behind the Rescue».

640 Norvegiako Justizia eta Polizia Ministerioa, *Purchasing Sexual Services in Sweden and the Netherlands*.

xu-lanean irabazitako diru guztia edo haren zati bat, normalean muga zeharkatzean egindako zorra kitatzeko.

Ikuspegi nordikoak horrelako emakumeen egoera hobetzen du? Kontuan izan ez dagoela marra lodi bat bereizten dituen sexu-langileak eta zuk trafikaturakotzat joko zenituen horiek. Pertsona horiek guztiak liburu honetan azaldu ditugun segurtasun-estrategiak erabiltzen ari dira, ahal dutenean. Guztiek nahi dute, arrazoiak arrazoi, dirua irabaztea, bai drogak erosteko, bai bikotekide biolentoa edo manager oldarkorra baretzeko, bai etxejabeari emateko, bai diru horren beharra duten senideei bidaltzeko. Edo, bai, pertsonen kontrabandista bati ordaintzeko.⁶⁴¹ Prostituten bizitzak zailtzen dituzten politikek zuk trafikaturakotzat jotzen dituzun horien bizitzak ere zailtzen dituzte. Itzul gaitezen atal honetan aipatu dugun Norvegiako gobernuaren txostenera, zeinak ondorioztatzen baitzuen sexu-zerbitzuak erosteari buruzko legeak ekarri zuela prostituzioan diharduten pertsonak orain «gogorrago lan egin» behar izatea. Ondorio hori Norvegian sexua saltzen duten pertsona guztiei dagokie, eta ez dago salbuespenik egoera esplotatzaileenetan daudenentzat. Sexu-zerbitzuak erosteari buruzko beste txosten batean, hori ere Norvegiako gobernuak eginga, gauza bera esaten da, baina argiago: «Kalterik handienak “adiktoek, gaixo mentalek eta beste herrialde batzuetako pertsonak” jasaten dituzte, hau da, prostituta behartuek».⁶⁴² Eta eredu nordikoa –edo beste ere du batzuk– ezarria duen herrialde batean sexu-langile migratzaile esplotatu bat poliziarengana joaten bada, deportatu egingo dute, artean zorra kitatu gabe duela. Suediako parlamentuaren txosten batean adierazten zen bezala, emakumea «poliziek aurkitzen badute» eta ohartzen badira «herrialdean egoteko oinarri

641 «Zuk trafikaturakotzat jotzen dituzun horiek» esaldia erabili dugu, erakusteko zer aldabera eta subjektiboa izan daitekeen era horretako izendapen bat. 3. atalean ikusi dugun bezala, gobernuak «trafikatu» terminoa erabili ohi dute, ez benetako kaltea adierazteko, baizik eta progresismoz janzteko migrazioaren eta prostituzioaren aurkako politikak. Badirudi «persona trafikaturakotzat» jotzen direnek estatuaren laguntza jasotzeko eskubidea dutela; horregatik, gobernuak estatuak bultzatutako sistemek –hala nola mugako polizia-kontrolak– kaltetutako zati txiki-txiki bat baino ez du hartzen trafikaturakotzat. Prostituzioaren aurkako aktibisten kasuan, «persona trafikatu» izendapenak badirudi adierazten duela nor zaien begiko eta nor ez; beharbada pertsona hori sexu-langileen eskubideen alde ari delako lanean, ez irtenbide punitiboen alde; eta, beraz, «persona trafikatu» terminotik kanporatzen dituzte, haien bizipenak edozein direla ere.

642 *Ibid.*, 13.

juridikorik ez duela», askotan zera egingo dute «[...] berehala [deportatu dituzte], eta polizia ez da saiatu ere egin ikertzen zer baldintzatan etorri eta egon diren [...] horrek esan nahi du pertsonen trafikoari buruzko informazio garrantzitsu asko galdu dela».⁶⁴³

Emakume hori saiatzan bada lan berri bat bilatzen irteera-zerbitzuen bidez, beharbada esango diote sexu-lana utzi behar duela estatuaren laguntza jaso ahal izateko. Edonola ere, ziurrenik beldurra emango dio irteera-zerbitzuetara hurbiltzeak, uste duelako funtzionario baten aurrean sexu-langile gisa agertuz gero deportatu egingo dutela. Beraz, sexua saltzen jarraitu behar du, dela norbaitek behartuta ala beraren borondatez; eta, bitartean, bezero-kopurua txikitu egin da, txandak luzatu egin dira eta lana gero eta arriskutsuagoa bihurtzen ari da.

Mereziko luke horrek denak, Europako iparraldeko herrialdeetan sexu komertzialaren merkaturik txikiagoa balitz? Emakume *gutxiago* esplotatuko lituzkete prostituzioan eta emakume *gutxiago* trafikaturiko lituzkete, ezta? Baina kontua da zigor-zuzenbidea ez dela faktore erabakigarri bat ezein herrialde-tako sexu-industriaren tamainan. Begira, adibidez, Estatu Batuei. Kriminalizazioa faktore erabakigarria balitz herrialdeko sexu-industriaren tamainan, AEBko sexu-industria txiki-txikia izango litzateke. 5. atalean zehaztasunez azaldu dugun bezala, AEBko estatu askotan sexua erosteagatiko zigorrak Eskandinaviakoak baino askoz handiagoak dira; eta, jakina, bai sexu-langileak berak, baita managerrak, etxejabeak, taxi-gidariak eta kideak ere prostituzioarekin lotutako kontuengatik auzipetu ditzakete. Eta, halere, AEBko sexu-industria *erraldoia* da. Izan ere, faktore erabakigarria ez da zigor-zuzenbidea, baizik eta *pobrezia* eta jendeak baliabideak eskuratu eta erabiltzeko duen aukera. Herrialde batetik gizarte-segurantzarik ez duenean, edo gizarte-segurantzaren sareak pertsona batzuk baztertzeko dituenean, baliteke etxerik gabe ez geratzeko edo osasun-zerbitzuak ordaintzeko ahalegin gorrian dabiltzan horiek sexua saldu nahi izatea, etxea edo botikak eskuratzeko. Agiririk gabeko pertsonak lan-merkatu nagusian sartzeko edo lan-eskubideak aldarrikatzeko borrokatzen

643 Suediako Parlamentua (2002) «Statens offentliga utredningar [Government Public Investigations] 2002:69» s. 8.3.1.1, hemen eskuratu daiteke: riksdagen.se, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

dira. Testuinguru horietan, pertsona batzuek sexua saltzen dute, eta, askotan, maila batean edo bestean esplotatzaileak edo abuzkoak diren baldintzetan lan egiten dute. Baina konponbidea ez da sexu-komertziala kriminalizatzea; hala balitz, AEBn ez litzateke batere trafikorik existituko. Aitzitik, arazoa konpontzeko bidea da bermatzea jendeak beharrezko dituen baliabideetarako sarbidea duela, eta baliabide horien artean daude, adibidez, baldintza seguruetan migratzeko eskubidea eta migratzaileek lan egiteko eta lan-eskubideak aldarrikatzeko eskubidea izatea, deportatuak izateko arriskurik gabe.

Egia esan, Suediako legegileek ez dute batere argi azaldu zer lortu den legearekin. Sexu-lana jaitsi egin dela esaten dute, baina baieztapen horiek nahasgarriak dira oro har, kaleko sexu-lanean soilik oinarritutako datuak ematen direlako.⁶⁴⁴ Egia da Stockholmen kaleko lanak behera egin zuela denbora labur batez 1999tik aurrera, baina gero berriro igo zen, eta ziurrenik legeak gauza bakarra lortu zuen: kanpoko lanetik barruko lanerako trantsizioa bizkortu; hau da, jada Interneten bidez gertatzen ari zen prozesua azkartu.⁶⁴⁵ «Gaur egun, ezinezkoa da burdel bat eramatea Suedian», diotso harrokeriaz polizia batek prostituzioaren aurkako ekintzaile Janice Raymondi, zeinak hark esandako hitzak errepikatzen baititu akritikoki.⁶⁴⁶ Baina, polizia-iturrien arabera, ikaragarri handitu da Stockholmeko burdel-kopurua. 2009ko kalkuluen arabera, 90 «masaje-areto» zeuden hirian, zeinetan sexua ere eskaintzen baitzen; 2013rako, 250 zeuden.⁶⁴⁷ Suediako politikariak kezu ziren sexu-industriaren erresilientziaz, eta nabarmendu zuten 2003an herrialdeko eskualde jakin batean kaleko prostituzioa bikoiztu eta gehiago egin zela.⁶⁴⁸ «Abolizionismoaren» argudioei kontra eginez, Suediako politikariek zera diote: «Ez genuen sekula pentsatu horrekin prostituzioa

644 Goldberg, M. (2014ko uztailaren 30a) «Should Buying Sex Be Illegal?», *The Nation*, thenation.com.

645 Levy, *Criminalising the Purchase of Sex*; Skarhed, A. (2010) «Evaluation of the prohibition of the purchase of sexual services (English Summary)», Suediako Gobernu Bulegoak, 36, hemen eskura dauteke: government.se, 2018ko ekainaren 28an kontsultatua.

646 Raymond, J.G. (2013) *Not a Choice, Not a Job: Exposing the Myths about Prostitution and the Global Sex Trade*, Washington, D.C.: Potomac Books, 72.

647 Suediako Polizia Nazionalaren Batzordea, *Trafficking in human beings*.

648 Suediako Parlamentua, «Förbud mot försäljning av sexuella tjänster» [Sexu-zerbitzuak saltzeko debekua], Motion 2002/03:Ju284, riksdagen.se.

erabat desagerraraziko genuenik, baina [sexköpslagen legeak] argi adierazten du zer onar daitekeen gizarte batean eta zer ez». ⁶⁴⁹ Beraz, legea ez da, haren aldekoek esaten duten bezala, «mehatxu existenzial» bat sexu-merkataritzarentzat. ⁶⁵⁰

Entzuten digu norbaitek?

Munduaren luze-zabalean, prostituzioaren aurkako politikak berekin ekarri ohi dute sexu-langileak etxegabetzea, auzipetzea eta deportatzea. Nolanai ere, Europako iparraldeko herrialdeetan bakarrik irudikatzen da hori lorpen *feministatzat*. ⁶⁵¹ Suedian, bereziki, nazio-identitatearen parte izan da luzaroan pertsona ez-desiragarriak herrialdetik kanporatzeko nahia, gizartea hobetzeko bide gisa. XX. mendearen hasieran, *folkhemmet* (jendearen herria) teoria politikoa ezarri zen, gizarte suediar ideala eta haren borondate oneko ongizate-estatuak kontzeptualizatzeko. Ideia horren oinarria hau da: familia-unitate txiki batean bezala, Suediako herritarrek ekarpen bat egiten dute, eta, aldi berean, estatuak adeitasunez zaintzen ditu; estatuak «guraso on» gisa jarduten du, eta bere seme-alabak jokamolde okerretatik eta ustelkeriatik aldentzen ditu. ⁶⁵² Ez harrigarriro, prostitutak rol antagonista du *folkhemmet* teorian. Prostituta batek ez bada, nork sinbolizatu dezake arketipikoki familiaren etxearen aurkako mehatxua? Beste talde batzuek ere antzera asaldatzen dute Suediako familia normatiboa: droga-kontsumitzaileek, GIBdunek, pertsona transgeneroek. Historian zehar «familia nazionalak» talde horien aurrean izandako jarrerak argi baino argiago irudikatzen du kontrol suediarra.

Folkhemmet teoriak «higiene sozialarekiko» duen konpromiso eugenesikoaren izenean, 1975. urtea baino lehen 21.000 pertsona antzutzera behartu zituzten. Haien artetik, % 90 emakumeak izan ziren, eta guzti-guztiak jo ziren «gutxiagotzat,

649 Suediako Parlamentua (2001) «Riksdagens snabbprotokoll [protokolo azkarra] 2001/02:78», hemen eskuratu daiteke: riksdagen.se.

650 Banyard, K. (2016) *Pimp State: Sex, Money and the Future of Equality*, Londres: Faber and Faber, 198.

651 «The crude measurement of success that Norway is applying to its anti-trafficking work – namely, an overall reduction in the commercial sex market – means that Norway can in effect claim success for deporting trafficking victims to other countries». Amnesty International, «The Human Cost of “Crushing” the Market: Criminalization of Sex Work in Norway», report, EUR/36/4024/2016, 26 May 2016, 11–12.

652 Levy, *Criminalising the Purchase of Sex*, Introduction.

antisozialtzat, arrisksutsuki hipersexualtzat [...] promiskuotzat edo moteltzat». ⁶⁵³ 1990eko hamarkadan, Suediako estatuak GIB birusa gorputzean zuten pertsonak kartzelatu zituen ezelango epaiketarik egin gabe, horietako batzuk hainbat urtez; % 90 sexu-langileak eta droga-kontsumitzaileak ziren. ⁶⁵⁴ Ondare hori Suediako gobernantzan txertatuta dago. 2009an, Ezkerreko Alderdiko politikari batek adierazi zuen GIB birusaren aurreko erantzun punitibo haiek zeresana izan zutela gaur eguneko «Suedia garbi eta atseginaren» eraikuntzan. ⁶⁵⁵ 2013ra arte, generoa legalki berresleitu nahi zuten pertsona transak antzutzerara behartzen zituzten. ⁶⁵⁶ Gorputzean droga-aztarnak izatea ere kriminalizatuta dago. ⁶⁵⁷ Suediako drogaren aurkako legea Europako beste edozein herrialdetakoa baino gogorragoa da, eta horrek, neurri batean, drogen ondoriozko heriotza-kopuru izugarria azaltzen du: Europako bigarren txarrena. ⁶⁵⁸ Azken batean, Suediako herritar «ideal» eta normatiboak –jatorri nordikoko pertsona osasuntsu eta produktiboak– bakarrik jotzen dira arduratsutzat eta arrazionaltzat; horiek bakarrik arduratzen omen dira beren burua zaintzeaz, beren kasa baina familia araei jarraituz.

Marka zaindu beharra

«Jendearen etxearen» ideiarekin –hau da, ordena sozialaren utopia batekin– xarmatutako prostituzioaren aurkako feministentzat, Suediako prostituzioari buruzko legeak amets bat irudikatzen du. Ezin da onartu errealitatea tartean sartzea. Suediako «pertsona prostituituen deskriminalizazioari» buruzko gopespen-zerrenda luzeak entzuten ditugu. Erresuma Batuko Object talde feministak honela dio: «"Eredu nordikoak" erabat deskriminalizatzen ditu sexu-zerbitzuak saltzen dituztenak, eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen ditu prostituziotik irteteko». Eredu Nordikoari buruzko Informazio Sareko Meagan Tyler dok-

653 *Ibid.*, 5. Ikus baita Baldwin, P. (2005) *Disease and Democracy: The Industrialized World Faces AIDS*, Berkeley: University of California Press, 242.

654 Levy, *Criminalising the Purchase of Sex*, 6–7.

655 *Ibid.*, 7.

656 Ahlander, J. (2017ko martxoaren 27a) «Sweden to offer compensation for transgender sterilizations», *Reuters*, reuters.com.

657 Transform (2014) «Drug policy in Sweden: A repressive approach that increases harm», *tdpf.org.uk*.

658 Ederyd, C. (2016) «Sweden's Battle Against Drugs and Prejudice», *Vice*, vice.com.

toreak ere ildo berari jarraituz hitz egiten du: legea, «funtsean, lege-esparru batean ardaztuta dago, zeinak pertsona prostituitu guztiak deskriminalizatzen baititu; prostituzioa dihardutenei ez zaie zigorrik ezartzen, baina zigortu egiten da sexua erostea, proxenetismoa eta burdel bat eramatea».⁶⁵⁹

Meghan Murphy prostituzioaren aurkako feminista emankorra da. Norbaitek «Etxegabe Operazioa» aipatu zuen bere webguneko iruzkinen atalean, eta Murphy nahastuta azaldu zen:

Azalduko duzu, gutxienez [...] zergatik eta nola ari omen den polizia «sexu-langileak bilatzen eta haiei jazartzen», eta zer zerikusi duen horrek eredu nordikoarekin? Dirudienez, zuk erantsitako artikulua «Etxegabe Operazioa» izeneko zerbaitekin lotuta daude, baina ez dakit zer den hori, eta ez dut ulertzen zer zerikusi duen horrek eredu nordikoarekin.⁶⁶⁰

Murphyk eredu nordikoaren aldeko ehunka artikulua idatzi ditu, literalki, hainbat urtetan. Etxegabe Operazioari buruz ezer ez jakiteak argi erakusten du ikuspegi feminista batetik bederen ez zaizkiola batere interesatzen berak aldeztu duen sistemaren menpe bizi diren sexu-langileen bizipenak; eta ohikoa da hori prostituzioaren aurkako feministen artean. Ugariak dira antzeko adibideak. Banyard feministak honela dio, eredu nordikoaren alde egiten duen *Pimp State* liburuan: «Sexu-zerbitzuak erosteari buruzko legea bermatzeak ez du esan nahi ekintzaileok gure lana amaitutzat jo dezakegunik. Aitzitik, orain legeak eskaintzen duen potentzial guztia aprobetxatu behar dugu; presioa egin behar dugu, legeria horretan zuzenketak txertatzeko».⁶⁶¹ Hona iritsita, irakurleak bere buruari galde diezaioke ea *Pimp State* liburuak aintzat hartuko dituen Etxegabe Operazioa, auzipetzeak, deportazioak eta sexu-langileek Europako iparraldeko herrialdeetan pairatzen dituzten beste abusu batzuk. Ostera, Banyardek honela jarraitzen du: «Suedian, adibidez, 2011n igo egin zuten sexuaren truke ordaintzeagatiko gehieneko zigorra, sei hilabeteko kartzelalditik urtebetekora». Era horretako kontuak dira –bezeroen aurkako legea batzuetan ez dela behar adina

659 Object (2015) «Prostitution – The Facts», object.org.uk; Woodward, S. (2016) «Calls for Australia to adopt «Nordic Model» on prostitution», *SBS News*, sbs.com.au.

660 Murphy, M. (2014ko azaroaren 28a) Berg, S. iruzkingileari erantzunez (2014) «From Norway to New Zealand, pro-prostitution research is its own worst enemy», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

661 Banyard, *Pimp State*.

betearazi, zigorrak txikiegiak direla...– Banyardek legeari egiten dizkion kritika bakarrak.

Prostituzioaren aurkako beste ekintzaile bat honela mintzatu zitzaion ekintzailez eta politikariz osatutako publikoari: «Jakina, eredu nordikoaren pean ez da sexua saltzen duen inor kriminalizatzen, eta, halere, behin eta berriro esaten digute *de facto* kriminalizatzen dituztela, eta ez dakit ondo zer esan nahi duen horrek. Hau da, sexua saltzeagatik kriminalizatzen zaituzte, edo ez zaituzte kriminalizatzen» [letra etzana gurea da].⁶⁶² Amnesty erakundearen txostena argitaratu zenean –zeina emakumeen ahotsez bete baitzen, hala nola Mercy, Mary, Esther eta Eunice kriminalizazioari, etxegabetzeari eta deportazioari buruz hizketan–, Erresuma Batuko Nordic Model Now ekintzaile-taldeak adierazpen hauek bakarrik egin zituen: «Eredu nordikoa baliagarria da, eta baliagarria izaten jarraitu behar du».⁶⁶³

Sexköpslagen markak lotura estua du demokrazia sozial berritzailearen ideiekin. Halandaze, beste herrialde batzuetan Suediako legean oinarritutako prostituzioari buruzko legeak ezartzen dituztenean, kutsu feminista bera berenganatzen dute, nahiz eta ez duten inondik ere merezi halakorik.

Kanadan, 2014an, C-36 Legea onartu zuten, hau da, Komunitateak eta Pertsona Esplotatuak Babesteari buruzko Legea (*Protection of Communities and Exploited Persons Act*, PCEPA). Lege horrek bezeroak eta iragarkiak kriminalizatzen ditu, eta prostituten kontrako zigor gehienak ere mantentzen ditu.⁶⁶⁴ Bada,

662 Bindel, J. (d.g.) Ekarpena hemen: «Prostitution and Gender Inequality», SPACE International, spaceintl.org.

663 Nordic Model Now (@nordicmodelnow) Twitter, 3:57 a.m., 2016ko maiatzaren 27a: «The Nordic model works and should keep on keeping on. <https://t.co/SrlAGZFzZb>».

664 Kanadako kriminalizazioari buruzko lege zaharra (Erresuma Batuko gaur egunekoaren antzekoa da) bertan behera utzi zuten, Kanadako Auzitegi Gorenak prostituzioari buruzko hiru xedapen nagusiak indargabetu zituztenean, segurtasunarekin eta askatasunarekin lotutako sexu-langileen giza-eskubideak urratzen zituztelakoan. Epailerek, neurri batean, Vancouverreko (BC) serieko hilketek eraginda jokatu zuten; biktimak gehienak pertsona indigenak ziren, eta, hain justu ere, lege zaharrak haien zaugarritasuna areagotzen zutelako jo zituzten indarkeriaren xedetzat. Aitzitik, segurtasuna lehenetsi beharrean, Auzitegi Gorenaren epaiarekin bat etorri, gobernu kontserbadoreak batean kriminalizazio batzuk gehitu zituen C-36 Legearekin. Lege horrek zigorra aurreikusten du «leku publiko batean sexu-zerbitzuak saltzeko asmoz komunikatzea», eta horrek, noski, sexu-langileak berak kriminalizatzen jarraitzen du. Ikus *Canada (Attorney General) v Bedford* 2013 SCC 72, Supreme Court Judgment, scc-csc.lexum.com; A. Nanda, «From Bedford to the MWCI, Chronicling the Legal Consequences of Pickton», *The Court*, 2014ko ekainaren 8a, thecourt.ca; The Canadian

adierazpen publiko nabarmenak eragin zituen: etsaitasunezkoak erreakzionarioen aldetik, eta poetikoak, berriz, progresisten partetik. Joy Smith parlamentari kontserbadoreak errukiz hitz egin zuen abusuak jasan arren aurrera egitea lortu zuen gazte bati buruz, eta esan zuen haren indarrak bultzatu zuela bera legearen alde borrokatzera: «Gizaki eder bat da, bizia, arnasa hartzen duena, arimaduna».⁶⁶⁵ Sentimendu miresgarria benetan (jakina, inoiz ez da garai txarra prostitutek ere arima dutela gogorarazteko), batez ere Donald Plett kide kontserbadorearen hitzekin alderatuta, zeinak honako berba hauek jaurti baitzituen: «Guk ez dugu nahi prostitutei bizitza seguru bat bermatzea, guk nahi duguna da prostituzioari amaiera ematea. Hori da legearen xedea».⁶⁶⁶

C-36 legearen aldeko beste batzuek «komunitateari eragindako kalteen» esparruan kokatu zuten gaia, beste kontu hauekin batera: zarata, trafiko handia, bizilagunen aurkako jazarpena, «osasunaren kontrako jokabideak» eta sexu-langileek eskola-umeen espazioak inbaditzea.⁶⁶⁷ Berriz ere, «eskaerarekin amaitzea» kontzeptu aski zabala da, askotariko ideologia politikoak barne hartzen dituena. Eztabaida berean, Smithek bere kredentzial feministak berretsi zituen berriro: «Lege hau [...] historikoa eta aurrerakoa da. Kanadaren historian lehen aldiz, prostituzioan jarduteko trafikaturako emakumeak ez dira eragozpenzat hartuko, duintasunez tratatuko dira».⁶⁶⁸

Handik gutxira, hamaika sexu-langile atxilotu eta deportatu zituzten Ottawan.⁶⁶⁹ Nahiz eta feministek esaten duten beren lehen xedea dela biktimen aurkako indarkeriari aurre egitea –eta sexuaren erosketak guri eragiten digun mina aipatzen dute–, harrigarria da zenbat aldiz egiten dien labain maskarak.

Press, «Controversial prostitution law introduced on day of action on violence against women», *The Star*, 2014ko abenduaren 3a, thestar.com.

665 deVisser, L. (2013) «Interview with MP Joy Smith – Human Trafficking and Prostitution», ARPA Canada, arpacanada.ca.

666 Pablo, C. (2014) «New prostitution law leaves sex workers “invisible and anonymous”, advocate says», *Straight*, straight.com.

667 MacKay, P. (2014ko ekainaren 11) «Debate on Protection of Communities and Exploited Persons Act», openparliament.ca.

668 Macartney, C. (2015) «Canada begins implementing transformational prostitution laws», *Christian Week*, christianweek.org.

669 McIntyre, C. (13 May 2015) «Migrant sex workers caught up in Ottawa sting facing deportation, further exploitation: activists», *National Post*, nationalpost.com.

Hala gertatzen denean, agerian geratzen da berriro zerk gidatzen dituen politika horiek: sexu-langileak «desagerrarazteko» nahiak eta «komunitateari eragindako kaltearen» espektroak. Sexu-merkataritzan indarkeria bizi izan dutenentzat, argi eta garbi dago politika horien hizkuntza bikoitza.

Bestalde, legeak gizonetzkoen eskubide sexualetan omen duen eragin diziplinatzaile laudatua dela eta, tira. Sexu-langileei eragindako kalteak etengabe azaleratzen ari dira, eta sexu-industriaren tamaina ez da txikitu, edo oso gutxi txikitu da; horren aurrean, prostituzioaren aurkako feministek, eredu nordikoaren «marka babesteko» irrikaz, gero eta gehiago aipatzen dituzte prostituzioarekiko gizarte-jarreretan izandako aldaketak, legearen arrakastaren funtsezko neurri gisa. Legea lehenengoz ezarri zenean, suediar gehienek ez zuten babestu. Ia hogeitaz geroago, biztanle gehienek babesten dute. Banyardek dioten bezala, «Jarrera-aldaketa hori Sexu Zerbitzuak Erosteari buruzko Legearen muinean dago. Legerian jasota dago, eta kalean betearazten da; horrek erakusten digu gizarteak, kolektiboki, marra gorri bat ezarri duela».⁶⁷⁰ Iradokitzen duena da, noski, legeak arau berri eta feministago bat ezartzea eragin duela: suediarrentzat jada ez da onargarria «sexu-harremanetarako emakume bat erostea».

Argudio hori egitean, eredu nordikoaren aldekoek aipatu gabe uzten dute kontu esanguratsu bat: ikerketa horretan, non azaltzen baita orain askoz ere suediar gehiagok jotzen dutela onartezintzat sexuaren truke *ordaintzea*, azaltzen da, *orobat*, askoz ere suediar gehiagok uste dutela onartezina dela *sexua saltzea*. Suediar gehienek, batez ere emakumeek, prostitutak isuntzea edo kartzelatzea nahi lukete.⁶⁷¹ Banyardek eta beste batzuek gorensten duten «marra gorriak» ez dirudi hain feminista, baldin eta marrazten bada ez bakarrik bezeroak zigortzeko, baizik eta *baita prostituta zigortzeko ere*. Robert Fullinwider akademiko erretiratuak idatzia duen bezala, «herritarren iritzia aldatu egin da, eta orain gehiengo handi batek aldeztu du prostituzioaren alderdi guztiak kriminalizatzea; horrek iradokitzen du sexu-zerbitzuak erosteko debekuak arau bat ezarri duela, zalan-

670 Banyard, *Pimp State*, 194.

671 Kuosmanen, J. (2010) «Attitudes and perceptions about legislation prohibiting the purchase of sexual services in Sweden», *European Journal of Social Work* 14:2, 247–63.

tzarik gabe [...] baina beharbada feministek ez lukete horrekin konformatu behar».⁶⁷²

Patriarkatua, polizia eta estatua

Sexu-langile aktibistek sarritan adierazten dute prostituzioaren aurkako erretorika leku atsegina dela gizonezkoen handikeria feministarentzat. Prostituzioaren aurkako politikak «gizon onen» desiren zerbitzura daude, haien gizontasuna sendotzeko; nabarmenki feminismoaren aldamenean jartzen den aktibismoa ideia aski chauvinistek elika dezakete. Suediako fiskal baten jendaurrean esan bezala,

Benetako gizon batek gai izan behar luke bere emakumeak lortzeko, berari dagokion sexu-kuota eskuratzeko, sedukzio-ahalmenen eta elkarren arteko adostasunaren bidez, eta maitasunagatik, edo bien gozamenarako, edo ugaltzeko, edo eguna zerbaitetan igarotzeko; ez diruagatik. Prostitutengana joatea iruzur egitea zen, umiliagarria zen, arbuigarria, onartezina. Putak galtzaileentzat ziren.⁶⁷³

«Benetako gizonaren» ikuspegi hori, «putei» emandako kokoteko hori –zer esanik ez «benetako gizonak» «berari dagokion» sexu-kuota eta emakumeak lortu behar izatearen kontua–, ez dira erraz izango Suediako legegileen kredentzial feministen erakusgarri.

Polizia idolatratzea oso mesedegarria da beren burua «gizon feministatzat» dutenak ere politika horiekin eroso senti daitezen. Baldin eta poliziak justizi banatuko badu emakume pobre eta abusatuen artean, poliziakideak heroitasun maskulinoaren sinbolo gisa goretsi daitezke, eta, behin ate hori irekita, beste gizon batzuk ere sar daitezke. Gizonek poliziakide «heroikoaren» figuran proiektatzen dute beren burua, eta prostituzioaren aurkako gizon aktibistek politika horiek erabil ditzakete gaingiroki beste maskulinitate-mota batzuetatik aldentzeko. («Putak galtzaileentzat ziren»). Suedian legea proposatu zuen gizonezko politikariak espezifikoki aipatu zituen bere gizonezko herrikideen kredentzial feministak, eta esan zuen legeak aurrera egin zuela «gizon suediarrek munduko gaine-

672 Fullinwider, R.K. (n.d., access 28 June 2018) «The Swedish Model – Abolitionist Nirvana? Part 3», *The New Prostitution Wars*, Essay 8, newprostitutionwars.net.

673 Ahlstrand, T. (2010) «The Swedish example», presentation at the The Third Swedish-Dutch Conference on Gender Equality: Trafficking in Human Beings and Prostitution.

rako gizonen ez bezalako ikuspuntua dutelako prostituzioaren inguruan». ⁶⁷⁴ Nicholas Kristof prostituzioaren aurkako ekin-tzailea eta kazetari laudatua da. Sexuari buruzko ikuspegi bitxi samarra erakutsi zuen *New York Times* hedabidean; alde batetik, estatubatuarren «promiskuitateaz» kexu zen, eta, bestetik, esan zuen Indiako gizonen hamalau urtekoekin sexu-harremanak edukitzearen truke ordaintzeko joera kultural bat dutela. ⁶⁷⁵ Era horretako epaiak banakako «gizon gaiztoak» –askotan arraziali-zatuak– aintzat hartzen dituen moralean oinarritzen dira.

«Sexu-zerbitzuen eskaeraren amaierari» buruzko legeak aldeztean, gizonen zera lortzen dute, errua patriarkatuaren bizkar gaintik kendu eta gizon ageriki izugarrien gainera botatzea, eta goi-mailakoagoak sentitzen dira beste gizon horien bortxaketak arbuiatzen dituztenean edo emakumeak kosifikatzen dituztela seinalatzen dutenean. Hipokrisia, noski, honetan dantz: prostituzioaren aurkako mugimenduak batzuetan sakonki bortxatzen eta kosifikatzen ditu sexu-langileak. Gizonen prostituzioaren aurkako feminismoan parte har dezakete. Nola? Bada, askotariko irainak jaurtiz –zuloak, putak, esperma-edukion-tziak– eta horri azterketa feminista deituz. ⁶⁷⁶ Prostituzioaren aurkako mugimenduan, beren burua aliatu feministatzat duten gizonen jokaera paternalista izan dezakete, eta, gainera, emakume prostitutak gutxiets ditzakete, gizonen mendetan egin izan duten bezala. Mugimendu horretan, poliziakideek sexu-langile baten pisuko bainugelako zakarrontzia mia dezakete, odolez zikindutako tanpoiak hartu, haien argazkiak argitaratu beren oroitzapenetan (lanean ezagutu dituen sexu-langileentzako eskaintza hunkigarri batekin: «Liburu hau zuen errealitatea azaltzeko ahalegin bat da»), eta, halere, ekintzaile feministatzat hartuko dituzte. ⁶⁷⁷ Charlotte Shane sexu-langileak dioen bezala, prostituzioaren aurkako feminismoak progresista bihurtzen du

674 Levy, *Criminalising the Purchase of Sex*, 63.

675 Kristof, N.D. (23 January 2006) « "Sex Work" versus "Prostitution" », *New York Times*, kristof.blogs.nytimes.com.

676 Iruzkina adibide bat ezagutzeko, ikus Buckland, S. (2012) «Call things by their proper names: A Reply to the Anti Porn Men Project», Zetkin.net.

677 Häggström, S. (2016) «Shadow's Law: The True Story of a Swedish Detective Inspector Fighting Prostitution», Stockholm: Bullet Point Publishing; Häggström, S. (d.g.) Contribution to «Prostitution and Gender Inequality», SPACE International, spaceintl.org.

gizonek gogo onez hitz egitea sexu biolento eta behartuari eta gorputz umiliatuei buruz, eta, gainera, gizon horiek laudorioak eta Pulitzer sariak jasotzen dituzte.⁶⁷⁸

Bitartean, prostituzioaren aurkako feministek «proxenetek eta putazaleek» eragindako abusuan eta esplotazioan jartzen dute arreta, poliziakideen, etxejabeen eta immigrazioko polizien eskutik datozen antzeko abusuak alde batera utziz –edo estrategikoki babestuz–. Saiatuz gero, denbora asko beharko duzue «eredu nordikoa» duten jurisdikzioetan sexu-langileen aurka egiten diren gehiegikeriei –atxiloketak, dirua konfiskatzea, deportazio basatiak– buruzko iruzkinen bat bilatzeko. Joan Smith kazetariak Suediara bidaiatu zuen 2013an, *sexköpslagen* legeari buruzko informazioa biltzeko, eta poliziari galdetu zion ea prostituzioa arriskutsuagoa bilakatu ote zen emakumeentzat. Gaiari buruz ondu zuen artikuluan, segurtasunez idatzi zuen: «Nirekin hitz egin duten poliziakide guztiek behin eta berriro esan dute hori mito bat dela».⁶⁷⁹ Erreportajea honela hasi eta amaitzen da: poliziakide bat polizia-auto baten barruan, leihatilaren bestaldetik sexu-langileei begira. Zaila da feminismo punitibista laburbiltzeko modu hobeago bat asmatzea. Irudian, polizia baten itzala ikusten dugu; bere lekuan eserita dago, eta bere kokalekua gurekin partekatzen ari da; gainera, guk ere bera bere begiradaz ikusten ari den eszena bera ikusten dugu. Argi dago zer ezpale-takoa den Smith, eta ez da, noski, irudian urrutian ikusten diren emakume itxuraz ahotsik gabeen ezpal berekoa.

Emakumeen eta gizonen arteko botere-desberdintasuna egiturazko desorekaren adibide bat da; sexu-langileen eta polizien arteko botere-desberdintasuna, beste bat. Gunilla Ekberg suediarra feminista eta iruzkingilea da, eta hauxe du idatzia: «Jakina, prostituzioaren aldekoek alde batera uzten dituzte gizonen eta emakumeen arteko botere-desberdintasunak», baina zigorraren aldeko feministak tematuta daude poliziaren eta prostituten arteko botere-desberdintasuna alde batera uzten eta

678 Shane, C. (@CharoShane) Twitter, 10:34 a.m., 7 June 2018: «Men like CH, who are hardcore into sex worker rescue and determined to code all prostitution as rape, are so obviously getting a huge thrill from imagining sexually violated female bodies, helpless women ravaged by dozens of dicks, etc.».

679 Smith, J. (2013) «Why the game's up for Sweden's sex trade», *Independent*, independent.co.uk.

sendotzen.⁶⁸⁰ Sexu-zerbitzuen erosketan ikusten duten genero-desberdintasuna ezabatzeko ahaleaginean, estatuak prostitutei kalte egiteko duen boterea indartzen dute nahita edo nahi gabe, eta hori, noski, dinamika sakonki patriarkala da. Pentsa deza-kezu horrek *impasse* batean uzten gaituela, feministak garen aldetik: baldin eta sexu-industria patriarkalari aurre egitean es-tatu patriarkala sendotzen badugu, nola egingo dugu aurrera? Egia esan, erraza da imajinatzea mundu bat non ezein gizo-nek ezin baitu ordaindu sexuaren truke; hain justu ere, sexua saltzeko beharra izan duten guztiak *eskuratuak dituztelako jada beharrezko zituzten baliabide guztiak*. Mundu feministago baten alde lan egin dezakegu, emakumeen pobrezia gutxituz, baina ez zigorra aldezten duen estatuaren botere patriarkala indartuz.

Estatuaren boterea aintzat hartzen ez badugu, edo hura indartzen badugu, arrakala batean barrena desagertzen dira Mercy, Mary, Tina, Eunice, Esther eta beste pertsona batzuen bizipenak. Feminismo hegemonikoak ez du batere interesik ho-rrelako emakumeen bizipenak ezagutzeko; estatu-indarkeria zuzena (isunak, etxegabeteak eta deportazioak), batetik, eta estatuak babesten ez dituelako pairatzen duten indarkeria, bestetik. Kazetariak idazten dutenean eredu nordikoak «deskri-minalizatu egiten dituela sexua saltzen duten emakumeak», eta erakunde ekintzaileek behin eta berriz errepikatzen dutenean Suediako legeak «erabat deskriminalizatzen dituela prostituta guztiak», ondorio bakarra atera daiteke: feminista hegemoni-koak, *besterik gabe, ez ditu kontuan hartzen* Europako iparraldeko herrialdeetan kriminalizatzen eta deportatzen dituzten sexu-langile migratzaileak, gehienak Beltzak.⁶⁸¹

Mugei buruzko atalean idatzi dugun bezala, deporta-zioek giza eskubideak urratzen dituzte: pertsonak familia eta lagunengandik bereizten dituzte indarrez, zer-eta beren jaiotze-lekuagatik, ez besterik. Eta, halere, baita ezkerrekoen artean ere, deportazioaren bidegabekeria gai arantzatsua da, eta hobe

680 Ekberg, G. (2008) «Abolishing Prostitution: The Swedish solution», Rain and Thunder, hemen eskuratu daiteke: catwinternational.org, 41.

681 Smith, J. (2016) «Pimp State: Sex, Money and the Future of Equality by Kat Banyard – Review», *Guardian*, theguardian.com; Nordic Model Now! (2017), diapositiva-aurkezpena, hemen eskuratu daiteke: nordicmodelnow.files.wordpress.com/2017/05/nmn-slideshow-handout-v1b.pdf.

da mahaiaren gainean ez jartzea.⁶⁸² Prostituzioaren aldeko mugimenduak erradikaltzat du bere burua, eta, hala ere, gutxitan azaltzen da mugei buruzko analisisen bat haien jarrera eta adierazpenetan. Irakurketa eskuzabal bat eginez, pentsa dezakegu horrek esan nahi duela batzuentzat mugak eta immigrazioa iraunkorregiak edo aldaezinegiak direla eta alferrik dela haien aurka borrokatzea, ez direlako inoiz desagertuko.

Sexu-langileak eta feministak garen aldetik, guk ez dugu onartzen mugak eta haien kontrola saihestezinak edo aldaezinak direnik. Gu ere feminismo erradikal baten alde lanean ari gara, mugak eta kapitalismoa abolitzeko, baita sexu-industria ere, *sexu-langileei kalterik eragin gabe*. Klixe txar bat da esatea sexu komertzialik gabeko etorkizun bat irudikatzea alferreko ahalegina dela, «sexu-industria beti existituko delako» edo sexu-lana «munduko lanbiderik zaharrena» delako; bada, aitzakia ahula da, orobat, mugen abolizioa alde batera uztea, aldaketa zaila delako.

Atal honetan, eredu nordiko «idealari» eta benetan existitzen den eredu nordikoari buruz hitz egiten saiatu gara. Benetan existitzen den eredu nordikoak kalteak eragiten dizkie sexu-langileei, eta eredu horren aldekoak kalte horiek alde batera uzten edo konpontzen saiatzen direnean, argi uzten dute zer gutxi axola zaien sexua saltzen duten pertsonen segurtasuna. Baina arazo horiek –deportazioa, etxegabetzeak, isunak– konponduko balira ere, «eredu nordiko idealak» sexua saltzen duen jendea kaltetzen jarraituko luke, eta gehienbat baztertuenak kaltetuko lituzke. Izan ere, sexu-langileak are pobrego egiten dituen edozein politikak haien segurtasuna ere jartzen du arriskuan. Empower erakundeak –Thailandiako sexu-langileen kolektiboak bezala, kriminalizazioa sexu-langileei *ken* dakiekeenaz arduratzen da. Gizarteko pertsonarik baztertuenak axola bazaizkizu, zergatik ez zara hasten pentsatzen zer *eman* diezaiekezun haiei?

682 Goodhart, D. (27 March 2013) «Why the left is wrong about immigration», *Guardian*, theguardian.com.

ZAZPI

ZIRKULU MAGIKOA: ALEMANIA, HERBEHEREAK ETA NEVADA

Erregulazionismoa: Lege-eredua, sexu-industriaren alderdi legal bat gogor arautzen duena eta, aldi berean, baldintza burokratiko batzuk bete ezin dituzten edo bete nahi ez dituzten langileak zigortzen dituena. Baldintza horien artean daude, besteak beste, nahitaezko osasun-azterketak, leku zehatz batzuetan lan egitea edo prostituta gisa publikoki erregistratzea. Zenbait sinonimo: legalizazioa, baimentzea, *Prostitutionsgesetz*.

Lege honek ez ditu sexu-langileak babestuko. Helburu bakarra kontrola da.

Alemaniko sexu-langilea⁶⁸³

Jende askok ezagutzen ditu *legalizazio* eta *deskriminalizazio* terminoak, baina ez dira ohartzen hitz horiek gauza desberdinak esan nahi dituztela.

Legalizazioaren bidez, legezkoak dira sexu-lan *batzuk*, testuinguru *batzuetan*. Estatuak gogor arautzen du legezko sexu-lan hori, eta, normalean, ez du lehenesten langileen ongizatea. Hori horrela da, hein batean, sexu-lana legezkatzearen aldeko jendeak baduelako nolabaiteko joera bat prostitutak ikusteko ez langile gisa, baizik eta antsietatea eragiten duten gaixotasun-bektore gisa edo, bestela, kontrolatu beharreko desordenaren ikur gisa. Askotan, legezkatzeak esan nahi du berariaz sexu-lanari dagozkion lege berriak ezartzea, hala nola zigor berriak, eta ez existitzen diren horiek baliogabetzea.

683 Global Network of Sex Work Projects (NSWP) [Sexu-lanari buruzko Proiektuen Sarea] (2016) «Mandatory Registration and Condom Use Proposed in Germany», nswp.org.

Aldiz, deskriminalizazioak –zeina zehatzago azalduko baitugu hurrengo atalean– deskribatzen du egoera bat non sexu-lana legezkoa baita *besterik adierazi ezean*. Legalizazioarekin, sexu-lan batzuk bakarrik dira legezkoak, eta testuinguru batzuetan bakarrik; deskriminalizazioarekin, berriz, prostituzioa, hasiera batean, ez da krimen bat. Deskriminalizazioaren bidea hartzen denean, ezarritako arauak sexua saltzen duten pertsonen ongizatea lehenetsi ohi dute, eta hori hala da, neurri batean, deskriminalizazioaren aldeko jendeak sexu-langileak *langile* gisa ikusteko joera duelako; hortik, langileen eskubideekiko kezka bat sortzen da.

Feminista eszeptikoentzat, legalizazioak –hau da, gobernuak prostituzio-etxeei baimenak ematea, edo kaleko lana egiteko eremu bereziak sortzea– alfonbra gorri bat eskaintzen dio patriarkatuari. Zer mezu bidaltzen dio estatuak gizarteari prostituzioa formalizatzen duenean? Zer eragin du legez onartutako sexu-salerosketak gizonen sexu-eskubideetan? Toki horietan lan egiten duten emakumeen gorputz esplotatuek kalteak jasaten dituzte, gainerabileraren ondorioz? Prostituzioaren aurkako militanteek aspalditik egin diote uko edozein eratako legalizazioari, eta «burdelizazio» orokor batek «prostituitutako emakumeen» ongizatean izan dezakeen eragina azpimarratzen dute.⁶⁸⁴

Zenbait herrialdek beren muga barneko sexu-industria legezkatu dute (hala nola Bangladesh, Austria, Senegal, Letonia, Tunisia, Hungaria, Peru, Venezuela, Txile, Australiako leku batzuk eta AEBko Nevada estatuko konderrri batzuk), eta, halere, eztabaida feminista ugarik Europako erregulazio-ereduetan jaritzen dute arreta, batez ere Alemaniakoan eta Herbehereetakoan, zeinak askotan ondoko molde hauetan deskribatu izan baitira: «guztien eskurakoa», «informala», «debaldekua» eta «liberala».⁶⁸⁵

Liberalek erregulazionismoa aldeztearen arrazoiak honetan datza: haientzat, prostituzioa berezkoa da, betierekoa, saihestezina; *norbaitek* egin beharreko lan zikina. Horrek erro

684 Mackay, F. (2015) *Radical Feminism: Feminist Activism in Movement*, New York: Palgrave Macmillan, 209–27.

685 Grimley, N. (2015) «Amnesty International row: Should prostitution be decriminalised?», *BBC News*, bbc.com; Shanahan, C. (2015) «Amnesty prostitution vote rebuked», *Irish Examiner*, irishexaminer.com.

sakonak dauzka: teologo kristauak, adibidez, esan izan dute sexu komertziala ihesbide bat dela bestela bekatu larriagoetara eramango luketen sexu-irrikentzat.⁶⁸⁶ Moral bikoitz patriarkalak laudatu egiten ditu gizonak sexu-bikotekide ugari izateagatik, baina lotsarazi eta kondenatu egiten ditu emakumeak arrazoi berarengatik. Matematikoki, gizonak promiskuitatea praktikatu ahal izateko eta, aldi berean, emakume gehienek «errespetagarri» izaten jarraitzeko, modu bakarra dago: emakume-kopuru txiki bat sexualki oso aktiboa izatea. Askoz argiago azaldu zuten Johannesburg-eko egunkari bateko editorial batean, 1897an: «*Mondearen bertutea demi-mondearen bidez bermatzen da*».⁶⁸⁷ Alegia, patriarkatuaren sexu-arauek ekonomikoki bideragarri bihurtzen dute sexu-lana, baina ez hori bakarrik; *beharrezko* ere bihurtzen dute, nolabait, bai banakako bezeroen onurarako, bai gizarte osoaren onurarako.

Bestalde, badira sexu-lanean helburu kapitalista handiago bat ikusten dutenak. Logika horren arabera, enpresa-ikuspegi batetik, oraindik ere bada itxaropenik sexu-industriarentzat, zeina, marihuanaren merkatua bezala, mugalde basati bat baita, pertsona heldu aberats baten esku gidari irmoa besterik behar ez duena. Industria horiek, pertsona egokien eskuetan, egundoko mauka izan daitezke turismotik, zerga-bilketatik eta erregulaziotik etekina atera dezaketen ororentzat; aberatsak aberatsago bihurtuko lirarteke, eta ikuspegi horrekin bat egiten duten sexu-langileek zilegitasun handiagoa izango lukete profesional gisa. Ideologia horrentzat, gainera, sexu-langileen eskubideak eta sexu-laneko managerrenak trukagarriak dira batzuetan; azken finean, azken horiek ere legez kontrakoak dira.⁶⁸⁸

686 Ikus, adibidez, Richards, D.A. (1982) *Sex, Drugs, Death, and the Law: An Essay on Human Rights and Overcriminalization*, Totowa, NJ: Rowman and Littlefield, 133.

687 White, L. (1990) *The Comforts of Home: Prostitution in Colonial Nairobi*, Chicago: University of Chicago Press, 3.

688 Prostituzioaren aurkako feministek Sexu Langileen Nazioarteko Sindikatu (IUSW) desohoratua kritikatu dute, sexu-industriako managerrei langileekin batera antolatzeko baimena ematea erabaki duelako. Gu ere bat gatoz kritika horrekin. Erabaki horrek zentzua du zorrozki estatuaren boterearen aurka zuzenduta dagoen politika batean, managerrek ere kriminalizazioari aurre egin behar diotelako. Nolanahi ere, ez du kontuan hartzen managerrek (edozein industrian) langileenganako boterea dutela eta botere hori haiek esplotatzeko erabil dezaketela. Sindikalismoaren funtsezko xedea da boterearen balantza langileen aldera okertzea, eta hori ezin da lortu baldin eta managerrak haiekin batera antola badaitezke.

Sexu-langile feministon etsipenerako, askotan esaten digute guk ere balio horiekin bat egiten dugula. Argi eta garbi esan arren sexu-lanaren *deskriminalizazioa* aldarrikatzen dugula, behin eta berriro ulertzen digute *legalizazioa* esan nahi dugula, eta liberalizat, kapitalistatza edo gizonen eskubideen aldekoztat jotzen gaituzte maltzurki, eta esaten dute gure xedea dela sexualitate maskulinoaren nagusitasunak trabarik ez duela bermatzea. Baldin eta prostituzioaren deskriminalizazioari legalizazioaren mozorroa janzten badiogu faltsuki eta bi terminoak eremu semantiko berean biltzen baditugu, debekuaren aldekoek bi politika-ildoek egotz diezaiekete bietako bakarraren hutsegiteen errua.

Legalizazio erregulazionistak sexu onberaren jolas-parke baten ospea du, faltsuki; aitzitik, prostituzioaren legalizazio erregulazionistaren ikuspegia ez da atsegina sexu-langileentzat. Askotariko lege erregulazionistak ezartzen dira, kontinente guztietako herrialdeak gogo biziz saiatzen baitira prostituzioaren alderdirik kaltegarrientzat jotzen dituztenak selektiboki ezabatzen, zigor-zuzenbidearen bidez. Oro har, argi dago ikuspegi horiek zenbait beldur transkultural adierazten dituztela, irakurlearentzat ere honezkero ezagunak izango direnak: ageriki *queerra* edo gaixoa den gorputzarekiko beldurra; migrazioarekiko beldurra; kutsadura sozial sexualizatuarekiko beldurra; gizartean desordenatuki eta inoren kontrolik gabe atzera-aurrea dabilzan emakumeekiko beldurra, edo botere ekonomikoaz jabetu eta lana beren artean antolatzen duten emakumeekikoa.

Zirkulu «magikoa»

Paradoxikoki, sexu-lana legeztatzea ez da, ezinbestean, lana legezko bihurtzea. Aitzitik, bi mailako sistema bat sortzen du, non zati bat legezkoa baita eta zati handi bat, ez. Nevadan, adibidez, landa-eremuko hamazazpi konderrietatik hamarretan baimenduta daude lizentziadun burdelak, eta beste ezein eremutan ezin da egin legezko sexu-lanik (ezta hiririk handiengan are, Las Vegas-en). Herbehereetan, jendeak sexua sal dezake legalki burdeletan eta sexu-klubetan, auzo gorriko erakusleihoe-tan, *tippelzone* deritzenetan (kaleko sexu-lanerako eremuak), sexu-zinematan eta masaje-aretoetan. Leku horietan guztietan,

udal-mailako lizentzia daukate. Gainerako toki guztietan, legez kontrakoak da oraindik.

Herbehereetan legeztatu zutenetik, toki horien % 40 baino gehiago lizentziarik gabe geratu dira, eta sexu-langileek legearen barruan lan egiteko leku gutxiago daukate.⁶⁸⁹ Alemanian, 2017ko Prostitutak Babesteari buruzko Legearen arabera, sexu-langile guztiek izena eman behar dute zerrenda batean, eta sexu-langile gisa identifikatzen dituen nortasun-agiria izan behar dute. Agiri hori jasotzeko baldintzetako bat da haurduntzaren, droga-kontsumoaren eta sexu-transmisiozko gaixotasunen probak egitea, eta nahitaez joan behar dute terapiara.⁶⁹⁰

Nevada, Herbehereak eta Alemania sexu-industriaren jardunbidea arautzen duten tokien adibide tipikoak dira. Sexu-langilerik prekarioenak ezin dituzte bete ezarritako arauak, eta, beraz, ilegalki lan egin behar dute; hala, «azpiklase» zaurgarri eta kriminalizatu bat sortzen da.

Turkian, esate batera, emakume transek ezin dute lanik egin estatuak kudeatzen dituen burdeletan.⁶⁹¹ Alemanian, sexu-langile ugari «prostituzio-eremu» izendatu dituzten gune txikietatik kanpo bizi dira, eta, beraz, horietatik kanpo lan egiten dute.⁶⁹² Australian, sexu-langile askok ezin dute hartu beren pribatutasuna galtzeko arriskua gobernuaren prostituta-zerrenda ofizialean izena emanda.⁶⁹³ Nevadan, zigor-aurrekariak dituztenek –askotan biziraupenerako egindako krimenak izaten dira, hala nola lapurreta txikiak janari-dendetan– ezin dute burdel legetan lan egin.⁶⁹⁴ Pobreziaren mugatik gertu dauden sexu-

689 Daalder, A.L. (2015) «Prostitutie in Nederland anno 2014», Herbereheetako Seguratasuna eta Justizia Ministerioa, hemen eskuragarri: rijksoverheid.nl, 17–18.

690 Ikus Hydra Berlin (2016) «Information Pamphlet about the "Prostitutes Protection Law"», hemen eskuragarri: hydra-berlin.de; eta Herter, A. & Fem, E. (2017) «Professed Protection, Pointless Provisions – Overview of the German Prostitutes Protection Act», International Committee on the Rights of Sex Workers in Europe (ICRSE) [Europako Sexu-langileen Eskubideen aldeko Nazioarteko Batzordea], hemen eskuragarri: sexworkeurope.org.

691 Delgado, K. (2016) «Stacey Dooley's Sex in Strange Places is a shocking look at Turkey's sexual underworld», *Radio Times*, radiotimes.com.

692 Koster, K. (2017ko abenduaren 6a) «Legal in Theory: Germany's Sex Trade Laws and Why They Have Nothing to Do With Amnesty Sex Work Proposal», *Huffington Post*, huffingtonpost.com.

693 Scarlet Alliance (2014) «The Principles for Model Sex Work Legislation», scarlettalliance.org.au.

694 Mansfield, B. (2014) «Nevada's Brothels: Legalization Serves The Man», *Tits and Sass*, titsandsass.com.

langileek ez dute Herbehereetako auzo gorrian erakusleiko bat ordaintzeko dirurik (80-160 €txandako, aurrez ordaindu beharrekoak).⁶⁹⁵ Senegalen, GIBa duten sexu-langileek ezin dute lortu osasun-ziurtagiririk poliziari emateko, eta, beraz, ezin dute legearen barruan lan egin; *les clandestine* esaten diete.⁶⁹⁶ Grezian, emakume ezkonduak debekatua dute estatuak araututako burdeletan lan egitea.⁶⁹⁷ Agiririk gabeko migratzaileek ezin dute lan egin legeztatutako *ezein* barrutitan.

Pertsona horientzat, esparru «legeztatu» baten ideiak ez du zentzurik: estatuak zirkulu magiko bat marraztu du, eta haiek ez daude zirkulu horren barruan. Hor sartzeko gaintitu beharreko hesiak hain dira handiak, ezen gehientzat ezinezkoa baita beren lan-egoera legeztatzea, eta, leku gehienetan, legez kontrako eta arautu gabeko sexu-salerosketaren bolumenak nabarmen gaintitzen du sexu-industria legalarena.

Alemanian, kalean jarduten duen sexu-langile trans eta migratzaile batek 2017ko Prostituzioa Babesteari buruzko Legearen inguruko iritzia eman zuen: «Ez daukat [...] osasun-asegururik eta, askotan, ezta lo egiteko lekurik ere. Orain izena eman behar dut? Eta nola egingo dut?». ⁶⁹⁸ Deer izeneko migratzaileak sexu-lanean dihardu Austrian, eta honela dio:

Babesgabe nago hemen. Ez dut lortzen nominarik. Ezin dut eskatu krediturik edo mailegurik. Ezin dut alokatu autorik. Zergak ordaintzen ditut, gizarte-segurantza ere bai, baina ez dut izango pentsiorik. Ez didate ezer ematen. Langabezia-saririk ere ez dut jasotzen [...] Ezin dut ezer egin nire izenean.⁶⁹⁹

De Rode Draad Herbehereetako sexu-langileen eskubideen aldeko erakundea da, eta honela azaltzen du *gedoogbeleid* (tolerantziaren politika) garaiaren aurretik sexu-langileekin erabiltzen zen sistema: «Lehen, onartu egiten zen emakume [migratzaile]

695 Anna, F. (2015eko martxoaren 12a) «How to start in window prostitution in Amsterdam?», Behind the Red Light District, behindtheredlightdistrict.blogspot.co.uk.

696 Tucker, G.M. (2012) «The Invisible Challenge to HIV/AIDS Prevention: Clandestine Prostitution in Senegal», *Journal of International Women's Studies* 13:1, 19–31.

697 NSWP (2017) «Greek Sex Workers Organise Conference and Demand Law Reform», nswp.org.

698 Hydra Berlin, «Information Pamphlet about the "Prostitutes Protection Law"».

699 Wagenaar, H., Altink, S. & Amesberger, H. (2013) «Final Report of the International Comparative Study of Prostitution Policy: Austria and the Netherlands», Platform31, kks.verdus.nl/upload/documents/P31_prostitution_policy_report.pdf.

horien lana, gainerako sexu-langileen lana onartzen zen neurri berean. Orain, emakume-talde baten legalizazioarekin, beste emakume-talde baten lana legez kontrakoa bilakatu da». ⁷⁰⁰

Bi mailako eredu hori *legalizazio* edo *erregulazionismo* deritzegun lege-multzoen ezaugarri unibertsal –eta huts egingdako– bat da: onuradunik okerrenak ahaldundu ohi dituzte. Erregimen legalizatuetan, ohikoa da manager batentzat lan egitea legezkoa izatea eta, aldiz, krimenez jotzea sexu-langile batek beregain lan egitea, dela bere kasa ala beste lagun batzuekin. Halandaze, legalizazioak *manager batentzat lan egitera bultzatzen ditu sexu-langileak*, eta, hala, langileen gaineko are botere handiagoa ematen die haiei. Mariko prostituzio-etxe bateko langile ohia da, eta honako hau du idatzia: «Legezko prostituzio-etxeek legezko estatusa dute, zeinari astoaren aurrean paratzen den azenarioari bezala eragiten baitiote, dirua irabazi nahi izanez gero haien beharra duzula senti dezazun». ⁷⁰¹ Eskura dituzun aukerak badira a) arduradun batentzat lan egiten jarraitzea edo b) zure kabuz jartzea eta atxilotzeko arriskuari aurre egitea, estandarraren azpitik dauden edo are abusuzkoak diren lan-baldintzak onartzera behartua egon zaitezke. Amy Walker putetxeko langile ohia da, eta hauxe dio Melbourne-ko prostituzio-etxeetan igarotako garaiaz: «Putetxeetako jabeentzat onena da emakumeak segurtasunik gabe eta deseroso sentitzea eta lehiakorrek izatea». ⁷⁰²

Sexu-langileek esan digutenez, Nevadako putetxeetako manager batzuek poliziarri jakinarazten diete inguruan sexu-langile independenteak badabiltza; izan ere, langile horiek beren negozioa arriskuan jartzen dute, eta arazo hori erraz «konpon» daiteke, haiek atxilotuta. ⁷⁰³

Legeztatzeak sexu-langileen zaurgarritasuna larriagotzen du. Alemanian, Prostitutak Babesteari buruzko Legea indarrean jarri eta berehala industria bizkarroi bat sortu zen, ezinean ze-

700 Norvegiako Justizia eta Polizia Ministerioan aipatua (2004ko urriaren 8a) «Purchasing Sexual Services in Sweden and the Netherlands: Legal Regulation and Experiences», report, regjeringen.no, 34.

701 Passion, M. (2008ko abuztuaren 25a) «Cautionary words from a brothel survivor: But still a sex worker activist», Personal blog, marikopassion.wordpress.com.

702 Walker, A. (2016) «Women's Experiences Of Different Legislative Models», *SPACE International*, spaceintl.org.

703 From private conversation.

biltzan sexu-langileei zerbitzuak eskaintzeko; adibidez, helbide faltsuak eskaintzen zizkieten, eta posta hara bideratu, edo alemanez idatzitako formularioak betetzen laguntzen zieten. Hala, noski, harrapariak erraz identifika ditzakete esplotatzeko ego-kiak izan daitezkeen sexu-langileak: beren eskubideen jakitun ez direnak edo pobreziaren atarian daudenak.⁷⁰⁴ Alemaniako ka-leetan lan egiten duen migratzaile batek honela dio:

Nire mutil-laguna nire zeregin burokratikoiez arduratzen da. Berak egiten duen hori ulertzen saiatzen naiz, bere menpeko ez izateko, baina oraindik ez dut lortu. Prostitutak Babesteari buruzko Legearen ondorioz, dena konplexuagoa da, eta orain izena ere eman behar dugu; beraz, are gutxiago ulertuko dut, eta proxenetekin lan egiten duten kideak ere haien menpekoago bilakatuko dira.⁷⁰⁵

Erregimen «legeztatu» batean legez kontra lan egin behar dutenek erabateko penalizazioaren kalteak jasaten jarraitu behar dute. Oraindik ere, aurrez aurre daude haien interesak eta poliziarenak.⁷⁰⁶ Alemanian, polizia orain edozein prostitu-zio-aretotan sar daiteke, edozein unetan.⁷⁰⁷ Edozein sistema kriminalizatutan bezala, poliziak sexu-lanaren *de factoko* arau-tzaile gisa diharduenean, gaitasun horrek, polizia-ustelkeriarako lur emankorra eskaintzeaz gain, poliziaren laguntza jaso ezinik uzten ditu araudiaren mugan dauden haiek (askotan, kaleko sexu-langile zaurgarriak, zeinek indarkeria jasateko arriskurik handiena baitute). Askok ez dituzte salatzen lanean jasanda-ko erasoak eta bortxaketak; izan ere, aukera horretaz baliatuz, polizia-agenteak salaketa bat edo beste edozein zigor jar die-zaieke, baimenik gabeko lanean jarduteagatik. Adrian Bayley serioko bortxatzaile eta hiltzailearen aurkako epaiketan, age-rian geratu zen bortxaketen hamar biktima, gutxienez, guztiak ere Victoria-koak (Australia) –non sexu-lana araututa baitago–,

704 Herter, A. & Fem, E. (2017) «Professed Protection, Pointless Provisions – Overview of the German Prostitutes Protection Act», International Committee on the Rights of Sex Workers in Europe (ICRSE) [Europako Sexu-langileen Eskubideen aldeko Nazioarteko Batzordea], sexwork.europe.org.

705 *Ibid.*

706 Scarlet Alliance and the Australian Federation of AIDS Organisations (1999) «Unjust and Counter-Productive The Failure of Governments to Protect Sex Workers from Discrimination», txostena, scarletalliance.org.au, 14.

707 Hydra Berlin, «Information Pamphlet about the "Prostitutes Protection Law"».

poliziarenganako beldurrez eta mesfidantzaz lekukotasuna emateari uko egin zieten sexu-langileak zirela.⁷⁰⁸

Legearen barruan lan egin dezaketen sexu-langileei dago-kienez, erregulazionismoak nerabe axolagabe gisa tratatzen ditu, zeinei guraso kezkatiek agiraka egiten baitiete. Horren ondorioz, langileak putetxeko lau pareten artean ixten dituzten neurriak hartzen dira. Australian, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, artean burdeletako prostituzioa legezkoa zela, emakumezko sexu-langileek

ezin zuten seniderik izan 500 km-ko erradioan, ezin zuten beren neben bisitarik hartu, ezin zuten harreman egonkorrik izan tokiko jendearekin, ezin zuten ibili herriko edozein tokitan [...] mugatua zuten igeritokirako sarrera. Emakumeek bizi behar zuten [...] prostituzio-etxeetan.⁷⁰⁹

Gaur egungo Nevadan, legezko sexu-langile gehienek etxeratze-agindua bete behar izaten dute kontratuak irauten duen bitartean, eta prostituzio-etxean bizi behar izaten dute. «Neskek etengabe alde egiten dute, herrira joateko, azazkalak konpontze-
ra joateko», dio George Flint-ek, zeinak lobby-lana egiten baitu Nevadako putetxeetako nagusientzat; «baina ni neskak etxean geratzearen aldekoa naiz erabat. Putetxeak eskaintzen duen inguru kontrolatutik kanpora, baliteke segurtasun-neurririk ez erabiltzea (hau da, kondoiak-eta)».⁷¹⁰ Hogeita lau ordu baino gehiago egiten badituzte prostituzio-etxetik kanpo, STG-proba ordaindu behar dute; alferreko neurria da, kontuan hartuta olgeta-sexuaren bidez kutsatutako gaixotasunak detektatzeko bi aste behar direla gutxienez; edonola ere, gerizpe instituzionalak eskaintzen duen «segurtasunetik» kanpora luzaroegi ibili ez daitezen ezarritako neurri ekonomiko eta soziala da. European, sexu-lana legezkoa den tokietako kaleetan, sexu-langileak kabinetan edo aterpetxeetan itxita egon daitezke, eta batzuetan gertatzen da eremu jakin batzuetan bakarrik lan egin dezaketela legearen barruan.

708 Spooner, R. (2015) «Adrian Bayley trials: Street sex workers still reluctant to report crimes», *The Age*, theage.com.au.

709 Perkins R. (1991) «Working girls: Prostitutes, their life and social control», *Australian studies in law, crime and justice*, Canberra: Australian Institute of Criminology, chapter 2.

710 Gira Grant, M. (2009) «Resisting the Sex Panic: Sex Workers Struggle for Evidence-Based Regulation in Nevada», *Rewire*, rewire.news.

Hesituta bizitzera behartuak izateaz gainera, sexu-langileak bazterretara jaurtiak edo bultzatuak ere izan daitezke, inoren begi-bistatik kanpora. Legez baimendutako eremuekin lotutako neurriek komunitatetik urrun dauden lekuetan kokatzen dituzte sexu-lanerako tokiak, industriaguneetan, adibidez; horrek emakumeak bakartzen ditu, eta erasotzaile biolentoen eskuetan uzten. Nevadan, landa-eremuko herri batean, tokiko ordenantzetan jasota dago emakume batek legezko putetxe batean lan egiteari uzten dionean «herritik alde egin behar duela eskura duen hurrengo garraibidean». Susan Lopez Las Vegas hiriko sexu-langileen parte-hartzerako proiektuko zuzendaria da, eta honela dio: «Batzuetan, badirudi jendea ez kutsatzeko atera nahi dituztela “puta zikinak” hiritik kanpora».⁷¹¹

Prostitutaren gorputz «kutsakorra» sexu-lana arautzeari buruzko elkarrizketa guztietan ateratzen da, eta osasun publikoari buruzko diskurtsoak zaildu egiten du arautzeak eragiten dituen kalteez ohartzea. Pertsonen gorputzen gaineko kontrol zapaltzaileak arrazoizkoagoa dirudi, nolabait, herrialde guztietan osasunari eragiten dionean. Zergatik ez lukete onartu behar sexu-langileek osasun-azterketak egitea? Nori egin liezaiokete kalte horrelako legeek?

Era horretako oharpenek, zeinak askotan asmo onez egiten baitira, ez dute kontuan hartzen ezinbestean bete beharreko edozerk aldi bereko arau-hausteak eragiten dituela automatikoki. Paradoxikoki, neurri horiek ez dira batere eraginkorrak osasun publikoa babesteko: sexu-langile batek zigorra jasotzen badu proba bat egin eta infekzioren bat duela azaldu delako, hurrengo batean horrelako probak saihesten ahaleginduko da. Era berean, baldin eta diru-beharrik handiena dutenak aparteko diru baten truke kondoirik gabeko sexu-harremanak izateko konbentzitzen badituzte, baliteke gero osasun-zerbitzuak saihesten ahalegintzea, zigorrari ihes egiteko.⁷¹²

Senegalen, polizia nahita jazartzen ditu izena emana duten sexu-langileak, estortsioa egiteko edo trukean sexu-zerbitzuak eskuratzeko; horregatik, besteak beste, sexu-langile gutxi

⁷¹¹ *Ibid.*

⁷¹² Global Network of Sex Work Projects (NSWP) (2016) «Mandatory Registration and Condom Use Proposed in Germany», nswp.org.

batzuek baino ez dute izena ematen.⁷¹³ Bestalde, herrialde askotan, polizien kidegoek ere eskura ditzakete gaixotasun-proben emaitzak, eta, beraz, sexu-langile GIB positiboak zigortu ahal dituzte, lanean arituz gero horren berri ematera behartzen duen legearen arabera. Ostera ere, horrek osasun-zerbitzuak saihesteko arrazoi handi bat eman diezaike GIB positibo izan daitezkeela uste duten sexu-langileei.

Guk ezbairik gabe babesten dugu osasun-zerbitzuak doan eta erraz eskuratzeko eskubidea. Mundu osoan zehar, Lurmutur Hiritik Glasgoweraino, sexu-langileek osasun-zerbitzu hobeen aldeko kanpainak egiten dituzte, eta zerbitzu horiek sortu ere sortzen dituzte, belar-izpiak baino aurrekontu estuagoekin.⁷¹⁴ Baina nahitaezko probek giza eskubideak urratzen dituzte. Mundu guztiak du pribatutasun eta autonomia medikorako eskubidea, eta nahitaezko probek funtsezko giza eskubide horiek urratzen dituzte. Politika horiek sexu-langileei erakusten diete ezen «osasun publikoak» ez duela esan nahi berek beren gorpuzteko duten autonomia eta pribatutasuna errespetatzea, eta infekzioen bat dutenean probak saihesteko estrategia burutsuak asmatzera bultzatzen dituzte, bestela ez dute-eta etxekoei jaten emateko modurik.

2008an, Australiako gizonezko sexu-langile bat kondenatu zuten, GIB positiboa izanda ere sexu-lanean jarduteagatik; komunikabideek gertaera haren berri eman zuten, eta gizona publikoki lotsarazi. (Ez zuten frogatu segurtasun-neuririk hartu gabe lan egin ote zuten, ezta infekzioa transmititu ote zuten ere). Halakoa izan zen komunikabideek egin zuten zalaparta, non izugarri jaitsi baitzen hamabostean behin proba egitera joaten ziren sexu-langileen batez besteko kopurua, hogeita hamarretik bi baino gutxiagora.⁷¹⁵ Inork ez zuten arriskurik hartu nahi, inork ez zuten nahi GIB positiboa zela entzutea eta antzeko zalapartaren itu bihurtzea. «Osasun publikoaren» izenean egiten diren

713 Open Society Foundations (2012) «Laws and Policies Affecting Sex Work: A Reference Brief», nswp.org.

714 Esate batera, Umbrella Lane Glasgowera (Eskozia) sexu-langileek kudeatutako ongintza-erakunde bat da. Sexu-harreman seguruagoak izateko hornigaiak banatzeaz gain, osasun-langileak trebatzen dituzte, sexu-langileei estigmatik gabeko aholku eta osasun-zerbitzuak eskaintzeko. Hauxe da haien webgunea: umbrellalane.co.uk.

715 Australasian Society for HIV, Viral Hepatitis and Sexual Health Medicine (d.g.) «Sex Work», hivlegal.ashm.org.au.

esku-hartzeek aurkako eragina dute, baldin eta sexu-langileak osasun-zerbitzuetatik urruntzen badituzte.

Infekziorik ez duten sexu-langileen kasuan ere, sexu-osasunaren egiaztagiriak segurtasun-sentsazio faltsua eragiten du. Infekzio guztiak ez dira probetan berehala azaltzen; beraz, probaren emaitza negatiboa bada ere, bi aste lehenagora arte egindakoari soilik dagokio.⁷¹⁶ Probek, sexu-langileak desegoki zigortu ez ezik, funts publikoak xahutzen dituzte, eta baliabide mordo erabili, zeinak *benetan eraginkorrak* diren osasun publikoko neurriak hartzeko erabil zitezkeen. 2006an, osasun publikoko langile batek ia harrotasunez hitz egin zuen ikuspegi superstizioso horren inguruan: «Hainbeste proba egiten dizkiegu, ezen baitirudi gehiegi egiten dizkiegula».⁷¹⁷

Nori egiten dio mesede?

Erregulazionismoaren alde ez egiteaz gainera, haren aurka gaude irmoki, beste feminista batzuekin batera. Zalantzarik gabe, lege-marko hori ez da sortu langileari laguntzeko asmoz; gizon ez-prostituten sakelak betetzen ditu, batez ere prostituzioa kudeatu eta bideratzen dutenenak. Sexu-langileen komunitatearen Tits&Sass blogean adierazten den bezala, «Legalizazioa gizonaren zerbitzura dago».⁷¹⁸ Hendrik Wagener eta Sietske Altink akademikoek azaltzen dutenez, Herbeheretako hiri-agintari ugari erabaki zuten prostituzio-etxeen kopurua mugatzea eta, hain zuzen ere, legeztatzea indarrean sartu zenean zegoen kopuru bera jartzea mugatzat. Horrek zera ahalbidetu zuen, putetxe-jabe boteretsu eta gupidagabeen «oligopolio» batek bere gain hartzea merkatuaren kontrola.⁷¹⁹ Enplegatuek oinaze handia jasaten dute lantokian, baldin eta kapitalista aberatsak eroso sentitzen badira haiel lan-baldintza duinez gabetzen. Alde horretatik, sexu-industria legeztatua ez da Uber izeneko *startup*

716 Scarlet Alliance, Australiako Sexu-langileen Elkarte (2011) «Mandatory or compulsory testing of sex workers for HIV and/or sexually transmissible infections in the Australian context», *Australian Parliament*, parliament.act.gov.au.

717 Gira Grant, M., «Resisting the Sex Panic: Sex Workers Struggle for Evidence-Based Regulation in Nevada».

718 Mansfield, B., «Nevada's Brothels: Legalization Serves The Man».

719 Wagenaar, H. & Altink, S. (2012) «Prostitution as Morality Politics or Why It Is Exceedingly Difficult To Design and Sustain Effective Prostitution Policy», *Sexuality Research and Social Policy* 9, 279.

disruptiboaren desberdina, zeinak arau zorrotzak ezartzen baitzizkie gero eta lan-baldintza prekarioagoak dituzten langileei, eskubiderik batere aitortu gabe.

Mugimendu feministak erregulazionismoari buruzko analitistik ateratzen dituen ondorio ugari «trafikoaren ezteandak» eragindako izu arrazoigabe eta arrazializatuaren ondorena dira, eta, hortaz, elkarrizketa horien konplexutasuna oso mugatua da. Bi mailaz osatutako mekanismoa muga zeharkatzen duten migratzaileak esplotatzen dituen sarearen beste errepikapen bat baino ez da, hau da, bestalde horretan pobrezia eta lege kontrako lanaren artean aukeratu behar duten hainbeste migratzaile harrapatzen dituen sarearena. Lan-espazio kriminalizatuak zaurgarritasun-eragileak dira berez langileentzat, eta, migratzaileei beste lan-molde batzuk ukatzen bazaizkie, haien innigrazio-estatusagatik, harrapakin bikaina dira legez kontrako ekonomian parte hartzen duten hirugarrenentzat.

Trafikatzaileek, proxenetek eta bezeroek soilik ez dute sortzen kalte hori guztia sexu-industrian. Legeztatzeak huts egitearen arrazoiak sakon aztertzeko, ezinbestekoa da estatuak jokatzeko duen papera kontuan hartzea. Legezkoa den tokietan ere, polizia eta zigor-arloko justiziak beste toki batzuetan adina ordain jasotzen dituzte prostituziotik, isunen eta konfiskatutako diruaren bidez.

Prostituzioa arautzeak etekin bikoitza eskuratzeko aukera ematen dio estatuari. Alde batetik, sexu-langile onartezinak zigortu eta haien dirua har dezake. Bestetik, legezko sexu-industriaren abantaila ekonomikoak dituzte: negozioaren gaineko zergak jasotzen dituzte lizentziadun prostituzio-etxeetatik, turismotik datozen diru-sarrerak biltzen dituzte eta gizon gazteei zuzendutako opor-helmuga zoragarriaren ospea dute⁷²⁰.

Eztabaidan honetan, askotan, «sexu-langileen eskubideen» eta «kontsumitzaileen eskubideen» arteko talka deseroso bat gertatzen da; kasu horietan, sexu-eroslea sexu-beharra (edo are eskubidea) duen pertsona gisa irudikatzen da, akritikoki.

720 Gira Grant, M., «Resisting the Sex Panic: Sex Workers Struggle for Evidence-Based Regulation in Nevada»; Heineman, Jenny, Rachel Mac-Farlane eta Barbara G. Brents (2012) «Sex Industry and Sex Workers in Nevada» in Dmitri N. Shalin (ed.) *The Social Health of Nevada: Leading Indicators and Quality of Life in the Silver State*, Las Vegas, NV: UNLV Center for Democratic Culture.

Erregulazionismoak dio sexu-langilearen gorputza arautu egin behar dela, *bezeroaren onerako*, eta ez du uste langileak beren kabuz arduratuko direnik beren osasuna zaintzeaz.

«Nork bere gorputza saltzea» nork bere buruari kalte egiteko bidetzat jotzen dutenen artean, ez da ohikoa bezeroarengan duten ustea sexu-langilearengan ere izatea. Ikusmolde horren arabera, sexu-langileek gorputz aberranteak irudikatzen dituzte, eta tratamendu medikoak aplikatu behar zaizkie, haien onespenarekin edo gabe.

Boterea borrokatu

«Prostituzio oro txarra da». Halaxe esan zuen Alice Schwarzer prostituzioaren aurkako autore alemaniarrek Berlinen, 2013an, biltzar bateko mahai-inguru baten hasieran. Banderak astinduz eta aterki gorriak irekiz, berrogeita hamar sexu-langilek ekitaldia eten zuten, biltzarrera hurreratu ziren lagunek eztabaidagai zuten gaiari buruzko lehen eskuko bizipenak ikusarazteko. Banatu zituzten panfletoetan hau irakur zitekeen: «Sexu-langileen eskubideak indartzea eta haien bizi- eta lan-baldintzak hobetzea aldarrikatzen dugu». Schwarzer, zirkinik egin gabe, mikrofonotik zuzendu zitzaien: «Itxi zuen aterkitxo horiek. Gero izango duzue berba egiteko aukera. Orain, lehenik eta behin, guk hitz egingo dugu».⁷²¹

Alemanian, sexu-langileen erakundeek sutsuki aurre egin zioten agintarietara paradoxikoki Prostitutat Babesteari buruzko Lege izendatutako arau-multzoari, baita hura 2016an indarrean jarri baino lehenago ere. Geroztik, behin eta berriro eskatu dute legea indargabetzeko, giza eskubideak urratzen dituelakoan. Hydra e.V. sexu-langileen erakunde alemaniarrek zioen bezala, «uko egiten diogu politikoki [...] goitik behera aldatuko ditu sexu-lanean diharduen jendearen bizi- eta lan-baldintzak».⁷²²

Alemanian sexu-industriaren berri ematen duten hedabideek izua besterik ez dute zabaltzen askotan. «Europako burdelean» eskaintzen duten «tarifa finkoko putetxeen» ideiak

721 Lehman, M. (2013) «Sex Workers Protest Against Alice Schwarzer's Panel Discussion about Prostitution in Berlin», International Committee on the Rights of Sex Workers in Europe (ICRSE) [Europako Sexu-langileen Eskubideen aldeko Nazioarteko Batzordea], sexworkeurope.org.

722 Hydra Berlin, «Information Pamphlet about the "Prostitutes Protection Law"».

higuin berezia eragiten du, eta ez zaie arretarik jartzen sexu komertzialaren molde horrek langileen bizipenetan eragin ditza-keen aldaketei.⁷²³ Tarifa finkoko prostituzio-etxe batzuetan –non bezeroak diru-kopuru zehatz bat ordaintzen baitu sarreran, nahi beste langile ikusteko eskubidea ematen diona–, orduko soldata bat ordaintzen diete langileei, ez bezero-kopuruaren araberako komisio bat; beraz, lan-baldintzak ezinbestean aldagarriak badi-
ra ere, lan-mota horiek diru-sarrera egonkor bat ekar dezakete, sexu-lan gehienekin alderatuta.⁷²⁴

Herbehereetako sexu-langileek ere antzeko zailtasunei egin behar diete aurre. 2015ean, Amsterdam-eko alkatea prostituzioa errotik erauzten saiatu zen. Besteak beste, ehun lantoki inguru ixtea aurreikusi zuen, eta pribatutasun-eskubideak ahuldu zituen, sexu-langileen osasun mentalari buruzko datuak bilduz.⁷²⁵ Langileen Nazioarteko Egunean, argi gorriko hemezortzi erakusleihoz zarratu ondoren (gero beste laurogei inguru etorriko ziren), langile kaleratuek udala auzitara eraman zuten. Gertaera horiek ezagutarazteko, itxitako erakusleihoretako bat okupatu zuten egun oso batez, eta geroago, urte berean, 200 lagunek baino gehiagok hiriko kaleak hartu zituzten, sexu-langileek eztabaida politikotetan zeresan handiago eduki behar zutela aldarrikatzeko.⁷²⁶

Erresuma Batuan, *strip-tease* klubak ere antzera legeztatu dira, nolabait. Udalek arau zorrotzak dituzte lizentziak emateko, eta, gainera, izugarri garestiak dira. Hori 2010eko hamarkadatik dator, neurri handi batean, sexu-lanaren aurkako feministak lizentzien permisibitatearen aurka agertu zirelako; batez ere, zer

723 Schon, M. (2016) «Legalization has turned Germany into the “Bordello of Europe” and we should be ashamed», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

724 Pearson, M. (2015) «Inside one of Germany’s “flat rate” brothels: What it’s like working at the King George Club». News.com.au.

725 Herbehereetako justizia-ministroari bidalitako eskutitz batean, alkateak hau idatzi zuen: «Sexu-langile baten autoestimua berri izateko, ezinbestekoa da haren osasun fisiko eta mentalari buruzko informazioa izatea. Horrek balizko arriskuak garaiz detektatzen lagunduko luke. Informazio hori eskuratzeko, ezinbestekoa da sexu-langileen datu pertsonalak prozesatzea.» E.E. van der Laan, Amsterdameko alkatea, «Letter to the Minister of Security and Justice I.W. Opstelten», 2015eko otsailaren 23a, hemen artxibatua eta eskuragarri, [nederlanderaz eta ingelesez: researchprojectkorea.files.wordpress.com](http://nederlanderaz.eta.ingeleseze:researchprojectkorea.files.wordpress.com); F. Anna, «Mayor Amsterdam wants to violate privacy rights sexworkers», [Behind the Red Light District](http://BehindtheRedLightDistrict.blogspot.com), 31 March 2015eko martxoaren 31, behindtheredlightdistrict.blogspot.com.

726 van Rossum, F. (2015) «Sex workers in the Netherlands are making history», [Research Project Korea](http://ResearchProjectKorea.wordpress.com), researchprojectkorea.wordpress.com.

azpimarratzen zuten, klub horien existentziak *strip-tease*ko langileak ez ziren emakumeentzat zuen esanahi sinbolikoa. Orain, klubek hogeita hamar mila libera ordaindu behar dituzte urtean lizentzia eskuratzeko. «Etxean sartzeko kuoten» sistemak erabiltzen hasi ziren, eta sexu-langileei berehalako isunak jartzzen, lizentzia ordaintzean galtzen zuten dirua berreskuratzeko; horrek zera ekarri zuen, klubak langilez gainezka egotea eta dantzariak bezero gutxiago izatea eta diru gutxiagoren truke lan egin behar izatea.⁷²⁷ 2014an, feministek eta tokiko bizilagunek elkar hartu eta zenbait protesta egin zituzten; horren ondorioz, Udalak irekiera-orduak murriztu zizkion Londreseko *strip-tease* klub bati, eta, hori eginda, Udaleko ordezkariak hitz arranditsu hauek jaurti zituzten: «Orain, 676 ordu gutxiago daude urtean emakumeak kosifikatzeko».⁷²⁸

Behin eta berriro, sexu-langileek ikusten dute nola feminismo hegemonikoaren esku-hartzeek eta iruzkinak ez dituzten kontuan hartzen lantokiko botere-harremanak eta sexu-langileek bizimodua ateratzeko duten beharra. Analisi horietan, osasun-azterketa behartuek ez dute ezelango garrantzirik, eta ondo deritzote sexu-langileak haien benetako izena erakusten duen nortasun-agiri bat eramatera behartzeari, nahiz eta informazio hori edozein harrapariren eskuetara irits daitekeen. Schwarzerrek «abolizionistatzat» du bere burua, baina osasun-azterketa behartuak eta nahitaezko izen-ematea babesten ditu; Julie Bindel feminista ezagunak, berriz, ez du erregulazionismoa onartzen lege-eredu gisa, baina esaten du prostituten izenak erregistro batean jasotzeko promesa lege-eredu horrek dituen gauza on gutxietako bat dela.⁷²⁹

Prostituzioaren aurkako feminista askok ez diote kritikarik egiten estatuaren esku-hartzeari; ez dute uste emakumeentzat kaltegarria denik, edo, are, haiek babesteko modu bat dela iriz-

727 Smith, P. (2014) «East London Strippers Collective Is Standing Up for Strippers» Rights», *Vice*, vice.com.

728 McLennan, W. (2015eko otsailaren 4a) « "676 hours less of objectification of women": Councillor's delight as Spearmint Rhino's opening hours are cut», *Camden New Journal*.

729 Dolinsek, S. (2016) «Sex workers fight against compulsory registration and identification in Germany», *openDemocracy*, opendemocracy.net; Bindel, J. (2016) «Women's Experiences Of Different Legislative Models», *SPACE International*, spaceintl.org.

ten diote. Kat Banyard idazleak emakume batek berari esandako hitz batzuk jaso ditu, haiek onetsiz:

Legezkoa izango ez balitz, ez nukeen egingo [...] andre zahar bati lapurtuko ez niokeen bezala, edo denda batean ostu edo antzeko zerbait egingo ez nukeen bezala. Ez nuen erabaki hori hartuko hain erraza eta legezkoa izan ez balitz. Benetan desiratu nuen legezkoa ez izatea eta estatua –badakizu, Alemanian «aita» esaten diogu estatuari– [...] eta benetan desiratu nuen aitak ni hartatik babestea, lege on batekin.⁷³⁰

Alde batera utzita prostituta bat andre zahar bati lapurtzen dion pertsona bat bezala zigortu behar omen den kontu hori (inplikazio bitxia, benetan, ageriki feminista den testu baterako), emakume bat «Aita Estatuarengana» joatea laguntza eske, beharbada guk hartutako «erabaki txartzat» jo dezakegun horretatik babesteko, patriarkatuari egin ahal zaion eskaerarik argiena da. *Patriarkatu* hitzak «aiten gobernua» esan nahi du literalki; edo «Aita Estatua», nahi bada.

Politika horiek ikaragarri etsigarriak eta kaltegarriak dira sexu-langileentzat; halere, ez da zaila ulertzea nola gertatzen diren. Erregulazionismoak amesgaizto ulergarri bat irudikatzen du: distopia sexual hiperkapitalista baterantz goazela, non gizonak emakumeen prostituzioaren onurez jabetzea industria legezko eta geraezin bihurtzen baita, zeinean emakumeen gorputzak makineriaren engranajeak baitira.

Ados gaude: legeztatzea txarra da. Egia esan, elkarrizketa mamitsuagoa izan nahi genuke Bindel, Banyard eta Schwarzerrekin eta haien antzeko beste pertsona batzuekin, argitzeko *zergatik* eta *zertan* den zehazki txarra eta zer beste aukera dauden. Sexu-langileak arautzeak eta kontrolatzeak –legea bete ezean jaso dezaketen zigorrarekin mehatxatuz– zera dakar, behartsuenak eta zaurgarrienak itzaletan abandonatzea. Langile horientzat, legeztatzea kriminalizatzea da, legearen arabera lan egitea ez dagoelako haien eskueran. Hanburgoko Reeperbahn edo Amsterdameko De Wallen argi gorriko barrutietan ezkondu aurreko agur-festa egiten ari diren ar-talde mozkor eta oldarkorak tabernetatik behaztopaka ateratzen irudikatzen ditugunean,

730 Banyard, K. (2016) *Pimp State: Sex, Money and the Future of Equality*, Londres: Faber and Faber, 182.

tentagarria da pentsatzea murrizketa, isun eta zigor gehiagok bakarrik lagunduko dutela egoera horri irtenbide bat ematen. Baina zigorrek, hartzen duten moldea hartzen dutela ere, egiten duten bakarra da sexu-industria are arriskutsuago bihurtu sexu-langileentzat. Zigorrek eragiten dutena da sexu-langileei boterea kentzea eta poliziari, enplegatzailerei eta bezeroei ematea.

Jarraian, aztertuko dugu zer modutan lagun diezaiekeen sexu-langileei legeak *kentzeak* –eta ez lege gehiago ezartzeak–.

ZORTZI

EZ DAGO KONPONBIDE ERRAZIK: AOTEAROA (ZEELANDA BERRIA)

Erabateko deskriminalizazioa: Lege-eredua, sexu-langileak, bezeroa eta bitartekoak (hala nola managerrak, gidariak eta etxejabeak) deskriminalizatzen dituena eta sexu-industria lan-zuzenbidearen bidez arautzen duena.

Deskriminalizazioa onartu eta egun gutxi batzuetara, Auckland barrutiko epaiketa batean izan nintzen, *fa'afafine*⁷³¹ komunitateko kaleko sexu-langile batekin; bera izan zen kalean sexu-zerbitzuak eskaintzeagatik atzeman zuten azken pertsona, Prostituzioa Erreformatzeko Legearen (Prostitution Reform Act, PRA) hirugarren irakurraldiaren bezperan. Epai-leak kargu-orriari begiratu zion, eta esan zuen: «Andrea, jada ez zara gaizkilea. Gaur den egunean, zure delituak jada ez dira existitzen. Prostituzioa deskriminalizatu egin da. Joan zaitezke».

Annah Pickering, Zeelanda Berriko Prostituten Kolektiboa (NZPC)⁷³²

Honezkero argi asko izan behar genuke: munduko prostituzioari buruzko lege gehienek ez dute behar bezala betetzen beren xedea. Sexu-langileak kriminalizatzeak ez du ezertarako balio. Muinean, diru-truke sexua ematea –migratzea, droga-kontsumitzea eta abortatzea bezala– gizakiok behar espezifikoien

731 *Fa'afafine* jendea Samoako eta haren inguruko irla polinesiarretako komunitate bat da, hirugarren genero bat ere bereizten duena. Yuki Kihara artista japoniar-samoarrak azaltzen duenez, «mugako genero bat da, genero maskulinoa eta femeninoa barne hartzen dituena». Ez da erraza kontzeptu hori Mendebaldeko genero-sistema bitarrean kokatzea. Hitzak berak ere «emakumeen eran» esan nahi du. Ikus Stevens, P. (2011) «Bite 59: Shigeyuki Kihara – Fa'afafine: In the Manner of A Woman, 2004–5», realitybitesartblog.blogspot.com.

732 New Zealand Prostitutes' Collective (2012) «Celebrating 25 Amazing Years», hemen eskuratu daiteke: nzpc.org.nz.

aurrean ematen dugun erantzun legitimo eta pragmatiko bat da. Hori debekatzek ihesbideak eta arriskuak hartzera bultzatzen ditu sexu-langileak, eta horrek bazterretara eramaten ditu, eta kalte gehiago jasatera.

Feminista ugarik diote eredu nordikoa dela «arazo nagusiaren erantzuna», askotan eredu horrek dituen akatsen inolako balorazio kritikorik egin gabe («Suediak prostituzioari emandako irtenbidea: nola uler daiteke inor lehenago saiatu ez izana?»);⁷³³ nolana ere, eta ikuspegiak ikuspegi, ez dago sexu-langileek aurre egin beharreko arazo ugariatzat irtenbide erraz bat ekarriko duen lege-erreformarik.

Badirudi sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduak ere askotan irtenbide magikoei heldu nahi izaten diela. Mugimendua gogor saiatzen da ahalik eta hitzik ulergarrienak erabiltzen adierazteko zer den sexu-langileek nahi –eta urgentziaz behar– dutena: deskriminalizazioa. Horretarako, sexu-langileek Zeelanda Berriko adibidea baliatzen dute,⁷³⁴ non 2003ko Prostituzioa Erreformatzeko Legeak (*Prostitution Reform Act*, PRA) sexu-lana deskriminalizatu baitzuen, eredu nordikoaren aurkako talisman gisa: *Lege hura ez; beste lege hau*. Aski logikoa dirudi; arazoa kriminalizazioa bada, badirudi erantzuna argia dela: deskriminalizazioa.

Liburu honen irakurleei ere barkatuko diegu baldin eta espero badute atal honetan irtenbide eztabaidaekin bat eskaintzea, panazea bat, prostituzioaren arrisku guztiak kolpez desagerraraziko dituen. Hori lortu ahal izateko, baina, arazoa bat bakarra izan behar litzateke, ez elkarri eragiten dioten zapalkuntzez osatutako matrize bat.

Deskriminalizazioari dagokionez, gaur egun munduan den adibide praktiko bakarra Zeelanda Berrikoa da. Erabateko deskriminalizazioaren lorpen *osagabe* hori da –gero itzuliko gara ohar horretara– sexu-lanari buruzko lege idealera gehien hurbildu dena. Zeelanda Berrian alde batera utzi dituzte kaleko sexu-langileen aurkako zigorrak, baita burdelak eramateagatik jartzen zituztenak ere, eta orain sexu-langileen kolektiboek

733 De Santis, M. (2014) «Sweden's Prostitution Solution: Why Hasn't Anyone Tried This Before?», Women's Justice Center, esnoticia.co.

734 Europako esploratzaileek eta kolonizatzaileek (Pakeha) jarri zioten New Zealand [Zeelanda Berria] izena. Maori herri indigenak Aotearoa izena erabiltzen du.

elkarrekin lan egin dezakete, edo kudeatutako burdeletan. Enplegatzailerik lan-zuzenbidea aintzat hartuta jardun behar dute sexu-langileen aurrean. Esparru berri horrek hainbat organizazio eta erakunderen laudorioak jaso ditu, hala nola emakumeen eskubideen aldeko erakundeak, giza eskubideen aldeko erakundeak eta nazioarteko zenbait erakunde, adibidez, Amnesty International, Giza Eskubideen Behatokia, GIB/HIESaren gaineko Nazio Batuen Programa Bateratua (ONUSIDA) eta Osasunaren Mundu Erakundea.⁷³⁵

Azken finean, baina, eta aurretik esan dugun bezala, Zeelanda Berria ez da iritsi auziak eskatzen duen behar bezain urrun. Ezelango zalantzarik gabe, aurrerapen nabarmen eta garrantzitsua da sexu-langileen eskubideentzat, baina, halere, sexu-langilerik marjinatuenak atzean utzi dira, eta langile horiek ezin dituzte bere egin lege berria onartu ondoren beste sexu-langile batzuei aitortutako askatasun guztiak.⁷³⁶ Orain prostituzioak estima txikiagoa eragiten duen arren, kontuan izan behar da azken lege-aldaketa hau hogeitaz baina gutxiagoz egon dela indarrean, eta oraindik ere lan asko egin beharko da aurreko milaka urteetan eragindako kaltea konpontzeko. Poliziarri botere batzuk kendu zaizkion arren, oraindik ere sexu-langileek arrazoi gutxi daukate poliziaz fidatzeko; izan ere, egiturari begiratuta, polizien zereginen artan dago oraindik ere zaurgarriak eta po-break diren pertsonak eta beste zenbait pertsona «gogaikarri» jazartzea, zelatatzea eta kartzelatzea. Eskuineko gobernuak austeritate-neurriak ezarri dituzte, eta maoriek, pertsona transek, gazteek eta etxegabeek kontrol handiegia eta babes txikiegia jasotzen dute oraindik poliziaren eskutik.⁷³⁷ Atzeritarrei buruzko legea dela eta, agiririk gabeko migratzaileek legez kanpo lan egiten jarraitu behar dute, eta emaitza baliagarriak ematen ez duen

735 Amnesty International (2015) «Global movement votes to adopt policy to protect human rights of sex workers», amnesty.org; Human Rights Watch (2014) «World Report 2014», 47; UNAIDS (2002) «Sex Work and HIV/AIDS: UNAIDS Technical Update»; World Health Organisation Department of HIV/AIDS (2012) «Prevention and Treatment of HIV and other sexually transmitted infections for sex workers in low-and middle-income countries: Recommendations for a public health approach».

736 New Zealand Prostitutes» Collective, *hemen aipatua*: Global Network of Sex Work Projects (NSWP) (2014) «Sex Work And The Law: Understanding Legal Frameworks and the Struggle for Sex Work Law Reforms», nswp.org.

737 McClure, T. (2017) «A Racist System: Maori and Pacific Kiwis Talk About the Police», *Vice*, vice.com.

drogen aurkako gerrak ere bere horretan dirau. Horrek guztiak testuinguru bat marrazten du, zeinetan, zoritxarrez, sexu-langileak hiltzen jarraitzen baitute.⁷³⁸

Global Alliance Against Traffic in Women [Emakumeen Trafikoaren Aurkako Aliantza Globala] izeneko sarearen ustez, Zeelanda Berriko eredia «kontraesankorra» da:

Alde batetik, sexu-lanaren deskriminalizazioa sexu-langileen esplotazioaren aurkako faktore babesle bat da, [orain sexu-langileek] esplotazioari aurre egiteko eskubidea dutelako. Halere, lege batek debekatu egiten du migratzaileak sexu-lanean jardutea, eta, beraz, sexu-langile guztiak ez dituzte jasotzen deskriminalizazioak dakartzan abantaila guztiak. [...] Ezinbestekoa da [abantaila horiek] areagotzea [...] aldi baterako baimena duten sexu-langile migratzaileei ere eskubidea aitortuz.⁷³⁹

Nolanahi ere den, sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduak deskriminalizazioaren alde egiten du argi eta garbi, eta Zeelanda Berriko eredia hartzen du *abiapuntu gisa*.⁷⁴⁰ Zeelanda Berrian gauza asko hobetu behar lirateke, baina, hala ere, ukalezina da *kriminalizazioa* –lanarena, lantokiarena, bezeroenakaltegarria dela sexu-langileentzat eta bertan behera utzi behar dela. Zeelanda Berriko ereduaren arazoa da kriminalizazioaren elementu batzuek berdin jarraitzen dutela –hala nola drogaren, migrazioaren eta migratzaileek egiten duten sexu-lanaren kriminalizazioa– eta, beraz, zigor-sistemak ezarriak dituzten estatu guztietan azaltzen diren kalteetako batzuk mantentzen direla. Horrek prostituzioaren aurkako mugimenduaren kritikak eragin ditu, baina argi dago *kriminalizaziotik* geratzen diren hondar horiek eragiten dituzten arazoak konpontzeko bidea ez dela *deskriminalizazioa* alde batera uztea.

Atal honek eskaintzen duen espazio luze eta zabala erabiltzeko pribilegioa baliatuz –izan ere, oso gutxitan eskain-

738 Livingston, T. eta Dennett, K. (2017) «Auckland's infamous K Road: NZ's first serial killer's hunting ground», *Stuff*, stuff.co.nz; Sherwood, S. eta Ensor, B. (2016) «Christchurch sex workers staying off the streets after death of Renee Duckmanton», *Stuff*, stuff.co.nz.

739 GAATW (2018) «Sex Workers Organising for Change: Self-representation, community mobilisation, and working conditions», gaatw.org, 105.

740 Zeelanda Berrian, sexu-lana lege-aldaketa bakarrekin deskriminalizatu zuten; horregatik, *Zeelanda Berriko eredu* eta *deskriminalizazio* terminoak sinonimotzat erabiltzen dira maiz. Guk bi ideia horiek bereizi nahi ditugu: Zeelanda Berriko eredia adibide bat da; deskriminalizazioa, ostera, kontzeptu zabalagoa da, eta modu desberdinetan ezar daiteke toki desberdinetan.

tzen zaie horrelakorik legearen erreformari buruz berba egiten saiatzen diren sexu-langile feministei-, begiratu nahi dugu zer neurri *eraginkor* ezar daitezkeen aurrez aipatutako testuinguru deskriminalizatu horietan sortzen diren kalteak txikitzeko. Hala bada, aztertuko dugu ea zerbaitetarako balio dezakeen herrialde horiek beste batzuen erreferentzia izatea, baldin eta azken horiek oso desberdinak baldin badira, itxura batean, sexu komertzialari, kulturari, ekonomiari eta populazioari dagokienez. Eta etorkizunari buruz ere hitz egin nahi dugu; etorkizun bat zeinetan mundu osoko sexu-langileak baliatu ahal izango baitira sexu-lanaren erabateko deskriminalizazioak dakartzan abantailez.

«Lana da, eta ondo doakigu»⁷⁴¹

Zer da deskriminalizazioa? Prostituzioa deskriminalizatzea da zigor-lege batzuk (adibidez, kalean sexu-zerbitzuak eskaintzea) eta arau administratibo edo zibil batzuk (adibidez, ASBO arauak) indargabetzeko prozesua, zeinen helburua baita kaleko sexu-langileak, lan kolektiboa, soldatapeko lana, iragarkiak eta abar zigortzea. Langileak zigortzeko eta lantokiak desagerrarazteko diseinatutako legeak dira. Sistema deskriminalizatu batean, sexu komertziala saltzea, erostea eta bideratzea ez da kokatzen zigorzuzenbidearen esparruan, baizik eta merkataritza- eta lan-arloko zuzenbidearen esparruan. Bestalde, sexu-zerbitzuak erosteak eta bideratzeak gainerako testuinguruetan aplikatzen diren zentzuzko legeen menpe jarraitzen dute, hertsapen, esplotazio, abusu, jazarpen eta bortxaketari dagokienez.

Zeelanda berrian, kalean jarduten duten sexu-langileek taldeka edo lagunekin lan egin dezakete, toki argitsueta eta berek aukeratutako erdialdeko kaleetan, eta ez dira ez berak ez beren bezeroak atxilotuko dituzten beldur. Lynzi Armstrong osasun publikoaren alorreko ikertzailea da, eta, ohartu denez, «orain sexu-langileek ikusten dute errazago lan egiten dutela [...] ondo argizatutako leku segurueta». Claire sexu-langilea da, eta, berak dioenez, deskriminalizazioaren aurretik «tokirik ilunenetan egoten ginen [...] dena oso iluna zen», eta egoera

741 Hati, C., Healy, C. eta Wi-Hongi, A. (2017) «It's work, it's working: The integration of sex workers and sex work in Aotearoa/New Zealand», wsanz.org.nz.

hura gaur egunekoarekin alderatzen du: «Aldatu egin zen [...] lehen, gutako asko ezkutuan ibiltzen ginen».⁷⁴² Armstrongek idatzia duenez, kaleko sexu-langileentzat, «testuinguru deskriminalizatu batean, [bezeroak] aztertzekeo prozesua [...] ez da hain korapilatsua».⁷⁴³

Zeelanda Berriko Justizia Ministerioak galdeketa bat egin zuen kaleko sexu-langileen artean, PRA legearen jarraipena egiteko. Erantzun zutenen artetik, % 90ek esan zuten iruditzen zitzaizela legeak lan-eskubideak aitortzen zizkietela.⁷⁴⁴ Beste % 90i iruditzen zitzaizela lan-osasunaren eta laneko segurtasunaren alorreko eskubideak zituztela. Harrigarria bada ere, % 96k esan zuen iruditzen zitzaizela legeko eskubideak zituztela. (Ehuneko harrigarriak dira, benetan, beste lan prekario batzuetan diharduten langileenak baino hobeak izan daitezkeelako. Telefono-deien zentroetako lana, adibidez, «langileak eskubidez gabetzekeo eran diseinatuta dago».)⁷⁴⁵

Catherine Healy Zeelanda Berriko Prostituten Kolektiboko koordinatzaile nazionala eta kide sortzailea da. Langileek sentitzen duten ahalmen horren aurrean, hauxe dio:

Deskriminalizazioarekin, jendeak are gehiago espero du gauzak ondo ateratzea eta ondo lan egin ahal izatea [...] gauzak konpondu egingo direla espero dute [...] «Norekin hitz dezaket?» da orain lehenengo erantzuna, eta ez [deskriminalizazioaren aurretik] entzun ohi genuena, adibidez, «tira, ezin dugu ezer egin hori konpontzeko».⁷⁴⁶

Barruko sexu-langileek lagunekin lan egin dezakete pisu partekatu batean kooperatiba informal baten gisan, hesi burokratikoak gainditu behar izanik gabe eta sarekaden eta atxiloketen beldurrik gabe. Barruko eta kanpoko langileek argi eta zuzen hitz

742 Armstrong, L. (2011) «Managing risks of violence in decriminalised street-based sex work: A feminist (sex workers' rights) perspective», Victoria University of Wellington (doktoretza-tesia), hemen eskuratu daiteke: core.ac.uk/download/pdf/41338266.pdf.

743 Armstrong, L. (2014) «Screening clients in a decriminalised street-based sex industry: Insights into the experiences of New Zealand sex workers», *Australian & New Zealand Journal of Criminology*, 47:2, 207–22.

744 Abel, G., Fitzgerald, L. eta Brunton, C. (2007) «The impact of the Prostitution Reform Act on the health and safety practices of sex workers: Report to the Prostitution Law Review Committee», txostena, University of Otago, otago.ac.nz, 139.

745 Woodcock, J. (2017) «As a call centre worker I saw how employees are stripped of their rights», *Guardian*, theguardian.com.

746 GAATW, «Sex Workers Organising for Change», 104.

egin dezakete bezeroekin zerbitzuei, kondoiaren erabilerari eta diruari buruz, arrapaladan ibiltzeko edo eufemismoetara jotzeko beharrik gabe.⁷⁴⁷ Langile batek zioen bezala, «hasieratik esaten diet zer egin dezaketen eta zer ez, benetan». Managerrek sexu-langileak babesteko asmoz sortutako lan-zuzenbidearen aurrean erantzun behar dute, eta sexu-langileren batek manager bat salatzen badu, horrek ez dakar lantokia ixtea edo langileak lana galtzea. Sexu-langile bat erasotzea edo jazartzea –enplegatzaile zein bezero gisa– krimena da oraindik (beste edozein langile erasotzea edo jazartzea krimena den bezala); sexu-lanean egiten den *lana*, ordea, gainerako lantokietan aplikatzen diren lege eta babes-mekanismo berberak arautzen dute.

Batzuetan, jendeak ez daki ondo zer itxura har dezakeen laneko babesak sexu-lanaren testuinguruan. Burdeletan laneko babesa aplikatzea arrotza eta bitxia iruditzen zaie, batzuetan baita barregarria ere. (Iruzingile kontserbadore batek zalan-tzan jarri zuen *sexu-langile* terminoaren erabilera, hain zuzen ere argudiatuz horrek «iradokitzen duela sindikatu bat dagoela, pentsio-funts bat» –langilearen definizio absurdoa, nolahi ere, kontuan hartuta lantoki askotan ez dutela sindikatuen ordezkariarik eta gero eta lantoki gutxiagotan dauzkatela pentsioen itsulapikoak).⁷⁴⁸ Esan beharrik ez dago, sexu-langileentzat ez da kontu barregarri bat laneko babesa eta segurtasuna edukitzeko eskubidea izatea. Testuinguru deskriminalizatu batean, sexu-langileek hainbat lan-eskubide izatea espero dute: sexu-jazarpenarekiko babesa izatea, txanden artean atsedenerako tarte egokiak izatea, managerrak sexu-material seguruagoa ematea (eta langileen alde egitea bezeroekin sexu-harreman seguruagoak eduki nahi dituztela esaten dutenean), lantokiko diskriminazioa ezereztan duten xedapenak izatea eta bezeroei ezetz esateko eta hori egitean managerren babesa edukitzeko

747 Adibidez, legeak erabateko kriminalizazioa ezartzen duen tokietan, hala nola AEBn, baliteke sexu-langile batek honela azaltzea bere zerbitzuak iragarki batean: «gorputz osoko masaje intimoa». Testuinguru batzuetan, eufemismo horrek bagina-sarketa ere barne hartzen duen sexu-harremana adieraz dezake, edo musu frantsesa, edo kondoirik gabeko aho-sexua. Anbiguotasun hori aprobetxatuz, bezero oldarkorrek sexu-langileak behartzen dituzte benetan egin nahi ez dituzten gauzak egitera (adibidez, babesik gabeko sexu-harremanak izatera), argudiatuz eskaintzan hori ere iradokitzen zela.

748 Stanley, T. (@timothy_stanley), Twitter, 3:19 a.m., 2016ko apirilak 13. «@mhc ahill hmm. I don't like it. Suggests there's a union, pension fund etc.».

eskubidea. Ikerketen arabera, sektore guztietako sexu-langileek sentitzen dute PRA legea onartu zenez geroztik ahalmen handiagoa dutela bezeroei ezetz esateko; besteren konturako langileen kasuan, orain askoz probableagoa da bezeroei ezetz esatea.⁷⁴⁹ Barregarria da hori? Vicky sexu-langileak besteren kontura lan egiten du Wellington-en, eta honela dio: «Legea aldatu aurretik ere honetan lan egiten zuten emakumeei entzuten diedanaren arabera [...], orain askoz hobeto gaude, eta dena askoz irekiagoa da, eta neskek ez dira gauero borrokatu behar bezeroekin eta enplegatzaileekin».⁷⁵⁰

Merezi du gogoratzea lantoki guztietan klaseen arteko berezko tentsio bat dagoela: alde batetik, zuzendaritza eta jabeak daude, bestetik, langileak; eta tentsioa sortzen da bi alde horien artean. Zuzendaritzaren eta jabeen egiturazko rola da ahalik eta etekin handiena ateratzea langileen lanari. Zeelanda Berrian, teoriarik, deskriminalizazioak beste lantoki batzuen maila legal berean jarri zituen sexu-langileen lantokiak, eskubideei eta segurtasunari dagokienez. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi deskriminalizazioak esplotazioa desagerrarazi duenik, ezta beste edozein lantokitan (adibidez, jatetxeetan edo eraikuntza-enpresetan) esplotazioa existitzen ez denik, legezkoak izate hutsagatik. Deskriminalizazioak ezin du desagerrarazi zuzendaritzaren eta langileen arteko klase-gatazka; aitzitik, deskriminalizazioaren helburua da kriminalizazioak sustatzen eta areagotzen duen lantokiko esplotazio bortitza murriztea.

Kalean lagunekin lan egiteko aukera izateak, atxiloketen beldur izan gabe, *botere handiagoa ematen dio langileari managerrarekiko harremanean*. Azken batean, behar izanez gero, langileak alde egin dezake, eta lagunekin lan egin. Botere hori datuetan ere islatzen da: Zeelanda Berrian deskriminalizazioa ezarri zutenetik, jende gutxiago ari da managerrentzat lan egiten, eta jende gehiagok lan egiten du pisu partekatuetan, lagunekin.⁷⁵¹ (Mana-

749 Abel, G. (2010) «Decriminalisation: A Harm Minimisation and Human Rights Approach to Regulating Sex Work», University of Otago, Christchurch (doktoretza-tesia), hemen eskuratu daiteke: prostitutionresearch.info/pdfs_all/GillianAbelPhDNewZealand.pdf, 233.

750 Abel et. al., «The impact of the Prostitution Reform Act on the health and safety practices of sex workers: Report to the Prostitution Law Review Committee», 118–19.

751 Abel, G., Fitzgerald, L. eta Brunton, C. (2009) «The impact of decriminalisation on the

gerrak kexatu ere kexatu dira!)⁷⁵² Elkarrekin lan egitea krimena denean, harrapariek langileen aurkako atxiloketa-mehatxuak erabil ditzakete, liburu honetan ikusi dugun bezala. Aitzitik, Zeelanda Berriko kooperatiba txikietan diharduten langileak ez daude babesik gabe legea beren kontra erabili nahi duten gizonen aurrean. Langile batek Prostituzioa Erreformatzeko Legearen Batzordeari esan bezala, «Eskubideak ditudala dakidanetik, seguruago sentitzen naiz [...] ez daukat poliziak harrapatzeko beldurrik. Nire gazte-denboretan zaila zen. Kriminal bat banintz bezala sentitzen nintzen, eta ez nintzen hain asertiboa».⁷⁵³ Petal-ek ere bere kontura lan egiten du, eta honela dio:

Nire ustez, legeak ekarri duen aldaketarik handiena zera da [...] neskei eskaintzen zaien babes emozionala, esan ahal izateko «hori da, ez duzu ezer txarrik egin [...] lanean ari zara, ez besterik». Uste dut hori dela garrantzitsua [...] legez kanpokoa ez dela esatea [...] hori da lege honetatik gehien gustatzen zaidana. Babestu egiten gaitu.⁷⁵⁴

Zeelanda Berriak aldaketa batzuk egin zituen legetan, zeinak –Alemaniako eta Herbehereetako legeak ez bezala– sexu-langileen onura kontuan hartuta diseinatu baitira, ez espekulazioari, kontrolari edo zigorrari begira. Adibidez, PRAREN xedapen batek dio sexu-langile batek sexu-industria utzi nahi izanez gero gizarte-segurantzara jo dezakeela zuzenean, beste lan bat «borondatez» utziz gero jasoko lukeen aldi baterako zigorraldia bete gabe.⁷⁵⁵

Nola iritsi dira egoera horretara? 1988an, Zeelanda Berriko gobernua sexu-langileek bultzatutako talde berri bat diruz laguntzen hasi zen: New Zealand Prostitutes Collective (NZPC) [Zeelanda Berriko Prostituten Kolektiboa]. NZPC osasuna sus-

number of sex workers in New Zealand», *Journal of Social Policy* 8:3, 515–31; Miller, C. (2017) «Northland brothel bringing sex out of the shadows», *New Zealand Herald*, nzherald.co.nz.

752 Zeelanda Berriko Justizia Ministerioa (2008) «Report Of The Prostitution Law Review Committee On The Operation Of The Prostitution Reform Act 2003», txostena hemen eskuratu daiteke: prostitutescollective.net, 38.

753 Mossman, E. eta Mayhew, P. (2007) «Key Informant Interviews Review of the Prostitution Reform Act 2003», Zeelanda Berriko Justizia Ministerioa, cheztella.org/docs/NZ-KeyInformantInterviews.pdf.

754 Abel, G., et al., «The impact of the Prostitution Reform Act on the health and safety practices of sex workers».

755 2003ko Prostituziari buruzko Lege Erreforma, s. 18, New Zealand Legislation, hemen eskuratu daiteke: legislation.govt.nz.

tatzeko talde gisa sortu zen, eta helburu hau zuen oinarrian: sexu-langileek «ahalik eta gehien kontrolatu behar lituzkete beren osasun-programak, programa horiek jarraitu beharreko norabidea erabaki ahal izateko». NZPC kolektiboa berehala ohartu zen kriminalizazioa arazo larri bat zela sexu-langileen bizitzetan, eta presioa egin zuen gobernuan, deskriminalizazioa ikertzeko batzorde bat eratu zezan.⁷⁵⁶

1990eko hamarkadan, NZPC kolektiboak lege-proposamena parlamentura eramateko lan egin zuen; 2000. urtean, Tim Barnett parlamentariak sexu-lana deskriminalizatzeko proposamena aurkeztu zuen. 2003an onartu zen, Georgina Beyer parlamentariaren laguntza nabarmenarekin; Beyer emakume trans maoria da, kaleko sexu-langile ohia. Beyer honela mintzatu zitzaion parlamentuari: «Ondo legoke jakitea [...] agintariengana hurbildu eta zera esan niezaiekeela: “Bortxatu egin naute, eta bai, prostituta bat naiz, eta ez, ez zuten ni bortxatzeko eskubiderik”».⁷⁵⁷

Legea sexu-langileek idatzi zuten. Hori funtsezkoa izan zen, ezein arau zehatz baino gehiago. Sexu-langileek buru-belarri lan egin zuten legea idazteko, eta sexua saltzen duten pertsonen segurtasunean jarri zuten arreta; bi ezaugarri horiek dira deskriminalizazioa beste edozein lege-eredutatik bereizten dutenak. Izan ere, PRAre testuaren arabera, lehenetsun nagusia da «sexu-langileen giza eskubideak babestea».⁷⁵⁸ Oso ezohikoa da sexu-industriari buruzko lege batek esplizituki onartzea sexua saltzen duten pertsonen eskubideak dituztela, inork haiek «saltzetik» erreskatatuak izateko eskubideaz harago.

Poliziaren boterea eraistea

Deskriminalizazioak, lehenik eta behin, *polizia alde batera uzten du* sexu-lana arautzeko zereginen *de facto* betetzen duen funtziotik. Hori da haien rola sexu-industriaren alderdi batzuk edo guztiak kriminalizatuta dauden sistemetan, edo, beste era batera esanda, liburu honetan azaldutako legezko sistema guz-

756 New Zealand Prostitutes Collective (2018) «History», nzpc.org.nz/history.

757 Jordan, J. (2011) «Sex work –Legislation and decriminalisation», Te Ara –the Encyclopedia of New Zealand, teara.govt.nz.

758 2003ko Prostituziari buruzko Lege Erreforma, s. 3, Zeelanda Berriko Legeria, hemen eskuratu daiteke: legislation.govt.nz.

tietan. Deskriminalizazioak murriztu egiten du poliziakide batek atxiloketa bidegabe baina legezko bat egiteko duen boterea, eta murriztu egiten du, orobat, haiek baino askoz botere gutxiago duten pertsonak ikaratzeko, esplotatzeko, jazartzeko eta erasotzeko edo haiei xantaia egiteko duten aukera.

Zeelanda Berrian, beste toki guztietan bezala, poliziak sexu-langileen aurrean zuen boterea erabiltzen zuen haiek umiliatzeko. Shania-k kaleko sexu-lanean dihardu Zeelanda Berrian, eta honela dio: «Batzuk kaiku hutsak ziren, eta barruan sartzen zintuzten, eta uste dut okerrena zela barruan sartzen zintuztela eta hurrengo goizean laneko arrokekin aurkeztu behar zenuela epaimahaiaren aurrera [...] Eta hori [...] umiliagarria zen».⁷⁵⁹

Zer egin dezake deskriminalizazioak kalte horiei aurre egiteko? Bianca kaleko sexu-langilea da, eta adierazpen hauek egin zizkien ikertzaileei: «Nik ez nion poliziarri deitzen, nire lagunari deitzen nion [...] Baina orain hori aldatu egin da [...] Poliziak gure segurtasuna zaintzen du, eta uste dut hori ondo dagoela».⁷⁶⁰ Shannon ere kaleko sexu-langilea da, eta deskriminalizazioaren aurretik poliziarekin izandako esperientzia txar bat kontatzen du, bortxatu zutela salatzeraz joan zenekoa: «Tira, kaka zahar hutsa izan zen», baina honela jarraitzen du: «Legea aldatu denez geroztik, desberdina da [...] Orduan deskriminalizatuta balego, desberdina izango zen».⁷⁶¹ Dora emakume transa da, bera ere Zeelanda Berriko kaleko sexu-langilea, eta honela dio:

Orain lan egin dezakezu. Horrek seguruago sentiarazi ninduen, eta poliziarri dagokionez ere hobeto sentitzen naiz. Lehen haien ezkutuan ibiltzen nintzen [...] [batez ere] zerbitzuak eskaintzeagatik atxilotu ondoren [...] Baina, tira, orain askoz hobeto sentitzen naiz kalean, legitimitate handiagoarekin, esanez bezala «ei, badut hemen egotea».⁷⁶²

Datuek ere hori erakusten dute: kalean diharduten sexu-langileen % 65ek ikertzaileei esan zieten beren ustez poliziak hobera egin zuela legearekin, eta % 70 ingururi iruditzen zitzaaien

759 Armstrong, L. (2017) «From Law Enforcement to Protection? Interactions Between Sex Workers and Police in a Decriminalized Street-based Sex Industry», *The British Journal of Criminology* 57:3, 570–88.

760 *Ibid.*

761 *Ibid.*

762 Abel, G., Fitzgerald, L. eta Brunton, C., Abel, G., et al., «The impact of the Prostitution Reform Act on the health and safety practices of sex workers», 140.

orain polizia «guztiek edo gehienek gure segurtasunaren alde» lan egiten zutela.⁷⁶³ Sexu-langileen eta poliziaen arteko ezohiko harreman on hori titularretara iritsi zen 2014an: poliziakide batek emakume bati lagundu zion bezero batek zor zion dirua lortzen, bezeroa kutzazainerano eskoltatuz. Poliziaren bozera-maile batek adierazpen hauek egin zituen kazetariaren aurrean: «Ezohikoa dirudien arren, sarri egiten dugu. Poliziak herritarrei laguntzen die haien arteko eztabaidak konpontzen, bai sexu-langile bati bai pizza-denda bateko langileari».⁷⁶⁴

Garrantzitsua da honi guztiari begi onegiez ez begiratzeari. Zeelanda Berriko ereduak ez ditu konpondu arazo guztiak. GAATW sareak dioenez, Zeelanda Berriko ereduak ez du behar adina landu sexu-lanaren deskriminalizazioa, eta ez ditu babes-ten migratzaileak:

Zeelanda Berriko migratzaileek diotenez, beren kriminalizazioa dela-eta, zaila da krimenak poliziaren aurrean salatzea, eta lan-baldintza prekarioak eta esplotatzaileak dituzte.⁷⁶⁵ Amy sexu-langileak dio presio horrekin topo egin zuela: «Langile batek esango dizu [...] pentsatuko dute ez daukazula hemen egoteko baliozko bisarik eta esango dizute [...] zerbitzu on bat emateko, bestela, poliziari esango diotela».⁷⁶⁶ Bai bezeroak nola enplegatzaileak, migratzaileen estatus prekarioaz aprobeztatzen dira.

Healy NZPC kolektiboko kidea da, eta honela dio: «Nire ustez, garrantzitsua da gogoratzea ezen [...] legeak pertsonen trafikorako beharrezkoak diren baldintzak errazten dituela, ilegal bihurtzen baititu lanean ari diren sexu-langileak migratzaileak [...] Kezka hori guztiz erreala da».⁷⁶⁷

Zeelanda Berriko sexu-langileei buruzko ikerketa berri baten arabera, bezeroek galdeketari erantzun zioten langileen % 3 bortxatu zituzten azken urtean, eta gehientsuenek ez zuten salaketarik jarri poliziaren aurrean. Kaleko sexu-langileek barrukoek baino askoz ere aukera handiagoa zuten biktimak izateko; salaketa jartzeko probabilitatea, berriz, txikiagoa zen neurri handi

763 *Ibid.*, p. 163.

764 Wynn, K. (2014ko uztailaren 23a) «Police help short-changed sex worker», *New Zealand Herald*, nzherald.co.nz.

765 *Ibid.*

766 *Ibid.*

767 *Ibid.*, 89.

batean.⁷⁶⁸ Ez da harritzekoa: kaleko sexu-langileek beste batzuek baino probabilitate handiagoa dute osasun mentalak izateko eta drogak kontsumitzeko.⁷⁶⁹ Beste era batera esanda, baliabide gutxiago izateko aukera handiagoa dute, eta gehiagotan bizi dira komunitate estigmatizatu eta oraindik kriminalizatuetan. Beste herrialde askotan gertatzen den bezala, Zeelanda Berriko zigor-arloko justizia-sistemaren akatsen ondorioz, litekeena da drogak kontsumitzen dituzten edo gaixotasun mentalak dituzten auzi-jartzaileei ez sinestea, eta litekeena da pertsona horiek sistematik kanporatzea (edo urruntzea).⁷⁷⁰ Hori ez zaie gertatzen sexu-langileei bakarrik: sexu-indarkeriaren biziraule gehien-gehienek, bai Zeelanda Berrikoek bai munduko toki guztietakoek, ez dituzte beren bizipenak poliziaren aurrean salatzen. Bizirauleek ondotxo dakite zigor-zuzenbidearen justizia-sistema askotan trauma gehiagoren eragilea dela, ez sendatzeko bidea, ezta justizia eskuartzeko tokia ere.

Sexu-langileek arrazoi ugari dituzte poliziarengan konfiantzarik ez izateko. Deskriminalizazioak arrazoi horietako bati aurre egiten dio. Sally izeneko kaleko sexu-langilea honela mintzatu zitzaizen ikertzaileei: «Egia esan, ez naiz ondo konpontzen [poliziarekin] [...] Baina ez dut inoiz arazorik izan kalean [lanean] ari naizen bitartean. Ondo portatzen dira. Besterik gabe, galdezten dizute “ondo zaude?” , eta zera, ez didate inoiz galdetu nola deitzen naizen».⁷⁷¹ Hollie lankideak honela dio: «Oraindik ere, ez naiz haiekin fidatzen. Jakina, polizia *polizia* da. Baina tira, nirekin berba egiten saiatzen dira ondo nagoela jakiteko, eta nik esaten diet: “Bai, tira, laga bakean, ondo nago”».⁷⁷² Deskriminalizazioaren ondorioz, Hollie eta Sally bezalako sexu-langileek polizia urruti mantentzeko aukera dute. Pania-k ere hauxe dio: «Talde-

768 Abel et al., «The impact of the Prostitution Reform Act on the health and safety practices of sex workers», 120.

769 Roguski, M. (2013ko martxoaren 28a) «Occupational Health and Safety of Migrant Sex Workers in New Zealand», txostena, New Zealand Prostitutes' Collective, nswp.org.

770 Triggs, S. et al. (2009ko iraila) «Responding to sexual violence: Attrition in the New Zealand criminal justice system», txostena, Zeelanda Berriko Emakumeen Gaietarako Ministerioa, women.govt.nz.

771 Abel et al., «The impact of the Prostitution Reform Act on the health and safety practices of sex workers», 165.

772 Armstrong, L. (2017) «From Law Enforcement to Protection? Interactions Between Sex Workers and Police in a Decriminalized Street-based Sex Industry», *The British Journal of Criminology* 57:3, 570–88.

ka etortzen dira, baina badakite zertan ari naizen. Ni ikusi eta marmarrean hasten dira. Eta esaten diet: “Tira, ospa hemendik, bezeroak uxatuko dizkidazue!”. Eta onera hartzen dute». ⁷⁷³

Kriminalizazioak polizia urrun mantentzeko ahalmena ukatzen die neurri handi batean sexu-langileei eta poliziaren gehiegizko kontrola jasaten duten mundu osoko beste kolektibo batzuei. Nolanahi ere, badirudi Zeelanda Berriko sexu-langileek badutela ahalmen hori, eta erabili egiten dutela, polizia haien kontuetan sar ez dadin, denboraren zati batean, bederen. Lege-aldaketa batek nekez aldatuko du oinarrian poliziakideen jarrera –eta pobreenen eta zaurgarrien aurkako indarkeria inbaditzailearen ikur izaten jarraituko dute–, baina prostituzioarekin lotutako delituak deskriminalizatzeak erreminta bat kentzen die arma-biltegi oparotik. Deskriminalizazioa indarrean dagoen jurisdikzioetan, poliziakideak ohartu dira larderiako eta esplotaziorako bide bat itxi zaiela, eta estrategia hori jarrera matxisten eta pertsekuzio-maniaren inguruko «sentsibilizazioa» lantzen saiatzea baino askoz ere eraginkorragoa eta erradikalagoa da. ⁷⁷⁴

Abusurako bideak itxita –hau da, poliziaren boterea murriztuz– lortuko da sexu-langileen aurkako kalteak apaltzea. Baina neurri hori beste erreforma batzuekin batera ezarri behar da; hain zuzen ere, poliziaren gehiegizko kontrola jasaten duten kolektiboen zaurgarritasunei eragiten dieten erreformekin batera –adibidez, sexu-langile indigenen eta koloreko sexu-langileen ahultasunei eragiten dietenak–. Gogaikarritzat eta asaldatzailatzat tratatuak izaten jarraitzen dutenek –hala nola droga-kontsumitzaileek, *queer* gazteek, migratzaileek edo etxegabeek– badakite deskriminalizazioa *bere horretan ez dela nahikoa*. Alex Vitale-k idatzia duen bezala, «txalogarria da polizia-kidegoan erreformak egitea, prestakuntza hobea izan dezaten, haien ekintzen erantzuleak izan daitezen eta hain arrazistak izan ez daitezen. Baina bere horretan utzi dituzte poliziaren oinarrizko funtzio instituzionalak, herritarren segurtasunarekin edo krimena kontrolatzearekin inoiz zerikusirik izan ez dutenak». ⁷⁷⁵ Drogazaleak eta sexu-langileak ahularazten direnean, oinarrizko

⁷⁷³ *Ibid.*

⁷⁷⁴ Woods, «Ipswich victims drug addicts, not “sex workers”», 13.

⁷⁷⁵ Vitale, A.S. (2017) «Police and the Liberal Fantasy», *Jacobin* jacobinmag.com.

giza eskubideak ukatuz, eta poliziakide batek haiengandik dirua edo plazer sexuala erraztasunez lor dezakeenean, egoera zail batean daudelako, ez da nahikoa espero izatea haien bizitzak kontrolatzeko lana dutenak atseginak izango direla, besterik gabe.

Eszeptizismo feminista

Sexu-langileen eskubideen aldekoentzat, etsigarria da oso behin eta berriro azaldu behar izatea sexu-lana *deskriminalizazioa* eta *legeztatzea* ez direla gauza bera. Bi hitz horien esanahiak oso gertukoak dira, eta hori engainagarria suerta daiteke; izan ere, jendeak hitzetako bat erabiltzen du, egiaz bestea erabili nahi duenean. Ulegarria da horrela jokatzea: biek esan nahi dute zerbait legezkoa dela, ezta? Beraz, merezi du berriro ere bien arteko desberdintasuna azaltzea. *Deskriminalizazioari* dagokionez, sexuaren industrian diharduten langileak dira eskubidedun nagusiak, eta haiek dira babes osagarria behar dutenak; prostituzioa *legeztatzean* edo *erregulatzean*, ostera, aurreko atalean ikusi dugun bezala, prostitutak diziplinagabetzat eta beldurgarritzat jotzen dira, eta zigor-neurri zehatzen bidez kontrolatu beharrekotzat. Deskriminalizazioaren ikuspegitik erartortzen da sistema bat non lehenetsi egiten baitira sexua saltzen duten pertsonen ezagutza, segurtasuna eta eskubideak; eta, hori lortzeko, sexu-langileek berek diseinatzen dituzte sexu-industriaren alorrean ezarri beharreko araudiak.

Nahi gabeko akatsa izateaz gain, bi terminoen arteko «nahasketa» hori trikimailu lexiko erabilgarri bat ere bada. Adibidez, prostituzioaren aurkako kazetari batek hau idatzi zuen: «Uste baduzu deskriminalizazioak seguru bihurtuko duela prostituzioa, begirada bat egin Alemaniako burdel erraldoiei»;⁷⁷⁶ argudiaketa hori inkoherentea da, eta bigarren ereduaren akatsak lehenengoari egozten dizkio. Zeelanda Berriko eredia gutxietsi egiten da askotan, gehiagokorik gabe; paradoxikoki, haren aurkakoek argudiatzen dute sexua saltzen duten pertsonen *langileen* eskubideak emanez gero areagotu egingo dela prostituzioaren esplotazioa.

776 Ditum, S. (2015eko otsailaren 5a) «If you think decriminalisation will make prostitution safe, look at Germany's mega brothels», *New Statesman*, newstatesman.com.

Zeelanda Berriak sexu-lanari buruz duen ikuspuntuak prostituzioaren aurkako feministen beldurrak areagotzen ditu. Askotan iruditzen zaie prostituzioa deskriminalizatuz gero enplegu-bulegoetako langileek edo institutuetan egiten diren lanbideei buruzko orientazio-saioetako gidariek prostituzioan jardutera behartuko dituztela lan bila ari diren pertsonak.⁷⁷⁷ Egiaz, baina, ez da horrelakorik gertatzen. Zeelanda Berriko enplegu-bulegoetan ez dute jartzen sexu-industriarekin lotutako lan-iragarkirik, eta debekatuta dago sexu-langileak sexu-lanean hastera edo horretan jarraitzera behartzea, baita langabezia-saria galtzearekin mehatxu egitea ere.⁷⁷⁸ Prostituzioaren Erreforma-ri buruzko Legeak honela dio: «Pertsona batek 1964ko Gizarte Segurantzaren Legearen arabera jasotzen duen prestazioa edo prestaziorako duen eskubidea ezin izango da inola ere ezeztatu, ezta beste inola kaltetu ere, sexu-langile gisa lan egiteari edo lanean jarraitzeari uko egiteagatik».⁷⁷⁹

Ez da sistema ezezaguna; Erresuma Batuan guztiz legezkoa da *strip-tease*ko klub batean edo web-kamera baten bidez lan egitea, eta, halere, enplegu-bulegoetan eta lanbideei buruzko orientazio-saioetan ez dute inor behartzen lan horiek hartzera. Pornografiaren alorreko lanek eta *peep-show*etakoei legezko estatusa dute *gaur egun*, baina horrek ez du esan nahi lan-elkarriketetan dantza erotikoa bat egitera edo larrugorritan jarri eta argazki bat ateratzera behartzen dituztenik enplegu-bulegoetara jotzen duten herritarrek.

Diotenez, prostituzioa deskriminalizatuz gero sexu-langileek ez lukete izango sexismoaren eta abusuaren aurkako babesik lantokian. Australiako Eredu Nordikoaren Batzordeko zuzendari nazionalak galdera hau bota zuen: «Zer egin dezake poliziak, baldin eta sexu-jazarpena zure lan-baldintzetan sartzen bada? Bortxatu zaituztela sala dezakezu, baina sexu-lana bera da bortxaketa-molde bat».⁷⁸⁰

Zerbait lantzat jotzea testuinguru batzuetan eta *sexu-jazarpenzat* beste batzuetan... hori feministok etengabe egiten dugu,

777 Banyard, *Pimp State*.

778 TVNZ (2011ko uztailaren 1a) «WINZ won't promote sex jobs», tekarere, tvnz.co.nz.

779 2003ko Prostituzioa Erreformatzeko Legea, 18. a., Zeelanda Berriko Legedia, hemen eskuratu daiteke: legislation.govt.nz.

780 New Zealand Herald (2016ko apirilaren 8a) «Former prostitutes call for ban to industry», *New Zealand Herald*, nzherald.co.nz.

nola edo hala, kolektiboki. Adibidez, pertsona batzuen lana masajeak ematea da; halere, zuk bulegoko lanean badiharduzu eta zure nagusiak masaje bat emateko eskatzen badizu, hori jazarpena da. Baina horrelako gertaera batek ezin du justifikatu masajeen salmenta debekatzeko.

Harrigarria eta mingarria da sexu-jazarpenari buruzko kezka horiek hain aldrebestuak egotea. Deskriminalizazioak ez du eragozten sexu-langileei babes horiek eskaintzea; are gehiago, deskriminalizazioa da lantokietako babes horiek *ahalbidetzen* dituen neurri bakarra. Legearen ikuspuntutik kontzeptua esanahiz hustu beharrean, deskriminalizazioak *areagotu* egiten du sexu-langileen aurkako lantokiko sexu-jazarpenaren kontrako babesa. Alde batera, «sexu-lan guztia bortxaketa da» esaldi behin eta berriro errepikatuak nerabeen arteko txiste sexistak gogorarazten dizkigu, zalantzan jartzen dutenak prostituta bati erasotzea bortxaketa den ala «lapurreta»: ideia bera dago bien oinarrian, alegia, sexua saltzen duzunez, berez da absurdoa imajinatzea gizarteak zuri egindako kaltetzat joko duenik zu benetan bortxatzea.

2014an, Zeelanda Berriko burdel batean lan egiten zuen sexu-langile batek lan-arloko auzitegi batera eraman zuen bere managerra, sexu-jazarpeneko kontu batengatik, eta garaile aterazten zen. Epai hori imajinaezina litzateke sexu-langileen lantokiak kriminalizatzen dituen legedia indarrean den edozein tokitan. *Lantoki kriminalizatu batean ez dago lan-arloko zuzenbiderik*. Kasuko epaimahaiak adierazpen hauek egin zituen: «Sexu-langileek beste lan batzuetan diharduten langileek adina eskubide dute sexu-jazarpenetik babesteko [...] Sexu-langileek gainerako langileen giza eskubide berberak dituzte».⁷⁸¹

Feministek deskriminalizazioari buruz izan ohi dituzten zalantza batzuek ez dute zerikusi handirik sexu-langileen benetako bizitzekin. Esate batera, ekintzaile bat kezkatuta dago, uste baitu Zeelanda Berriko eredia ezarriz gero sexu-langileok zergak ordaindu beharko ditugula, eta, «“langile” normalei gertatzen zaien bezala [...] [ordaindu ezean] zerga-arloko agintaritzatzetik izango lukeela».⁷⁸² Egia esan, sexu-langileok orain ere au-

781 Harris, M. (2014) «Sex Workers Equally Protected from Sexual Harassment as Other Workers – Says New Zealand Case», Oxford Human Rights Hub blog, ohrh.law.ox.ac.uk.

782 Banyard, K., *Pimp State*, 64.

re egin behar diegu zerga-betekizunei eta zerga-zigorrei, lana legezkoa ala legez kanpoko izanda ere, bai Erresuma Batuan eta baita Europako iparraldeko herrialdeetan ere, eta, hain zuzen ere, herrialde nordikoetako legeak defendatzen ditu ekintzaileak berak.⁷⁸³ Deskriminalizazioaren eredia ezarri gero, «langile normal» gisa tratatua izateak ekar lezake sexu-langileek beren diru-ekarpenen bidez finantzatutako abantailak aprobetxatu ahal izatea, hala nola lan-eskubideak eta lantokiko babesa; gaur egun, ukatu egiten zaizkie abantaila horiek, nola Britainia Handian hala Suedian eta Norvegian.

Beldur batzuek zentzu handirik ez badute ere, guretzat ezinbestekoa da deskriminalizazioa zorrotz aztertzea. Deskriminalizazioaren eredia ezarri gero, sexu-industriaren negozioan ezinean dabiltzanek laguntza esanguratsua izango dute lanbidea uzteko edo beren egoera aldatzeko? Eta zer eratakoa izango da «laguntza esanguratsu» hori?

Zeelanda Berrian, sexu-lana uzten laguntzeko ekimen indartsu bakarra dago indarrean: sexu-langileek ez dute jasotzen «borondatezko langabeziari» dagokion zigorrak, eta, beraz, lana utzi eta berehala egin dezakete langabezia-saria jasotzeko eskaera.⁷⁸⁴ Horrez gain (eta kontuan hartuta ere deskriminalizazioak prostituzioari dagozkion aurrekari penal garbiro eragozgarriak ezabatzen dituela), ez dago argi nahikoa egin ote den beste lan batean jarduteko trantsizioa egin nahi duten pertsonen baliabideak eskaintzeko, alde batera utzita erlijio-taldeek, GKE-ek eta banakoek kudeatutako aterpetxe gutxi batzuk.⁷⁸⁵

Lauren sexu-langilea eta ekintzailea da, eta Erresuma Batuan eta Zeelanda Berrian lan egin izan du. Berak dioenez, «Zeelanda Berriari dagokionez, zaila iruditzen zait [zerbitzuen finantzazio eskasa] testuinguru sozial zabalago batetik bereiztea; izan ere, etxegabetasuna izugarri handia da, etxeko indarkeriari aurre egiteko migratzaileei zuzendutako zerbitzuak asko murriztu dira, eta azken urte luzeetako gobernu neolibe-

783 Local (2011) «Norway a "pimp" for my prostitute client: lawyer», *The Local*, thelocal.no.

784 2003ko Prostituzioa Erreformatzeko Legea, 18 a., Zeelanda Berriko Legedia, hemen eskuratu daiteke: legislation.govt.nz.

785 Lanaren Nazioarteko Erakundea (2007) «Direct Request for information from the Government of New Zealand», Direct Request (CEACR), 2007an hartutako erabakia, LANEn 97. saioan argitaratua (2008), hemen eskuratu daiteke: ilo.org.

ralak gizarte-ongizatea suntsitu du». ⁷⁸⁶ Aurreko ataleko Suediari buruzko adibidean ikusi dugun bezala, baliabide desegokiak eskaintzearen kontua ez dagokio soilik Zeelanda Berriko ereduari. Erresuma Batuari buruz ere gauza bera esan daiteke; izan ere, gero eta murrizketa gogorragoak egiten dira gizarte-ongizatean eta zerbitzuetan.

Sexu-langileek askotariko beharrak dituzte, eta «irteera-molde» orokorrerako esleitutako diru-funtsek ez dituzte estaltzen behar horiek guztiak. Hego Afrikan, adibidez, sexu-merkataritzan diharduten pertsonak sexu-lana uzteko ahalmena oztopatzen duten zenbait faktore identifikatu dituzte, guztiak ere osasunarekin lotuak: tuberkulosia, GIB birusa, gaixotasun mentalak eta abar. ⁷⁸⁷ Kanadako Sex Workers United Against Violence [Indarkerian aurkako Sexu Langileen Batasuna] taldeko sexu-langile indigenen ustez, eskaintako zerbitzuek pertsona indigena gisa dituzten behar espezifikoak islatu behar lituzkete; adibidez, dirulaguntzak eman behar lizkiekete komunitate indigenei hezkuntzako eta lanbide-heziketako programa autogestionatueterako, baita etxebizitzarekin, osasunarekin, gutxieneko errentarekin eta haurren zaintzarekin zerikusia duten beste programa batzuetarako ere, guztiak ere tradizio indigenetan oinarrituak. ⁷⁸⁸

Laguntza espezializatuaren molde hori komunitatearen barruan sortzen da maiz. Vancouver-en bizi den Kerry Porth antolatzailearen arabera, «sexu-lana babesten duten erakundeek beti lagundu izan diete emakumeei sexu-lanetik irteten, eta lan hori, oro har, gure bulegotik kanpo egiten dugu, eta horretarako dirulaguntza zehatzik eduki gabe». ⁷⁸⁹ Zama hori ez litzateke jarri behar sexu-langileen eta beste komunitate batzuen bizkarrean; gobernuari dagokio inor epaituko ez duten laguntza-zerbitzuak diruz hornitzea, eta zerbitzu horiek sexu-langileen beharrei erantzun behar diete, haien baldintzak errespetatuz, haiek eska-

786 Posta pribatua.

787 Learmonth, D., Hakala, S. eta Keller, M. (2015) «“I can't carry on like this”: barriers to exiting the street-based sex trade in South Africa», *Health Psychology and Behavioral Medicine* 3:1, 348–65.

788 Canadian Alliance for Sex Work Law Reform, (2016ko urria) «Joint Submission for Canada's Review before the UN Committee on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women, 65th Session», nswp.org.

789 GAATW, «Sex Workers Organising for Change», 29.

tu ez dituzten irtenbideak hautatzera behartu gabe, eta alfertzat, desohoratutzat edo bekataritzat seinalatu gabe.

Feminista batzuk arduratuta daude, deskriminalizazioarekin zailagoa izango omen delako esplotazioari aurre egitea eta erasotzaileak zigortzea. Alderantziz da, baina: kriminalizazioak eragiten du sexu-langileak poliziarengandik ezkutuka ibili behar izatea, atxilotuak, etxegabetuak edo deportatuak izateko beldur-raren beldurrez.⁷⁹⁰ Erasotzaileek badakite sexu-langileok ezin diogula laguntzarik eskatu estatuari eta oso zaila dela gu aintzat hartzea harengana jotzen dugunaldi gutxietan. Prostituzioaren kriminalizazioak emakume guztion aurkako indarkeria sustatzen du; sexu-langile kriminalizatuak «entrenamendurako zelai» bihurtzen dira, non gizon biolentoei indarkeriaren erabilera praktikatu baitezakete, aurretik jakinda beren ituek ez dutela haien burua defendatzeko edo justizia eskuratzeko modurik. Sexu-langileekin «praktikatu ondoren», horrelako gizonak sexu-langileak ez diren emakumeak erasotzen hasten dira askotan; jokamolde hori ikusten dugu zenbait harrapariarengan; adibidez, Peter Sutcliffe eta Adrian Bayleyarengan.

Askok kezka hau dute: sexu-industriari aurrera egiten uzten badiogu, debekurik ezarri gabe, orduan onartu egiten dugu, eta hedatu egingo da. Beraz, batek esan dezake kezka horrek agerian uzten duela isilbidezko uste bat; alegia, eraginkorra da aurrerantzean ere prostituzioa arriskutsua izatea –ilegala delako–, bestelakoan neurrigabea izango bailitzateke sexua saltzeko joera. (Batzuetan, «isilbidezko» uste hori esanbidezko bihurtzen da: sexu-langileak Irlandako justizia-ministroarekin elkartu zirenean, hari azaltzeko kriminalizazioarekin segurtasun txikiagoa izango luketela, ministroak erantzun zien esanez sexu-langileen zaugarritasuna handitzeak behintzat ekarriko zuela emakume batzuk negozio horretan ez sartzea).⁷⁹¹

Merezi du aipatzea Zeelanda Berrian sexu-langileen kopurua egonkor mantendu dela; hau da, ez da gertatu auzo batzuetarako aurreikusitako «eztanda».⁷⁹² Ez dago frogarik

790 Lam, E., «Behind the Rescue».

791 McGrath, M. (2015) «Sex worker Kate McGrew (36): "I feel that once we stop seeing sex work as a social ill we'll start to see sex workers as humans"», *Independent*, independent.ie.

792 Abel, G., Fitzgerald, L. eta Brunton, C. (2009) «The impact of decriminalisation on the number of sex workers in New Zealand», *Journal of Social Policy* 8:3, 515–31.

esateko zigor-zuzenbidearen aldaketek –hura baliogabetzeak barne– eragin esanguratsua dutenik sexua saltzen duten pertsonen kopuruan. Jenny izeneko sexu-langileak hauxe adierazi zien ikertzaileei:

Legez kanpo lan egin izan dut beste kontu batzuetan; badakizu, beltzean eta hala. Beraz [...] uste dut esan dezakedala bestela ere [sexu-lanean] arituko nintzatekeela. Baina, zera, benetan iruditu zitzaidan legezkoa denez [...] seguruago sentitzen nintzela.⁷⁹³

Nolanahi ere, espazio feministetako elkarrizketak sokatira huts bilakatu dira. Prostituzioaren aurkako erakunde feminista batek honela dio: «Ez du ezer onik ekartzen gizonei adierazteak emakumeak eta neskak eros daitezkeen produktuak direla. Aitzitik, mezu hori bidaltzen duen gizarteak arazo larri eta konpongaitzak izango ditu».⁷⁹⁴ Argudiaketa horren beste muturrean sexu-langileen ahots entzungabea dago; Pania, adibidez, zigorrarekin lotutako «mezuen» benetako ondorioei buruz mintzo da: «Bezeroa izatea legez kanpokoa den herrialdeetatik etorritako bezeroak izan ditut, eta kirioak airean eta ikaratuta zeuden, eta ez zen erraza haiekin lan egitea».⁷⁹⁵ Beraz, noren kezkei eman behar zaie garrantzi gehiago? Emakume ez-prostitutek «mezuari» buruz dituzten kezka erlatiboki abstraktuei ala langile-klaseko pertsonen behar praktiko eta egunerokoei, zeinek bilatzen baitute beren lana seguruagoa izatea? Azken aukera hori funtsezkoa da kaltea murrizteko.

Gaur egun munduko toki guztietan sexu-langileen aurka eguneroko gertatzen diren indarkeriazko gertaera errealak ezin dira alderatu oraindik etortzear den etorkizun baten pronostiko feministarekin. Kezka horiek debekuen menpeko errealitatearekin alderatu behar dira, non sexu-lanaren kriminalizazioak ez baitu *ezertxo ere* egin sexu komertziala desagerrarazteko eta non indarkeria lanaren berezko arriskutzat jotzen baita. Argi dago sexu-lanaren kriminalizazioak eta hortik eratortzen den

793 Abel, et al., «The impact of the Prostitution Reform Act on the health and safety practices of sex workers», 84.

794 Moran, R. (2015) «SPACE International's response to consultation for Prostitution Law Reform (Scotland) Bill 2015», womenssupportproject.co.uk/userfiles/file/space%20international%20response.pdf.

795 New Zealand Prostitutes Collective (NZPC) (2015) «Decriminalisation of Sex Work in New Zealand: Impact on Maori», hemen.eskuratu.daiteke:sexworklaw.co.nz.

«mezuak» –«emakumeen gorputzak ez daude salgai»– ez duela eragotzi ez Stockholmeko ez New Yorkeko ez Harare-ko jendeak sexua saltzeari uztea. Agerikoa behar luke izan zein den kriminalizazioak bidaltzen duen benetako mezua: sexua saltzen duten pertsonak segurtasunaren, eskubideen eta justiziaren erzetan existitzen dira.

Halere, prostituzioaren aurkako idazle bat indarka ari da kaltea murriztearen kontzeptuarekin, arrakastarik gabe:

Kondoia erabiltzeak bortxaketaren inpaktua murriztuko du? [...] Gizon batek niri zakila sartzeko «baimena ematen badut» [...] baina hori egitean klamidia kutsatzen ez badit, zer esan nahi du horrek, gertatu zaidana ondo dagoela? Horrekin ondo sentitu behar dudala? Gizarteak beste aldera begiratu behar lukeela? [...] Zergatik ez dute onartzen prostituzioak eragiten duen kaltea ezin dela konpondu kondoiaren eta burdela bidez?⁷⁹⁶

Galdera horiek ez lizkiekete egin behar beren buruei, baikiz eta gaur egun sexu-lanean diharduten eta sexu-indarkeriari aurre egin dieten edo GIB birusa duten pertsoneri, errespetuz eta errukiz. Haiek dira, eta ez abstraktuki eta pulpitutik hitz egiten dutenak, horretaz hitz egiteko pertsonarik egokienak, esateko ea kondoiak elementu immaterialak izan diren *haientzat* sexu-industriaren daramaten denboran.

Ez da kontu berria berehalako kalteei aurre egiteko talde txikiagoak antolatzea eta, aldi berean, arazoaren erroari heltzen dioten irtenbideen alde lan egitea. Ekintzaile feministok abortatzeko eskubidearen alde borrokatzen gara, eta, aldi berean, sexu-hezkuntza hobetzeko, amei diru gehiago emateko eta kontrazepzioarako aukera handiagoa izateko ere antolatzen gara. Zain eta muin aritzen gara etxeko indarkeria jasan duten pertsoneri aterpetxe gehiago eskaintzeko, eta, aldi berean, etxeko indarkeriarik gabeko mundu bat lortzeko lan egiten dugu. Mugarik gabeko mundu bat lortzeko lanean dihardugu, eta, aldi berean, immigrazioko poliziek etxeetan, eskoletan eta ospitaleetan egiten dituzten sarekada zehatzen aurka egiteko antolatzen gara.

796 Murphy, M. (2015) «Male progressives who support harm reduction need a lesson in feminism and in radicalism», *Rabble*, rabble.ca.

Baliteke prozesu hori prostituzioaren aurkako feminista ugarik nahi luketena baino motelagoa izatea. Iritzi-emaile horientzat, prostituzioaren erabateko eta berehalako abolizioa soilik da behar adina erradikala. Baina sexu-lana deskriminalizatzeak esan nahi du garrantzia ematea sexua saltzen ari diren pertsonen segurtasun material eta berehalakoari. Alde horretatik, deskriminalizazioa eskaera sakonki erradikala da, sexu-industria ezerezteko ahaleaginean poliziaren kontrola areagotuz munduko sexu-langilerik pobreenak otsoen esku uztea baino askoz ere erradikalagoa.

Dudu Dlamini Hego Afrikako sexu-langilea da, eta berak ondo ulertzen du deskriminalizazioak epe luzean izango duen inpaktua. Deskriminalizazioaren alde hitz egin behar zuen sindikatuko bilera batean, eta honela azaltzen du une hartan sentitutako beldurra:

Kriminalizazioaren ondorioz kalean gertatzen ari diren gauza txar guztietan pentsatu nuen. Zer gertatuko litzateke nire alaba sexu-industrian sartuko balitz eta gauza txar horiek berari gertatu balitzaizkioke? Horrelako gauzak esaten ez baditut, nire aurrean daudenek ez dute deskriminalizazioaren alde egingo, eta, orduan, zer gertatuko zaio nire alabari?⁷⁹⁷

Sexu-lana deskriminalizatzeak ez ditu konponduko munduko bidegabekeria guztiak: hori arazo handiegia da edozein lege-aldaketarentzat. Baina orain eta bihar sexua saltzen duten pertsonak seguruago egongo dira bizirauteko egin behar dutena egiten duten bitartean. Hori benetan baliotsua da. Joyce sexu-langilea da Zeelanda Berrian, eta honela dio: «Kalea goitik behera aldatu zuen, dena aldatu zuen. Beraz, merezi izan zuen».⁷⁹⁸

797 Mgbako, C.A. (2016) *To Live Freely in This World: Sex Worker Activism in Africa*, New York: NYU Press, 40.

798 Abel, G. (2014) «A decade of decriminalization: Sex work “down under” but not underground», *Criminology and Criminal Justice* 14:5, 580–92.

ONDORIOAK

Zure erresistentzia-ekintzak bidegabekeriak gerarazteko gai ez izateko probabilitateak ez zaitu salbuesten ondo hausnartu ondoren zure komunitatearentzat onuragarritzat jotzen dituzun ekintzak egitetik.

Susan Sontag⁷⁹⁹

Gutako bakoitzak bere lana aurkitu behar du, eta hori egin. Militantziak jada ez du esan nahi pistolak hartu eta egun-argiz kalera ateratzea, baldin eta inoiz hori esan nahi izan bazuen. Esan nahi du aldaketaren alde aktiboki lan egitea, batzuetan ziur jakin gabe aldaketa etorriko ote den.

Audre Lorde⁸⁰⁰

2016ko udazkenean, guk biok eta gure kide batek Glasgowen egin zen biltzar feminista batean parte hartu genuen. Emakume nolabait zakar baina bitxi bat gurekin hitz egitera gerturatu zen. Esan zigunez, GKE bat eramaten zuen, Europako emakume migratzaileen eskubideak defendatzen zituena, eta gizonei buruz hitz egin nahi zuen gurekin, *putazaleei* buruz. Ez al ziren *nazkagarriak*, jakin nahi zuen. Zer dela eta ez genuen onartzen haiek zigortzea? Onartu genuen bezeroak batzuetan gaiztoak direla, baina azaldu genion haiek zigortzeak kalteak eragiten dizkiela sexua saltzen duten pertsonen. Europako iparraldeko herrialdeetako sexu-langileen etxegabetzeak aipatu genituen. Gure solaskideak onartu zuen etxegabetze haiek benetakoak zirela; Eskandinavian, emakumeak beren etxeetatik egozten dituzte, bai. Esan zigunez, emakume migratzaileak *bere GKEra etortzen ziren* kexaka, Suedian pisuetatik edo hoteletatik

799 Sontag, S. (2003) «Of Courage and Resistance», *The Nation*, thenation.com.

800 Lorde, A. (1982) "Learning from the 60s" in *Sister Outsider: Essays and Speeches*, Berkeley, CA: Crossing Press, 134–44.

kanpora bota zituztela eta, batzuetan gau minean. Emakumeak hizketan jarraitu zuen, oraingoan iseka-puntu bat ahotsean: «Hori gertatzen denean, neure kautan pentsatzen dut», esan zizgun, emakume etxegabe haiekin zituen hartu-emanak imitatuz, «pentsatzen dut, besterik gabe, zorionekoa zu, ez zaituzte hil, bederen». Begiak gureganantz zuzendu zituen.

Ez dizuegu eskatzen sexu-industria maitatzeko. Guk ez dugu maite, noski. Eskatzen dizueguna da sexu-industriarekiko eta gizonetikiko *putazaleekiko* sentitzen duzuen higuinak ez dezala gainditu sexua saltzen duen jendearekin enpatizatzen duzuen gaitasuna. Espazio feministetan, sexu-langileek funtsezko oztopo bati egin behar izaten diote aurre: alde batera utzi behar da prostituzioak *sinbolizatzen* duena, eta prostituzioaren kriminalizazioak sexua saltzen duten pertsoneri *materialki egiten dienari* begiratu behar zaio. Espazio horietan, emakumeek «kosifikazioaz» eta «sexualizazioaz» eta horrelakoez hitz egiten dute, eta uste dute munduko emakume guztiak abstrakzio horiekin identifikatzen direla. Ohartarazten diegunean horrelako eztabaidetatik eratoritzen diren politikek askotan sexu-langileak etxegabetzea edo deportatzea dakartela berekin, kontu «bakanez» hitz egingo bagenu bezala begiratzen digute, edo «ideia orokorra» ulertzeko gaitasunik izango ez bagenu bezala.⁸⁰¹ Gure ahizpak kontu «bakanei» heltzera bultzatu behar ditugu. Inork ezin du eraiki mundu hobea eta feministago bat hutsaltzat hartuz sexu-langileen «une honetako behar materialak» –hau da, diru-sarrerekin, etxegabetzeekin eta immigrazio-legeekin lotuta daudenak–.

Feminismoaren molde punitibista eta progresista, biak ala biak dira erakargarriak, itxura batean erantzun errazak eskaintzen dituztelako arazo konplexuen aurrean. Emakumeen lana gutxiesten eta gaizki ordaintzen dutela? *Eskatu soldata-igoera!* Sexu-indarkeria endemikoa dela? *Tori dirua polizientzat!* Sexu komertziala eskaintzen dela online? *Onar ditzagun sexu-langileak Internetetik kanpora bidaliko dituzten legeak!* Feminismo punitibistak, gainera, erradikaltzat du bere burua hori egiten duelako: erradikalki zorrotza da gizonen ustezko eskubide sexualekin, eta

801 Smith, J. (2016) «The Duel: Should it be illegal to pay for sex?» *Prospect*, prospectmagazine.co.uk.

erradikalki saiatzten da sexu-industria sutan erretzen.⁸⁰² Erradikaltasun hori desagertu egiten da gertutik aztertzean: poliziak ez dira feministak. Mugimendu feminista hegemonikoak arrazoi du: prostituzioa instituzio patriarkala da; baina ahaztu egiten zaie, hala komeni zaielako, poliziagintza ere instituzio patriarkala dela. Sexu komertziala poliziagintzaren bidez desagerrarazten saiatuz ez zaio patriarkatuari aurre egiten; aitzitik, horrek jazarpenak, atxiloketak, auzipetzeak, etxegabeteak, indarkeria eta pobrezia sortzen jarraitzen du sexua saltzen dutenen artean.

Eredu nordikoak alfonbraren azpira erraztatzen du pertsonen trafikoa. Pobreziak eta legearen barruan ezin migratzeak migratzaileak ahultzen ditu; bezeroak atxilotzeak eta agiririk gabeko pertsonak hurrengo hegaldian etxera bidaltzeak ez du ezer konpontzen. Erasotzaileei boterea kentzen saiatu arren poliziari botere handiagoa ematen dion ezein irtenbidek ez du hobetuko boterea sexu-langileen eskuetan jartzea proposatzen duen konponbidea.

Sexu-merkataritzan dihardutenek ez lukete egon behar pertsonen trafikoaren aurkako mugimenduaren *arretagunean*, baizik eta haren *gidaritzan*. Prostituzioaren aurkako aktibistarik porrokatuenak ere ez du sexu-zerbitzuak saltzen dituen norbaitek baino pizgarri hoberik sexu-industriaren barruko indarkeriari eta esplotazioari aurre egiteko. Emakumeen Trafikoaren Aurkako Aliantza Globala [*Global Alliance Against Traffic in Women, GAATW*] izeneko sareak honela dio:

Alorraren barruko zatiketa horrek funtsezko aliatu bat kendu dio trafikoaren aurkako mundu mailako ahaleginari, eta, egia esan, aliatu horrek neurri handi batean hobetu ahal izango litzuke trafikoaren aurkako borrokaren emaitzak, barrutik ezagutzen dituelako industria, horretan parte hartzen duten pertsonak eta lan-baldintzak.⁸⁰³

Prostituten aktibismoa inoiz ez da kokatzen lehen lerroan trafikoaren aurkako mugimendu nagusian, eta batzuentzat, gainera, zentzugabea litzateke hala egitea. Baina, aukera emanez gero, sexu-langileak gai izango liriateke etsenpluaren bidez mugimendua gidatzeko.

802 Jeni, H. (2017ko urriaren 12a) «Burning Down The Sex Trade», Medium (@GappyTales), medium.com.

803 GAATW, «Sex Workers Organising for Change», 9.

«Lehenengo araua, minik ez ematea»⁸⁰⁴

Myanmar-en, HIESaren Elkartearen ustez (*AIDS Myanmar Association, AMA*; «ama» hitzak «ahizpa nagusia» esan nahi du birmanieraz), pobrezia eta babesgabetasun ekonomikoa dira sexu-industriaren barruko trafikoaren sustatzaile nagusiak; horregatik, kudeaketa ekonomikoari buruzko prestakuntza eskuratzeko, nortasun-agiriak lortzeko eta banku-kontu bat irekitzeko laguntza eskaintzen dute. Kay Thi Win elkartearen kide sortzaileetako bat da, eta honela dio:

Guk sexu-langileek gidatutako erakunde bat dugu amets: komunitatearentzat, komunitatearekin eta komunitateak egina. AMA erakundearen kudeatzaile guztiak sexu-langileak gara, eta beharren arabera erabakiak har ditzakegu. Beste erakunde batzuekiko independenteak gara, eta independentzia horren alde lan egiten dugu, eta beste inork baino hobeto ezagutzen ditugu sexu-langileok egunerokoan izaten ditugun arazo eta kontuak [...] Gure ustez, diruak boterea dakar.⁸⁰⁵

Durbar Mahila Samanwaya Batzordea (*Durbar Mahila Samanwaya Committee, DMSC*) Mendebaldeko Bengalako sexu-langileen talde bat da. Kideek 33 batzorde txiki eratu zituzten estatuan zehar, batzorde autorregulatzaile deritzenak. Batzorde bakoitzak sei langile ditu, tokiko zinegotzi bat eta osasun- eta lan-alorreko beste lau profesional. Hiru urteko epean, tokiko batzordeek sexu-merkataritzako bi mila pertsona baino gehiago aztertu zituzten, eta % 10 bakarrik jo ziren «adingabekotzat edo adostasunik gabekotzat». Beren egoeratik irteteko laguntza eta babesa eskaini zitzaion, hala nola beste sexu-langile batek etxera laguntzea edo DMSCren instalazioetan ostatu hartzea. Aztertutako beste sexu-langile batzuei terapia eta osasun-arreta eskaini zitzaion, eta sexu-langileen zaurgarritasuna murrizteko diseinatutako plan komunitarioekin bat egiteko aukera. Horietako bat sexu-langileek kudeatutako banku bat da; kontuak irekitzen eta dirua aurrezten laguntzen die sexu-langileei, eta, hala, zorrengatik esklabotzaren aurka borrokatzen da.⁸⁰⁶

804 *Ibid.*, 36.

805 *Ibid.*, 28.

806 Jana, S. et al. (2014) «Combating human trafficking in the sex trade: Can sex workers do it better?». *Journal of Public Health* 36:4, 622–8.

DMSC taldeko Bharati De-k hauxe dio trafikoaren aurkako mugimendu nagusiak egiten dituen «erreskate»-erako esku-har-tzeei buruz:

Maila txikiegian egiten dira, ezinezkoa da benetako erabilera bat izatea. Erakunde batzuek prestakuntza eskaintzen diete sexu-langileei: joskintza, kandelagintza... Eta, horrekin, bi edo hiru mila errupia bakarrik irabaz ditzakete hilean; gaur egun, baina, sexu-langile batek, baita fami-liarik ez duenak ere, bost mila errupia behar ditu gutxienez Kalkutan bizi ahal izateko.⁸⁰⁷

Mugimendu feministak kasu egin behar lieke DMSC beza-lako taldeei: mehatxu handia dira proxeneta esplotatzaileentzat. Duela hamarkada gutxi, *hadiya* edo *madameak* buru zituzten mer-tzenario-taldeen kontrolatzen zuten Sonagatxiko –Kalkutako argi gorriko barruti handi bat– sexu-industria guztia. Negoziazio kolektiboaren ahalmenaren eta sindikatuen bileren bidez, DMSC batzordeak Sonagatxiko burdeletako nagusien % 80 hartu ditu mendeen: orain, tarifa justuagoei eta komisio-sistemei men egi-ten diete.⁸⁰⁸

Veshya Anyay Mukti Parishad (VAMP) Indiako se-xu-langileez osatutako talde bat da, eta antzeko irtenbideak proposatu izan ditu. *Thanta Mukti Samithis* (Gatazkak Konpon-tzeko Batzordeak, TMS) izeneko talde bereziak sortu zituzten, zeinek esku-hartzeak egiten baitituzte sexu-langileak lanean edo lanetik kanpo jazarri edo esplotatzen dituztenean. GAATW sarea ohartu zen TMS prozesuen bidez *madame* (burdel-jabe) ba-tek proxeneta bati aurre egin ziola, adingabe bat bere lantokira eramaten saiatzeagatik. Adingabea gurasoengana itzuli zen, eta babesa eta aholkularitza eskaini zizkioten kasua poliziaren au-rrean aurkezteko. Halaber, proxenetaren deskribapena eta hari buruzko datuak zabaldu zituzten inguruko TMS taldeetan.

Thailandiako Empower (Ahaldundu) taldeak ere ikuspegi praktikoa darabil managerrei aurre egiteko. Som sexu-langile migratzailea talde horrek eskaintzen dituen ingeles-eskoletara joan zen, eta halako batean azaldu zien bere enplegatzaileak bere mugimenduak kontrolatu eta bere soldatak murrizten zi-tuela eta pasaporteak konfiskatu ziola. Beldur zen enplegatzailea

807 NSWP, «Sex Work And The Law», 11.

808 *Ibid.*, 13.

ez ote zen haserretuko ihes egin eta zorra ordaindu barik uzten bazuen, hark bazekien-eta beraren familia non bizi zen. Som atxilotetaren eta deportazioaren beldur ere bazen, eta ez zuen salaketarik jarri nahi izan, ezta poliziaren aurrean trafikorearen biktima gisa agertu nahi izan ere. Egia esan, sexu-lanean jarraitu nahi zuen, eta zorra ordaindu, baina askatasun eta malgutasun handiagoa izan nahi zuen lan-baldintzetan. Empower taldeari eskatu zion nagusiarekin baldintza horiek negoziatzen laguntzeko, eta harekin akordio berri bat adostea lortu zuten; epe beretan itzuli behar zuen zorra, baina beste leku batzuetan ere lan egin zezakeen, bere kasa.

Zigorraren aldeko feministen ustez, tipo gaizto batzuk kartzelatan ez badituzte, ez da justiziarik egin; baina komunitatearen gidaritzapean jarduteak esan nahi dut *lehenik eta behin sexu-langileei egin behar zaiela jaramon*. GAATW sarekoak honela mintzo dira: «Irtenbideak ez dira beti agerikoak edo ohikoak; batzuetan, sexu-langileek sormenari eragin behar diote, egoera zehatz batean “Lehenengo araua, minik ez ematea” leloaren araberako irtenbiderik egokiena aurkitzeko».⁸⁰⁹

Jarduteko modu praktikoa eta eraginkor horiek urrun bai urrun daude batzuetan munduaren hegoaldeko sexu-langileei indarrez ezartzen zaien «humanitarismo» gaizki ulertu eta neurrigabekotik. Adibidez, Kanbodiako eta Indiako sexu-langileek «sarekada eta erreskate»-operazioak jasan ohi dituzte, eta burdeletan atzemandako emakumeei gutxieneko soldata duten lanak esleitzen dizkiete arropa-fabriketan.⁸¹⁰ Sexu-langileek eskatzen duten bakarra da berei galdetzea ea zer nahi duten, ez indarrez erreskatatzea eraikitzen saiatzen ari diren bizitzetatik. Batasunerako Emakumeen Sarea Kanbodiako emakume-langileen talde bat da, eta honela dio haien esloganak: «Ez etorri niri josteko makinak kontuekin, etorri langileen eskubideen kontuekin».⁸¹¹

809 GAATW, «Sex Workers Organising for Change», 36.

810 Enpresa batek, The International Princess Project izenekoak, «punjammiak» egiten ditu, hau da, burdeletatik «erreskatatu» dituzten emakumeek egindako pijamak. Helburua da «askatasunerako bideak eraikitzea itxaropen eta duintasunezko bizitzak lortzeko asmoz sexu-esklabotzak eragindako hondamenetik ihes egin duten emakumeentzat». Ikus sudara.org/collections/punjammi.

811 Global Network of Sex Work Projects (NSWP) (2014ko urria) «Sex Workers Demonstrate Economic and Social Empowerment. Regional Report: Asia and the Pacific», txostena,

Inor ez da baztergarria

Sexu-langileen eskubideak ezin da berezi eskubideen aldeko beste mugimendu batzuetatik. Sexu-langile guztien eskubideak hartuko badira kontuan, prostituzioari buruzko legea gainditzen duen espektro zabalago batean egin behar zaio aurre injustiziarri; halandaze, deskriminalizazioa bide luze bateko urrats bat besterik ez da. Esate batera, 4. atalean ikusi dugun bezala, drogen aurkako borroka sexu-langileen kontua ere bada. Sexu-langile batzuek auzitara eraman dezakete beren nagusia soldata lapurtzen dietelako, baina langile horiek berek soldataren azken txanpona ere gastatu behar dute merke eta seguru lortu ahal izango lituzketen drogetan; hortaz, gure mugimenduak asko du oraindik egiteko.

Era berean, 3. atalean argitu bezala, mugak ere sexu-langileen kontua dira. Poliziek kalean lan egiten uzten die sexu-langile batzuei, baina, era berean, haien kide migratzaileak atxilo hartu, eta deportatu egiten dituzte; beraz, ezin dugu esan gure lana jada amaitua denik. Sexu-langileei dagozkien kontuak dira, orobat, osasun-sistemaren alorreko estigma eta diskriminazioa. Sexu-langileekin adeitasunez jokatzeko duten STG-klinikak ez dira nahikoak sexu-langileei beste modu askotan ezarritako hesi arrazista, transfobo eta kapazitistei irtenbide bat bilatzeko.

Pertsona batzuek bazterretan atzera-aurrera jarraitzen duten bitartean sexua saltzen, haiei eragiten dieten kontu sozial guztiak sexu-langileen eskubideen kontua ere izango dira. Janet Mock sexu-langile ohiak dioen bezala, «ez gara aske izango marjinatuenak, burlatuenak, etxegabetuak eta epaituak erdigunean jartzen diren arte. Inor ez da baztergarria».⁸¹²

Muga horiek funtsezkoak dira sexu-langile aktibistentzat, deskriminalizazioak bakarrik ez dituelako «konponduko» jendea baztertu eta sexu-lanera bultzatzen duten kontuak. Sexu-lana deskriminalizatzeak ez du ekarriko bat-batean inoren pobrezia arintzea; sexu-lana estrategia eraginkorra da pobrezia aurre egiteko, baina ez dio pobrezia sistematikoki aurre egiten. Sexu-industria kriminalizatzeak edo deskriminalizatzeak ere ez du desagerraraziko, adibidez, etxegabetasuna; etxegabetasunari

nswp.org, 15–16.

812 Mock, J. (2017ko urtarrilaren 17a) «On the Women's March « "Guiding Vision" and its inclusion of Sex Workers», Janet Mock Tumblr-en, janetmock.tumblr.com.

amaiera emateko, jendeari etxe egonkor eta eskuragarriak eskaini behar zaizkio, haien beharretara moldatzen diren laguntzarekin.⁸¹³ Zigor-zuzenbideak egin *dezakeena* da lagundu bermatzen jendea seguruago dagoela une honetan bere biziraupenerako egin behar duena egiten.⁸¹⁴ Halaber, deskriminalizazioak saihestu dezake, besterik gabe, sexu-langileen bizitzek okerrera egitea, aztertu ditugun beste eredu guztiek ez bezala.

Deskriminalizazioa ezin da ezarri bera bakarrik; sexu-langile baztertuen prekarietateari irtenbide bat emango dioten beste bizi-politika batzuekin batera ezarri behar da. Izan ere, deskriminalizazioarekin aski izango dela pentsatzea bat dator sexu-langile pribilegiatuen interesekin, haien bizitzak gutxi gorabehera ondo joango baitira sexu-industriako lan-eskubideak bermatuz gero. Haientzat, kriminalizazioa da arazo *bakarra*, beraz, aski da kriminalizazioa indargabetzea. Sexu-langileak ez diren feministei behin eta berriro gogorarazten diegu sexu-langileen borroka ez dela soilik bezero gaitoen aurkakoa, hori baino askoz gehiago ere badela; era berean, sexu-langileen mugimendua ere ohartu behar litzateke sexu-langile pobrentzat, sexu-langile migratzaileentzat, sexu-langile desgaituentzat eta beste askorentzat ez dela nahikoa kalean sexua eskaintzeari buruzko legeak edo burdelak eramateari buruzkoak baliogabetzea.

Gure mugimenduak erdigunean jarri behar ditu koloreko sexu-langileen bizipenak eta aktibismoa, haiei egokitzen baitzaie pertsonen arteko eta estatuaren muturreko indarkeriaren parterik txarrena. Langile horien bizitzak, batez ere emakume Beltzenak, baztergarritzat jotzen dira askotan. Aya de Leon nobelagile eta poetak honela dio: «Garai batean non gu, Ameriketako Estatu Batuetan, Beltzen bizitzek axola dutela dioen ideiarene alde borrokatzen ari baikara, Beltza eta emakumea, afrikarra eta sexu-langilea izatea utzikeriarik eta ahanzturirik sakonenaren kokalekua habitatzea da».⁸¹⁵ Afrikarrak, afrikar-

813 Jakina, sexu komertziala kriminalizatzeak etxegabetasunera *bultzatzen* ditu batzuk, Norvegian etxetik kanpora bidaltako batzuek egiaztatu dezaketen bezala.

814 PRA proposatu zuen parlamentariaren hitzaldia. Barnett, T. (2003ko ekainaren 25a) «Prostitution Reform Bill — Procedure, Third Reading», Berriko Parlamentua, parliament.nz.

815 de Leon, A. (October 2015) «Black Sex Workers» Lives Matter», *For Harriet*, forharriet.com.

amerikarrak edo diaspora afrikar eta karibetarreko kide izanda ere, sexu-langile Beltzek honako faktore hauen bat egite bortitzaren ondorioak pairatzen dituzte: pobrezia arrazializatua, estigma soziala eta poliziaren eskutik datorren utzikeria eta abusua. Horrek larriagotu egiten du haien kontrako indarkeria, oldarkorrei ulertarazten baitzaie prostituta Beltzak ez direla inoren lehenasuna eta basakeriaz tratatu daitezkeela, inork konturik eskatu gabe. Sexu-langile Beltzek kartzelatuak, deportatuak eta etxegabetuak izaten jarraitzen dute, bizirauten ahalegintze hutsagatik.

Deskriminalizazioaren aldekoek kontuz ibili behar dute, poliziaren jardunean egiten diren aldaketa txikien potentziala gehiegi ez azpimarratzeko. Sexu-langileak deskriminalizatzeko ez du xirmi-xarmaz eragingo pertsona Beltzen aurkako jazarpen polizialaren amaiera; gehienez ere, egin dezakeena da poliziaren boterea molde espezifikoko batean murriztu eta sexu-langileei baliabide batzuk eman, poliziak beren zereginetatik harago doazenerako. Zuhur begiratu behar genieke praktikan sexu-langileak birkriminalizatzen dituzten arau zorrotzei; izan ere, boterea poliziakideei itzultzen diete, beste bide batetik. Prostituzioari buruzko legeaz bestelako bideetatik poliziak sexu-langileen gaineko botereari eusten dion lekuetan (adibidez, migratzaileen edo drogak dauzkatenen atzetik ibilita), poliziak larderiaz jokutzen du.⁸¹⁶

Sexu-langileen aldekoek ez dute defentsiban jarri behar deskriminalizazioaren ikuspegi errealista horren aurrean. Lege-erreformaren mugak ez dagozkio soilik sexu-lanari. Ezkontza barruko bortxaketari buruzko erreformak ez du ekarri bikoteen barruko bortxaketaren amaiera. Abortatzeko legezko eskubideak ere ez du ekarri erreproduktzioaren gaineko erabateko justizia. Neurri horiek bide luze batean ezinbestean egin beharreko lehen urratsak dira, eta bide hori elkarrekin egin behar genuke feminista guztiok. Deskriminalizazioa beharrezkoa da, baina ez da nahikoa sexu-langileei dagokien justiziantzat; abortatzeko

816 Adibidez, Hegoaldeko Gales Berrian, 1980ko hamarkadan, teorian sexu-langileak deskriminalizatu zituzten, baina poliziak sexu-langileak atxilotzen jarraitu zuen, alboko jurisdikzioen proportzio berean edo handiagoan, non kriminalizazioak indarrean jarraitzen baitzuen. Perkins R. (1991) «Working girls: Prostitutes, their life and social control», in *Australian studies in law, crime and justice*, Canberra: Australian Institute of Criminology, chapter 2, hemen eskuratu daiteke: aic.gov.au.

eskubidea ere funtsezkoa da, baina ez da nahikoa justizia erreproduktiboarentzat.

Guk ez dugu esaten sexu-industria baliotsua edo desiragarria denik bere horretan. Feminista gisa, badakigu sexu-merkataritzan bizi izan ditugun misoginia eta indarkeria guztiz gaitzesgarriak direla. Baina inoiz sexu-lanaren benetako amaiera etorriko bada, ezinbestekoa izango da pertsona marjinatek jada sexu-industriaren beharrik ez izatea beren burua mantentzeko, bizirauteko.

Sexu-lana *premiagabea* izan dadin, lan handia egin behar da: lortu behar da askatasunez mugitzeko eskubidea, lan egiteko eskubidea, zerbitzuak erabiltzeko aukera eta deportatua izateko beldurrik gabe lan egitekoa, lanerako alternatibak, gizarte-laguntza hobekak, etxebizitza merkeagoak, laguntza-zerbitzuak eta abar. Jende guztiak beharrezko baliabideak balitu, inork ez luke sexurik saldu beharko.

Helburu hori lehenbailehen erdietsi nahi izateak dakarren bakarra da sexu-langileen segurtasun fisiko eta ekonomikoa ez lehenestea eta, aldi berean, patriarkatuaren aurkako borrokan haiek kanoi-bazka gisa erabiltzea. Kaltegarria da, bere horretan, espero izatea kriminalizazioaren bidez prostituzioari buru-kolpe bat emango diogula eta abolizioa berehalakoa izango dela eta kaltea errotik desagerraraziko dugula. Izan ere, baldin eta gai izango bagina amaiera emateko pobrezia eta mugei (eta hemen azaldutako beste gaitz guztiei), sexu-lana itzaliz joango zen, eta azkenean guzti-guztientzat abolituko zen, benetan atsegin dutezentzat izan ezik.

«Gizonak praktikatzan duen terrorismoa eta gizonezko banakoek praktikatzan dutena»⁸¹⁷

Kontuz liberalismoarekin. Ez da nahikoa zeure burua sexu-langileen aliatutzat jotzea, baldin eta zure politikek egiten duten bakarra bada defendatu «berdintasuna eta errespetua» edo «nork bere gorputzarekin nahi duena egiteko» askatasuna.

Jakina, ez dugu ezer esateko ideia horien inguruan. Etxeetan eta lantokietan, talde estigmatizatu eta baztertuei

817 Black Women for Wages for Housework (1977) «Money for Prostitutes is Money for Black Women», *LIES: A journal of materialist feminism*, hemen eskuratu daiteke: liesjournal.net.

buruzko erretorika onbera –«beste guztiok bezalakoak dira»– gizarte-ostrazismoaren aurkako antidoto eraginkorra izan daiteke. Antzezpena ere tresna politiko ahaltsua da; arrakasta handiko film bat, gertuko senti dezakegun sexu-langile bat protagonista duena, lagungarria izan daiteke «puta hilari» buruzko txisteeikiko zaletasun kulturalari aurre egiteko. Maila guztietan, funtsezko zeregina da sexu-langileen aurkako estigmari aurre egitea.

Halere, sexu-langileen eskubideen aldekoek –baita sexu-langile batzuek ere, noski– askotan uste dute borrokaren arrazoi *bakarra* hori dela, estigmaren aurka borrokatzea, errepresentazio hobego baten alde, «onartuak» izateko eta egiten dugunarekiko errespetua bermatzeko.

Jasmine Suediako sexu-langilea eta aktibista da, eta berari buruz hitz egin dugu liburu honen 2. atalean. Bere seme-alaben aitak heriotzeraino sastakatu zuen, eta sexu-langileak bere heriotzaren aurka protesta egiteko elkartu ziren Suediak Londresen duen enbaxadaren aurrean. *Sexköpslagen* legearen kontrako kontzientziazioa zabaldu nahi izan zuten, eta honela zioten karteletan: «Estigmak hil egiten du». Bai, estigmak hil zuen Jasmine; bere hiltzaileak balio gabetzat eta baztergarritzat estigmatizatu zuen, beste horrenbeste emakume estigmatizatzen diren modu berean.

Baina hori irudi osoaren parte bat baino ez da. Heriotzaren garaian, Jasmine eztabaida garratz bat izaten ari zen bere bikotekide ohiarekin, bere seme-alaben zaintza berreskuratuzko; izan ere, haurrak kendu eta bere bikotekide-ohi oldarkorrari eman zizkioten, bera ama egokia ez zelakoan. Suediako gizarte-langileen ustez, ordainpeko neska-lagunaren lana baieztapen horren froga zen. Haurrak gizonari emanda, estatuak egoera larriagotu zuen, Jasminek harekin geratu behar izaten baitzuen haurrak ikusi ahal izateko. Eta, halako topaketa batean, aiztoa sartu eta hil egin zuen.

Ez da nahikoa Jasmineren heriotzaren errua haren bikotekide ohiaren indarkeriaren gainean kokatzea edo heriotza hori alde batera uztea, prostituzioari buruzko legearekin zerikusirik ez duelakoan, iruzkingile feminista batzuek egin duten bezala.⁸¹⁸

818 Bindel, J. (2017) *The Pimping of Prostitution: Abolishing the Sex Work Myth*, Londres: Palgrave Macmillan, chapter 2.

Gizonak hil zuen emakumea, baina testuingurua hau zen: Suediako estatuak beste aldera begiratu zuen, eta barkatu egin zion gizonari bere indarkeriazko historia. Jasmineren bizitzak eta heriotzak erakusten dute misoginiak eta estatuaren mekanismo zapaltzaileek tandemean lan egiten dutela.

Emakumeen aurkako indarkeriari amaiera emateko, ezinbestekoa da argitzea osotasunean nola lan egiten duen. Guztiok ulertzen dugu nola funtzionatzen duen pistola kargatu batek, eta zer kalte eragiten duen. Baina nork du pistola edukitzeko lizentzia? Nork erabil dezake inpunitatez? Noiz eta zergatik eman zitzaien botere hori? Gauza horiek pistolaren katuari eragiten dion pertsonaren asmo hiltzaileak bezain garrantzitsuak dira. Generoan oinarritutako indarkeriari ikuspegi gizatiar batetik egin behar diogu aurre, eta beste estrategia bat bilatu behar dugu indarkeria horri eusten dioten sistemak eraisteko. Irtenbideetako batzuk gainezarri egiten dira. Funtsezkoa da mekanismo horien baterako existentzia sinbiotikoa ulertzea eta arreta «alderdi» bakar batean ez jartzea.

Ordezkaritza gai feminista bat da, eta emakumeak gobernu-batzordeetara, ministerioetara eta diru-paperetara iristeko kanpaina guztiak egokiak dira. Batzuentzat, agerikoa da ordezkariaren eta estigmaren edo errespetuaren arteko lotura. Emakume presidente baten *sinboloa* lagungarria izan daiteke zuzendari-batzorde bateko emakume bakarrari sinesgarritasun handiagoa emateko.

Baina horrek guztiak ez du eraginik izango baldin eta langile-klaseko bizitzen alderdi materiala aztertzen ez bada. Aztertzea, besterik gabe, nola *irudikatzen* dituen gizarteak sexulangileak –haien zapalkuntzaren mekanismoak aztertu barik–, hori keinu politiko hutsa da. Sexu-langileak ikus ditzakegu estigmari aurre egiten, Netflix-eko saioetan protagonistaren rola eginez, Etxe Zurian biziz edo, are, banku-billeteetan azalduz; baina lege-aldaketa eta aldaketa ekonomiko errealik gabe, jende baztertuenak jarraituko du polizia-autoei ihes egiteko itzaletan ostentzen, kalean lo egiten eta ziegetan eta atxilotze-zentroetan ihartzen.

«Boterea munduko emakume prostituta guztientzat, boterea emakume guztientzat»⁸¹⁹

Hasieran esan dugu lan hau ez dela oroitzapen pertsonalen liburu bat edo ahalduntzeari buruzko istorio bat. *Ahalduntze* hitza askotan azaltzen da sexu-lanari buruzko eztabaidetan. Gehiegi erabiltzen da, baita satiraren esparruan ere (adibidez, hedabideetan, erdi-mailako klaseko sexu-langileei buruzko deskribapenetan), zenbait konturi buruz hitz egiteko: iraultza sexuala, bat-batean dirua eskuan edukitzeak eragiten duen zirrara edo norbanakoak sexua saltzeko duen ustezko askatasuna. Azaleko elkarrizketa horietan, diru-truke sexua eskuratzea ekin-tza berez ahalduntzailetzat jotzen da. Ikuspegi liberal hori –hau da: pertsona batek bere kosifikazio sexualetik etekina ateratzeko duen gaitasunak bertan behera utz dezake gu guztion asko quoa– zalantza sakonera bultzatzen ditu feminista kritikako asko.⁸²⁰

Guk ere kritikatzan ditugu «ahalduntze» eta «aukera» terminoen azalpen sinplistik. Nahiz eta sexu-langile bakoitzari dagokion bere bizipenak azaltzea (eta jakinik argudio horiek askotan estigmaren aurreko erantzun defentsiboak direla), guk ere uste dugu, beste feminista batzuek bezala, prostituzioa oro har aukera *gabeziaren* bidez jartzen dela testuinguruan, ez haren ugaritasunaren bitartez.

«Ahalduntzea» arrasto faltsu bat da. Amu gisa erabiltzen dute Interneteko eta sare sozialetako titularretan: «Sexu-lanak ahaldundu egiten gaitu, ala esklabo bihurtu?», «Ordainpeko neska-lagun bihurtu nintzen neure burua ahalduntzeko, baina lortu nuen bakarra izan zen arima hausta», «Niri ere gertatu zitzaidan: ordainpeko neska-laguna izan nintzen zortzi urtez, pentsatuz horrek ahaldundu egingo ninduela, eta ez zen horrelakorik gertatu», «Sexu-langileak eta amak: bai, nire lanak ahalduntzen nau».⁸²¹ Sentimendu pertsonalen aipu horiek elkarrizketa askoz

819 English Collective of Prostitutes (ECP) (1977) «Supporting Statement by the English Collective of Prostitutes», *LIES: A journal of materialist feminism*, hemen eskuratu daiteke: liesjournal.net.

820 «Benetako aukerak izan nahi ditut. Aukera horien artean hautatzeko erabiltzen den sistema aldatu nahi dut, eta ez bakarrik aukerari buruzko hizkuntza erabiltzea, niri mesede egiteko edo ni kontsolatzeko [...] Ahalduntze kolektiboa nahi dut, ez gutxi batzuen aldi baterako ahalduntzea». M. Murphy, «Choice Feminism», *Herizons*, 2012ko uda, herizons.ca.

821 Ravishly (2014) «Is Sex Work Empowering Or Enslaving? 12 Experts Weigh In», *Huffington Post*, huffingtonpost.com; Rebel Circus (2017) «I Became An Escort To

ere korapilatsua goetatik urruntzen gaituzte; kolonialismoari, kapitalismoari eta patriarkatuari buruzko elkarriketatetik.

Sexu-langileen zoritxarrerako, badirudi egitura horiek berriro arretagunean jartzeko bulkadak sumindura-dosi bat ere badakarrela berekin. «Aukeraren feminismoari» buruzko kritikak berotu egiten dira ezinbestean, eta epai garratzak jaurtitzen dira; esaten da, adibidez, prostitutek egiten duten lana ez dela «benetako lana», eta haien estrategietarako argudio ekonomiko legitimoak, *erradikalak ez izateaz* gain, arbuigarriak edo ustelak direla. Meghan Murphy kazetariak honela dio: «“Aukeratzeko” duzun “askatasuna” zure bizitzari dagokion ahalduntze pertsonalari buruz dituzun sentimenduen erakusgarri izan daiteke, baina horrek zu bakarrik askatzen zaitu, eta, gainera, zure “aukera” hori beste emakume baten “zapalkuntzaren” konturakoa izan daiteke».⁸²²

Horrelako baieztapenak gutxitan erabiltzen dira espe-txe-estatuari eusten dioten lanak hartzea «hautatzen» duten emakumeei buruz hitz egitean. Adibidez, prostituzioaren aurkako feminista batek aitortza-moldeko saiakera-lan bat egiten du, asko pentsatu gabe ere izenburu hau izan dezakeena: «Niri gertatu zitzaidan: kartzela maitatzera iritsi nintzen, eta zuk ere maitatuko duzu». Saiakeragileak dio bere bizipenek, «zorionez, kartzelara eraman» zutela, eta eransten du: «Ez nuen sekula pentsatuko kartzelak salbatuko ninduenik. Orain espero dut ni bezalako beste biktima batzuei ere gauza bera gertatzea».⁸²³ Saiakeraren amaieran argitzen da egileak orain fiskal gisa diharduela lanean. Sexu-langileek era horretako saiakera pertsonalak idazten dituztenean –«Oin-pornoa saldu nuen unibertsitatara joan ahal izateko!»–, beti gauza bera esaten diete: «Beharbada zuri ondo joan zitzaizun, baina benetan uste duzu zure bizipenak beste inorena ere ordezkatzeko duela? Pentsatu sistema honek kaltetzen dituen emakumeengan». Inoiz saiakeraren ba-

Empower Myself, But It Only Crushed My Soul», *Rebel Circus*, rebelcircus.com; Femme Fatale (2015) «IT HAPPENED TO ME: I Was an Escort for Eight Years, Believing It Would Empower Me, and It Didn't», *xo jane*, xojane.com; Sless, E. (2012) «Sex worker & mother: “Yes, I AM empowered by my job”», *Mamma Mia*, mamamia.com.

822 Murphy, M. (2011) «The trouble with choosing your choice», *Feminist Current*, feministcurrent.com.

823 Hatcher, M. (2017) «76% of all inmates end up back in jail within 5 years. Here's how I broke the cycle», *Vox*, vox.com.

tek erantzun hori merezi izan badu, atxiloketen eta kartzelaren berrikuspen suhar hau da, zalantzarik gabe. Nolanahi ere, badi-rudi feminismo hegemonikoa erosoago sentitzen dela baldin eta galdera horiek planteatzen dituen Interneten jarduten duten kamera-neskengan pentsatzen badu, ez fiskalengan.

Horri dagokionez, sexu-langileak petxeroak izaten dira asko-askotan. Nabarmenki prostituzioaren aurkakoa den erakunde feminista batek dio prostituzioak ingurumen-kalte handia eragiten duela, sexu-langileek botika asko erabiltzen dituztelako (ustez, ahotik hartzeko antisorgailuak) eta makillatu egiten direlako.⁸²⁴ Aitzitik, ez dugu horrelako arbuio orokorrik ikusten ezkontza-kontratu patriarkalari ahal bezain ondo aurre egin dieten feministenganako. Eta ez genuke ikusi behar. Mundu guztiak ez dauzka ezkontza-instituzioa eraisteko baliabideak; eta instituzio hori emakumeen behar ekonomikoek itxuratzen dute, prostituzioarekin gertatzen den antzera.

Aldizkari koloretsuetan agertzen ez diren sexu-langile batzuentzat, «ahalduntzea» zera da: gaitasuna izatea migratu eta pobreziatik ihes egiteko, etxejabe lukurrei ezetz esateko, gau-eskolara joateko edo tratu txarrak ematen dizkion bikotekide batengandik segurtasunez aldentzeko. Eztabaidatu beharrean ea sexu-langileek zoritxarraren aurrean lortzen dituzten garaipen indibidualak «benetako feminismoaren» parte ote diren, erabilgarriagoak diren beste galdera hauek egin behar genituzke: Zerk kendu die boterea? Nola berreskura dezakete?

Sexu-langileontzat, oraindik baliatu gabe dagoen botere-iturri nagusia ez da sexu-askatasuna, iraultza soziala edo, are, dirua, baizik eta elkartasuna. Sexu-langileen komunitatea azkar zabaltzen ari da, jendea ohartzen ari delako zer indar duen elkarren ondoan lan egiteak. «Hiru urtez, bi bizitza bereiz izan nituen: emakume baten bizitza eta prostituta batena», dio Barbarak; Lyonon (Frantzia) eliza bat okupatu zuten sexu-langileen buruetako bat da, eta hortik abiatu zen sexu-langileen mugimendu modernoa. «Eta egun batean, beste batzuekin hizketan ari nintzela, ohartu nintzen ezin genuela horrela jarraitu». Lyoneko okupazioari buruzko albistea zabaldu zenean, Frantziako sexu-langile guztiek hari jarraitu zioten: hurrengo astean, elizak

824 Object! (@objectUK), Twitter, 5:39 a.m., 2018ko martxoak 3.

okupatu zituzten Frantziako beste hainbat hiritan, hala nola Paris, Marseilla, Grenoble, Saint-Étienne eta Montpellier. Ideia hunkigarri eta itxaropentsua zen: polizia jakarritako prostituta batek halako batean eliza bat indarrez hartzea, dozenaka lagunekin batera. «Gutako inor ez da kartzelara joango», oihukatzen zuten protesta-egileek ausarki. «Poliziak elizaren barruan saraskitu beharko gaitu».⁸²⁵

Hamarkada berean, baina mundu erdi bat harago, Gabriele Leite brasildarrak ere antzeko ideia bat izan zuen. 1978an, poliziak bere laguna hil zuen, eta, horren ondoren, Gabriele kaleko bizitzari buruz hitz egiten hasi zen jendaurrean.⁸²⁶ Auto-stop egin zuen berak bakarrik herrialde osoan, *putas revolucionárias* mugimenduaren bere ikuspuntua zabaltzeko, eta kalean eta burdeletan ezagutzen zituen guztiak antolatzen bultzatu zituen: esanekoa egiteari uko egin ziezaioten, zapalkuntza amorrazio bihur zezaten, eta beren istorioen protagonista bilaka zitezten.

Inork ez digu boteririk emango: ez poliziak, ez gure nagusiek, ez gure bezeroek. Boterea irabazi egin behar da, beti. Guri dagokiguna hartu behar dugu, Gabriele eta Barbara ekintzaileek duela lau hamarkada erakutsi zuten bezala. Haiek bazekiten gaur mugimenduak dakiena: inork hitz egiteko aukerarik ematen ez badigu ere, horrek ez du esan nahi ahotsik ez dugunik. Gobernuaren eraikin baten aurrean deportazioaren aurka protesta egiten duten berrogei sexu-langileren oihuak erraz entzun daitezke.⁸²⁷ Trafikoa oztopatzen duten ehun sexu-langile erraz ikus daitezke.⁸²⁸

Sexu-langileoi besteen esana entzunarazi digute; orain, gure txanda da. Ez dugu behar inork mugimendu feministara gonbidatzerik. Beti hor egon gara. 1977an, Soldatak Etxeko Larentzat Mugimenduaren aldeko Emakume Beltzek (*Black Women*

825 Aroney, E. eta Beressi, J. (2015eko irailaren 16a) «La Revolte des Prostituees [Prostituten iraultza]», RTBF (Brussels) eta Radio France Culture, bideoa, Vimeo (erabiltzaile-izena: In The Dark), vimeo.com/139457788, ingelesezko transkripzioa: religiondocbox.com/Atheism_and_Agnosticism/75007623-La-revolte-des-prostituees-produced-by-eurydice-aroney-for-rtbf-brussels-and-radio-france-culture.html.

826 Leite, G.S. (1996) «The prostitute movement in Brazil: Culture and religiosity», *International Review of Mission* 85:338, 417–26.

827 Sex Worker Advocacy and Resistance Movement (SWARM) (2017ko maiatzaren 15a) «Shut Down Yarl's Wood», SWARM, swarmcollective.org.

828 Davidson, T. (14 June 2014) «Toronto sex workers protest new prostitution legislation», *Toronto Sun*, torontosun.com.

for Wages for Housework) honako hau esan zuten: «Gizonek pobrezian bizitzera behartzen gaituzte, eta guk uko egiten diogu pobrezia horri; prostitutaren lanaren parte bat da uko horrek duen kostuaren adibide izatea, beste emakume batzuen zartailu izatea». ⁸²⁹ «Emagaldu bat bezala tratatua» izatearen mehatxuak gurekiko distantzia gordetzera bultzatzen ditu emakumeak; baina puta batek boterea borrokatzeko duen moldea baliagarria da guztiontzat.

Prostituzioari buruzko politikek ez lukete ekarri behar emakumeen arteko etsaitasuna, baizik eta haien arteko elkarlana. Gainerako guztiek bezala, sexu-langileek ere etorkizun hobea nahi dute, non jende guztiak berari dagozkion baliabideak eskuratuko baititu eta non superbibienteek sendabiderako eta justiziarako aukera izango baitute. Guk imajinatzen dugun etorkizun horretan, iraultza eta erresistentzia feminista prostituten espiritu lotsagabeaz blaituko da, zeinek eskatzen baitute segurtasunez lan egin ahal izatea, lanaren ordaina jasotzea eta beren ahotsei jaramon egitea. Soldatak Etxeko Lanentzat Mugimenduaren aldeko Emakume Beltzek dioten bezala, «prostitutak garaile direnean, emakume guztiak dira garaile».

829 Black Women for Wages for Housework, «Money for Prostitutes is Money for Black Women».

ESKER ONAK

Asko zor diogu gure komunitateari, eta pozgarria da oso horrelako zorrak edukitzea eta jendaurrean aitortzea. Liburu hau idazten ari ginelarik –eta baita lehenago ere, artean gure ikuspegi politikoa eraikitzen ari ginela, (ia) azken hamarkada osoan–, jende askorengandik ikasi dugu, eta jende askoren babesa jaso dugu. Agian, lehen-lehenik, Luca-ri eman behar dizkiogu eskerrak; berak ekarri gintuen komunitatera, eta lan ikaragarri handia egin du, eta egiten du, gehiena ikusezina, Erresuma Batuan sexu-langileen komunitate bat badela ziurtatzeko. Eskerrik asko, Jo Breeze, proiektu hau amaitu ahal izateko bidea eman zigun egitura bat ezartzearen (eta eskerrik asko zuri ere, Breeze txikitxo, gurekin batera egon baitzinen –arteana fetu bat zinela!– prozesu honen zati handi batean). Zuregatik izan ez balitz, beharbada ez genuke sekula amaituko; benetan diogu, Jo.Eskerrik asko, Frankie Mullin, zure babes irmo, adiskidetasun eta zorrotzasunagatik; eskerrik asko, Melissa Gira Grant, zure adore, iruzkin eta lan inspiratzaileagatik; eskerrik asko zuri ere, Chloë, horrenbestegatik, baina batez ere Magdalenaren garbitegiei buruzko hausnarketengatik eta zure lasagnagatik. Eskerrik asko, Charlotte Shane, zure idatziengatik eta ahizpatasuneko maitasunagatik. Eskerrik asko, Niki, Laura, Cari, Sarah eta ECPko emakume guztiei: zuen indarra, zuen komunitatea eta zuen sexu-langileen aldeko borroka irmoa maitasun-eredu dira. Jende askok (baita jada aipatutako askok ere) irakurri duzue zirriborroa, osorik edo zati bat, eta iruzkinak egin dizkiguzue. Eskerrik asko horretan jardun duzuen guztioi; zuen hausnarketek, adorea eta –batzuetan– zuzenketa zorrotzek hitzez adieraz de-

zakeguna baino gehiago lagundu digute. (Geratu diren akatsak, noski, gureak dira). Eskerrik asko, Emily Dall’Ora Warfield, Zoé Samudzi, Jenn Clamen eta PJ Starr. Eskerrik asko, Janet Eastham, Hamish Allen, Alison Phipps, Sarah Woolley, Meg-John Barker, Brit Schulte, Justin Hancock, Sarah Dorman, Sami, William eta Natalie Huntley-Clarke, Clare Havell eta Hollis Robin. Eskerrik asko, Tom Peters eta Tom Sissons; zuen optimismo eta adoreak noranzko egokirantz bultzatu gintuen. Eskerrik asko, Ray Filar, zure babesagatik eta zurekin batera Wiltshire-n igaro genuen denbora zoragarriagatik; eskerrik asko, Ash, hiru bidaiatan sexu-langileen eskubideei buruzko solasa entzutearren; eskerrik asko SCOT-PEP erakundeari – batez ere, kide hauei: Stew, Staci, Fiona, Raven, George, Jewel, Jamie, Lily eta Fran. Eskerrik asko SWAR-Meko kide guztiei: Ethie, Catty, Caoimhe, Yigit, Jordan, Vanessa, Priscilla, Travis, Jet Young, Grace, Fez, Aggie, Martha, Konsequent, Lauren, Daisy, Emma, Amber, Harley eta Nikita. Eskerrik asko, Dani Anderson (batez ere, zirriborroari buruz egindako iruzkin xarmangarriengatik; badakizu izugarri gustatu zitzaizkigula), Justin, Nine, Bridget Minamore, Aisling Gallagher, Marika Rose, Clark, Naomi Beecroft eta Nell. Eskerrik asko, Ruth Jacobs, «Arrasto viktoriarra»ri buruz egindako iruzkin bikainengatik. Eskerrik asko, Lilith Brouwers, «Zirkulu magikoa» atalean eskainitako laguntza baliotsuagatik. Eskerrik asko Lackett Retreat-en egon zineten guztiei, bereziki Eleanor Newman-Beckett-i, gure irakurle ideala gorpuzteko eskainitako laguntza ezinbestekoagatik. Eskerrik asko, April, Alice eta Devon, hor egotearren. Eskerrik asko, Jennifer Moore; zure adiskidetasun samurrak eta izaera tematiak pertsona hobeto bihurtu gaitu zalantzarik gabe, eta liburu honi eskaini diozun arreta adeitsuak gure lana zorrotzu eta argitu du modu askotan. Eskerrik asko, Tash, zuk-dakizun-horrek eskainitako laguntza apartagatik. Maitasuna eta esker ona zuri, Laura Lee; zoritxarrak eraman zintuen, lan hau amaitzeko prozesuan murgilduta geundela. Sexu-langileen alde egin zenuen lan tinko eta nekaezina inspirazio-iturri da guretzat. Zure mira sakona dugu, eta askotan oroitzen gara zutaz. Eskerrik asko zuen testu, gogoeta eta lanarekin gure pentsamendua eta ulermena ikaragarri moldatu duzuenoi. Horri dagokionez, eskerrik asko, Sarah Mann, Charlotte Cooper, Sofie Buckland, Mariame Kaba, Laura Agustín, Peech, Wendy Lyon, Reni Eddo-Lodge (zure

lanagatik, oro har, eta liburu bat idazteko proposamen adeitsu eta aproposagatik), Nic Mai, Thierry Schaffauser, Chi Adanna Mgbako, Jay Levy eta Julia O'Connell Davidson. Eskerrik asko, Carol Leigh, Gail Pheterson eta Nickie Roberts. Eskerrik asko Katy Simon-i eta *Tits&Sass* webgunearen talde osoari: miresgarria da elkarrizketa sakon eta konplexuetarako espazio bat mantentzeko egiten duzuen ahalegina. Eskerrik asko bihotz-bihotzetik mundu mailako sexu-langileen eskubideen aldeko mugimenduari, zeina egunero antolatzen baita mundu hobeago bat eraikitzeko eta zeinari horrenbeste zor baitiogu. Eskerrik asko Verso argitaletxeko guztiei, inoiz etsi gabe gu babestu eta adoretzeagatik. Esker bereziak, noski, Rosie Warren eta Sarah Grey-ri, hain editore adeitsu, jasankor eta atseginak izatearren. Eskerrik asko Open Society Foundations erakundeari; proiektu hau diruz laguntzea erabaki zenuten, eta horrek denbora ekarri zigun, opari ezinbestekoa. Azkenik, eskerrik asko zuei, Dean eta James. Laguntza ikaragarria eman diguzue, bai materiala, bai emozionala. Mila esker bioi.

